


# BORDAZURI

ZUBIRI'TAR IÑAKI  
(EUSKERAZAINZAKOA)



BORDAZURI

ZUBIRI'TAR IÑAKI  
(EUSKERAZAINTZAKOA)

BORDAZURI

## AURKIBIDEA

Orrialde

NIRE JAIOTERRIA .....	15
PIRMIN .....	23
ONDAPENA .....	41
ANUX-BORDA .....	55
BORDAZURI .....	77
MIMIÑE .....	97
BURRUKEA .....	111
SERMOIA .....	125
ERESTUNA .....	135
TXERU .....	143
ORBELAK .....	153
BITARTEAN .....	165
URIOLA .....	173
ANUX-ADARRA .....	179
ERROTEA .....	183
EUPADEA .....	201
LILLURA .....	223
EKAITZA .....	231
GUDARI .....	241
DUESO'N .....	281
PUERTO DE SANTA MARIA'N .....	331
ETXERA .....	365
ARGI TA ITZALAK .....	375
BIDKO ZOROA .....	381
GOIZALDEA .....	387
EZTEGU-BIDAIA .....	399
AMERIKETAKO IDAZKIA .....	413
BORDAZURI'KO BAKEAN .....	419

Legezko gordailua: BI-604-86

© EGILLEA

Irarkola: I. BOAN, S. A. - Part. de Costa, 12-14  
48010 BILBAO

## AURKEZPENA

*Zubiri'tar Iñaki ezaguna dogu aspaldion euskal-elertiaren arloan. Usterik gitxien dogunean, liburu barri eder baten opari atsegingarria egiten dautso Euskalerrinari.*

*Eta ez beti elerti-arlo bardiñean, batzutan giza-izti giroko gaiak artzen dauz eta euskaldunen bizikerea zelakoa dan azaldu, esaterako OROITZAK bere luburu irakurgarrian. Beste batzutan olerkari biurtzen jaku, bere BIDETIK AMESETAN liburuz.*

*Elebarriak edo nobelak idazten be maisua dogu Zubiri'tar Iñaki. Arrituta geratu gintzazan GALDU edo TXAKUR BATEN GORA-BEERAK argitaratu ebanean, orain bederatzi urte dirala. Gure elebarrietan gitxitan agertzen dan trebetasuna erakusten euskun idazleak elebarri onetan, abere bat irakasle lez artuta, gizonai ezibiea agertzen eutsenean, antziñatik etorriak diran alegien bideari jarraituz.*

*Idazleak elebarriaren bideari oratu dautso barriro be gaur poz aundiaz aurkezten dogun liburu onetan, BORDAZURI liburuan. Au ez da GALDU'ren antzekoa, beste trehebide batzutatik dabil eta beste tankera bateko elebarria da, baiña elabarri irakurgarria ta ederra benetan.*

*GALDU elebarrian, trehebidea ez da kondairazkoa edo edesti lerrodunarena, jazokizunak alkarren parean lez doaz, baiña gaurko elebarri au kondaira-bidetik eta lerro bateri jarraituz doa. Ez dira be antzekoak, oso ezbardiñak baiño, amesaren eta bizitzearen artean dagoan ezbardintasuna dago euren artean.*

*Eskuetan artu dogun elebarri naikoa aundi au irakurtean, beste galdera au egin lei irakurleak, eta galdera ori biziago biurtzen da*

liburua irakurri ondoren: zein izan da idazlearen elburua elebarri au idaztean?

Elburu orokor bat argi dago: Euskerea indartu, zabaldu, sendotu ta apaindu. Euskaldunok idazterakoan beti izaten dogu elburu au geure buruan. Ez ainbeste beste izkuntzetako idazleak, izkuntza andi ta zabalak izanik, sendotasuna be ba-daukelako, baiña gure izkuntza erdi ilburuan aurkitzen da eta orrek benetan arduratzen dau idazlea. Arlo onetan argi agertzen dan Zubiri adiskidearen alegiña esakera barriak edo gitxi entzunak sartzen. Inoz irakurleak bere buruari itaundu bearko dautso: ondo ete dago esaldi au? Eta gramatikara begiratu bearko dau azterpena egiteko. Azkenean ondo aurkituko dau, baiña ertzeko esakerak izaten dira inoz. Zubiri'k ori beren-beregi egiten dau, euskereari zabaltasun eta nasaitasun aundiagoa emoteko eta beste euskalki batzutako esaerak be gure Bizkai'ko euskerara ekarteko ta errira sartzeko.

Baiña ba-dau Inaki'k beste elburu zeatzago bat. Inaki'rentzat, elebarriak euskaldunak erri-miñez jazteko eta bizkortzeko, euskal oituretan sendotzeko bidea izaten dira. Laburrago esateko, ezibidea dira. Era batera eziten da OROITZAK liburuagaz, beste era batera olekiakaz, eta egokien bear ba'da, elebarriakaz. Baiña elebarrien artean be, ezibide bat daroa GALDU elebarriak eta beste bat BORDAZURI onek.

BORDAZURI elebarrian, barru-barruan Euskalerrria da norki nagusi, eta gaiñera arazoz beterik dagoan Euskalerrria. Bear ba'da, lenengo arazo lez agertzen dana, Naparroa dogu. Orregaitik, jazokizunak Naparroan dabe jatorria, naizta Bizkaia'n eta Gizpuzkoa'n izan edesti-arlo on bat. Elebarrian agertzen dan erria, guda larri baten sartu-bearra izan eban erria da eta euskalduna eurak, ez aitzu Naparroa'ko giroa zelakoa zan, alkarren arerio dituan erria.

Ezibide onetan, norki nagusiaren jokabidea eredugarria da gazteentzat naiz elduentzat, irakatsi ederrak dira baita, ez onartzeko, iguñia sortzeko baiño, euskaldunen arerio diranen jokabideak. Gogoratu esaterako, norki nagusiak bere ume-denporan izan eban maisua. Eta dana jazorikoa da, naizta idazleak elebarrigintzak izaten dan irudimenezko lana gaiñeratu.

Eta beste galdera bat be egin geinke elebarri onen aurrean. Zein elebarri-motatarata sartu genduke idazti eder au? Edo zein elerti-giro artzen dau?

Elebarria, zalantza barik, "realismo"-giroan sartzen da eta kondaira dau oiñarri, baiña ez antziñako kondaira edo erdi-arokoa erromatikuak artzen eban lez, eguneko eta idazlearen bizitza barruko kondaira baiño. Lenengo zati baten Naparroa'ko erritxu bateko bizitza agertzen da, eta bigarren arloan, lenengoagaz ondo lotuta, 1936'ko gudaren goraberak. Guda au, gaurko ikuspegiagaz begiratuta, mako-arte edo parentesis luze bat da. Guda aurrean asi zan erri-lana orain barrero artu dau erriak, mako-arte luze ori igarota, antzera jazoten da elebarrian be, norki nagusiaren bizitzan gudea mako-arte andi ta luze bat da eta guda-aurrean sendian izan zan bizitza arduratsua ta baketsua barrero asten da, beste giro baten, guda-ostean.

Gudako jazokizunak bizitasun andiaz agertzen dira. Lenengo gudaldia bera, alkartze baten arerioari be parkatzen dakian euskalduna agertzen dala, baita Artxanda-inguruan edesten dana, mutikoak gintzazala, geuk ikusiko gauza lez artzen dogula. Ez daukaguz aitzuta gudari edo "soldadu" areek eta gudearen igarotea geure begien aurrean. Eta gero espetxeko goraberak, benetako jazokizunak, espetxean izan ziran ainbesteri entzun dautsegun lez.

Arazo guztiak, garrantzirik kendu barik baiña senez aztertzen dauz idazleak: Aberria, gudea, sendia, anaitasuna, erlejiñoa, erri-barruko gorrotoa, irakaskintza, baserriaren aurrerapena, errietako osagilleak, errietako abadeak, baserrietara udaldian etorten diran uritarrak, euskerea, errietako oiturak, euskal-abestiak, aizkolariak, umezurtzak...

Emen daukazu ba, irakurle, eleberri eder bat, Euskalerrriaren kondairan, gure elertiaren kondairan aitzu bear izango ez dan elebarria, bizkaiera garbi eta ederrean idatzita. Zalantza barik elebarri au irakurten ordu atsegintsu batzuk igaroko dozuz. Erriaren alde gudan eta espetxean egona ba'zara, zure egun larri eta estu areek gogoratuko dozuz eta gure kondairako larrialdi aretan kideko izan ez ba-ziñan, orduko goraberak jakiteko ta aztertzeke aukerea izango dozu. Artu ba, eta irakurri.

Olazar'tar Martiñ'ek

## IDAZTAURRE

*Egizko jazokun, asmakizun, eta amesetz oreturiko elebarria eskuetan dozu irakurle maite ori. Zeintzuk zati egizkoak eta zeintzuk beste ames egindakoak izan diran, ez dautzut esango, edeski onek erakarpenetan galduko leuke-ta. Gaiñera, askotan zailla da egizkoa ames egindakotik bereiztea. Gure bizitza, suzmurka, negarrez, eta irribarrez itsasora doan ibai baten antzekoa da, azkenean bidaia ur anditako magalean amaitzeko. Amesak, bizitza edertzen daben lora-atalak dira, batzutan usaiñez beterik agertzen yakuzanak, eta bestetan ozta-ozta igarrita, eldu-eziñak zurrunbillo baten ostentzen diranak, bakar-miñez eta asperenka izten gaituela. Jazokunek soillik ez dabe osotzen gure bizitza. Amesek, margolari baten ukitze emoten dautsoe gure bizitzari, eta olerkaritzaren egoetan munduan zear doanak, bere bizitzaren margozkia are ederragoa biurtuko dau.*

*Elebarri au, Naparra'ko lurralde zoragarriko erri txiki baten gertatzen da geienbat, nire aita zanaren antzekoa. Baderitxat lurralde aretako euskera eresintsua oraindiño entzuten dodala, nire arimea atzo-miñez dardar izten daustala.*

*Liburu bat idazterakoan, euskeraz izanik batez be, idazle bateri zelako euskerea erabiltea burura yatorkon lenengo arazoa da. Niketz, gipuzkera bizi ta osotuan idatziko neukean, baiña alde guztietatik eta erakunde geienetatik bizkaierearen aurka erabilten dan zapalkuntza ikusirik, eta bizkaitar askoren dei larria entzunik, gaur bizkaieraz idazten nire aukera da. Bizkaierari jazoten yakona siñisgatxa da. Orain urte gitxi dirala, bizkaitarren dirua erbestera joian, eta andik maisu erdeldunak bialtzen euskuezan, erri baten oiñarrizko eskubideak zapalduz. Orain, gure dirua Euzkadi'n geratzen da, baiña gure Jaurlearitzak bizkaieraz ez*

dakien maisu ta irakasleak bialtzen dauskuz. Baiña ez ori bakarrik; Bizkai'ko Foru Aldundiak ez dau aalegiñik txikiena be egiten, jagon bear dauan bere lurraldearen euskerearen alde. Siñisgatxa baiña egia. Ez da besterik aren mezuak irakurri baiño, burubagekeri ori egiztatzeko. Euskaldunen artean bizkaieria % 40 inguru da, baiña kopuru ori gaur kinka larrian aurkitzen da euskotar askoren erruagaitik. Biarko negarrek ez dabe bizitzara ekarriko, geuk eriotzera daroagun bizkaieria; ez uste, euskera bizirik ez dan "batuak" bizkaitarren izkuntza illobitik atarako dauala. Onezkeri edozeiñek oartu daiteke (nai ba'dau) bizkaieria benetako kinka larrian dagoala.

Idazkerea dala-ta, zein erabili...? Niretzat arazo au argi dago. Idazkerek ulermenaren zerbitzurako izan bear dau, beraz, errazena aukeratzeko da, eta ñ ta ll aboskatu, eta n ta l idatzi, ele-senaren aurkakoa da. Eta zer esan h'ri buruz...? Euneke amar inguru (Bidaso'z araindikoeke, eta ez danek) darabilen izkia euskaldun guztiai ezarri nai ori, batasunaren ikurritzat aldarrikatuz...? Bene-benetan, ez al-da h mutu orren atzetik politikerririk egongo...? Orain urte asko ez dirala, bagenduan munduko idazkera eredugarri ta errazenetariko bat, eta itzetik-ortzera, zapuztu ta zaila danaz ordezte, arinkeri andia deritxat. Arana Goiri'tar Sabiñ'en idaztarauetan oiñarritutako eta orain urte gitxi arte, erabilitakoaren alde nozue, argiena, errazena, eta burutsuena dalako. Modak edo erabilte barriak ondo dagoz aurrerapideak, ez atzerapideak diranean.


Leku edo errien izenak, osorik ipinten dodaz. Esaterako, Bilbao, eta ez Bilbo. Jakiña da, baserritarrek berba asko laburtzen dabezala itz egitean, eta Bilbo esan arren, ez dogu egizkotzat artu bear, Bilbao erdel itza danik. Bizkaia'n, Bilbao abizeneko millaka dagoz, baiña Bilbo abizeneko bat bera be ez dot ezagutzen. Onezaz gainera, Sestao, Ugao, Igeriñaio etab'ai zergaitik ez a ori kendu, Bilbao'ri egiten yakon lez...? Eta bardin beste erri-izenai buruz, esaterako, Legutiano, Otxandiano, Abadiano etab. Mungialde'n, Laukinitz erriari Laukiz esaten dautsoe euskaldunek. Laukiz benetako izena ba'litz, Laukinitz izena asmatu dauana, ots-izti edo fonetikaren aurka doa, izenak erabilteaz laburtzen diralako, eta ez aldarantziz. Niretzat argi dago beraz, idaztean erri ta leku-izenak osorik idatzi bear dirala, itz egitean laburtzen badira be.

Emen agertzen diran marrazkiak, nire lagun on eta maitia dodan Zabala'tar Juan Martiñ'ek (Txilibitu), espetxeratuta egon gintzanean egiñak ziran, eta idazti onen apaingarriztat eskatu dautsadaz. Eskerrik asko Juan Martin.

"Zer" aldizkariaren zuzendaria dan Olazar'tar Martiñ'eri, euskal idazle jatorra ta lagun zintzoari, nire eskerrik beroenak emon barik ez neuke idaztaurre au amaitu gura. Beragan, onulari ta idazti au argitaretzeko eragille izan dot. Bioakio beraz, nire eskerronezko autorpena.

Egilleak





## NIRE JAIOTERRIA

Naparra'ko Arandibar errian jaio nintzan. Orduetik urte asko igaro izan arren, nire jaioterrria beti lez mendien artean baketsu ta irribarreka datza. Bizitzaren eraso ta zartadak aztarnarik izteke, etorriak lez joaten dira; aren etxeai nire aurtzaroan erien makurren ke-usain berbera darie orain be; kaleek betiko arribillak darakustez, batzutan eguzkipean kiskalduta, besteetan euriz bustiak, edo-ta izotzaz apainduta. Nire erria txikia da; ozta-ozta berreun biztanle ditu. Bidezabal batek zearkatzen dau, eta emendik iparrerantz datzan zatiari goikoa deritxo, eta bestea barriz, beekoa. Erriko berrogei ta amartsu etxeak gitxi gorabeera erdibanatuak dagoz goiko ta beeko auzoen artean.

Goiko auzoan, eta bidezabalaren ertzean, Arandibar'ko eleiza txukuna jagiten da, eleizpe zabal batez alderdi bi babestuak, au da, koruko aldea ta bidezabalera begiratzen dauana. Alde bi oneik ate banaz ornituta dagoz; atzekotik gizonezkoak sartzen dira koruan kokatzeko, eta bestea emakumeek eta neska-mutillek darabille beeko aulkietan egokitzeke. Eleizaren barrukoa garbi-garbi dager margo argiko ormakaz, olezko soru leunaz, eta argizagiz ondo igurtzirik aulkiakaz. Erriko jagolea Kerpa Deuna dan ezker, aldare nagusian aren zurezko irudi bat dago keiñu irrikoa ezpanetan dauala, arandibartarrai adierazo gura izango ba'leusku lez, zerurako giltzarik onena maitasunaz egiña dala. Erpiñean dorrea txairo-txairo jagiten da, ordulari bat eta joale bi dituala. Oneitariko batek orduak eta erdiak jotzen dauz, eresi sarkor alaiaz esan gura bai'leuan: lan... lan... lan... Besteak barriz meza ta bezperetarako deiak

barreiatzen dauz, baita anjelusarena etab... Gitxitan bada be, illotsaren jote itun eta astirotsua aditzen da ibarrean zear. Erriari ondapen edo ezbearren bat datorkionean, orduan joale biek galtzordeia edatzen dabe ozenki, arandibartarren biotzetan iñongo zirrara sortuerazoz.

Izaiez inguraturiko gure obitegi txikia, erritik alde muño baten gainean kokaturik, erriaren aurrez-aurre jagiten da, gure bidaldia an amaitzen dala oroiterazoteko, antza. Benetako bake-lekua da gure illerria, aizeak abaro-artean egindako suzmurraz eta txorien txinta atsedengarriakaz.

Ikastola ta Udaletxea Arandibar-Bekoan aurkitzen dira, etxe uztaidun baten batuta.

Kale-sestran, udaletxea ta pentsu-gordetegia dagoz. Lenengo maillaren eskumaldean, mutikoen ikasgelea, eta ezkerraldean, neskatona. Azkenez, goiko maillean, senar-emazteak diran irakasleentzako bizilekua. Antxiña, ni mutil txikia nintzala, ikastaldiko txolarteetan arkupeetan pelota jokoan giarduan, baiña gero udalak pelota-leku barria eraiki eban, eta an jo ta ke bere biziko leiaketak egiten dira.

Bidezabalak gure arana alderik-alde zearkatzen dau, eta nekez idoro leitekez bazter zoragarriagoak. Bi milla biztanletik gora dituan Aranegi'n, erriburuan, asten da, eta gero sarkalderantz edatuz, gure erritik igarorik, Idurene'rantz abiatzen da; gero, Amilaz gure arane-ko azken erria igarota, oian ederrez ertzeturiko bidezabalak, beste Naparra'ko erritarantz joten dau, Gipuzkoa'ko lurraldea asi baiño len.

Aranegi'z gainera, arana iru errik osotzen dabe, ots, Arandibar, Idurene ta Amilaz'ek. Oneitariko andiena. Idurene dogu bere laureun inguru biztanleakaz, gero, irureuntsu dituan Amilaz, eta irugarrena gure Arandibar dator. Araneko asieran egon arren, Aranegi ez dagokio berez gure aranari, baiña erri onetan iru aran batzen diran ezkerro, geurea artean izanik, danok Aranegi gure aranaren burutzat daukagu.

Aranegi ta gure erriaren arteko bidezabala, alorrez inguraturik edatzen da; gero, Arandibar igarorik, alorrak urriagotzen dira, eta ibarra, larrez eta ariztiz aldizka estalita dager. Idurene'tik arantzago,

ibarra estutu egiten da, gaztaiñondoaz jantzitako mendi aldapatsuen artean, eta alako baten zabalune jori baten erdian, alorrez inguraturiko Amilaz agertzen da. Iparraldean, Izki mendi txairo ta goitsua jagiten da, Ander Deunaren baseleizea erpin-erpiñean kokatua dagoala.

Mendi ori oso aldapatsua da, eta pagadiz eta iradiz estaldutako egiak Arandibar'eraño jaisten dira olatu izugarri baten antzera, erriko goikaldeko etxeak iruntsi naiean lez. Izki'ko egiak Aranegi'n asita, Amilaz baiño arantzago edatzen dira, eta eskintzen dauskun ugaritasuna, iradi, bedardi ta basotan batez be, benetako ondasuna da, bai guretzat bai inguruko errientzat. Arandibar'ko egoaldean, Andutze mendiak asten dira Naparra'ko beste aran batetik baztertzen gaituela. Mendiz baiño, Andutze'ko bazterra muruz osotuta dago, pagadi ta txaparrez ugaritua, lats suzmurlarien artean.

Izki ta Andutze'ko mendien artean, Amilaz'etik baiño arantzago sortzen diran Yandur erreken ur garbi ta apartsuak, zidarrezko eresitan legarren artean digaroe. Yandur-erreak'k Arandibar beekoa mugatzen dau, eta Andutze'ko mendietara joateko, Yandur-zubi deritxon zubia zearkatu bear da. Yandur-erreak'k gure lurraldeari Yandur-arana izena emoten dautso.

Edesti onen asieran, Arandibar'ko Arotzabaita etxean nire sendiarekin bizi nintzan. Gure etxea, besteak ez lako, erritik zerbait baztertua eraiki izan zan, Aranegi alderantz zeozer aldenduta, eta zegokiozan alorrekin bidezabal eta Yandur-erreak'ren artean edatzen zan. Etxe onetan, Jaungoikoaren legepean, aitita, aita, ama, Iñese ta Matxalen nire arrebak eta neu bizi gintzazan.

Aitita benetako gizon zuzen eta ona zan, zuzen eta onik munduan izan ba'da. Jaio nintzanetik bere ardurapean artu ninduan, eta nekez izan nengikean bera baiño irakasle obagorik. Lenengo urratsak egiten irakatsi eustan, baita gero Yandur-arana'ko euskera gozo ta eresintzuaz otoitz egiten be. Biziro maite ninduan bere ekintza guztiek erakusten eustenez, eta nik ordaiñez nire uste on guztia ta zaletasuna, beragan ipiñi nebazan.

Langille andia, bere bnuruari ez eutsan nag-i-unerik izten, baiña zeregiñak ez ebazan zalapartaka beteten, neurritz eta arduraz baiño. Arritzekoa zan iñurri baten antzera egiteko gai zana. Ereti egokiren bat aurkezten yakon bakotxean, berarekin eroan oi nin-

duan, noiz mendira egur edo gaztaiñak batzeko, noiz errira tresna-  
ren bat bearrezkoa zanean, edo-ta osteratxu bat egitera. Orduan,  
aititaren jakintza xaloa neugan isurtzen zan, eta berba bakunakaz,  
ikusten genduan guztiaren barri edo ikaskizunak emon oi eustazan.

Aititaren benetako bereiztasuna, guzurrari eutsan gorrotoa zan.  
Ez egikean guzurtirik jasan, eta niri lenen eta sarrien irakatsirikoa,  
egiarekiko zaletasuna izan zan. Bigarren nabaritasuna, nirekin era-  
billen irakaspidea zan. Ume nintzanetik, miñaren bat artzen ba'ne-  
ban, ez yakon atsegin ni negarrez ikustea. Eregu barik eta nire  
zauri edo odolari ardurarik erakusteke, ezbearren jatorria ta zelan  
urrengoan nire burua zaindu, azaltzen eustazan. Zeregiñen bat bete  
bear ba'neban, zelan egin erakusten eustan, eta gero nik bakarrik  
egin nengiala izten ninduan, eta txarto urteten ba'yatan, barriro be  
ori egitera beartzen ninduan ezetariko laguntza barik. Kementsu  
izaten irakatsi eustan batez be, eta eragozpenen aurrean ez atzera  
egitea, aitzitik, arlo baten zeatz guztiak ondo ausnartuta gero, aalik  
eta adoresuen oztopoaren aurka ekin nengian. Aititaren elburua,  
ni gizon benetakoa billakatu neitela izan zan beti, eta emon eustan  
irakaspene, bere niganako maitasun andiaren ondorioa zan. Gaur,  
aldiaren laiñoen artetik aititaren izaerea erraldoi baten antzera  
dagerkit: ekaitzen artean itsas-argia, eta bizitzaren zurrunbilloetan  
bakez eta indarrez beteriko ur-geldi sakona. Bere gogo-irudia oso-  
tzearren, benetako kristaua zala eratsi bear dot: siñismen andikoa,  
bizitzaren erasoaldi zakarrak iñondiko kemenaz jasaten ebazan.

Aititaren gorputzeko itxurari buruz, goibe erditsukoa zala esan-  
go dot, baiña bai gizon txairo ta malgua, zaintsu ta bizimenez  
beterik. Aurpegian eusko abendearen ezaugarriak agiri zituan, baiña  
beragan nabarmenena, begien itxura irrikoa izan zan, eta aldi berean,  
okotz eta ezpanen irmotasuna. Begi nabar argiak zituan, sarkorrak  
eta nire oldozkun barrukoena igarteko gai ziranak. Ule urdindu-  
na, itxura itzalgarria emotsan adats naroa eban, txapelaren esipean  
kanpora urteteko irrikan. Olantxe zan aitita; itxura ta izatez zuzen  
eta euskaldun jatorra.

Nire aita baztandarra zan. Nekazari-sendi ugari batekoa, zazpi  
anai-arreba izan ziran, eta bera boskarrena izanik, ogibidea etxetik-  
at billatu bear izan eban. Bizitzaren bide ezkutuek bere urratsak  
Aranegi'ko arotz bategana zuzendu eutsoezan, eta an lanari buru-

belarri emonda, laster arotz trebe ta gizon oneritxia azaldu zan.  
Aldi aretan, Arandibar'ko arotza zan aitita, geratu izan yakon  
Kattalin bere alaba bakarrekin, Arotzabaita'n bizi zan, beste izan-  
dako alabea lekaime sartu, ta iru semeak aitaren jarkipena arren,  
Ameriketara joanak ziran-eta. Aitita alarguna zan ezkerro, bere ala-  
barekin bakarrik bizi zan etxean. Lana anditzen joiakionez, lagun-  
tzaille bat artzea erabagi eban. Jardunari zegokiozan artu-emonakaitik,  
aititak inguruko arotz guztiak ezagutzen ebazan, eta aukerapena  
nire aitaren alde azaldu zan. Pozik artu eban aitak aren eskintza,  
eta lankidetzat Arotzabaita'n lanean asi zan. Laster, baiña, Kalatiñ'-  
en begi ederrak eta beragandik erion lillura, aitaren biotzaz jabetu  
ziran, baita onen irudi txairoa neska ederrenaz be, aititari egundo-  
ko zoriona ekarriz. Urte baiño len, ezkondu egin ziran.

Soiñez oi baiño gizon garaiagoa zan aita. Lerden baita sendo  
erabatean, sorbalda gaiñean nik iñoiz ez ikusirik bururik txairoe-  
na eroian. Izan be, ertilarri baten burua zan. Aurpegia V itxuraz  
eraturik, okotz zorrotzaren gaiñean ezpan errimeak marrazten yako-  
zan; begi ameskorren artean kokaturik, sur mee ta zuzena islatzen  
yakon, gaiñean bekoki zabal eta ozkarbia ebal, adats illun-gaztaintzaraz  
inguraturik.

Gizon barrukoia, itz urrikoa zan oldozkun sakonetan murgil-  
duta bizi diranai dagokienez. Berba egiten ebanean, bere itz labu-  
rrak zeazki ausnartuak izan oi ziran, eta etxeko guztiok bere eritxia  
aintzakotzat artzen genduan, aiko-maikotan ibilteke. Izaeraz maza-  
la, abots atsegin eta erakarkoia eban, barruko bake ta oreka adiera-  
zoz. Aita gitxitan asarratzen zan, baiña zerbaitek bere onetatik  
ataraten ebanean, aren sumiña isil eta izugarria zan; oiko begiratze  
ameskorrak dizdir otz, gogorrak erakusten ebazan, eta estaturiko  
ukabilletan azurgiltzak zuritzen yakozanean, orduan ez zan ezerk  
aita geldierazo egian...

Gogo-biotzez benetako olerkaria zan, oldozkun anditasuna  
itzez gitxitan azaltzen baeban be. Txolarteetan sutondoan jesarrita  
egoten zan, irudimenezko egoetan ames-ludiaren zear joiala, ezpa-  
netan irribarre aul bat, eta begi sakonetan gogoaren bake ta argia  
erakutsiz. Aita ta biok etxetik-at urteten gintzazanean, bere edertasun-  
jorena nausitu eziñik, gogo-joranak ekusan guztiaren gaiñean isur-  
tzen yakon, txoriai abestiak edo loreai usaiña legetxe. Oartuerazo-

ten eustazan txiribiri baten egakitze dardartsua, Yandur-erreak'ren aparrezko suzmur zuriak; araneke margo-betetasuna udagoiko egoaize epelak laztanduta; mendien ezkutuak lainoaren negarrez blei-blei; basoen ai-otsak euren ostoaak galtzeko bildurrez ekaitzpean. Txoriak... bai benetan maite ebazala txoriak! Berariz galazota neban txoriak arrapatzea, eta izan be, ez nintzan inoiz bere agintza au austen azartu. Berak inostanez, txoriak ortzi-kaiola yaukalean abesteko egiñak ziran gogoaren atsedengarritzat, beraz burubagekeri ta zuzenbakotasuna litzakigu areik iltea, edo-ta kaiola estu baten jopu egitea... Sortzez olerkari jatorra izanik, bere gogoaren argi biziak, ingurukoak kutsuten ebazan, eta olan oartzeko, neugan be ames egiteko joerea piztu eustan, bera aiñako olerkari bikaiña izatetik urrun aurkitzen banintzan be.

Aitaganako begirune andia baita era berean maitasun bizia nebazan. Txikitarik jadanik bere belaunen gaiñean jesarten ninduan, eta esku laztangarriaz nire adatsa leunkiro igurtziten eustala, nire zoriona neurribakoa zan, abots bigunaz amaika gauza edesten eustazala batez be. Berak kutuntzat ninduan, eta niganako maitasuna itzez adierazo ezarren, isil eta sakon, aren biotzeko barne-muiñetan errotuta nengoala banekian.

Ama, ordea, izatez aita baiño askozaz edegiagoa zan. Gizarteko artu-emonetarako zaletuagoa, barruan erabillazan oldozkun oro berekiko gorde eziñik, jardun alaiaz jaurti ebazan mendietako errekatxuak eresiz beterik aldatz-beera oldartzen diran antzera. Ama Arotzabaita'ko argia zan, eta bere alaitasunak etxe guztia beteten eban. Gurekin ez zanean, zergaitia jakiteke danok bere abotsaren alaitasuna barriro be entzutearren irrikan gengoan, eta gure artean osteragenduan, etxeko itzalak bere aurretik igesi joiazala iruditzen yakun. Abots polita eban, eta gure Euzkadi'ko eresi zaarrak abesten ebazanean, alako zerbait esaneziña nitzaz jabetzen zan. Ez dakit zelan, baiña belaunez-belaun ikasiriko abestiak amari entzuten neutsazan bakotxean, gure arbasoen garaipen, eriotz, maitasun eta itxaropenak sentitzen nebazan nire barruan.

Etxekoandre maratza izanik, tresnarik kutunena inarra eban, eta bai arin eta txairo erabillela! Gurean ez zan auts-izpirik erakutsi egian txokorik; sukaldeko tresnaria apaletan lerroka, lits askoren eguzki txikiak antzera begiratzen ginduezan. Amaren esku trebeak, Arotzabaita bakezko egoitza biurtzen eban. Gauza bakotxa bere

tokian, an ez zan astrapalarik, bear izandakoa idoroteko. Zegokion lekuan aurkitzen zan beti, eta olan ez ba'litz erruduna neu beti, baiña nire ardurabakokeria zuzentzeko, amaika bide jakintsuak erabilten ebazan, erabili be. Zelangura itzitako gauzea, zegokion lekura eroan-erazoten eustan, barriro artu ta lengo tokira eroan eta abar. Amar aldiz egiketa au bete ezkerro, barkatzen eustan baiña ez apaiteko bear izaniko lursagarrak zuritu baiño len.

Oeratzeko azkena ta jakiteko lenengoa, egunoroko mezea entzun eta gero, sua piztu eta gosariak atonduta, iratzarten ginduzan, umeak ikastolarako eta gizonezkoak lanetarako. Jarraian, etxeko leioak zabaldu ta inarrari eutsita, bere biziko burrukea zikinkeriarren aurka izaten eban garaille azaldu arte. Gero, oilloak begiratu, bogadea atondu, bazkaria gertatu... eta olan gaberarte, beti alai, beti irrikoi, bere zorionik andiena, etxeko giztiak pozik eta osasuntsu ikustea zala.

Ama oso liraiña zan. Erriko politena ei'zan gaztaroan, eta orreri ez deritxat geiegikeririk, urte asko igaro izan arren, larmintza bikain-bikaiña badau oraindiño. Arpegia zeozer biribiltzua, ezpan beteak, matrailla zuri-gorriak, begi oztiñak ata adats jori gaztainakara ebazan. Aren billoak eder-ederrak ziran; aita ez eban inoiz gura izan estaldu egiazan, eta amaren adats bikaiña gaiñean batuta buruzapirik bage, begientzat benetako atsegiña zan. Arritzeko ez, beraz, aita beratzaz maitemindu zeiteanik.

Etxeko argia zan, eta beragandik eriozan bizitasun eta maitasunak bere inguruan batuta iraunerazoten ginduezan, erleak erregiñaren inguruan legetxe.

Iñese, arreba zaarrena, ama lako lirain eta maratza etorren, eta aldiaren bidean, amaren laguntzaille egikorra izango zan. Egunen baten, urrean, inguruetako mutil zuur bat gure usotzaz maiteminduko zan, eta berarekin eroango eban etxekoandre zabala biurtzeko...

Matxalen, Iñese baiño iru urtez gazteagoa, aitaren jasekoa zan bai soiñez bai gogoz. Aren begi andi baltzaranak, gogo baten anditasuna iragarten eben. Bere biotza ez zan gai arruntakaz asezten, beste janari batek dei egiten eutsan, beste etorki bat ames egiten eban gure Matxalen maitagarriak...

Nire arrebak argien bereiztearren, Marta eta Maria, Lazaro'ren arriben antzekoak zirala esango neuke.

Ni Iñese ta Matxalen artean Urrilla'ko egun epel baten jaio nintzan. Egun aretan, Arotzabaita'koai poza gorñetako maillaraiño piztu yaken oiñorde bat ebela ikusirik. Aititaren zoriona batez be neurribakoa izan zan, eta besoetan ninduala, bein eta barriz guztiai ziñez esaten eutsen, Arandibar'en ez zala oñdurarte ni baiño mutil bizkor eta ederragorik jaio izan. Gero, zein deitura jarriko eustenaren auzia sortu zan. Aititak niretzat bere izena gura izan eban, au da, Andres, Izki menditik Yandur-arana zaintzen dauan deunarena, eta amak barriz, Juan, aitaren izena. Olan ziarduela, osagillea erriraiño laguntzetik biurtu izan zan aitak, bere erabagia onetaraxe azaldu eutsen: bere izena ta aititarena batera eroango neukez, baiña ez erderaz, euskeraz baiño, Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n batez be urte batzuk lenago sortutako eusko izendegiaren arauz, beraz, ni Yon Ander izango nintzake, oneik baiziran, On Mikel gure osagillearen aburuz zegokidazan eusko izenak. Gaiñera, Mikel Jaunak bere emaztearekin aita-ama besoetakoak izango litzakezala itz emon izan eutsan. Bitartean, aititak pozez ler-agiñean, bein eta barriz auxe iñoan:

—Yon Ander. Ori bai dala benetako izena gure kutuntxuarentzat...!

Urrengo egunean, etxeko guztiak jaiegunetako soiñekoakaz jantzita, eleizara eroan ninduen, eta On Mikel'en besoetan, gure abade On Markel'gandik ugutzapena edo bataioa artu neban. Arrezkero, Arandibar'ko eleiza-idazti baten, izen au dager: Idarroiz eta Arretxea'tar Yon Ander.

## PIRMIN

Txanobaita etxean, Pirmin izeneko mutil bat jaio zan ni mundura etorri nintzan egunetan. Seintxuak argia lenengoz ozta-ozta ikusirik, bere amaren begiak amatau ziran betiko. Pirmiñ'en aitak, Amilaz'en bizi zan izeko mutxurdin bateri, Txanobaita'ra etorri zeitela eskatu eutsan, etxeko lanak eta seiñaren zaindaritza bere ardurapean artu egiazan. Eta Ixidore eritxan izeko mutxurdiña pozik be pozik Txanobaita'ra aldatu zan. Emaztearen eriotzak, baiña, Txanobaita'ko jabea sakonki ukutua itzi eban, eta gaiñera, Ixidore'ren etxe-erabilteak, emakume ganorabakoa zan-eta, etxerako eraspene galdu-erazo eutsan. Baratxe-baratxe, Pirmiñ'en aita zabartu zan, edateari emoten eutsala, ardaoaren otseiña izateraiño. Ondoriotzat, Txanobaita'ko lurrak bere sagasti bikaiñarekin saltzen asi ziran.

Gau baten, etxerantz mozkor joiala, zentzutasuna galdurik, bidertzeko arroil baten amildu zan lo-zorroaren menpe. Gau-izotzak, ames zuri bat azaldu eban, eta goizaldean eleizara joian emakume batek illotzik aurkitu eban. Orduko, Txanobaita'ri ez yakon besterik gelditzen etxea baiño.

Bost urte inguru izango ebazan Pirmin gaixoak umezurtu zanean. Etxea baiño beste jabetzarik ez izanda, iraun-erazoteko, izeko Ixidore'k ez eban beste biderik izan, bere aalmen-giñoan mandataritzari emotea baiño. Etxeko asto erbalarekin, egunoro Arandibar eta Aranegi bitarteko joan-etorria egiten eban. Gure erria txikia zan ezkerro, ez eban okiñik, ezta dendarik be; augaitik, ogia

eta beste motetako gaiak, Aranegi'tik ekarri bear izaten genduzan, eta olan ba, Ixidore'k betebear au bere gain artu eban. Goizean goizik, Ixidore ta astoa Aranegi'ra abiatzen ziran, eta eguberdia barik, bidezabalean zear gure mutxurdiña murriz eta itun biurtzen zan, burua zapi bataz estalduta. Bere ondoan, aztaz baiño urtez eta makaltasunaz zamaturiko astoak erraikion. Bazkari landerra Pirmin'ekin izanda gero, sutondoan jesarten zan, eta igige, ordu beteak emoten ebazan isil-misilka itz ulerteziñak bere buruari esanez. Noizean bein, maite-maite eban bonbil bateri bere biziko zurrutadak emoten eutsazan. Gero, lokuma baten menpe, miin totelaz eta aboari lerdea eriola, abesti aspergarri bateri emoten eutsan bere illobea etxeratu arte. Orduan, onen laguntzaz alboka egiñez, oeratu, eta bere amesen mundu kulunkarian murgiltzen zan.

Ez zan arrigarria, beraz, Pirmin gaixoak katu basati baten bizikerea iraun egian. Laster, norabageen ekanduak artu ebazan orron erri-inguruan ebillela, eguberdian erdizka bazkaiteko ta gabean lo egiteko baiño etxean azaltzen ez zala. Jakiña, Txanobaita'n ez eban aparirik ez beste otordurik izaten, baiña berak inguru-marietan arrapatuturiko aroko igali, intxaur eta gaztaiñakaz, etxeko urritasuna ordeztu oi eban. Pirmin'en sakelak benetako egutegia ziran zein urteko sasoiak aurkitzen gintzazan jakiteko. Udabarria arorik urriena zan ezkerro, txori-arrapatzeari emoten eutsan; udean, bere sakelak, keriza, okaran, mertxika ta madariz andituak ikusten yakozan; udagoian barriz, sagar, ur eta intxaurrakaz; neguan, Yandur-arana'ko gaztaiñik mardoenak bere sakelen ezkutu epelera lilluraturik bai'litzazan labantzen yakozan.

Eroandako ezikereaz, oldez aske ta ernaia zan, baita arlote itzela be. Erriko mutikoek berarekin ibiltea berariz galazota eban, eta izurritua bai'litzan beragandik alde egiten eban. Ezin bestean, erriko maisuak noizgura piper egian izten eutsan, eta agiri zan maisuaren nasaitasuna, gure ardi baltza artaldean aurkitzen ez zanean. Neguan, ikastolara sarrienik etorten yakun eguraldi gordiña zanean batez be, antza, berogarri apur baten billa, eta idaz-maiak bikoitz izan arren, maisuak oneitariko aukeratu baten bakarrik jesarriazoten eban, mukitzuak beste lagunak bakean itzi egiazan.

Izan be, azaltzen ziran ikaskaia buruz, Pirmin'ek ez eban tutik be ulertzen, alde batetik, erderaz izaten ziralako, eta bestetik,

erdi-basatia izanik, ikastea alperriko gauzatzat ebalako. Beraz, an zirauan ikaskideai keiñuak egiñez, edo-ta noizean bein samatik beera arin galtzen yakon sakeletako sakontasunetatik intxaur edo gaztaiñen bat billatuz. Neguko gordintasuna joanda, gure mutillak, txoriak baizen aske, ikastola izten eban urrengo negurarte. Pirmin'ek erakusan begirune bakarra, gure abadearentzat izaten zan, onen biotz-ontasun eta maitasunak erakarrita, urrean.

Ikastolara asi nintzanean, Pirmin eta biok sei bat urtedun izango gintzazan. Goibe erdikoa, zabala ta sendoa zan, katamotz baten malgutasuna era berean ebala. Aurpegiz biribilla eta abo zabalduna, sudur-erpiña gorantz biurtua eban. Bizitasunaz beteriko begi arre ernaiak zuzen-zuzen aurrera begiratzan eben azarriak, eta onein gaiñean, ule-galpar biurria ezigatx bekokian beera etorkion adats naasitik; larmintza bikaiñeko aurpegi zurizka, zikinkeru ugaripean, tamalez, ezaugatxa zan.

Pirmin'en bereiztasunik agirienean, arriak botateko trebetasuna zan; abitiko txoriak lez, eskuetatik arriak urtetan yakozan, eta gaiñera begia nora arrikadak ara. Pelota-jokoan onenatarikoa zan, aurrelaria zanean batez be, txokoan jarten ebazan adore ta arintasunagaitik. Gaiñerakoan mutiko zabarra izan arren, autortu bear da emen adimen argikoa zala, eta umorearen doia eban ezkerro, bere ataraldiai gatza ta piperra erien.

Ixidore, izeko ganorabakoa, mutikoaren egoeratzaz arduratzen ez zan ezkerro, Pirmin, neguan, aita zanaren jake bataz janzen eban, baiña maukak mutillaren neurriari egokituak ez izanik, eskuak beti mauken barruan gordeta egozan. Udean barriz, jake barik baiña onen ordezkondara luze-luzea erabillen, botoibako mauka-muturrak usoak lez egakatzen yakozala, besoak edozetarako erabiltzen ebazanean.

Arritzekoa zan mutikoaren erraztasuna, sorbaldaren igikun soil batz, eskuak sakelen ezkutunetik atarateko zizirikoen antzera, arri bat edo-ta janari-zati bat. Praka nasaiak gerri-inguruan lokarri batz eutsita erabillezan, praka-euskarriek ora-botoirik ez eban-eta. Atzeko zulo ugarietatik ikusmin lotsatiaz, arkondaren zatiak ludi zabalera begiratu oi eban. Oiñetakoai buruz, bardintsu, muturretatik emonkorrak zabaltzen ziran, beatzentzat ikuspegi barrien billa, udean batez be, sasoi onetan abarketak erabillezan-eta. Neguan, oster, iñondiko oiñetako nasaien pean, bere oiñak alde batetik bestera arein barruan oztoporik bage igitzen ziran.

Pirmin'eri mukiak mugabako askatasunaz gora ta beera ibilli oi yakozen, suur-zapiñoen txera maitekorren ardura barik. Zerbaitek poztuten ebanean, bultz adoretuaz eragiñik, mukiak gorako zuzenbidea artu oi eben, eta barriz, zerbaitek arrituta izten ebanean,... ñoo! adierazgarria jaurtiten eban, beerantzako bidea artzen ebela, eta suur-zapiñorik ez izanda, maukaren altzo laztangarrian kokatzen yakozen. Mundu onetan Pirmin'en arritasuna eragintzeko gauza asko zan ezker, gure mutillaren maukak bizitza luzea erakutsen olan eraikiko babespean.

Pirmin eta biok alkarganako ezaguera ikastolan egin genduan. Asieratik mutiko bakan arek, ez dakit zergaitik nigan erakarpen andia piztu eban. Gero ta obeto ezagutzen nebala, ezaguera adiskidetasun biurtu zan, eta egunen bidean ezerk eten egin ez leiken eraspentak alkartu ginduzan. Ain zuzen be, bear utsaz arlotea zan, baita eroian biziera ezeukiagaitik arrapatari porrokatua be, baiña oker guztien gaiñetik, goren eta dizdiratsua, biotzaren zintzotasuna agiri eban, aren tolesbako gogo urretik aztertzen zanean batez be. Beragandik erion zintzotasun orregaitik, urrean, oartu barik bereganatu ninduan.

Bein baten, ikastorduen kanpoko astiune baten, aititak egiñiko pelota batz uztaipetan jarduten nebala, mutiko arlote bat urreratu yatan, eta nire iñarkuna luzaro samar begiraturik, auxe esan eustan:

—Aiko, non ikasi yok pelotea olan joten? Galiziakoa augu, edo...?

—Ez —erantzun neutsan zeozer pipertuta—, Arotzabaita'koa nok, eta eu nor augu ba, Naparra'ko txapelduna, ala...?

—Ni, Txanobaita'ko Pirmin nok —erantzun eustan irribarrez—, eta iri baietz esku bakar batz irabazi.

—Ezetz!

—Baietz!

Eta jarraian, gure biziko jokaldia asi genduan. Ni jokalari egiña izan arren, ezin nengikien ezelan be, Pirmin'ek nire gaiñean isurtzen eustazan pelotakada-zurrunbilloai aurre egin. Txokoan batez be nagusia zan, eta arrigarritzko igarmenaz, baekiazan nire urrengo ekintzak. Azkenean ler eginda, leiaketea galdu neban.

Zurubian gora ikastaldiari jarraitzeko giñoazala, auxe itaundu eustan:

—Zelan deritxoek iri...?

—Yon Ander.

—Aiko, Yon Ander —esan eustan sakel batetik intxaur eskubetea erakutsirik—, intxaur oneik pelotaren truk.

—Ez.

Beste sakelean une batez aztertu ondoren, laban erdoitsu bat atara eban, eta intxaurren gaiñean ezarrita, auxe eratsi eban:

—Eta gaiñera laban bikain au.

—Ezetz.

Orduan Pirmin'ek asperen sakona jaurti eban, eta ikasgelan sartu gintzazan.

Oi lez, Pirmin berarentzat izendaturiko idaz-maian jesarri zan, au da, aurrenetako baten. Ni barriz, berenari buruz saieska jarritako beste baten. Arratsalde aretan maisuak lutelestiko gaitzat Amerika aukeratu eban. Laster baiña, ganbaran artaburu baiño geiago gogaitzen zan Pirmin, burua beso-gaiñean ipiñita, lotan asi zan, gure maisuak adoretz beterik lurralde aretako zeatzak azaldu bitartean. Olan jarduten ebala, bere azalpenik jakingarrienean, Pirmin gaixoari erdiz edegitako abotik, zurrunga itzelak urtetzen asi yakozan. Maisuari bost ardura emoten eutsan Pirmin'ek lo egian, baiña mutikoari iges egiten yakozan orruiek irakastearen jarraipenari eragozten eutsoenez, eretirako gordeta eroian zigorra artu ta plaust! Pirmin'eri bota eutsan. Zigorrak emondako zartadeaz iratzarritako mutilla, ergelaren itxuraz, guztioi begiratzen asi yakun.

—Esaidazu, Pirmin —itaundu eutsan asarez maisuak—, esan dagikeguzu, zertan giarduan?

Oraindiño lo-itzarrik egoan entzumenera, atzeko ikaskide batek esaniko "Amerikatza" eldu yakon.

—Bai, Jauma —isillune baten ostean Pirmin'ek ziur-ziur erantzun eutsan— Amerikatza jarduten genduan.

—Ederto, mutil —maisuk oster—, orain bai al-dakizu non dagoan dalako Amerika ori?

Barriro be, lengo ikaskidearen sasi-itxok: “Iruña igaro ta gero” atzitu ebazan, eta orduan,

—Bai, Jauna —Pirmiñ’ek nasai-nasai—, ara ba... Iruña baiño arantzago.

Zer esanik ez, Pirmiñ’en ataraldiak piztu ebazan barre-santzoak. Zaratea baretu zanean, maixuak barriro:

—Eta orain esango dauskuzu zenbat ataletan zatituta dagoan?

Pirmiñ’ek ingurura laguntza-billa so egin eban. Orain baiña atzetik etorkiozan laguneren sasi-erantzunai ez eutsen ardurarik emon gura. Bere zalantza ikustean, gaisoari laguntzearren atzamar bi jaso nebazan. Nire keiñua ikustean, Pirmiñ’en aurpegia argitu zan, eta.

—Atal bitan, Jauna —erantzun eutsan.

—Ederto —maisuk barriro—, onaiño eldu garan ezkerro, zelan deritxoe atal bioi?

Pirmiñ’en begitarte galdekorra niganantz zuzendu zan. Zelan adierazo, baiña, Ipar eta Ego-Amerika? Ezustean, burutapen bat etorri yatan. Zuku-atzamarra adigarritzat goratuz, lenengo sabaia eta gero sorua erakutsi neutsazan, baiña nire keiñuak, kristau-ikasbidea irakasten euskun gure abadeak egin oi ebazantzat artuta, aurpegia irribarre zabalaz argitzen yakola, irmo-irmo auxe jaurti eutsan:

—Zeruko Amerika ta inpernuko Amerika!

Itz oneik sortu ebezan barre-santzoak, aditu ziran, nik uste, nebazan. Nire keiñua ikustean, Pirmiñ’en aurpegia argitu zan, eta, eskuarrean ogei zartada emonda gero, txoko batera igorri eban orma-aurrean bere gogoetak ausnartu egiazan.

Ikastolatik urtetea, Pirmiñ’en billa asi nintzan. An joian muti-koa bakarrik, txistu bizietan eta eskuak sakeletan, ezer jaso ez bai’litzan. Urreratu nintzakion, eta nire burua zuritzearren, egiñiko keiñuen esangurea azaldu neutsan. Nire itzak entzunda, auxe bota eustan:

—Besteak lakoa az, nire lepotik barre egiteko beti gerturik. Gaiñera, niri bost ardura Amerika bere atalekin. Zer uste yok maisu ergel orrek, Amerika dalako ori erostea asmatzen yoadalado...? Eta i, zorritsu ori ken adi nire begien aurretik, bestelan...

Tximista baizen arin, makurtu zan, eta lurretik arri bat artuta, begiztatu ninduan zemaikor, besoa, eskua ta arria mauka-barruan kulunkatzen yakozala. Arrituta geratu nintzan; ezustean, nik ez dakit zelan, burutapen batek jo ninduan. Eskua sakelean sartu ta artulezko pelotea atara neban, auxe nirautsala:

—Eutso, iretzat, etxean bayoat beste bat-eta...

Ez dot egundo aztuko Pirmiñ’en aurpegitik edatu zan zorionezko itxurea. Axe zan, urrean, berari lenengoz emondako adiguria. Gero, musua irribarre argitsu bataz piztuta, arria jausi yakon, eta esku dardartsuz artu eban pelotea, auxe iñostala:

—Ñooooo...! —eta gero mukiak maukaren laztana billatzen ebe-la—, I az benetako laguna, Yon Ander... gaiñera neuk euri len esandako Galizia’ko ori ez dok egia, pelota-jokoan ederto jarduten yok-eta...

Ukaturik bai’litzan, une batez niri begira egon zan, eta gero bat-batean, illunabarreko itzaletan Txanobaita’rako bidea arturik, begimenetik ostendu yatan.

Arrezkerro, Pirmin gaixoa nire geriza biurtu zan. Erriko beste mutillak izurritua bai’litzan baztertzen ebenez, eta neugan lenengo aldiz bere bakartasuna nork arindu leikion ikusirik, irrika bizian nire laguntasunari oratu eutsan. Laster, berarekin erriko inguruak, Idurene ta Aranegi bitartekoak batez be, ezagutu nebazan, eta egun baten Txanobaita erakutsi eustan. Nire adiskide barriaren jaiotetxea kinka negargarrian aurkitzen zan, eta illobi alakoa zan egoitza aren otz eta goibeltasunak, latz-ikaratu ninduen sakonki. Nork ezagutu utzikin aretan, aspaldiko Txanobaita txukun eta aberatsa?

Atadian, zikinkeria non-nai nagusi agertzen zan jadanik. Korta illunean amaraun anditzarren artean, gabel koloka baten ondoan, Pinto, asto erbalaren isla itun eta ausnarkorra, igige ta isillik marrazten zan motelki, beste itzal baten antzera, bizi izateko adorea galdurik, eriotz aringarriaren begira bai’legoan. Gero, zurubi illun



eta karraskari batetik lenengo maillara elduta, sukalde zabal baten aurkitu gintzazan. Zorionez, igande izanik, Izeko Ixidore etxetik-at zan auzokoekin karta-jokoan, urrean, eta olan nire aukeran zeatz guztiak ikusi aal izan nebazan. Emen be, loikeria nagusi; ormaren aurka mai erren batek ez jaustearren aren euspena billatzen eban; alboko arasa batek mai-ontziri bageko barrukiak erakusazan lotsati; txoko baten, arraska zikin baten gaiñean, itugin antzeko ur-tantak urrumaturiko azpil bi akasturik eta beste ainbeste zali landerrek, lotan zirauen. Sutondoko alde bietan, maia baizen erren aulki bana ikusten zan; bata txikia, Permiñ'ena, eta beste andiago bat, izekoarena. Alde baten sendortxu bat, eta sabaitik eskegita argiontzia, eulien batzar-lekua ain zuzen be, aren itxura baltzak iragarren ebanez.

Etxe aretako leio guztiak ez eben leiarren apaintasunik ezagutzen; oneitariko bat apurtzen zanean, paper bataz ordeztua izaten zan-eta. Olan ba, leioen zear eskaratzera irazitako argi motelak leize baten itxurea emotsan. Soruko ol zaarrek, norberaren ibiltepean, karrask itzelak egiten ebezan, eta zirrituen artetik beeko kortaren uts baltz ozgarria igarten zan.

Pirmiñ'ek beste gelak eta goiko ganbarea erakutsi gura eustazan, baiña ikusiriko landertasunaz ase, Arotzabaita'n nire begira egozanaren atxakiaz baztertu egin neban bere eskintza. Bidezabalerantz laguntzen eustala, zauskada andipean zirudian Pirmiñ'ek, auxe jaurti eustan:

—Nik bayakiat Txanobaita erriko beste etxeak aiña ez dokala. Izeko gaixoa makala dok-eta... ezin yaikezak etxeko lanak bear dozakan lez bete... Gaiñera asmatueik, yozakan urteakaz mandataria izan, bion janaria irabaztearren. Nik neuk sarri entzuna yoat, aita zanaren aldietan Txanobaita'ko etxaguntza, erriko onenetariko izan zoala. Orain, baiña, begira noraiño jausi dokan...

Pirmiñ'ek une batez itz-jarioari eten egin eutsan, bide-ertzean gelditzen zala. Gero, ezustean, biotzaren isuria jabetu eziñik, Txanobaita begiztatzen ebalá, abots urratuaz auxe bota eban:

—Txanobaita, Txanobaita, egunen baten banan-banan zure landasoro guztiak erosiko dodaz, baita antxiña baten galduriko sagasti bikaiña be. Bai, Yandur-arana'ko sagastirik jorienea, orretarako neure bizitza galduko ba'neu be...

Olan ziardua, Pirmiñ'eri aboa dardar egiten yakon, eta illuntzeagatik ikusi ez arren, nik uste, bere begiai malkoak eriezan. Nire lagunari arrituta begiratzen neutsan. Lenengoz, bere arlote-itxura ta guzti, errautspean txingarrak langoxe, garaille agertzen yatan bere kemena ta arbasoakanako zintzotasunaz. Ez dakit zelan, baiña biozkada bakan batek eraginda, uste osoz beterik auxe esan neutsan:

—Euk egingo yok Pirmin, euk egingo yok! Egunen baten Txanobaita jatorreko nagusi betea izango az...!

Saman korapillo bat eratu yatan, eta menperatzen ninduan zauskada garaitzearren, beste barik, ariñeketan Arotzabaita'rantz jo neban.

Andik egun batzutara, gau baten gure txal jaio-barria ikustetik, eskaratzera sartzeko zorian nintzala, atetik etorkidazan autu baten zatiak aditu nebazan. Pirmin eta nitzaz berba egiten zan; entzunguraz jabetuta, ate-ondoan gelditu nintzan eta...

—Bai —amak iñoan—, zalantzaz beterik nagotzu aspaldi onetan. Gaur bertan, Malenbaita'ko Mari'k eleizatik urtetean, gure Yon Ander eta Pirmin sarriegi alkarrekin ikusten dirala esan daust... Ez ete kalterik etorriko gure mutillari? Badakizu sagar ustel batek zelan galtzen dauzan besteak...

Isillune bat, eta aitaren berba irmoa aditu neban:

—Sagar ustel eta osasuntsuen ipuiñari, ipuin ustela deritxat. Orren uste ona ipinten al-doza gure semeagan? Noiztik ona, gaiztakeria ontasuna baiño indartsuagoa izan? Zergaitik argia illuntasunaren bildur izan? Eta gaiñera, nork daki benetan Pirmin mutil gaiztoa danik? Ondo ezagutu neban Txanobaita'ko nagusia, eta azkenengo aldietan izandako aulkeria arren, nik beti oneritxi neban. Emaztea maite-maite ebalako ezin izan ebazan bere bizitzaren illuntasuna ta norabagetasuna garaitu, eta olan edateari emon eutsan, emaztearen aurpegi kutuna, bere moskor-aldietan ikusiko ebalakoan edo... gaixoa...! Orain aren semea izurritua ba'litzan or dozue danek zapuztua, bizitzan zear or-emenka bakarrrik dabillena, txarto amaitzeko epaitua... Bai mutiko errukigarria! Non dago Gure Jau-nak agindutako alkarganako maitasuna? Egun gitxi dira abade Jau-nak eta biok jarduten genduala, eta berak esaten eustanez, biotz

oso oneko mutilla izanik, norbaitek bere maitasuna irabaziko ba'leu, ondo zuzenduta, ezpaibarik beste mutillak lez azaldu leitekela...

Isillune bat, eta aititaren abotsa bereiztu neban, berba nasaiaz auxe zirautsala:

—Ondo esanda, Juan; neuk be ez dot uste Pirmin mutil gaiztoa daitekenik. Ain zuzen be, bizitzaren adurrak orain dagoan egoera negargarrira bultzatu egin dau, baiña nire aburuz, gure Yon Ander'en laguntasuna onuragarria azaldu leitekio. Dana-dala, aurretzean aztertu dagigun arduraz mutil bien jokaerea, ebatzi baiño len, eta ikusagun batez be zelakoa dan dalako Pirmin ori...

Urrengo igandean, mezea entzunda gero, etxean gosaria amaitzeko zorian nintzala, arazoari ardurarik emongo ez bai'leutson, aititak auxe itaundu eustan:

—Ta, eguraldi ederra lagunekin pelota jokoan jarduteko, ezta...?

—Bai benetan...!

Aititak eskua txapelpean sartu, eta buruari atz egiñez nasainasai auxe itaundu eustan:

—Sarritan garaille azalduko az, ezta?

—Aalegiñak egiten dira.

—Nortzuekin jarduten dok ba?

—Erriko mutil guztiekin.

—Batera? —isekari berak, pipea beteten ziarduala.

—Ez, batera ez... geienetan binaka.

Banekian aititaren xedea jardun onetan zein zan, baiña bera zirikatzearen, nire erantzupenak berariz igeskorak ziran.

—Baiña —aititak barrero pipeari amaikagarrenez su emonez— baten bat gogokoena izango yak, urrean...

—Bai, erriko aurrelari bikain bat.

—Nor?

—Txanobaita'ko Pirmin.

—A! Txanobaita'koa —ez-arian lez boṭa eban aititak—. Orren aitita ta biok garai baten artu-emonak izan oi gaienduzan. Zelakoa izango ete aren billobea...? Aiko, Yon Ander, zergaitik ez dok Pirmin ona ekarten neuk ezagutu yaian, aren aitita ta biok ain lagun andiak izan gozakan ezkerro?

—Gura dozunean, aitita.

—Gaur bertan, ekarri yaikek ba...

—Bai, aitita, gero arte.

Bidean zear plazara niñoala, zalantzaz beterik ausnartzen neban etxekoek zelan artuko ete eben Pirmin. Eldu baiño ez, nire adiskidearen billa asi nintzan, eta bereala azaldu neutsan aititaren guraria. Pirmin arrituta geratu zan; nor eta bera etxe apain batera dei egiña izatea...! Pirmin'en ñooooak!!! eta bere maukaren suur-aurkako igurtziak zenbatueziñak izan ziran. Azkenean, auxe esan eustan lotsati:

—Ez al-deritxak, ire etxekoek zeozer arlotetzat artuko naioekanik?

Pirmin baikorra! Zeozer baiño ez...! Bildur nintzan gure Txurri'k berak etxera sartzen itzi ez egian be, baiña nire laguna nasaitzearen, auxe irautsi neutsan:

—Nik ez yoat uste orrelakorik jazoko dokenik, baiña arduraz ibilli guztiak bear dozakan lez agurtzeko, eta ire ñooo! ugariak eta mauken mukiakanako zaletasuna batez be, alde batera itzi, e...?

—Ori nire kontura.

Olan ba, eguberdia baiño len, Pirmin eta biok Arotzabaita'ra abiatu gintzazan. Eskillaran gora giñoazala, Pirmin'en belarrietan ixil-mixilka auxe isuri neutsan:

—Gomuta eik len esana, eta gaiñera ez larregi berbarik egin, gurean barritsuak gogokoak ez dozak-eta...

Sukaldean sartu gintzazan, eta sutondoan bazkaria atontzen ziarduan amak, gu entzutean burua biurtu eban.

—Egunon etxekoandre —agurtu eban Pirmin'ek bere aurpegiak nik sekulan ez ikusiriko irribarrerik dizdiratsuen erakusala.

—Baita euri be —jardetsi eutsan amak zutitzen zala.

Gero, une luze batez arrituta mutillari begiratu eutsan. Non-dik etorriko ete zan txorimalo a? Laster baiña, amak bere arritasuna menperatu eban, eta irribarrez auxe itaundu eutsan:

—I Pirmin az, urrean...

—Bai, Andrea.

—Ia ba, jesarri zaitetze biok sutondoan, otz andia da-ta...

Jesarri gintzazan aulki banatan. Pirmiñ'en begitadak sukalde osoa arakatu eban, eta azkenean, untzatuta lez, sabaian tinkatu yakozan, urdazpi, urdai, ziztor, lukainkak eta abar, dingilizka agertzen ziran-eta. Abo zabalik ango ugaritasuna begizatzen ebalu, bere ezpanak isillik igitzen yakozan, nik uste, barruko ñooak! jabetu eziñik. Nire amak barriz, ezin egikeazan Pirmiñ'egandik begiak kendu, bere beruari, urrean, iñotsala: "baiña nondik urten yaku arlote au?" Alako baten, eta Pirmin zentzua galduta lez, sabaira begira ta begira egoala, ama jagi izan, arasa batetik jostorratzatza artu, eta eskuetan artaziak ebazala, auxe jaurtiki eutsan aginkor:

—Pirmin, ekastak jake ori!

—Eeee? —erantzun eutsan Pirmiñ'ek lo-zorro batetik iratzarrita bai'litzan— jakea...? zein jake, Andrea...?

—Yarabilkan ori.

Otzan-otzan, gure arritutako Pirmiñ'ek jakea erantzi ta emon eutsan. Klisk! Klask! Artazien zartada bi ta jakearen maukak euren zerera biurtu ziran, sutara jaurtitako ondakiñak garrek irusten ebezala. Pirmiñ'en begiak tamalez beterik mauken ondakiñek egiten eban garrari zuzenduak egozan, berekautarako auxe iñoala, urrean: "Ireak egin dok, Pirmin. Zelan konponduko az orain mauka motzakaz? Non ezkutatu arriz beteriko eskuak, eta zelan zuritu intxaur eta gaztaiñak maisuak ikusi barik, eta zegaz suurra igurtzi batez be?"

—Orain ekarri egistazak prakok! —barriri be agindu eutsan amak, jakea atzera emotsala mauka— barrenak josi ezker—, uste al-yok prakak lokarri bataz eusten dozakanik?

Au entzutean, Pirmin aulkitik tximista lez jagi, eta ariñeketan aterantz abiatu zan, baiña une artantxe eskaratzera sartzen zan

aititarekin oztopo egin eban. Onek zearo arrituta beso bateri oratu eutsan, eta irribarrez.

—Baiña nora oa orren arin —esan eutsan—, sorgiñen bat ikusi al-yok?

—Ez daust ba Andra orrek agindu, prakak erantzi dagidazala? —piperra baiño gorriago erantzun eutsan Pirmiñ'ek—. Ez orixe...!

—Baiña aditu egistak —esan eutsan amak barre-gurea ozta-ozta jabetu eziñik—. Ez yausat esan emen kendu yagikazan...! Yon Ander, eroan Pirmin ire gelara, eta oe-gaiñean yagozakan ire prakak jantzi yagiakakala, eta gero erdu zaitetze ona.

Aginduta lez egin genduan eta amak titare, ari ta jostorrazaz Pirmiñ'en prakak atontzen ebazala, baita or-emen adabakiren bat ipiñi bitartean, aiteitak Pirmiñ'ekin autu bateri emotsala, auxe itaundu eutsan:

—Orduan i augu Pirmin Txanobaita'koa...

—Bai, Jauna.

—Zenbat urte bete yozak?

—Ez dakit ziur, baiña nik uste, amabitsu-edo...

—Ikastolara joango az, urrean...

—Aspalditxu onetan bai.

—Zelan aspalditxu onetan —itaundu eutsan aiteitak arrituta—, gero ez al-az joango ala?

—Begira, Jauna, orain otz andia dan ezker, berotzeko joaten naz, baiña otza amaituta, ez nabe andik ikusiko.

—Baiña, mutil, olan ba'yirauk astokillo bat biurtuko az.

—Nire ustez, astokilloagoa da euskaldunai erderaz ikasten bear-tzen gaituana, ezebez ulertzen badogu be.

—Ori egia dok —aititak oldozkor—. Neuk baiña diralako orreik beste izen bataz aitatuko ñeukezak...

Une aretan, aita, Iñese ta Matxalen agertu ziran, eta Pirmin jagi egin zan etorbarriak agurtzarren.

—Kaixo, mutiko! —esan eutsan aitak Pirmiñ'en billoak laztanduz—. Eu augu, urrean, Txanobaita'ko Pirmin, eztok?

—Bai Jauna.

—Ire aita ta biok garai baten adiskide andiak izan gintzoazan eta poztuten nauk benetan i ezagutzeak. Aizu Katalin —jarraitu eban aitak amari ots egiñez— jarri egizu maian beste azpil bat, Pirmin gurekin bazkaltzeko da-ta.

Pirmiñ'en aurpegia pozaren-pozez argitu zan, eta begiakaz aita laztandu eban eskerronezko itxuraz. Zorion utsaz eskerrak emotea aztu egin yakon, eta jakiña, mukiak suur-gorako bidea artu eben bultz adoretsuz.

—Berealaxe —erantzun eutsan amak—, baiña ez ete izango ego-kia izeko Ixidore'ri jakiñerazotea, mutillak gurekin bazkalduko dauala?

—Ez da gauzarik, etxeoandrea —eten egin eutsan lenbailen maira jesarri gura eban Pirmiñ'ek— Izekoa oitu da otorduetan ni ez ikustera.

Ez yat egundo be aztuko egun aretan genduzan jakiak. Aste-ko, indiaba-lapikokoa txarri-saieskiaz eta urdaiaz lagunduta. Gero, giarra tomateakin, eta amaitzeko sagar erreak. Jaiegun guztietan gurean sagardoaz bustiten genduan bazkaria, beraz, egun aretan Iñese'k mai-erdian pitxar bete sagardoa jarri euskun.

Aititak Jaunari eskerrak emonda gero, amak banaturiko laintak jaten asi gintzazan itz egin bitartean. Baiña Pirmiñ'ek ez eban astirik izan autukide izateko. Ijitoaren txakurra baiño gosetiago, buru-makur bere azpillean jarritako indiabai arintasun itzelaz ekiten eutsen, bere burua gosez galtzeko zorian bai'litzan. Gu laintaren erdira eldu baiño len, bere azpilla garbi-garbi aurkitzen zan.

—Aiko, Pirmin —esan eutsan amak— nai al-yok geiago?

—Pixka bat areago jango neuke...

Bigarren jaki orduko, jangaien beroaz eta sagardoak emondako kemenaz, jateari itzi barik, Pirmiñ'en miña lanean asi zan, eta sagar erreak maian agertu ziranean, gure Pirmin berba egiten eban bakarra zan. Nire lagunaren itz-jarioa eten egitearren, lantzean bein maipetik ostikada galantak botaten neutsazan, baiña alperrik; nork

geldierazo berba-lapiko a? Izan be, bildur nintzan alako baten ñooo...! zaratatsu bat jaurti egian, baiña ordurarte ondo oitzen zan. Mukiak be, aren suurrean ondo menperatuta egozan, mauken urri-tasunagaitik, urrean.

Pirmiñ'en berba-jarioaren erruduna aitata zan. Mutillaren gorabeerak jakitearren, nonbait, amaika itaun egiten eutsazan zirikatzaile, eta bai mutil tolesbageak amuzkia irusten ebala...! Asteko, aititak ez-arian lez auxe itaundu eutsan:

—Aiko, Pirmin, ik sagar-mota asko ezagutuko yok, ezta?

Au itauntzea nire adiskidearen jakintasuna zalantzapean jartea zan. Bereala, Yandur-arana'ko igalien barri zeatzak emon eutsazan. Non eta noiz mota bakotxa eltzen zan, baita zein etxeetan onenak aurkitzen ziran be; berarentzat Malenbaita'ko errege-sagarrak ez eben kidekorik. Gero, beste igali guztitako bereiztasunak azaldu euskuzan, baita jakiñerazo be, erriko ikorik gozoenak Arotzabaita-'koak zirala. Iñese'k eta Matxalen'ek nire adiskidearen azalpen jakintsuak abo zabalik entzuten ebezan, eta besteakan sorturiko entzun-gurea ikusirik, adorez bultzaturiko gure Pirmin, gaiñezkatu zan. Berba biziakaz, igalietatik Yandur-erreak'ko karramarroetaraiño joan yakun, beste lagunek jarritako bertolak aztertzea eginbiderik zentzudunena zala. Gero, txori-eizea, ots, zelan arrapatzen ebazan txoriak autua izan zan; arto-aleak galbae ta zotz bat ustiatuz, txoriak galbaepean jarten ziranean, lokarri bateri teink egin, eta orduan txoriak galbae-barruan atxillo geratzen ziran.

Ona eldu baiño len, maiepeko ostikaden bidez, Pirmin isillera-zotea saiatu nintzan, eiza aretarako aititaren iguiña ondo nekian-eta. Jarraian, mutil barrabasak berak katuak ilteko erabilli oi ebazan bideak azaldu euskuzan. Zer esanik ez, ama, Iñese ta Matxalen'en: "Ene...! Kendu ortik...!" eta abar, Pirmiñ'en gorabeerak entzutean. Ni neu bene-benetan ez naz azartzen arazo orren zeetasunak emoten. Pirmiñ'ek errian entzute andia eban katu-jaletzat, eta berak azaldu euskunez, jangai gitxi bardindu daiteke katukiarekin.

Olan ziarduala, aita maitik jagi zan, jaiegunetan oitutako biagoa egitearren, eta sukaldetik urten baiño len, Pirmiñ'eri auxe esan eutsan:

—Aizak ondo, Pirmin: jaiegun guztietan Arotzabaita'ra etorri aiteke gura ba'yok; orretarako, baiña, itz-emon bear yaustak, aurretantzean ez yokala txoririk arrapatuko ezta katu-eizan jardungo be.

—Bai, Jauna, itz emoten dausut.

Pirmin'en poza ez zan edozelakoa: jaiegun oro Arotzabaita'ra! Berarentzat inoiz ez ames egiñiko zoriona... eta barruko atsegiña menperatu eziñik, guztion aurrean, ñooo! ozen, mardula iges egin yakon.

—Plaut...! azkenean bereak egin dau —esan neutsan nire buruari.

Pirmin gaixoak ez ekian zer egin. Gorri-gorri eginda, burumakur eta begiak lurrean untzatuta, ez eban txintik be esaten. Isillune astuna etentzearren, esaten azartu nintzan:

—Zerbaitek Pirmin'en arritasuna eragiten dauanean, didar ori bota egiten dau, baiña ez gogo txarrez. Asmatu egizu, aitita, Pirmin'en atsegiña jaiegun guztietan bazkaiten ona datorkela jakitean...

—Bai —erantzun eustan aititak—, oiudarraren giñoan, bere arritasuna ez dok makala izan. Orain zuek biok jesarri zaitze nirekin sutondoan, eta ik, Pirmin, entzun egistak ondo.

Aitita, oitutako aulkian jesarri zan, eta txingar batz pipari su emoten eutsala, bere aurrean aulki banatan egokitu gintzazan.

—Orain, Pirmin, entzun ondo —esan eutsan aititak pipari pauta-pauta egiñez—. Gu danok pozik gaiagozak i emen sarritan ikusteko, baiña Yon Ander'en aitak jarritako baldintzai, nik neuk beste batzuk eratsi bear yautseadaz. Aurretik auxe: ikastolara egunoro joango az.

—Bai, Jauna —otzan-otzan itz-emon eutsan Pirmin'ek.

—Ez az inoren soroetan ibilliko igaliak eta abar arrapatzeko-jarraitu eban aititak Pirmin'eri tinko-tinko begiratuz—. Zeozer bear ba'yok, ator Arotzabaita'ra ta emongo yak.

—Bai, Jauna.

—Katuak bakean itziko yozak.

—Bai Jauna.

—Eta azkenez, zerbaitek atsegin edo arritasuna eugan eragintzen ba'yauk, itzi ñoooo! itsusi orreik eta aukeratu egik beste esaera bigunagoak, esaterako, Kontxo! edo antzekoak.

—Bai, Jauna —erantzun eutsan Pirmin'ek abots itoaz, ainbeste mugatasunaz lur-jota antzera.

Orduantxe, bezperetarako joale-deia aditu zan, eta aitita jagiten zala, auxe esan euskun:

—Orain joan zaitze bezperetara, eta ez aztu nik esandakoa. Urrengorarte Pirmin.

Eskaratzetik urten—agiñean gengozala, amak dei egin eutsan:

—Pirmin, ator ona apur baten.

Esanekoa, Pirmin urreratu yakon, eta orduan amak jabo ta ontzi bete ur artuta, bere biziko garbialdia aurpegian, belarriak eta guzti emon eutsan, aren didar ito ta pafai ardurarik egiteke. Gero, ule biurria orraztu ondoren, auxe esan eutsan:

—Arotzabaita'ra etorri aitean urrengoan, ekarriko yaustazak ire aita zanaren jantzi batzuk atondu deiadazan ire anditasunari egokitzeko, eta orrezaz gaiñera, astean bein bogadea garbituko yauat, baita aurpegia be bear dokan baizen garbia ez izatekotan.

Gero, urten baiño len, musu bana emon euskun. Amaren musua artzean, Pirmin'ek ezkerronezko itxuraz begiratu eutsan, aingeru baten laztana-edo izan bai'litzan. Gaixoa ez zan alako maitasun-agerpenai oitua.

Bidean zear eleizara giñoazala, nire adiskideari auxe itaundu neutsan:

—Ta, Pirmin, pozik al-ago?

—Pozik esan bear ko, irean emoten yoezak bazkariak kontuan arturik, baiña —jarraitu eban berekautan lez itz egiñez—, Pirmin gaixoa, ireak egin yok...! Ez txoririk arrapatu, eta gaiñera ikastolara egunoro joan; Malenbaita'ko errege-sagarrak ikusi usteldu arte; erriko katu mardoak, gozoak, lapikora barik ire lepotik barre egin; ez gizonkiro berba egin, neskatillak lez baiño; aurpegi ta belarriak

txinpartak atara arte igurtzi... Dana-dala, Arotzabaita'ko janaria ez dok makala, ostantzean...

Une artantxe, bidea mugatzen eban arresi-gaiñean, ormatxori lotsabako bat, guri begira geratu zan. Axe zan Pirmin'ek eroan ezin egikean eupadea. Ardura andiz makurtu, eta arri bat artuta, besoa atzerantz luzatzen ebalu bultzada artzearen,

—Pirmin —esan neutsan—, gogoratu aitak esanikoa...!

Tximistak jota lez, besoa saiets-ondora jausi, eta arria eskutik labandu yakon.

—Ñññññ... Koooontxo...! —Asarrez beterik bota eban, arriari iñondiko ostikadea emoten eutsala.

Ordutik, Pirmin Arotzabaita'koa lez biurtu yakun. Bere olde basatia baratxe-baratxe otzanduten yoiakon, eta Pirmin izateari itzi barik, bere jokaerak eta oiturak nire sendiaren kutsupean, bide barriak artu ebezan, eta etxeko guztien begirunea irabazi eban. Atsegin yakon benetan jaiegun guztietan, gurekin egotea, eta guztiok, nire arrebek batez be, aren esaera gatzdunak biziro ospatzen genduzan. Eta bai berak maite izaten ginduzala...! Aititaganako begirune andia eban; aita ta amari gur egiten eutsen, eta illuntzean gugandik agurtzen zala, amak musu samur bat emoten eutsanean, begiak zorionez gaiñezka dizdiratzen yakozan, eta nik uste, iñoiz ezagutu ez eban amaganako maitasuna, neuregan zelanbait jarri eban. Iñese ta Matxalen'en olde samur, gozoak, beragan neskato guztiekiko itzala sortuerazo eutsan. Eta niretzat... Naikoa da esatea bere burua nire anaitzat jotzen ebalu. Bai, asko maite izaten ninduan bere urrezko biotz tolesbakoaz... eta neuk be, bene-benetan maite izaten neban...

Pirmin'en izaeran gertaturiko aldaketea onuragarria izan ba'zan, neugan sortutakoa ez zan makalagoa gertatu. Berak benetako bizierarantza bide-erdia egin ba'eban, neu be askatasun eta osasunaz beteriko beste baterantz abiatu nintzan. Nerezko olde erabeti, lotsatia, adiskide barriaren ereduaz eraginda, azarriagoa biurtu yatan, eta bizitzak ez ninduan lengo beste kikiltzen, aitzitik, mundua argi barri baten pean ikusten asi nintzan, eta aren eragozpenek burrukarako zirikatu ninduen. Gure Yandur-arana'ko bazter zoragarriak ezagutzen asi nintzan, zabaldirako zaletasun bizia iratzarten yatala, eta zelanbait ames egiten ikasi neban.

## ONDAPENA

Aitaren zuzendaritzapean, etxeko arazoak garrantzi andia artzen asi ziran. Aititaren lankidea izateko Arotzabaita'n sartu zanean, bion xedea zurgintzeari soillik ekitea zan, aitita arotz bakarra izanik, Yandur-arana'ko erri guztietatik etorkiozan aginduak egokiro ez egikeazan zaindu-ta. Etxeko aroztegiaren erredizaren batuz ziar-duala, Amilaz edo Idurene'tik etxeren batetik aulki baten anak sendotzeko edo soru sitsatua barritzeko eta abar, sarritan jazoten yakon iraduz dei izatea. Olan ba, ganora gitxiko egitekoak kendu oi eutsoen lan benetarako bearrezkoa zan astia, baiña beste aldetik, agindu txikiek gero mamintsuagoak ekertsoezanez, aititak ez zan azartzen txikikeriak baztertzeraz.

Azkenean lankide barri baten billa asi zan, eta ondorioz aita lankidetzat Arotzabaita'n asi zan. Olan ba, aitita aroztegiaren geiengintan ziar-duan, eta etxeren batetik dei bat etorkionean, eginkizun ori aitari zegokion. Noizbait aita Arotzabaita'ra ezkondu zan etxeko alaba bakarrekin.

Urte batzutan arazoak ondo samar joan ziran, eta bien artean aisa biziteko baiño areago irabazten eben. Baiña Matxalen jaiota gero, Leitze'tik etorritako arotz bat jarri zan Amilaz'en, eta au zala-ta, Arotzabaita'ko lanak urritu ziran urritu, Amilaz gure arane-ko erririk andiena baizan. Aita baiña, ez zan kikildu, eta bere asmamen joriaz bide barriak ildokatzea erabagi eban, eta arloari ardura andia emon ezkerok, aititaren baietzaz, serrategi bat eraiki izan zan. Egindako mozkiñaz etxeko alde baten estalpe zabala jaso,

eta tximistindarrak eragindako zerra bat erosi eben, enborrak jasoteko ta zerrapean jarteko bearrezkoak ziran tresneriaz.

Orduan, aitak bere gain artu eban salgai ziran baso-saillak eroste. Erosketea itundurik, inguruetako gizon batzukaz zugaitzak lurreratu, enbor eta adar mardoak etxeratu, eta enparaua egurtzat saldu oi eban. Asieratik, arazoez itxura ona erakutsi eben, eta Arotzabaita ondoan enbor eta abezko meta andiak ikusten ziran. Gauzak ondo bajoiazan be, eragozpen andia zan basotik etxerako enborren ekarketea, baita zuraren banaketea be, aitak askotan saillak Erronkari, Aezkoa ta Auritz'en erosi oi ebazalako alde batetik, eta salketak gure erritik ogei ta amar kilometroko inguruan edatzen ziralako bestetik. Salerosketak, jakiña, sarrien Yandurarana'ko barrutian egiten ebazan, baiña olan eta be, bataz beste arazo onek aitari buruauste ugariak emotsazan. Au zala-ta, lenengo irabazteaz zama-berebil edo kamioi bat erosi eban, eta olan arazoak obeto zaindu egikeazan. Aita berez gizon zintzoa izanik, zuzentasuna bere artu-emonetako oiñarria zan, eta ondoretzat irabazteak abiada polita artu eben, Iruña'n garrantzi andiko erosle-taldea sortzeraiño. Egunen bidean, aitik berak, zerrategiko erabiltea bere gain artu eban, aitak ereti ugariagoak basoak eta bezeroak ikertzeko izan egiazan. Andik urte batzutara, zama-berebilla saldu, ta beste andiango bat erosi eban aren orde. "Saurer" zalako kamioi barria, amar tonelada egurketea eroateko gai zan, eta aitak sasoi aretan zugaitz asko erosi izan eban ezker, epeka ordaintzeko baldintzaz erosi eban Iruña'n.

Olan ba, antxiñako zerrategi txikia garrantzi andiko irabazpidea biurtzen asi zan, eta urte batzuen buruan, urrean, nekez eta buruaustez ereindakoak uzta joria emongo leuskigu...

Udazken-aurreneko euriak igaro izan ziran, ego-aize epel orrulariak ordeztuta. Ego-aize... Sorgiñ-aize... Illunabarra urrats lotiaz urreratzen danean, Yandur-arana'ko sorgin guztiak ezkutuneak izten ei'dabez, eta sapak aize-laztan epelean orrazturik, erratzen gaiñean zaldika Sorginlarre'ko zelaira abiatzen dira, toki basati onetan egundoko batzar izugarriak ospatzeko. Gero, gaberdiko yoale-otsak ozta-ozta aditurik, euren eginkizunetara barreiatzen ei'dira begiak dizdir gaiztoz irazekiak, ortz urriko aboetatik ulu bildurgarriak urtetzen yakezala. Batzuk, mendietako larradietara bideratzen dira beor eta

ardiak aren uluak entzunik, otsoaren bildurrez ikara gorrian atxetatik beera amildu daitezen. Beste batzuk, oianeko zugaitzak izugarriro astintzen dabez onein txistu sarkorrek pagousoak iratzarri dagiezan, eta biaramonean nekearen-nekez, eiztarien ezlandapetan pagadietan multzoka illik jausi daitezen. Badira binaka artzaiñen bordetara doazanak be, eta ara elduta, artzaiña bordatik-at urtetan danean nork teillatu-gaiñera arrika egin dauan jakiteko, beste sorgiña barruraturik, esne-kaikua iraultzen dautso.

Sorgin geienak ordea, erri txikietatik sakabanatzen dira kortetako atetan dei egiteko, gau osoan abelgorria ategatu daiten, olan esne urria emon dagian. Beste batzuk etxetako teillak egazka jaurti oi dabez, eta gero iñarra ke-bidean sartuta, etxea keaz beteten da, jarraian etxetik ikusiak izan barik ibiltarren, eta orduan oin-muturrak seintxuaren seaskaraiño urreratzen dira, aboan zear eztarrian putz egiteko, olan gaixoa itotzer estulka iratzarri daiten; gero, gela batetik bestera ixil-mixilka dabiltz etxeko jaunari uzta txarra batuko dauala adierazoz, lanerako leia joan dakion; etxekoandreaki barriz, esamesen barri emoten dautsoe erriko bakea ondatzearren; neskatiñen lo-aldian ames zoroak ereintzen dabez suzmur lilluragarriakaz dirautsiela:

—Itzi errixka onen bizikera aspergarria, eta autu egizu zure edertasunari dagokion uri dizdiratsuen.

Mutillen biotzetan, lurralde barrientzako jorana piztuten dabe, abots eresintsuaz arein belarrietan isurtzen dautsiela:

—Zoaz Ameriketara ta itzi betiko erri ustel au... zuretzat estuegia da-ta...

Yandur-arana'n zear olan ei'dabiltz sorgiñak, ego-aizearen ulu epelek izarrak laztantzen dabezenean, eta oianeko zugaitzai erauzitako ostozoroak lurra negarrez besarkatzen dabenean... Goizaldeko altzo atsedengarrin lenengo kukurruku aditu baiño ez, sorgin guztiak zalaparta bizian ke-bidean gora urtetan ei'dira, eta tximak aize-laztan epeletan orrazturik, euren ezkutunetara uluka igesi doaz. Ego-aize... sorgiñ-aize...

Arratsalde gardena zan. Ikastaldia laster amaituko zan jadanik, eta aizeak jazarritako odei arre-luzangak, Izki mendiko tontor gaiñetik askatasun-miñaz ugerika ikusten ziran. Nor ete zuek baizen

yare ortzi jorian zear egan egiteko...? Joranez beterik nire gogape-nak berekiko berresaten eban, irudimen-besoetan egan egiñez...

Ustekabez, latz-ikara bat nitzaz jabetu zan... Ikastolaren suz-mur guztiak amatau ziran... Erriko yoaleek asieran leun eta gero zalaparta bizian, galtzori-deia barreiatzen eben. Aurreneko ikara-unea igarorik, ikaskideak alkarri itaunka asi gintzazan zer izango ete...

—Ixo mutillak...! —eten egin ginduzan maisuak—, erriko galtzori-deia dogu ori, beraz astrapala barik urten, eta joan gaitezen zemai-tuta aurkitzen dan lekura, eta aalegindu gaitezen urkoari laguntzeko.

Bereala gure buruak bidezabalean ikusi genduzan, eta Pirmin laguntzaille nebala, ariñeketan abiatu gintzazan eleizarantz. Illintzabaita'tik igarotean, atadi-aurrean gizatalde bat alkarri irautsika ikusi neban, eta zeozer jakitearren, ibillerea lazotu, eta euren artean geratu nintzan. Une aretan, Illintzabaita'ko etxejoaunak berbetan ziarduan auxe iñoala:

—Arindu gaitezen unerik galtzeke... Arotzabaita'n ei'da edo...

Zerbaitek min ikaragarriaz biotza estutu eustan, eta begien aurrean lauso illuna eratzten yatala, aalik ariñen etxerantz jo neban. Atzetik Pirmiñ'ek erraikidan didarka, auxe iñostala:

—Itxaron, Yon Ander, itxaron...!

Itsu alakoa bidezabalean zear niñoan, lasterka aretan nire bizi-tza ezarria bai'litzan. Apaizbaita eritxan bidezabaleko azken etxera laster eldu nintzan, eta bereala nire egoitza ikusi aal izan neban. Zerrategiko estalpetik, ke-mordo illunkara ortzi garbian zear jagiten zan, eta onen zurrumbilloen artetik, gar lodi gorriek etxeko saietsa miazkatzen eben. Ezustean, belaunak lazotu yatazan, eta indargetu-rik, bidezabalaren ertzeko arresiari albetan eutsi bear izan neutsan, nire begiek ekusena siñistu eziñik. Alako baten, eztanda izugarria aditu zan teilla-erauntsi batek lagunduta. Zerrategiko estalpeak ler egin izan eban, eta eguratsean zear jaurtitako gar anditzarrak nonai sakabanatzen ziran. "Sauer"en erregaiaren ontziak ler egin izan eban, eta orain aize-zurrumbilloek lagunduriko erregaiaren garrak, Arotzabaita'ko teillatutik arintasun izugarriaz edatzen yakuzan. Nire

ondoan egoan Pirmiñ'en abots dardartia, urrundik bai'letorkidan entzuten neban, beso batetik astintzen ninduala:

—Yon Ander, Yon Ander, gauazan...!!!

Batbatean zentzumenen jabetza berrirabazi neban, eta abiada zoroan etxerantz oldartu nintzan. Laster bidezabala itzi, eta gure-raiño eroian gurdi-bidean zear Arotzabaita'ra eldu nintzan.

Yandur-erreak'tik gizon batzuk suillen bidez ur-ekarketeari ado-rez beterik emotsoen. Alperrik baiña...! Nork amatau zerrategiko ol eta enborretan eratsiriko gar orrulari areik? Nire oldozkunak, bai-ña, ez ziran ama ta aititarentzat baiño. Zer jazoko ete litzakiezan? Alako baten, etxe-ingurutik arein billa niarduala, izara ta burusi-besokada bat eroian ama, etxetik urteten zala ikusi neban. Adatsa-ren sapak matrailletan beera jausten yakozan, aurpegia illentia kaz baltzitua, eta begiak ke ta malkoz gorrituta erakusazan. Ni ikusi-ala, etorri yatan eta besarkatzen ninduala, abots erlatsaz auxe esan eustan:

—Neure Yon Ander maitia...!

Eta geiago esan eziñik, gaixoak negarrari emon eutsan. Gero, barrura sartu gura izan eban ostera be, zeozer geiagoren billa, baiña inguruan egozan emakumezko batzuk ez eutsoen itzi, baita garaiz be, orduko, gure etxea labe gorria biurtu izan zan-eta. Ganba-rako sorua ta abeak gar biziak ziran, eta teillatua zatika amiltzen zan; suak lenengo maillako sorua laster iruntsiko leuke, eta ego-aizeak eragindako garrak leioetatik kanpora miin izugarrien antzera agertu ziran.

Bitartean, aititaren billa asi nintzan, eta luzaro barik arri baten gaiñean ikusi neban buru-makur. Ule urdiñezko burua eskuen artean eutsita, igigetasun osoan murgilduta egoan.

—Aitita —esan neutsan eskua sorbalda-gaiñean ipinten neutsa-la—, ez larritu...

Nire itzok entzutean, burua jaso eban eta... orduan biotzak taupada larria emon eustan. Adatsa, bekain eta betuleak erdi-erreta ebazan, aurpegia baltzez kedarreturik, eta matrailletan beera etsi-penezko malko isil, mingotsak isurtzen yakozan. Amar urtez agure-tuta emoten eban. Erruki andia nitzaz jabetu zan, eta beraganako



samurtasun-isuriak eraginda, bere ule urdiñak laztandu neutsazan. Orduan berba dardartsuaz auxe esan eustan begikerea urrutian galduta, eta beso batatz gerria estutzen eustala:

—Yon Ander maitia, gureak egin dau. Arotzabaita'k ez dau iñoiz bururik jasoko su madarikatu orren erruz...

Gero, isillune baten ondoren, abots motelaz:

—Etxe-barruan lanabesa baten billa niarduala —jarraitu eban—, gure Txuri'ren zaunka ezoituak aditu nebazan. Ez neutsan, baiña, jaramonik egin. Orraitiño, aren aausiak gero ta ozenagoak biurtzen yakozan ezkerro, zerrategira joan nintzan, suzmo txar batek menperatuta. An egoan gure txakurra garrak artutako ol batzua aausika ta aausika. Iñoiz ez lako bildurrak atzitu ninduan, andiagotzen joian suak ikustean, eta aalik ariñen gora joan nintzan. Etxaurretik igaroten zan Arginbaita'ko mutil nagusiari, lenbailen eleizara abiatu zeiten su-deia joteko, agindu neutsan. Bitartean, zure ama ta biok sukaldetik zerrategiraiño, ur-ekarketeari emon geutsan, baiña laster oartu nintzan gaizkabiderik ez egoala. Ego-aizearen putz zakarrak yatorkuzan bakotxean, gar basatiek orru ta orruka, zerrauts, ol eta enborrak irusten ebezan, eta oneitatik sorturiko txinpartek, sua etenbarik edatzen eben; azkenean, kamioiaren estalpea suak inguratuturiko izan zan. Orduko, aldameneko etxeetatik etorritako zenbait gizonak errekatik ur-ekarketeari emon eutsoen, eta laster yoaleen galtzori-deia aditu zan. Amari, etxean artu-ala atara egian esan neutsan... Gero eztanda izugarriaz "Saurer"en erre-gaiak ler egin eban iñongo eztanda ta garren jaurtiteaz, eta orain orra or gure etxea betiko galduta...

Negar-zotiñek aittaren bularra astintzen eben, eta aurpegia eskuen artean estalduta, larritasunaz beteriko negar isil bateri emon eutsan.

Gizon batzuk urreratu yakuzan aittaren atsekabea arintzearren, eta orduan etsipen neurribakopean etxera urreratu nintzan. Etxaurrea neska-mutil eta adiñekoz beterik egoan, danek zarata biziaz euren eritxiak emoten. Abotsen zurrumurrua eta garren kirri ozenak zirala-ta, ez nintzan konturatzen etxe-barruan jazoten zana, baiña leioetan zear lenengo etxemaillea zuzi baten antzera erretzen zala ikusi neban.

Olan nengoala, jendetzearen artetik tximista lakoa Txuri urten eta zuzen-zuzen neugana oldartu zan. Bere itxurean zeozer ez-oitua oartzen yakon, oi eban lez eskuak ez eustazan miazkatzen-eta. Or-emenka ebilkidala, intzira luze ta artegatsuak jaurtiz, oiñak atzaparkatzen eustazan, leku bereizi batera eroan gura izango bai'ninduan; gaiñera, urduri ta atsekabeturik emoten eban.

Jakin-naiaz eraginda, aren jarraian asi nintzan, eta laster etxeko atzekaldera zuzendu ninduan. Ara baiño len, ikusi aal izan neban, Pirmin azkarrak oillotegiko atea zabalduz, gure amabost oillo ta oillarra kanpora ataraten ebazala. Txuri'ri nerraiola, kortako atzekaldean laster aurkitu nintzan. Ona elduta, txakurra atean atzaparka asi zan. Ezustean, latz-ikaraturik geratu nintzan. Garren orruen artean argiro, Apala gure bei gaztearen murrusak eta bere txalarenak etorten yatazan. Gauza siñisgatxa, baiña suak eragindako urduritasun eta zalapartagaitik, aztu egin yakuzan bei ta txala.

Kisketeari ekin neutsan atea zabaltzearen, baiña barruko berotasunaz, urrean, beti arin egon oi zan kisketak, ateari lotuta zirudian, orduan atzera egin neban, eta bultzada arturik, ateari eraso neutsan besagaiñaz jotzen nebala. Kirri laburra ta atea edegi zan, zabalunetik ke-mordo baltzizka, astuna, urtetzen zala. Barrukoa illunillun agertzen zan, eta bapatean, zergaitia jakin barik, bildur izugarria nitzaz jabetu zan, ezpaitu, barrura azartzeke ate-ondoan niraua-la... Orduantxe, izu biziaz arrenkoia, Apala'ren murrusa aditu neban, eta etorria lakoxe ikerea joan yatan. Arnas-artze luzearen ostean, barrura oldartu nintzan...

Ez zan ezer ikusten, baiña ondo nekian norantz jo bear neban, ezkerreko txokora, alegia, ango ganbelean lotu oi genduan-eta. Asmatuta lez, nire besoakaz Apala'ren idun dardartia laster inguratu neban. Ito-agiñean, beia belauenen gaiñean jausita egoan. Aztamuka sokea idoro neban, eta korapilloaren askatzeari emon neutsan, baiña nik uste baiño tinkoagoa izanik eta eskuak dardar egiten yatazan ezkerro, ezin izan neban. Sabaia miazkatuz, gar luze gorritza batek lekua argitzen eban motelki, eta aren dizdirpean, beia begitada larri, eskaritsua eldu yatan. Itotzer, urteteko zorian nintzala lekorean arnas barria artzearen, ukutze biguna oartu... eta Pirmin bera nire ondoan ikusi neban, betiko laban erdoitsua ukabillean eukala. Isiltsu ta bizkor, joaldi batatz gorroikia ebagi eban, eta bereala, alboka ebillen beia ateraiño eroan genduan.

Izerdi patsetan eta zorabioturik, kanpoan gelditu nintzan albetan. Zeozer bizkortuta gero, ondoan neban lagunari,

—Primin —esan neutsan—, orain txala ekarri bear yoagu.

—Bai, oba lenbailen.

Ariñeketan, izu aretan barriro be sartu, eta laster txalaren ondoan aurkitu gintzazan. Abere gaixoa nire eskuen ukutzea oartzean estutu yatan, eta mustur ezoaz matrailla laztantzen eustala, burua nire bularraren gainean ipiñita, marrus aul bat bota eban. Txalak dardar egiten eban, eta aalegiñak egiten ebazan arnasteko. Orduko, beroa jasaneziña zan, eta garrak sabairaiño jagiten ziran. Pirmiñ'ek labanaz txalari sokea ebagiten eutsan une berean, gabelartetik bapatean gar-miikada andia urten, eta billoak kiskaldu eustazan, baiña alabearrez, orduko aterantz giñoazan, eta beste barik kanpoan aurkitu gintzazan.

Ozta-ozta urtenda, begiak izuaren-izuz anditurik eta aurpegia zurbil ebala, ama oldartu yatan, eta min-erazoteraiño besarkatu ninduan, negarrez auxe ziraustala:

—Maitia, maitia, zergaitik egin dozu ori...? Oraintxe bertan jakiñerazo dauste kortara sartu zintzazala, Yon Ander, auxe bai bildurra...!

Une aretan bertan, dunbots ozenaz etxea amildu zan. Labe andi batetik antzera, txinpart-odei gorrizka Arotzabaita'ko erraietatik jagi, eta gero aize-zurrumbillo batek sakabanaturik, illunabarrean ostendu zan. Nire jaiotetxetik ez zan besterik gelditzen lau orma baltziturik, kiskalduak, eta erraiak irusten eutsazan txingartegi andia baiño. Malko bi sua baizen kiskalgarriak isuri yatazan, eta biotza zapalduta, negar etsi bateri emon neutsan...

Gautu izan zan arrezkero, eta begiraleak euren etxeetara biurtzen ziran saldoka. On Markel, gure abadea, urreratu yakun, eta,

—Ez larritu nire maiteok, Jaunak dana atonduko dau-ta. Gauza erabagia da: zuek biok —ama-aititari esan eutsen— Malenbaita'ra joango zarie zer egingo dan ikusi arte. Iñese ta Matxalen, ostera, Illintzabaita'ra, eta zu Yon Ander, aitarekin nire etxean geratuko zarie. Orain, bakotxa bere lekura joan bedi atsedean artzeko, bearri-zanean zagoze-ta. Biar, gauzak argiago ta nasaiagoak agertuko dira.

Aginduta lez egin genduan. Ama, aitita ta nire arrebak esandako etxeetara joan ziran. On Markel, Pirmin eta irurok, barriz, Abadene'rantz zuzendu gintzazan, eta bidebatez, gure bei ta txala, Arginbaita'ko korta zabalean itzi genduzan.

Bidetik giñoazala, buruan nerabillan gau aretan Iruña'tik biurtuta, aitak artuko leuken atsekabe bizia gure ezbearraren barriak jakitean. Ziur nintzan, gizonki, berari zegokion lez artuko leukela, baiña oiñaze itzela barruko sakoneneraiño sartuko litzakio, bere aalegiñak, itxaropenak eta etzekoen etorkizuna ezerezturik ikustean batez be... Nire ondoan joian On Markel'eri ezpanak isillean igitzen yakozan, gure alde otoika, urrean. Pirmiñ'en olde alaiak joana zirudian, eta noizean bein begiak malkoz estalirik, Arotzabaita'ko ondakiñetara so egiten eban. Goian, aize epelak laztanduriko izar agertubarriek keiñu alaiak bialtzen euskuezan, baiña biotzean samintasunaren otza ebilkidan.

Abadene'ra eldutakoan, Pirmin agurturik On Markel'ekin barruratu nintzan. Sukalde txukunean su alaiak zitxarokigun. Gu sartzean, neskame zaarrak ezer esan barik, bekokian musu biguna emon eustan, eta jarraian sutondoan jesarri-erazo ninduan. Gero, On Markel eta neskamea eleizara joan ziran, eta otzez dardar aulki baten kukurio jarrita, ausnartze itunai emon neutsan.

Aldi aretan, On Markel, Arandibar'ko gogo-artzaiña berrogei ta amartsu urteko izango zan, eta gure errira ogetak urte lenago mezakotu barria etorri zan. Benetako artzaiña izanik, bere abadezik erriari onura andia ekarri eutsan, gurekiko maitasunagaitik batez be. Jakintza andiko abadea izan arren, ez zan iñoiz gugandik aldendu gura izan, naiz-eta toki garrantzi andiagoentzat bear baiño merituak izanik. Izatez, bakun, gozoa, beragandik maitasuna eurrez isurtzen yakon, eta aren begiratze argia norberaren begietan kokatzen zanean, bere arimearen ontasuna iragarten eban. Ezkurrik be ez ei'eban, irabaziriko guztia etorri-ala, eskutik iges egiten yakon erriko beartsuenai laguntzarren. Benetako gogo-artzaiña, Markel Jauna barruko bakean eta erriarentzako arduetan aberatsa zan ordea.

Euskaltzale sutsua, bere Burunda'ko euskeraz, gure artean bizi-rik iraun-erazoten eban arbasoen izkuntza. Ondo ekusan, ikastolan erderaz ezarrirako irakaskintzak gure euskaltasunari ekarkion kaltea,

eta bere aldetik zarata gitxiko ekintza etenbako bateri emoten eutsan. Arandibar'ko ikastolan danak euskaldunak izan arren, laterriko agintariak erderaz ikasteari beartzen ginduezan. Baiña... Arandibar'ko eleizean, On Markel'ek Jaungoikoaren legea erabilten eban, eta lege orren erara, gure arbasoen izkuntza maite ta iraunerazotea zegokigun, eta egi au bai eginbidez irakasten euskuala...! Jakiña, irakaspén guztiak euskeraz egiten ebazan, baiña ez ori bakarrik, kalean euskaldunen artean erderazko auturen bat aditzen ebanean, agiraka neurritz egiten euskun ia gurasoakandik ikasiriko izkuntzeaz lotsatuta ete gintzazan. Auzi onetan adore guztia ipinten eban, bai geurea zalako, eta bai burruka ezbardin izanik, aularen aldean jarten zalako. Jaunaren ordezkari oneri esker, Arandibar'ko semeek euskaldun utsak irauten genduan.

Gau aretan, ain zuzen be, nire gogoetak baltzak ziran, eta aitak artuko eban atsekabea etxeko ondapena jakitean, geien larritzen ninduana zan. Ordu erdi igarorik, On Markel eta onen neska-meia biurtu ziran, eta menperatzen ninduan goibeltasuna arintzearen, nirekin jardun atsegin bateri emon gura izan eutsoen, baiña gogoa andik urrun yabildan, itz laburrakaz eta arreta barik arein itaun arraiari erantzuten neutsela. Azkenean ariketea makaldu zan, eta barriro nire naigabea murgilduu nintzan.

Olan nengoala, atadian urrats batzuk aditu ziran, eta jarraian norbaitek atean jo eban. On Markel'ekin ateraiño joan nintzan, eta atalasean islaturik, aitaren irudia ikusi neban. Gure abadeak aitaren eskuak berenetan artu ta maitekiro auxe esan eutsan:

—Jaunagan jarri dagigun uste ona, Juan. Berak badaki olako ezbeurrak zergaitik jazoten diran...

Aitaren aurpegi zurbillak barruko argipean atsekabe bizia crakusten eban, eta begi ameskorrek dizdir motelaz utsari begiratzen eutsoen. Besoetara oldartu nintzakion, eta berba egin eziñik, negar etsi bateri emon neutsan. Aitak isillik zirauan, baiña berak oi eban antzera burua laztandu eustan. Gero, beso batzaz inguratzen ninduala, sukaldera sartu gintzazan. On Markel'ek jesarri-erazo eban aren soin-dardarra ikustean. Jarraian gertaturikoa azaldu eutsan.

—Etxean izan ba'nintz... etxean izan ba'nintz... —esaten eban aitak bein eta barriro..

—Bardin izango litzakean, Juan —esan eutsan On Markel'ek—, sua itzungieziña izan da, beraz ez zaitez alperrik larritu lelo orregaz. Orain aalegindu gaitezen gauzak atontzeko, etxe bat idoroteko batez be. Gero dana bere zerera biurtuko da.

—Etxe barri bat —kezkatari erantzun eutsan aitak—, non baiña...? Nik dakidanik ez da etxe utsik inguru oneitan, eta gaiñera...

—Gaiñera, zer...?

—Ondatuta gagoz, On Markel. Oraindiño kamioiaren sari-erdia zor dot, baita zerrategian izandako egurketa andia be. Nik bezero batzua igorritako salgaiak zor daustez bestaldetik. Ez dakit onezkeror eroldak zelan urtengo diran, baiña nire eritxiz ezkurrik bage urtengo gara, zorretan ez ba'da. Ain zuzen be, leku egokiren bat aurkitzea, orain geien kezkatzen nauana da. Gero... ikusiko dogu.

—Ez larritu etxeagaitik —On Markel'ek erantzun eutsan—. On Mikel Jaunari deia bialduko dautsat biar emen azaldu daiten, eta ondo dakizunez, iñork laguntza emotekotan axe izango da. Baiña naikoa gaurko. Jesarri gaitezen apaltzeko, eta gero lo atsedengarria izan ezkeror, etorkia biar baikorra goa ikusiko dozu, urrean.

Aitak eta biok, On Markel'en aalegiñak arren, nekez iruntsi aal izan genduzan apur batzuk, eta gero, guretzat atonduriko oe biko gela batera joan gintzazan.

Aita aulki baten jesarri zan, eta aurpegia eskuen artean ezkutatuturik, gogoeta isil bateri emon eutsan. Ezin nengikean bere naigabearen isurtzea ardura barik ikusi, aren isiltasuna batez be. Urreratu nintzakion, eta sorbalda-gaiñean eskua jarrita, auxe esan neutsan:

—Aitatxu, ez larritu...! Beste etxe eder bat nonbait egingo dogu, ezta? Eta orduan barriro be lengoak izango gara, zerrategi ta guzti, ezta aitatxu...?

Aitak aurpegi-gaiñeko eskuak aldendu ebazan, eta beso batz nire gerria inguratuz, aboan irribarre makala eratzen yakola, auxe esan eustan:

—Yon Ander, ik ez yakik zelako bakea emoten yaustien ire itzok, baiña egia esateko, ez yaikegu beste etxerik eraiki, guztiz

ondatuta gaiagozak-eta. Jakingo ba'endu egin naiuazan aalegiñak azkenengo aldiotako nasaitasuna lortzearren...! Orain lur-jota naiagok, seme, eta gure zorrai erantzuteko bearrak ezerezten naiok. Ona etorri baiño len, ama, aitita ta ire arrebekin izana nok... eta arein naigabea ikustean aaleginduko nok kementsu ta indartsua agertzearren, baiña gogo-barruan indarge ta itxaropen barik naiagok, seme. Amabi urte baiño ez izanik be, bayakiat gizona azala, eta orregaitik egia aitortzen yautsat. Ik egunen baten egingo yok, urrean, baiña nik ez, Yon Ander... gaiñera, igan jarritako amesak betiko joan yatazak...

—Zeintzuk ames, aita...?

—Asmalari edo injiñeru izan eitean. Beti gogo andiak izan yoadaz bizibide ori artu engian, etorki andikoa dok-eta. Lenengo Iruña'ra bialdu indeidan, eta gero Bilbao'ra asmalaritzaren ikasketak egiteko...

—Baiña, aitatzu, neuri bost ardura asmalari edo dalako ori billakatzea...! Naiago dot Yandur-arana'n betiko bizi izatea, zu ta aititari lagunduz...

Aitari ezpanetan irribarre bat loretu yakon, eta estuago bereganatzen ninduala, bekokian musu bat emon eustan, auxe iñostala:

—Igan uste osoa ipiñita yaukat, seme. Etorkizuna garratza izango yakuk, iretzat batez be, baiña dana-dala ama ta aititaren bizitzak jasankorragoak egiteko saiatu gaitzen. Orain, Yon Ander, joan adi oera... gabon seme...

Oeratu nintzan, baiña egun aretan igarotako nekeak zirala-ta, loa ez yatan etorten. Gelako beste txokoan, aitaren oe-gaiñeko itzulketa urduriak somatzen nebazan, eta bapatean gogotik otoitz au urten yatan:

—Jauna, aitari kendu egiozu naigabea, arren...! Bere gaiñetiko zama astuna neugana aldatu egizu. Langundu egiskuzu bearrezkoa dan etxea idoroteko, Arotzabaita'n izan genduzan bake ta zoriona barriro idoro dagiguzan...! Erruki zakigu, Jauna...!

Lekorean, aize zakarrak leio-zirrituen artean ulu negartsuak egiten ebazan, eta euri-tantoak eresi itunaz leiarren aurka jo ta jo aditzen ziran. Len aizeak eroaniko txinpart batek Arotzabaita ondatu izan eban, eta orain damututa bai'litzan, egindako ondapena odeien malakoak ito nai eban. Beranduegi baiña...

## ANUX - BORDA

Urrengo egunean, Abadene'n gosalduta gero, ama ta aitita ikustearren Malenbaita'ra bideratu nintzan. Ni oetik jagi baiño len, aita Aranegi'ko diru-etxera joana zan, artze ta zordunekiko egoerea argitzeko. Malenbaita'ra eldurik, amak eta aititak Arotzabaita'tik aurreko egunean ataratako gauzak atontzen ziarduen. Izan be, ez gintzazan askoren jabe: izara, burusi ta janzki batzuk baiño ez. Amaren itxurea guztiz ona izan ez arren, lanean jarduteaz zeozer zuzpertuta zirudian; aitita barriz, aguretua ta nekaturik iruditua yatan, eta begietan atsekabe andia erakusten eban.

—Nire ustez —amak esan euskun—, etxetik begiraldi bat emon bearko zendukie, ondakiñen artean zeozer idoroten ete dozuen, bart jausitako euri-jasaz sua amatau-urren egongo da-ta.

Aitita ta biok atzetik Txuri'k erraikigula Arotzabaita'ra joan gintzazan. Ara eldu orduko, gu baiño goiztarragoa izan zan Pirmiñ'ek agurtu ginduzan, ondakiñen artean artertzeari emoten eutsala. Etxeko lau orma billutsen artean, ondakin-meta erabage batetik, ia itzungitako suari ke aula erion.

Gure etxea egoera onetan ikustean, aititari begiak malkotu yakozan, baiña negar egitea alperrikoa zan ezkerro, ondakiñen arteko billatzeari emon geutsan. Andik laster, Iñese ta Matxalen batu yakuzan baita erritar batzuk be, eta guztien indarrak alkartuta, ondakiñak baztertzen asi gintzazan. Errekiñen artean, alabearrez, sukalde-tresna batzuk egoera onean atara aal izan genduzan, ots, lapiko, erratillu, zartagin eta olako gai batzuk, baita suburdiñak eta burrunzia be.

Noizbait, eta dana arakatuta genduala, Pirmiñ'en ezusteko oi u batek erakarri ninduan. Arri andi bataz estalitako urdazpi baten azurraren muturra agertzen zan. Gure biziko indarraldia eginda gero, azkenean urdazpi osoa azalez bakarrik erreta atara genduan, eta jarraian onen ondoan egoan beste bat. Gero, illentien artean zorro bete arto-urun arrigarrero osorik eta erre barik atara genduan. Eguberdirantz billaketeari itzi geutsan, eta irabazitako guztia gurekin geroiala, Malenbaita'ra joan gintzazan, eta emendik Abadene'ra jo neban.

Eldu nintzaneko, gela baten batuta egozan Markel Jaunaren, osagillearen eta aitaren jardun-ots motela aditzen zan, eta antza, garrantzi andiko arazoa erabiltzen, autuak ordu bete iraun ebalako. Noizbait atea zabaldu zan, eta irurak atera bideratu ziran.

Mikel Jauna, gure osagillea, oi baiño goibe txikiagokoa zan, baiña gogo-biotzez gizandia, ontasuna eta adimenez nik ezaguturiko andienetakoa. Yandur-arana'ko iru erriak bere zaintzapean egozan, eta gogo beteaz emotsan osagintzari. Gure abadeak erritarren gogoak maite ebazan legetxe, osagilleak euren geisotasunak amaibako errukiaz zaintzen ebazan, eta sarri askotan, geiso ezeuki baten etxetik urtetean, burukopean dirurik idoroten zan. Idurene'ko arri gorritzako landetxe polit baten bere emaztearekin bizi zan, eta ikustaldiak egiteko, zaldi apaiñaz baliatzen zan. Bai berau, bai beronen emaztea aberatsak ziran, eta Yandur-arana'n, etxe, lur, eta baso askoren jabeak ziran. Zorritzarrez umerik ez eben, eta orregaitik, urrean, utsune au ordezteko, senar-emazteak maitasun biziaz lotuta bizi ziran.

Mikel Jaunaren zer agirienak aren begi oztinēn begiratze maitekorra, eta ezpanen irribarre argitsua ziran. Itxuraz, gure abade ta osagillea guztiz ezbardiñak baziran be, bata luze ta sendoa, bestea naikoa txikia ta argala zan-eta, azalekoa itzirik barrukoari ba'gagozkio, biok urkoaganako maitasunean kidekoak ziran. Bazan beste gauza biziro alkartzen ebazana: euskaltzaletasuna, alegia; bata asaben izkuntzazale amorratua ba'zan, bestea ez zan makalagoa. Biok, gure errian, jori ta bizirik iraun-erazoten eben cuskerea.

On Mikel'ek atadiko bidean aurkitu ninduan, abots kemen-tsuaz auxe irautsi eustan:

—Kaixo, Yon Ander, mutil ernaia! Orain etxekoek ire bearrean

yagozak, beraz, aalegiñak egingo yozak gauzak lengora ekartearren. Esaidak: zein adiñekoa az?

—Amabi urtekoa, Jauna.

—Adin orretarako andi ta sendoa ikusten aut. Jateko gogorik bai al-yok?

—Bai, Jauna.

—Orra or, osagarririk onena. Ekin jateari ta egunen baten nire besoetako ori, egundoko morroskoa biurtuko az.

Itz oneik esanda, zaldiaren abo-ugalai oratuta, aitari zuzenduz auxe esan eutsan:

—Orduan, ebatzita lez, Anux-bordan bizi izango zarie. Etxe zaarra bada be, neure eritxiz egokia da, geroago zer egin jakin arte. Izan be, etxeak atontze ta garbiketa andiak bear izango dauz, berrogei ta amar urteotan utsik egon dalako, baiña zeozer apaindu ezkerro, beste itxura bat artuko dau. Esaiozu Kataliñ'eri, nire emaztearekin egon daitela, bear dagizuezan gauzak emon dagiozan. Eta orain, biotz on! Agur eta ikusi arte.

Latz-ikara batek artu ninduan. Nora ta Anux-bordara! Bizi-bizi oroimenean neukan Yandur-erreka'ko biurgune zabal baten jagiten zan borda zaarra. Lekua ederra zan, baiña etxea...! Pirmiñ'ekin oi neban ibillaldietako baten ara joan izan nintzan, eta...

Egun aretan, Txuri kanpoan itzita, leio baldar batetik barruratu gintzazan. Jarraian, berariz ekarritako kandlea iziotu, eta etxe izugarri aren barrunbeak aztertzen asi gintzazan. Kortan gengoan, eta geroian argi aulpean, inguratzen ginduezan gerizak, ziran baiño andiago ta zemaikorrangoak zirudien. Sabaian beera amaraun lodiak agertzen ziran mordoska, eta nire irudimenak amarratzen talde izugarri baten begi kiskalgarriak eta arnas erailkorra ikusierazoten eustezen. Orma bateri eratsita, ganbela luzea edatzen zan. Gure soiñen itzal erraldoiak beste iru orma billuts eta zikiñetan, dardarez marrazten ziran. Ira ta orbel ustelakaz etaldutako azpikoari, ezotasunezko sunda nazkagarria erion. Bai pozik len sartutako leiotik urtengo nintzakean...! Baiña Pirmiñ'en aldean bildurtizat ez agertzearren, aztertzeari jarraitu neutsan.

Ate koloka bat igarorik, eskaratz zabalean aurkitu gintzazan, eta emen be zikinkeri ta ezotasuna nagusiak ziran. Sutondoan, suburu eder kedarreztua jagiten zan arri-zerrendakaz egiñiko soru-gaiñean, eta inguruko orma billuts bitan, leio bina ikusten ziran. Eskaratzetik eskillara zabala goiko etxe-maillara igoten zan, eta atso baten aboari lez, mailla batzuk peitzen yakozan. Eskudelari oratuz mailla kirritsuetatik arduraz igon, eta erlaiz zabal baten aurkituu gintzazan. Emendik gela-bidea edatzen zan, baita ganbarako zurubi aldapatsua be.

Gela-bidean zear giñoazala, soruko olak isiltasunak anditutako karraska negartsuak egiten ebezan, gure oinkadak min emoten bai'leutsien. Etxe-mailla onetako gelak autsez beterik egozan; atei kisketak peitzen yakezan, baita soruari ol batzuk be, sagu-abi bikaiñak, urrean, gure ibillereaz uxatutako sagu batzuk ostentzen zirala zulo baltz areitan ikusi genduzan-eta. Leio-zirrituetatik sartzen ziran aize-zartadek eragindako ate bat, ots zirrargarriaz ate-buruan jo ta jo aditzen zan.

Ustekabez, erriko lagunai sarritan Anux-borda'tzaz entzuna burura etorri egin yatan: emen gizon gaiztoa bizi ei'zan, eta illargi beteko gabetan odola erion aiztoari oraturik, basoetan zear ei'ebillen... Dardarrez eta abots tartailloaz Pirmin'eri auxe esan neutsan:

—Aiko, Pirmin, nik ezin yaikiat au luzaroagorik jasan. Aiztoko gizona agertuko ba'litxok...!

—Ken ortik! —erantzun eustan berak gizonkiro—. Ez neuri esan gero, olako kaikukeriak siñisten yozakala...

—Ez yoat siñisten olakorik, baiña...

—Neu beintzat, ez nok urtengo ganbarari begiralditxu bat emon barik. Ator Yon Ander, laster amaituko yoagu-ta.

Nik ez neban joan gura, baiña gure argi bakarra eskuan eroiala, ganbarako zurubian gora nire laguna ikusi nebanean, gogo txarraz bazan be, ez neban beste biderik izan, aren atzetik joan baiño. Ganbarako sarrerak ez eban aterik, eta laster, abe mardoakaz eutsiriko gela amaibako baten aurkitu gintzazan. Ganbarea utsutsik egoan, eta beeko gelak aiñako autsaz estalita. Baiña emengo anditasunak, egapeko artetik aditzen ziran aizearen ulu latz-ikargarriek, eta lekuari erion zerbait esangatxak, izupean ninduen.

Alako baten, eta Pirmin argiarekin alde batetik bestera joiala, aizeputz batek argia amatau egin euskun...

—Pirmin, arin! —esan neutsan dardarrez— piztu eik argia...!

—Ñoooo...! Posporuak ez yatazak galdu ba...! Goazekan Yon Ander!

Eta illuntasunik utsenean, bidea aztamuka billatzen genduala, ganbaratik urten gintzazan. Zurubian beera itsuka giñoazala, Pirmin'ek didar izugarria bota eban.

—Aiiii...! Zerbaitek ukutu naiok! Arin, Yon Ander, arin!

Egia zan. Neuk be esku ariñen igurtzi igeskorrak bai'litzazan, ondoan zeozer oartzen neban. Eskuai eutsita, bigarren zurubira eldu gintzazanean, alkar oztopo egin genduan eta azkenengo mailaraiño txirindolan, eskaratzean aurkitu gintzazan. Alkarri berba bat bera be esan eziñik, kortako atea aztamuka zabaldu, eta len sartutako korta-leiotik erion argi motelak lagundutako, aurrenik Pirmin eta gero ni urten gintzazan. Illunabarra zan orduko, eta leiotik kanpora jaisteko zorian nengoala, len jasandako esku izugarriaren igurtzi leuna, barriro be oartu neban, eta... bat-batean ezkutu argitu yatan. Etxea, sagu-zaarren multzo larri baten kabia zan, eta orain leioko laukian illunabarreko argian islaturik, azkonak baizen arin, nire ingurutik egakera kolokaz urtetzen ziran...

Lekorean, nire begira egoan Pirmin'ekin batu nintzan. Au, dardar izugarriean aurkitzen zan, abots motelaz auxe ziraustala:

—Anux-borda... Sorgiñetxe...! Neuk bayakiat ondo zer jazo dokan. Sorgiñek egizko begi bat eta guzurrezko beste bat ei'yoezak, eta asarrez yagozakanean, begi-zulotik guzurrezkoa atara, eta mutillai jaurti oi yautsiek. Oneitariko begiren batek jotzen ba'au, orduan ireak egin yok, begi-bakar biurtzen az-eta. Auxe sarri entzuna yautsat izeko Ixidore'ri...

—Ken ortik! —eten egin neutsan len berak neuri esana biur-tuz—. Ez neuri esan gero, olako kaikukeriak siñisten yozakala...!

—Ez yakiat ba... baiña orduan zer izango ete zoazan gure buruaren inguruko igurtzi bigun areik, sorgiñen guzurrezko begiak izan ezik?

—Begiraik.

Eta leio-ondora ekarri neban. Amaibako errenkadatan egakera dardartiaz, sagu-zaarrak illunabarrean barreiatzen ziran.

—Ñoooo...! —bota eban nire lagunak arrituta.

—Pirmin! —ebagi neutsan aginkor, barregurea ia jabetu eziñik.

—Damu yoat adiskide ori, baiña ezin yaikeat “kontxo” ganora-bako bat az nire arritasuna bear dan lez adierazo.

Eta gero, Txuri'rekin errira biurtu gintzazan, jasandako bildurragaitik barre egiñez. Alako baten, Pirmin'eri auxe irautsi neutsan:

—Esaidak, Pirmin, zer demoniño egin yok ganbaran bear gaienduzakan posporuak ez idoroteko?

—Emen yagok erruduna —erantzun eustan sakelako zulo andizarra erakutsiz— barrabasok emetik igazi yatazak.

—Egunen baten —erdi asarrez esan neutsan— ire prakak be sakeleko zuloren batetik galduko yozak konturatu barik.

Anux-borda... Sorgiñetxe...! Eta nire irudimenak begien aurrean ipinten eustan orain, etxe bakartiaren itxura negargarria, bere ezotasun, loikeri, ol ustelen kirriak eta sagu-zaarren ukutze iguingarriaz. Eta etxetzar illun a gure etxea...! Latz-ikara bat jabetu zan nitzaz.

Urrundik bai'litzan, aitaren itzok aditu nebazan:

—Zertan abil, Yon Ander...? Amesetan al-ago...? Zer yeritxak guri eskiñitako Anux-borda'ri...? Garbaldi ta apainketa andia bear izango yozak, urrean, baiña etxea ez dok txarrenetakoa, eta gaiñera ez yoagu beste biderik...

—Bai, aita —sasi-poztasunaz erantzun neutsan—. Izan be, leku zoragarri baten jagiten da. Nik uste, Arandibar'ko lekuri ederrenean.

—Olantxe dok, seme. Arratsaldean Aranegi'ra aitariarekin joango az, etxea atontzeko bearrezkoak dozakan tresnak erosteko, gureak errekiñetan galdu yoaguz-eta. Gau onetan Malenbaita'n autu bat izango yoagu etxekoan artean, egitekoa ebazteko.

Arratsalde aretan, aitita ta biok Aranegi'ra joan gintzazan. Aurrenik, tresnategi baten sartuta, lanabes batzuk aztertuta gero,

aititak esku-zerra, erbil, burdiñaga, gorrika ta olako tresna batzuk erosi ebazan, baita amar kilo untze ta biurriko be.

Ordaintzerakoan, dendariak ez eutsan dirurik artu gura, beste egun baterako atzeratu egikeala esanez, baiña aititak ezetz eta ordaindu eutsan. Jarraian, beste saltoki baten zimendu-zorro batzuk Malenbaita'ra bialdu egiezala agindu eban, eta gero iradu barik tresnak geroiazala, Arandibar'era biurtu gintzazan.

—Badaukaguz orain tresnak —esan neutsan aititari bidean zear giñoazala—, non dagoz, baiña, bear doguzan olak...? Nire ustez, Anux-borda'n sitsak jandako ol asko dago.

—Idurene'ko ezagun bateri len bialduriko olketa batetik, erdia biurtu yauguzala eskatuko yautsal. Ol eta zur naikorik izango yoagu, bearrezkoak diran aulki ta oe barriak egiteko, baita sorua atontzeko be.

Gau aretan Malenbaita'ko sukalde epelean, aita, ama, aitita ta laurok garrantzi andiko autu bateri emon geutsan. Gure berbetea ez zan alai gertatu, baiña danok aalegiñak egitekoaren erabagi sendoa agertu genduan. Nik ez neban txintik be esan, baiña bes-teen alkarrizketari adi-adi jarraitu neutsan.

Aurretik, aitak gure egoerearen barria emon euskun. Ekarrirako enborketearen zorra, eta salduriko ol eta abeen saria bardintzen zirala. Alde onetatik, beraz, ez egoan zorrik. Larriena, baiña, kamioiaren arazoa zan, onen bigarren ordain-epea bost milla laurlekokoa zana, amar illabeteren buruan ordaintzeko zan-eta. Diru-etxean iru milla laurleko aurreztuta egozan ezker, egizko zorra bi millakoa zan, eta jakiña, arazoa orren larria izanik, ez genduan ezelan be aurrezturiko diru ori eralgi bear. Au zala-ta, aspaldi batez beintzat, ardurarik andienaz bizi izango gintzakez. Mikel Jaunak eskiñitako egoitzari esker, estualdia ariñagoa zan, eta gerokoa Jaunaren eskuetan zetzan. Urrengo egunean, beraz, aitita ta biok Anux-borda'ra joango gintzakez, bearrezkoen lanak egitearren. Etxea egokituta gero, orduan ara bizi izatera aldatuko gintzakez.

—Eta zu, Juan —galde egin eutsan amak—, zein asmotan zagoz...?

Une batez, aitak isillik iraun eban, eta jarraian ondo neurtuta auxe erantzun eutsan:



—Mikel Jaunak maillegu bat eskiñi daust zerrategi barri bat eraikitzeke, baiña ez naz orretarako adorez aurkitzen, au da, zor barri bat egiteko, lengoa garbitu arte beintzat. Gure osagille eskuabalarari benetan eskertzen dautsat ori, eta ez yat egundo be aztuko gurekiko jokaerea, baiña barrutiko zerbaitek itxaron dagidala agintzen daust. Eta zuk Kattalin, zer deritxazu orreri...?

—Maitia, badakizu zurekin beti nozula —erantzun eutsan amak gozoro—, eta gaur batez be iñoizkorik lotuen.

Aitak irribarre maitekorraz ordaindu eutsan, eta jarraian onetaxaxe mintzatu zan:

—Gaur bertan, Aranegi'ko lengo nagusiak aroztegian lana eskiñi daust, eta gerturik nago baietza emoteko. Gaiñera, Aranegi ur dago...

—Zenbat eskiñi dautsu astean...? —aititak ebagi eutsan.

—Irurogei laurleko.

—Irurogei astean... —aititak berekiko lez—. Berreun eta berrogei ta amar egiten dabez illean. Bearrezkoen gauzetarako kendu ezkerro, urtebetea baiño len garbituko dogu zorra...

—Ez, oker zagoz —erantzun eutsan aitak—, nire zenbakien arauz amabost bat illabete bear izango doguz.

—Bost illabete inguru, ezta bat bera be geiago —aititak erantzun eutsan irmo—. Nik badakit kontuak ondo egiten.

—Baiña nondik urteten yatzu ori...?

—Nondik...? Zuk irabaztekoetik eta... Arotzabaita'ko lurretatik.

Gure begitadak aititagan lotu ziran, eta guztiz arrituta, une batez mutu eginda iraun genduan. Aititak nasai-nasai arazoari jarraitu eutsan onetaxaxe:

—Bai, Arotzabaita'ko lurrak orain ez dira ezertarako gauza, Anux-borda'tik urrun dagoz-eta. Badakit nork ordainduko leuski-guzan milla laurlekoetik gora lurrokaitik.

—Ez orixe...! —oiu egin eban aitak.

—Doguzan lur-puxkak saldu...? —eratsi eban amak malkoak

begietan—. Ori gure Arotzabaita'ri betiko uko egitea litzake. Asmatu egizu, aita, sorlekua saldu...

—Arazo onetan ez da besterik esateko —ebagi eutsan aititak setatsu—. Gure etxea ezereztuta dago, eta orain niretzat etxebako lurrak ez dau zudurik. Zertarako gorde, zaintzea eziñezkoa izanik...?

—Baiña egunen baten —esan eutsan aitak—. Aldiaren bidean eraiki aal izango dogu lurrotan Arotzabaita barria...

—Ez dakit, Juan... —erantzun eutsan aititak oldozkor— barruko zerbaitek bestelan pentsatera naroa. Dana-dala, zu Juan, zure esku ikusteko guraria da, saltzera bultzaten nauana. Ez deritxat ondo zu iñoren morroi zaitezala. Garbitu dagigun gure zorra, eta orduan zure buruaren jabe izanik, egitekoa ikusiko dogu.

—Zuzen zagoz, aita —amak orduan—, Juan ez da iñoren morroi izateko jaio dan gizona.

Isillune luzea edatu zan, bakotxak bere oldozkunai emoten geutsela. Orduko, berandu samar izanik, aita ta biok urteteko gertatu gintzazan. Ereti aretan, aititari betiko musua emotean, abopetik belarri ondoan, auxe esan neutsan:

—Aitita, ederto esan dozu.

Eta oikoa baiño besarkada estuagoa emoten neutsala, berak irribarre maitekorraz erantzun eustan.

Biamamonean goizetik, Aranegi'n erosiriko lanabesak, aitzur bana eta burdin-pala geroiazala, aitita ta biok Anux-borda'rantz abiatu gintzazan. Giro ozkirria zan, baiña Aranegi aldetik ortziko dizdir gorritzak eguraldi ederra iragarten eban. Anux-borda, Arandibar eta Idurene artean zetzan, Yandur-errekaz beste aldeko toki bakarti baten. Arandibar'tik urtenda, Yandur-zubia zearkatu bear zan, eta gurdi-bide batetik kilometro ta erdiko tarte ibillita gero, Anux-borda'ra eltzen zan. Emendik bidea bi kilometroz luzatzen zan Idurene'raiño. Bide-zati osoa zoragarria zan, batzutan erreka-ondotik uren suzmur isilleziñak lagundurik; bestetan areitz eta gaztaiñondo estaldiriko muñoen zear edatzen zan, edo-ta ainbeste okergunē egin ondoren nekatuta bai'litzan, tarte laburretan zear larretatik zuzen-zuzen joian, andik laster barriro be erreka-ondotik edo muruen zear biurka jarraitzeko. Bide au oso gitxitan erabil-

ten zan, gaztain edo egurketaren aroa izan ezik, eta augaitik, urrean, txoriek bazter kutunentzat eben, karnaba, txepetx, eta txindorren txintak bidariari ibillaldia edertzen eutsoela.

Bide-erdia inguru ibillita gero, egunsentia egin zan, eta argipean bedar eta zugaitzen ostoak inñontzaz blei-blei ikusi zeitekezan, lurretik usain gozo-gozoa jagiten zala. Txori itxartu-barriak pozaren pozez zoratuak, egun ederraren agerpenari agur biziak bialtzen eutsoezan, goiko adarretan eguzkiaren lenengo txerak billatuz. Bitsezko zurrunbillo geldieziñen artean, Yandur-erreak'ko ur gardenak joaleiñoak bai'litzazan aditzen ziran. Olan giñoazala, gure atzetik oinkada batzuen ots motela aditu genduan. Laster, okergune batek irudi ezaguna agertu yakun, eta,

—Azken baten arrapatu zaituet —agurtu ginduzan Permiñ'ek albetan.

—Baiña, zelan ago emen...? —itaundu eutsan aititak.

—Izekoak zuek onantza leiotik ikusi, eta bereala jakiñerazo daust. Arrapalada baten jagi, jantzi, eta emen nozue. Anux-borda'ra, urrean, ezta...?

—Bai, Pirmin.

—Somatzen neban ori, atzo Izekoak zeozer esan eustan-eta... Zuek Anux-borda'ra aldatuko zintzakezala-edo... Dana-dala zuekin joango naz, eta nire laguntza bear izatekotan...

—Eskerrik asko, Pirmin —erantzun eutsan aititak burua laztantzen eutsala—, bañekikan ire laguntza izango gendukela.

Pirmin'en aurpegia irribarre zabalaz argitu zan, eta irurok bideari jarraitu geutsan. Inguruak gero ta ederrago ziran, goroldioz eratsiriko areitz urtetsuek apainduta. Gero, bideko ertzak aldapa-tsuago biurtu ziran, zugaitzek sustraiak atxen artean tinkatzen ebezala, eta noizbait, aurrean langa bat agertu yakun. Bestaldean, zelai baten erdian, goizeko eguzkiak urrezaturik, Anux-borda jagiten zan.

Zelaia iru ertzekoa edo iruki baten arauz eratu zan. Aldi bat, iparrekoa, alegia, Yandur-errekako okergune zabalak mugatu zan, eta beste biak ego alderantz alkartzen ziran muiño piku banaz mugatuak. Sorkaldekoa, edapen osoan gaztaiñondo estalduta egoan,

eta tontoretik beste aldera, Oianbaltza eritxoan pagadi yori bat zabaltzen zan Andutze'ko mendietarantz. Gaztaiñadia Anux-borda'ko etxaguntzari zegokion, eta muñoaren izena Indusi izanik, Indusi'ko gaztaiñadia eritxoan. Oianbaltza barriz, erribasoa zan, Arandibar'koa. Errian bear izaten genduan egurrik geiena, andik etorkigun. Sarkaldeko murua, Muñagorri eritxana, sastraka ta naste-borraste andiaz estalduta egoan, eta Idurene erriari zegokion. Indusi ta Muñagorri eun bat metro goibeko tontortxuak ziran, eta egoalderantz, Sorgiñ-ate esaten eutsoen troka aldapatsu, arritsuan alkartzen ziran. Sorgiñ-atek lats baten ur orrulariak arkaitzez-arkaitz bitsezko zoroaldi basatian, mendian beera amiltzen ziran, eta zelaira eltzean, otzan-otzan, arrizko idoirik-idoi suzmur leunaz etxe-ondotik igarorik, Yandur-erreak'ko ur laztangarrietan ostentzen ziran. Jakiña, latsari Anux-errekaxua eritxoan.

Sorgiñ-atek eskumara, au da, Muñagorri'ko egian, letagin izugarriaren antzera, atx zorrotza jagiten zan, eta dendua bai-galdu ez-galdu, oiñari estu baten gainean, Anux-adar eritxoan atx izugarriak zutunik zirauan arrigarri...

Etxaurreak, Yandur-errekarantz begiratzen eban, eta atzekoak Sorgiñ-ate'rantz. Etxe ta Muñagorri artean sagasti txiki baiña ona edatzen zan, eta enparaua zelai leun ederra genduan.

Langatik gurdi-bidea etxeraiño jeisten zan, eta gero Yandur-erreak'ren ondotik, Idurene'raiño edatzen zan. Aitita, Pirmin eta irurok latsaren ur gardenak arririk-arri zearkatuta, Anux-borda'ren aurrean aurkitu gintzazan. Goizeko eguzkipean murgildurik, etxe zaarra lenengoz astiro ta nire aukeran ikusi aal izan neban.

Urteen erabilte zakarrak andeatu izan eban zearo, eta ormeta-ko orbanak zauri sakonen antzera nonai agertzen yakozan. Etxaurreko egapean eta goikaldeko aurre osoan, ekaitzek ondatutako sapaillor bat edatzen zan, eta onen azpitik orma osoa zuloakaz zauriturik ikusten zan. Beekaldea asunez beterik egoan. Ateko arruztai ederra azalgetua, eta zirritu izugarriakaz beteriko leioek itxura negargarria erakusten eben. Enparauko ormak aren baten agertzen ziran, Indusi'ko aldera begiratzen eban ormea bestalde, au teillaturaiño erantsiriko untz erraldoi baten orri orlegi-illunakaz ostenduta egoalako. Olan eta guzti be, etxe sendoa zan, egoera negargarrian aurkitzen bazan be.

Bapatean, nik ez dakit zelan, bere orbanetatik etxe arek negar egiten ebala iruditu yatan, danek itzita, zikinkeriz betea, ekaitzek zaurituriko, beti bakar, isil eta itun... Orduan, eta zer zana igarri barik, Anux-zelai zoragarrian jagiten zan etxe bakartiarekiko maitasun-zarrastada batek erakarrita, abopear itzok iges egin yatazan:

—Gure etxe gaixoa, nik maite izango zaitut beti... beti...

Une aretan, txoko maitagarri aren lillura goratu naiez, antza, txindor baten txio laztangarriak sagastitik zelaian zear aditu ziran, ongi-etorri maitekorra bai'litzan.

Aititak erabillitako giltzak ate-morroilloan egiten ebazan kirriek, senetara ekarri ninduen. Noizbait, kirrinka negartsu bat az orpo erdoitsuen gaiñean bira egin eban, eta sukalde itzaltsua agertu yakun.

—Aurrenik —esan euskun aititak—, edegi dagiguzan leio guztiak, eta gero zeri eldu ikusiko dogu.

Aginduta lez, eskaratzeko iru leioak zabaldu genduzan, eta gaiñezka sartzen zan eguzkipean, gela andi baten aurkitu gintzazan. Alde baten, sugain zabalaz babesturiko sutondoa; onen eta ezkerreko ormaren artean, kortarako atea ikusten zan. Sarrerako atetik, eta biurgune bat eratuz, zurubi zabala igoten zan goiko maillaraiño. Onen lenengo edatzepean, kanporantz emoten eban leiotilla txiki bat az ornitua, irola egoan. Zurubi-zati onen gaiñean, leio ederra zur-maillak argitzeko. Sutondo-buruko orman leio bi, eta onen erdian arraska zabala. Azpikoa arlasta ederrakaz estalduta egoan, eta goian, baltzaz kedarrezturiko ta abe sendoakaz cutsitako sabaia.

Kortea, eskumako aldean ganbela luzeak ornitua agertu yakun; ezkerreko orman leio bat, eta sukaldeko ate-aurrean, ots, egoalderantz emoten ebanan, ate andi bat abelgorriak erabilli egian.

Goiko maillarako zurubia edo eskillara, maillaburu zabal baten amaituta, erditik gela-bidea edatzen zan. Onen muturrean, au da, egorantz, areto andi bat egoan. Eskumako luzerean gela bi aurkitzen ziran, eta ezkerrekoan beste ainbeste. Maillaburutik beste eskillara aldapatsu bat ganbararaiño igoten zan, eta onek ez eban beste argirik, sapailloaren erdian jarritako atetik etorkiona baiño.

Etxea beraz, bear genduan anditasunekoa zan, baita ondo egokituta, atontze ta garbiketa ugaria bear baebazan be.

Gure lenengo ekintza, leio guztiak zabal-zabalik edegitea izan zan eta gero aititarekin gela guztiak zeatz aztertu genduzan. Kalteen garrantzia ondo egiztatu ondoren, aititak auxe esan euskun:

—Garbiketa ona egitea bearrezkoena da, oraingoz. Zoaze kanpora, eta gertutu egizue inarrezko erratza bana, eta gero ganbaratik asita beeraiño, zikinkerri guztia atarako dozue.

Pirmiñ'ek eta biok aizkora bat artu, eta laster Muiñagorri'ko inar ugarien artek erratza sendo bana egin genduan. Bordara biurtu gintzazaneke, aititak erabillitako maillu-danbadak eta zerraren zurrungak, ots alai az aldizkatzen ziran. Pirmin eta biok ganbaratik asi gintzazan, eta luzaro barik mota guztitariko zikinkerri, auts, eta sagu-zaarren abi-ondakiñak, sapailotik-at jaurti genduzan. Bitartean, egunaren edertasunak eta aititaren lanabesak egiten ebazan otsek eraginda, Pirmiñ'ek eta biok abesteari emon geutsan didar bizitan, eta gure barre-santzoek, egun batzuk lenago gertaturiko ondopena, gure ume-gogoakandik uxatzen asi eben.

Eguberdi orduko, geldi-aldi laburra egin, eta goizean ekarritako janaria artu genduan. Orduko, ganbarea ta etxeko lenengo maillea garbitu izan genduzan, eta aititak leio batzuk atondu be.

—Goazen mutillak —esan euskun aititak—, illunabarra asi da, eta illuntzerako errira eldu bear dogu.

Atea itxita, Arandibar'erantz abiatzen gintzazanean,

—Aizu, aitita —itaundu eutsan Pirmiñ'ek, berak olan esaten eutsan- eta—, uste al-do zu egun asko bear izango doguzala Anux-borda egokitzeko?

—Bai, Pirmin, aste bateko lana bear izango yoagu gitxienez, baiña —jarraitu eban aititak irribarrez—, gurekin egunoro ba'entor, orduan epea laburtu egingo litzakigu.

—Zer esanik ez —erantzun eutsan Pirmiñ'ek adorez eraginda—, goizoro Txanobaita'tik zuen begira egongo natzakizue, Anur-borda'ra joateko. Auxe bai dala leku ederra, nik uste, Yandur-arana'ko ederrena...!

—Bai, ederra da benetan, baiña bizi izateko toki gogorra be, etxaguntzea urria dalako sendi bateri eusteko. Ez dakit... ez dakit...

—Bai, aitita —eten egin neutsan adorez beterik—, guztion aalegiñakaz onik urtengo gara...!

—Gazteegia az, mutil, bizitzaren gordintasunari antz emoteko —jardetsi eustan irribarre neketsu bataz—. Nik ez yakiat azkenean beste leku batera joan bear izango ez ete yoagun, biziera barriaren billa-edo...

—Ez, aitita —erantzun neutsan larrituta, Anux-borda zoragarria galtzeko bildurrez—, ereintzeko gai izan daiten lur guztia artuko dogu, badago naikoa bedarra Apala ta txalarentzat, oilloak be baditugu, eta gaiñera, aitak Aranegi'n irabaziriko diruaz...

—Diru ori gure zorra ordaintzeko dok.

—Bai, baiña bein zurituta gero, gure esku izango gara, eta orduan zeozer asmatuko dogu. Aitita, nik ez dot Anux-borda'n baiño beste lekutan bizi gura.

Unetxu batez arrituta, aitita niri begira egon zan, eta gero berekautan lez, astiro auxe iges egin yakon:

—Neuk be ez yoat beste iñon bizi gura.

Erriko argiak gure aurrean keiñuka agertu yakuzan, eta irurok isillik, Yandur-zubia'n zear errira sartu gintzazan.

Urrengo egunetan etenbako lanari emon geutsan buru-belarri. Baratxe-baratxe, bordea itxura atsegiña artzen asi zan. Bear izaten genduzan gaiak, ots, abe ta olak, karea, igeltsua, teillak, leiarrak eta abar, Illintzabaita'ko gurdian etorri yakuzan. Aititak aurrenik egiñiko lana, soruan zerenak jandako olak ordeztea izan zan, gero leioak egokitu, teillatuari uts egiten yakozan teillak ipiñi, sapaillao barriztau, eta sukalde ta kortaren arteko atea guztiz ondatuta egoan ezkerro, beste barri bat egin eban. Arazo onetan Pirmin eta biok trebe ez izan arren, aititari aalik ondoen lagundu geutsan, eta au zala-ta, egitekoak uste baiño ariñago joiazan.

Ekintza oneitan atsegiñez beterik aurkitzen nintzan, etxe zaar aretan azaltzen zan aldakuntzea ikusirik batez be. Baiña bazan benetan adoretzen ninduan beste zio bat; aititagan oartzen neban

kemen barria. Lanaren bultz irazaille ta Anux-borda'k artzen eban antzaldatzea, neuri aiña berari atsegin izanik, apurka-apurka bere begien itxura ituna ta ezpanen keiñu neketsua gozotzen asten yakozan, aspaldiko begien bizitasun eta aboaren irribarre zabala etorkiozala. Gure biotzetan itxaropen barria sortzen asten zan, eta Anux-borda zaarrak alaitasun barripean zorionez kutsututa zirudian.

Bordako gelak atondu ondoren, kortatik asi gintzazan. Amaraun guztiak garbitu, azpigarriko ustelkeria atara, eta aititak bazter baten olezko txarritokia ta bestean oillotegia eraiki bitartean, Pirmiñ'ek eta biok otzara andi bana ustiaturik, Indusi'ko gaztaiñaditik orbel-ekarketeari ekin geutsan. Laster, azpigarri biguna ganbelaren aurrean zetzan, Apala ta txalari arrerarik onena egiteko.

Ondoren, aititak etxe-barruko zulo guztiak bete bitartean, nire adiskide ta biok, karezko emonaldi bikaz ormak zuriztatu genduzan ganbaratik asita kortaraiño. Muturrean zurdaki bat eban aga luze bana ustiatuz, ni aurretik niñoala, eta jarraian atzetik bigarren zurialdia emonaz Pirmin etorrela, abesti ta txistuen artean arloari ekin geutsan. Ormen zurizatzeaz gaiñera, sabaiko abean arteko uneak be kareztatu genduzan, abeak orde, euren zerean itziaz, au da, berezko margo illkunaz, enparauko zurtasun artean bereiztuak, etxeari jatortasun geiago emotearren.

Azkenean, areitzezko mai sendo bat eta amabi aulki, baita zenbait zizailu sukaldarako egin ebazan. Jarraian, aititaren esku trebeak sei oe ta arasa batzuk egiten asi ziran, Pirmiñ'ek eta biok lagunduta. Berak, neurriak artu, eta guk abe ta olak bere ardura-pean zerratu ta untzez josten genduzala.

Amar egun igaro izan ziran len esandako lanetan giñarduala, eta noizbait, goiz otz baten, Malenbaita'ko gurdira Arotzbaita'n ondapenetik gaizkaturikoa sartu genduan. Olan ba, ama, aitita, Iñese, Matxalen eta ni, Anux-borda'rantz abiatu gintzaran biziera barriari asierea emoteko. Goizeko erdi aldera eldu gintzazan, eta gurdia ustuta gero, gurekin etorria zan Malenbaita'ko etxejoauna, errira biurtu zan. Ama aurretik sartu zan, eta besteek altzariak etxe-barruan egokitzen genduzala, gela guztiai begiraldi laburra botatearren aldendu zan. Laster ikusi neban zurubian beera etorkigula, aurpegi liraiña pozez argiturik.

—Bai lan ederra egin dozuena! —aitita ta bioi esan euskun begi oztiñak dizdiratzen yakozala—. Ez neban ezelan be asmatuko, etxea onen txukuna idoroko neukela. Bai atsegin yatala, orren argi ta zabala...!

Aititaren aurpegia pozez argitu zan, amaren atsegiña ta goralpena entzutean, eta auxe esan eutsan leiatsu:

—Oraindiño bada lan asko egiteko, baiña astiro-astiro danari elduko dautsagu, Jaungoikoa lagun.

—Bai, ama —eratsi neban—, eta barruko baita kanpoko aldea bear dan lez atondu ezkerero, orduan ikusiko dozu.

—Yon Ander maitia!

Eta amak besarkada estua emon eustan, eta laztan arek eskue-tan nebazan anpuluak eta soiñeko nekea aztuerazo eustazan.

—Aiko, Yon Ander —agindu eustan gero amak—, aurrenik sua piztu bear yoagu, gerorako bazkaria atontzeko, beraz, ekarri ta txikitu egiztazak egur batzuk.

Egun bi lenago, Mikel Jaunak gurdi bete egur bialdu izan euskun, eta kortako egurtegi-an ondo metatuta zetzan. Besokada batzuk txikitu nebazan, eta laster, amak eragindako auspopean, garren laztan gorritzak, miingainkada gartsuakaz kebidean gora jagi ziran. Sua... eusko sutondoan txera bizia...! Igarotako berrogei urte areitan lenengoz, Anux-borda'ko ormak zorionez astinduta zirudien aztutako suaren mosuak artzean.

Olan nengoala garrai begira ta begira, lekoretik etorkidazan Pirmiñ'en oiua alaiek iratzarri ninduen, eta ateraiño urten nintzan. An etorren nire adiskidea langan beera, lokarriaz lotuta gure txalak jarraituriko Apala ekarrela.

—Eup...! —oles egin eustan—. Emen yoaguz gure aspaldiko lagunok Anux-borda'ko ganbela ezagutzeko irrikan. Oilloak ezin izan yaustadaz ekarri, baiña Arginbaita'koek asto ta gurdi txikia eskiñi yaustiezak arratsaldean oilloak ekarri yaiguzan.

—Ederto —erantzun neutsan txalari bizkarra laztanduz—. Yuridikanez, Arginbaita'n izandako egotaldia onuragarria azaldu yakek gure abereai.

Agiri zan biak gizendu izan zirala. Txalak batez be, ler egiteko zorrian emoten eban narru leunpean. Jarraian, txala ganbeleari lotu, eta Apala larratzera eroan genduan. Sorginñ-ate'tik etorren latsa ta Indusi'ko gaztaiñadiaren artean, bedar samurreko larra bikaiña edatzen zan, eta beia an yare itzi ezkerero, alatzeari emon eutsan lekua betiko ezaguna bai'litzakion.

• Etxera biurtzen gintzazala, pozaren-pozez biotza taupadaka asi yatan... Argi ta gozo, Iñese'k eta Matxalen'ek lagunduriko, amaren abots garbia etxe-barrutik yatordan:

Uso zuria nora oa...

Eta bene-benetan, barrutik, amaren gogoan zorionezko txinpartak ipinten ebazan Anux-borda'ko orma zaarrak bedeinkatu nebazan, Pirmiñ'ek eta biok gure Naparra'ko eresi maitagarriaren abes-teari jarraitzen geutsala.

Sukaldera sartzean, usainmeneraiño lurrin gozoa etorri yatan. Subazterrean, bustiñezko lapiko batetik indiaben usain kilikagarria etorkidan, maskillo bete gaztaiñen irakiteak lagundutako. Erdian, Iñese'k talo bat erreten eban, txingarren gaiñean jarritako taloburdiña antzez beterik erabillega.

—Ama...! —oiu egin neban— Noiz izango da otordua...? Gosez ilteko zorrian nozu...!

—Oraindiño ordu-erdi bat itxaron bear izango yok— erantzun eustan goiko maillatik—, baiña mutillak gosez ilten ikustea jasaneziña yatakan ezkerero, ator ona gora nirekin lanean jarduteko, ori osabiderik onena ei'dok-eta.

Amaren itzok entzutean, Pirmiñ'ek barre-santzo zaratatsua bota eban; ez yakon baiña luzaro iraun, amak bereala ebago eutsalako onetaraxe:

—Eta i Pirmin, ator eu be ona. Gu gaixook adimen argi bateko laguntza bear yoagu-ta, beraz or augun ezkerero...

Egun aretako bazkaria arrunta izan arren, niretzat baita Pirmiñ'entzat be, onenatarikoa izan zan. Aititak egindako mai-inguruan jesarri gintzazan, eta bitartean adorez beterik gure asmoak alkarri jakiñerazo geutsazan.

Arrastian, Pirmin eta biok errira joan gintzazan, eta Arginbaita'n astoa gurditxuari buztarturik, gure amabost oillo ta oillarra binaka lotuta, Anux-borda'ra biurtu gintzazan, Txuri'k atzetik erraikigula. Bagiñoazan, eta beti oso alaia azaltzen zan Pirmin, barruko kezka baten menpean eritxan. Luzaro samar isillik iraun ezker, ezin aal izan neban isillune nekegarria eroan, eta auxe itaundu neutsan:

—Ta, Pirmin, zer demoniño jazoten yak...?

—Gauza bat otu yatak...

—Iri beti burutapen galantak otuten yazak. Zer abil orain ba...?

—Ez yakiat egokirik izango ete iri esatea —erantzun eustan gorri-gorri eginda— baiña...

—Zer baiña...?

—Uste al-dozone, orain zagozen egoera larrian, igande ta jai-egun guztietan zuenera bazkaltzera joatea, egokia-edo izango dala...?

—Ez kaikukeririk esan, Pirmin. Asko ala gitxi gurean yaukagukana iretzat be izango dok. Danok pozik artzen augu astean bein gure maian, eta gaiñera indiabetan eskukada bat geiago gitxi gorabeera ez yoagu errekarra joko, baiña arazo au etxekoekin garbituko yoat, eta ziur-ziur nirekin bat etorriko dozak.

Autu onetan niarduala, Pirmin'en aurpegia argitzen joian, eta laster Anux-borda'ko langara eldu gintzazaneko, betiko itxura alai eta ardurabakoa erakusan, eresi baten txistua ezpanetan erabillela.

Etxera eldutakoan, oilloak askatu genduzan, eta illuntzea laster elduko zala-ta, Pirmin Arandibar'era biurtu zan, bidebatez, astoa ta gurdia Arginbaita'n izteko.

Orduko, etxeak eta inguruak benetako itxura pizgarria azaltzen eben. Indusi aldeko larradian gure Apala alatzan zan, nasai, noiz edo noiz burua jasoten ebala, txalaren murrusak kortatik aditzen ziranean. Oilloak bertan jaiok bai'litzazan or-emenka lurra aztarka ta karaka, oillarraren zuzendaritzapean ebiltzan. Etxe-barrutik, aititak erabillitako mailluko zartadek eta ama-arreben joan-etorriak bizi-ukitze pozgarria barreiatzen eben, eta neuk be arein eginbideak kutsuturik, kemenaz gaiñezka, lanari ekin neutsan. Egurketa

bat txikitu neban, gero Apala kortara eroan, txala askatu aren errape mardotik edoski egian, eta jarraian suil bete esne apartsu jatsi neutsan. Azkenean, Txuri'ren begitada ernaipean, oilloak kortan atondutako agetara zuzendu nebazan.

Sukaldera sartu nintzanean illunabarra zan. Subazterrean, lapiko bete porrusalda irakiten eta larazetik eskegita esne jatsi-barria ikusi zeitekezan. Aititak lanari eten egin eutsan, eta Anux-borda'n tximist-indarrak ez genduan ezker, ekarketa-ariak etxetik urrun samar igaroten ziralako, krisaillua piztu eban, eta nire arrebek josten ziarduela, amak aparia atontzen eban, guztien arteko autu nasaia emoten geutsala.

Olan giñarduala, Eup...! ozena entzun zan, eta aitaren irudia agertu yakun ate-zubian. Pozez gaiñezka oldartu nintzakion. Aitak nire aurpegia eskuen artean artuta, eta adi-adi begizatzen ninduala, irribarez auxe itaundu eustan:

—Pozik, Yon Ander...?

—Bai benetan, aitatu, eta zu...?

—Neu be zelan ez nok poztuko ba, olako bazter txeragarria, apari gozoa, eta ain maitagarriak yatazakan aurpegiak ikusteán...? Ez dozue arraioa...! lan makala egin, nik neuk, beintzat, ez neukean asmatuko edozelan be, etxea onen apaiña biurtu leitekenik, eta ain epe laburrean batez be.

Gero, Iñese ta Matxalen'eri bekokian musu bana emon eutsen, eta amaren adats ederrari oi eban laztan samurra egin eutsan. Amari, begi maitekorrak zorionez dizdiratu yakozan, eta maitasun bizi-aita besarkatu eban, ordaiñez onen ezpanak musu luzean amaren urrezko billoetan kokatzen zirala.

—Ondo al-zagoz, Juan...?

—Bai, Kattalin, eta zu aita, bizkor aurkitzen al-zara...?

—Bai, Jaungoikoari esker. Bada lan apur bat bazterretan, baiña itopen barik dana egingo da, eztok, Yon Ander...?

—Bai, aitita. Oraindiño lan asko egin bearko da, baiña luzaro barik lengo Anux-borda ez dau iñork ezagutuko.

—Orain, agurtza esan dagigun Jaunaren bakea gurekin izan daiten-agindu euskun aititak—, eta onik atarateko bear dogun osasuna be emon dagiskun.

Eta astiro-astiro, mukur-zartaden eta garren dantza gorritzaren artean, agurtzaren maillak alkarri jarraitu eutsoen.

Agurtza amaitu orduko, maiaren inguruan jesarri gintzazan, eta gosez beterik apaltzen genduala, barriketa biziari emon geutsan adoretsu. Aitaren itxurea batez be, guztiz aldatua iruditu yatan. Orain, aren begiek lengo egunetan izaniko etsipenezko itxurea ez eben erakusten, eta ezpanetan aspaldiko irribarre zabala ebilkion, itxaropen barria gogo ta biotzean sortu izan bai'litzakion.

Gau aretan guztion eritxiak aztertuta gero, erabagi batzuk artu ziran. Etxe-barruan lan ugari izanik, aititarentzat batez be, oe barriak egin bear izaten ebazan-eta, abelgorri ta egaztien zaindartzatza nire gain izango zan, baita lekoreko zeregiñak be. Ikastaro aretan, beraz, ez nintzake ikastolara joango. Axe bai nire poza...! Etxeko neskak, barriz, egiteko bereizirik ez izanda, ikastolara joango litzakez. Inese'ri au ez yakon atsegin izan, etxeko lanetarako zaletua baizan, baiña Matxalen, aitzitik, poztu zan, gogo-arloak naiagoak ebazan-eta. Jarraian, aita-amak logelen banaketea egin eben. Ego-aldera zuzendutako areto zabala eurentzat izango zan; onen ondoan, gela-bidetik eskumara egoana, nire arrebentzat, eta onen ondoan egoana aititarentzat. Gela bi onein bitartean, sukaldoko kebidea igaroten zan, beraz, beroenak izanik, aitita ta nire arrebentzat egokienak. Nik, barriz, ezkeraldeko bigarrena artuko neuke, eta bestea, utsik egongo zana, zaartegia izango litzake.

Bereala oeratu nintzan, eta oerik ez baneban be, soru-gaiñean zetzan lastamarragea oso biguna iruditu yatan. Lo-gura andia izan arren, Anux-borda'n igarotako lenengo gau aretan, loak ez ninduan artu gura, eta alde batetik bestera iraulkatzen nintzan artega. Gero, ama gelan sartu zan, eta oi eban antzera, musu luze bat emon eustan, auxe ziraustala:

—Gabon, seme, ondo lo egin.

—Baita zuk be, amaxu.

—Gau-otoitzak esan al-yozak...?

—Bai, ama.

—Orduan biar arte, nire laztan ori.

Andik laster, aitaren oinkadak zurubian gora etorrela aditu nebazan, eta gero oin-muturrez, ni lotan nintzalakoan astiro urreratuz, eskuaz laztandu ninduan.

—Aita...! —abopean esan neutsan.

—Baiña, oraindiño azarri...?

—Bai, loak ez nau artu gura...

—Olan dokan ezker, unetxu laburraz berba egingo yoagu —erantzun eustan oe-ondoan jesarten zala—. Yon Ander, irekin oso pozik naiagokala esan bear yauat. Aspaldi izugarri onetan adorez beterik ikusi aut, eta gizon baten antzera gogor jardun yok. Aititakin bete yokan lana ez dok erraza izan, lengo etxe zaar baldarra orain yoagun etxe txukuna biurtzeko. I ta biok, aurrerantzean ez yoagu besterik ezagutuko lan eta nekeak baiño, eta ziñez yiñoat azaltzen azan lez i ikusteak, bakez beteten naiok etorkizuna argiago agertzen yatalako. Neke andiak jasango yozak, baiña egunen baten benetako gizona biurtuko az, seme, eta guztien begirunea irabazita, barruko betetasunak egizko poza ekarriko yauk.

Aitaren itzok entzutean, zorionezko zirrara biziak menperatu ninduan, eta eskerronezko bultz andiak aren besoetara jaurtita, auxe esan neutsan:

—Aita, ni be pozik nago orren adoretsu zakusdanean...

—Bai...? Eta zergaitik, Yon Ander...? —irribarez itaundu eustan.

—Barriro be betiko itxurea artu dozulako. Ezin nengikean eroan zu orren atsekabeturik ikustea, baiña orain, aita, zukan itxaropen barria sortu bide da.

—Egia dok, Yon Ander, zuek, etxekoek, nire barruan bizitzarako jorana piztu dozue.

—Aita, lan asko egiten al-dozu Aranegi'ko aroztegian...?

—Naikoa egiten yoat goizeko zortziretatik arrastiko seirak arte,

ordu bateko geldineuz bazkaltzeko. Olan, baiña, gure zorra laster garbituko yoagu, eta orduan...

—Orduan, zer, aita...?

—Orduan Jaungoikoak esango yok, seme.

—Aita, nik ez dot Anux-borda itzi gura...

—Ez dok arritzekoa. Neu be Yandur-arana'ko txoko zoragarri onek lilluratu naiok. Ez yoat uste, Yon Ander, bazter au itziko yoagunik, baiña ori etorkiak esango yauskuk. Orain lo egik, eta biar arte.

—Beste gauza bat, aita. Gaur bertan Pirmin arrenkuraz beterik ikusi dot, aurkitzen garan egoerean ingandeean gurera bazkaltzera etortea larregi dalakoan-edo. Nik esan dausat indiaben eskukada bategaitik bardin izango dala. Zer deritxazu orreri, aita...?

—Igaz bat naiatokala, seme —esan eustan irribarrez— Txanobaita'ko Pirmin ez yatok gurean emoten dokan janariagaitik bakarrik, emen aurkitu yozakan gogo-janaria ta maitasunagaitik baiño. Esaiok, beti lez etorri yaugula, bera aiña poztuko gozak-eta. Orain, seme, biar arte Jaungoikoa lagun.

—Gabon, aita.

Besarkatu ninduan, eta aren atzetik atea itxi zanean, bakez jabetuta etzan nintzan. Erdiz edegita egoan leioan zear, latsaren urak urru ta urru aditzen ziran, izarrak seaskatu gura bai'leuezan. Aize bigun batek untz-orriai erauzitako antziak gau isiltsuan zear galtzen ziran, eta iretargiaren izpiek, nire gela argi esnetsu amesgarriaz argitzen eben. Lo baketsu batek artu ninduan noizbait, Anux-borda'ko lillura nitzaz jabetzen zala.

## BORDAZURI

Laster elduko litzake negua, eta eurite asi-barriak eraginda, latsaren ur orrulariak oldar basatiaz Sorgiñ-ate'tik Anux-bordarantz amiltzen ziran. Goiz baten, Iñese ta Matxalen erriko ikastolara abiatzen zirala, arrituta ikusi eben ezin zeitekezala latsaz beste aldera igaro, metro biko ur-tarte batek oiko ibi-arriak estaltzen ebazalako. Ez genduan ezelan be uste izan, latsaren ur otzanak orren sumin arrotuko litzakezanik. Izan be, erritik etenda gengozan, eta lenbailen urtenbidea idoro bear zan.

Konturatu nintzan, Yandur-erreak'n uretaratu baiño len, latsaren ertzak jagiten zirala, eta emen toki egokiren bat bearrezko zubia egiteko egongo zalakoan aitita jakitun ipiñi neban. Euri-jasa izugarriean, aititak eta biok latsaren ertzak aztertuta gero, lur garaiko leku bat laster idoro genduan. Andienetako uriolak izatekotan be, an egindako zubia uren gaiñetik azalduko litzake beti. Ertzetako tartea metro bikoa zan gitxi gora-beera.

Aititak, gengozan aldean lekune bi bereiztu ebazan, metroko zulo bana aitzurraz egiteko agintzen eustala, eta berak bearrezko gaien billa etxea arakatzen ebala, aitzur-lanari emon neutsan. Zorionez, erauntsia zeozer atertu zan, eta eguberdia barik, zuloak gerturik egozan. Orduan zurezko zutoin lodi bana zuloetan sartu genduzan. Jarraian, abe luze samar bat lats-gaiñetik beste ertzeraiño jarrita, aren gaiñetik igarorik, beste aldean zulo bardin bi egin nebazan. Laugarren zutoiña lurperatuta gero, onein gaiñean abe bi untzekaz josita, ertz biak alkartuta gertatu ziran. Azkenean, abeak ol lodiakaz zearretara estaldu genduzan. Lan au amaitu orduko gaba eldu zan, eta lanari eten egin geutsan.



Urrengo egunean, enborrezko eskudelak ipiñi genduzan, eta eguberdiko, gure zubia gurdi baten zapalkuntza jasateko lain zana, latsaren ur orrularien gaiñean kokatzen zan. Aurrerantzean, ez gintzakez erritik baztertuak izango. Ain zuzen be, lan neketsua azaldu zan, baiña pozez ler-argiñean aurkitu gintzazan.

Gaztaiñak bearrezkoak ziran, bai guretzat bai etxeko txarria gizentzeko be, beraz, batuketa ugaria egin bear genduan. Olan ba, eguraldiak izten ninduan bakotxean, otxara baten bidez, Indusi'ko gaztaiñaditik ekarketeari emoten neutsan, sarri askotan Pirmiñ'ek lagunduta. Aroan sartuta gengoan ezkerro, morkotsak zabal-zabalik agertzen ziran, eta au zala-ta, gaztaiñak aisa batu aal izan genduzan. Andik laster, udagoia amaitu baiño len, ganbarako sorua gaztain mardoakaz estaldu zan.

Beientzat bedar ugaria egoan Indusi aldeko larran, baiña eguraldi txarrari edo-ta edurteari aurre egiteko, korta-aurrean bedar meta andi bat jaso neban.

Etxe-barruan ez egoan urik, eta eskaratzeko adalean bear izandako ura, latsetik suillakaz ekarria izaten zan. Arotzabaita'n zenbat gura ur izateari oitutako amarentzat, au benetako nekaldia zan, nire ustez Anux-borda'ko akatsik andiena. Amak aginduriko, etxetik ez urrun, latsaren idoi sakon baten ondoan, aitita ta biok ikuztari bat bogadea garbitzeko jarri geutsan.

Lei andiko goiz baten, egurra txikitzeko etxetik urten izan nintzala, ikuztari-gaiñean makurturik, etxeko bogadea garbitzearen, ama besutsik ikusi neban. Beso ubelek eta aurpegi zurbillak otz andipean aurkitzen zala iragarri eusten, eta bapatean zirrara batek eraginda, barruko zerbait aginkorrek auxe oi u egin eustan: "Yon Ander, egik zeozer...!". Orduan ezustez, burutapen bat etorri yatan: ur ugaria izanik, ez genduan besterik bear odi-zati batzuk baiño... Eta bereala sorbalda-gaiñean neroian aizkorea atean itzi, aitzurra artu, eta ibillera ariñaz errirantza abiatu nintzan. Txanobaita aurretik igarotean, oi neban txistuaz Pirmiñ'eri dei egin neutsan, eta,

—Zer nai yok orren goizetik —esan eustan nirekin batzen zala—. Burutik eginda al-ago...?

—Nire burua iñoizkorik argien yabik, Pirmin. Bear yoagun ura etxera ekartea asmatzen yoat, eta orretarako odiak bear yoaguz.

—Egia dok, lagun. Neronek be aberatsa izateko ez yoat besterik bear dirua baiño —esan eustan adarra joteko itxuraz—. Uste al-yok, baiña, odiak zugaitz batetik dingilizka gure begira yagozala...?

—Nik bear yoadana, lurperatuta yagok, Pirmin.

Eta erriko kaleetan zear giñoazala, Arotzabaita'ko odiak gureak izanik, atara geinkezala Anux-borda'n ipinteko, azaldu neutsan, eta olan latsaren urak etxe-barrura etorriko litzakiguz.

Arotzabaita'ko ondakiñetara eldurik, odiak lurperatuta egongo litzakezan leku-inguruan aitzurketeari emon geutsan, eta andik laster zati bat agertu yakun. Aitzurketeari jarraiturik, noizbait zati luzea azaldu zan. Gero, Arginbaita'ra joan nintzan burdiña ebagiteko zerra baten billa, eta orduan odi-zati luzea ebagi genduan, eta egokiozan odi-alkarkiak eta odia bera gurekin geroiala, Anux-borda'rantz abiatu gintzazan. Errian zear giñoazala, puxta bat bear zala otu yatan eta orduan,

—Aiko, Pirmin —esan neutsan gelditzen nintzala—, zelan erabili lliko yoagu ura, puxtarik ez yoagu-ta?

—Txanobaita'ko ganbaran tresna-pillo zaar baten artean olakoren bat ikusi yoat, nik uste...

—Oa ba lenbailen, eta ekarri egistak. Bitartean, emen izango nok ire begira.

Andik laster, eskuan puxta erdoitsua ekarrela agertu zan. Zorionez, odiari zegokion neurrikoa zan, eta amari emongo neuskion pozak eraginda, eguberdia barik etxera eldu gintzazan.

Arratsaldean bertan, goi samar egoan latsaren osin batetik etxeraiño erreten estua zabaldu, ta onen barruan odia jarri genduan. Urrengo goizean sukaldeko orman zulo egokia eginda gero, odi-muturra adala-gaiñean ipiñita, puxtea eratsi geutsan. Gero, karpoko odia estalduta, beste muturra osiñean murgilduta itzi genduan. Jarraian, biotza taupada zorotan ebilkidala, eskaratzera sartu nintzan. Bai etxeko guztien ikusnaia adalaren inguruan! Aitita,

ama, Iñese, Matxalen eta Pirmiñ'en begikadak puxtan untzatuta egozala, eta eskuak dardarikatzen yatazala, kirtena erabilli neban. Asieran aize-txistu luzea aditu zan, eta gero... plist! plast! ur garde-neko arrada ederra isuri zan, gure berba-jario ta txaloen artean. Ez yat iñoiz aztuko amaren zorionezko itxurea, ezta emon eustan besarkadea be. Pozaren-pozez aititak auxe esan eustan:

—Jazoera au ospatu egin bear yoagu.

—Bai orixe! —amak erantzun eutsan.

Eta gau aretan bere sukaldaritzaren ganorea mailla gorenetaiño erakutsi euskun, benetako apari gozoa atonduz.

Egunek alkarrri erraikioen, etxean etenbako lanari emoten geutsala. Atsedenaldirakak jaiegunetan izaten ziran. Ebatzi izan zanez, ereti oneitan Pirmin maikide izaten genduan, guztien atsegiñerako, bere jardun alai ta adoregarriak asko bizkortzen ginduzan-eta. Areitariko egun baten, bazkaria amaitu-agiñean zala, aitak Pirmiñ'eri auxe esan eutsan:

—Esaidak, Pirmin, zein luzaroa dok ikastolara joan ez azala?

—Illabete ta erdi gitxi gora-beera —erantzun eutsan Pirmiñ'ek aitaren asmoa iñondik igarri barik.

—Luze samar ire adiñeko mutillarentzat, Pirmin, Biar bertan, ikastaroari jarraitu bear yautsak.

Pirmin lur-jota geratu zan. Gero berba izutiaz,

—Neu ikastolara? —esan eutsan—. Zertarako baiña, emen ainbeste egiteko izanik? Gaiñera nik ez dausat ikastolari onura andirik ataraten, erderaz ez dot ondo ulertzen-eta. Gaiñera nire adimena urria da...

—Ez, Pirmin, ori ez —eten egin eutsan aitak benaz—. Egia dok erderazko irakaspentak eragozpen andia yakukala euskaldunai bear dokan lez ikasteko, baiña Pirmin, i ez augu adimen urriko mutilla, gitxi oitutakoa baiño, sarri askotan piper egiten yokalako. Ezin yaikiat jasan gu laguntzarren, ezjakin bat betiko izan aitean. Gitxi ala asko, ikasitakoak onura andia ekarriko yauk, batez be gizon biurtu aitenean irabazpide errazagoa lortzeko. Nik bayakiat Txanobaita'k antxiña baten izandako etxaguntza osoa, egunen baten ira-

bazi asmatzen yokala. Baiña elburu ori zelan jaritsi, arlorako gerturik ez ba'ago?

Une batez Pirmin isillik geratu zan, eta gero,

—Eta Yon Ander nirekin ikastolara etorriko al-da?

—Ikastaro onetan ez, etxean egiteko ugari yoagulako, baiña dsatorrenean, bai joango dok.

—Orduan len lez bakarrik barrero be, ikastolako mukizuek nire lepotik barre egin... —eta agertzen yakozan malloak ezkutatzearren, burua makurtu eban.

—Ez orixe, Pirmin —aitak oiuegin eutsan—, ire lepotik ez yok iñork barrerik egingo, besteak aiña edo geiago azalako, eta ori laster ikusiko yok. Pirmin, ire gurasoak bizirik ba'litxozak olan gura izango lleukiek.

Orduan aititak maitekiro auxe esan eutsan:

—Ez larritu, Pirmin, irekin beti izango atxaku-ta...

Olan ba, Anux-borda'n ekin eta ekin geratu nintzan, Pirmiñ'ek ikastaldia berrartzen eba. Berarentzat ori zailla izanik, niretzat ez zan gitxiago gertatu, alegia. Egunen bidean aitaren itzak egi gertatu ziran, ikastolan iñork isekarik egiten es eutsalako. Xalotasun eta zintzotasunean gure errian gitxi, iñor ba'zan, kidetu zeitekezan gure Pirmiñ'ekin.

Bein baten, aititak,

—Biar —esan eustan—, Aranegi'ko iltegi txala eroango yoagu.

—Baiña aitita —arrendu neutsan—, itzi dagigun gure bigantxa ederra etxerako, bei bi janaritzeko beste badogu-ta...

—Bai, Yon Ander, ori egia dok, baiña kontuizu datorren udabarria arte ereintzarik ezin yokala izango, eta epe luze orretan, txalaren sariaz bearrezkoen izan dakiguna erosiko yoagu.

Aititak esandakoa neurritz eta zuurtasunez bete izanik, isildu nintzan. Urrengo goizean txalarekin Aranegi'rantz abiatu gintzan. Goiz otza zan, eta gure barrutia leiezko estalkiz jantzita egoan, egun ederra izango zala iragarritz. Yandur-zubi'ra eldu gin-

tzazan, eta gure errian sartu barik Aranegi'ra zuzen eroian Iturrizaga'ko bidea artu genduan. Gurdi-bide au Yandur-erreka'ko egoertzetik edatzen zan, au da, Andutze mendia ta errekaen artean. Lekune zoragarri au ur garden eta zugaitz joriz inguraturik, bake osoan zetzan, jende gitxik erabillia zalako. Arandibartarrek erreka bestea aldetik egoan bidezabala beti erabilli oi eben. Bide onen erdian gitxi gora-beera, atx batetik ur ozkirrizko iturri bi batera sortzen ziran, bereala besarkada baten alkartzeko, Yandur-erreka'ra ureratu baiño len.

Ordu betea igaro barik, Aranegi'ra eldu gintzazan, eta aiteitak txala iltegira eroan bitartean, errekaen ondoan zetzan zelai batetik Txuri'rekin egurasten nenbillela, aate-saldo ederra txairo ugeri egiten ebalako ikusi neban. Areik bai aate ederrak...! Luma baltz, zuri ta orlegiakaz jantzita egozan, eta buruak uretan sarturik, igikun bipillakaz ur-tantoak ingurura sakabanatzen ebezan. Olako batzuk ba'neuko, zein ederto ibilliko litzakiguzen gure Anux-borda'ko latsaren osiñetan...! Eta arekandik begiak kendu eziñik, euren ugerikera erraza ederretsi neban.

Alako baten, aldameneko etxe batetik emakume bat errekaen ertzera abiatu zan, eta aatei deika asi yaken:

—Purra, purra...!

Baiña aate barrabasek ez entzunarenak egin, eta ugeri egiteari erraikioten. Andrazkoak luzaro samar alperrik dei egiten eutsela irauan eban, ertzera etorri zeitezana. Alako baten, eta emakumeak zer egin ez ekiala, burutapen bat etorri yatan, eta,

—Txuri, Txuri, uia... uia...! —txakurra zirikatatu neban—. Ekarri egistazak aateok, arin baiña...!

Tximista lakoa, Txuri ertz aldapatsutik uretara oldartu zan, eta aateen atzetik ugeri egiñez atara ebazan. Uren azalean erakutsiriko txairotasuna galdurik, ibillera kankaillaz etxera abiatu ziran, asarrezko kua-kua...! botaten euskuezala. Nire ondolik igarotean, irri-barre gozoaz emakumeak auxe esan eustan:

—Eskerrik asko, mutil, nongoa zara...?

—Arandibar'koa, Andrea.

—Arandibar'koa...? An ezagun asko dot. Nor zara...?

—Idarroiz'tar Yon Ander.

—Orduan Arotzabaita'koa zaitut. Bai tamal andia etxeko ondapena...! Zure gurasoak antxiñatik ezagutzen dodaz. Non bizi zarie orain...?

—Anux-borda'n, Andrea.

Isillune bat, eta gero aaten atzetik joakidazan nire begien itxurea oartzean, antza, auxe itaundu eustan:

—Yon Ander, aateak atsegin ete yatzuz...?

—Bai benetan...! Egunen baten gure etxe-ondolik igaroten dan latsean aateak aziko dodaz.

—Ederto, mutil...! Baiña zergaitik ez gaurtik asi...? —irribarrez esan eustan— Entzun egistazu: gu okin eta gozogilleak gara. Laster Egubarriko jaiak asiko dira, eta lan ugari egongo da gurean. Jai orreitan gu laguntzera ba'zentoz, zure aukerako aate bi emongo neuskizuz.

—Benetan...? —esan neutsan pozez ler egiteko zorian—. Eta nirekin lagunuen bat ba'nekar...?

—Orduan beste ainbeste.

Olan giñarduala etxeraiño eldu gintzazan, eta une batez itxarroteko esanez, emakumea ostendu zan, andik laster zakuto bete gozopil ekarstala.

—Eutsi, mutil —esan eustan arraiki—. Au zuretzat eta zure arrebenetzat. Nai izatekotan, etorri zure lagunarekin Gabon-aurregun eta Gabonetako goizean, baita Gabonzarretan be. Agur, maite ori.

—Agur, Andrea, eta eskerrik asko.

Andik laster, aiteitarekin batuta etxerantz jo genduan. Aitita pozik egoan txala ondo saldu ebalako, eta Iturrizaga'ko bidean zear giñoazala, aaten arazoa esan neutsan, bidenabar ogitegian lan egiteko baimena arrenka eskatzen neutsala.

—Niketza joan aitekez —esan eustan—, baiña oba dok aitari esatea.

Gau aretan aate-azkuntzarako nebazan asmoa azaldu neutsan aitari, baita orretarako bearrezko aateak zelan jaritsi be. Aitak nire asmoa ontzat arturik, okintzan jarduteko baimena emon eustan.

Urrengo egunean, Arandibar'era joan nintzan, eta ikastaldia amaituta zan ezker, pelotalekurantz jo neban Pirmin ikustearren. Izan be, an inarduan beste lagunekin, eta nire txistua entzutean, bereala urreratu yatan, eta beste barik auxe bota neutsan:

—Pirmin, Aranegi'ko aateak gure begira yagozak.

—Gure begira...? —esan eustan sagar bateri agiñak sartzen eutsa-zala—. Lapikoan ba'litzozak, ez llegokezak luzarorik iraungo ba.

—Entzuik, baiña, Pirmin...!

Eta jarraian, aurreko egunean Aranegi'n jazorikoa azalduta, amaitzean auxe irautsi neutsan:

—Bai, Pirmin, Aranegi'ko okindegira nirekin ba'entor, ez bi, baiña lau aate jaritsiko gaiendukezak. Zer yeritxak orreri, mutil...?

—Ez yagokala txarto, baiña... —antzika erantzun eustan— nik ezin yaikiat lagundu, Yon Ander.

—Zergaitik, baiña...? —itandu neutsan arrituta.

—Bayakik, lagun —lur jotako itxuraz erantzun eustan—, naikoa dok nik alperrik galduriko urterik onenak ikasi barik or-emenka ibilli izatea. Zirikaldi gogorra bayatak be, gizon benetakoa gertatu gura yokanak, bere burua ukatu bear...

—Ez yok egun bat baiño galduko, baiña, beste egunak oporraldiak dozak-eta...

—Alan eta guzti be —erantzun eustan sagarraren ondakiña lurrera botaten ebalá—, zer dok ori jakintzaren ondoan? Oba dok ordu bat jakintzaren arloan jardutea, eun urtez oillasko ta pastelak zelangura jatea baiño. Tamala yoat, lagun, baiña betekizunak dei egiten yaustak.

Arrituta geratu nintzan. Pirmin burutik eginda ete egoan, edo-ta geisorik, urrean? Noiztik orren eredugarria...?

—Olan dokan ezker —esan neutsan pipertuta—, aate bigaz zertuko nok. Agur, Pirmin, jakintzea irekin izan bedi.

Eta asarrez jabetuta, etxerantz bideratu nintzan. Baiña ozta-ozta bizpairu oinkadak egiñik, nire adiskidearen didar batek burua biurruerazo eustan.

—Iujuuu... Aupa...! —oiu egiten eban txapela gorantz jaurtiz—. Au poza, mutil, egun batzuk gozopil eta pastelen artean igaro, eta gaiñera aate bi bana kolkorako...! Txotxolo, besteren txotxolo, uste al-enduan burutik eginda ñengoanik...? Ez orixe...!

—Beraz, nirekin etorriko az...? esan neutsan poz-pozik.

—Ez nok joango ba...? Anux-borda'rako aateak lortzekotan, ludiari bira emongo ñeuskiok.

—Orduan garaia elduta, Aranegi'rakoan aita ta biok bidebatez artuko augu.

—Ederto, goizeko zazpiretan zuen begira izango nozue.

—Agur, Pirmin.

Gure asmoak uste izandako lez bete ziran. Eguna elduta, Aranegi'ko okindegian arrera ona egin euskuen, eta urun, labazari ta oregailluen artean lanari buru-belarri emonda, okintzari aalik ondoen ekin geutsan, baita etxerik-etxe aginduak banandu be. Olan ba egun aztueziñak igaro ziran zenbatgura gozopil jateko eskubidea izanik. Noizbait, Gabonzaarreko arratsaldea elduta, etxeakoandreak gozopil bete zorrotxu bana emon euskun, eta aateak aututeko esanda, kortara joan gintzazan. Ondo aztertu ondoren, ar ederra ta iru eme mardo artu genduzan.

—Ez dozue begi txarra, mutillak —esan euskun irribarrez etxeakoandreak— neronek ez neukezan orreixek baiño autuko. Orain zoaze etxera illundu baiño len. Urtebarri ona igaro, eta goraintziak etxeakoai.

—Millesker etxeakoandrea —erantzun geutsan.

Eta pozaren-pozez abestuz, Iturrizaga'ko bidetik etxerantz abiatu gintzazan, aate bi bana besopean geroiazala. Bidean zear, edurmalutak jausten asi ziran, eta illunabar orduko, edurketa lodipean, etxe-inguruak zuriz jantzita agertu yakuzan.

Olan asi zan Anux-borda'n aate-azkuntzea. Gau aretan benetako aparti gozoa izan genduan, eta amak atondutako marrakuku beroa, neuk inoiz jandakorik onena azaldu zan. Amabiak doi-doi jotean, jagi gintzazan, eta Urtebarri zorionsua alkarri opa izanik, otoitz bat az genduan. Jakiña, aparti aretan Pirmin maikide izanik, lo egiteko gurekin geratu zan.

Urtarrilla'ko erdirantz, txarriaren ilketea gertatu zan. Guztion laguntzaz, amak odoloste ta ziztor ugari egin eban, eta sabaiko abetatik eskegita, urdazpi, urdai, eta saietsak eskaratzari benetako itxura atsegiña emotsoen. Txarriki arein bidez, urte guztirako janaria osotua zan. Andik egun batzutura, aiteitak, Aranegi'ko azokatik txarri txiki bat ekarri euskun, oi lez etxean loditzeko urtearen bidean.

Negu aretako igande baten erauntsi ta abazuzak leiarretan danbolinkatzen ebezala eta inguruko mendiak Sorgiñ-ate'raiño edurrez estalduta agertzen zirala, aitiba, Iñese, Matxalen, Pirmin eta ni, sutondoan gengoan. Bezperetara joateko eguraldi guztiz zakarra izanik, etxean geratu gintzazan, eta subazterreko mukur gartsuari begira, alkarriketa nasaiari emoten geutsala, gaztain-danboliña eragiten neban. Aspalditik gauza bat ezagutzearren jakin-gura andia gogoan ebilkidan, eta erea egokitzat uste izanik, aiteitari,

—Aizu, aitiba —esan neutsan—, inguru oneiri Anux'en kutsua darie. Ara: Anux-borda, Anux-erreka, Anux-adarra... Zergaitik etc...?

—Ori, antxiña baten jazoriko ipuin zaarra yoagu.

—Aitiba, esaiguzu ipuin ori...! —arrenkatu geutsan guztiok.

—Nire amari entzundako itz berberakaz esango dautsuet.

Aitiba, txingar bat artzeko makurtu zan, eta pipea piztu bitartean, gure begiradak beragan untzatuta egozala, patxara osoan asi yakun:

“—Antxiña baten, Andutze'ko mendiak sorgiñez beterik ei'egozan. Urteen bidean, baiña, sorgiñai ikusmena makaltzen asi yaken, eta eiztari ta aizkolariek ikusi ez egieezan begirariak nonai jari ebezan. Alan eta guzti be, euren ikusmen urriagaitik, batzutan ikusiak izateko zorian billakatu ziran. Gauzak olan izanik, Anux'ek sorgiñen nagusiak, batzar andi batera Sorgin-larre'ko zelaira dei

egin eban. Batzar onetan, egoera ondo aztertuta gero, urtenbidea izarrai galdetzea erabagi eben, baiña izarrek keiñu ta keiñu, arein eskabideari ez eutsoen jaramonik egin gura. Gabeko erregin zuria etc...? Eta iretargiari onua eskatu eutsoen, baiña onek be, isiltsu ta irribarreka ez eutsen erantzun gura. Orduan, euren lagun-miñari, ego-aizeari, ozkarbi bateko gau ederrean dei egin eutsoen, eta au urrutiko lurretatik etorrita, Sorgin-larre'ko bedar luzea urrezko orraziz laztantzen ebala, asperen epelakaz, auxe esan eutsen:

—Autu egizue begiraritzat, ikusmen zorrotzeko neskatil zuurra... Ulu... Ulu... Ulu...!

Au entzunda, sorgiñik maltzurrena zan Akutz aurkeztu ekion agindu eban Anux'ek.

—Akutz orrek, aditu egistan ondo —esan eutsan sorgiñen buruzagiak—. Yandur-arana'ko etxe guztiak ikertuko dozan, eta begimen zorrotzeko neskatil zuurren bat idororik, arin baten ekarriko yaus-tan, eta biar emen bertan neskatil orrekin aurkeztuko azan. Orain abiatu lenbailen ire arazoa burutzeko.

Urrango gabeen, Akutz Sorgin-larre'ko akelarrean esku-utsik agertu zan.

—Non don neskatillea, baiña...? —itaundu eutsan Anux'ek suminduta.

—Ez yauanat neskatil egokirik jaritsi, Anux —erantzun eutsan bildurti Akutz'ek—, baita orretarako Arandibar'ko etxe guztiak aztertu bayoanadaz be...

—Esaigun jazorikoa —agindu eutsan Anux'ek.

—Ara ba... —asi yakon Akutz bei baten buru-azurrean jesarten zala—, erratza artu naiuanan, eta onen gainean zaldiz, Arandibar'e-rantz abiatu nintxonan. Errira elduta, etxe guztiak arakatu naiuazanan, baiña nik billaturikoa ez naiuanan idoro. Olan nenbillenan, erriko azkenengo etxea aztertuta, emen bai egoala begi zorrotzeko neska polita...!

—Zelan yakin begi zorrotzekoa zonala...? —Anux'ek barrero.

—Ari begira ñengonala, kukuso batek arasatik ikoti egin, eta neskatilleak aidetan ikusi eta sorura barik atzitu yoanan, baiña...

—Zer, baiña...? —ebagi eutsan Anux'ek.

—... Baiña neskatillea errena zonan, jesarrita egon arren, oiñetako baten azpikaldea bestea baiño lodiagoa zonala oartu naiuanan-eta... Zelan jakiñerazo garaiz, arrotz baten etorrerea...? Orduan erria itzita, esku-utsik biurtu non.

—Gaur berton, Idurene erria arakatuko yon, eta biar barriro be emen aurkeztuko azan —esan eutsan Anux'ek aginkor.

Urrengo gabeen be, Akutz bakarrik aurkeztu zan.

—Eta neskatillea...? —asarre bizian oi ugin eutsan Anux'ek.

—Atzokoa be alperriko lana, naiz-eta lei osoa ipiñi arren —asi yakon Akutz buru-makur—. Idurene'ko etxe guztiak aztertuta gero, noizbait begimen zorrotzeko neska polita idoro naiuanan.

—Zelan yakin begimen argikoa uanarik...? —Anux'ek oster.

—Ari begira ñengonala, sabaitik ebillenan zorri bat ikusi, suatzak artu, eta sutara jaurti yoanan. Eta entzumena...? Axe bai ernai...! Ganbaran yiardunan amarau baten erabilte adigaitza oartu be...! baiña...

—Zer baiña...? eten egin eutsan zakar Anux'ek.

—Neskatillea ez zonan zuurra, ganorabakoa baiño. Lagun batzuekin jardun bitartean, ez eban besterik egiten barre ta barre baiño edozein gauzagaitik, txatxukeria bazoan be, agin ederrak erakustearren. Zelan ipiñi gure uste osoa olako txatxala burubako bategan...? Begirari txarra izango litzakigu bere buruaren edertasunari orrenbeste ardura emoten yautsona.

—Gaur gabeen, Amilaz erria ikertuko yon —begikada ikarragarriaz agindu eutsan Anux'ek— eta azkenengo azterketea izanik, entzun egistan ondo: neskatillaren bat ekarten ez ba'yauskun, neure azkazal oneikaz begiak atarako yauanadaz.

Gaberdian, Akutz Amilaz'era bideratu zan, eta erriko etxe geienak alperrik ikertuta gero, kezka bizian azkenengo etxerantz jo eban. Danak lotan egozan, eta oin-muturrez, Izartxu, alaba gaztearen lo-gelara sartu zan. Axe bai neska polita iñon neska politarik ba'da...! Amasei urtekoa izango zan, eta bere aurpegi maitagarria

iretargiaren izpien pean, lore baten amesa neskatilla biurturik zirudian. Izartxu lotan zala, aingeru zaindaria atsedena jagoten eutsan. Alako baten, neskea iratzarri zan, eta begi andi sakonak edegirik, aingeru zaindaria ikusi eban eta irribarre egin eutsan. Neskatillearen begi ederrak...! esan eutsan Akutz'ek bere buruari, eta zelan zorrotzak ez izan, aingeru zaindaria ikusteko gai izanik...? Gaiñera gutiz zuurra izango zan, izan be, ondoan aingeru bat ebana... Eta beste barik, Akutz'ek lotan zirauan neskatillea besoetan artu, eta eguratsean zear, Sorginlarre'rantz eroan eban, baiña aingeru batek erraikion...

Sorgiñak poztu ziran benetan Izartxu'ren etorrereaz, begirari bikaiña izanik, nasai-nasai oiko zeregiñai adore barriaz emoten eutsoelako. Gaba asten zanean, sorgiñek Izartxu iratzarri, eta Sorginlarre'ko amiltegiko erpiñean kate lodi bat az atx batera lotu oi eben, iges egin ez ekien, inguru areik begi sarkorrakaz zaindu bitartean. Goizaldea etorrira jareitzen eben, eta leize batera eroanda, Añubi'k sorgiñen bela ikaragarriak neskatillea zaintzen eban. Anux'ek, baiña uste osoa Izartxu'gan jarrita ez eban ezker, bein baten beleari onetaraxe agindu eutsan:

—Añubi, egunen baten neskatilleak iges egin nai ba'yok, erpeakaz begiak atarako yautsazak.

Izartxu gaisoari, Sorgin-larre'ko gau izugarrietan, malkoak etenbarik eriozan ezker, begimena moteltzen asi yakon, eta Anux'ek ontaz oarturik, illundu baiño len, egunoro ordubete batez, Iturrizabal'ko ur ozkirrietan begiak garbitu egiazan, belearekin joan-erazoten eban.

Bein baten, Andima, erriko aizkolari kementsua iturri baten billa joian Andutze'ko mendi malkorretan zear. Illunabarra laster etorteko zan ezker, iraduz ebillen txapar eta elorritz inguraturik. Ezustean, iturri baten arradea entzun eban, eta ara joanda, iñarradi lodian zear ekusanaz lilluratuta geratu zan. Iturburuan, edertasun bardinbako neska batek begi yaukalak ur gardenakaz igurtziten ebazan, eta bela batek neskearen gaiñetik bira ta bira ziarduan. Arandibar'ko aizkolariak Izartxu'gandik erion zoramenak eraginda, elarrak baztertu, eta aurrean aurkeztu yakon onetaraxe iñotsala:

—Nor zaitut, oianeko alaba yaukala...?

—Alde egin... alde egin...! —oiu egin eutsan ikaraturiko Izartxu'k— ostantzean beleak begiok atarako daustaz...!

Une aretan bertan, Añubi'ren soiña geriza izugarria bai'litzan, tximista alakoa neskeari eraso eutsan. Aizkolariak, baiña, aurea artuta, Izartxu'ren bekoki-gaiñean kokatzeko zorian zala, eskuaz beleari eutsirik, estualdi indartsuaz ito egin eban.

Orduan, Izartxu'k Arandibar'ko aizkolaria danatzaz jakitun ipiñi eban, eta amaitzean, bildurrez dardar asi zan, auxe zirautsala:

—Gertaturikoa jakinda, sorgiñek atzituko gaituez. Erratzen gaiñean multzoka atzetik etorriko yakuz, eta ilgo gaituez...

—Baiña ikusmen urrikoa izanik... —asi zan Andima. Bapatean burutapen batek jota, onetaraxe jarraitu eban—. Aizu Izartxu, zoaz oi lez amildegiko erpiñera, eta kateari lotuta baiño ez, asi zaitetz oiuka, eiztari-saldo andia alde guztietatik datorkiela, eta enparaua itzi egistazu neure kontura.

Orduko illuntzea izanik, Izartxu ariñeketan oiko begiratokira joan zan. Ota-ozta kateaturik, neskatilleak didarrez,

—Eiztariak, eiztariak —jaurti eban—, atzetik eta eskuma-ezkerretik urreratzen yakuz... Alde egin, alde egin...!

Izu gorrian sorgiñek erratzak artu ta aurrerantz jo eben lerro luzea eratuz, neskatillaren ondok igaroten zirala iges egitearren. Baiña euren begi motelek ez egikeen neskatillaren ondoan egoan aizkolaria ikusi, eta onek sorgiñak igaro ala, aizkorakada banaz arein erratzak austen eutsezan. Ulu izugarriak jaurtiz, sorgiñak illunpetan amiltzen ziran, eta beeko atxetan arein gorputzak ler egiten eben atx biurturik. Lerroko azkena Anux etorren, eta ikoti egiteko gertuten zanean, iretargiaren izpi batek aizkoraren sorbatzari dizdira atara eutsan. Anux orduan Izartxu'gana oldartu zan didarrez, auxe iñotsala:

—Madarikatu ori, ilgo aunat...!

Baiña Andima'k aizkorakada sendo batatz, neskatilleari katea ebagi, eta besoetan artuta, igesari emon eutsan. Izartxu'k zuzenduriko, aizkolaria zidor batetik mendian beera oldartu zan, Anux'ek urretik erraikiola. Baiña ikusmen urrikoa izanik, gazteen aztarnak

laster galdu ebazan, eta norabarik ibiltzen zan. Olan joiala, baiña, barrero be illargiaren izpiek aizkoreari beste dizdir bizi bat atara eutsoen, eta gazteak sortalderantz abiatzen zirala oaturik, oiu egin eban:

—Andutze'ko mendiak, itxi zaitetze sortalderantz!

Eta bapatean mendiak jagi ziran, sasi ta arantzakaz esi igaroeziña eratuz. Izartxu ta Andima aurrera eragotzirik, sarkalderantz joan ziran beste urtenbide bat jaristearren. Alako baten, Anux'ek aizkorearen dizdira ostera be ikusirik,

—Andutze'ko mendiak, itxi zaitetze sarkalderantz! —agindu eban.

Len lez, orain be, gazteek aurrera joan eziñik, iparralderantz jo eben, Yandur-erreak'eren ertzetara eltzeko asmoz. Orretarako, baiña zelaigune zabala zearkatu bear, eta laster Anux'ek barrero ikusi ebazan, ulu ta karkar izugarrien artean. Erratz-gaiñean zaldira, gazteen jarraian oldartu zan, auxe iñoala:

—Andutze'ko mendiak, itxi zaitetze iparralde...!

Baiña garaille zalakoan itz oneik esatean, Izartxu ta bere burua gadutzat ikustean, Andima biurtu, eta bultz indartsuaz aizkorea sorgiñari jaurtiki eutsan. Orduko, Indusi ta Muñagorri alkartzen asi izan ziran, iparralderantz agindutako esia egitearren, baiña alkartze-ko zorian zirala, txistu biziaren Andima'ren aizkorea Anux'en bekokian untzatu zan, eta sorgiña ilda, Indusi ta Muñagorri arteko mendatean amildu zan. Anux'en gorputza lurrera jotean atx biurtu zan, eta bere iñarra, atx-erpiñeko elorria.

Ordutik, mendatea Sorgiñ-ate izenaz ezagutzen da, eta letagin izugarriaren antzera jagiten dan atxa, Anux-adar. Eta gero emen bertan eraiki zan borda, Anux-borda izenaz ezagutzen da”.

—Eta zer jazo yaken Izartxu ta Andima'ri? —jakin-miñaz eraginda galde egin eban Iñese'k.

—Gure gazteok —erantzun eutsan aititak —Arandibar'era joan ziran, eta alkar maite eben ezkerro, andik illabete batera ezkondu ziran, egundoko eztegua ospatuz. Gero, urte askotan zoriontsuak bizi ei'ziran...

Ipuiña amaitutakoan, isillunea edatu zan, bakotxak antxiña bateko jazoera ausnartzen genduzala. Bapatean, eskaratza usain sarkorreko keaz beteten asi yakun. Neuk ipuiñagaitik aztutako gaztaiñen danboliñetik erion.

—Anux'en mamuak egin dau ori —esan eban Pirmiñ'ek barrez—. Geuk adi-adi ipuiña entzun bitartean, ke-bidetik yatsi yaku ta gaztaiñak ikaztu dauskuz.

Eta berarekin batera danok barre egin genduan.

—Aitita —esan neban gaztain barriak danboliñera sartzen nebazala—, niri ez yat atsegin gure etxe maite politak sorgin baten izena eroan dagian.

—Zein izen jarri euskiok ba?

—Orain ez yat bat bera be bururutzen, baiña egokiren bat asmatu bear dogu...

Gau aretan, ekaitzaren uluek inguraturiko oean nentzala, gure etxerako izen barriaren asmatzeari emon neutsan, baiña dana alpe-ririk, ez yatan bururutzen gure bordak merezi eban baizen polita. Gero, loak artu ninduan eta ames egin neban sorgin gaizto batek bein eta barriz, danboliñean jarritako gaztaiñak erretzen euskuzala.

Udabarria etorri zan, gure txokoa leku zoragarria biurtuz. Sagastia lorakaz estaldu zan; bedartatik usain sarkor, pizgarria, edatzen zan; zugaitzak orri barriakaz jazten ziran, eguzkiaren laz-tan epelaz bizkorturik; txoriek zikiriozko sama barriaz ortzi urdi-ñaz maitemindurik, euren bizi-guraria txio ta txioka adierazoten eben, Yandur-erreak'ren suzmur bizek lagundurik; latsaren ur gar-denak joale ñimiñoen antzera, pozaren-pozez bordaren ingurutik argizko aparrez artean euren betiko amesak azaltzen ebezan. Etxe zaarrak soillik, orma margulak orbanakaz zaurituta lotan zirudian, udabarriaren kutsuari erantzun barik...

Orduko, etxe-barruko atonketea amaitu izan zan. Aititaren esku trebeek amaika bearrezko lan bete izan ebezan, eta guztien artean agiriena, areitezko oe bikaiñak ziran.

Arratsalde baten, Indusi'ko egian bedarra igitatzen niarduala, etxerantz begiratuz, auxe esan neutsan aititari:

—Etxea barrutik txukundu dogu, aitita, baiña kanpotik betiko itxura negargarria erakusten dau.

—Egia dok, Yon Ander.

Ezustean, ganbaran suil bete kare oraindiño erabilli barik gen-duala bururatu yatan.

—Aitita, zergaitik ez zuriztatu...? Kare ugari amaitu barik gera-tu yaku.

—Bai, baiña zailla dok ori. Beeko aldea, tira, baiña goikoa... zelan zuriztatu...?

—Zeuk gura izatekotan... —arrenkatu neutsan— erraza litzakigu, oltza bat egingo ba'zendu...

Aititak ez eustan ezer erantzun, baiña urrengo egunean goize-tik etxea maillu ta zerraren otsakaz bete zan. Aititak oltzea egiten ziarduan. Pozaren-pozez, ganbararaiño oldartu nintzan, karea artu, eta erratza zaar bataz zurdaki luzea egin ostean, adorez jabeturik, etxaurreko ormea zuriztatzen asi nintzan. Zati bat eginda gero, lenengo maillako leioetan oltzea ipiñi genduan, eta egaperaiño eldu aal izan neban. Iru alde ondo zuriztatu ondoren, laugarrenari, au da, sortaldekoari, garaia eldu yakon. Alde au untz jori bataz antxiñatik estalia egoan.

—Yon Ander —esan eustan aititak—, oba litzakigu untza sus-traitik ataratea, bear dan lez zuriztatu ez dagikegu-ta. Gaiñera, ostail-artean, euli, eltxo, txiribiri ta abarrentzako, leku egokia biur-tu da.

Untza erauzi...! Leiotik lekorean gauoro suzmur gozoakaz urru-matzen ninduan eta aizeak laztanduriko nire amesen artean dan-tzan egiten eban laguna... Iretargiak musukaturiko, iñontzezko bitxia-kaz jazten zana, eta neguko ekaitzetan maitasun etsiaz gure bordako orma zaarra besarkatzen eban nire adiskide gautarra sustraitik ata-ra... Ez orixe...!

—Arren aitita, itzi dagigun untza bere lekuan. Bera barik nire gela arrotza biurtuko litzakit. Zein ondo alkar aditzen dogun ba'zeneki...!

—Untz ori, baiña, eragozpena baiño ez dok...



—Itzi dagigun, besterik ez arren, leioraiño edatzen dan kimua...!

—Nai yokan lez, Yon Ander —asarre izunaz ebatzi eban aiti-tak—. Ez yakiat zer arraio yaukakan buruan, baiña ire guraria beti egiten yok.

Iribarrez begiratu neutsan, eta guzurrezko asarrea gorde eziñik, berak be irribarre egin eustan.

Olan ba, sortaldeko ormea zuriztatu neban, eta leioraiño jagiten zan itzitako kimu sendoa, zuritiesun osoan margo orlegi biziaz bereizten zan.

Bein baten, eguberdi inguruan Mikel Jauna ikerraldi bat egitera etorri yakun, eta danok agurtu ondoren, arrituta azaldu zan etxeak izandako aldakuntzaz.

—Ben-benetan —esan euskun—, asmaeziña da etxe onek orain daukan itxurea, zein itzia egon dan kontuan arturik batez be. Benetan nire goresmenik zintzoenak emon bear dautsuedaz. Esaidazue, zelan konpontzen zarie orain...?

—Ederto, Mikel Jauna —erantzun eutsan amak begirunez—, berorri esker. Ez da gitxi, ain zuzen be, gure alde egin dauana.

—Bai benetan —eratsi eban aititak—, ori ez dogu zelangura aztuko. Orain, Mikel Jauna, burura datorkit aspaldi onetan beti gogoan daukaguna, ots, etxeko alogera, orain arte orreri buruz ez da ezer erabagi-ta. Nire ustez, ordua da arazoari ekiteko.

—Etxeko alogera, diñozu...? —erantzun eutsan osagilleak irrikoi—, Amaika izerdiz orren polito Anux-borda jarri, eta etxe-saria aititzen dozu...? Ken ortik...! Aurten beintzat ez daustazue ezer ordaindu bear, eta datorrenean ikusiko dogu...

—Baiña... —aitita asi zan.

—Naikoa bedi —ebagi eutsan osagilleak joateko jagitean zala—. Orain etxera joan bar dot, berandu samar da-ta. Guztitariko zorionak opa izaten dautsuedaz, eta Juan'eri, nire aspaldiko adiskideari goraintziak.

—Jaungoikoak berorri lagundu dagiola...! —erantzun eutsan amak.

Idurene'ko bidea artu baiño len, une batez etxeari begira geratu zan, eta berekiko bai'litzan,

—Toki zoragarriko etxe polita —esan eban—. Nork esan, antxiñako Anux-borda zaarra orren ederra billakatu zeitekeanik...?

—Bai, Jauna —esan neutsan adorea jabetu eziñik—, baiña are politagoa biurtuko da ate ta leioak margoztu dagiguzanean.

Izan be, sarri askotan etxekoek erabilitako asmoa zan, baiña diru-ezagaitik beti gerorako atzeratu bear izan genduan.

—Margoztu yiñok...? —bekokiari txalo bat emoten eutsala esan eustan— Demoniñoa...! Ez lenago bururatzea be...! Aiko, ator nirekin eta emongo yauat gurean dagoan ontzi bete margoki.

Pozez ler-giñean lagundu neutsan, eta bere etxe ederra elduta-koan, margoki-ontzi andi bat emon eustan. Ez nekian gure osagille eskuzabalari zelan eskertu, eta berba totalaz eskerrak emoten saiatzen nintzala, irribarreka agurtu ninduan.

—Oa, oa etxera, mutil, bestelan bazkaitarako berandu samar egingo yak-eta.

Arratsalde aretan bertan, ateak, balkoi eta leioak margozten asi nintzan, eta andik egun batzutara, etxeko zureria orlegi biziaz apainduta agertu zan.

Udabari aretako goiz eder baten erritik nentorrela, langa igarotakoan, lilluraz menperaturik gelditu nintzan. Goizeko eguzkiak musukatuta, gure etxea argiz dizdiraka, inguruko orlegian uso zuri lakoa bereizten zan. Bai polita teillatu gorripean barri margoturiko leiokin, eta untzak besarkatuta...! Nork esan antxiñako Anux-borda goibela, orren txukun biurtu leitekenik...? Anux-borda...! Bapatean, udabarriko goiza baizen argia, izen bat burura etorri yatan. Unerik galtzeke, aldatz bigunean beera oldartu nintzan, olezko zubiñoa zearkatu, eta albetan etxera sartu nintzan didar bizitan:

—Ama, aitita, badaukat, badaukat...!

—Baiña seme —itaundu eustan amak arrituta—, zer abil orren zirikatutik...?

—Izena, ama, izena...!

—Zein izen, baiña...?

—Gure etxearena —arnas-estuka erantzun neutsan—. Oraintxe bertan bururatu yat.

—Zoriona...! —gaia atzituz esan eustan aititak—, eta zein izen otu yak ba, gure etxerako...?

—Bordazuri, Bordazuri...! —jaurti neutsan garaillearen itxuraz—. Zer deritxazu orreri, aitita...?

—Izen egokia benetan...!

—Bai, Yon Ander —eratsi eban amak—, nire ustez ezin ederragorik.

Betarik galtzeke, ol zabal bi artu nebazan, eta oneitan aalik ondoen margo-ondakiñaz, “BORDAZURI” izena bietan idatzirik, ol bat Idurene’ko langan jarri neban, eta bestea Arandibar’koaren gaiñean, areitz-adar batetik eskegita.

Etixerantz niñoala, txoriek, Yandur-erreak’k, eta gure lats txikiak, “Bordazuri, Bordazuri” barreatzen ebela iruditu yatan, eta areikin batera nire biotzak “Bordazuri, Bordazuri...!” taupadaka birresaten eustan.

## MIMIÑE

Egunak bare ta irrikoiak alkarri erraikioen gure Bordazuri zoragarrian. Jorrailla’n aitita ta biok etxea ta Muñagorri artean zetzan zelaia, goldeatu genduan. Au bai lan zaila ta neketsua! Abererik ez genduan ezkeru, aitzurrez landu bear ziran, baiña uztaren erakarpenak adoreturik, Orrilla’ren erdi-alderako, alorra gerturik egoan satza ta ereintza artzeko. Arloa iru zatitan sailkatu genduan; andiena, ots, goikaldekoa, indiaba ta artoarentzat; erdi-koa lursagarrentzat; eta etxetik urrena, ortuarientzat. Orrilla amaituta, indiaba ta artoa erein izan ziran. Gero, ur-jasa lodiak eldu, eta onein atzetik eguzkiaren izpi indargarriek deituta, lurpetik artoaren lenengo kimu samurrak ler egin eben aizearen laztanen irrikan. Indiaba ugari erein genduan, urte guztirako izan be, baita artotan etxerako ta egaztientzako bearrezkoa zana. Jarraian, guztitariko barazkiak sartu genduzan, baita lursagarrak be uda amaitu baiño len.

Bitartean, gure bei Apala’k txala egin eban, eta urruxa izanik, etxerako gordetea ebatzi genduan. Lats eta Indusi arteko bedartzea eder-ederra etorri yakun, eta batu ondoren, iru igitaldien bedarrondua iru meta eder biurturik, etxe-ostean jagiten zan.

Gure oilloak emonkorrak azaldu yakuzan, eta oillasko, oillanda ta txitetan, irurogeitik gora batu genduzan. Gure elburua, oillaskoak geroago Aranegi’ko azokan saltzea zan, eta oillandak etxerako gordetea, oneik emongo leuskiguzan arrautzak be saltzeko.

Aranegi’ko ogitegitik ekarritako aateak, latsean gora ta beera ibilli ta murgiltzeaz ezin ederrago billakatu ziran, baiña udea eldu-

ta, euren karrankak bakantzen asi yakuzan, eta mamuak bai'litza-  
zan, lenengo bat, gero beste bat, eta azkenean irugarrena ostendu  
ziran, arra bakarrik etxe-inguruan ebilkigula. Iru aateen galtzeaz  
larriturik, aitagana jo neban nire kezka azaltzeko. Aititik baiña  
ez eustan jaramon andirik egin, aitzitik, irribarre zabal bat az  
esan eustan:

—Ez larritu, Yon Ander, luzaro barik ikusiko yozak, eta gaine-  
ra laguntza ugariarekin.

Eta egia azaldu zan. Andik ogeitsu egunen buruan, ara non  
agertu yakun Muñagorri'ko sastrakatik aldatz-beera, aate-eme bat  
txitazko jarraigo ugariak erraikiola. Barregarriak baita zoragarriak  
era berean, txitak egiten ebezan aalegiñak ibillera baldarraz lego-  
rean amari jarraitzeko.

Latsaren ertzera elduta, baiña, itsumustuan uretan murgildu  
ziran lengo kankailtasuna txairotasun biurtuta, oial-ontzi bellegiak  
antzera idoietan amaren ardura-pean, ugeri egiten ebela. Gero,  
txandaka, beste aate biak lenengoa beste txita ugariekin azaldu  
ziran nire poz andirako. Danean, ogei ta amartsu txita batu gendu-  
zan. Kopuru polita bere garaian Aranegi'ko azokan saltzeko.

Bordazuri'n egunak bakez beterik igaroten ziran, gutariko bako-  
txa bere zeregiñari lotuta. Orain ez geuntsan bildurrik etorkiari, eta  
gure bazter zoragarrian, maitasunaz alkartuta, itxaropenaren ego  
lantzangarriek biotza zorionez beteten euskuen.

Amak betiko aingeru maratz, atsegin eta baikorra zirauan,  
guztion ondo-izateari emonda. Inese ta Matxalen esaneokak, gero  
ta politagoak, maitekorrakoak, bakotxak gogoak agindutako ildoari  
erraikiola. Inese'k amaren zaletasunak erakusazan. Matxalen'eri  
barriz, aitaren jasekoa izanik, adimenaren sakontasuna argi bizia  
antzera isurtzen yakon. Aitita oikoa zan, begien dizdir irrikoia ta  
adiñaren jakintza baita neuganako zaletasuna garaitu eziñik.

Etxeko zeregin bearrezkoenak amaitu yakuzanean, aititik, barri-  
ro be arozkintzari emotea asmatzen ebala adierazo euskun, eta  
antxiña lez etxerik-etxe lanean asiko litzakela. Etxeko guztien ezetz  
irmao ikusita, baiña, amor emon bear izan eban, eta or-emenka  
beti ebilkigun lan eta lan. Aitak Aranegi'ko aroztegi zirauban,  
zorraz zuzitzeko asmoak jabetuta. Berak irabazitako diruak Arotza-

baita'ko lurren salketeari eratsita, laster erraztuko euskun bein beti-  
ko lengo zorraz garbitzea. Luzaro barik etorriko yakun aita bere  
esku izango litzaken garaia, eta orduan... Bai, zein sarri etxeko  
guztiok Bordazuri'ko sukalde zabalean batuta, gai onetzaz itz egi-  
ten genduan...! Amaika asmo gerabillezan aldi zorionsu ori elduko  
zanerako. Orduan, aitak oiko lana bere gain artuko leuke, eta  
batutako mozkiñaz, beste zerrategi bat eraiki.

Sarri askotan olan giarduan itxaropenak adoreturik, baiña gau-  
za bakana... aitak ez zirudian gure kemenaz kutsututa, osteraz,  
begitarrea utsean galdurik, isillik egon oi zan, nekatuta edo-ta  
barruko kezka bat aztituta bai'litzan. Zergaitik ete...? Zerk eroian  
gure asmoakandik orren urrun? Bein baiño sarriago, nire jakinaiaz  
beteriko begiakad beragan untzatuta oartzean, begiratzen ninduan  
irrikoi, eta edozein gaiari sasi-adoreaz ekiten eutsan, baiña barrutik  
kezka mingarri batek biotza zapaltzen eustan.

Udazkena zan barriro, eta Yandur-arana'ko bazterrak orlegi  
bizi ta urre yakala biurtu ziran. Laster beteko zan urtebetea  
Arotzabaitako ondapenetik. Bai, egunen jarraigo isilla egaketa irris-  
takioiaz gure ondotik arin igaro izan zan...!

Igande bateko arratsalde ozkirrian, ama oi eban lez an-emenka  
arazopetuta ebillela, Bordazuri'ko sutondo-inguruan baturik, Inese,  
Matxalen, Pirmin eta nik erritik illuntzean etorrita, aitarekin autuan  
giarduan. Alako baten, atea zabaldu zan aitaren irudi lerdena ate-  
zubian islatzen zala. Jagi gintzazan, eta ongi-etorria emonda gero,  
sutondoko aulki bat eskiñi geutsan. Oi-ez-lako, aitaren itxurea  
illuna zan, eta etxeko oiñetakoak sartzen ebazala, begien itxuraz  
sumin andiaren pean egoala igarri neban. Ezer esan barik begiratu  
geutsan isiltasun betean. Alako baten, auxe esan euskun:

—Badirudi gure errian kristautasunik ez dagoala, edo-ta izanik  
be, lotan dagoala, urrean...

Begi miduak garretan untzatuta ebazan. Gero, begiradak geu-  
gana banan-banan jarririk, onetaraxe jarraitu eban:

—Bai al-dakizue zer ikusi dodan oraintxe, errian zear etxera  
nentorrela...? Zuen adiñeko mukitzu batzuk neskato gaixo baten  
atzetik, ariñeketan erraikioren arika egiten eutsoela “Sorgiña, sorgi-  
ña...!” esanez. Mutillak uxatzearen urreratzen nintzakiela, neska-

toak arri baten oztopo egin dau eta jausi da. Urreratu natzakio, eta bere etxera eroateko asmoz besoetan arturik, nongoa zan itaundu dauksat, baiña umeak negar isil bateri emon dauksa etsia, dardarrez besarkatu egin nauala berba egin eziñik, gaixoa... Belaun batetik erion odola garbitu dauksat, ea noizbait bareturik, nor zan esan daust, eta etxera eroan dot. Badakizue nor zan neskatoa...? Indabaita'ko alaba gaixoa...! etxera eldutakoan, aren amarekin autu bat izan dot, eta alabearen zauria garbitu bitartean, gaurkoa askotan jazoten dala esan daust, berak zergaitia ez badaki be, neskatoa oso esaneko ta maiekorra da-ta... Orain auxe jakin gura dot: egia al-da erriko mutikoez Indabaita'ko alaba gaixoa sarritan onetara darabillela...?

Gure artean isiltasun larria edatu zan, besterik aditzen ez zala mukurren zartadak baiño... Aitak esandakoa egia zan, eta ni gertara zital areitan tartekoa iñoiz ez izanik be, errudun izatearen oarpen bakana gogo-barrutik ebilkidan. Zer esan jakin barik, gar dantzariari begiratzan neutsen, eta lenengoz, zarrastada mingarri batek auxe esaten bide eustan: "Zu zara besteak baizen koldar eta zitala. Egia da Indabaita'ko neskatoa iñoiz ez dozula txarto erabilli, baiña non dozu gizontasuna olako gaiztakeriak ez eragozteko...?" Nirekiko latsa sakonaz menperatuta, aitaren begirada irmoari aurre egiten ez nintzan azartzen. Noizbait, Matxalen'en abots gozoak eten egin eban isillaldia onetaraxe:

—Bai, aitatu, zeuk ikusirikoa askotan jazoten da. Ez dakit zergaitik, baiña aspaldi onetan bidebagez mutil batzuk Indabaita'ko neskatoa begitan artu bide dabe, eta sarritan aurrean darabille. Gaixoa izuz beterik bizi da, etxetik urteteko ia azartzeke, eta arri-tzekoa dana, zoragarri ta on-ona da, iñon neskato onik ba'da.

Aitaren begiai txinpartak eriezan berba zorrotzakaz auxe itaundu eustanean:

—Esaidak, Yon Ander, zitalkeri orreitan iñoiz obenkide izan ete az...?

—Ez, aita —lotsati jardetsi neutsan—, nik ez dot olakorik iñoiz egin...

—Eta eu, Pirmin...?

—Nik, Jauna, arlote andia banaz be, ez dot olako oillokeririk egiten.

Egia iñoan gure Pirmiñ'ek, eta bagenekian guztiok olako zitalkeririk egiteko gai ez zala. Une batez aitak isillik iraun eban, eta gero naigabez lainoturiko abotsaz auxe esan euskun:

—Inguru onetako erri anditxu baten, orain urte batzuk jazorkoa esatera noatzue...

Lipar batez isildu zan barriro, aspaldiko oroitzak aztertzeke, eta orduan begien itxura asarrekoa guztiz gozoturik, jarraitu eban:

—Orain urte batzuk, senar-emazteak etorri ziran euren alabaxuarekin Gipuzkoa'tik Arizondo errira. Jose eritxan senarra erri-inguruko arrobi baten lan egiten asi zan, eta gizaseme zintzo ta trebea izanik, langille-burutzat laster jarri eben. Orduan, etxe txiki polit batera beretarrekin aldatu zan, eta benetako biziera nasai ta zorionsua asi yakon.

Errian bazan beste gizon bat guztiz bestelakoa zana: Erramun arlotea. Gizon au ez yakon iñongo ogibideri lotzen, eta ardaoak eraginda or-emenka arribillaren antzera ebillan. Txin batzuk egin baiño ez, bereala ardandegian erre oi ebazan, eta mozkortuta, batetik bestera berba totelaz eta abesti zantarrakaz guztien barregarria azaltzen zan. Ez eban etxerik, ez aiderik, iñork ez ekiala nondik etorria zan. Batzuk baztandarra zala iñoen. Gaba etorrita, Erramun mozkortia erritik urtetan zan eta mendian gora joian, borda bateko etxejoan errukitsuak izten eutsan lastotegiko txokoan lo egiteko. Urrengo egunean, diruak irautekotan edateari barriro, edo ostantzean lan baten billa.

Erritik bordarako bidea arrobi-ondotik igaroten zan ezkerre, lerkaiak su emon orduko, arrobiko langille batek gorenera igonik, bidariak geldierazoten ebazan oiuka, arri-zatiren batek jo ez egizan. Arratsalde baten, illunabarra asten zan garaian, arrobiko lerkaiak almutxaz piztuta ler egiteko zorian zirala, eta begirariak atx-gaiñetik bidea aztertzen ebala, biurgune batetik ara non agertu zan Erramun arlotea egundoko ordipean. Zaindaria oiuka asi yakon gelditu zeitela, baiña oarmenak galduta, mozkortia aldatz-gora ardurabarik joian. Arrobi-ondotik doi-doi igaroten zala, lerkaiak eztanda bizitan asi ziran. Ezustean, danbada izugarri batek bazterrak dardar jarten ebazala, mozkortia bide-erdian zer egin ez ekiala lotu zan.

Une aretan bertan, arri-zati anditzarra aidean zear biraka, biderantz amiltzen zan. An egozan guztiek Erramun-gaiñean jausiko zala ikusi eben, eta orduan... Jose atx baten geriza itzita, mozkortiagana oldartu, bultz indartsua emon, eta txirindolan aldatz-beera bota eban. Olan, Erramun arlotea onik urten zan. Jose'k ordea, garaiz ezin iges egiñik, arriaren kaska itzela bizkarrean artu eban. Unerik galtzeke errira eroan eben, baiña etxera barik il zan. Ezertarako gauzarik ez zan mozkorti ezain bategaitik, sendi baten euspina zan gizon zintzo batek bere bizitza emon eban. Ori da benetako maitasuna, mundu onetan maitasunik ba' da...

Aita isildu zan, eta begi ameskorrak garretan untzaturik, aspal-diko gertaera izugarria gogora bai'letorkion geratu zan.

—Eta bere alargun eta alabatxuak —itaundu eutsan Iñese'k malkoak begietan—, zer egin eben...?

—Alargun eta alabatxuak...? —ames batetik iratzarrita lez erantzun eutsan aitak—. Or-emenka etxe merke baten billa jardun ondoren, Arandibar'ko Indabaita'ra etorri ziran gaixoak. Danok dakigu zein biziera landerra darabilen, eta zelan, alguna erriko joskillea billakatu dan gosez ez iltearren. Eta au dana gitxi bai'litzan, erriko mukitzu batzuk alabeari arrika egiten dautsoe, aitaren antzera erailteko-edo...

—Olako lotsabakoek ez dakie zer egiten daben —eratsi eban aititak.

—Bai, olantxe da, urrean, baiña olakorik ezin dagiket jasan. Gaiñera, jakingo ba'zendue...

Baiña bapatean aita isildu zan esandakoagaitik damututa-edo, eta barriro be gogoeta sakonetan murgildu zan. Baiña areago jakin gura eban Pirmin'ek auxe itaundu eutsan:

—Eta Erramun mozkortiak, zer egin eban Jose'ren eriotzaz konturatu zanean...?

—Ori, batek-badaki...! —zimur bat bekokian ebala erantzun eutsan aitak—. Erritik betiko ostendu zan... Batzuen aburuz, bere senetara etorrita gero eta jazotakoaz konturatu zanean, etsia, menditan zear norabarik ibiltzen asi zan, eta noizbait, bere burua il egin ei'eban. Beste zenbaitek, ordea, Jaunaren doaiak jota, lekaide sartu

zala diño, egindako kaltea zelanbait garbitzearren. Jaungoikoak barkatu dagiola, eta Indabaita'ko errubakoai egunen baten zoriona emon dagitsela...!

Gau aretan, arrenkuraz nausiturik oean iraulkatzen nintzala, irudipen mingarri batek kezkatzen ninduan: Indabaita'ko neskatoaren soin ezaiña arrizko erauntsi baten pean igeska ta igeska joian... eta leioan zear latsaren suzmur salatariak auxe esaten bide eustan: “Zergaitik itzi dozu lotsabako orreik neskatoa orren txarto erabilli dagiela...? Aspalditik badakizu ori, baiña ez ikusiarena egin... koldarra besteren koldarra...! Untzaren ostoz zorrotzak gabaren altzoan kulunkatzen ziran, eta suzmurretan auxe esaten eustela iruditu yatan: “Koldarra, koldarra...!” Eta bapatean erabagi sendo bat artu neban...

Alako baten, zurubian gora etorren aitaren oiñotsak aditu nebazan. Isil-misilka, garrantzi andiko arazo batek kezkatzen ninduean oi neban lez, dei egin neutsan:

—Aita... aita...!

Nire deia entzutean gelditu ta gelan sartu zan auxe ziraustala:

—Zer jazoten yak, Yon Ander... oraindiño iratzarrita...? Amai-kak badozak onezkero...

—Bai, aita, baiña ezin dagiket lorik egin —ez nekian zelan asi, baiña azkenean itzak parrastaka etorri yatazan—. Indabaita'koai buruz esan dauskuzuena dala-ta... erabagi bat artu dautsut...

—Bai..? Zelako erebagi, seme...?

—Aurrerantzean ez dot itziko neskatoa iñork txarto erabilli dagian, orretarako aboa apurtu edo begiak andituko baleustez be...

—Ederto, seme —erantzun eustan irribarretsu—, eutsi ire asmo orreri. Jakingo ba'eu...

Baiña barriro be len lez isildu zan. Jakin-naiak eraginda, auxe itaundu neutsan:

—Jakingo ba'neu, zer, aita...?

—Egunen baten esango yauat. Orain, Yon Ander, lo egik...

Zer gordeten eban aitak bere barruan...? Zein ezkutu erabilen gogoan...? "Egunen baten esango yauat"... noiz baiña...?

Arrezkeroko egunetan ezin nengikean Indabaita'koen arazoa burutik kendu, baiña egunen bidean gogotik aztuten asi yatan. Udazkena aurrera joian. Orbelek mendi-zelaiak urreztatzen ebezan, eta ego-aizearen eragin epela bazter guztietan sentitzen zan.

Indusi'ko gaztaiñadira abiatzen nintzala arratsalde baten, zugaitzen pean morkotsen abo edegiak gaztain nabarrak eskintzen eustezan oparo, or-emenka nenbillela otzara batekin. Baratxe-baratxe, gaztain-batuketeari ekiten neutsala, baso betean aurkitu nintzan, eta gaiñez egoan otzarea alde batera itzirik, orbel bigunen gaiñean jesarri nintzan arratsaldeko bake beteak inguratuta. Ego-aizeak putz egiten eban aldizka, zugaitzen adaburuak samurkiro laztanduz, eta aizearen geldi-unetan ostoak nire inguruan jausten ziran, lurra musukatzeke iradubako urre-jarioa bai'litzan.

Ezustean, areitariko isillune baten, orbel-gaiñean egindako ibilte baten oiñotsa aditu neban. Norena etc...? Gauza bakana zan benetan, norbait andik igaro zeiten, Indusi'ko gaztaiñadia iñorako bidea ez baizan. Txitik atara barik, zutundu nintzan, eta oin-muturrez elorri bateraiño urreraturik, adarretan zear zelatan jarri, eta... arrituta geratu nintzan. Nor eta Indabaita'ko neskatoa...! Janzki urdin-illuna erabilen, oiñetan abarketa zaarrak, batetik bestera joiala ankutsik. Ezin nengikion aurpegia ikusi, ibillera neketsuz makurturik ebillelako gaztaiñak morkotsetatik jasoz, baiña anka luze argalek eta soin landerrak erakusten ebenez, gaisoak ez eban bizikera nasairik jasaten. Bapatean, aitak esandakoa burura etorri yatan, eta neskatoaganako erruki andi batek menperatuta, Indabaita'ko umezurtzari laguntzea erabagi neban.

—Eup...!!! —bota neutsan ezkutunetik urteten nintzala.

Latz-ikaraturik jagi zan soiña dardar bizian, begietan jazarturiko oreinkume baten begiratze etsia erakusten ebala. Unetxu batez igige iraun eban, begi ikaratiak nigan untzatuta, eta bapatean igesari emon eutsan, erdiz beteriko otzarea lurrean geratzen zala. Zoro antzera ariñeketan joian gaixoa, ankatxu aulak soinpean austeko zorian lez. Ez neban gura orren izaturik aldendu ekidan, nire asmoa neskatoa zelanbait laguntzea izanik batez be, eta aren jarrai-

tzeari emon neutsan. Alako baten, zugaitz baten sustraian soztor egin eban, eta luze-luze lurrera jausi zan. Katu basatiaren malgutasunaz, jagi ta igesari emon gura izan eutsan, baiña nigandik iges egitea eziñezkoa zala ikusirik, zugaitzaren enborrean zapaldu zan, eta aurpegitxua eskuen artean ezkutaturik, negar bizitan asi zan mintzo eskaritsuz auxe iñoala:

—Ez... ez... ez...!

Eta neskatoaren aurrean nengoala, barru-min antzeko zerbaitek biotza estutu eustan... Neskato gaixoa...! An egoan nire aurrean izuaren-izuz dardar eta negarrez, manturioan atzituriko basabereiño zoribakoa lez. Nirekiko lots bizia oartu neban... erriko beste mutil batzuk baizen zitaltzat nindualako, gaiztakeriz eraginda ume aul bateri min egiteko gerturik.

—Ez... ez... ez...! —urrudik bai'litzan bere arrenka etsia barriro eldu yatan.

Bapatean, neskato gaisoaren negar etsia ezin nengikeala jasan konturatu nintzan. Urreratu nintzakion, eta bere eskutxuak niretan atziturik, aurpegitik aldendu neutsazan, berba leunaz auxe nirautsalala:

—Baiña zergaitik orren izututa...? Basoan ikusi aunat eta autu bat irekin izatearren etorri natzan. Txukatu malkook, eta gero bion artean ire otzarea gaztaiñakaz beteko yoagun.

Neskatoak aurpegia jaso eban eta... itsumustuan begi andi-andiak izar bi lakoak neuretan untzatu yatazan. Ordurarte ez neban iñoiz ikusi izan, areik lako begi eder, sakon, neurribakoak. Bazirudian bere arima osoa areitan kokaturik egoala, argiz beteriko diamanteak bai'litzazan.

Une batez neskatoari begira ta begira iraun neban, eta gero irribarre egiten neutsala, orbel-gaiñean nire ondoan jesarri-erazo neban. Orduan auxe itaundu neutsan:

—Esan, iri zelan yeritxan...?

—Miren Zuriñe —esan eustan abots ez-titsuz.

—Zelan yiñoan, Mimiñe...?

—Ez, Mimiñe ez, Mi-ren Zu-ri-ñe.

—Ori luzeegia don, eta polita izanik be, niri atsegiñagoa yatan Mimiñe. Beraz, aurrerantzean Mimiñe esango yauanat.

—Nai yaiakan lez —erantzun eustan irribarrez. Eta iri zelan yeritxak...?

—Niri, Yon Ander.

—Ara ba, izena laburtu egin yaustakan ezkeru, irea be laburtu egingo yauat. Niretzat Yonan izango az.

—Ez don txarto emoten —erantzun neutsan.

Gero, une batez isillik iraun genduan, eta noizbait auxe esan neutsan:

—Ez bildurrik izan, Mimiñe, baatozken gaztaiñadi onetara noizgura. Gaiñera, gure gaztaiñak ibar onetako gozoenak ei'dozan. Orain, bion artean ire otzarea beteko yonagu, eta gaur bertan gaztain gozoak jango yozan. Bai al-daukazue danboliñik...?

—Bai.

—Ator nirekin ba.

Luzaro barik, neskatoaren otzarea goraiño bete zan. Gero, Bordazuri'ko edertasuna Mimiñe'ri erakustearren, eta oroz gain zelako zarrastadea egingo leuskion jakitearren, eskutik artu ta baso-mugaraiño eroan neban. Toki aretatik gure etxeak ikusgai atsegiña eskintzen eban, ibarreko txokoan bere orma zuriak argiz gaiñezka, baso-txaparrakaz ugalduriko muñoek inguraturik, eta Sorgiñate'ko gaindegitik bitsezko ari baten antzera amiltzen ziran latsaren ur biziak, etxeko aldamenak suzmurka zearkatzeko Yandur-erreako'ko ur ariñetan ostendu baiño len.

Mimiñe'k au dana isillik begiratzen eban, itz bat bera be esan barik. Eretia ustiatuz, neskatoaren irudia nire aukeran aztertu neban. Zortzi urteko izango zan, urrean, eta anak zeozer argalak baebazan be, soin lerdenekoa zan, izan be, palmondoa baizen txairoa. Sorbaldan beera adats gaztainkara bikaiña dizdir nabarras bizitzaz beterik jausten yakon; larmintza joriko aurpegia ez zan ederrenetako, ezpan gozoak eta suur txanbeliña bazituan be, argalegia zalako, urrean. Izan be, aingeru baten kutsua emotsoen begi eder argitsuen ondoan beste guztia ezabatzen zan.

Mimiñe'k luzaro samar Bordazuri'ko txokoa begiztatu eban, eta azkenean, berekiko mintzatu bai'litzan,

—Au bai leku ederra...! —urten yakon-Olako bazter zoragarrian betiko bizi nai izango ñeukek...

—Atsegin al-yan, beraz, gure txokoa...? —eten egin neutsan, bere oneritxia jakitean pozezko zarrastada batez menperaturik.

—Bai, Yonan, ez naiuan iñoiz uste izango, Anux-borda zaarra orren ederra biurtu lleitekenik...

—Aino, Mimiñe —erdiz asarratuta eten egin neutsan—, gure etxea orain ez don Anux-borda, Bordazuri baiño.

—Bordazuri, Bordazuri...! —jaurtiki eban begi bikaiñak argiz beterik—. Izenaren ederra...!

—Bai, jarraitu neban atsegiñez arrotuta—, len sorgin batena eroian, baiña etxea txukunduta gero, ez yatanan eritxi egoki, sorgin baten izena gure etxerako, eta azkenean Bordazuri otu yatanan. Egunen baten, Anux sorgiñaren ipuin zaarra esango yauat.

—Baita pozik entzungo be, ipuiñak benetan atsegin yatazak-eta.

Isillune laburraren ostean, Mimiñe'k auxe esan eustan:

—Egun aretan dana ikusi naiuan.

—Ikusi, zer...?

—Arotzabaita'ko ondapena —azaldu eustan berbots itunaz—, ikastolatik urteteen. Ezin yaiken asmatu zelango naigabea artu naiuan ire etxe ederra garretan ikusirik. Negar eta otoitz ugari egin naiuazan.

Samurtasunez beteriko Mimiñe'ren begitada gozoak gogobiotzeraiño laztandu ninduan.

—Bai egun ikaragarria izan zonala...! —erantzun neutsan aren begien lillurak uztaipeturik—. Baiña gauzak zeozer atondu yakuzan orain, gure zorra laster garbituko yonagu-ta. Gaiñera, orko alorretan etxerako lain laster batuko yonagu. Bayonaguz bei bat txalarekin baita oillo ta aate-saldo ugariak be. Egunen baten aate-txita bikotea emongo yautsanat.

—Au bai zoriona...! —oiu egin eban Mimiñe'k txaloka—. Egaztiak benetan atsegin yatazak. Ba al-yakik Yonan? Orain arte ez yaustiek iñoiz esku-erakutsirik egin, baiña bai atsegiña izan bear dokala, emoilteazaz oroitzeko! Olan egunoro gogoan izango aut.

Iribarrez erantzun neutsan, eta berak bardin niri. Ordukotz, berandu samar egin izan zan, eta neskatoak illundu baiño len errira biurtu gura eban ezker, gaztaiñadira barrero joan gintzazan. Abiatu baiño len, azkenengoz Mimiñe'k begikada luzeaz Bordazuri'ko bazterra laztandu eban. Gaztaiñadian neskatoaren otzara artu neban, eta jarraian erriko biderantz jo genduan. Gurdi-bidera eldu-takoan, eskerrak emon eustazan, eta otzara artu gura izan eban bideari jarraitzeko, baiña bere atxakiak eta guzti, ez neutsan jaramonik egin, eta otzara eskuan artuta, erriraiño lagundu neutsan.

Bidean zear giñoazala, Bordazuri txukuntzearren aitita ta biok izandako aalegiñetzaz berba egin neutsan, eta neskatoaren so txeragarriakaz eraginda, gure etxeko zertzelada guztiak emon neutsazan. Olan ba, oartzeko etxekoen baita abere ta egaztien barri zeatzak emon neutsazan. Zelan Pirmin eta biok aate bikoitz bana Arane-gi'n jaraitsi izan genduan jakitean, barre egin eban alai, baita neuk be aren eresi atsegiñaz kutsuturik.

Uste baiño len, Yandur-zubi'ra eldu gintzazan. Oraindiño zerbait esan bear neutsan, baiña ez nekian zelan eldu. Ordukotz, illunabarra zan, eta zubiz bestaldean erriko argiak ñir-ñir dardartsuz aizepean kulunkatzen ziran bigunki. Otzarea eskuratu neutsanean, auxe esaten azartu nintzan:

—Agur Mimiñe, ator Indusi'ko gaztaiñadira noizgura. Ire begira izango non egunoro...

—Eskerrikasko, Yonan —erantzun eustan, begiraldi sakon gozoaz inguratzen ninduala—, nirekin oso ona izan az. Agur...

—Itxaron apur baten, Mimiñe —esan neutsan, begikadea abarreten muturretan untzatuta nebala—, oindiño zeozer esan bear yaunat... Bayakiñat erriko mukitzu batzuk begitan artu baita aurrean erabilten aunela, baiña benetan yiñotsanat ori ez donala aurrerantzean jazoko...

Ez nekian zer besterik esan, eta aurpegia jasorik, neskatoari begiratu neutsan. Mimiñe'ren begi samurrak laiño bataz estalita egozan, eta biotz-ondoraiño begiratzen eusten, itxura barri gozogoaz. Gero, bapatean, bere malkoak ezkutatzearren, urrean, biurtu zan, eta ariñeketan Yandur-zubi'rantz oldartu zan, illunabarrean txiribiri urdin antzera, janzkia soin-inguruan egakatzen yakola.



## BURRUKEA

Gaztaiñaroa aurrera joian, eta eguraldi argiko arratsalde guztietan lanak izten ninduanean, otzara andi bat ustiatuz, gaztainteketari nerrakion. Indusi'ko basoan, Mimiñe lenengoz ikusi izan neban leku berean, neskato xaloaren begira egon oi nintzan, itz bageko itun bateri jarraituz. Asikeran gaztaiñak batzen genduzan, eta gero, iradu barik orbelaren gaiñean jesarrita, alkarrizketa nasaiari emoten geutsan. Ni ez naz iñoiz itz-jario andikoa izan, baiña bai atsegin yatala Mimiñe'rekin jardutea, eta batez be neskatoaren berba xotil, tolesbakoa, entzutea...! Aren oldozkunek gogo garbi sakona adierazoten eusten, eta aspertzeke bere eritxi ta gogotak aditzen nebazan.

Mimiñe'gan aurkitzen neban lillura gorena, begi yaukalen antz aldakorra zan, areikan bere arimearen egoerak igarten yakozan-eta. Ama biziro maite eban, eta gogoan eban onena, berarentzat gorde eroian; zer esanik ez, zelan maite izango eban ama alargunak aingeru a...! Biziera estua eraien ama-alabak, baiña ez neutsan iñoiz entzun esparik txikiena be. Bein baten, amak uri andi batera joatea asmatzen ebala esan eustan, ogibide nasaiagoa jaristearren, baiña oraindiño gauza erabagia ez zala. Nik ez dakit zer izango zan, baiña barri au entzutean, zerbaitek biotza larritu eustan, naitzabeturik izten ninduala.

Arratsalde baten Bordazuri'ra eroan neban. Lats-gaiñeko zubi-txura eltzean, une batez gelditu, eta besoak eskudelaren gaiñean kokatuta, etxea ta onen aldamenak begiztatu ebazan, latsaren suzmurak azpitik igaroten zirala. Ez eban barbarik esan, baiña aurpe-

giari erion itxuraz, Bordazuri'ko lilluraz uztarpeturik egoala igarri neutsan. Gero, etxera abiatu ta sartu gintzazan. Eskaratzetik amari oles egin neutsan, neskatoa agurtu egian. Amak benetako arrera ona egin eutsan, eta musu bat emonda, berarekin itz egiten asi zan, betiko ezagunak bai'litzazan. Jarraian, astitari aurkeztu neutsan, eta zer esanik ez, amak lako abegi ona egin eutsan. Agiri zan, Mimiñe etxekoen aurrean zeozer lotsati sentitzen zala, orren txeratsu erabilli izateari oituta ez egoalako, urrean. Gero, Iñese ta Matxalen azaldu ziran, eta autu bateri emoten geutsala, amak marrakuku gozoa gertaturik, Mimiñe konturatu barik, onen otzarean sartu eban.

Mimiñe'ri etxeko bereiztasunak erakustearren irrikan nengoan ezkerro, isillune bat ustiaturik, neskatoari dei egin neutsan etxeko gora-beerak ikusi egiazan, eta nire arrebekin urten gintzazan. Kortatik asita, Apala ta bigantxa ezagutu ebazan, eta Mimiñe'k txala laztantzen ebala, Pirmin eta biok etxea lenengoz ikertu genduanean izandako bildurra edestu neutsan, baita gure itsumustuko igesa leiotik, urteten ziran saguzaarrak sorgiñen erasoak ziralakoan. Bai barre egin ebala Mimiñe'k begi andiak dizdir jostariaz argiturik...! gero, etxe-ostean egozan oillo ta txitak ikusita, latsaren ondora joan gintzazan, eta orduan azaldu neutsan zelan aitiba ta biok uriolako egun aretan zubitxua eraiki genduan. Alako baten, gure aate-saldoa Yandur-erreka'tik aldatz-gora zarata bizian etorkigula agertu zan, eta burutapen batek jota, saldoa erakusten neutsala,

—Mimiñe —esan neutsan—, autu egizan aate bi.

Zorionez gainezka, neskatoak aate-lerroa aztertu eban, eta gero, azkenak etozan ogei inguruko luma bellegidun aatetxu bi atzamarrak erakutsirik, auxe esan eustan:

—Orreik atsegin yatazak, baiña Yonan, ez al-dok larregi izango...?

—Kendu ortik...! —esan neutsan barrez—. Orren txikitxuak auke-  
ratu, eta geiegi uste...!

Ikotika, aatekumeak artu, eta eskuetan ipiñi neutsazan. Mimiñe'ren begi gaztinkara yaukalak maitasunez dizdiraka, areikan kokatu ziran.

—Begiraik, Yonan —esan eustan pozaren-pozez—, zein maitagarriak dozakan...! Nire kutunak... moiñoñoak...!

Bein eta barriz matrailla aateiñoen luma samurretan ipiñita, musukaz bete ebazan.

Nire arrebak eta nik ikusgaia irribarrez begizatzen genduan. Sarri askotan entzun dot, emoitzak zorion andiagooa emoilleari artzailleari baiño dakarkiola, eta benetan une aretako Mimiñe'ren zoriona nekez neurea baiño andiagooa izango litzake.

Orduko, naikoa berandu egin izan yakun ezkerro, aatetxuak otzaran sartuta, Mimiñe'k etxeko guztiai agur maitekorra egin eutsen, eta errirako bidea artu genduan. Andik giñoazala, neskatoak noizean bein otzarea estaltzen eban zapiñoa kenduta, aatetxuak begizatzen ebazan lilluratuta bai'litzan, itz samurrakaz berba egiten eutsela.

Alako baten, amak ipiñitako marrakukua begiz jo eban, eta apur batzuk eskuan arturik, aatetxuai eskiñi eutsezan barre egiten ebala. Arein mokokada kilikagarriak oartzean,

—Ba al-yakik gauza bat, Yonan —esan eustan—, ire etxekoak benetan zoragarriak dozak. Niri egunduko abegirik maitekorrena egin yaustiek, etxekoa lez, eta gaurdanik maite-maite izango yoadaz.

—Nire aita ezagutuko ba'endun... —esan neutsan.

—Zelakoa dok ire aita...?

—Asmatu yaiken gizonik zoragarriena, Mimiñe. Zuzena iñon zuzenik ba'don, baita biotz ondobakoa, mazala, sentipen andikoa, edertasunaren abia, berba urrikoa, begietan barruko isuria askotan iragarten yakona. Ontasuna biziño maite yon, baiña zuzenbagekeriren bat ikustean, sumiñezko labe gorria biurtzen don. Txoriak, loreak, basoko eresia, izadiko edertasuna... benetan maite yozan, eta jakingo ba'endun etxekoak noraiño maite gaitunan...!

Mimiñe'ren aurpegia illundu zan, itz jorantsuz auxe ziraustala:

—Oi, Yonan, olako aita izango ba'ñeuk...!

Eta begietatik ildo argizko malko lodi bi matraillean beera jausi yakozan. Nire aldetik barbarik esateko ezinduta, saman kora-

pillo antzeko zerbaitek eragozten eustalako, otzarea artu, ta aurrera jo neban. Laster eldu gintzazan Yandur-zubi'ra, alkarri agur esaten geutsan lekura. Otzarea eskuratu neutsan, baiña Bordazuri'ra biurtu-agiñean nengoala,

—Yonan —esan eustan—, eskerrik asko aatetxuakaitik. Ire gomutaz gordeko yoadaz, eta egunen baten emendik alde egiten ba'yoagu, Bordazuri zoragarritzaz oroituerezoko yaustiek.

—Baiña, Mimiñe —erantzun neutsan naigabetuta—, egia izango ete joango zariela...?

—Ez yakiat ziur, baiña aspaldi onetan amatxuri sarritan entzun yautsal ori.

—Mimiñe —didar egin neban larri sentitzen nintzala—, ez aite joan erritik...!

Une batez, neskatoaren begi urratuetan laztan alako zerbait agertu zan, eta gero besterik esan bage, biurtu, eta Yandur-zubi'tik bere irudi auskorra ostendu zan. Lipar batez toki aretan lotuta lez iraun neban, atsekabe illun baten atzaparrek biotza zapaltzen eus-tela, eta gero etxera biurtu nintzan.

Arrezkero, ez neban ikusi Indusi'ko gaztaiñadian. Izan be, gaztaiñaroa joana zan, baiña ezin neitekean oitu neskatoa ez ikus-tera. Zergaitia jakin barik, ego-aizearen putz indartsupean, antzika zirudien gaztaiñondo urtetsuen artetik, arratsalde guztietan or-emenka nenbillen. Len oitutako lekuetatik alperrik ibilli ondoren, Arandi-bar'erako bideraiño jaisten nintzan, eta luzaro aztertzen neban, aren begi eder, luze, argitsuen laztanak barriro artzeko irrika bizian. Baiña Mimiñe ez zan azaltzen, eta alperriko itxaroaz gogait eragin-da, Indusi'ko basotik ibilteari uko egin neutsan.

Asieran, bere amarekin beste iñora bizi izatera joana ete zana-ren oldozkun jasaneziña burura etorri yatan, baiña ez zan olan gertatu, eleizatik urteteen noz edo noz bere lagunekin ikusi neban-eta. Sasoi aretan, egunak labur izanik, bere amak etxetik urteten ez eutsala itziko-edo burura etorri yatan.

Igandeko arratsalde baten, oi genduan lez, bezperak amaituta gero, mutikoen talde batek pelota-jokoan giarduan. Oiturea zan, lauen artean binaka alkarren aurka jokatzea, eta 22 kintzeak egiñik,

jokaldia amaitzen zan, eta gero beste jokalariek jarraitzen eben. Atzekaldean, mutillen jarduna eragotzi barik, neskatoek euren jola-sak izaten ebezan.

Arratsalde aretan, oi genduan lez, Pirmiñ'ek eta biok Malen-baita'ko anaiekin giarduan, eta leiaketea ozta-ozta amaituta, nire lagunarekin, pelota-lekuaren luzerean jarrita egozan arri-mailla baten jesarri gintzazan, zuzperraldia izatearren. Andik laster, atzekaldean zeozer jazoten zalaren suzmoa artu neban. Une aretantxe, ango neskato-talde batek soka-ikotika ziarduan, Mimiñe tartekoa izanik, ondo nekusan ez ia beti erabillen janzki oztaiñagaitik.

Pelota-lekuko mutur onen ondoan edatzen zan bidetik, Txanbo'k aginduriko mutiko-saldo bat sartzen zan une aretan. Txanbo zalako ori, erriko burrukalari bildurgarria zan. Soiñez txapar, mutil au oso indartsua zan, eta erriko lagun guztiek bildur andia eutsoen. Etxe onekoa izanik be, gurasoek ezin eben otzandu, astiñaldi galan-tak emoten baeutsoezan be. Geienetan, bere adiñeko laguntalde batek inguratuta ebillen, edozelango barrabasadak egiteko beti gerturik.

Ain zuzen be, aren indarraren entzuteagaitik, beti Txanbo'ren bildur izan nintzan. Gaiñera, niketz burrukalaria ez izanik, arekin nire indarrak neurtzea beti alderatu izan neban. Au dala-ta, erriko mutillek bildurtzat artzen ninduen. Banekian, Txanbo'k eta bereta-rrek Mimiñe aurrean erabilten ebela, askotan basakeri utsaz opari-gairik errubakoena koldarren gaiztakerien elburua azaltzen dala, eta areago makala izanik. Baiña... Indabaita'ko umezurtza ezagutu neba-netik, banekian egunen baten Txanbo'rekin indarrak neurtu bear izango neukezala. Yandur-zubi'ren ondoan bein baten itz emonda lez, ez neuke ezelan be itziko erriko barrabasek neskatoa txarto erabilli egien. Arazoa bein betiko konpontzearen Mimiñe'ren alde zerbait egitea biderik onena zala somatzen neban. Bein baten Pirmiñ'ekin berbetan nengoala, auxe esan neutsan:

—Txanbo'k-eta Mimiñe'ri egiten yautsoekana ezin yoat jasan. Neskato gaixoa izututa bizi dok, eurekandik deabruak bai'litzoza-kan iges egiten yokala.

—Ni ba, gogoz beterik ñagok baten batek Txanbo'ri agiñak atara yaiozan —itxura bakanaz niri begiratuz esan eustan—. Eta ori iñok egitekotan, i augu, Yon Ander. Entzun ondo, baiña: egunen

baten Txanbo'rekin burrukan egiten ba'yok, ez itzi eldu aian, artz baten indarra izanik garaituko aut-eta. Ukabilka ta urrundik burrukan egik, eta emoiok pelotari antzera, au da, ikotika ta anakak arin erabilliz. Buru ta oiñakaz burrukan egiten ba'yok garaille azalduko az. Oso ariña banok be, beti astindu naiok ik lako beso luzeak ez yaukadazalako.

—Nik esango ñeukek ba, Txanbo ire bildur dokala.

—Orain balleitekek ori —esan eustan Pirmin'ek irribarre malzurraz—. Begira... bi edo irutan autsak atara yeustazakan. Bein baten, baiña, nire tresnak erabiltea erabagi nauan. Bera indar utsaz geiago izanik, nik nire iskilliak erabilliko ñeukezak, eta olan ba, Arginbaita atzetik dagoan bidean alkar topo egin gaienduan baten, nire aurka ekiteko gertatzen zoanean, birritan pentsau barik, arri batzuk artu, eta jaia asi zoan. Aida baten, intxaurrean bi ipiñi ñeutsozakan, eta irugarrena jarri baiño len, bidean beera ariñeketan joian autsezko odeien artean, oiñetakoen azpitik tximistak urteten. Ordutik, alkar topo egitean, arri bat artzen yoadalakoa egiten yoat, eta orduan Txanbo erdeiñuz beterik nire ondolik igaroten dok, nigaitik eskuak zikintzea merezi ez yokalakoa egiñez. Ezin yaitek asmatu zelako gogoak yoadazan, baten batek autsak atara yaiozan. Esaidak Yon Ander, ez yok berarekin bein edo bein burrukan egingo...?

—Zergaitik...?

—Txanbo'k bear yokana ikasi yaian. Gaiñera, bai berak bai erriko beste mutil askok oillotzat abe.

—Benetan bildur nok berari aurre egiteko, baiña...

—Baiña zer...?

—Entzuidak, Pirmin, egunen baten Indabaita'ko neskatoari erasoko ba'llegioek, orduan burrukan egingo yoat, aurpegia apurtuko balleustek be...

—Orduan, egun asko baiño len, burrukan ikusiko aut.

Pirmin zuzen egoan. Igandeko arratsalde aretan, Malenbaita'ko anaien aurka jokatu ondoren, ordua etorria zala konturatu nintzan. Txanbo'k eta jarraitzaileek, atzekaldean jolasten ziarduen

neskatoak inguratzen ebezan. Indabaita'ko neskato gaixoa, alperrik aalegintzen zan esi aretatik urteteko.

Arrapalada baten urreratu gintzakien. Oraindiño ez ginduezan ikusi izan. Unetxu batez, nigana zuzenduta egozan Mimiñe'ren begi eskaritsuak ikusi nebazan. Nire ondoan, Pirmin'ek abopeka,

—Gomutaik ondo, Yon Ander —esan eustan—, gorde bitartea...

—Txanbo —suminduta oi u egin neutsan—, itzi egik neskato ori bakean...!

Txanbo biurtu zan, itxura asarrekoiaz begiratzen eustala. Arrituta egoan, antza, aurre egin nengion. Gero, astiro urreratzen yatala, erdeiñuzko irritxua ezpanetan piztu yakon. Orduan bere taldeko batek,

—Txanbo —didar egin eutsan—, apurtu egiok suurra Bordazuri'ko zorritsuari...!

—Nok eta euk olakorik esan bear...! —erantzun eustan Pirmin'ek lurrera txu egiñez— Txilinbaita'ko azteritsu zikiña...! Uger utsaz ire narrutik urak laban egiten yok. Oba enduke belarriak ondo garbitzea, ia obeto entzuten yokan, oillogorra, besteren oillogorra...!

Agiri zan errian, Txilinbaita'koa gor andia zala, eta onezaz gaiñera, naikoa ugerdoa.

—Euk eta biok aurpegiak alkar ikusiko yoaguz gero —bota eustan Txilibaita'koak asarratuta.

—Ire aurpegia ikustea ez dok gauza atsegiña, baiña beste bideirik ezean... —erantzun eustan Pirmin'ek irritsu.

Bitartean, begi txikiak dizdir gaiztoz iziotuta, Txanbo urreratzen yatan. Mutiko guztiek gure inguruan bide egin eben, eta nasaituta ikusi aal izan neban, astrapalaz baliaturik, Mimiñe ostendu izan zala. Aurretiko garaipena txastatuz, Txanbo'k mii az ezpanak miazkatu ebazan, eta gero erdeiñuz beterik auxe irautsi eustan:

—Bazoan ordua amaren gonatik urten eintean aurpegia apurtu deiadan, oillotzar ori. Esaidak, nok agindu yauk ezer ez yoaik arazo onetan sartu eintean...? Ez gero etxera joan, gizon batek jo auala esanez, e...?

Ezustean, berba egiteari eten egin eutsan, eta ikoti itzela egiñik eraso eustan. Nire txamarrari eutsiz buru gogorraz okotzean talkada andia emon eustan. Burua zorabioka asi yatan, eta or-emenka txolin baten atzera nenbillen, Txanbo'k bein eta barrero bere burutzar gogorraz okotzean jotzen ninduala. Banekian zeozer eta arin jazoten ez ba'zan, nireak egingo leukela. Ezinduta, burua aalik eta geien goratu neban, Txanbo'ren txamarrari oratzen neutsala. Orduan aren talkadek irristan bakarrik jotzen ninduen, baiña batetik bestera astintzen ninduan txingote barregarria bai'nintzan. Orduko, bildurra joan izan yatan, eta sumin basatipean, aren txamarrari oratzen neutsan ez jaustearren. Alako baten, ur samar, Txanbo'ren burugaiñean pelota-lekuaren ormea ikusi neban...

Orduantxe, bultzada indartsuz beregana ni erakarrita, besokaz inguratu ninduan. Bapatean, nire jareipena ur egoala konturatu nintzan, eta Txanbo'ren eragintzea ustiatuz, indar guztiakaz bultzatu neban, eta aren burua zartada itzelaz orman jo eban. Une aretantxe, zapaltzen ninduan besarkadea lazotu zan, eta nire burua aregandik jarei ikusi neban.

Arnasa irabazi bitartean, Txanbo'ren urrengo erasoari itxaron neutsan. Laster zuzpertz zan, eta egundoko sumin basatiz eta begiai txinpartak eriezala, barrero eraso eustan, baiña... oraingoan ez ninduan ezustean artu. Pirmin'ek niri emondako burubidea gogora etorri yatan, eta urreratu baiño ez, egundoko ukabillkada begi baten emon neutsan, eta jarraian beste bat suur betean. Onetatik odola bor-borka urtetzen asi yakon. Arrituta, Txanbo'k jazoten yakona ezin egikean ulertu, eta amorru biziaz itsu eginda, orren gogor erabillia izan arren, bein eta barrero eraso eustan, baiña pelota jokoan jardun ba'neu lez, jo egiteari nerrakion. Luzaro barik, abo andituan zear odolezko txuen artean sustraitik ataratako agin bi galdu ebazan.

Agiri zan, Txanbo'k burrukea galduta ebal. Nik gero ta gogorrago astindu bitartean, aren erasoek indarretan galtzen ebazan, eta noizbait ezin-bestean, atzera egin eta bere lagunaren artean babestu zan. Oneik, euren buruzagiaren beeraldia arriturik ikusten eban. Alako baten, Txanbo'ren oiurorotzuak lagunai akuillatuz aditu ziran:

—Goazen, lagunok, danok bere aurka...! Autsak ataraten ez

ba'dautsaguz, guztien barregarri azalduko gara. Emoiozun gure errian iñoz ez ikusirik astin aldirik andiena...!

Bere lagunak une batez ezpaitsu geratu ziran, baiña ez luzaroz. Lagunen artean Txanbo'ren lengusua urten zan, eta onen ekintzeak beste guztiak adoretu ebazan.

Ustekabez, Txanbo'k aginduriko bospasei lagunek inguratu ninduen. Aldamenetara so egin neban Pirmin'en laguntzaren begira... baiña ulerteziña bayatan be, nire lagunak bakarrik itzi izan ninduala egiztatu neban. Gero, alde guztietatik inguratuta, ukabilka ta ostikoka erabilli ninduen. Itsu antzera jarki nintzakien aal neban giñoan jo ta jo, baiña nire zoraldian gero ta makalago sentitzen nintzan. Alako baten lurrera jausi, eta nire gaiñean jarrita, Txanbo jotzen asi yatan...

Bapatean, nire burua jarei ikusi neban. Inguruan ez zan arerio-rik ikusten... Aieneka bizitan Txanbo-ta, bidetik etorkien arri-txaparrada baten pean, aal eban ariñen sakabanatzen ziran. Arrituta bidera begiratu neban. Pelota-lekuko mutur onetan egoan orma apalaren ostetik, begiai sumiñezko txipartak eriezala, bere biziko didar entzungarriak jaurtikiz, Pirmin'ek arrikada-erauntsia iñongo arintasunaz botaten eban. Orduko, Txanbo'k eta beste bik arrikada bana artu izan eban, eta zauriak eskuakaz estaltzen ebezala, aalik ariñen igesari emoten eutsoen. Ikotika urreratu nintzakion, eta Pirmin'ek arri-eskukada bat emon eustan arri-jaurtitzeari itzi barik. Baiña arrezkero dana amaitu izan zan. Bere nagusiagan uste ona galduta, taldea ez zan iñondik ikusten, eta ordurarte jauntxo izandako Txanbo, agintzakeria galduta albo-kale batetik ostendua zan.

Bitartean, jendea azaltzen asten zan. Andrazkoek leioetatik alkarriz galdetzen eutsoen astrapalaren zergaitia, eta ardandegitik, jazoten zana jakitearren gizon batzuk urreratzen ziran.

Guztiz nekatuta baita minduta be aurkitzen nintzan. Gaiñera, andik aalik ariñen iges egitea nai izaten neban, gizonak begiratzen ginduzen-eta, mutiko batzuk atzamarrak geuganatz zuzenduta ikustean. Olan ba, Pirmin'en eskuari eutsita, auxe esan neutsan:

—Gaiozak etxera lenbailen, Pirmin, danok guri begira yagozak...

Arin, kalean beera abiatu, zubia zerkatu, eta Bordazuri'rako bidetik ostendu gintzazan. Arratsalde zoragarria zan benetan zeru

oztin yaukalaz, eta guztiari erion lilluraz menperatuta, barrutik, zazpi buruko erensugea garaitu dauan zaldunaren antzera sentitzen nintzan. Bitartean, berbeteari itzi barik, Pirmiñ'ek oi ebazan esaera arrigarriakaz bere poztasun neurribakoa azaltzen eustan.

Bordazuri'n arratsaldeak jaiegun guztietan lez zirauan. Etxaurreko aulkian jesarrita, aitikak pipeari ekiten eutsan, eta eskaratzetik ama ta bezperetatik biurturiko nire arreben arteko autua aditzen zan. Gure begira egongo ziran, urrean, oiko briska jokuan jardutearren. Amari batez be joku ori oso atsegin yakon. Onetaraxe jardun oi genduan: Ama ta Pirmin, Iñese ta Matsalen, eta aitita ta biok. Galtzailleak geienetan aitita ta biok azaltzen gintzazan, obeto esateko, galtzaillea aitita oi zan, guztiz ardurabako jarduten ebalako. Jokoari erakarpena emotearren, galtzailleek apaitako lursagarrak zuri-tu egiezala, amak jarritako legea zan, eta au Pirmiñ'en eta bion autarkien aurka geiengoz onartua zan. Olan ba, jaiegun guztietan neuri etorkidan apaitarako lursagarrak zuritzea. Aititari zor geutsan begiruneagaitik, ez genduan izten olako arazoetan jardun egian.

Arratsalde aretan, aitikak jarraitutako Bordazuri'ko eskaratz zabalera sartu gintzazanean, bapatean ango autua amaitu zan, eta ain zuzen be, ez zan gitxiagorako, txamarrako sakel bat urratuta, autsaz beterik, arkondarea botoiak barik, ezpanak andituta, begi ubel bataz, eta belaunetik odola eridala ikusi ninduenean. Amak oiuegin eban, eta jagirik nigana urreratu, eta...

—Jaungoikoarren, Yor Ander —esan eustan—, zer jazo yak, baiña, nondik ibilli az olan azaltzeko...?

Eta amak, nik ezin erantzun nengikiozan itaunai itzi barik, jesarri-erazo ninduan, eta nire arrebe lagunduta, ur eta belaki bataz aurpegiko itxurabageak atontzen asi yatan. Bitartean, arazoi garrantzi andirik emon bage, aitikak erreteari erraikion, epaikari batek salatuaren azalpena itxaroten dauan legetxe.

Noizbait ama isildu zan, eta orduan Pirmin itz egiten asi zan. Nire adiskidea gauzak edesteko bere biziko doaias ornitua zan, eta zeozer esaten asten zanean, danak egoten ziran bere ezpanetatik dilindan.

Euskaldun utsa zan aldetik, berba laburreko ta argia zan, baiña esaten ebanari gatza ta piperra erion, entzuleen arretaz jabe-

tzen zala. Gaiñera, itxuratzaile porrokatua zan, eta zeozer esaten ebanean, urkoaren keiñuak eta abotsa irudikatu oi ebazan.

Egun aretan, Pirmiñ'ek marra guztiak garaitu ebazan izandako gora-beerak azaltzean, Txanbo'ren aurka izaniko burrukan batez be. Erriko arrigarria biurtu ninduan, eta itzak neurtu egiazan egiten neutsazan keiñuai jaramon egiteke, ariari jarraitu eutsan, Yandur-arana'n iñoiz ez ikusiriko ekintzarik andiena jazo izan bai'litzan. Aren azalpen entzungarripean, aititari abo edegitik pipea itzungita eskegiten yakon.

—Eta gero —edespenaren birloraldian amaitu eban Pirmiñ'ek—, danak Yon Ander'eri oldartu yakozan eta lurrera bota eben. Orduan biotzak auxe esan eustan: “Pirmin, jo ta ke euren aurka, ire laguna narrutuko yoek-eta”. Olan ba, arein aurka ekiteko zorian nintzala, buruak orduan: “Orra barrura sartzen ba'az, ezin izango yok lagunaren alde gauzarik egin, eta gaiñera, izeko Ixidore'ren astoari baiño egur geiago emongo yaue”. Baiña biotzak barriro: “Yon Ander'en alde ekiten ez ba'yok, ez adi iñoz azaldu Bordazuri'tik”. Euren artera sartu-agiñean nintzala, baiña, buruak barriro: “Eta euk teillatu gaiñean yabikan katu bateri, baietz arrikada bat begien artean ipiñi...!. Orduan argia etorri yatan. Pelota-lekua mugatzen dauan orma apalaren bestaldean, bideak atontzeko arri-meta andia egoala gomatau neban, eta aretara oldartu nintzan...

Arrapalada baten Txanbo'ri arrikada galanta intxaurrean ipiñita, jarraian, gortasuna kendu ekion arrikada bi jarri neutsazan Txilinbaita'ko ugerdoari buruan. Ikusi ba'zendue...! Ijitoa oillo-atzetik baiño ariñago joian. Gero, belarrien ostean beste bi Txanbo'ren lengusuari ipiñi neutsazan (ez bildurrik izan, baiña, onek burua mandoarena baiño gogorragoa), eta azkenean enparauko arriak besteen artean banandu nebazan. Begiko itxi-edegi baten, lekua sein baten eperdia baiño soillagoa geratu zan. Gero, Yon Ander eta biok etxera, irudia eta janzkia konpontzearren.

Ona elduta, Pirmiñ'ek barre-santzo itzela bota eban auxe iñoskula:

—Baiña barregarriena, Txanbo'ri geratu yakon itxurea da. Yon Ander'ek iru agin bizbatean kendu egin dautsoz, eta orain aboa zabaltzean, atso batena emoten dau. Aspaldi luze batez ezinduta geratu dan ezkeru, aiaz janaritu bearko dabe...

Ona elduta, bere aukeran barre egitearren, Pirmiñ'ek eten egin eutsan berbeteari. Neuk be barre egiteko gogo andia baneban, baiña ezpan zaurituek min egiten eusten, eta gaiñera, burrukaren adorea joanda, kemen andi barik sentitzen nintzan. Gero, alkarrizketea bere zerera etorri zan, eta danak Indabaita'ko umezurtzagaitik egindakoaz pozik azaldu ziran, eta arrezkero Mimiñe ez leukie-la aurean erabilliko konturatzean batez be. Nire arrebek nik egindakoa ederretsi eben, eta neskatoa maite-maite eban aititak amaibako atsegiña erakusten eban.

Pirmin joanda ta bereala, amak aparia emon eta oeratu-erazo egin ninduan. Luzaro iraun neban itzarrik, arratsalde aretako gorabeerak gogotik kendu eziñik, baiña azkenez ler eginda, amesez beteriko lo urdurian murgildu nintzan.

Ez dakit zein luzaro iraungo neban lo artega aretan, baiña zerbaitek iratzarri ninduan. Ate-ondoko aulkiaren gaiñean, krisaillu batek argizko dardarrak sakabanatzen ebazan, eta oe-ondoan, aitarren irudi lerdena ikusi neban. Geldi-geldi egoan, baiña begietan maitasunezko itxura bakana erakusan, eta erdiz edegiriko ezpanak irribarre gozoaz piztuta ikusten yakozan. Jaiegunetan, erriko bezperak amaituta, Idurene'ra osagillenera joan oi zan lagun batzukin alkarrizketa bizian aldia emoten ebela. Gero, bederatzietan inguru etxera biurtzen zan, eta apaldu ondoren agurtza esan oi genduan. Jarraian, krisailluen argia ustiatuz, bakotxa bere gelara, **Bordazuri'n** tximistargirik ez egoan-eta.

Gau aretan aitak isil-isillik begiak nigan untzatuta ebazala ikustean, oean jesarri gura izan neban, baiña berak ez eustan itzi, eta oeko ertzean jesarrita, auxe irautsi eustan:

—Geldi, Yon Ander, jarraitu etzanda. Amak dana esan yaustak, eta i ikustearren sartu nok. Ez naiuan i iratzarri gura, baiña azarri agoan ezkerro, gaur bizitzean zear izandako atsegiñik andienetako bat emon yaustakala esan gura yauat, seme. Maitebera izatea ederra dok, baiña iñorgaitik gorputzean jasatea, Kristo'ren irakaspén gorena. Gaur, izaki aul eta jazarritako baten alde azaldu az, eta orrek poztuten naiok benetan. Yon Ander, jokatuko al-yok beti olan...!

Gero, zatitxu baten isildu zan, leioan zear izarrez beteriko

ortzia begiztatzen ebala. Alako baten, aurpegia illuntzen yakola, abopean auxe iges egin yakon:

—Ene Jaungoikoa, zergaitik areik egin ez dabena beti ordaindu bear? Zergaitik...?

Gogoeta sakon bateri emonda, une luze batez isillik iraun eban, aurpegian itxura atsekabetua marrazten yakola. Noizbait jagirik, irribarrez bekokian musu bat emon eustan, eta krisaillua artuta, urten egin zan.

Barriro be, lo egin gura izan neban, baiña loa nigandik igesi yabildan, aitarren itxura ez-oitua burura etorkidala, Mimiñe ta onen ama aipatzen zituanean. Lokarri batek nire aita ta Indabaita'koak alkartzen ebazan, arek bakarrik ekian lotura ezkutua. Zer izango ete...?

## SERMOIA

Andik egun batzutara, Indusi'tik Bordazuri'rantz jeisten zan egi leuntsuan bedar-ebaketan jarduten nebala, aیتtaren oiuaک niri deika aditu nebazan. Igitaiā bertanbera itzita, iraduz etxeratu nintzan. Yandur-erreka'rantz begiratzen eban etxaurreko arrizko aulkian, Markel Jaunak eta aیتtak autu bateri emotsoen.

—Erdū ona Yon Ander —esan eustan gure abadeak bere ondoan jesarrierazoz—, zeuk eta biok berbalditxu bat izan bear dogu.

Arazo berezia izango zala igarririk, aیتtak bakarrik itzi ginduzan. Lipar baten ondoren, begietan tinko-tinko begiratzen eustala, On Markel'ek auxe esan eban:

—Orain, lengo domekan jazorikoa, zeatz bat bera be aztu barik esango daustazu, entzun?

Jazorikoa zeozer lotsati irausten asi nintzakion, au da, Mimiñe zelan erabillen aurrean mutiko batzuk (izenak aیتtazeke) sarrera moduan argitzen neutsala, eta gero burrukaren gora-beera guztiak. Aurrera joan ala, lotsea kentzen yatan, eta noizbait berba nasaiaz gora-beera guztien jakitun ipiñi neban, ezer ez kendurik ez eratsirik. Begiak erdizka itxita ebazala, On Markel'ek Izki mendiko irudi lerdena begizatzen eban, Yandur-erreka'ren ur biziak aparrezko zurrunbillotan udabarri-joranaz aranean beera oldartzen zirala.

Gure abadeak noizean bein eten egiten eustan zeatzen bat argitzearren, gero barriro bere ausnartzeari jarraitzeko. Amaitu nebanean, On Markel berbarik esan bage, jagi ta etxera sartu zan ama ta aیتtari agur egiteko.



Bide-zati batez lagundu nengian agindu eustan, eta bere ondoan niñoala, abopeka auxe esaten entzun neutsan:

—Zeozer erabagi bear da... Nire ardi gaixoak...!

Bordazuri'ko langara eldutakoan, unetxu batez geldituta, auxe esan eustan:

—Yon Ander, datorren domekako zortzi ta erdietako mezataraz ez utsik egin. Badakit ordu orretakora geienetan zatozala, baiña ereti onetan neska-mutiko guztiak etorri zaitzela gura dot. Agur, Yon Ander.

On Markel'en abotsak ardura andia erakusan, baiña azkenengoz begiratzen eustala, ezpanetan irribarre langoa zan zerbait loretzen yakola iruditu yatan.

Jaiegunetan gure errian meza bi ospatzen ziran. Lenengoa zortzi ta erdietan izaten zana, neskato-mutikoentzat zan, emakume asko baetorran be, eta amarretan meza nagusia gizeozkoentzat eta enparauko andrazkoentzat. Bigarren mezea On Markel berak emoten eban, eta lenengoa emoteko, Aranegi'ko lekaidetxe batetik praille bat etorkigun, On Markel'ek umeak zaindu egiazan, eta batez be sermoia emon egiskun meza-bitartean.

On Markel zentzun andikoa zan, eta neskato-mutikoai zegokigun berbetea erabillen, eta ez zan iñortxo be arek esanikoa ulertu ez egianik. Sermoia baiño, lagun-arteko autu nasaia zirudian.

Igande aretan, ama, arrebak eta ni gure soiñeko onenakaz jantzita, oiko bidetik errira abiatu gintzazan, eta Yandur-zubia zearkatutik, errira sartu gintzazan. Kaleak beterik egozan mezarara joiazan umeakaz, eta oikoa zan lez, eleizpean mutikoak batzen ziran, lekua autuen zurrumuruakaz beteten zala. Beste batzuk pelota-jokoan ziarduen ormako txoko baten. Neskatoak barriz, eleizpera eldu-ala barruratzen ziran ezkerreko aulkietan lekua arturik.

Eldu baiño ez, ama, Iñese ta Matxalen, eleiza-barruko lekuetara abiatzen zirala, pelota-jokoari begiratzen eutsan Pirmin urreratu yatan, eta,

—Lengo Domekatik ona, errian ez dok burrukarik ikusi. Txanbo'k-eta ez yoek barrabaskeririk egin. Begitueik: an yaukazak guztiak txoko aretan, lumaturiko oillasko-aldra baten antzera.

Ain zuzen be, eleizpeko beste muturrean, neuri noizean bein saieska begiratzen eustala, Txanbo beretarren erdian egoan.

—Nire ustez ba —Pirmin'eri irautsi neutsan Malenbaita'ko anaiak urreratzen yakuzala—, On Markel'ek gaur ederra botako yauskuk, eta enparauko lumak ez yakiat zelan ibilliko dozakan...

—Bai burruka polita lengo Domekako, Yon Ander! —esan eustan Malenbaita'ko Yoseba'k aurpegi espiltsua irribarreka ebala—. Errian egundo ez ikusiriko burrukarik ederrena izan ei'dok, eta gaiñera, Txanbo'k-eta Arandibar aspaldi luze batez bakean itziko ei'yoek...

Orduan Pirmin'ek bere itz-jario atsegiñaz auxe esan eustan:

—Orixe bera jazo yatan bein baten Matxin-bordan. Bidegorria'tik nentorrela egun sargoritsu baten, kereizek makurturiko kerizondo eder-ederra ikusi neban. No, Pirmin...! nire buruari esan neutsan, bai bero andia ta egarri itzela daukazuna...! Zertarako uste dozu, Jaungoikoak kereixok egin ebazala?" Orduan ikoti batz arresi-gaiñetik igaro, eta kereizondora eltzeko zorian nintzala, izeko Ixidore'ren astoa baiño andiangoa zan artzaiñora batek, nik neuk iñoiz ez ikusiriko abotzarra ebala, tximista lakoa eraso eustan. Kereizondo baiño andiangoa zan ikoti batz, nire burua bidean ikusi neban barrero, eta kereizak eta txakurra ikustatzen nebazala, nire buruari auxe esan neutsan: "Pirmin, aspaldi batez kereizak bakean itzi bear dozuz, txakurrari agiñak jausi dakiozan arte-edo..."

Une aretan bertan, mezararako deia zan joalea aditu zan, eta itzetik ortzera, alkarrizketak amaituta, eskumako jarlekuak beteteko, isillean sartu gintzazan. Aldare-ondoko maillatan On Markel gure begira egoan, oiko sermoia asteko gerturik. Egokitzearen zaratea baretu zanean, mezea asi zan, eta gure abadeak aitaren egin ostean, otoi isil bateri emon eutsan. On Markel'ek egun aretan benazko itxura erakusten eban. Gero, mutikoai luzaro begiratuta gero, olantxe asi yakun:

“Maite-maiteok, gaur lez Arandibar'ko umeak ikusten dodazanean, ezin dagikedaz aztu, neu be mutiko nintzaneke egunak. Yandur-arana'tik egorantza dagoan aran eder baten nire guraso ta anai-arrebekin bizi nintzan. Gure etxeak baebazan solo ederrak, eta gaiñera, Urbasa mailloan alatzen zan artalde andia.

Bein baten, mixioak emoteko prantziskotar bat etorri yakun, eta Jaunaren maitasunatzaz itz egin euskun. Gero, mendian ardiak zaintzen nebazala, Artzain Ona'z gomutaten nintzan, eta ardi galduak billatzearren zelako aalegiñak egiteko gai zala. Eta gure alorretan niarduala, galburuak lurrerantza makurturik ikustean, Jaunaren igitariak yatordez burura, ainbeste galburuentzat gitxi baiziran. Eta orduan artega sentitzen nintzan. Gabean amesetan nintzala, urrutiko dei batek esaten bide eustan: "Markel, zatoz, bear zaitut-eta". Baiña etxeoak-eta iztea agintzen eustan abotsik ez neban entzun gura. Alan eta be, ezin nengikean deia isildu, leku guztietara erraikidan-eta. Bein baten iñoizkorik argien barruko zerbaitek esan eustan: "Markel, koldarra ta eskertxarrekoa zara. Jaunak dei dagitsu, eta aregana pozez beterik joan bearrean, ez dauzsazu jaramonik egiten. Berak artzaiñak bear, eta zeuk ezetz esan...?"

Orduan arrengurak itzita, gurasoai abade izatea gura nebala esan neutsen, baita oneik baietza pozik emon be. Andik laster, erriko abadeak mintegira idatzi eban, eta andik baimena etorrira, amak bide-zorroa atondu eustan. Urten baiño len, amak besarkatu ninduan negarrez, eta anai-arreba agur esanda, aita lagunduta Iruña'rantz abiatu nintzan. Arratsaldean eldu gintzazan, eta aita zauskada andipean etxera biurtu zan. Banekian aita larri egoala, baiña barrutik zorion-sentipen andia ebilkion. Gero, sarrerako atezarra nire atzean itxi zan.

Aldi areitan amazortzi urteak bete izan nebazan, eta amar urte igarorik, abadetu nintzan. Neure errian mezakotu nintzan eleiza iñoizkorik beteen egoala. Lenengo aulkitik neuretarrek maitasun eta arrotasunaz begiratzen eusten, eta zeruan nengoala iruditu yatan. Jauna emon neutsenean, zorion utsaz amari malkoak urtetan yakozan, eta aitaren eskuak dardar egiten eben, euren amesa egi biurtu izan zalako.

Andik egun batzutara, gotzaiñak dei egin eta iru errien artean aututeko eretia eskiñi eustan. Areitariko baten ez zan euskeraz egiten, eta orduan gotzaiñari beste bien artean edozein bardin yatala esan neutsan, biok euskaldunak ziran-eta. Kezka onetan nintzala,

—Markel, Gure Jaunak autu dagiala —esan eustan gotzaiñak orduan—.

Izen bana txartel bitan idatzita, bere kapelean sartu, ta sotzean egin genduan. Bat atarata, erri baten izena irakurri neban lenengoz: Arandibar.

—Markel, Jaunak antza, bazter orretan gura zaitu —gotzaiñak esan eustan—. Gertutu zure gauzak lenbailen. Arandibar dalako erri orretan, orain egun batzuk abadea il da, eta ango ardiak artzain barik geratu dira.

Bide-zorroa atondu, eta erri onetara etorri nintzakizuen Abadene'ra bizi izateko. Olan ba, gogo-artzaintzari emon neutsan, eta egunik-egun ogei ta bost urteotan zuek ezagutzen eta maite izaten ikasi dot. Bein baiño sariago beste erri andiagoak eskiñi eustezan, baiña zuekiko maitasunaz erri onetan geratu naz, eta emen ilten itzi nagiala eskatu dauosat Jaunari. Ez dot beste nairik, egunen baten Yandur-erreak gaiñeko obitegira eroan nagien baiño, zuen arbasoekin batu naiten.

Bai, enetxuok, kontuak emoteko banan-banan dei egingo yaku. Ni zuek baiño lenago joango naz, urrean, baiña ez uste izan, abade nazalako zerura artez-arte sartuko natzakizuenik. Jauna nire begira izango dot, eta auxe itaunduko daust:

—Aizu, Markel, zer egin zenduan an beean?

Orduan, begiak lurrean josita, berari begiratzen be ez naz azartuko-ta, dardar bizitan egongo naz, berak dana dakialako. Orduan nire barruan irakurriko dau, ozkarbiko gau baten izarrak ikusi oi diran lez...

—Jauna —apal-apal esango dauosat—, zure artaldea zaintzeko dei egin zeustan, eta dana itzita jarraitu neutsun.

—Ori ez da naikoa, Markel —Jaunak barriro—, zer besterik egin zenduan nire alde?

—Zeuk dei egin zeustanean, dana laga neban: gurasoak, anai-arrebak, etxea, erria, baita gauza atsegin askori uko egin neutsan be. Liburuai lotu ta men egiten ikasi bear izan neban, zeuk eskatutakoa egitearren. Ondo dakizu ori, Jauna...!

—Bai, Markel, baiña esaidazu: zure ardurapean neuk jarritako ardiak, ondo zaindu zenduzan...?

—Jauna, bataiatu nebazan, gero gure alde zeuk egiñikoa azaldu neutsen; nire eskuz kolkoan artu zinduezan; zure izenean obenak barkatu neutsezan; gazteak ezkontzaz alkartu nebazan; erriko mutil biri abade billakatu zeitezan eta zure graziaz bizitzaren mugea zearkatu egien askori lagundu be.

—Baiña, Markel, bene-benetan maite izan zenduzan...?

—Jauna, ondo dakizu maite-maite izan nebazala. Gabeko ekaitz gogorretan eta edozein ordutan geisoen aldera joaten nintzan, eta zutzaz berba egiñez arein arimetara bakea ekarri neutsen. Negar egiten ebenai atsekabea arindu neutsen. Ezeukiai lagundu, ezpaitsuak indartu, ta senitartekoak baketu nebazan. Eta ori dana zeuganako maitasunaz...

—Esaidazu, Markel —esango daust Jaunak azkenez—, Arandibar'tarren artean alkarganako maitasuna sortzea lortu zenduan?

Orduan enetxuok, zer esango dautsat Jaunari? Esango dautsat anaiak lez alkar maite dozuezala...? Ala, isillik iraun bear izango dot, zoribakoen lepotik barre egiten eta naigabetuai bakea ukatu dautsezuelako, eta ezeukiai laguntza emoten ez dakizuelako? Ainbeste urtez zuen artean maitasuna ereintzen saiatu ostein, zuekai-tik lotsatu bear izango ete naz, Arandibar'ko ume gaixoak arrika erabilten dozuezalako, arein atsekabea areago andituz? Esaidazue, zer esango dautsat Jaunari...?

Gure abadearen azken itzok isiltasunean galdu ziran. Danok begiak zabal-zabalik begiraten geutsan, askoren barruan, nik uste, lotsazko sentipenak ernetzen yakiezala. On Markel'ek orduan, onetaraxe jarraitu eban:

—Zer esango dautsat Jaunari...? Isillik iraungo dot, eta azkenean begiak jasorik eta bereenetan untzatuz, eskatuko dautsat Arandibar'ko abadetaz errukitu daitela. Neska-mutikook, zuen abadea benetan maite izaten ba'dozue, bizitzean zear egizko kristautasunean bizi zaiteze, neure ordua elduta, Jaunak bere barkamena neugan isuri dagian.

Baiña zuek be, egunen baten deituak izanik, banan-banan zuen abade ta arbasoekin batuko zarie Yandur-erreak'ren gaiñean jagiten dan muiño-erpiñeko obitegian, eta ortziko zabalduan zear

egan egiñez, ate andi batera elduko zarie. Ate itxi onetan kox-kox egingo dozue, eta bestaldeko abots batek esango dautsue: nor da or...?

—Ni Arandibar'ko urlia naz —erantzungo dozue apal-apal.

Ateko bestaldean zuen ariman argi-argi ikusiko dau zaindari arek, eta orduan auxe itaunduko dautsue:

—Esan egistazu, Jaunagan siñistu zenduan?

—Bene-benetan Aregan siñistu neban —erantzungo dozue—, nire abadeak, gurasoek, eleizeak, erriko ekanduek, gauza guztiek siñistu-erazo eusten.

Orduan atea zati batz zabalduko da, eta andik sartu gura izango dozue, baiña zabalunea, estuegia izango da orretarako.

—Esan egistazu, Arandibar'ko seme orrek —bestaldekoak barriro—, itxaropenik izan al-zenduan?

—Ez neban izango ba...? Txoriek argia irrikatzen daben antzera, edo-ta larradiak iñontzeko musua, eta lur agortua euriaren malkoak baiño, askozaz areago itxaron egin dot. Zerurako egiña nintzan, eta Kristo'ren besarkadea artzearren irrikan nozu, Yandur-erreak'ko ur bizek itsasoarena leiatzen daben antzera...

Eta ostera be, atea beste zati batz zabalduko da, baiña oraindiño zabalune naikorik ez.

—Maite izan zenduan? —itaunduko yatzue irugarrenez.

Galde orrentzako erantzuna zailla izango da benetan. An, zuen barrukoarekin bakarrik egongo zarie. Alperrik izango da orduan zuen abadeari languntza eskatzea. Ezin izango dagiket zuei laguntza emon. Maitasuna, enetxuok zerurako giltza da, eta giltz ori maitasun-aldeko ekintzakaz irabazi bear da. Uste dozue, urrean, neskato umezurtz bat aurrean erabilliz, atea zabalduko yatzuela barrura sartu zaitezen? Umeak aitatz, bein baten Jaunak auxe esan eban: "Oneiri zuek egiñikoa, neuri egiten daustazue". Ez al-zarie lotsatuten, Yosu Maitiari ume bategan arrika egitegaitik?

Zuen gurasoak iraindu, Arandibar izena zitaldu, eta erri onetako abadearen biotza atsekabetu dozue. Jaunak barkatu ta indarrak emon dagitsuezala maitasun-bidetik ez okertzeko...!"

Olantxe amaitu eban On Markel'ek egun aretako bere sermoia, eta jarraian mailladian beera jatsi zan, Jauna banatzearren. Oi lez, mutiko geienek eta neskato guztiek jaunartu genduan egun aretan. Arandibar'ko guztiak baita Txanbo be maite izan nengizan eskatu neban.

Azkenetarikoen artean urten nintzan. Lekorean, udabarriko eguzki bikain batek argizko barre-santzoak nonai sakabanatzen eban. Pirmin nire begira egoan, eta biok Bordazuri'rantz biurtu gintzazan. Klean beera giñozala, Txanbo ta onen lagun batzuekin topo egin genduan. Ondotik igarotean, Txanbo'ri lagunkiro begiratu neutsan, baiña berak lotsatuta emoten eban oiñetakoai begira ta begira. Niketz, onezkoak egitea gura izango neukean, baiña ainbeste lagunen artean egiteari ez neritxon egoki, eta augaitik, beste ereti baterako iztea erabagi neban.

Zubira eldu-agiñean gintzazala, errian gora joian edertasun bakaneke andra bat ikusi genduan. Aurpegian oiñazezko aztarnak ebazan andrea, Mimiñe'ren ama zan, eta janzki arrunta erabilli arren, jasekoa zala emoten eban, eta aurpegiz eta begi ederrez batez be, Mimiñe'ren antzekoa zan. Andra au ikusten neban bakotxean, aitak egun baten esandakoa burura yatordan, eta berari tamal andia neutsan. Nik ez neban iñoiz berarekin barbarik egin, baiña egun aretan Pirmiñ'ek eta biok bera agurtu ondoren, gelditu zan eta auxe esan euskun:

—Zu Bordazuri'ko Yon Ander zara, eta zure laguna Txanobaita'ko Pirmin da, ezta?

—Bai, Andrea —batera esan geutsan.

Une batez maitekiro begiztatu ginduzan, eta irribarre igeskorrak aurpegi ederra argitu eutsan.

—Zurekin berba egiteko gurari andia neban, baiña orain arte ez zaituet ikusi. Nire alabaxua babestu dozue, eta biotz-biotzez eskertzen dautsuet.

Pirmiñ'ek eta biok zer esan ez genekiala, gure oiñetakoai begiratzen geutsen. Gero, eskuaz burua laztandu eustan, auxe ziraustala:

—Miren Zuriñe'k zutaz beti zeozer esaten daust. Zenbait muti-

koen erasoakaitik izututa bizi zan, baiña zeuk bere alde burrukan egin dozu, baita zeuk be, Pirmin, eta arrezkero nire alabea bakean bizi da. Iraun beti orren kementsu, eta Jaungoikoak bedeinkatu zagiezala.

Gero, eskuakaz nire buruari eutsiz, bekokian musu bat emon eustan, eta joan zan.

Luzaro samar bideari ekin geutsan isillean. Barrutik poz neurribakoa ebilkidan, eta egun aretako argia illuna zan gogoan nerabillaren ondoan. Bordazuri'tik ur samar, Pirmiñ'ek auxe esan eustan:

—Ba al-yakik gauza bat, Yon Ander? Mimiñe aingeru zoragarria dok, eta bere ama erriko andrarik maitagarriena. Bai tamala, orren ezeukiak izatea...!

Eta andik une batzutara:

—Ba al-yakik beste gauza bat? Gure eriotz-orduan, ez yoat uste zeruko atean gorabeera andirik eskatuko yauskuenik. Esan baiño ez: “Emen yatok Bordazuri'ko Yon Ander, edo Txanobaita'ko Pirmin” atea zabal-zabalik edegiko dok, eta atezaiñak orduan: “aurre-ra semetxuok, zuek emen luzaro ez irautea, eta On Markel'eri jakiñerazotearen agintza emon dauste”. Eta andik laster On Markel agertuko yakuk, zeru guztia guri erakustearren. Jakiña, berak ez yauskuk esan nora joango dokan eriotz-orduan, baiña bera zerura ezean, nor joango?

Barrez erantzun neutsan, gure sarrerea ez nebala orren erraza ikusten, baiña gure abadeari buruz, baietz, zeruko gorengo lekuetara joango zala beste barik.

Arratsalde aretan, bezperak amaituta, Pirmin eta biok Yandurereka'ra abiatu gintzazan karramarroak arrapatzeko asmotan. Bidea Indabaita'tik igaroten zan, eta atadian Mimiñe ikusi genduan. Gu ikustean, eskuan erabillan erratza alde batera itzirik, auxe esan eustan:

—Burruka guztia ikusi naiuan, Yonan, baita bildur andia igaitik jasan be. Andik iges egin gura naiuan, baiña ezin... Garaille azaldu intzanean, zorionez negar egiteko zorian aurkitu nintzoan. Esaidak Yonan, min andia artu ete uan...?

Zeozer lotsatuta nengoan, eta arazoa aldentzearren,

—Alan-olan —erantzun neutsan—. Esan, zelan oitzen dozan Bordazuri'tik ekarri uazanan aatetxuak?

—Ederto benetan. Adiskide andiak gozak, eta ni ikusi baiño ez, ariñeketan yatozak etxe guztitik jarraitzen yaustiekala. Gabean, oe-ondoko gertutu yautseadan kutxatxu lastodun baten lo egiten yoek. Onezkero, asko anditu dozak. Esan yaustiek, baiña, txitak egiteko ar-emeak izan bear dozakala.

—Jakiña —eratsi eban luzaro isillik irauten ez ekian Pirmiñ'ek.

—Eta zelan jakingo yoat ar-eme dozakala?

—Oso erraza don —esan neutsan—. Emeek kua-kua esaten yoen, eta arrek ostera txistu, eta oneik gaiñera, buztanean luma kizkurtua yauken.

—Eta gaiñera —autuan sartu zan, isillean jarraitu ezin egikean Pirmiñ'ek— emeak arrautzak errun oi yoezan...

—Begira —eratsi neban nire lagunaren peillokeria etentzearren—, ez larritu orregaitik, biok ar edo eme azaltzekotan, bietariko bat ordeztuko yauan eta kitto. Indabaita, errekatik ur yagonan ezke-ro, oso ondo aziko dozan.

—Eta orain, agur —karramarroak gomutara ekarrira esan eban Pirmiñ'ek—, joan egin bear dogu illundu baiño len.

Barriro bidean beera giñoazala, neure lagunari auxe esan neutsan:

—Euk bai kaikukeri galantza bota yokana. Zer eta emeek arrautzak egiten yoezakala esan be...!

—Zer esango naiuan ba...? Zuek izketan eta nik txintik esan barik...! Orduan zerbaitek esan yeustakan: “Baiña Pirmin orrek, esan zeozer bestelan kaikutzat artuko aue... eta ara orduan...”

—Eta orduan eurea bota bear.

—Baiña ez al-dok egia ori...?

—Bai.

—Ez yoagu beti egia esan bear, ala?

Ez neban jakin zer erantzun, eta biok erre kara abiatu gintzazan.

## ERESTUNA

Udagoia eldu zan barriro, eta gure arazoak polito joiazan ezkerro, etxekoek ikastolara biurtu neitela ebatzi eben. Nik ez neban gogo andirik erriko eskolara joateko, etxeko lanak egitea naiago neban-eta, baiña nire gurasoen naia ikasteari itzi ez nengion izanik, Pirmiñ'en poz andirako, ikastolara egunoro joaten asi nintzan.

Ikastaro aretan maisu barria etorri izan yakun, eta oitura zan lez, irakaspena erderaz izaten zan. Maisu barri onek, ostera, euske-raganako gorroto utsaz, ez eban nai izaten ikaste-etenaldietan kalean izaten genduzan jolasetan, euskeraz berba egin gengian, eta au zala-ta, ikaste-bitarteetan, erestun bataz baliatzen zan, eta erestuna eukan mutillak, euskeraz ziarduan beste bateri emoten eutsan, eta ikastaldia berrasten zanean, erestuna eukana zigortua izaten zan. Esku-arrean amar zartada artzea izaten zan ordaiña, eta maisu basati arek, gorrotoaren-gorrotoz, eretirako eban zigorra aalik indar-tsuen erabilli oi eban. Mutiko guztiok zigorrari bildur andia geu-tsan, eta niretzat ikaste-bitartekoak buruauste andia ekarstan.

Maisua Naparra-erdikoa zan, erdelduna berau. Ezin nengikean ulertu, zelan bere arbasoen berbeteari olako gorrotoa gorde egion, baiña olan zan. Sarri askotan zigorraldia amaituta, ikasle guztiai auxe esaten euskun:

—iiiYa os voy a arreglar yo, cacho brutos. Aquí solamente se habla en cristiano!!!

Errian zurrumurrak ebiltzan maisuaren jokaerearen aurka, eta aitak agirian askotan gaitzetsi izan eban aren jokabide zitala, baiña

ez zan iñor azartzen bearrezko alkar-ekintza eragiten, eta zigorrak aurrera joiazan.

Bein baten, pelota-lekuan izaten ziran areitariko etenaldi baten, Pirmiñ'ek eta biok euskeraz giñarduala, atzetik Txilinbaita'ko muti-koa oartzeke urreratu yakun, eta erestun madarikatua emon eustan. Andik laster, ikasketea jarraitzearren eskillaran gora giñoazala, Pirmiñ'ek auxe itaundu eustan:

—Ta, Yon Ander, oraindiño erestuna al-yaukak?

Ezer esan barik, nire esku-arrean erakutsi neutsan. Pirmiñ'ek artu ta une batez eskuan erabilli eban. Alako baten, besokada indartsuz, maillaburu gainean zabalik egoan leioan zear, aurrean jagiten zan etxe bateko teillatura bota eban, auxe iñoala:

—¡Maistro, irte buscar a tejau...!

Arrituta geratu nintzan, eta bildur bakanaz jabetuta,

—Pirmin, nireak egin yok —esan neutsan—, maisuak galdu egin yoadala jakin yaianean...!

Pirmiñ'ek soiñak goratu ebazan, eta beste barik ikasgelara sartu gintzazan. Mutikoen ikastegia lenengo maillako eskumatara egoan; neskatoena ezkerretara, eta goiko maillea maisu-maistra biko-tearen bizilekua zan.

Ikasgelan sartuta, gure idazmaietan egokitu gintzazan, eta oi eban lez, maisuak auxe itaundu euskun:

—A ver, ¿quién tiene el anillo...?

Danok isil-isillik gengoan. Une larri aretan, maisuak asarre antzean barriro:

—¡He preguntado que quién tiene el anillo...!

Jagi nintzan, eta maisuak,

—Ven, tráemelo —esan eustan.

Ikara bizian urreratu nintzakion, eta berak barriro:

—¡Venga el anillo he dicho...!

—Anillo perder he hecho —erantzun neutsan.

—¡Que lo has perdido...! —Asarre bizian oi u egin eustan. Ustekabez, alboka eragin ninduan matrailleko itzela emon eustan. Bigarrenez ni joteko gertatzen zala, Pirmiñ'en abotsa onetaraxe aditu zan:

—¡Señor maistro, anillo yo tirar a tejau...!

Didar bizitan, maisua oldartu yakon astiñaldi itzela emoteko asmotan, baiña idazmaien artetik ariñeketan, Pirmin arrapaeziña zan. Asarre bitsetan oiuz eta arnas-estuka erraikion maisuak. Alako baten, idazmai bateko beekaldean sostor egin, eta luze-luze sorura jausi zan. Au ikusirik, Pirmin ikasgelako atea edegirik, zurubian beera kalera joan zan txistuka.

Bitartean, txoko baten zutunik, elbarrituta lez ekintzari nerrai-kion. Ez nekian zer gertatuko zan, baiña izu neurribagepean aurkitzen nintzan.

Miñez aieneka, maisua jagi zan, eta une batez arnas larrian egon ondoren, begiai txinpartak eriezala urreratu yatan oiuka, auxe ziraustala:

—¡Te voy matar, vascuence maldito...!

Eta jarraian zigorrak joten asi yatan, guztitariko iraiñak botaten eustazala. Alako baten, zigorra zart! egiñik ausi zan, eta orduan ukabilka jarraitu eban. Gero, atsandika, joteari eten egin eutsan atsedean artzearren. Abo ta suurretik odola eridala parrastaka eta zutunik nekez nirauala, maisuari arnasa baretu yakonean, auxe agindu eustan:

—¡Dime que no volverás a hablar en vascuence...!

Ez neutsan ezer erantzun, eta burua eskuakaz babesten nebala makurtuta nengoan. Aurreko bildurra sumiñaz ordezten asten yatan, eta isillez egotea erabagi neban. Baietzik artu ezean, len baiño basatiago jarraitu eutsan joteari. Isillik nirauan ikusirik, zigor egi-teari sumiñez beterik erraikion, baiña eskuak mintzen asten yakozan ezker, ostikoka erabilli ninduan.

—¡Dime que siempre hablarás en cristiano...! —berak berriro.

Erantzunik ez artzean, barriro be ostikoka erabilli ninduan, nire sumiña andiagotzen yatala. Orduan irugarrenez, erderaz egin-

go eta neban itaundu eustan. Arrezkero, itsu eginda nengoan, eta asarre-suak menperatuta, auxe bota neutsan:

—Nik beti euskeraz...!

Itz oneik esan neutsanean, senak galtzeko zorian aurkitzen nintzan. Maisuak orduan atea edegirik, araiño eroan ninduan osti-koka, eta bultz indartsuaz, eskillaran beera jaurtiki ninduan.

Danbada andiaz atea nire atzetik itxi zan, eta zurubian beera oztopoka, burua aurreko ormearen aurka jo, eta kordebagetu nintzan.

Ez dakit zein luzaro egoera aretan iraungo neban. Bapatean, nire burua zerbait bigunaren gaiñean zetzala konturatu nintzan, eta urrundiko deia bai'litzan, baten batek,

—Yonan, Yonan...! —iñostan.

Burua biraka yabildan, baiña astiro-astiro nire senetara nentorren, eta noizbait nire egoereaz jabetu nintzan. Ene ondoan belau-nika Mimiñe egoan, eta nire burua aren altzoan kokatzen zan. Neskatoaren begi andi sakonai, malko lodi epelak parrastaka eriezan, aurpegiaren gaiñean jausten yatazala. Zapiño bat az aurpegia txukatzen eustala, auxe ziraustan:

—Yonan, Yonan, esaidak zeozer...! Nok jarri au olan, baiña...? Maistrak mandatu bat egiteko bialdu naiok, eta zurubian beera nentorrela, lurrean aurkitu aut... Asikerean iltzat artu aut... baiña Jaungoikoari esker, senetara etorri az. Yonan, zergaitik ipiñi aue olan... zergaitik...?

Bapatean, egoera errukarri aretan neskato batek ikusi nengianaren lotsa andia jabetu zan nitzaz, eta nik ez dakit zelan, jagi ta ariñeketan kalera iges egin neban, eta bidean beera Yandur-zubi'rantz abiatu nintzan, Mimiñe'ren dei larriak erraikidazala.

—Yonan, Yonan, itxaron...!

Itsu antzera, arrapalada bizian niñoian. Zubira eldu nintzane-ko, lurrera bizpairu bidar jausi izan nintzan. Gero, Bordazuri'rako bidea artu nebanean, Yandur-erreak'ko ertzean gelditu nintzan. Burua ler egiteko zorian neban, inguru guztia bira ta biraka ebilkidala. Ur ozkirri gozo areitan, aurpegia garbitu neban eta zeozer zuzpertuta, bideari barriz ekin neutsan, eguzkia Idurene'rantz osten-

tzen zala. Etxera eldu nintzanean, sukarrezko ikarapean aurkitzen nintzan.

Ama sukaldean egoan, eta ni ikusi baiño ez, oi u bat iges egin yakon, eta zer zala-ta bein eta barriz itauntzen eustala, besarkatu ninduan. Aurpegia bere kolkoan jarrita, negar mingotsari emon neutsan. A lako negarrik gitxitan egin dot. Lotsa ta sumiñezko uxiñek bularra astintzen eusten, baiña oroz gain, niretarren izkuntzaganako bidebagekeriak mintzen ninduan, eta ezin uxatu nengikean maisu doillor areganako gorrotoak, biotza menperatzen eustan.

Neizbait, amaren berba gozoek eta laztanek baretu ninduen, eta jazoriko guztia edestu neutsan. Amaitu nebanean, amak ez eustan ezer esan, baiña aren begiek nik iñoiz ez ikusiriko begikadarik gogorrena erakusen.

Gero, garbitu ninduan eta lo-gelara lagundu eustan. Orduan, otzean, bideko jarduna joanda, ozta-ozta nenbilken. Soiña guztiz minduta, gura neban gauza bakarra oean etzatea zan. Igitzen nintzan bakotxean, min andiak artzen ninduan, sukarrak anditutako, urrean. Andik laster amestxar mingarriak eraso eustan, sukarpelan bein eta barriro maisuaren irudi bildurgarria urreratzen yatala.

Ez dakit zein luzaro iraungo neban olan. Alako baten, bekokian esku baten laztan ozkirria oartu neban eta iratzarri nintzan. Aita-amak oeburuan egozan, eta aitak eskuaz bekokia laztantzen eustan, isillean begiratzen eustala.

—Aita...! —jaurti neban, jagitekoa egiten nebala.

—Geldi adi, Yon Ander. Ez indarrik egin ezta barbarik be. Amak dana esan yaustak, eta ziñez yiñoat, olakorik ez dala barriro jazoko, ez orixe! Lo egik orain, eta biar arte, seme.

Amak lagunduta, urten zan eta lo-gelea illunpetan geratu zan. Lo egiten saiatzen nintzan baiña ezin. Erdiz edegitako atean zear, eskaratetik abotsen zurrumurrua etorten yatan. Alako baten, amaren berba kezkatuok aditu nebazan:

—Nora zoaz Juan?

—Errira, arazo bat atontzera.

—Ez, Juan, ez joan, arrren! Orain sututa zagoz; itzi biarko arazo ori..., bildur naz, ez joan...!

—Nasaitu zaitetz, Kattalin. Bidebagekeri bat zuzentzera noa; otso bateri giza-bideak erakustera baiño ez. Gero arte...

—Ez, Juan, geratu zaitetz emen biar arte beintzat...!

Ez zan erantzunik aditu, ate-danbadea baiño. Gero, dana isillik geratu zan. Gau aretan errian jazorikoa, geroago jakingo neban. Ona emen gertatu zana:

Aita artez-arte maisuarenera joan zan. Atean koz-kox egiñik, maisua bera ate-zubian azaldu zan. Zorionez, onen emaztea ez zan etxean une aretan.

Ez dakit zelango itxura erakutsiko eban aitag, baiña maisuak ikusi ebanean, zurbildu zan, eta atea itxi gura izan eban. Aitag, baiña, eragotzi eutsan, eta bere atzetik atea ixten ebala, sartu zan. Maisua aurpegia zuri-zuri eginda eta erkinduta, idaz-gelako maitzean babestu zan, aitari zirautsala:

—Nire etxean indarrez sartzeko ez dozu eskubiderik.

—Are gitxiago zeuk nire semeari egin dautsazuna, euskeraz berba egiteagaitik. Pizti basatia zara, eta merezitakoa emotera natorzu. Emendik urten naitenean, euskeraz egiteagaitik ez dot uste iñongo mutikoari barriri joteko gauza izango zaranik.

Maisua orduan, aitagandik iges egitearren, mai-inguruka asi zan, Pirmiñ'ek berari egiñiko berbera ordu batzuk lenago. Ikoti andia egiñaz, aitag maiaz beste aldean arrapatu eban, eta orduan itsu eginda, bere biziko astiñaldia emon eutsan. Noizbait, maisua piltzar baten antzera, ez jaustearren maiari oratu eutsan, besoakaz aurpegia gerizatuz, baiña aitag andik aldendu eban, eta esku batzaren jakeari eutsirik, besteaz joteari erraikion...

Aurpegia odolezko zauria biurturik, eta agin geienak apurtuta, maisua noizbait belaunikatu zan, eta arrenka bizian jo ez egiala eskatu eutsan. Orduan aitag joteari itzita,

—Aste bat emoten dautsut erritik betiko alde egin dagizun —esan eutsan—. Epe ori amaituta emen aurkitzen ba'zaitut, ukabilka uxatuko zaitut!

Gero, etxetik urten zan. Kanean beera etxerako bidean joiala, leio bat edegi zan, eta maisuaren berba asarratuok aditu ziran aitari auxe zirautsala:

—Maldito vascuence, mañana a primera hora te denunciaré ante la comandancia de la guardia civil. ¡Ya veremos entonces quién es el que se marcha del pueblo!

Ez dakit ze ordu izango zan barriri iratzarri nintzanean gau aretan. Amak negar-zotiñen artean, aitari auxe zirautsan:

—Juan, ez zaitetz geratu emen. Iges egizu oraintxe bertan, ostantzean kartzelan sartuko zaitue. Zoaz Baztan'era zure anaiaren etxera, eta an erabagiko dozu zer egin. Ai ene, ai ene, zoriontsuak izaten asten gintzazanean etorri bear au be...!

—Ez larritu Kattalin, dana atonduko da-ta. Zuzen zagoz; nire anaiaren etxera joango naz, eta luzaro barik, emen izango nozue ostera. Bide-zorroa gauza batzukaz atondu egistazu, eta astirik galitzeke joango naz.

Jarraian, aitaren urratsak zurubian gora aditu nebazan, eta nire gelara sartu zan, auxe iñostala:

—Yon Ander, etxetik kanpora joan egin bear yoat maisuari astiñaldi itzela emon yautsadalako. Ez az iñongo ikastolara joango barriri, etxeak emen bear au, aitita bakarrik erabilteko gauza ez dok-eta. Baiña berak esana beteko yok. Ez yakiat zein luzaro iraungo yoadan etxera etorri barik, baiña bayakiat aaleginduko azana etxeko arazoak ondoen erabilteko. Agur, Yon Ander, zaindu eizak ondo etxekoak, amatxu batez be, eta eutsi beti euskereari...!

Besarkatu ninduan, eta krisaillua artuta urten zan. Laster etxe-ko atea bere atzetik itxi, eta isiltasuna Bordazuri'tzaz jabetu zan, amaren negar itoak bakarrik aditzen zirala.

Urrengo goiz-erdi inguruan, zibillak aitaren billa etorri ziran, eta etxean ez izanik, amari guztitariko itaunak egin eutsoezan, baiña amak ez ekiala ta ez ekiala ezer. Azkenean, nire gelara igon zeitezan esan eutsen, maisuak niri egindakoa ikusi egien, baiña a ez zala euren egitekoa esanik, urten egin ziran.



Arratsaldean, Mikel Jauna, gure osagillea, etorri zan eta odol-batu ta zauriak zeatz aztertu eustazan. Amaitu ebanean, bere begi biziai txinpartak eriezala, amari auxe esan eutsan:

—Mutiko onek, egundoko astiñaldi basatia artu egin dau, eta oraintxe bertan artez-artez Aranegi'ko Ertzaindegira noa dagokidan salakuntzea egiteko. Bitartean, ona emen gantzu on bat mutikoa-ren zaurientzako.

Urten baiño len, amari auxe iñotsala aditu neban:

—Ez larritu Kattalin, errian aalegiñak egingo doguz, Juan len-bailen etxera etorri dakigun, eta maisu zital ori erritik kanpora botateko.

Osagillearen eragintzaz, erri guztiak maisua kendu arte mutikoak ez litzakezala ikastolara joango, Iruña'ra bialdutako agiri baten azaldu zan, eta astea igaro barik, maisua erria itzi ta beste iñora joan zan. Andik laster maisu barria bialdu euskuen Arandibar'era Arrezkero, erestun zitala gure errian betiko ostendu zan.

Aita, baiña, ezin izan zan etorri, guztitariko aalegiñak saiatu baziran be. Andik laster, idazki baten bidez Frantzia'ko Landesetan piñu-mozketeari emoten eutsala jakin genduan. Laster etorriko zala iñoskun, baiña illabeteak igaro arren, aita ez zan etorten...

## TXERU

Aitaren erbesteratzeak gure etxeari naaste andia ekarri eutsan. Diru gitxi genduan, aita len irabazirikoa aspaldiko zorra ordaintzeko erabili izan zan-eta. Bageneukazan barri batutako indiabak urte guztirako, baita bear izango genduzan lursagarrak be. Laster, txarriaren ilketeak laguntza andia ekarriko leuskigu, baiña alan eta guzti be, dirua bear izaten genduan, janzkiak, tresnak, ontziteria ta abar, noizean bein erosteko.

Gaztaiñ-aro betean gengoan, eta Indusi'ko gaztaiñadiak bear genduzanak baiño askozaz geiago emoten euskuzan. Oitura zan Naparra'ko lurralde aretan, etxeko txarriak gaztaiñakaz loditzea Gabonetan erail baiño len. Bein baten, diruaren bearrianagaitik ama larri-larri ikusirik, burutapen auxe etorri yatan: gaiñezka genduzan gaztaiñak errian saltzea, baiña asmo orretarako, Bordazuri'tik erriraiño eroateko, asto bat bearrezkoa zan, eta asto ori erosteko zoritxarrez, dirurik ez.

Igandeko mezaren ostean korapillo au buruan nerabillan bein baten, On Markel'ek berarekin Abadene'ra joateko esan eustan. Ara elduta, zorrotxu astun samarra emon eustan, auxe ziraustala:

—Yon Ander, zure aita bialitakoak, emen dozuz ogetamar ogerlekook. Atzo bertan ekarri eustazan lagun batek, bidebatez zure aita ondo dagoala jakiñerazoten dautsuela. Goraintziak ama ta aititari, eta zeozer bear izatekotan zatorkidaze beste barik... Aizu Yon Ander, ez dakit esan bear dautsudan ala ez, baiña emen gazgoan ezkerro... Begira, zure aita joan zanean, Mikel Jaunak esan

eustan zuek bear izango zendukiena bere kontura emon nengizuela, beraz, estualdi guztietan erdu neugana.

Pozaren-pozez urten nitzan, eta erriko pelotalekuan nire begira egoan Pirimiñ'ekin etxera abiatu nintzan, jaieguna zan-eta.

Zorrotxu astuna mai-gaiñean ipiñita zabaldu genduanean, etxe guztiak txaloka asi gintzazan. Nik neuk ez neban iñoiz ikusi izan olako diruketea. Otordu-bitartean, ariketa bizian baktotxak diruketa aregaz egin leitekena azaltzen eban. Alako baten,

—Aizu —aititari esan neutsan—, zenbatean erosi geinke asto bat?

—Zetarako asto bat, baiña?

—Lengo egunean esan neutsun ba, errian gaztaiñak saltzeko asto bat bear genduala. Kortan gaztain-meta andia daukagu onezkerro, eta gaztainketa ori eroateko bearrezkoa da astoa. Gaiñera larratik kortaraiño bedarra ekarteko, baita egurketarako, eta erritik askotan gauzak ekarteko be...

Aititak gogoeta sakonari emonda gero, auxe esan eustan:

—Nire ustez, ogetabost ogerlekotan erosi geinke...

Orduan arazoari ekin geutsan, eta erosketearen aurka jarri eustezan errazoi guztiak garaiturik, abo batez, Aranegi'n ospatuko zan urrengo azokan astoa erosi nengikela ebatzi zan, baiña, beti, ogetabost ogerlekotik gora ez izatekotan.

Dalako azokea urrengo asteko larunbatean ospatzeko zan, illeko azkena zan-eta. Olan ba, aste guztia noiz etorriko zan larunbataren begira emon neban, eta noizbait eguna eldu zan.

Egungentia barik, aitita ta biok Iturrizaga'ko bidetik Aranegi'ra abiatu gintzazan. Bide au laburrena zan, erritik igarotea bearrezkoa ez zalako.

Aranegi'ra eldu gintzazaneke, goizegia zan, eta ordubete bat errian zear emonda gero, azokara bideratu gintzazan. Zaldieriko azokea, Yandur-erreak mugatzen eban biurgune zabaleko landa ederrean egoan, erriko egurastegiaren ondoan.

Eldu gintzazanean, zaldi ta aztozko lerro andia ikusi genduan. Urreratzen gintzakiola, aititak.

—Begira, Yon Ander —esan eustan—, astoa erostearren ez erakutsi gurari andirik, bestela galduta gaiagozak. Asto-saltzaille geienak ijitoak dozak, eta oneik norberaren aurpegian irakurten yakiiek.

Astoen lerrora jo genduan, eta iradu barik mutur batetik azterketeari emon geutsan. Iruzpala illabeteko astakume bat ezean, beste guztiak abere sendo, aziak ziran. Astiro-astiro errenkadea begizatzen genduala, ijito zaar batek aititari auxe esan eutsan:

—Güeno dia compadre, mire uté ete animaliyó, eto e pura gloria, zeñó, eta e la mejó cabargaura que ze a vito en tóo er territorio.

Aitita gelditu zan, eta,

—¿Cuanto pedir burro?

—Po ze pa uté, le dejo en cuarenta duro eta cabargaura de mi arma...!

—Guardar pa ti cabargaura —erantzun eutsan aititak.

Eta aurrera joan gintzazan gure azterpenari jarraituz, aititak noizean bein astoren baten salneurria eskatzen eba. Astia joan ala, adorea birrintzen asten yatan, astoen prezioa ogei ta amabost ogerlekotik beeratzen ez zalako, eta etxekoen erabagia ogei ta bost ogerlekotik gora ez joatea izan zan... Eguberdi inguruan, aztozko errenkadea bein eta barriro aztertu ondoren, atsekabe andiaz konturatu nintzan, Bordazuri'k ez leukela astorik ezagutuko. Alako baten, aititak auxe esan eustan:

—Yon Ander, gaiuzan etxera, astoen salneurria guretzat larregi dok-eta. Ezin yaikegu orrenbeste ordaindu, eta tamala yauat benetan, laguntza andia izan lleitekek-eta...

Alde egiteko zorian gengozala, len ikusiriko astakumea soka batetik eroiala, ijito gazte bat etorri yakun, eta,

—Mire zeñó —esan eutsan aititari—, llévese ete animaliyó. Ze lo doy casi de barde...

—Nosotros burro querer, gato no —erantzun eutsan aititak.

—¿Llama uté gato eta joya? Eta maraviya tié sangre de reye en la vena, eto e canela pura, compadre. Ze lo dejo casi regalo a ete cachito e mi arma... Mire uté, zolo por vinticinco pavo, y que Dió me perdone por la ofensa que hago a eta joya por pedí eza miseria...

Nik astotxuari begi onez so egiten neutsan. Gaztea zan, baiña gaztain zorro bete bi eroateko gai izango zan, urrean, eta aldiaren bidean abere sendoa biurtuko litzake. Aitita, baiña, ez etorran bat nirekin, antza, eta ijitoari auxe bota eutsan:

—Nosotros no nesecitar gato con sangre de errege.

Eta ni eskutik artuta, ijitoari bizkarra emon eutsan, baiña aугure aurrean ostera jarri zan, auxe zirautsala:

—Mire ute paizano, uté me cae bien, iea! Ze lo dejo en vintidó duro a ete cachito e mi arma. Ni er mezmízimo Napoleón tuvo jamá una coza iguá...! Ze lo dejo en veinte duro, ivaya!

Baiña aitita ta biok jaramonik ez, aurrera giñoazan. Azokatik urteteko zorian gintzazala, ijitoak barriro:

—Eto e una ofensa pa ete cachito e canela, pero ze lo dejo en dieciocho duro y que argún dia Dió me lo perdone...!

Aititak begiratu eustan, eta nik begikada eskaritsu bat az erantzun neutsan. Orduan aitita gangaillenez asi zan, eta eztabaida luze baten ondoren, astoa amabost ogerlekotan gurea izan zan. Eroan aurretik, aititak zeatz-zeatz aztertu eban, eta osasuntsua zala ikusirik, ijitoari ordaindu eutsan, eta astoa sokatik artuta, etxerantz joan gintzazan.

Arratsalde aretan bazkalduta gero, astoa larrara atara neban, eta sagarrondo bateri lotuta, bedar jateari emon eutsan adorez beterik. Illunabarrean kortara sartu neban, eta askan gaztain-mordo bat ipiñi neutsan bear eban indargarria artu egian. Ziur nintzan gaztain-jateaz laster abere sendoa biurtuko zala.

Urrengo eguna igande izanik, oi eban lez Pirmin otordua gurekin egiteko geratu zan. Bazkari alai-alai izan genduan, eta asto-erosketearen gora-beerak autua izanik, danok poz-pez gengoan egiñiko txokoaz.

Bezperatik biurtuta, Pirmiñ'ek eta biok larratzen ziarduan astotxuari begiratzan geutsan. Alako baten, bazkatzeari eten egiñik, astoa urreratu yakun eta guri adi-adi begiratzan geratu zan. Izan be, asto polita zan, niretzat ezpaibarik munduko astorik politena. Alako baten, musturrak igitzen asi zan irribarreka antzera. Bere itxurean zeozter ezaguna igarten yakon. Bapatean, Pirmiñ'ek auxe esan eustan:

—Aiko, Yon Ander, asto ori Txeru berbera yirudik...!

Ain zuzen be, egia zan. Bere itxura irribarretsua, guztiz begikoa zan eta beti irribarre antzean egoan Txeru eritxan Murubaita'ko mutikoaren aurpegia emoten eban. Danok maite-maite genduan mutiko zoragarri ta begikoa zan. Pirmiñ'en eritxiz, Txeru izen egokia litzake astoarentzat.

—Ez al-dok asarratuko Murubaita'ko Txeru, astoari bere izena emon yautsagula jakin yaianean?

—A asarratu? Ikusi ete yok bein edo bein asarratuta gure Txeru...? Munduko mutillik onena dok, eta ziur nok, ain maite yokan astoari aren izena emoteak benetan poztuko yokala. Gaiñera, ez yauk esan ijitoak, Naboleon'ek berberak au lango abere ederrik ez yoala iñoiz ezagutu?

Barriro begiratu geutsan astoari, barre egiten genduala. Alako baten, Pirmiñ'ek,

—Aiko, nor izango ete zoan, Naboleon ori? —itaundu eustan.

—Ez yakiat, baiña asto-tratulari ospetsuren bat zoalakoan naiagok.

Urrengo astean, Txeru'ren laguntzaz Indusi'ko azkenengo gaztaiñak etxeratu nebazan, eta jarraian errian bertan saltzen asi nintzan. Egun bakotxean lau lorketa egin oi nebazan, au da, goizean bi ta arratsaldean beste ainbeste, lorketa bakotxean Txeru'k zorro bete bi eroiazala. Olan ba, etxerik-etxe joanez Bordazuri'ko gaztainmeta andia dirutan biurtu neban.

Goiz baten, gaztaiñak Illintzabaita'ra eroan nebazan. Ateko txingan Txeru lotu, eta zorroak etxera sartuta gero, etxekoek eurenkin gosaltzeko jesarri-erazo ninduen. Urten nintzanean, zur eta lur geratu nintzan. Txeru ostendu izan zan. Txingatik lokarriaren mutu-

rra ebagita dilindan ikusten zan. Latz-ikara batek jota, aldameneko kaleak arakatu nebazan, baiña astoaren zantzurik ez. Illintzabaita'ra biurtu nintzan negar-gureari nekez eutsirik. Etxe aretakoak errian zear sakabanatu ziran, baiña aalegin guztiak alperrik azaldu yakuzan.

Or-emenka billa ta billa ordu bete bat-edo igaroa zala, Txanbo ikusi neban, eta beragana joanda, astoarena jakiñerazo ondoren, ia nire Txeru ikusi izan eta eban itaundu neutsan. Esan bear dot, Txanbo ta biok aspalditik onezkoak egiñak genduzala, eta izan be, bera estuago ezagutzean, nik uste izaniko baiño ohea zala oartu nintzan. Nire itauneai erantzunez, auxe esan eustan:

—Bai, Yon Ander, Aranegi'tik nentorrela asto txiki batekin ijito gazte bat ikusi dot. Ijitoak iraduz joiala emoten eban.

Ozta-ozta eskerrak emonda, Aranegi'rantz abiatu nintzan, eta erri guztia arakatu neban, noizean bein jendeari nire astoaren barriak eskatuz. Eguberdian, ezer jakin barik etxera biurtu nintzan, eta bazkaria ia iruntsi eziñik, etxekoai asto-lapurketeari buruz esan neutsen.

Arrastian Aranegi'ra barrero billaketeari jarraitzeko, baiña orduak igaro ziran astoaren zantzurik bage. Erriko aldamen guztiak ikertu nebazan, eta dana alperrik zala ikustean, Arandibar'era biurtu nintzan, Txanobaita'tik igaroteko asmoz.

Erestunaren arazoa jazo zanetik, On Mikel'en bitartez, Pirmiñ'ek Idurene'ko okindegian labe-mutiltzat ziarduan. Jakiña, aren betebearra gabaz izaten zan, baiña alan eta guzti be, gurekiko artu-emonak betikoak ziran. Ez eban gauza andirik irabazten, baiña gitxi izanik be, Izeko Ixidore'ri ondo etorkion obetotxu bizi aal izateko.

Arratsalde aretan ba, Txanobaita'ko atadian egur-mozketeari emotsala ikusi neban nire adiskidea. Larri-larri Txeru'rena esan neutsan. Amaitu nebanean, Pirmiñ'ek auxe esan eustan:

—Nire ustez, iñon izatekotan, Aranegi inguruko erritxuren baten aurkituko dok. Begiraik, Yon Ander, illuntzean lanera joango nok, baiña goizaldean Idurene'tik biurtu naitekanean, ikuska bateri emongo yautsat, eta zeozer jakitekotan, biar arratsaldean Bordazuri'tik igaroko natxak eta jakiñaren gaiñean ipiñiko aut.

Andik laster, etxera biurtu nintzan, barrutik ebilkidan Iarritasuna kendu eziñik. Urrengo egunean lur-jota oiko betekizunai emon neutsen, Pirmin noiz etorriko zanaren begira. Guenez, arratsaldean etorri yatan oso urduri iñostala:

—Txeru ikusi yoat. Euk atzo azaldutakoa ondo ausnartu ondoren, astoa Aranegi'tik igaro barik beste erriren batera joan izango zoala, uste izan naiuan. Aranegi'ra barik, beraz, bidezabal bat Donamariñe'ra yoak, eta erritxu au aztertzea otu yatakan. Gaur ba, Idurene'tik biurtzean, etxera sartu barik artez-arte Donamariñe'ra joan nok, eta noizbait erritxua igarota gero, lats baten ondoan ijitoen kapardi bat eta antxe zugaitz bateri lotuta, ire astoa ikusi egin yoat. An yeigoan gaixoa buru-makur, eta nire ustez guztiz atsekabeturik, Bordazuri'rako miñez jota, urrean...

—Aiko, Pirmin —ebagi neutsan—, gaiuazan ara ba aida baten...

—Orain ez yoat joaterik, Yon Ander, lanera naiok-eta, baiña biar goizean...

—Biar goizean Idurene'tik biurtu aitenean, igaro Bordazuri'tik, eta biok Donamariñe'ra joango gozak gure Txeru jareitzeko.

Nire laguna joan zan, itxaropenez beterik izten ninduala. Gau aretan, aitita jakiñaren gaiñean ipiñita gero, bere burubidea eskatu neutsan. Aren onua, ekintzea egunsentia baiño len bete gengiala izan zan, ijitoakandik iges egitea errazagoa izango litzake-ta.

Urrengo goizean, Pirmin etorri zaneke gerturik nengoan, eta Donamariñe'ra egunsentia barik eltzeko, ibilte ariñaz joan gintzazan. Guenez, kapardia agertu yakun. Laster asiko zan argia, eta unerik galtzeke, barrandan jarri gintzazan. Kapardia ustuteko abiamenak agiri ziran une aretan.

Gurdi bi alkarren ondoan egozan, eta ogei bat metrora, lats baten ertzean iruoin batetik eskegita, maskillo bat ikusten zan su-gaiñean, emakume baten zaintzapean. Ijito zaar batek mando baten apatxa aztertu bitartean, beste ijito gazte batek zaldi bat latsera eroian edan egian, eta orduan astoa saldu euskun berbera ezagutu egin neban. Zalpurdi bien eskumatara, zugazño bateri lotuta, Txeru'ren irudi motela ikusten zan buru-makur, Bordazuri'ko korta epela irrikan, antza. Goiza otz-otza zan, bedar guztia zurituta ikusten zala, eta bideko osintxuak leiturik.

Barrandan gengozala kapardiko gora-beera oneik bagizatuz, gurdi batetik ume bat erdi billutsik urten, eta berotzearren, antza, sutara urreratu zan, eperdiari atz egiten eutsala. Au ikustean, Pirmiñ'eri abopetik auxe iges egin yakon:

—Ñooooo...! Yirudikanez, illun izan arren, orrek erretratoa egin gura yauskuk...

Ni ez nengoan pilosopiari ekiteko egoerarik onenean, eta isildu zeiten agindu neutsan, ekintza-asmatzeari emoten neutsala. Zeozer egiteko zan, baita arin be.

—Aiko, Pirmin, ekastak ire labana. Txeru'gana joan naitenean, latsaz bestaldetik arrika asi adi gurdien aurka, eta orduan ijitoak igana urreratzean, nik Txeru'ren sokea ebagi, eta ariñeketan etxerantz aigegingoa yoaguu.

Pirmiñ'ek bere oiko laban ugertsua emon eustan, eta aalik isiltsuen eskumatara jo neban. Egunsentia asten zan, eta artega, nire lagunaren egitekoaren begira geratu nintzan. Luzaro barik, Pirmiñ'en begira gelditu gintzazan. Orduan, zorionez gainezka Txerujausten asi zan. Ijitoak latserantz oldartu ziran guztitariko birao ta madarikaziñoak jaurtiten ebezala, nire lagunaren billa abiatuz.

Orduan, sasi-ostetik urten eta arrapalada baten, Txeru'ganantz oldartu nintzan, eta labankada bat az sokea ebagi, eta oneri eutsita, ariñeketari emon neutsan. Andik laster, kapardiko astrapalea atzean itzirik, aalik ariñen urrunduz nintzan, eta Donamariñe atzean itzita, Iturrizaga'ko biderantza jo neban. Iturrira elduta, astoa ta biok Primiñ'en begira gelditu gintzazan. Orduan, zorionez gainezka Txerubesarkatu neban, berak irribarreka antzera musturrak igitzen ebezala. Izan be, Txeru asto arrigarria zan, eta geuk egiñiko aalegiñak ondo merezi ebazan benetan.

Luzaro barik, Pirmin agertu zan. Barrez lertu-agiñean etorren, eta barre-santzoen artean auxe esan eustan:

—Ijitoak laster elduko dira Iruña'ra nire atzetik, arako biderantz egin yoat-eta, ea an Naboleon edo dalako ori aurkitzen yoekan...

Eta barre-gurea jabetu eziñik, karkara itzela bota eban. Neuk be barre-gureak eraginda lagundu neutsan, eta aldarte onenean

Bordazuri'rantz bideratu gintzazan. Alako baten, nire lagunari auxe esan neutsan:

—Ez al-yakik gauza bat, Pirmin? Ijito gaztea, Txeru saldu yeuskun berbera dok. Yirudikanez, amaika bidar saldu yok gure Txeru...

—Gaur ba —ebagi eustan nire lagunak—, kofraditik botako yoek.

Eta barre-santzoen artean Bordazuri'ra eldu gintzazan.

Arrezkero, ez genduan ijitoen beste aztarnik ikusi, eta Bordazuri'ko bakean, Txeru asto bikaiña biurten zan, zeregiñetan benetako lagungarria azaltzen yatala, udabarria etorri zanean batez be. Orduko, txala, bigantxa ederra biurtu izan zan, eta Txeru'k bearrezkoa zan bedarra kortara lorratzen eban.

Aranegi'n urtero entzute andiko udabarri-azoka ospatzen zan. An, guztatariko lurgintza-lanabesak saltzen ziran ezkerero, irauten eban iru egunetan, inguruko errietatik gizoste andia azaltzen zan. Areitariko egun baten, aitita ta biok osteratxua andik egitea ebatzi genduan, beraz, bazkalduta gero, Aranegi'rantz jo genduan. Azokea benetan ikusgarria azaldu zan, eta nik abo-zabalik an ikusten ziran guztitariko tresnak begizatzen nebazan.

Alako baten, saltune baten aurrean untzatuta lakoa gelditu nintzan, begiak golde txiki batetik kendu eziñik. Burdiñezko golde-muturra izan ezik, enparaua zurezkoa zan, oso ariña zirudiala. Eskuan erabilli nebanean, oso ariña ta eskurakoia zala oartu nintzan. Eta orduan, uxatu eziñeko burutapena etorri yatan. Beste barik, saltzailleari aren salneurria eskatu neutsan.

—Ogei ogerlekotan eroan zeinke —esan eustan.

Aitita alde batera eroan neban, eta baietza eskatu neutsan.

—Baiña Yon Ander —arrituta jakiñerazo eustan—, ezetarako gauzarik ez dokan lanabesa erosi, eta gainera ogei ogerleko emon?

—Begira, aitita, Bordazuri'ko lurak arin eta azkorak diran ezkerero, Txeru gauza litzake golde ori erabilteko.

—Bai, baiña ogei ogerleko guretzat diruketa itzela dok.

—Gitxi gora-beera gaztañai ataratako obaria. Gaiñera, goldearen bidez, ortua anditu dagikegu, eta urte guztirako ortuariak-eta naikoa nasai lortuko gendukez.

Buruari atz egiñez, aitikak gogoeta sakonari emon eutsan, eta gero,

—Ain zuzen be —esan eustan—, ez dok burutapen txarra, eta gaiñera oso erraza izango litzake golde ori astoari egokitzea...

Orduan, saltzailleagana biurtuta, oi eban antzera, gangaillenez asi zan, eta bere atsegin andirako ogerleko baten mozkiña jaritsi eban.

Urrengo egunean ba, gure astoarekin azokara biurtu gintzazan, eta emeretzi ogerlekoak ordainduta, goldea Txeru'ren bizkarean jarri, eta etxera biurtu gintzazan.

Izan be, goldeak Txeru'rentzat berariz egiña zirudian, eta Bordazuri'ko lur azkorretan goldaketea naikoa erraza azaldu zan. Uda-barri aretan, etxerako bear izaten ortuariak sartu genduzan, eta gero, Ixidor Deuna'ren eguna elduta, indiaba ta arto-ereintzari ekin geutsan. Orduko, Txeru asto bikaiña biurtu izan zan, niretzat laguntasun andikoa benetan.

Zoriontsuak izateko, baiña, zerbait uts egiten yakun etxean: aita, alegia. Ezin nengikean bera burutik kendu, ezta zelan oituko zan erbestean be. Baiña geien uts emoten eutsana, ama zan. Sarri askotan, antziren bat iges egiten yakon, eta aurpegian malkoren baten ildo dizdiratsua agertzen zan, enparauontzat aitaren atzerraldia mingotsagoa biurtuz. Amak ez eban aitarik egiten, baiña danok aren oiñaze sakona somatzen genduan, eta eginbide guztiakaz bere naigabea arintzen saiatzen gintzazan. Gauoro, agurtza esan ondoren, Gure aita bat erasten genduan lenbailen etorri ekigun.

Mikel Jauna ta abadearen eragintzapean, errian guztitariko aalegiñak egiten ziran aita etxera biurtu zeiten, baiña gure osagillearen itxaropena ustel azaldu zan, aitik atzerrian zirauan-eta...

## ORBELAK

Udea aurrera joian, Bordazuri'n oiko lanetan giñarduala. Len esan dodanez, Pirmiñ'ek Idurene'ko ogitegian ziarduan, eta nire arrebak uda aretan Aranegi'ko joskilla bategana astean iru egunez joiazan, etorkirako bear izango ebena ikastearren. Nik, ordea, aitariaren laguntzaz etxeko lanak bete oi nebazan. Ortua ta alorrak itxura ederra erakusen, eta goldeari buztarturiko Txeru'ren laguntzaz, alor-sailla andiagotu izan zan. Kortan bei bi genduzan, bata txalarekin eta bestea umea laster egingo eban Apalagandik izandago bei gaztea. Zorionez, bedar-arlo ederra azten zan Muñagorri ta etxe arteko egi leunean, bei biak ondo janaritzeko lain, alegia. Aateak be polito ugaritu izan ziran, eta oilloek arrautzetan etxerako bear izandako beste emoten euskuen.

Zoriontsua izango nintzakean Bordazuri'ko txoko maitagarrian, aitaren oroitzak gure inguruan alako illuntasuna isuri ez ba'leu... Bein baten, arto-jorratzeari emoten neutsala, langaren agak norbaitek erabillezala entzun... eta gizon batek langea zearkatzen ebal ikusi neban. Ezustean, biotza zoro antzera asi yatan taupadaka, aren ibillerea ezagutzean. Bertanbera dana itzita, aregana oldatu nintzan, didar bizitan deika:

—Aita... aita...!

Laster egon nintzan aren besoetan, estu-estu besarkatzen ninduala. Gero, aurpegira begiratu neutsan. Matrailletan beera malko lodiak eriozan eta ezpanak dardarikatzen yakozan, itz bat bera be esan eziñik. Bapatean, aurpegia aztertzen neutsala, biotz-gorako

batek astindu ninduan... Urtebetea ez zan etxetik alde egin izan ebala, baiña amar urtez gitxienez aguretuta emoten eban, aurpegi argala zimurtuta, begi neketsuak motelduta, eta ulea urdinduta. Orduan, negar-gurea menperatu eziñik, aurpegia bere kolkoan ezkutatatu neban, negar etsi bateri emoten neutsala. Azkenean, nire burua laztanduz, ozta-ozta esan aal izan eban:

—Yon Ander, nire Yon Ander maitia...!

Eta gero eskua sorbalda-gaiñean jarten eustala, etxerantz abiatu gintzazan. Lats-gaiñeko zubitxua zearkatzean, nire ezin-egona jabetu eziñik, etxera oldartu nintzan:

—Ama, aitita, aita etorri da...! —aldarrikatuz.

Laster azaldu ziran etxeko guztiak, eta pozaren-pozez besarkatu eben. Zorionez negar egiten ebala, amak besarkadarik luzeena emon eutsan. eta aitak oi eban antzera, aren billo gaztaintarak bein eta barriro laztandu eutsazan. Jarraian, danok itz egiten genduala batera, eskaratzeko mai-inguruan jesarri gintzazan, eta noizbait zeozer bareturik, aitak bere gora-beerak azaldu euskuzan.

Prantzia'ko Landes'etan piñu-mozketean jardun izan eban. Lan neketsua benetan, eta ainbatean ordaintzen eutsoen ezkerro, eginkizunari gogor ekiten eutsan. Egunsentian lanari eutsi, eta illuntzean ler eginda arloari itzi oi eutsan. Dana-dala, diruketa polita egin eban, eta guri bialdurikoa kenduta, oraindiño baeukan arean. Gero, pozez gaiñezka bazkari alaitsua izan genduan.

Arratsaldean, guztiz nekatuta oeratu zan, eta illuntzea barik auxe agindu eustan:

—Yon Ander, oa Idurene'ra eta Mikel Jaunari etxean nokala esaiok. Lenengoa jakiñaren gaiñean ipintea berak merezi yok, areri esker emen naiagok-eta. Amaika aalegin bere gain artu yozak erriko beste batzukin ni ona ekartearren. Oa ba, eta emoiok barri ori nire eskumiñekin batera.

Arrapalada baten joan nintzan, eta zorionez, etxean aurkitu neban. Barria entzutean, zeregin guztiak itzita, jagi zan auxe ziraustala:

—Gaiuzan Bordazuri'ra, Yon Ander. Larri nok benetan ire aita ikustearren.

Eta beste barik etxerako bidea artu genduan. Ozta-ozta abiatuta, osagilleak,

—Yon Ander —esan eustan—, ez aut bear enduan baizen pozik ikusten. Zergaitik ete...?

—Kezkatua nozu, Mikel Jauna. Aita guztiz zaarkitua ikusten dot, eta gaiñera aspaldiko bizitasuna galdu egin dau...

Ustekabez, osagillea gelditu zan, eta,

—Ago emen unetxu batez —esan eustan—. Bereala etorriko nok.

Au esanik, biurtu zan. Luzaro barik, eskuan osakai-zorrotxua ekarrela agertu zan, eta beste barik Bordazuri'ra abiatu gintzazan. Bidetik giñoazala, ez genduan berba andirik egin.

Eldutakoan, osagilleak aita biotzez agurtu eban, eta autu laboru bateri emonda gero, atzerrian luzaro izan zala atxakiaz aita ta amarekin geratzen zala, soin-azterketa zeatza egin eutsan.

Noizbait urten egin zan, eta ni bakarrean artuta, etxera lagundu nengion esan eustan. Bidean gora giñoazala, aren bekokiko zimurra len baiño sakonagoa zirudian. Alako baten, isillunea eten egiñez,

—Yon Ander —esan eustan astiro—, aita ez yagok ondo. Biotza geisorik yaukak, eta niri yagokidan aldetik, biziera nasaia eroan yaiala esan bear yauat. Banekikan aspalditik, ire aita biotz-ondoez batek joa zoala, baiña orduan gauza ariña izanik, ez ñeutsakan jaramon andirik egin. Orain yirudikanez, azken aldi oneitan bear baiño gogorrago lanean jardun dok, eta lengo gatx ariña gauza garrantzitsua azaldu dok.

Ona elduta, itxura kezkatuaz isildu zan, eta andik laster,

—Entzuidak ondo, Yon Ander —esan eustan oster—, Aitak ez yok ezelan be lanik egingo, ostantzean bere azkena litzakek. Ez nok azartu ire amari esaten, baiña etxera biurtzean, euk aalik arduratsuen aitaren geisotasunari buruz esango yautsak, baita ez yokala lan txikienik be egin bear izango, ea Bordazuri'ko bakean eta atsedenean bere zerera biurtzen dokan, entzun...?

—Bai, Jauna.

Bere etxera eldu gintzazanean, sarrerazo ninduan, eta txarteltxu baten zeozer idatzita gero, osagai batzuk emon eustazan auxe inostala:

—Oneik emongo dautsazuez, txarteltxu onetan idatzirik yagokan lez. Orain agur, eta ez aztu nik esana.

Eskerrak emon neutsazan, eta Bordazuri'ra biurtu nintzan.

Bidetik ez urrun, Yandur-erreka'ko ur biziak leiar eta bitsezko amesetan urrumatzen ninduen, baiña biotza izotzezko atzaparrakaz zapalduta neukan, eta illuntze aretako edertasunari niretzat eriotzkutsua erion. Aita gure artean noiz ikusiko genduanaren amesa egi biurtua zan, baiña zoriona ozta-ozta txastaturik, amestxar batek ego baltzakaz Bordazuri'ko zerua estaltzen eban.

Gau aretan, besteak lotara joanda, ama ta biok geratu gintzazan bakarrik sutondoan. Oi eban lez, amak etxekoen janziak birjosten ziarduan, eta nik zelan asi ez nekiala, mukurren garrai begiraten neutsen. Noizbait, eta arazoari garrantzirik egozteke, aitaren gatxari buruz osagilleak niri esandakoaren barria emon neutsan, jakiña, geisotasunari ardura andirik emon bage.

Esatekoa amaitu nebanean, amari begiratu neutsan. Malko andi bi eriozan aurpegian beera, eta sutondoko txingarrek dizdir gorritzak jarten eutsiezan, biotz-barrutiko bitxi gorriak bai'litzazan. Jagi nintzan, eta isillean makurturik, adats gaztainkarea laztandu neutsan, eta ezer esateko gauza ez nintzala, nire lo-gelara abiatu nintzan. Zurubian gora niñoala, amak sutondoan zirauan burumakur eta geldi-geldi. Gora eldu nintzanean, negar-zotin batek astindu ninduan, eta besoak oean jarrita, otoi gartsu bateri emon neutsan...

Egunak bajoiazan aurrera, eta Bordazuri'ko lillurapean guztion ardurakaz inguratuta, bazirudian aita zeozer bizkortzen zala. Goizean oean zetzan otordurarte, eta gero arratsaldean loaldi laburra eginda gero, etxaurrean jesarten zan inguruko edertasunari begira, edo-ta amarekin berbetan. Aitaren aurrerapena ikustean, alaitasuna gutzaz jabetu zan ostera.

Udagoia asi zanean, arto ta indiabetan uzta joria artu genduan, eta jarraian Indusi'ko goikaldean iraketeari emon neutsan. Ereti onetan, ira-lorketarako, Txeru, laguntza andikoa azaldu yatan, eta oneri esker, amar eguneko epean iraketea amaitu neban, kortako ate-aurrean ira-meta eder bi jagiten zirala. Gero, gaztaiñ-aroa izanik, oiko batuketeari emon neutsan. Oraingo onetan, barriro Txeru laguntzaille nebala, eginkizuna oso ariña azaldu zan. Betebear onetan gaztaiñadian zear niñoala, ezin nengikean Mimiñe burutik kendu. Emen bertan ezagutu izan neban neskato maitagarria, eta bera gogoratzean, ezin esan alako sentipen bakana nintzaz jabetu zan. Ikastolea itzi nebanetik, oso bakanki ta gaiñera urrundik ikusi izan neban. Nire buruari esaten neutsan, benetan atsegiña izango litzakela bera gaztaiñadian barriro ikustea. Baiña gaztainketea amaitu zan neskatoaren zantzurik ikusteke.

Lan oneik eta oikoak zirala-ta, aspaldi aretan ez neban ereti andirik izan aitarekin jarduteko. Urrilla amaitu zaneko, lanak arinduta, aitari jaramon andi goa emoten asi nintzan oster a be. Egunak igaro-ala, aita aultzen zala oartu nintzan. Neketsuago biurtu izan yakon ibiltea. Eskuak dardarikatzen yakozan, ezpanak ubelduta ebazan, eta begien inguruan betazpi sakonak marrazten yakozan. Suzmo illuna nitzaz jabetu zan, etxekoek alaitasuna galtzen ebela oartu nintzanean batez be. Ama, barruko larritasuna ostentzen saiatzen zan, oiko alaitasuna erakutsi naiez, baiña bakarrean nenkusan bakotxean, lur-jota emoten eban.

Aspaldi aretan gure osagillea ia egunoro etorten yakun, eta etxetik urtetea, gero ta kezkatia go ikusten neban. Izan be, Mikel Jaunak aita benetan maite izaten eban, eta au ez zan arritzekoa, abertzaletasun sakonak biok lotzen ebazan-eta, anaiagoak biurtuz.

Betebearrak arindu egin yatazan ezkerro, ereti ugariagoak neban aitarekin egoteko. Sarri askotan bere ondoan jesarri-erazoten ninduan, autu nasai bateri emoten geutsala.

Ego-aize sorgingarriak Bordazuri'ko txoko maitagarria barriro edertzen eban oi lez asperenka, Yandur-erreka'ko suzmurren artean. Urrezko orbelak aizearen altzoan alderrai joiazan iratxo ñimiñoak bai'litzazan. Areitariko arratsalde baten aitarekin nengoala, auxe esan eustan:



—Begirazak orbelok, Yon Ander. Izadiaren asperen gartsuak dozak neguko lo-aldian ostendu baiño len. Udabarriko eguzki-laztan batek sortuerazo yoazan, eta ames orlegien artean basoari edertasun eta bizitza ekarri yeutsoezakan. Zugaitzak orain bizitzarako jorana galduta, eriotza langoa dokan lo baten murgiltzen dozak, eta ostoak orbel burturik, egoaizearen eresia entzutean, zugaitz itunak izten yoezak, il baiño len aren magal epelean azkenengoa dokan urrezko eresia entzutearren. Gero, lurrari bizigarria ekarteko, jausiko dozak euren apa-laztan biguna emonez.

Urrutira begira isildu zan aita, ezpanetan irribarre bat loretzen yakola. Sarri askotan oi eban antzera, amesetan lez egoan lurretik urruntzen zala ameskerien altzoan. Bere gogoaren edertasuna itzalen artean erraldoiaren antzera jagiten zan. Unetxu batez olan irauin eban, eta,

—Begiraik, Yon Ander —ariari jarraitu eutsan—, neu be orbel baten antzera naiabik, eta bizitzaren zugaitzetik luzaro barik jareituko nok lurrari nire azken apa-laztana emoteko... Baiña orbela ez-lango, niretzat biziera betea Jaunagan asiko dok, betiko iraungo dauan amesezko bizitza betea. Orbelen antzera lurrean amaitzeko ez gozak jaio, ez, betiko biziera yaukala izateko baiño. Seme ori, Jaungoikoaren aztarna yaroakan arima bat emon yakuk, eta onek eriotzaren aurrean, azken ondapenaren gaiñetik garaipena yakarkiguk. Gizakiak ezin yok barruko jorana mundu onetan bete, arimea beste baterako egiña izan dokalako, eta eriotzean askatasun osoan Jaungoikoaren besoetara yoak, barruko egarria asetzeko...

Ona elduta une batez isildu zan, eskua bularrean jarten ebalá. Aurpegian zear miñezko itzal bat edatu yakon, eta andik laster ondoeza joanda, urrean, maitasun-itxuraz begiratu eustan.

—Ez galdu, seme —jarraitu eban—, Jaungoikoagan ipiñita yokan siñismena. Eta egunen baten galduko ba'endu, oa bitxi orren billa, eta eskatu egiok Jaunari barrero emon deian, ostantzean, orbel orrein antzera bizitzan zear itxaropena galduta norabarik joango az, eriotzean dana amaitzen dokala, eta gizasemea garaitua dokanaren sentipen larriaz. Jarraitu egiok bide zuzenari garratza izanik be, eta aalik maiteen erabilli egik lagun-urkoa... Bein baten neronek lagun-urkoaganako maitasuna galdu naiuan... oroitzen al-az, Yon Ander?, eta orain damu yoat... Askotan egindakoaren barkapena

eskatu yautsat Jaungoikoari, eta zerbaitek yiñostak onezkero lortu yoadala...

Une labur batez isildu zan aspaldiko oroitzak buruan erabillezala, urrean, eta gero,

—Ire barrukoari jarraitu egiok beti —abots neketsuz esan eustan—, dei ori Jaungoikoagandik yatokalako. Ez itzi eguneroko otoi-tzari, arimearen janaria dok-eta, ire egarria arinduko yaukan iñon-tza, zuzen ibilteko bear yokan indarra...

Illuntzeko itzalak aitaren aurpegi zimelean zear edatzen ziran. Baiña alan eta guzti be, aren mosuak oi-ez-lako bake andia erakusan.

Negar-zotin etsiaren antzera, barrutik ito-larri andia samaraiño igon yatan, eta malkoak ezkutatzearren, egiteko baten atxakiaz kortara joan, eta an negar isillari emon neutsan.

Agiri zan aitaren osasun-beerakadea, eta bazirudian odeitzar baltzak Bordazuri'ko ortzian kokatu izan zirala. Ama zan atsekabetuena, eta ezbearraren urreratze bildurgarria uxatzearen, edo-ta aitaren azken egunak maitasunaren-maitasunez arintzearen, noskiago, onen geriza biurtu zan bere ardurakaz etenbarik inguratzen ebalá. Ez eban aikarik botaten, noizean bein soillik, aurpegian beera malko baten aztarna isilla ikusten yakon, aurpegi ederrean dizdir baten ildoá itzirik.

Udazkena aurrera joian, eta eguraldi ona zanean, aulki baten jesarrita, aítak zabalduko edertasuna begiztatzen eban, Naparra'ko txoko aren edertasuna gogoan zear isurtzen yakola. Bein baten, eguzkia Idurene alderantz makurtzen zala, kortatik urtetean, dei egin eta bere ondoan jesarrierazo ninduan, iñostala:

—Yon Ander, nire seme maite ori, ur yabilkat eriotza, eta beronen oiñotsak gero ta bertago yantzuadaz. Ni joanda, eu izango az Bordazuri'ko nagusia. Bayakiat oso gaztea azana oraindiño, baiña ziur nok eginbear ori ondo beteko yokala, etxeok maite-maite yozak-eta, baita txoko zoragarri au be. Asiera baten, aítita ugazabatzat izendatzea otu yatakan, baiña zaarra ta makala aurkitzen dok etxe onen lor astuna eroateko. Beragan jakintza ta zuurtasunaren iturria idoroko yok beti. Bera baiño onulari obarik ezin yaíkek aurkitu, eta gaiñera betseiñak baiño areago maite au. Esanekoa izan akio beti...

Ona elduta, arnasa artzearren isildu zan, eta baretu zanean, autuari ekin eutsan barriro.

—Lan izugarria leporatuko yok, baiña orrek gizonago biurtuko au. Bordazuri etxaguntza urria dok, baiña diruari ondo begirutzen ba'yautsak, eta bear-bearrezkoa soillik erosten ba'yok, aurrera urten-go zarie, baiña amari ez egiok ezer ukatu: aukera guztiakaz inguratu egik, aalik eta zorionsuen bizi izan yaiten. Arreba on-onak yozak, eta nik uste, ez yaue buruauste andirik ekarriko, baiña begira yagokien ezkuntza ona artu yaien, benetako neskatillak eta edozertarako gai azaldu yaitezen, etxetik alde egiteko garaia etorri yakienean batez be.

Arnas-bearrak jota isildu zan, malko lodi bi aurpegian beera irristatzen yakozala. Berba egiteko ezinduta, berak iñostana bizi-bizi gogoan gordeten neban. Aitaren begiak Anux-ate'n kokatu ziran. Eguzkiaren azkenengo printzek, letagin erraldoiaren antzera jagiten zan Anux-adar zorrotza musukatzen eben, eta andik erion gure latsaren suzmurak arrastiko bakean urrumatzen ginduezala,

—Aiko, Yon Ander —aitak barriro—, Bordazuri etxaguntza landerra dok, baiña... begiraik seme, egunen baten indarretan gai sentitzen ba'az, an goian, Anux-ate'n, urak batzeko naza andia egingo yok, eta gero, Muñagorri'ko egitik erreten edo ur-bide bat egiñez, andik beekalderaiño errota bat erabilteko lain, ur-jauste egokia jaritsiko yok. Au ez artu agindutzat, baiña nire ustez etxeari obari ona ekarriko lleuskiok, eta orduan biziera nasaiagoa izango zendukie... Baiña aitu ondo: lan orreri eutsi nai izatekotan, ez yok asiko amazapi urteak bete arte, lan izugarria izango dok-eta, entzun?

—Bai, aita.

Ostera be isildu zan Anux-ate'rantz begiratzten ebalá, eta gero asperen bat iges egiten yakola,

—Beste gauza bat, seme —jarraitu eban—... gomutan izango yozak, urrean, Indabaita'koak, alarguna ta beronen alabatxua... Ara ba, neuk aurkitu yautseat orain bizi diran etxea, eta ordutik diruz lagundu bizitzari aurre egiteko... Augaitik ezin izan yoat oraintsu arte gure zorra garbitu. Igandik gauza bat gura yoat... itz emon egidak aalegin guztiakaz saiatuko azala Indabaita'koai laguntza emoteko, eta orretarako etxeko lenengo bearrizanak beteta, enparauko

dirua On Markel'eri eroango yautsak, alargunari emon yaitsan, orretarako bera beti izan dok bitartekoa-ta...

—Baiña zergaitik, aita?

Zirrara batek menperatu ninduan. Oartzen nintzan, aitag bein edo bein ozta-ozta itarauntzuniko ezkutua, jakiteko zorian nintzala. Aitaren aurpegian oiñazezko keiñu bat agertu zan, eta isillune baten ostean, adi-adi begizatzen ninduala,

—Yon Ander —esan eustan astiro—, bein baten esan naiuan Indabaita'koa zelan alargundu zoan; onen senarrak Erramun arlote mozkortia eriotzetik ataratearren, bere bizitza zelan galdu yeuan. Ara ba... dalako Erramun ori nire anaia zoan....

Au esanik, aitag aurpegia eskuen artean estaldu eban. Andik laster,

—Itz emon egistak lagunduko yautsekala, seme —arrendu eustan.

—Bai, aita, bene-benetan zin dagitsut.

Aitag billoak laztandu eustazan, eta otz-ikara batek menperatuta, auxe esan eustan:

—Otz nok, gaiuazan barrura.

Arrezkero, aita ez zan jagi oetik. Gero ta txartoago sentitzen zan, eta etxe guztia isiltasunaz jabetuta egoan. Amarentzat batez be, larrialdi izugarria izan zan. Nire gurasoen gelea oe bikoa zan. Egunez, aitaren ondoan, amak benetako samurtasunaz aalik ondoen jagoten eban, aren larrialdiak arintzearren. Gabaz, beilan egoan aitaren lo artega zaintzeko. Berak be oiñaze ta nekearen aztarnak aurpegian zear agiri ebazan. Eta olan, jarraigo izugarriean egunek zirauen.

Sarri askotan aitaren ondoan jesarten nintzan, ni bere alboan eukiteak poztuten ebalako. Erasoak zeozer baretzen yakozanean, eskuak estutzen eustazan, eta nik irribarreka erantzuten neutsan, berak aginduriko guztia beteko neukela adierazoz.

Goizalde baten, amaren dei bat aditu zan, eta arrapalada baten jantzita, arein gelara oldartu nintzan. Aita aozgora zetzan, eta ikusi baiño ez, illik egoala ezagutu neban. Amak oe-ondoan belaunika,

negar etsiari emoten eutsan. Gero, aitita, Iñese ta Matxalen bildu yakuzan. Danok nik bestalde, negar mingotsari ekiten eutsoen. Ezin nengikean negarrik egin; korapillo batek samea zapaltzen eustan, eta ezin esan alako larritasunpean batetik bestera nenbillen. Gero, aitaren alde agurtza bat esan genduan.

Goiz-erdian errira joan nintzan, On Markel eta ezagunai aitaren eriotzaren barria jakin-erazoteko. Yandur-zubia zearkatuta gero, etxera biurtzen nintzala, Yandur-arana'n zear eleizako joaleek illotsa barreiatzen eben.

Arratsalde aretan, Bordazuri, samin-agurra emoteko etorri izan zan jendetzaz bete zan. Lelo bardiña erabiltzan ainbeste gizakien artean egotea nekagarria yatan ezker, abelgorria zaintzeko atxakiaz, or-emenka ikerleakandik aalik urrunen nenbillen. Alako baten, Apala'ren askan bedarra ipinten nebala, baten batek besoa estutu eustan. Biurtu nintzan, eta negarrari eutsi ezin egikean Pirmin ikusi neban. Besarkatu ninduan auxe ziraustala:

—Yon Ander, neuk be maite izan yoat ire aita...!

Nirekin gaberarte egon zan, eta berari esker, barruan nerabilen oiñaze larria zeozer arindu yatan.

Urrango egunean, Baztan'go senitartekoak etorri yakuzan etxera. Iru osaba ta izeko bi ziran. Nik lenengoz ikusten nebazan, eta oso begikoak azaldu yatazan. Arratsaldeko lauretan illetak ospatu ziran. Ereti oneitan jazo oi zan lez, joaleen illotsaren pean oste andi-andia etorri zan. Aurreko eskumako aulkian aitarekin nengoan, osabak alboan nebazala, baita nik eskaturiko Pirmin be. Ezkerreko lenengo aulkian, ama, arrebak eta izekoak egozan.

Eleizkizun aretan, aitaren irudia ta ekintzak gogora ekarri nebazan, bere alde otoi egiten nebala. Amaren naigabea arindu ekion Jaunari eskatu neutsan. Nire ondoan egoan Pirmin'ek negar etsi bateri emoten eutsan, eta benetan biotz-barrutik bere zintzotasunagaitik eskertu neutsan.

Mezea amaituta, Yandur-erreka'tik ur, muru baten gaiñean jagiten dan obitegira joan gintzazan, eta an soka bikaz aitaren gorpua obian jarri eben. Zerraldo-gaiñean lurra botaten asi ziranean, iñoiz ez ezagaturiko atsekabeaz Pirmin'ekin urten, eta nire laguna lanera joan bear ebala-ta, bakarrik geratu nintzan.

Gero egin nebanatzaz ez naz ondo gomutatzen, baiña iñorekin egon gura ez neban ezker, illunabarrean, noizbait, Indusi'ko gaztariñadian aurkitu nintzan. Gaztariñondo baten oiñean jesarri nintzan, eta orduan uxatu ezin nengikean malkoak parrastaka etorri yatazan, eta negar mingotsari emon neutsan. Lurrean kukurio jarrita, malkoak uriolka isuri yatazan.

Ez dakit zein luzaro iraun neban negarrez. Zeozer baretu nintzanean, gau betea zan yadanik, eta malkoak txukatuta, etxera abiatu nintzan; ez neban ezelan be gura izaten, amak egoera aretan ikusi izatea. Atsekabearen aurrean sendo agertzeak, urrean, bere naigabea zelanbait arinduko leuskio-ta.

Bidetik niñoala, oinpeko orbelek karrask egiten eben, eta aitaren itzok burura etorri yatazan: “Begira, Yon Ander, neu be orbel baten antzera biurtzen ari nok...”. Aitaren soiña orbel biurtu izan zan, baiña aren arimea Jaungoikoaren besoetan egoan, eta andik jagole izango neuke.

Oldozkun oneitan nenbillela, sirimiri lodi batek artu ninduan, eta etxera eldu nintzaneke, zearo bustita aurkitzen nintzan. Eskaratzera sartzean, sutondoan jesarrita ama ikusi neban. Etxeko beste guztiak oera joan izan ziran ler eginda. Utsari so egiñez geldi-geldi egoan, eta begi gorrituetan ez eban malkoren aztarnik... Bere oiñazea negarraren muga baiño arantzagokoa zan, gaixoa...! Urreratu nintzakion, eta,

—Yon Ander —esan eustan—, nondik ibilli az, laztan ori...?

—Ortik, ama...

Apa-laztandu ninduan, eta gero burua makurtuta lengo igigetasunean murgildu zan ostera. Orduantxe, aita egin oi eutsan antzera, billoak laztandu neutsazan, auxe nirautsala:

—Ama, joan zaitetz oera, 1er eginda zagoz-eta...

—Bai, seme, baiña lenago legortu adi sutondoan.

Gero, gelara lagundu neutsan, aurrerantzean bakarrik lo egingo eban gela zabal utsera...

Gau aretan loa igesi yabildan, eta gauza bat argi-argi aurkezten yatan: neugan umetaroa illa zan betiko. Urrengo egunetik nire jokabidea gizon batenari egokitu bear izango neuskio. Aitak etxeko nagusitzat izendatu izan ninduan, eta aren uste on eta itxaropenari, ez neuskie ezelan be utsik egingo.

## BITARTEAN

Aita il zanean, amalau urte ozta-ozta bete izan nebazan, beraz, iru urtez itxaron bear izango neuke, berak esondatutako errotearen eraikintza asi arte. Baiña bitartean bizi egin bear...

Etxera biurtu zanean, aitak gure zorra garbitu izan eban, baiña au zala-ta, diru guztia urtu izan zan. Bizi aal izateko, beraz, bearezkoa zana Bordazuri'tik atarateko zan.

Zorionez, Txeru'ren laguntzari esker, alorrak anditu izan genduzan, eta onen ondorioz, negua etorri aurretik arto ta indiabetan etxerako baiño geiago batu genduan, eta au zala-ta, enparaua saltzea erabagi zan. Arazoari begiratuta gero, gai orreik gaztaiñekin batera Aranegi'n saltzea biderik onena izango litzakela, izan zan etxeko aburua.

Urteko larunbat guztietan, entzute andiko azoka egiten zan gure araneke erri-buruan. Leku askotako erosleak etorri oi ziran, baita batzutan Iruña berberatik be.

Olan ba, egun baten aitita ta biok Aranegi'ko udaletxera joan gintzazan, eta ango idazkariari azokan saltzeko baimen-agiria eskatu, gure osagillaren idazki bat eskuratu geutsala. Andik laster, agiria lortu genduan. Astirik galtzeke, aitita ta biok bete bear ziran arauai jarraituz, olezko txabola bat eraiki genduan azoka ospatzen zan lekuan, au da, Yandur-erreka'ko ertzean edatzen zan larra ederrean.

Gabon-aurretik asi nintzan. Larunbatetan goizetik, aurreko arratsaldean atonduriko salgaiak Txeru'ren gaiñean jarri, eta tiki-taka

azokara. Lenengotan ez nekian, neroiazan indiabak, arto ta gaztai-  
ñak zenbatean saldu, baiña egunen bidean artaratu nintzan, eta  
luzaro barik arazoa menperatu neban. Gai guztiak saldu arte ez  
nintzan biurtzen etxera, baiña geienetan, arratsaldeko lenengo zatian,  
Txeru'k eta biok Bordazuri'rako bidea pozez eta utsik artzen genduan.

Bein baten, emakume mardo batek indiabak erosita gero,

—Aizu mutil —itaundu eustan—, ez al-dozu arrautzarik saltzen?

—Ez, Andrea, badaukaguz areitan, baiña asto baten lepoan  
ekarteko zailla da.

—Ba, egunen baten salduko ba'zenduz, neronek erosiko  
neuskizuz.

Gero azaldu eustanez, Iruña'n andika saltzen ebazan, baiña  
baserrikoak izatekotan, au da, oskol gorridunak eta errun-barriak.

Etxera biurtu nintzanean, jazorikoa aititari esanda gero, ara-  
zoari merezitako ardurea emon geutsan. Izan be, etxean ez gene-  
kian oilloek errundako arrautzakaz zer egin, guretzat larregi ziran-  
eta. Ogei oilloz gaiñera, ogei ta amar oillanda geunkazan, eta  
onein erruntaldia asita gero, ezinbestez oilloak saltzea asmatzen  
genduan. Zalantzarik bage, arrautz-azkuntzeari emotea zuurrena  
litzake, baiña azokara eroaterik ez...

Gai oneri ekiten neutsan bein baten, burutapen bat etorri  
yatan, eta,

—Aizu, aitita —esan neutsan—, ez ete da iñon izango, esku-  
gaiñean erosteko gurditxuren bat?

—Balleitekek... Len, Aranegi'ko korta zaar baten guztitariko  
gurdiak saldu oi zoazan. Orain, baiña, ez yakiat...

Adorez jabeturik, aitita nire eritxira ekarri neban, eta urrengo  
goizean Aranegi'ra abiatu gintzazan. Bidean beera giñoazala, gure  
autua erosteko zan gurdiari buruz izan zan. Asto baten anditasuna-  
ri egokitzeo lakoia izango zan, eta gaiñera txirrindolak gomazkoak  
izan bearko litzakez, gurdiaren bilin-bolakaz arrautzak apurtu ez  
zeitezan. Era onetan giarduala, eldu gintzazan.

Aititak laster idoro eban korta zaarra, eta sartzean guztitariko  
zalpurdiak agertu yakuzan. Aldi aretan, zalpurdi asko berebillaz

ordezten zan, eta gurdi zaarrak erosteko aukera ugari aurkezten  
zan. Ango ugazabari gure etortearen zergaitia azaldu geutsan, eta  
arek, an egozan gurdiak aztertu gengiazala esan euskun. An egoza-  
nak, zaldiai buztartekoak ziran, baiña guk besterik bear genduan.  
Gora ta beera arakatu ondoren, zurubi baten pean, noizbait, bear  
izanikoa agertu yakun. urteak izango ziran gurditxu a txoko illun  
aretan egoala, urrean. Sitsak jandako zuredi guztia zatika jausten  
yakon; gomazko txirrindolak ustuta egozan, eta burdiñeria guztiz  
ugertuta.

Aititak ezagulari baten begiakaz patxada osoan aztertu eban  
utzikin a, eta gero, merke izatekotan erosiko gendukela esan eustan  
abopean. Ugazabagana joanda, bere biziko tratua gangaillenez egi-  
ten asi zan, oi eban antzera. Noizbait, gure poz andirako, iru ta  
erdi ogerlekotan jaritsi genduan.

Biaramonean Txeru eroanda, gurdi baten txorimaloa zirudia-  
nari buztartu geutsan. Jarraian, tresnategi baten aize-puzgaillu bat  
erosita, txirrindolak puztu genduzan. Andik igaroten ziran guztiek,  
gurdiaren itxuragaitik irribarreka begiratzen euskuen. Gero, erriko  
zerrategi baten, aititak ol batzuk erosi ondoren, etxera biurtu gintzazan.

Astirik galtzeke, lanari buru-belarri emon geutsan, eta urrengo  
egunean, aititak zuredi bikaiña atondu eban. Bitartean, nik ugerra  
kendu, eta ardatza koipetu neban. Azkenez, margo orlegizko eskual-  
di bi emonda, gure zaarbarritutako gurdia, nire ustez beintzat,  
Yandur-arana'ko gurdirik politena azaldu zan.

Urrengo larunbatean, Txeru, gurdia ta irurok, Aranegi'ko bide-  
tik giñoazan. Agiri zan, Txeru'ri askozaz atsegiñagoa azaltzen yako-  
la zamaturiko gurdia eroatea, gaiak bere lepo-gaiñean baiño. Zaran  
batzutan amabost amabiko arrautz, oiko salgaiaz gaiñera geroiazan.  
Astoaren ondoan oiñez niñoan, eta nabari zan Txeru poz-pozik  
joiala, eskuaz burua laztantzen neutsanean, aren irribarre bereziaz  
erantzuten eustala iruditzen yatan-eta.

Noizbait, Rolls-Royce jabetzen dauan aberats milloiduna bai-  
ño arroago, agertu gintzazan azokan.

Gurdia ustuta, Txeru askatu neban, eta oi eban lez, or-emenka  
asi zan bedarrari astiro ekiten eutsala, nik salgaiak txabolan egoki-  
tzen nebazan bitartean. Eguberdi inguruan, Iruña'ko arrauzlariña

ikusi neban, eta aregana joanda, Bordazuri'ko arrautzak eskiñi neutsazan. Amele eritxan emakume arek, aztertu ebazan, eta ontzat emonda,

—Zenbatean salduko zeuskit amabikoa? —itaundu eustan.

Nik, ez nekiala, eta berak jarri egiala salneurria. Orduan irribarreka, auxe esan eustan:

—Begira, mutil, dabizan prezioan erosiko dautsudaz beti. Nirekin bat al-zatoz?

—Bai, Andrea.

—Oneik errun-barriak azaltzen ba'dira, azokara ekarri dagizuzan arrautz guztiak erosiko dautsudaz, jakiña, len esanda lez, sasoiari dagokion prezioan.

—Bai, Andrea.

Arrautzak ordainduu eustazanean, abo zabalik geratu nintzan, diruketa itzela iruditu yatan-eta. Arratsaldean, gurdian jesarrira etxera biurtzen nintzala, munduko gurdi-gidaririk zorionsuena sentitzen nintzan, baita Txeru astorik alaiena be, esango neuke, Yandurarana'n zear bere tiki-taka dantzaritsuaz nindaroala.

Amele, Iruña'ko arrauzlariña, aldiaren bidean nire bezerorik zintzoena biurtu zan. Aren aburuz, Bordazuri'ko arrautzak lakorik ez egozan Naparra guztian, eta abo-sabairako benetako atsegiña ziran. Izan be, gaitasun au ez zan arritzekoa. Non aurkitu gure txokoa baiño leku paketsuago ta arto gozoagorik?

Orduko, aateak ugaldtu izan ziran, eta arrautz asko egiten eben. Au dala-ta, Aranegi'ko gozotegian saltzea otu yatan, gozopilletarako-ta aateen arrautzak ederretsiak ziralako. Augaitik, Aranegi'ko gozotegia jabetzen eban okiñagana joan nintzan, eta aate-arrautzak eskiñi neutsazan. Onen emazteak laster ezagutu ninduan, beronek urte batzuk lenago, gabonetan, Pirmiñ'ek eta biok egindako lanaren ordaiñez aate bi bana emon euskuzan-eta. Pozik erosiko leukezala aate-arrautzak esan eustan, eta olan ba, bidebatez, azokarako bidean aate-arrautzak okitegian izten nebazan.

Etxekoek etorkia itxaropentsuago ikusten asi gintzazan, eta Bordazuri'n aitaren eriotz-itzalak astiro-astiro argiagotzen ziran. Ez

yat iñoiz aztuko, ama irribarreka ikusi nebanean, eta biotzean oartu neban zarrastadea “Uso zuria nora oa..” abesten entzun neutsanean. Eskerronez, otoi isilla sortu yatan, bizitzari aurre egiteko indar barria oartzen nebala.

Aita zanaren aginduari jarraituz, aal neban aukerarik andienaz inguratzen neban, eta niretzat naikoa ordaintza zan bera gero ta alaiago ikustea. Iñese Aranegi'ra joian joslariñe bategana, egun baten bear izango leuken jarduna ondo ikasteko. Matxalen'ek ikastolara joateari erraikion, amabi urte baiño ez zituan-eta. Aitita iñurri antzera an-emenka ebilkigun, arazo guztietan laguntzen eustala, baiña beragan geien billatzen nebana, aren burubidea zan, bizi-ikaspen sakon batetik erion jakintza errikoi ta tolesbakoa.

Olan ba, etxerako bearrezkoa zan baiño areago irabazten genduan ezkerro, Aranegi'ko Aurrezki Kutxan, aititaren izenean, eta beronen izenpetzeaz, kontu agiri bat zabaldu genduan. Gure aurrezkiak gora joiazan giñoan, poztasun neurribakoa nitzaz jabetzen zan. Egiteko zan erroteak diruketa andia iruntsiko leuke, eta augaitik zeken baten diru-goseaz, metatzen ziran aurrezkiak gogoan laztantzen nebazan.

Gure arana udabarriko lilluraz jazten zan barriro, eta alorren ereintzari buru-belarri emon neutsan. Gau baten, ustekabez, Mimiñe agertu yatan amesetan, eta orduan zirrara batek menperatuta, oean jesarrira iratzarri nintzan. Larritasun itzelak kezkatzen ninduan aitaren agindua etorri yatanean... “Itz emon egistak lagunduko yautsekala, seme”. Eta neuk zital alenak, diru-zalekeri itsuan, Indabaita'koen bearrizana aztu izan neban...! Lo egin eziñik, gauenparaua larritasunaren menpe oean iraulkatu nintzan arrenkurak erasota.

Urrengo goizean jagi baiño ez, aititari joan nintzakion, eta dana autortu neutsan. Berak ezkutuari buruz ez ekin ezer, eta neuk uste izandako beste dirua, eroan nenguela esanda gero, diru-agiri bat izenpetu eustan. Astirik galtzeke, Aranegi'ra joan eta dirutan aldatuta, Arandibar'ko bidea artu neban On Markel'eri emoteko asmotan. Diruketa polita zan, eta Indabaita'koek artuko leukien pozagaitik, lengo arrenkurak atsegiñari bide egiten eustan.

On Markel eleizatik etorri-barria zan, eta gosaltzen ziarduan. Nire poza jabetu eziñik, dirua mai-gaiñean ipiñita, auxe esan neutsan:

—Diru au, Indabaita'koentzat. Badakizu, aita zanaren agindua dot ori... Zeozer berandu bada be...

On Markel'ek itxura bakanaz begizatzen ninduan, eta,

—Baiña ez al-dakizu...? —esan eustan.

Nik ez nekian ezer, baiña aren itzak entzutean, itzal batek biotza estutu eustan... eta tartailloka auxe jaurti aal izan neutsan:

—Jakin, zer, baiña...?

—Indabaita'koek orain amabost egun erria itzi dabe... Azken aldiotan oso larri bizi izan dira. Donostia'n saltoki bat dauan alargunaren aizta batek, ara dei egin dautso, denda erabilteko laguntza bear dau-ta.

Aldi-gaizto batek menperatu ninduan, eta belaunak dardarika-tzen yatazala, ez jaustearren aulki baten jesarri bear izan neban, zoribako ta erruduna sentitzen nintzala. Orduan, urrundik bai'litzan, gure abadearen itzok eldu yatazan:

—Zer dala-ta, Yon Ander? Aurpegia zurbildu yatzu, ez ete zara sentitzen ondo?

Orduan, larritasunaz dardar, ozta-ozta auxe esan nengikion:

—Nire errua da, nire errua da...!

Eta gero eratsi neban:

—Il baiño len, aitak lagundu nengielá agindu eustan, eta neuk zital onek, diru zalekeri utsaz, aztu egin dodaz...

On Markel urreratu yatan, eta burua laztantzen eustala,

—Ez larritu, Yon Ander —esan eustan—, danok ondo dakigu etxeakoak onik atarateko zelan aalegindu zaran. Zeuk egiña, Arandibar'ko eredu ta jarraibidea da. Ez larritu, mutilla, gaiñera orain Indabaita'koak Donostia'n naikoa ondo bizi izango dira, alargunaren aiztea diruari dagokion aldetik, ondo dagoala entzun dot-eta. Areikiko, beraz, ez zagoz beartuta.

Baiña barrutik ar bat yabildan, eta On Markel'en itzek ez ninduen baretzen. Noizbait, Abadene'tik urten baiño len,

—Arren, On Markel —eskatu neutsan—, arein bizilekua jakin baiño ez, esango daustazu, ezta?

—Itz damotsut, Yon Ander. Orain joan zaitetz Jaunaren bakean.

Etxera biurtzen nintzala, ezin nengikean barruko naigabea kendu, eta Bordazuri'ra eldu baiño len, bide-ertzean jesarrita, aitari erregutu neutsan barkatu egidala...

Arrezkero, ezin nengikeazan Indabaita'koak burutik kendu, eta etenbarik arein barrien zain bizi nintzan, baiña bazirudian Donostia'k iruntsi izan ebazala, arein barririk iñork ez ekian-eta. Egunen bidean barruko arrenkurak zeozer arindu yatazan, baiña ezin nebazan gogotik kendu aal. Barru-barrutik sentipen bakan batek, aitak barkatu izan eustala iñostan, baiña sarri askotan nire buruari itauntzen neutsan, zelan bizi izango litzakez gaixo areik.

Aldiaren urratsak aurrera joiazan, Bordazuri gero ta maiteago nebala, oiko lanai lotuta. Noizean bein Anux-ate'rantz begiratzen neban, eta irrika biziá aitak aginduriko errotea gogoan eraikiten neban. Dirua etenbage metatzen zan, eta lengo ondasun-zaletasuna ez baneban be, barruko poz batek, gordetako diru arek egunen baten Bordazuri'ko errotea eraikiteko izango zala, esaten eustan. Eta olan adore barriaz lanari emoten neutsan; aldi aretako zoriona, baiña, ez zan osoa, Indabaita'koak gogotik kendu ezin nebazalako... Zeozer arein alde egin aal izan ba'neu...! Baiña egunek alkarri erraikioen, eta areikandik ez nekian ezer.

Bitartean, amazapi urte noiz beteko neukezan egunaren begira nengoan...

## URIOLA

Udagoi sorgingarriak gure txokoa edertzen eban barrero urrezko laztanakaz. Urrilla eldu zan, eta onekin batera nire amazapigarraren jaioteguna...

Igandea zan, eta bazkalostean aitita ta biok bidean gora abiatu gintzazan. Bordazuri'tik Anux-ateraiño zidor estua joian, eta arratsalde aretan, nire ibillera aititarenari egokituz, atzetik Txuri gure txakurra erraikigula, adorez eta zirrara bakan bataz jabetuta, mendigora niñoan.

Aititarekin sarri askotan erabilli izan neban errotearen arazoa, eta aren eritxia olezko naza egitea zan, legortean bear izango genduken urketea batzeko. Gure latsa, Andutze'ko mendietan jaiorik, Anux-ate'n beera amiltzen zan, eta gero Bordazuri ondotik igarota, Yandur-erreka'n amaitzen zan. Anux-ate, larogei bat metro jagiten zan gure etxe-gaiñetik, goibe oso egokia errotea erabilteko, beraz. Uda ta udazkenean, baiña, latsaren urak gienetan oso urri izanik, ur-biltegi andi samar bear izaten genduan, urteko sasoi guztietan eio aal izateko.

Aititaren burubidea zuurra zan; olezko naza bat merke samar izateaz gaiñera, bera zur-lanetan benetako antzelaria genduan. Napparra'ko Auñamendi'n enborrak mendian beera eroatearren, oneitariko nazak erabilten ziran. Era onetan egiñiko ur-biltegiatan pago ta areitz-enborrak metaten ziran, eta udazken-neguko uriolak etorrita, ur-ateak edegiten ziran, eta orduan ur orrularietan ugerika, enborrak ibarrean beera tximista lakoak batze-lekuetaraiño amiltzen ziran.



Anux-ate'ra eldu gintzazanean, eta ateseden-aldi laburra izanda gero, aititak lekua aztertu eban. Anux-ate U antzeko mendatea zan, eta eskumaldean letagin zorrotzaren itxuraz, Anux-adar eritxan atx-adarra jagiten zan. Tokia guztiz arritsua zan, eta benetan, adar erraldoi aren ondoan ipotx ezaiña lez sentitzen nintzan. Leku basati aren anditasuna begizatzen niarduala, aititaren itzok aditu nebazan:

—Au bai leku arritsua! Lerrenak egin bear izango yoaguz nazarako zutoiñak sartzeko, baiña beste aldetik begiratuta, onuragarria izango dok, zutoiñak ondo bai ondo tinkatuta geratuko dozak-eta.

Jarraian, lekua neurtzen asi zan, txarteltxu baten zenbaki batzuk idazten ebazala. Bitartean, leku aren edertasuna begizatzen neban. Andutze'ko mendiak edo muruak obeto esateko, obo erdia eratzen eben, eta sakana onetako urek, Bordazuri'tik igaroten zan latsa sortzen eben. Ibar au guztiz arritsua izanik, latsak gora-beera andiak izaten ebazan, eta udagoian ari oso mee biurtzen zan. Au zala-ta, ur-biltegia bearrezkoa zan, udean eta udazkenean eioketea egin aal izateko. Nire oldozkunotan murgilduta nengoala,

—Begiraik, Yon Ander —aititak esan eustan—, mendateko ezker-aldea ta Anux-adar arteko unea amar metrokoa dok. Alde bietan zutoin sendo bana sarturik, baita beste bat erdian, eusgarri sendoak izango yoaguz bost metroko ol lodiak zutoiñetan josteko. Entzun ondo, baiña, bearrezko iru zuloak, arri bizan metro bateko sakontasuna lortu bear izango yoek tinko geratu yaitezen, eta au lan izugarria azalduko dok. Illabeteak bear izango yozak latsun-arrian iru zuloak tarteka egiteko, etxeko arazoak oi lez atondu bear izango yozak-eta. Ik lan aspergarri ori egin bitartean, areitzezko zutoin eta olak atonduko yoadaz, eta nire ustez, datorren udako azkenerantz nazea egiña izango dok. Beraz, lan au ez estuan artu, nasai-nasai baiño, etxeko egitekoak beiñenak dozak-eta...

Aititaren burubidea zentzuz betea zan, eta nire buruari zin egin neutsan, aren esanari jarraituko neuskiola. Zorionez, negua laster etorri yakun, eta etxeko eginkizunak arinduta, Gabonillan zutoiñen zulo-egiteari emon neutsan.

Lan itzela azaldu zan. Eguraldi txarra ez izanik, bazkalostean, bearrezko lanabesak neroiazala, aititak arri-gaiñean marrazturiko

laukien sakontzeari emoten neutsan. Arazo neketsua benetan, maillukadek sorturiko arri-zatitxuek begiak zauritzen eustezan-eta. Oker au, baiña, uxatu aal izan neban, noizbait, aititaren betaurreko zaarrak erabilliz, baiña olan eta guzti be, zeregin aspergarria azaldu yatan.

Asikerean, zizel eta maillua nerabillezan, baiña zuloa sakonduala, burdiñaga astunak erabilli bear izan nebazan. Eskuakaz goratu, eta zulora jaurtiten neban, arri-zati txiki batzuk erauzteko ozta-ozta. Lenengo egunetan ekintza onek eskuak narrutu eustazan odola eridala. Augaitik, egun batzuen atsedenaldua artu bear izan neban. Eskuak osatu yatazanean, lanari barriro, baiña oraingo onetan, amak egiñiko esku-zorroak nerabillezan. Noizean bein, lanari eten bear, esku-utsik zuloko arri-zatitxuak eta autsa atarateko.

Anux-atetik etxerakoa egiten nebanean, sarri askotan nire buruari esaten neutsan ez neuskiola olako lan aspergarriari ekingo barriro, aita zanaren agindu zorrotza ez zalako, geienez onu bat soillik. Baiña urrengo egunean, aurrera jarraitzeko irrika biziak menperatzen ninduan, eta ostera be, Anux-ate'ko naza-atontzeari ekiten neutsan.

Udabarria asi zanean, lenengo zuloa amaitu neban, eta jarraian, bigarrenari ekin neutsan. Noizbait, Kepan Deunaren, gure erriko zaindariaren aurrugunean, irugarren eta azkenengo zuloa amaitzen neban. Orduko, aititak iru zutoin eta egokiezan zear-olak gerturik ebazan, eta Garagarrillan, gaiok Txeru'ren txalma-gaiñean jarrita, Anux-ate'ra eroan genduzan.

Zutoin bakotxa bere zuloan sartuta, espaloiaz inguratu genduan. Irurak era onetan tinkotuta gero, espaloia legortu zeiten aste bateko epea artu genduan, eta jarraian, olak zearretara zutoiñetan untzatu genduzan. Eginkizun au amaitu zanean, goibea iru metro ta erdikoa zan. Orduan, aldeko zutoin bakotxak alboko atxaz erutzen eban utsunea, arriz eta espaloiaz bete genduan. Gero, olen arteko bitartekoak eta olak eurak galipotaz igurtzita, nazaren erai-kuntza amaitutzat emon genduan. Beeko olen azpitik, zulo bat itzi genduan latsaren urak igaro zeitezan. Azken ekitaldia, Bordazuri'tik irurogei bat metroko bitartera errotea eraikitea izango zan, eta bein amaituta, bearrezko odia jarriko genduke, urek errotea erabilli egien. Anux-ate'tik errotaraiñoko goibea larogei metrokoa izango

zan, beraz, naikoa ta geiago be, errotea erabilteko.

Baiña enparauko lana egiteko, diru asko bearrezkoa zan; estalpea, turtukoia ta odiak erosteko dirurik ez. Lanari itziko geuskio, beraz, bearrezko dirua lortu arte. Bitartean, euritea etorri zeitenean, nazaren ontasuna agirian jarriko litzake.

Au zala-ta, oiko egitekoai jarraitu neutsen, au da, larunbatetan Aranegi'ko azokara niñoala ortuari edo barazkiak, arto ta arrautzak saltzeko. Egunoro Anux-ate'ra joan bear ez izateak atsedean andia ekarstan.

Udagoia zan barriro, eta etxekoek euritearen begira gengoan, nazeak zelan jokatu leuken egiztazearren. Sasoa, baiña, guztiz legorra azaldu zan, idorte andia lurraldeaz jabetzen zala. Noizbait, Gabonillaren lenengo egunetan, ortzia odei baltzakaz estalduta, eguberdi baten euria asi zan astiro, baiña arratsaldea aurreratu-ala, gero ta lodiago, eta gaba asi orduko, ura suilka jausten zan. Gau aretan poz-pozik oeratu nintzan, alde batetik legorteagaitik lurak ura bear ebalako, eta bestetik, ur-biltegia beteko zalakoan.

Ezustean, lotan nengoala burrunba izugarriak iratzarri ninduan. Eragin andiaz jagi ta leiora joan nitzan. Anux-ate'tik etorren burrunbea gero ta andiagoa biurtzen zan. Ezin nengikean ulertu zer izango zan, baiña bildur ezkutuak jabetu ninduan. Orduko, euria atertu izan zan, eta une aretante, odei-soil batetik ilbeera agerturik, onen argi zurbillaren pean ikusi neban...

Bidean aurkezten yakon guztia iraulka ta narrazka, latsaren oetik zarata gortugarriaz, ol-naasketaren artean urketa izugarria mendian beera amiltzen zan orruka. Bordazuri aurretik laster igaro zan, eta etxe-ondoko zubitxua zotzaren antzera oiñarrietatik erauzita, ur orrularietan ostendu zan. Gero, uriola baretuta, latsa bere zerera biurtu zan, lengoa ameskeria izan bai'litzan. Iretargia agertu zan barriro Anux-ate'ko atxak zurizkatzen ebazala. Mendatea utsik egoan, nazaren aztanarik ikusten ez zala...

Urrengo goizean aitatik eta biok, ondapenaren ondorioak aztertu genduzan zeatz-zeatz. Gure naza ostendu izan zan. Bazirudian Anux sorgiñaren itzalak jazarten ginduzala, Indusi ta Muñagorri arteko mendatea madarikaziño baten pean bai'litzan. Urte bateko aalegiñak ustel azaldu izan ziran, baiña ondapenez batera, lur-jota

sentitzen nintzan, eta erroteaz oldozteak soillik, gogait eragiten eustan.

Aitatik ez eban espa andirik egin, eta gertaturikoa eroapenik andienaz jasaten eban. Bestaldetik, baeban zeri lotu: gure zubitxua ostendu izan zan ezkerre, beste baten eraikintzari buru-belarri emon eutsan bearrezko olak atontzearren. Orduko, euria atertu izan zan, eta egun aretan bertan, Txeru ta biok mendira igonik, areitz bi aukeratuta, moztu nebazan eta kate baten bidez, Txeru'k narraz etxeratu ebazan. Arratsaldean bertan, enborrak lats-gaiñean zetazan, ostenduriko zubitxua ordezteko. Urrengo egunean, aitatik eta biok, atondutako olak enborren gaiñean josi genduzan, eta illuntzean zubitxu barria erabilgarria azaldu zan. Urrengo egunean, lizar baten adarrakaz eskudel egokiak ipiñi geutsazan, eta amaitu genduean, nire buruari autortu bear izan neutsan, lengoa baiño ederragoa zala, baiña olan eta guzti be, ezin nengikean atsekabea nigandik kendu.

Arratsalde baten, betebear andirik ez izanik, Aux-ate'ra joatea erabagi neban, eta Txuri nirekin artuta, aratu nintzan. Alboko zutoin biak oso-osorik kalte artu barik agertzen ziran; erdikoa, ostera, oiñarri-gaiñetik oin batera-edo moztuta agertzen zan. Au zentzuzkoa zan, erdikoak uren bultzada betea bere gain artu izan eban-eta. Gauza batek arritu ninduan, baiña: zutoin ori oiñarri berberatik ebagita ez izatea, eta bai ordea ortik oin batera.

Nire jakin-naia jabetu eziñik, kraskadurea aztertu neban, eta... zur eta lur geratu nintzan. Austurean bertan adar-begi andia agertzen zan. Banekian aspalditik, aitataren ikusmena makaltzen joiakola, eta adar-begia, antza, ez eban ikusi izan zutoiña atontzen ziar-dunean. Nik ikusiko neukean, baiña ur-kaltearen bildurrez, aitatik galipotaz ondo igurtzi izan ebazan, eta oiñarrira sartzean, adar-begia ikusteziña gertatua zan.

Aitita gaixoa...! Bera zan ondapenaren sortzaillea. Mendian beera niñoala, nire asarrea ezabatzen yatan, eta etxera eldu nintzaneke, erabagi sendo auxe artu izan neban: aitari ez esatea. Esango ba'neutso, iñondiko atsekabea artuko leuke, bera ezbearren sortzaillea zala jakitean. Beraz, ezkutuan gordeko neuke.

Eldu nintzanean illunabarra zan jadanik, eta abelgorria bazka-

tuta gero, sukaldera sartu nintzan. Amak eta arrebek jantzi batzuk atontzeen ziarduen, eta sutondoan, aititak arto-zuriketeari emoten eutsan. Ama-ta agurtu ondoren, bere ondoan jesarri neiten eskatu eustan aititak, auxe ziraustala:

—Ta, Yon Ander, zer ikusi yok an goian?

—Erdiko zutoiña ebagita egoan. Uren bultzadea, antza, andiegia izan zan, eta zutoin orrek uts egin dau.

Isillune baten ostean,

—Zer asmatzen yok orain, Yon Ander?

—Lur-jota nozu, aitita. Ez naz oartzen gauzarik errotea egiteko...

—Eta olan, beste barik, aita zanak agindutakoari uko egingo ete yautsak?

—Egia esan, aitak ez eustan agindurik emon, bai errekomenda-ziñoa egin, besterik ez.

—Egia izango dok, euk yiñostakan ezkeru, baiña...

Aititak ez eban esaldia amaitu, eta begiak nigandik alderatuta, arto-zuriketeari jarraitu eutsan.

Baiña iñoizkorik kezkatuen oartzen nintzan. Barru-barrutik zerbaitek iñostan, aita zanaren oroitzari ez nintzakiola zintzorik izango errotea ez egitekotan... Baiña lur-jota aurkitzen nintzan, eta ez neban bearrezko adorea olako betekizun neketsua burutzeko. Naikoa arazopetuta aurkitzen nintzan etxeko bearrakaz...

Ezin, baiña, barruko dendua idoro, eta aspaldi aretan kezkatzen ninduan sentipen salatariak ezin nigandik uxatu. Uste izaten neban egunen bidean nire arrenkurak ostenduko litzakidazala, baiña gero ta urduriago alde batetik bestera nenbillen barruko bakea idoro eziñik... eta udabarri aretan nire egoerea jasangatxa bihurturik, eupadeari aurre egitea ebatzi neban, eta igande bateko arratsaldean, Anux-ate'ra joan nintzan...

## ANUX-ADARRA

Gora eldu nintzanean, eguzkiaren azken printzek Anux-adar zorrotza urrez margotzen eben. Andik nenkusan ikuskaia zoragarria zan benetan. Yandur-erreka'k esmeralezko larradien artean biur-gune zabala eratzen eban, eta ertzetik ur samar kokatuta, Bordazuri'k uso zuria emoten eban. Arimatik maitasuna parrastaka eridala, neure txoko zoragarria nekatu barik bein eta barriz begiztatzen neban. Yandur-arana'ko nire txoko zoragarria baiño, ez neukela beste lekurik maite izango, biotz-sakoneneraiño sentitzen neban, eta andik urrun zorionik ez neukela ezagutuko. Luzaro samar nire Bordazuri'ko edertasuna biotz-begietan laztandu neban. Gero, zertarako etorri izan nintzanaren arazoa etorri yatan burura.

Lipar luze batez Anux-adar atx zorrotz eta zirrargarriari begiratu neutsan. Erpiñean elorri bat ule-galpar antzera azten yakon, eta atxaren urrezko litsaren ondoan, argiro bereizten zan. Adar ikaragarria zan, gure eleizako dorrea baizen garaia. Gaiñean jausiko ba'litzakit... bildurrezko otz-ikara batek atzitu ninduan, eta orduantxe tximista antzera, argi bat piztu yatan adimenean...

Bapatean jagi, eta adar-inguruan ibiltzen asi nintzan, oiñarria aztertzen nebala. Adar anditzarra, bai-jausi ez-jausi egoan oin estu baten gaiñean, lurrera amiltzeko zorian aurkitzen dan oin makaleko erraldoi baten antzera. Iraulkatu aal izango ba'neu... orduan arkaitz biziko naza bat jaritsiko neuke... baiña zelan? Erantzuna laster etorri yatan berez... lerkai baten bidez. Baiña lerkairen bat erabiltean, adarra mendatean zear etzanda geratu barik, Bordazuri'rantz amilduko ba'litz...? Arazoa niretzat oso zaila zan, lerkai-

erabillketeen ez neban gauzarik ulertzen-eta. Izan be, nazea lortze-ko ez neban beste biderik orixe baiño ikusten. Baiña zelan egin...?

Auzi au buruan nerabillela, andik etxerako bidea egin neban. Gau aretan oera joan baiño len, burutapena aitari azaldu neutsan. Une batez oldozkor geratu zan, eta gero,

—Yon Ander —esan eustan—, burutapen ona dok, ain zuzen be egiteko bakarra dokala esango ñeukek. Baiña zelan erabilli lerkia, ezer ezagutzen ez yoagunok? Arazoa arriskuz beterik yagok...

Orduan Iñese sartu zan autuan auxe zirauskula:

—Zergaitik ez dautsozue esaten Txanbo'ri? Amilaz'eko arrobi baten diardu, eta an atxak ia egunoro ler egiten dabez.

Bururatu ez bayatan be, egi biribilla zan. Baziran urteak Txanbo lerkari-mutiltzat arrobi baten sartu izan zala, eta orain bere ogibidea oso ondo ezagutzen eban. Aspaldiko burrukea aztu izan yakun, eta urteak ziran oso ondo alkar artzen genduala. Ezin neban ulertzen zelan Txanbo'rena lenago burura ekarri ez izatea.

Asmoa luzaro samar erabilli genduan, eta neuk Txanbo'ri arazoaren barri emongo neuskiola erabagi zan. Oera joateko jagi zanean, aititak auxe esan eustan:

—Azken aldiotan, neuk besterik esan arren, bañekikan errotearen asmoa aurrera eroango eunkela, Yon Ander, ondo ezagutzen aut-eta. Gaur poz andia emon yaustak.

Nik irribarre bat az ordaindu neutsan, eta andik laster, ames zorionsuko loak artu ninduan.

Urrengo egunean, etxeko lanak eginda gero, Zapelenbaita'n bizi zan Txanbo'gana joan nintzakion, eta Anux-adarra'ren iraulketeari buruzkoa esan neutsan. Aurretik atxadarra ta onen gorabeerak jakin gura ebazan ezkerre, ikerraldi bat egitea onena zala esan eustan, eta egun areitan naikoa arazopetuta egoan ezkerre, urrengo igandeko arratsaldean, bera ta biok joango gintzakezala ebatzi izan zan.

Izendaturiko arratsaldean, Txanbo, Pirmin eta irurok Anux-ate'ra joan gintzazan, eta Txanbo'k adarrari azterpen zeatza egin eutsan. Andik laster, auxe esan eustan:

—Irulketea erraza dok, baiña yagokon lekura jausi yaiala, beste gauza yoagu. Dana-dala, egin yaiteken ekintza dok. Ikusagun...

Adarrari leku guztietatik begiratu eutsan, eta oiñarria batez be ondo aztertuta gero, igeltsu-zatia, leku bat bereiztu eban lauki txikia marrazten ebal, eta,

—Aiko, Yon Ander —esan eustan—, lauki onetan erdi metroko zuloa arrian egin bear dok, eta gerturik yaianean, kilo bi lerkai sartuko yoadaz, eta egaketea egingo yoagu.

Olan ba, atx bizian zulotzeari barriro ekin neutsan, baiña oraingo onetan ez yatan lengo beste aspergarri azaldu. Noizbait, zuloa amaitu neban, eta igande bateko arratsaldean bezperak amaituta, aitita, Iñese, Matxalen, Pirmin, Txanbo ta neu, joan gintzazan Anux-ate'ra. Eldu baiño ez, Txanbo'k bere zeregiñari ekin eutsan. Asi aurretik, urruntzeko agindu euskun, eta badaezpadan bera bakarrik geratu zan. Lerkaiaren betelana eginda, almutx luzea ipiñi eutsan lerkaiari, eta piztuta gero, gurekin batu zan.

Berak aginduta eun bat metroko bitartera urrundu gintzazan, eta ia-ia arnasa artuten azartu barik, lerketeari itxaron geutsan. Alako baten, eztanda izugarria aditu genduan. Anux-adarra astindu zan une batez, eta gero astiro-astiro dendua galduta, okertzen zala ikusi genduan, eta gero durunda itzelaz mendatean zear kokatu zan.

Burujabetasuna galdurik, danok didarrari emon geutsan, eta Pirmin'ek txapela aidian bein eta barriz jaurtita, zoro antzera dantzaz egiteari emon eutsan, danok laguntzen geutsala. Asikerako adorea baretuta, orain arrizko naza ederra zan etzandako atx-adarrari urreratu gintzakion. Amar-amabi metroko goibea izango eban, eta azpiko zabalunetik, latsaren ur garden eta eresintsuak beti lez mendian beera amiltzen ziran. Adarreko mutur bana atxan tinkatuta egoan; ez zan uriolik nazari zirkiñik txikiena be eragin leikionik.

Gero, poz-didarretan etxera biurtu gintzazan, eta Txanbo maikide genduala, amak aparri gozo-gozoa atondu euskun.

Nazea bein betiko jarrita egoan, baiña enparauko lan eta gaiak ez ziran gaberdiko auntzaren estula: eun bat metroko odiak, turtukoia, eta errotearen ezarketea. Guenez, errotarako etxea edo estal-

pea. Odiak erosteko beste dirurik bageukan, baiña turtukoia ta enparauko beste gauzentzat ez.

Dana-dala, aal genduana egiten erabagi izan zan, eta aititak eta biok bearrezko gaiak erosita, etxepearen eraikintzari ekin geutsan. Yon Deunarako, etxepe polita amaitua zan. Etxepea mailla bikoa zan: lurraren sestrakoan turtukoia jarteko, eta goikoan, errotarriak, aleak, uruna, xurrua etabar. Nire zenbakien arauz, urte biko aalegiñak bearrezko ziran gaiak erosteko...

## ERROTEA

Andik egun batzutara, Yandur-erreak'ko ertzean bazkatzen ziran beien billa niñoala, gizon bat ikusi neban arraintzetan. Une aretan-txe kaiñaberea eragintza sendoaz jagi, eta amu-ariko muturrean zidar antzeko arrainkari bat bizi-bizi biurkatzen zala, agertu zan. Urreratu nintzakion, eta,

—Arratsaldeon, Jauna —esan neutsan.

—Baita zeuri be. Aizu mutil, dirudienez leku onetan arrainkari asko da, ezta? —esan eustan erderaz.

—Bai, Jauna, erreka onetan arrainkari asko dago, eta errialde guztiko bikaiñenak ei'dira.

Gero, arraiña otzara batera sartuta, bedarrari tinko-tinko begiratu eutsan, eta alako baten makurtu zan eta matxingorriko bat artuta, amuan josi eban, jarraian arraintzari emoten eutsala barriro. Bazirudian arraintzea ondo ezagutzen ebal. Berak era onetan ziar-duan bitartean, beien billa joan nintzan.

Andik laster, beiekin biurtzen nintzala, sarats baten gerizpean jesarrita, ikusi neban barriro be. Aren ondotik igarotean geldierazo ninduan, eta,

—Aizu, mutil, emengoa al-zara? —itaundu eustan.

—Bai, Jauna, erreka onetan arrainkari asko dago, eta errialde zuri erakutsiz.

—Toki ederrean bizi zara, eta etxeak ez dau makala emoten.

Gero, jagi zan, eta,

—Etxeraiño lagunduko dautsut, iraduz ez nabil-eta —esan eustan.

Kaiñabera ta otrzarea artuta ondoratu yatan, eta ibilli genbiltzala, auxe esan eustan:

—Begira, mutil, ni bilbaotarra naz eta emen nozu oporraldia emoten. Arandibar'ko abadeagana bialdu nau Aranegi'ko lagun batek, oporrak igaroteko etxe baten billa nabiltzu-ta. Abadeak zure etxea aitatu daust, jende ona zarielakoan, eta gaiñera euskaldun jatorrak. Nik euskerea liburuetan ikasi dot, baiña berba egiteko orduan oso baldarra. Au dala-ta, sendi euskaldun batekin oporrak emon gura dodaz, ia euskeraz zeozer esatea jaristen dodan.

Autu onetan giarduala, etxera eldu gintzazan, eta nik beiak kortara sartu bitartean, arraintzalea, atadian egoan aititarekin berbetan asi zan.

Biurtu nintzanean, arrotza, ama ta aititarekin eskaratzean egoan. Amak albo batera dei egin, eta,

—Aiko, Yon Ander —esan eustan—, Jaun orrek illabeteko ostataua nai yok gurean, zer yeritxak orreri, seme?

—Ama, ori zeuk erabagi bear dozu, arrotzak ekarri degiskun lana zure gain izango da-ta. Nire aldetik ez dago sosterrik. Gaiñera, diru apur bat ez litzakigu txarto etorriko, gerorako bear izango dogu-ta.

—Aiko, Yon Ander —erantzun eustan amak irribarreka—, ik errotea baiño besterik ez yok buruan. Nik neuk aitaren agindua bete yaikala gura yoat, beraz, arrotza gurekin geratuko dok.

Erabagi au artuta, Martin eritxan arrotza Aranegi'ra biurtu zan. Urrengo egunean, Txeru ta biok aren axearen billa joan, eta On Martiñ'ekin biurtu gintzazan. Illunabarra zan etxera eldu orduko, eta erabilli barik egoan gela, garbi ta dizdiratsua arrotzaren begira agertzen zan.

Gau aretan, apalostean, On Martiñ'ek bere gora-beerak emon euskuzan. Bilbao inguruko lantegi baten asmalari edo injiñerua zan. Berrogei ta bost urteko mutilzar arek abertzale ta euskaltzale zan aldetik, euskera ikasteari urte batzuk emon izan eutsazan,

baiña itz egiteko oso ezgauza izanik, oporrak euskaldunen artean emotea ebatzi izan eban. Aranegi'n senitartekoak ebazan ezkerok, arekana jo izan eban bear izandakoaren billa, eta oneik gure erriko abadeagana joan zeitela esondatuta, len azaldu diran jazoerakaitik, azkenean gurera etorri zan.

Arrotza, gizon guztiz arraia azaldu zan, eta gurean etxeko edozeiñen antzera jokaten eban. Oso gogokoa eban aititarekin jardutea, eta egunik-egun, bere euskera baldarra obaten joiakion polito. Neuri be askotan laguntzen eustan, bai kortako lanetan, bai soloetakoan be. Baserriko gauzak bene-benetan atsegin yakozan, eta au zala-ta, etenbarik gauzen esangurea eta zergaitia itauntzen ebazan.

Gurean zala ta egun bitara larunbat izanik, Aranegi'ko azokara lagundu eustan. Gurditxuan gauzak ipinten pozez beterik jardun eban, eta gero, bera, Txeru ta irurok, Iturrizaga'ko bidetik abiatu gintzazan.

Eguna zoragarria zan, eta giro ederrak kutsatuta, aldarterik onenean bidaia burutu genduan. Gero, azokan itzi ninduan bere senitartekoak ikertu gura ebazala—ta. Eguberdi aurretik barrero agertu zan, eta ango saltune guztiak zeatz-zeatz arakaturik, neurera etorri zan, baita gauzak saltzen lagundu eustan be. Etxera biurtu baiño len, batutako dirua Aurrezki Kutxako gure kontu agirian sartu neban, eta jarraian Bordazuri'ra biurtu gintzazan. Bidean zear giñoazala, auxe esan eustan:

—Aizu, Yon Ander, poz-pozik ikusten zaitut. Diruak, antza, asko pozten zaitu.

—Bai, Jauna. Benetan esateko diruak ez nau zoriontsu egiten, baiña errota bat eraiki bear dot.

—Errota bat?

—Bai, Jauna. Il baiño len aita agindu ori emon eustan, eta bere esanari jaramon egin bear dautsat. Izan be, Bordazuri'k ez dauku irabazte andirik emoten, eta aita zanari errotearena otu yakon, eta ilteko zorian zala errota bat egitea esondatu eustan.

—Uste al-dozu errota batek onura ekarriko dautsula...?

—Bai, Jauna. Aita zuzen egoan beti, eta zuzenik egon ez bazan

be, nik errota ori egingo neuke. Gaiñera, aldia igaro-ala, etorki andikoa dala konturatu naz. Gure Yandur-arana'n arto asko ereintzen da, eta errotarik ez dan ezkeru, alde onetako arto guztia Bordazuri'ra ekarriko dauskue.

—Baiña, uste al-do zu gai zarana errota bat egiteko?

Orduan, anartean izandako gora-beera guztien barri emon neutsan, eta amaitu nebanean,

—Aizu, Yon Ander esan eustan irribarrez—, egunen baten nazea ta errotako estalpe ori erakutsiko daustazuz, eta orduan nire buru-bidea emongo dautsut. Baiña dana-dala, eginkizun itzela azalduko yatzu.

Autu onetan giñarduala Bordazuri'ra eldu gintzazan, eta On Martiñ'ek eta biok berandu samar bazan be, bazkariari gogoz ekin geutsan. Arratsaldean, oi eban lez arraintzari emon eutsan, egun gitxi barruan arrainkarirako debekaldia asteko zan-eta. Zeregiña ondo ezagutzen ebana zan, eta apaitarako, geienetan, Yandur-erreak'ko arrainkari gozo-gozoak izaten genduzan.

Gau baten, oiko agurtza esan ondoren, On Martin euskal eresi batzuk abesten asi zan. Zoragarriak ziran, benetan, bai itzak bai eresiak. Gure aberriganako maitasun utsaz sortuak ziran. Neugan eta etxeoengan zirrara esaneziña piztu eben, eta arrezkeru, gau guztietan, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n zear abesten ziran eresi aberkoi areik ikasten asi gintzazan. Laster, abesti-sorta eder aren pean, Bordazuri aberri-eresien kabi biurtu zan. Pirmiñ'ek be, gure kutsuak eraginda laster ikasi ebazan, eta apurka-apurka baiña etenbarik, Arandibar'en euskal abestiok zabaltzen joiazan. Igarri barik, bere garaian Yandur-arana'n abertzaletasun-ereintza asiko litzake.

Etxekoak guztiz pozik gengoan, On Martin benetan gizon begiko ta atsegiña baizan. Aititak iñork baiño asti geiago izanik gure arrotzak aren laguntasuna billatzen eban, eta aititak patxadarik andienaz itz egiten eutsan, berba bakotxa ondo aboskatuz. Olan ba, On Martiñ'ek euskal alorrean aurrerapen andiak egiten ebazan. Noizean bein, kortako lanetan laguntzen eustan, abereak maite-maite ebazan-eta.

Igande bateko arratsaldean,

—Yon Ander —eskatu eustan—, eroan nagizu nazea ikustera, eta gero errotako estalpea aztertuko dogu.

Joan gintzazan ba astiro-astiro, eta Anux-atera elduta, arnas artzearren gelditu zan, an been edatzen zan Bordazuri-inguruko edertasuna begizatzen ebala.

—Aizu Yon Ander —esan eustan arnasa baretu yakonean—, zure txokoa ain sakonki maite izan dagizunik ez nau arritzen bape. Olango txokoren bat neurea ba'litz, ez neuke iñoiz itziko.

—Ez da geurea, osagillearena baiño. Gizon on-ona da, eta Arotzabaita lengo gure etxea erre yakonean, Bordazuri laga euskun bizi aal izan gengian. Begira, Jauna, erroreak emon dagiskun lenengo diruaz, Bordazuri guztia erosiko dot.

Nire itzok entzutean, auxe esan eustan irribarreka:

—Orduan, mutil, errorea amaitu bear dozu. Ikusagun aurrenik nazea.

Orain etzanda egoan lengo atxadarra zeatz aztertu eban, eta alako baten,

—Gatxa litzake au baiño naza ziurragorik lortzea —esan eustan—. Ez da uriolik au eroateko gauza danik.

Gero, inguruak astiro ta ardurarik andienaz aztertuta gero, auxe esan eustan:

—Errorea erabiliko daben uretarako odiak jarri bear izango dira, eta orretarako, emendik asita lenengo oditza-zatia zearretara erreten baten gaiñean ipiñiko dozu, ango sastrakaraiño gitxi gora-beera —atzamarraz azaldu eustan—. Gero, oditzaren bigarren eta azken zatia artez-arte errotako estalperaiño. Olan luzeagoa azalduko da, baiña eginbiderik ziurren eta erosoena. Oneitariko egunen baten, tokian marratzuko dautsut noraiño edatuko dan lenengo zatia, eta emendik odi-ukondo bat jarrita, bigarren zatia edatuko dozu. Bigarren zati onetan, urek eragin-indarra artuko dabe. Errorea, beraz, ur gitxitakoa baiña goibe andikoa izango da, eta bereiztasun oneri egokituko yakon turtukoia bear izango dozu, au da, "Pelton" dalakoarena.

Gero, errotako estalperaiño jatsi gintzazan, eta onen mailla bialk azterturik,

—Ondo dago —esan eustan— anditasun aldetik, goikoan batez be, emen errotarriak, otobaltzak, arto-zorroak, urunenak, aztakiña eta abar sartu bear izango dira-ta. Nire ustez, etxepe au ondo asmatua izan da.

Urrengo egunean, Muñagorri'ko egian zearretara jarteko zan oditzea, taket batzukaz mugatu eban, auxe ziraustala:

—Nazatik onaiño, erreten laua zabaldu, eta onetan odiak etzanda jarriko dozuz. Gero, ukondo baten bidez eta beste odi-zatiakaz, urak turtukoiraño jausiko dira. Odien eta turtukoiaaren jarreak naikoa buruauste emongo dautsu.

Gero, odi-zatiak zeatz ainbatu ondoren,

—Nire zenbakien arauz —esan eustan—, eun eta ogei ta amar metroko oditza bear izango da. Beste aldetik, zortzi zentimetroko zulokoa ta oskolaren loditasuna zentimetro batekoa izango da. Bai, orretarako diruketa andia bearrezkoa izango da. Begira... —jarraitu eban—, nik Bilbao- inguruko odigintza andi baten lan egiten dot, eta oditza orrek metroan ogerleko bat inguru balio dau, beraz, oditza osoa seireun eta berrogei ta amar laurlekotan urtengo yatzu...

Itz oneik entzutean, zorabio-aldi batek artu ninduan, eta ez jaustearren, lurrean jesarri bintzan. Geuk ez genduan alako diruketarik, ez urrik emon be...! Nik ez dakit zelako itxurea erakutsiko neban, baiña nire sorbaldan eskua jarrita, On Martiñ'ek auxe irautsi eustan:

—Ez larritu, Yon Ander, dana atonduko da-ta. Begira... odigintza guztietan, akatsen bat erakusten daben odiak sortzen dira, au da, loditasun ezbaridiñeko edo beste utsen bateko zatiak. Oneik, metroan laurleko bitan saltzen dira, eta errotea erabilteko oso egokiak azalduko yatzuz, neuk akasdunen artean onenak aukeratze-kotan, eta au zeuri ondo ba'deritxazu, jakiña.

—Olan izanik —esan neutsan adorea barriro irabazita—, gauza erabagia da, orretarako lain badaukagu-ta.

Unetxu batez irribarreka begiztatu ninduan, eta gero,

—Ba al-dakizu gauza bat? —esan eustan—. Ez neuke iñoiz uste izan, mutil batek bakarrik olako errota egiteko gai izango litzakenik... Zure naimenaren indarrak mirari ori egingo dau.

—Ez, Jauna.

—Ezetz?

—Nik ez dot iñongo miraririk egingo. Ez dakit zelan, baiña joan zanetik nire aitak lagundu egin daust. Sarri askotan, nire ondoan sentitzen dot auxe diraustala: “Yon Ander, aurrera, seme, ez ukorik egin, eutsi...! Bai, berak lagundu daust bein eta barriro. Begira... zu jarri zaitu nire bidean, ostantzean ez dakit zelan...”

On Martiñ'ek era ez-oiuaz begiratu eustan, eta beste barik etxera sartu gintzazan.

Bajoiazan aurrera egunak, eta arrotzaren egotaldia emaitzeko zorian zan. Etxeko guztiok maite-maite genduan On Martin, eta joango yakularen usteak goibeltzen ginduzan.

Eguna eldu zan noizbait. Danok atadian gengoan On Martiñ'eri agur egiteko. Gu banan-banan agurtu ondoren, eta abiatzeko zorian zala, amak auxe esan eutsan:

—Jauna, berorrek badaki etxe au gerturik daukala noizgura.

—Ez da esan bearrik. Datorren urtean emen izango nozue barriro. Agur Iñese, agur Matxalen, agur aitita...

Baiña aititak ezin eban erantzun aal... Begiak laiñotuak eban, eta eztarrian korapillo bat. Orduko, Txeru gurdixuari buztartuta egoan, eta arrotzaren axea aren gaiñean jarrita, Aranegi'rantz abiatu gintzazan.

Bidean zear giñoazala ez genduan berba andirik egin. Aranegi'ko geltokian axea jatsi neban, eta trenaren begira geratu gintzazan. Orduan, On Martiñ'ek auxe esan eustan:

—Aizu, Yon Ander, amar-amabost egunen buruan odiak emen izango dozuz. Aurretik jakiñerazoko dautsut. Bitartean, erreten-egiteari asiera emoiouzu.

Bultzia urreratzen zan, eta On Martiñ'ek barriro:

—Ez dakizu zein pozik nagoan. Zuei esker, orain banaz nor



euskeraz berba egiteko astiro bada be. Datorren urtean emen izango naitzue oster a be. Ia orduko errotea dabillan...

Leiatillatik agur egin eustan trena begimenetik galdu zan arte. Gero, naigabetuta, etxerakoa egin neban. Urrengo egunean erretenari asiera emon neutsan.

Erretena amaitu baiño ez, On Martiñ'egandik idazki bat eldu yatan. Berak iñoanez, oditzea Bilbao'tik urten barria zan, eta esku-titza artu orduko, Aranegi'ko geltokian egongo litzakela, urrean. Gero, txatal luzean oditza-jarrerari buruz, guztitariko azalpenak emoten eustazan, baita bere garaian zelan ezarri be, eta ezpaia izatekotan, berari idatzi nengion oztopoak garbitzearren. Txatalaren azalpenak oso argi etozan, eta bidar batzuk irakurrita gero, dana argi-argi ulertu neban.

Urrengo egunean, gurdiari buztarturiko txeru ta biok Aranegi'ra jatsi gintzazan. Izan be, oditzea geltokian egoan gure begira. Oditan mendi andia iruditu yatan. Bost gurdibeteko bidai egin bear izan nebazan odi guztiak etxera eroateko, eta bigarren egunean estalpe-ondoan meta garaia eratuz agertzen ziran. Egun aretan berean. On Martiñ'eri zor neutsan diruketea bialduta gero, lanari buru-belarri emon neutsan.

Aurrenik, zidor bat Muñagorri'ko egi aldapatsuan zabaldu neban odi-zati baxotxa bere lekuan ipinteko. On Martiñ'en azalpenai jarraituz, beekaldetik gorantza, au da, estalpetik gora odia jarten asi nintzan. Lenengo zatia, turtukoia ondoan zetzana, ormigoiaz ondo tinkotu neban, eta gero emendik gorantza beste zatia. Lenengo zati onek, mutur baten txaramilla eroian urketea egokitzearren. Olan ba, egindako zidorretik Txeru'k odia banan-banan eroiazan, eta gero aititaren laguntzaz eta batukien bidez, odi-muturrak lotu nebazan. Lekua aldapatsua zan ezker, bete-bearra oso neketsua azaldu zan, baiña apurka-apurka odien jarrea aurrera joian. Gabaz, aitita ta biok ler eginda oeratzen gintzazan, baiña burrutik, ni beintzat, iñoiz ez ezagaturiko poztasunak jabetzen ninduan.

Zati au jarrita gero, Anux-ate'tik zearka edatzeko zan bigarren eta azkenengo ezarketari emon geutsan. Zati au galgan edatzen zan ezker, askozaz errazago ta ariñago ipiñi genduan, eta noizbait

arratsalde poztarri baten, azkenengo odia sartuta geratu zan.

Anux-ate'tik etxerantza baratxe jaisten gintzazala,

—Aiko, Yon Ander —esan eustan aititak astoaren burua laztanduz—, zuzen engoan Txeru erosi gaienduan; berari esker oditzarrok mendian gora eroateko gai izan gozak-eta.

Isillune baten ostean, barriro:

—Errota bat egitea ez dok gauza erraza, Yon Ander. Buruauste itzelak igaro bear izan yoaguz, lenengoz eraikitako nazea ondatu zoanean batez be, baiña jasaniko oztopoek gizonago biurtu aue. Nire buruari sarri askotan itaundu yautsat, ire aita zoanak zergaitik aginduko euan errota ori egitea... Ain zuzen be, onura ekarriko yauskuk, baiña ni neu benetako gizona biurtu eintean izan dokalakoan naiagok. Bai, Yon Ander, bizitzako soster eta nekeak garaitzen aalegintzen dokana, gizonago egiten dok. Gaiñera, orrek, Bordazuri geiago maite izaten lagunduko au.

—Bai, aitita, baiña nekeak garaitzen eta gure txokoa biotzeanago izaten, zeuk be laguntza andia emon daustazu...

Aititak irribarrez begiratu eustan, eta nik be irribarreka erantzun neutsan.

Arrezkero, errotea amaitzeko, turtukoia ta egokiozan errotriarriak jarri bear genduzan. Baztan'go nire osabea errotraria zan, eta egun baten bere burubidearen billa joan nintzakion. Arriai egokiozan zeatz guztiak emon eustazan, au da, zelan jarri, erabilli, eta mailluaz zelan landu batez be, eioketea ondoen egiteko. Osabarenean egun bi emon nebazan, eta zeatz guztiak ikasita, alkargandik agurtzean, errotrari bi Aranegi'ko geltokira bialduko leuskidazala agindu eustan. Emoitza augaitik benetan eskertu neutsan, eta ikasitakoa buruan nerabilela, etxera biurtu nintzan itxaropenez gaiñezka.

Andik aste bitara, On Martiñ'egandik idazki bat eldu yatan, Iruña'ko txatartegi baten Bordazuri'ko errotrari ondo egokion turtukoi bat salgai egoalaren barriaz.

Astirik galtzeke, Iruña'rako erri-berebilla artu, eta esandako txatartegira joan nintzan. Erabillia bazan be, turtukoia egoera onean aurkitu neban. Karua zan, izan be, baiña azkenean milla laurleko-

taraiño beertatu eusten. Ezin emendik txakur txiki bat bera be merketu aal izan. A lako beste eretirik ez litzakidala aurkeztuko konturatu nintzan, eta ezaugarritzat eun laurleko emonda gero, etxera biurtu nintzan.

Etixerakoan, nire buuruari itauntzen neutsan, zelan ordainduko neuken turtukoia. Aranegi'ko diru-etxean irureun bat laurleko izango genduzan, eta bear izandako dirua bereala jaritsi ezean, ez nekian noiz ezta zelan amaituko neuken errotea. Bide bat baiño, besterik ez neban ikusten...

Gau aretan, ama ta aititarekin autu luzeari emon neutsan, eta arazoaren gora-beerak ondo aztertuta gero, gaia nire aurkeran aurre-  
ra eroateko esan eusten.

Biaramoneko illuntzean, Idurene'ra joan nintzan. Osagillenean dei egin eta neskame batek gela batera sartu-erazo ninduan. Luzaro barik, agertu zan osagillea, eta,

—Kaixo, Yon Ander, aspaldiko...! —esan eustan— zerk akar neurera, etxekoren bat geisorik al-dok...?

—Ez, Jauna...

Lotsaz jota aurkitzen nintzan, eta txapela euskuetan nerabille-  
la, oin-oialari begiratzen neutsan, zer esan ez nekiala.

—Jesari adi, mutil, eta esan egistak ikerraldi onen zergaitia.

Olan egin neban, eta aren begien itxura arraiaz nasaituta, auxe esan neutsan:

—Berorrek badaki, urrean, aita zanak agindutako, errota bat egiten diardudala...

—Bai, mutil, Arandibar'en guztiek yakien gauza dok ori...

—Ara ba... errotea amaitzeko turtukoia bear dot. Lagun baten bidez atzo Iruña'n tramankulu egokia ikusi neban, baiña gureztat oso karua da. Bestaldetik, orain erosten ez ba'dot, ez dakit noiz amaituko dodan errotea...

—Esaidak, Yon Ander, zenbat bear izango yok turtukoi ori erosteko...?

Lotsaren-lotsaz ezin nengikean berbarik esan. Txapela eskuen artean biurrikatzen neban lurrari begira ta begira.

—Aiko, ez larritu, zenbat bear yok...?

Noizbait, tartailloka auxe jaurti aal izan neban:

—Zazpireun laurleko, Jauna.

Ez nintzan azartzen aurpegiari begiratzen, baiña idazten ziar-  
duala konturatu nintzan. Gero, urreratu yatan, eta,

—Yon Ander —esan eustan—, ire aita ta biok lagun andiak izan gintzoan, eta berak errota ori egitea agindu ba'euan, neu be orretan sartzen nok, bestelan nire buruaz lotsatuko nintzoake. Eutso diru-  
agiri au, eta geiagorik bear izatekotan, ator neugana barriro.

Nire aurrean zutunik egoan, diru-txartel bat luzatzen eustala. Gero, aterantz giñoazala, auxe esan eustan:

—Ez larritu diru ori biurtzearren. Errotea yabillenean, orduan atzera emongo yaustak, baiña benetan yiñotsut: ez aite larritu zor ori garbitzeko, eta orain beste gauza bat. Bayakiat, Yon Ander, Bordazuri'koek aberriko abestiak dakizuezala, eta zuek irakastsita Arandibar'en zabaldu dirala. Ekin gogor, mutil, ekin aberriaren alde, gure Euzkadi maitiaren alde...

Gero, alkargandik agurtuta, pozez gaiñezka etxera biurtu nin-  
tzan sendiari barri ona azaltzeko.

Andik egun batzutara, turtukoia zama-berebil baten Arandi-  
bar'era eldu zan, eta Malenbaita'ko idi-gurdian jarrita, etxera ekarri genduan. Eraikiteko zan lekuan jarri ondoren, Malenbaita'ko anaiai, etorkion lekuan ipinteko lagundu egisten eskatu neutsen, eta bide-  
batez, etxean euken jaso-lanabesa ekarteko.

Urrengo egunean etorri yatazan barriro, baita Pirmin eta Txan-  
bo be, azkenengo ekitaldia burutzearren. Orduko, turtukoia-  
ren beekaldeko ardatz-jarlekua gerturik egoan. Noizbait, ardatza, one-  
tan sarturik, zutundu genduan turtukoia, eta errotarriak goikaldean  
sartuta, guztia tinkotu genduan. Lan au egiteko egun bi bear izan  
genduzan. Amaitzean, amak apari bereizia atondu euskun, eta aldar-  
terik onenean alkartu gintzazan, nekatuta baita pozik be.

Udagoia zan barriro, eta euritearen begira, otobaltzak edo txurruak, bata artoarentzat eta bestea beekaldean uruna batzeko, gerturik egozan, baita biientzako erreata-bidea arri-begian sartu zeitezan be; arranoa edo txalapartea eta abar, aitik gertutu izan ebazan. Orduan, nazapeko odi-ingurukoa ondo itxita, eiotzeko ez genduan besterik, euriaren etorrerea baiño.

Azilla'ren asieran euri-jasa lodiak noizbait asi ziran. Nazea guztiz itxita egoan ezker, biltegian urak gora egiten eben, eta areitez eta elorritz inguraturiko intzira zoragarria eratzen asi zan. Luzaro barik, nazearen goikalderaiño eldu eta urak gainez egiñik, mendian beera amiltzen asi ziran, latsaren oe legorra barriro laz-tanduz.

Dana gerturik egoan gure errotea abidan jarteko. Bitartean, artotan gurdikada batzuk eioteari begira genduzan estalpean. Urrengo goizean, odiaren muturrean egoan ur-txaramilla zabaldu neban. Txistuka, bitsezko txarrastadeak turtukoia maskorretan jo eban, eta kurrinka negartsuz turtukoia biraka asi zan. Nire bizitzan ez neban iñoiz alako eresi zoragarriagorik entzun, eta txirrindola anditzarrak gero ta ariñago bira-biraka, azkenean oiko ibillera artu eban. An beean zaratea gortugarria zan, Goiko maillan, oster, uren txistu baretuak eio-burrunbarekin naasirik, ots pozgarria osotzen eban. Atsegiña zan benetan, eresi onekin artoaren bii urregorriak arribegitik ostentzen ikustea, etenbako ari urreduna otabalzatik etorrela.

Ain zuzen be, egun gogoangarria izan zan. Larunbata izanik, urrengo egunean meza nagusia entzunda gero, etxekekin Malenbaita'ko anaiak, Txanbo, eta zer esanik ez gure Pirmin maikide genduzala, egundoko otordura dei egiñak izan ziran. Igande aretan, amak, Iñese ta Matxalen'en laguntzaz munduko bazkaririk gozoena atondu euskun, eta bazkalduta gero, On Martiñ'ek irakatsiriko eusko eresiak abestu genduzan aldarterik onenean.

Abesti oneik, Arana Goiri'tar Sabiñ'ek egindako olerkiakaz atonduta egozan. Nik ez dakit zer izango zan, baiña eresi aberkoi orreik abesten neban bakotxean, nire baitan gure lurraldeganako maitasun bizi-bizia pizten yatan biotz-barruan. Eta nirekin abesten ebenek, sentipen maitetsu orrek kutsututa, neuk lez galdutako

aberria idoroten eben. Euskotarrok ez dogu iñoiz Sabiñ'eri zor dautsaguna ordainduko...

Ona emen eusko olerkari batek idatzitakoaren olerki baten lenengo aapaldia:

Gure Sabin lo dago  
itsas-ertzeko obian,  
isil-isillik datza  
illunabar geldian.  
Urrunean illotsak  
iparraize garbian,  
erri batenak dira  
negarrez etsi-etsian...

Aitaren oroitzak abertzaletasunaren bidetik bultzaten ninduan, eta olan igarri barik, Arandibar'en eta Yandur-arana'n erritar asko gure aberri gaixoagana biurtzen asi zan.

Ez dakit liburu-atal onetan, beste alor baten zelan sartu nazan, atal onetan errotatzaz soillik idaztea zan nire elburua-ta... Geroago ekingo dautsat barriro gure erri-iratzarteari buruz; ekiodan beraz, oster, Bordazuri'ko errotari.

Errotea abidan jarri izan zanetik lenengo astean, an-emen amaika egokitasun-lan egin bear izan nebazan. Lenengoa uren sarketea bear zanari egokitu, ez ur larregirik, ez gitxieirik, bearrezkoa zana baiño. Gero, errotarren bitartea ondo jarri, xeetasun aldetik urun ona lortzeko. Zorionez, nire osaba baztandarrak bialduriko errotariak ondo armailluta egozan, eta neke andi barik, alagalako xeetasuna jaritsi neban.

Gero, arto-otabaltetik etorran ale-jarioa errotearen eio-gaitasunari egokitu bear yakon, eta luzaro barik errotearen indarrari egokion ale-jarioa lortu neban. Gero, beste doitasun-lan txikiak egiñik, errotea gerturik billakatu zan lan onuragarria egiteko.

Ain zuzen be, erroreak ez eustan lan andirik emoten. Goizean, beekaldeko otabaltzean gabaz baturiko uruna zorrotan sartzan neban; gero eguberdian bardin, eta oeratu baiño len azkenengo zorro-beteketea eginda, eta arto-otobaltza beterik, oeratzan nintzan. Gabak pozgarriak ziran, izan be. Iratzarten nintzan bakotxean,

errotatik yatordan burrunba gozoa, laztana bai'litzen biotzera sar-  
tzen yatan, eta barru-barrutik ezkeronezko otoitza gau-zear yoaki-  
dan aita zanaren gomutea berpiztuz.

Olan ba, errotako lana lurgintzaz eta egazti-azkuntzaz aldizka-  
tzen neban, eta aspaldiko oitureari jarraituz, larunbat guztietan  
etxeko barazkiak eta arrautzak Aranegi'ko zeira neroiazan.

Astiro-astiro baiña etenbarik, Yandur-arana'ko baserritarrek, Bor-  
dazuri'ko bidea ikasi eben, gero ta arto geiago eioteko ekarkiguela.

Errotearen obaria bitara izaten zan: bata, lakea edo eio-saria  
diruz ordaindu oi euskuen; bestea, eioturikotik euneko ainbat urun  
gureztat izaten zan. Bigarrenetara lortutako uruna nire kabuz saldu  
bear izaten neban, baiña arazoa ez zan zailla azaldu; etxean saltzen  
genduanaz gaiñera, enparaua Aranegi'ko zeian saldu oi neban.

Olan ba, gure kontu agiria gorakada andia artzen asi zan, eta  
errotea abiadan asi zanetiko illabete batzutara, On Mikel'eri, bero-  
nek mailleguz emoniko 700 laurlekoak atzera biurtu neutsazan.  
Diruketa ori ez eustan artu gura izan, baiña ekin eta ekin, azke-  
nean artu eban baldintza bat, diru orren korritua ez ordaintzekotan.

Eta gure aberastasuna geitzen joian ezker, errotea eraiki ta  
urte bitara, etxekoek batzar garrantzitsua izan genduan, eta bat  
etorrita, Idurene'ko bidea artu neban, On Mikel'eri esondapen edo  
proposiziño bat egitearren.

Gure osagilleak oi eban arraitasunaz artu ninduan, eta bere  
idazgelara sarrerazoz, auxe esan eustan:

—Esaidak, Yon Ander, zerk akar neurera. Egia esan, erakusten  
yokan osasunagaitik, ez yoat uste nire burubideak bear izango  
yozanik.

Niket, oso urduri sentitzen nintzan, eta ez nekian zelan asi.  
Isillune laburraren ostein,

—Begira, On Mikel... —nekez esan aal neban— Etxekoek eta  
neuk... ba... autu bat ospatu dogu gaur, eta...

Ezin nengikean nire asmoa agertu, baiña noizbait aalegin andia  
egiñik, auxe bota neutsan:

—Begira, On Mikel, Bordazuri'ko etxaldea erosi gura dogu...

Au entzunik, lipar batez begiratu eustan, eta gero,

—Ederto, Yon Ander —esan eustan irribarrez—, ori jakiteak  
benetan pozten nok, errotea ondo yabikala esan gura yok-eta.

—Bai, Jauna, Jaungoikoari esker arazo ori gero ta obeto yoaku.  
Nik ez dakit Bordazuri'ko etxaldea zenbat balioko dauan, baiña  
berorrek esan ba'legi...

Unetxu batez oldozkor geratu zan, eta gero,

—Milla ta bosteun laurlekotan emongo ñeuskik.

Arrituta geratu nintzan, amesetan ez ete nengoan nire buruari  
galde egiten neutsala. Ain zuzen be, Bordazuri'ko etxaldea, arazo  
orreitan benetako ezagularirik ez banintzan be, ia duan emotea  
zan. Gure osagilleak, antza, ez eustan ondo ulertu izan, eta,

—On Mikel —ragon neutsan—, nik ez dakit berorrek ondo  
ulertu ete daustan. Etxea, inguruko soloak, Muñagorri'ko txaraka  
zabala, eta Indusi'ko gaitaiñadia, dana batera erosi gura dogu.

—Bai, mutil, ori dana eskaturiko sarian sartzen dok.

—Baiña, On Mikel, edozelan be etxalde guztiak ori baiño  
askozaz geiago balio dau...!

—Orain balleitekek, baiña aspaldiko Anux-borda zaarra ta itziak  
bere inguruko lurraz ez yoat uste ori baiño geiago balioko  
lleukenik. Zuek ara bizi izatera joan zintzazanean, etxea benetako  
ondakiña zoan, eta inguruko sasiz beteriko lurraz, ez yoan iñork  
duan be artu gura izango. Egoera negargarrian yeigoan etxaldea,  
zeuek lanaren-lanez bitxi bat biurtu dozue, eta zer esanik ez, ire  
adorez eta aita zanarekiko begirunez eraiki yokañ errota ederra. Ez,  
Yon Ander, zuek urteen bidean aalegin eta neke utsaz egin dozue-  
na, ez da ezelan be nire obarirako biurtu bear. Ori ez litzake  
girstiño baten jokabide egokia izango, ta gaiñera, olan jokatuko  
ba'neu, ez ire aitak ez nire barrukoak, ez leuskide iñoiz barkatuko.  
Ez, mutil, bakotxari berea zor yakok, eta ez yoat laurleko bat bera  
be artuko sari orren gaiñetik.

—Baiña kontuan artu bei berorrek, urte askotan duan bizi izan  
garala...

—Zuek ara bizi izatera joan ez ba'zintzakeze, etxalde arek ez leuskit ezkurrik be emon amabi azkenengo urteotan. Ez bedi, beraz, orretzaz besterik esan.

Ez dakit zelan eskertu neutsan gure osagilleari, baiña Yandurreka'ko ertzetik Bordazuri'ra biurtzen nintzala, gogo guztia gizon areganako eskerronez gaiñezka yabildan.

Gau aretan, Bordazuri'n apaloste zoriontsuenetako bat izan genduan. Abo batez, etxalde guztia nire izenean ipintea erabagi eben etxekoek. Neuk, ostera, amaren izenean agiriak egitea nai izan neban, baiña etxekoek ezetz eta ezetz, neurean egokiagorik izango litzakelaren aburukoa izanik, azkenean amor emon bear izan neban.

Andik illabete bitara-edo, Aranegi'ko baratariaren aurrean On Mikel'ek eta biok sal-erospeneko agiria izenpetu genduan. Ni iñoiz ames egiten azartu ez nintzana, jazo izan zan: Bordazuri geurea zan. Arratsalde aretan etxera biurtzen nintzala, bizitzak iñoizkorik zoriontsuen irribarre egiten eustan.

Gure erroreak arrakasta andia lortu eban. Bidean gora gurdi beteak arto etorkiguzan, eta bidean beera urunetan biurturiko arto-zorroak Yandur-arana'n zear sakabanatzen ziran.

Gizaki bat izan daiteken aiñako zoriontsua sentitzen nintzan. Gau oro oiko lanak eginda oeratzen nintzanean, eresi sorgingarriaz errotako burrunbeak seaskatzen ninduan. Etxeko giroa baketsu ta atsegiña zan. Amaren aurpegian ziurtasuna ta geuganako maitasun bizia ikusten zan. Aititaren begietan, bere kutuna nintzan ezkerro, niganako arrotasunaz beteriko sentipena etengabe agiri zan, eta berba bigun askorik esaten ez baeustan be, gogoan beti nindaroan. Iñese ta Matxalen neska zoragarriak biurtu izan ziran. Iñese, Amilaz'ko mutil zintzo batekin ezkongaietan ebillen, eta Matxalen, nestatilla eder, ameskorra, bere baitan bilduta bizi zan, Jaungoikoa-gandik gero ta bertanago.

Zeru aratz aretan odei bakar batek eguzkiaren dizdira moteltzen eban. Nire aalegiñak arren, ordurarte ez neban Mimiñe ta bere amaren bizilekua jakin aal izan. Askotan, gure abade onarekin, arazoari buruz niarduan, baiña bera saiatu bazan be, ezin arein gora-beerak jakin. Errotea egin izan zanetik, diru-gosea joan

izan yatan, eta gure kontu agirian etenbage geitzen joian diruak ez eustan zauskadarik emoten. Indabaita'koai lagundu aal izan ba'neutse, dana, azkenengo txanponeraiño emongo neuskioen pozaren-pozez.

Udagoi oro, Indusi'ko basora gaztaiñen billa niñoala, Mimiñe'ren begi eder yaukalek isil-isillik erraikidazala iruditzen yatan...

## EUPADEA

Igande baten meza nagusitik urtetea, Pirimiñ'ek eta biok udaletxera joateko mezua artu genduan. Epaila'ko egun argitsua zan, eta udabarriko zantzua edonon agiri zan.

Udaletxean, alkatea gure begira egoan. Jesarteko agindu euskun, eta bereala onetaraxe asi zan:

—Zuen buruari itaunduko dautsazue dei onen zergaitia. Ara ba... Dakizuenez, Kepa Deunaren astea Aranegi'ko jai andiak izaten dira, eta orregaitik ango erritarrek egundoko ospakizunak egitekotan dagoz. Ikuskai nagusien artean, aizkora-joko garrantzitsua asmatu dabe. Aizkora-dema onek zarata andia sortu egin dau. Gizpuzkoa'ko Arraitza deritxan aizkolari ta korrikalari entzute-tsua, Naparra'ko edozein bikoteari, eupada au egiten dautso...

Alkatea lipar batez isildu zan bere oldozkunak taiutzeko, urrean, eta gero ariari jarraitu eutsan:

—Arraitza dalako orrek, emengo edozein bikoteari jokatuko dautso ia nork lenengo, kana-erdiko amabi enbor ebagi, eta gero bost kilometroko arinketea egin. Orretarako errialde onetako bikote batekin neurtzeko gerturik dago. Batak aizkoraz jardungo dau, eta bigarrenak arinketeari ekingo dautso. Arraitzak, beraz, lenengo ekitaldian aizkolaria, eta bigarrenean korrikalaria izango da. Jakingo dozuenez, gipuzkoar ori guztiz indartsua da, eta leikide bien aurka neurtu arren, eritxi geienak bere alde agertzen dira.

Onaiño elduta, alkatea isildu egin zan zigarro bat pizteko, eta lenengo pautadak emoten eutsazala, arazoari jarraipena emon eutsan onetaraxe:

—Emen, Arandibar'en, asko mintzatu da eupada orreri buruz. Lengo astean, erriko etxejoaun guztiek batzar bat izan genduan, eta eupadeari erantzuna emotea ebatzi zan. Aurretik, baiña, erriko giro orren zergaitia azaldu bear dautsuet.

Ona elduta, alkateak jardunari eten egin eutsan, zigarro-mutxikiña sapaillotik botatearren. Barriro jesarri zanean, auxe esan euskun:

—Arandibar'en tximistindar kaxkarra dogu, errira datozen tximist-ariak ezegokiak diralako. Bear dan lez ibilteko, ekarketa guztia barritu bear da ari lodiagoakaz ordezteko. Orretarako baiña, udal onek zortzi milla laurleko eralgi bear ditu. Au dala-ta, eta errialde onetan Arraitza'ren eupadeak sortu dauan giroagaitik, erri onetako irurogei inguruko suete-buru guztiek erronkeari erantzutea erabagi dogu. Olan ba, erri onek amar milla laurleko jokatu dauz. Dema edo posturea galtzen ba'dogu, egindako zorra, erriko sendi-buru guztien artean ainbana ordainduko dogu... eta irabaztekotan, erriak bear izaniko tximist-ekarketea duan jaritsiko dau.

Ona elduta, alkatea isildu zan tinko-tinko begiratzen euskula. Pirmin'ek eta biok alkarri begiratzen geutsan, alkateak noraiño joan gura eban igarri barik. Orduan irribarreka,

—Zuen arritasuna baretzeko —irautsi euskun alkateak—, azaldu bear dautsuet, Arraitza'ren eupadeari aurre egiteko, zuek biok autatuak izan zariela. Zu, Yon Ander, erriak indartsuentzat zaitu, beraz aizkora-ekitaldian gipuzkoarraren leikidea izango zarala erabagi dogu, eta zuk Pirmin, ostera, arinketeari dagokion ekitaldian jardungo dozu, erriko lasterkaririk onena guztien eritxiz zaitugu-ta.

Egia esan, alkateak zirauskunak ezustean artu ninduan, eta gogoeta-aldi laburraren ondoren, auxe esaten azartu nintzan:

—Baiña, alkate Jauna, ni aizkoraz ez naz gauza andirik. Etxeko egurra txikitzeari ez dausat aizkolaritza esaten. Ez naz nor Arraitza andiari jarkiteko. Mesedez, ez ni orretarako autatu, parregarritzat azalduz gaiñera, zuek dirua galduko dozue-ta. Ez aztu Malenbaita'ko anai biak, eta Txanbo. Nire ustez orreik ni baizen onak edo obeak dira...

Alkateak orduan eten egin eustan, auxe ziraustala:

—Aizu, Yon Ander, aske zara zeregin ori onartzeko ala ez. Esan bear dautsut, orde, zuk diñozunari begiratu dautsagula, eta ordurarte iru illabeteko epea oraindiño izanik, Xanpa, Amilaz'en bizi dan aizkolari izandakoa, maisu edo irakasletzat izango dozula. Erritarren ustez, arazoari bear dan lez ekiten ba'dautsazu, epe orretan Arandibar'ko izena dagokion maillan jarriko dozu...

Orduan aria neuk ebagi neutsan auxe niraustala:

—Begira, Jauna, aizkora-iñarkunari ekiteko oso lanpetuta nago. Etxeko ta errotako eginkizunek ez dauste asti luzerik lagaten...

—Ori be kontuan artu dogu, eta gauzak arintzeko, arratsalde guztietan lanak amaituta gero, Xanpa bera, Bordazuri'ra etorriko yatzu, bearrezko ikasketak artu dagizuzan. Danok erriaren alde aal doguna egin bear dogu, eta ereti onetan, Yon Ander, zeuri dagokizu Arandibar'en alde ekitea.

Egia esan, erriak neugan jarten eban uste onak poztasunaz beteten ninduan, baiña une aretan ez nekian zer esan, eta ekintzea ausnartu ondoren,

—Alkate Jauna —erantzun neutsan— orain bertan ez dakit zein erabagi artu. Eskintza ori etxeoai jakin-erazoko dauset, eta gure erabagiaren barri emongo dautsugu.

—Ondo da, Yon Ander. Eta zu Pirmin, zer?

—Neu be gerturik nago, Yon Ander laguntzat izatekotan.

Urteteko zorian gintzazala, gure alkateak geldi-erazo ginduzan auxe zirauskula:

—Beste zer bat esan bear dautsuet oraindiño. Irabazle azaltzen ba'zarie, Udal-batzak saritzat auxe erabagi dau: alde batetik tximistargia Bordazuri'raiño duan eroatea, eta bestetik, Pirmin, zure guda-mutilgoa ordaintzea, Iruña'n sei illabeteko gudari-aldia soillik bete dagizun. Orain zuen aukeraren begira geratzen naz. Agur eta biotz on!

Pirmin eta biok Bordazuri'rantz bazkaltzera giñoazala, igandea zan-eta, oso zirikatuta aurkitzen gintzazan. Etxekoen, eta batez be

amaren gurari bizia, etxean tximist-argia izatea zan, ordurarte kandelan argia baiño ez genduan ezagutu-ta. Orain, noizbait, ain sarritan irrikaturikoa jaritsi geinke...

Gogoeta oneitan niñoala, Pirmiñ'ek auxe esan eustan:

—Zer yeritxak eskintzeari, Yon Ander? Ni neu baietzean naiagok. Guda-mutilgoko saria ordaindu ezean, urte beteko gudari-aldia edozein tokitan bete bear izango yoat. Ona emen ba, gure udalak sei illabeteko zerbitzu-aldia eta gaiñera Iruña'n bertan eskintzen yaustakala, eta iretzat etxean tximistargia izateko aukerea, kandelak betiko itzita, ño...!

—Ez yakiat ba, Pirmin; etxerako kaltegarriak dozalakoan, aiti-tak demak ez yozak maite. Ezagutzen yok bat baiño geiago, zaletasun orregaitik etxekalte biurtu dokana. Ez yakiat ba...

Autu onetan giarduala Bordazuri'ra eldu gintzazan. Bazkaldu bitartean, udaleko eskintzearen barriak etxekoai emon neutsezan, eta amaitu nebanean,

—Ez dot gogokoa zuek biok dema baten tartekoak izan zaitezela —aititak esan euskun—. Dematan diarduana, geienetan etxekalte biurtzen da, orra or Sansinene'ko etxekojaunari bein jazo yakona, baita Otxotorena'ri be...

Jazoera oneik etxeko guztiok amaika bider entzuteagaitik, buruz bagenekiazan. Aria etentzearren, antza,

—Badakigu ori, aita —eten egin eutsan amak—, baiña gure mutillok ez dira iñoz demazalerik izan, ezta izango be. Oneik gure erriaren onerako aaleginduko dira, besterik ez. Orrek ez dau esan gura etxekalte biurtuko diranik. Gaiñera, pentsaizu zelako zoriona guretzat etxean tximistargia izatea, kandela aspergarrien orde, su-galtzorirako baiño ez diranak, eta Pirmiñ'entzat aitu zelako aldea: Iruña'ra sei illabeterako bakarrik, eta ez edozein gudaretxe batera, onek dakarkioken galtzoriaz. Ez, aita, oraingo onetan oker zagoz.

Amaren ostein, nire arrebak be gure alde mintzatu ziran, eta aitita noizbait gure eritxira ekarrita, abo batez baietza emotea ebatzi zan.

Illunabar aretan, kortan beien azpigarria barritzen niarduala, aitaita urreratu yatan, auxe ziraustala:

—Yon Ander, berba emon egistak, iñoiz ez dokala demarik egingo. Dirua jokatzen yokana bide irriskorretatik asten dok, eta bere buruaren zoritxarra ta etxekoena ekarri yaikez.

—Nasaitu zaitez, aitita, ziñez diñotsut: ez dot egundo be olako posturetan dirurik jokatuko.

—Ederto, Yon Ander.

Gero, maitasun biziaz begiztatzen ninduala, eskua nire sorbalda gaiñean ipiñita,

—Egia esan —irautsi eustan begiak arro-arro dizdiratzen yakozalagure erritarrak zuzen yagozak. Eu baiño mutil indartsuagorik ez dok iñon. Errotearen eraikintzak soiña lerdendu ta indartu egin yauk. Ez Yandur-arana'n, ezta Napar osoan be, eu lako mutillik nekez aurkitu lleitekek.

—Aitita, ez al-deritxazu orreri apur bat larregi...?

Barriro begiratu eustan, eta irribarreka urten egin zan.

Biamonean Pirmiñ'ek eta biok alkateari gure baietza emon geutsan, eta beronen azkenengo burubideak entzunik, urten gintzazan.

Pirmiñ'ek egun aretan bertan bere iñarkunari emon eutsan. Egunero, lanean asi aurretik, bost kilometroko ekitaldia burutzen eban, eta gero lanetik etxerakoa egiten ebanean, beste ainbeste. Nik ez neban iñongo zalantzarik, nire lagunak bere biziko jarduna egingo leukenik, umetarik ariñeketak egiteari oitua zan-eta. Basakatu baten zolitasunaz gaiñera, bular zabalekoa zan, arinketa luzeak egiteko gai zala ezelango itotasun barik. Ekintza onetan Pirmiñ'ek ordurate ez eban kidekorik ezagutu izan, eta egunoro amar kilometroko iñarkuna egiñez, polito jardungo leuke dema-egunean. Zanzala, Arraitza arinlari apartekoa zanaren barria artu izan genduan, eta leiaketa-eguna urreratzen zala, Pirmiñ'ek iñarkun gogorrigo bateri emon eutsan.

Neuri etorkidan aldetik, arazoa askozaz illunago aurkezten zan. Aizkolaritzan ezer gitxi nekian, eta gaiñera, besoak eta soiña ez nebazan aizkoreari oituak. Beraz, zalantzaz beterik aurkitzen



nintzan. Ezin nengikean jasan, erritarren aurrean galtzailletzat geratu. Nire burua parregarritzat agertuz gaiñera, erriari berari kalte andia lekarkioke. Ez neban, baiña, asti andirik zalantzetan ibilteko. Andik bizpairu egunera, Xanpa, nire erakuslea, Bordazuri'ra etorri zan.

Xanpa ezizenenکو aizkolaria, gizon zimela, berba gitxiko ta begitada ezkibelekoa zan. Bizitzak garraturiko gizakia zan, eta bere garaian aizkolari onenatarikoa izan ei'zan, baiña ospe ta dirua zirala-ta, zabartu egin zan, eta bigunkerietan jausita, azkenean aizkolaritzeari uko egin bear izan eutsan. Egoera onetan, Amilaz'en ezkondutako arreba bategana bearrizan utsaz jo bear, eta onek etxean artu eban, ostatu-ordaiñez etxeko lanetan ziarduala. Berrogeitak urtedun, ule naroa zurizkatzen asi izan yakon, eta betzulo sakonetatik begi sarkorrek dizdir egiten eben. Gizon latz eta zorrotza ei'zan, eta bereiztasun oneik laster egiztatu aal izan nebazan. Iñori agurtu barik, onetaraxe asi zan:

—Eup...! Etxe onetan Yon Ander bizi al-da...?

—Neu naz.

Tinko-tinko begiztatu ninduan, eta,

—Ni Xanpa nozu —esan eustan begitarte illunaz—. Zure erakuslea izan nakizun agindu dauste.

Goitik beera aztertu ninduan.

—Itxuraz ez zara beste munduko gauza —zakar esan eustan—. Ikusiko dogu zugandik zeozer atara daiteken. Laster jakingo dot zelakoa zaran, eta nire gogokoa ez ba'zintzaz, ez nozu emetik luzarorik ikusiko. Egurrik bai al-dozue?

Atzekaldera eroan neban, eta etxeko sueterako zan areitzezko egurmeta andia erakutsi neutsan. Egurrok ikustean,

—Orreik es dira egurrak, zotzak baiño —erdeiñuzko keiñuaz esan eustan. Eta jarraian,

—Ekarstazu aizkorea —geitu eban—, zelakoa dan ikusteko.

Bereala, erabilli oi neban etxekoa ekarri neutsan. Au ikustean asarratu zan, auxe ziraustala:

—Ori al-da aizkora bat? Oneri aiotza esango neuskio.

Metaturik egozan etxerako egurrak begitarte illunaz arakatu ebazan, eta areitariko lodiena aukeratuta,

—Ebagi egistazu zotz ori —agindu eustan atzamarraz erakutsirik.

Artu neban ba, eta beste barik, oiñak lurtean nebazala, ebateari emon neutsan. Baiña asi baiño ez,

—Et, et, et...! —didar egin eban— Geldi, mutil! Atso baten irudia emoten dozu. Non arraioa ikusi dozu aizkolaririk, oiñak lurtean, enborrari ekiten? Kenduizuz abarketok eta jarri zaitetz enbor-gaiñean!

Olan egin neban, baiña aizkorakada batzuk ozta-ozta emonda, dendua galdu ta lurrera ikoti egin bear izan neban, Xanpa'ri auxe niraustala:

—Enborra estuegia da.

—Estuegia, e?

Orduan irakatsi eustan oiñak zelan ipiñi, baita belaunak eta gerria erabilli be auxe ziraustala:

—Garrantzi andikoa da belaunak eta gerria ondo erabiltea, aizkoreari benetako indarra emoteko. Aizkorea igotean, esku bat kirtenaren muturrari tinko oratuz, besteak aizkora-begirantz irrist egiten dau beerakoan indarra emoteko. Esan bear dautsut, bidebatez, aizkora-erabiltean ezkertia zarala. Aizkolari ez-jakiña, eta gaiñera ezkertia. Oba ez!

Egia zan. Ez nintzan ordurarte konturatu izan, baiña guztitarako eskumatia banintza be, nik ez dakit zergaitik, aizkorea erabiltean ezkertia nintzan.

Illuntzerarte, enbor-gaiñean oreka galdu barik egoten irakatsi eustan, jo ta ke ebateari emoten neustala, uts txikienik be barkatzen ez eustala.

Gau betea zala, alde egin eban. Izan be, ez zirudian nitzaz oso pozik, eta bildur nintzan urrengo egunean agertu ez zeiten irakasteari uko egiñez.

Baiña urrengo arratsaldean illundu baiño len, Bordazuri'n azaldu zan aizkora bat ekarrela. Iñarkuna asi baiño len, auxe esan eustan:

—Onen modukoak izan oi dira dematan erabilten diranak. Eta gaurdanik auxe erabiliko dozu oitu zaitezan.

Eta beste barik, enbor baten gaiñean jardunari ekin neutsan. Bigarren egun aretan eta urrengoetan, ez eustan besterik erakutsi, enbor-gaiñean zelan jarri baiño. Bigarren astean, belaunak eta gerria erabilten irakatsi eustan. Areitariko egun baten, Xanpa'k aginduta, kanaerdikoak ziran areitezko enbor lodi batzuk ekarri euskuezan. Orduan nire erakusleak auxe esan eustan:

—Udalbatzakoai egurrok ekarteko eskatu dautset. Epe laburregia dogu zeu lako aizkolari baldarra bear dan lez prestatzeko, eta orregaitik, egur zimel eta biur oneiri ekiñez, epeari aurrea artuko dautsagu. Gaiñera, egur oneik eskurakoigoak dira. Dana-dala, luzaro barik zure gertukizuna pago-enborretan egingo dogu.

Sarri askotan,

—Begira, Yon Ander —ziraustan—, aizkorea jasotean oiñen beatz-muturretan jarriko zara, aizkoreari bidea luzatzearren, olan zartadea indartsuagoa izango da-ta. Gerria, bardin, garrantzi andikoa da aizkora-jardunean, soingaiñari, beerako eragiña indartuz.

Amar bat egunez zeatz oneik ikasten iraun neban. Bein baten, Xanpa'k auxe esan eustan:

—Badirudi aizkolaritzaren oiñarri-legeak ikasi dozuzala. Biar bertan benetako enbor-ebateari ekingo dautsazu.

Ekitaldi au gogorra azaldu zan. Makilla bat erabilela, Xanpa'k non jo erakusten eustan, eskuma ta ezkerraldean egindako ebateak zozpalak jaregin zeitezan. Zozpalaren bat jareitzeko zorian zala, makillaz laguntzen eutsan.

—Oso garrantzitsua da, nik makilla-muturraz erakutsi dagizudan leku ber-bertan jotea. Ebatea zabalegi egiten ba'dozu, egur geiago, au da, bear diran baiño aizkorakada geiago egin bear izango dozuz. Estuegi izaketotan, ordea, larri ikusiko dozu zure burua

barrukaldeari ekiteko garaian. Au dala-ta, nik erakutsitako leku berean jo egin bear dau aizkoreak.

Izugarria izan zan Xanpa'k egunero egitera beartzen ninduana. Besoak artaratu bear nebazan, eta iñarkunak ordu bete bi zirauan, ler eginda billakatu arte. Laster, esku-barrenak odolitzen asi yatazan, baiña xanpa ez zan nitzaz errukitu, bai zera...! Esku-zorroak erabili nengiazala agindu eustan era kitto.

Gau guztietan, lerrenak eginda oerutzen nintzan, nire buruari esaten neutsala, jardun izugarri ari itzi bear izango neukela, etxeko ta errotako lanakaz naikoa neban-eta. Baiña au eziña zan. Demaren arazoa gure errialdean garrantzi andia artzen asi izan zan, eta orduko, postura edo dema asko egiñak ziran. Ez neban, beraz, atzera egiterik. Lakio baten atzituta geratu izan nintzan, eta aurrera joan baiño besterik ez neban ikusten...

Xanpa erakusle zorrotza baiña bere zeregiña ondo ekiana zan. Nire indar-mugan ikusten ninduanean, atsedeen-aldi laburra artzea izten eustan, gero adore barrituaz iñarkunari jarraitzeko. Sarri askotan,

—Aizu, mutil, epe oso laburra geratzen yatzu —esaten eustan—. Arraitza dalako ori aizkolari apartekoa da, eta aren ondoan parregarritzat ez azaltzeko, zure besoak indartu bear dozuz.

Eta iñarkunari barriro eragiten eustan, jo...! jo...! jo...! didarrakaz aizkorakaden aldi-neurria jarten eustala.

Bein baten, Pirmiñ'en lasterketa-saioak ikustera joan gintzazan.

Aren ekitaldia amaitu zanean, Xanpa'k auxe esan eustan:

—Mutil ori arinlari bikaiña dogu, eta gai da Arraitza'ri aurpegia emoteko. Nire ustez, demaren giltza aizkora-ekitaldian datza. Emen, arek alde andirik kentzen ez ba'dautsu, Aranegi'ko leiaketea ikusgarria izango da, gitxitan ikusten diranetakoa, alegia.

Xanpa'ren eritxi onek mindu ninduan. Nire erakusleak ziurtzat eukan aizkoreaz Arraitza'ren atzetik azalduko nintzakela. Au zala-ta, ene buruari aalegiñak egitea zin egin neutsan, nire ebagierean obatzearren. Ordutik, lan-arteko ereti guztiak ustiatuz, ebateari baka-rean emoten neutsan. Noizbait esku-barrenak osatu yatazan, eta egunerik-egun besoak sendotzen yatazala oartu nintzan. Xanpa'ri

ez neutsan esan nire kabuz niarduala, bestelan gorriak esan leuskidaz. Dana-dala, bere garratzasuna ta guzti, noizean bein aren aurpegian onespeneke keiñuak igarten yakozan, nire aurrerapenak egiztatzean. Aspaldi aretan, erri-basotik etxe bakotxari banatzen yakon urteko egurketea, Bordazuri'tik igaro zan, bear izaten nebazan enborrak izan nengiazan. Olan, ba, ez da geiegikeririk esatea, erriko urte guztirako egurra, nire aizkoreak ebagita banandu izan zala.

Bein baten, dema -egunetik illabetera-edo, Xanpa, Alkatea ta irurok Belate inguruko pagadi batera enborrak aututeko abiatu gintzazan. Berebilla Belate'ko aldapan gora burrunbaka joiala, Xanpa'k auxe esan euskun:

—Dema-legeai jarrituz, leikide bakotxari sei enbor aututea dagokio. Arraitza'k egur bigunak naiago izango dauz. Zu Yon Ander, ostera, areitzen egur gogorrari oitu izan zara; enbor zail eta biurriak aukeratzea dagokigu, beraz, eta ain zuzen be, egurrik zimelena.

Pagadira eldu gintzazan, eta basoa zearkaturik, Xanpa atxartean egoan pago-sail baten gelditu zan, eta baratxe-baratxe bein eta barriz saldo guztia azterturik, noizbait margoz zortzi zugatzai gurutz bana marratu eutsen, au da, bear izandakoak baiño bi geiago bada-ezpadakoan.

Brrebillerantz jaisten gintzazala, alkateari auxe esan eutsan:

—Lenbailen etorri daitezela zortzi pago orrein billa, orain ilbeera dan ezker, gogortasuna dala—ta, egurra sasoirik onenean aurkitzen dalako. Dema-egunaren iruzpalau egun aurretik plazaratu dagiezala, enborrak atontzeko eta talankeretan untzakaz josteko. Aukeraturiko enborrak biurritan biurrenak dira. Toki arritsuetan sortzen diran zugaitzak, besteak baiño aukera gitxiago izanik, argalago, zimelagoak biuritzen dira, astiro azten dan egurra gogor egiten dalako. Begira pago au —irautsi euskun areitariko eder bat erakutsirik—, an goian aukeraturikoen sasoikoa da, baiña onen mako-billa ia arein bikotxa da, au lur aberatsean eta ezoan azi dalako. Nik uste, geuk plazaratuko doguzan enborrak, Arraitza'ren gogokoak ez dira izango, ez, arraioa...!

Dema-egunaren iru aste aurretik, pago-enbor batzuk etxera ekarri eustezan, areitan jardun nengian, auxe baizan benetako egurra artaratzeko. Xanpa'ren aginduai jarraituz, enbor biurriak ziran,

baiña niretzat egur gozo-gozoa azaldu zan. Enbor areik ondoen ustiatzearren, ebateak alkarren ondoan egin bear nebazan. Nire erakusleak enbor bakotxeko ebataldia ordulariaren bidez artzen eban, bere makillaz jo-lekuak erakusten eustazala, aalik eta zozpal egokienak ebagi nengiazan, baita erdiz askaturikoak jausi erazoteko. Arazo oneri, Xanpa'k garrantzi andia egozten eutsan. Sarri askotan auxe iñostan:

—Aizkora-leiaketan, arreta andiaz aalik eta aizkorakada gitxien emoteari begiratu bear yako. Au dala-ta, asikereako zozpalak enborraren neurriari egokitu bear yakoz. Luzeegiak baldin ba'dira, bear baiño geiago ebagi bear izango dozu, eta aitzitik, laburregiak izatekotan, biotzari ekitean, lekurik ezak, ebatea zailduko dautsu. Gaiñera, barruan zurik gogorrena aurkitzen da.

Alde bateko ebatea amaituta, beste aldetik asteko agintzen eustan atsedetik artzeke. Olan ba, egunik-egun nire ebagierea obatu egiten zan ordulariak erakusten ebanez. Gaiñera, berak ekarstazan aizkorak gero ta zorrotzagoak ziran, eta jarduna len baiño askozaz goxoagoa gertatzen yatan. Azkenengotariko egun baten, auxe esan eustan:

—Begira, Yon Ander, Arraitza ogei ta amabost urteko aizkolaria dogu, au da, aizkolaritzarako sasoirik onenean dago. Zu, ostera, ogei urteduna izanik, aren bizikaspén edo ezagueratik oso urrun zagoz. Bestaldetik, berak, mozketea amaituta gero, arinketeari ekin bear izango dautso. Au dala-ta, egur-ebatea aalik eta erosoan amaitzeko saiatuko da, eta orretarako pago-enborrik bigunenak plazaratuko dauz. Guk, ostera, zailenak. Ebataldia amaitzean, Arraitza zerbait nekatuta aurkitu daiten lortzen ba'dozu leiaketea irabaziko dogu, neure ta erritar guztien eritxiz, Pirmin lasterkari gorena dalako. Demaren giltza, beraz, zeugan dago.

Lau egun aurretik, Aranegi'ko pelota-lekura joan gintzazan. Une aretan bertan, gizon batzuk talankerak enborretan untzez josten ebezan. Enborren errenkada bakotxa, iru talanquera-gaiñean egokitzeko zan. Xanpa'k, Arraitza'k plazaraturiko enborrak zeatz-zeatz aztertu ebazan, eta abocean,

—Aizu —enborren goikalde ta beekaldean egiñiko leunketak ikusita esan eustan—, neuk asmatua lez, Arraitza'k egurrik bigunena aukeratu egin dau. Ia zeuk beartzen dozun lerrenak egitera...!

Azkenengo egun bietan, Xanpa'k aizkorea ikusi be ez egiteko, eta aalik eta atsedetik andiena izateko agindu eustan.

Orduko, gure lurraldean, Yandur-arana'n eta Arandibar'en batez be, aizkora-demaren giroa irakite bizian egoan. Etxe ta ardandegi guztietan leiaketearen gora-beerak baiño, ez zan besterik entzuten. Ni kalera oso gitxitan joan oi nintzan, baiña Pirmiñ'ek, jazoten zan guztiaren barri zeatzak emostazan.

Demaren aurregunean, bere oiko azken lasterketa-iñarkuna egin-da gero, Bordazuri'ra etorri yakun, eta gauzak esateko berak ebazan gatz eta piperraz,

—Aiko, Yon Ander —esan eustan—, ezin asmatzekoa dok gure errian eta ingurukoetan sorturiko giroa. Ik eta biok erronka galtzen ba'yoagu Arandibar'etik Ameriketara-edo anka egin bear izango yoagu, etxe askotan arkondarea baita barruko kaltzak be galduko yoezak-eta... Itzela dok lortu yoagun begirunea. Nik neuk beintzat esan yaikiat erritar guztientzat gaur gure osasuna arazorik garrantzitsuena biurtu dokala, baita Kepa Deunaren irudiaren aurrean, gure osasunaren alde kandelak piztu izan dozakala be. Olan jarraitzekotan, On Pirmin esango yaustiek...

Eta barre-gurea jabetu eziñik, kar-kar itzela bota eban.

Niri, baiña, ez yatan atsegin lurraldean zear sakabanatu izan zan demaren aldeko giroa. Nire gain neban erantzukizuna larria zan benetan, eta galtzaille gertatzearen oldozkunak larri-larri jarten ninduan. Orain, tximistindarraren ekarketea eta augaitik galdu leikezan diruak aztu izan ziran; demarako sukarra etxe askotan sartuta egoan, eta erritar askoren etorkia arriskuan nenkusan. Damu neban indar gustiakaz, dema aren lakioan sartu izatea, baiña berando zan arrezkero, eta ez neben beste biderik, gogo ta biotz guztiaz urrengo eguneko leiaketeari aalik eta adoretuen ekitea baiño.

Kepa Deunaren eguna, dema-eguna, argitsu ta ederra agertu zan. Meza nagusitik urtenda gero, jendearen jakinguratik iges egitearren, Pirmin eta biok azkenengo atonketak egin bear genduzalaren atxakiaz, Bordazuri'ra joan gintzazan. Bazkaldu ta bereala, Xanpa'ren agindu zorrotzari jarraituz, arratsaldeko bostak arte bazkalosteia izan genduan, baiña urduritasun andipean loak ezin ninduan

artu. Nire esrakusleak agindu izan eustan urduritasuna ez geitzearren, azkenengo unerarte pelota-lekuan ez agertzeko.

Arratsaldeko seiretan, aizkora-jokoa zazpiretan asteko zan-eta, Pirmin eta biok Aranegi'ra bideratu gintzazan. Ama ta aitita etxean geratu ziran dema-ikusteari uko egiñez, onek ekarri egikioen zauskadea larregi izango litzakearen bildurrez. Amak besarkatu ginduzan, eta sorbaldatik elduz, aiteitak auxe esan eustan:

—Aiko Yon Ander, Bordazuri izena gorengo maillan jarri egik, gero!

Aranegi'rako iru kilometroak astiro egin genduzan, erritik sartu barik, oi genduan lez Iturizaga'ko bidetik. Eldu gintzazanean, pelota-lekua jendez mukurru bete egoan, eta erlauntz erraldoi baten antzera, etenbako burrunba ozena aditzen zan.

Iru aizkora zorrotz-zorrotzak ekarrezala, urreratu yatan Xanpa, eta sarri askotsan esana, barriz irautsi eustan.

—Zozketea zure alde azaltzen ba'da, asteko autu egizu Arraitza'k plazaratutako enbor bigunen lerrokadea. Olan aurrea artuko dautsazu, eta onek adoretuko zaitu, dema bat irabazteko bearrezkoa da—ta. Urduri ikusten zaitut, mutil, eta au gauza txarra da. Nasai egon, eta zure baitan bildu zaituz, jendearen didarrai jaramon egiteke.

Gero, Arraitza'gana eroan ninduan, alkarren aurkezpena egitearren. Arraitza mutil lerden eta sendoa zan. Aurpegi begikoa eban, eta eskua luzatzen eustala, irribarreka auxe esan eustan:

—Poztuten naz zu ezagutzeagaitik, Bordazuri.

—Baita neu be —erantzun neutsan.

Jarraian, demarako abiamenak asi ziran. Bizkai'tik ekarritako epailleak enborrak aztertzen ebazan. Bitartean, korredoreek jarlekuen aurretik batetik bestera joiazan posturak artzearren, ezarpenak oi bizitan aldarrikatzen ebezala. Asieran, ezarpenak 100/70 gipuzkoarraren alde aldarrikatzen ziran.

Andik laster, epailleak, Arraitza, Pirmin eta irurok jendeari aurkeztu ginduzan, auxe iñoala:

—Ona emen Arraitza, Gipuzkoa'ko Goierrri'ko aizkolaria. Ogei ta amabost urtekoa, metro bat eta irurogei ta amazazpi zentimetroko goibeñoa, eta irurogei ta amabost kilokoa.

Jendea txaloka asi zan, eta adore-oiuak amaitu ziranean, epailleak barriro:

—Eta au Bordazuri'ko Yon Ander, Arandibar'koa. Ogei urte bete izan ditu, eta metro bat eta irurogei ta emeretzi zentimetro goibekoa izanik, bere pixua irurogei ta amar kilokoa da.

Au entzunik, jendea txaloka barriro, adore-oiuak nire alde jaurtiten ebazala.

—Ona emen azkenean, Txanobaita'ko Pirmin, arinlaria, Arandibar'koa au be, ogei urteduna, metro bat eta irurogei ta amar zentimetro goibekoa da, bere irurogei ta bost kilokin.

Barriro esku-zartak aditu ziran, eta oneik baretu ziranean, epailleak auxe aldarrikatu eban:

—Dakizuenez, erronka au bikotxa da. Lenengo zatian Arraitza'k eta Bordazuri'k amabi kanaerdiko enbor bana ebagi bear izango dabez, eta ebatea amaituta, Arraitza'k bost kilometroko lasterketeari emongo dautso. Bardin, Bordazuri'k bere arloa ebagita, Txanobaita'k arinketeari emongo dautso, eta elmarrara nor lenengo, axe irabazle.

Esku-zartak eta oiua jarraitu eutsoen epaillearen azalpenari, eta baretu ziranean, bitartekoen edo korredoreen aldarriak baiño entzuten ez zirala, epailleak zozketea egin eban.

Txanpona Arraitza'ren alde azaldu zan eta jakiña, enbor bigunen lerrokadea aukeratu eban asteko. Nik, beraz, Xanpa'k aututako enbor biurriak aurretik ebagi bear izango neukezana. Asi baiño len, Xanpa'k eretirako ekarren lenengo aizkorea emon eustan. Ekarrirako irutatik bi, enbor zimelentzat ziran, eta bestea bigunentzat. Gero, gutariko bakotxa, zegokigun enbor-gaiñean jarri gintzazana, ziziriko-eztandaren begira. Olan gengozala,

—Nasaitu zaitetz, Yon Ander —irautsi eustan Xanpa'k—, zozketeak gure aurka jokatu badau be, zu Arraitza baizen ona zara, eta ori nik neuk ondo dakit.

Xanpa nirekiko beti zorrotza azaldu izan zan, eta orain lez samur eta maitero niri berba egiteak, arritu ninduan benetan, baiña bereala ulertu neban jokabide barri orren zergaitia. Urduri ikusten ninduan, eta jabetasuna irabazi nengian, bigun eta gozo itz egiten eustan. Orduantxe bertan, zizirikoak ler egin eban.

Une berean aditu zan bion lenengo aizkora-zartadea. Xanpa'k makilleaz erakusten eustan lekuan, joten aalegintzen nintzan. Asi-rean baiña, menperatzen ninduan zan-dardarea zala-ta, ez neban leku egokian joten. Nire buruaren aurka aserre bizia sentitzen neban, baiña ezin... Urrundik antzera, nire erakuslearen itz adoretuak yatordazan auxe iñostala:

—Ez larritu, Yon Ander... Biotz on...! Arraitza'k erakusle ona ba'dau, nik ez dausat ari ezertan zor... Begiraizu non jarten dodan makillea... Olantxe...! Aurrera jo ta ke...!

Astiro-astiro nire jabetasuna irabazten neban, eta bigarren enborrean jarduten nebala, betikoa sentitzen nintzan. Agiri zan, baiña, Arraitza'k gero ta alde geiago kentzen eustala. Jakiña, berak egur bigunetan ziarduan, baiña ezin nengikeazan nire kezak uxatu. Barriro be, Xanpa'ren itz kemengarriak etorkidazan, auxe ziraustala:

—Naisatu, Yon Ander...! Berak egur bigunetan diardu-ta...! Gero ikusiko dogu...! Aurrera, mutil...! Gero ta obeto diarduzu...!

Irugarren enborra asten nebala, Arraitza'k boskarrenari ekiten eustan, baiña ni gero ta obeto aurkitzen nintzan, nire barruan biltzen nintzala. Jendearen burrunbotsak eta bitartekoen aldarriek orain ez eusten zauskadarik egiten. Alako baten, oiua ozen amaibekoa aditu zan: Arraitza'k bere lerroko azken enborra ebagi izan eban, eta nire lerroko lenengo egurrean ziarduan. Orduko, boskarren enborrari ekiten asi barria nintzan. Arraitza'k bere arloa 15'28"tan burutu izan eban. Noizbait, neuk be seigarren enborra ebagi neban, baiña jendea isillik egoan, nire aalegiña alperrikoa izango zalakoan, urrean. Lenengo ekitaldia 22'50"tan amaitu izan neban. Ariñeketan bigarren lerroko lenengo enborrera igon, eta ebateari emon neustan. Orduko, Arraitza irugarrenaren enbor-mozketea asi barria zan.

Lenengo enbor bigunaren ebateari emoten neustala, Xanpa'ri auxe entzun neustan, Arraitza'ri zearretara begiratzen eustala:

—Bai, jo gogor! Zuk oneri kendutako 7'22"ak ikusiko zertan azalduko diran egur denganiño orreik ebagi ostean...!

Nire lenengo enbor aretan asi baiño ez, adore bakana nitzaz jabetu zan. Axe zan bai egur gozoa, gozorik ba'da! Ordurarte ez neban iñoiz nire oin billutsen azpian olako enbor bikaiña ta epaibera oartu izan. Zozpal mardo zurizkak aidean zear egan egiten eben, eta Xanpa'k nekez ziarduan erdiz eratsiriko zozpalak makillaz jareitzeko. Aurrera joan-ala, agiri zan Arraitza ta bion arteko aldea gitxiten zala, eta nire erakuslea pozez ler-agiñean zirudian, etenbako oiue adoregarriak botaten eustazala.

Bigarren lerroko nire ebatea erditik joiala, nabari zan Arraitza atzeratu egin zala. Saieska begiratu neutsan, eta egiztatu aal izan neban arloa zailla billakatzen yakola; izerdia parrastaka erion, eta ezpanak estututa, begitarte illuna erakusan. Jendea, nire leikidearen atzerakadeaz konturatzen asi izan zan, eta zurrumurru baten erdian, korredoreak asten ziran barriro aldarrika, ezarpen barriak egiñez.

Ez dakit zer gertatu yatan orduan. Nire oiñarren azpian, pagoen enborrak neurekin bat egiten zirala oartzen neban. Eta iñoizkorik sendoen ebateari jarraitu neutsan, egurra gero ta bigunago biurtu izan bai'litzan.

Olan ba, astiro-astiro Arraitza'ri urreratzen nintzakion, jendearen eta bitartekoen oiue ta aldarririk ozenagotzen zirala. Azkenengo enborrean jarten nintzala, Arraitza'k bere azkenaren laurdena ebagi izan eban ozta-ozta. Bazirudian Xanpa pozaren-pozez zoratzen zala, eta oiue bizitan ebateari aalik eta indartsuen ekitea zirikatzen ninduan.

Eta azkenengo indarraldia egin neban. Noizbait, nire oiñarren azpian azkenengo enborrearen zati biak aldendu ziran eta ikoti egiñez, lurreratu nintzan. Une aretan bertan, berea ebagita, Arraitza'k arinketeari emoten eutsan. Bere alboan ibillera alaitsuaz bajoian Pirmin, eta laster pelota-lekuaren sarreratik ostendu ziran...

Jendearen oiue gortugarrien artean, eta barruko zarrastadea menperatu eziñik, Xanpa'k besarkatu ninduan. Ezin egikean auxe baiño esan:

—Ori dok, mutil, ori dok!

Epaikariaren ebazpena, ebatea biok batera burutua genduala izan zan, eta ain zuzen be: 38'47"tan.

Bereala, jantzi-aldategian txirrio bat artu neban, eta jai-soiñekoa ipiñita, Arandibar'tarren artean jesarri nintzan, nire arreben zorionak eta albokoenak artu ondoren. Orduan jakiñerazo eusten, arinketearren irugarren inguraketea asia zala, eta Arraitza aurretik eroso joiala. Inguraketa bakotxa kilometro batekoa zan, eta Aranegi'ko kale nagusietatik egiten zan, au da, erriko sarrerean egoan zubiraiño, eta emendik, ostera, pelota-lekuraiño.

Irugarren inguraketa-amaieraren begira gengoazala, kaletiko oiuek lasterkariak pelota-lekuan sartzeko zorian zirala adierazo euskuen. Alako baten, tximista atzera, Arraitza bakarrik sartu zan jendearen adore-oiuen artean. Elmarratik laugarrena egiteko biurtzen zanean, nire laguna sartu zan, berrogei ta amar metroko atzerapenaz. Elmarrea zapaltzen ebala, Arraitza'ren irudia atetik ostentzen zan. Arrituta nengoan Pirmiñ'ek erakusan ardura-ezaz. Au zala-ta, Arraitza'k bere aurrerapena nasai-nasai eroian, eta ebatea burutu izan eban baiño askozaz atsedendua emoten eban. Ikusleek txistuka asi yakozan Pirmiñ'eri sarreratik galdu arte. Nire aldetik ezin nengikean Pirmiñ'en ardurabakotasuna ulertu, askozaz obeto jarduteko gai zala banekian-eta.

Andik lau miñutura-edo, kaletarren oiuek iragarri euskuen barriro lasterkariak pelota-lekuan sartzeko zorian zirala. Eta ostera, Arraitza azkon baizen arin sartu zan, lengo alde bardiña Pirmiñ'eri kentzen eutsala. Azkenengo inguraketeari ekiteko elmarratik biurtzen zala, Arraitza'ren aurpegiak garaipen-irribarrea erakusan, ikusleen txaloak eta adore-oiuak bere alde otsegiten ebela. Lengo atzerakadeaz etorran Pirmin agertu zanean, txistu-ekaitz gortugarria aditu zan aren jarduna gaitzetsiz. Urteerantz biurtzen zala, Pirmiñ'ek lipar igeskorraz begiratu eustan, begikeiñu nasaigarria niri zuzenduz. Une aretan bertan, nire lagunak abiadea arintzen ebala iruditu yatan, eta itxaropen zoroa jabetu zan nitzaz. Pirmin ostenduta gero, isillune astuna edatu zan. Dema-bitartekoek ez eben dirurik aldarrikatzen onezkero, gure alde iñork ez eban posturarik egin gura-ta...

Bapatean, ozenagotzen zan barrunba itzela aditzen asi zan kaletik, orru amaibakoa biurtu arte. Alako baten, geutarren didar

eta esku-zartaden artean, tximista lakoa Pirmin sarrereatik agertu zan, eta zaplada batzutan elmarrea oinperatu eban oiur bizien artean. Bazirudian egurasketa laburretik etorrela, guztiz nasai emoten eban-eta, atsandirik erakusteke. Orduantxe, arnas-estuka ta lerrenak eginda, Arraitza agertu zan. Ainbaketak egin ondoren, geuk lortutako aldea 27<sup>o</sup>koa azaldu zan.

Jaietako soiñekoa erbillera, jantzi-aldategitik Pirmin agertu zanean, gure erriko alkateak zauskada andipean, Arandibartarren izenean zorion adoretua emon euskun txalokada andiaren artean. Erritar eta ezezagun askok be zoriona emon euskuen, alde guztietatik zapaltzen ginduezala. Noizbait, eta eretia ustiatuz, Pirmin eta biok jendetzaren artean ostendu ta kalean beera galdu gintzazan. Andik laster,

—Gosez il-agiñean nok, Yon Ander —esan eustan Pirmiñ'ek barrez—. Geu lango kirolari ospetsuek agiñai jarduna emon bear yautseguk, eta gaiñera ez edozelango janariaz.

—Zer yeritxak gozotegiko gure ezagunai ikerralditxu bat egitea...?

—Oba ez...!

Gozotegian azaldu gintzazanean, etxeoandrea urreratu yakun, eta besarkada bana emoten euskula,

—Ai, nire mutillok...! —barre-antza oiur egin eban—, errialde onetako izena gorengo maillan jarri dozue. Oraindiño gomutatzen naz, mukizu bi baiño ez izanik, Arandibar'tik zelan etorri zintzukuzan Gabonetan, etxeo zeregiñetan guri laguntzearren, arate pare banaren truk. Orain, mutil ederrak biurtu zarie, errialde onetako arakastea ain zuzen be...!

Gero etxeoai buruz itaundu euskun, eta jarraian mai baten aurrean jesarrierazoz, katillu bete kafesne eta gozopil-meta andia ekarri euskuzan. Askariari ekiten geutsala, Pirmiñ'ek auxe esan eustan:

—Ez yoadaz egundo be, oneik baiño pastel gozoagorik jan.

—Ez dok arritzekoa —erantzun neutsan—, oneik Bordazuri'ko arate-arrautzakaz egiñak dozak-eta...

Aretoa gaztediz beterik egoan, eta guztiek begiratzen euskuela,

jateari buru-belarri emon geutsan. Alako baten, zauskada bakan batek artu ninduan... Beste mai batetik, aingeru itxurako neska batek begiztaten ninduan. Neure begitadea beragan ipiñita oartzean, neskeak berea beeratu eban, ni ari begira lilluratuta geratzen nintzala. Ez neban ordurarte bera lako neskarik ikusi izan. Aingeru urre-billodun antzekoa zan, eta iñoiz ez oarturiko sentipen bakanak menperatzen ninduan. Urrezko adats dizdiratsupean, begi oztin xaloak zeru-zati bi langoak ebazan, eta aurpegi zurian, larrosa gorrimina zirudian abo irribarretsu gozoaren artean, edurrezko bitxien antzera, agin txikiak erakusten ebazan. Ezin nire begiak sorgindura aregandik kendu...

Alako baten jagi, eta beste neska-lagunekin aterantz abiatu zan. Aurpegiz aingerua bazirudian, azkaiaz erregiña emoten eban. Ezustean, Pirmiñ'en beso bateri oratuz, jagi ta urteerantz joan nintzan. Une aretan bertan, kaletik etorren biribilketa alaiaren zurrunbilloan ostendu yatan. Laster baiña, soiñez-soin joiala biribilketan ikusi neban barriro, eta bera ta bere neska-lagunaren artean egokitu nintzan, eskuai oratzen neutsela. Eskuaren gozotasuna...! Berak neurea bigun-bigun estutu eustan, eta zeozer esateko zorian nintzala, biribilketea gelditu zan. Orduan bertan, baten batek urreraturik besarkatu ninduan, auxe iñostala:

—Mutil, mutil, zure billa luzaro ibilli naiatzu. Non sartu zara, baiña?

Xanpa ber-bera zan. Arratsalde aretako garaipena zala-ta, zerbait txolinduta aurkitzen zan, eta menperatzen eban adorea jabetu eziñik, itz totelaz,

—Bordazuri —ziraustan—, Arraitza andia lur-jota itzi dogu! Bai, guztien eritxiz ez naz ezetarako gauza, amaituta nagoala, uskeria baiño ez nazala... Eta gaur, zer? Jende askok, benetako erakuslea izan naitekela ikusi aal izan dau, baita gai nazala txapeldun bat egiteko be...!

Lipar batez, begi gartsuakaz begiztatu ninduan, eta,

—Aizu, Yon Ander —jarraitu eban—, zeuk gura ba'dozu, urte bi barruan, Naparra'ko aizkolaririk onena biurtuko zaitut, eta beste bi igarorik, Euskalerrri'ko txapelduna izango zara. Bai, mutil, zeu-

gan aizkolari goren baten egiturea ta kemena dozuz. Jara emoidazu, eta iñoiz ez ikusiriko aizkoraren erregea azalduko zara...

Une aretan, kalean beera biribilketa baten katea geuganantz etorren, eta oneri bide egiteko, alkargandik aldendu egin bear izan genduan. Eretia ustiatuz alde egin neban, eta kalerik-kale nire aingeruaren billa asi nintzan. Dana alperrik, baiña. Noizbait, Pirmiñ'ekin egozan Iñese ta Matxalen ikusi nebazan, eta illuntzea asten zan ezkerero, laurok Bordazuri'ra abiatu gintzazan, ames bizi-tan niñoala.

Ama ta aitita gure begira egozan berantetsiak. Gau zorionsua igaro genduan, eta apari gozoari emoten geutsala, Pirmiñ'ek oi eban bizitasunaz arratsalde aretako gora-beerak azaldu euskuzan. Aizkora-ekitaldia margo biziakaz edestuta gero, arinketeari eldu eutsan, auxe zirauskula:

—Ebatea amaitu zanean, Arraitza'k zeozer nekatuta emoten eban, eta orduan aren aurretik joatea otu yatan, baiña berealaxe barruko zerbaitek: “Pirmin —esan eustan—, aurretik asi ta aurretik amaitu... orrek ez dautso leiaketeari ez gatzik ez piperrik emongo”. Orduan aren atzetik joatea erabagi neban, eta aurreko lau inguraketetan, nekatuarena egin neban. Boskarren ta azkenean, baiña, egitekoa ondo pentsatuta neukan, eta pelota-lekutik urtetean, arintasuna azkarturik zubira eltzean Arraitza atzemon neban, eta biurtzen gintzazala, eperdia erakutsi neutsan (barkatu, atzekaldea esan gura dot), eta kalean gora tximista lakoa niñoala, aren arnas-estua lerrinak eginda etorkidan. Baiña ni gero ta ariñago, noizbait elmarrea garaille zapaldu neban. Bai, Jaun-andreok, Bordazuri'ra tximistargia etorriko da, eta Txanobaita'ko Pirmiñ'entzat erriak lagunduta sei illabeteko zerbitzua baiño ez... Esan bear dautsuet, orraitino, gure garaipena Yon Ander'eri zor dautsagula, berak aizkoraz maisuki jokatuz, Arraitza nekatu-erazo daualako, eta au dala-ta, arinketea oso erraza azaldu yat.

Beti lez, Pirmin lagun zintzo ta apala agertzen zan. Neuk baiña, ziurtzat neban bera izan zala garaipenaren giltza.

Apalduta gero, aldarte onenean euskal eresiak abestu genduzan, eta gabardiaren inguruan lotara joan gintzazan.

Baiña gau aretan neugan zeozer betiko aldatu izan zala konturatu nintzan. Bizitza, argiz eta edertasunaz jantzirik agertzen yatan, eta illuntasunetik aingeru zoragarri baten begi oztiniñen irribarreak gogoaz laztantzen eustan. Maitasunak nire biotzaren ateetan dei egin izan eban. Axe bai zoriona...!



## LILLURA

Egun aretatik, nire bizitza argitasun barripean aurkeztu yatan. Dana len baiño ederragoa zan, eta goizetik gaberarte, maitasun-ames baten bizi izaten nintzan. Yandur-erreak'ko suzmurrak, ordu-rarte ez izandako eresirik zoragarriena bihurturik oartzen neban gogo-barruan. Bordazuri Naparra'ko bitxirik ederrena zan, eta errotatik etorkidan burrunbeak gau ta egun urrumatzen ninduan, urritasuna gure etxetik betiko joana zala adierazoten eustala. Ama iñoizkorik pozen ikusten neban. Aititak, nirekiko zaletasuna itzez agertzeko nakarra izanik, begietan noizean bein agertzen yakon dizdir bereiziak, bere maitasuna aldarrikatzen eban. Nire arrebek oiko lanetan ziarduen. Iñese'k batez be buru-belarri arrioa atontzen eban, Amilaz'ko mutil on batekin laster ezkontzeko zan-eta.

Bizitza amaibako olerkia zan niretzat, begi oztinietako aingeruaz ames egiten nebala, eta barruko ezin esan alako joran batek aregana nai ta ez nindaroala. Noizbait, bera barik zorionbakoa izango nintzakela konturatu, eta aren billa aalegin guztiakaz asi nintzan.

Jaiegunetako arratsalde guztietan, inguruetako errietara niñean nire biotzekoa idorotearren. Alperrik, baiña, asko aalegintzen banintzan be, ez neban iñondik ikusten. Egunen bidean, nire amesek arrenkura bizi bateri bide egin eutsoen, illabeteak igaroten zirala bera ikusi barik egiztatu nebanean. Barriro ikusiko ez neukelaren usteak zorotzen ninduan.

Ostera be, udagoi sorgingarriak zabaldia urrez jantzi eban, eta gero neguko urrats lotia danaz laster jabetuko zan. Beste urte

baten, 1936'ean, alegia, sartu gintzazan. Ogei ta bat urte beterik, Pirmin Iruña'ra gudaritza egitearren joateko zan. Aurregunean, Urtebarrian ain zuzen be, jaiegunetan oi eban lez gurera etorri zan bazkaltzera. Danok jaia aldarte onenean igaroteko saiatu gintzazan, baiña aalegin andiak egin arren, gure arteko oiko alaitasuna ezin gengikean irabazi. Illundu zanean, banan-banan agurtu ginduzan. Pirmiñ'en agurra artzean, amak ezin izan eban biotzaren isuria jabetu aal, eta malkoak eriozala, auxe irautsi eutsan:

—Pirmin, maite ori, arimarako galtzoriz inguraturik bizi izango az. Ez aztu otoitz egitea egunoro, gorputz eta arimaz garbirik iraun yaian. Geuk be gogoan izango augu etxeko beste bat lez. Biar, Aranegi'rakoan igaro adi emendik, iretzat zeozer atonduta egongo dok-eta.

Eta malkoen isuria ezkutatzearren, ama barrura biurtu zan. Enparauok ez genekian zer esan, eta begietan negarraren dizdira agertzen yakola, Pirmin Idurene'rantz abiatu zan. Izeko Ixidore il egin yakonetik, erri orretako sendi on baten etxean ostatua eban.

Urrengo egunean bazkal-ostean, Pirmin etorri zan barriro, gurean atondutako bide-zorroa jasotearren. Guztien zauskadapean, nire adiskidea agurtu zan, eta Aranegi'ra lagundu neutsan Iruña'rako berebilla artzeko. Bidetik ez genduan autu luzerik izan, biok sentipen illunetan aurkitzen gintzazalako, eta enparantzara elduta, erri-berebillaren ondoan isillean alkar agurtu genduan, itz egiteko gauza ez izanda. Neure izate guztia ezin esan alako naigabez menperatuta, errian zear etxerantz jo neban, gogotik nire adiskide miñaren urrutiratzea kendu eziñik.

Arratsalde aretan jaia izanik, Aranegi'ko kaleak isil eta bake-tsuak ikusten ziran. Giro goibel eta otza zan, arratseko illuntasunak ego astunakaz guztiari kadenezko ukitze berezia emotsala. Ibillera nakarraz errian zear niñean gogoa illuntasunean murgilduta. Erriko urteeran, nire ezagunen gozotegiko argiek kaleari erakarpent atsegiña emotsoen. Alako baten, katillu bete kafesne artzea otu yatan, arratsaldeko otza zelanbait uxatzearren, eta bidebatez nire ezagunak agurtzeko.

Sartu nintzanean, epeltasun gozoak inguratu ninduan, begiak argi biziagaitik keiñuka asi yatazala. Olan itsuturik nengoala, etxe-

koandrea urreratu yatan, eta oi eban lez besarkatu ninduan auxe ziraustala:

—Noz edo noz, Yon Ander...! Badozak illabeteak emetik azkenengoz azaldu azala, bai, aizkora-joko aretatik ain zuzen be. Jesarri adi, eta bereala oiko kafesnea ta gozopillak ekarriko yautsuadaz...

Ezustean, biotzaren zauskada zoroepen, dardarrez, zur eta lur geratu nintzan. Txoko batetik, alboan neska-lagun bat ebal, urrezko aingeruak zeru-oztiñezko begiak ninganatz zuzenduta ebazan... eta maitasunez il-agiñean sentitzen nintzala, aalegin andia egiñik zauskadea menperatzearren, urreratu nintzakien, eta.

—Jesarri al-naiteke zuekin? —ozta-ozta esateko gauza izan nintzan.

—Bai, aizkolaria.

Itz oneik esatean, neuretan jarri ebazan bere zafirozko begi sorgingarriak, irribarre zoragarri batek ezpanen larrosak edertzen eutsazala.

Gero, nik ez dakit zertaz egin genduan berba, ezta zein luzaro be. Gogoratzen dodan gauza bakarra, ordu bi begi-keiñu baizen arin joan yatazala da, edozein gai aututzat artuta. Bapatean, neskak berandu samar zala konturatu ziran, eta etxerako ordua zala. Askaria ordaindu, eta etxeraiño laguntzeko baimena eskatu neutsen, eta baietza emonda, eritik urten gintzazan. Donamariñe'koak ziran, eta arako bidea artu genduan. Ez naz gogoratzen neskalagunaren izenaz, baiña nire aingeruarena, Irene zan, eta niri izen au eresi zoragarriakaz inguratuta iruditu yatan.

Bidean gora giñoazala, biurgune baten, antxiña Txeru ostuta, ijitoek kapardia jarri eben zelaia agertu yakun, eta jazoerea gomutatuturik, neskattillai ekintza aren gora-beerak edestu neutsezan. Barre ta barre egin genduan, eta oartu barik Donamariñe'ko sarrerean aurkitu gintzazan. Neskagaluna etxean lagata, Irene'ri berenaraiño lagundu neutsan, eta alako baten,

—Aino, Irene —esan neutsan—, non izan az aspaldi onetan? Ez aunat iñondik ikusi. Azkenean uste izan naiunan erbestekoa intzanala-edo...

—Ez, baiña lengo uda ta udagoi osoa, Iruña'ko izeko batenean

emon yoadaz, geisorik yeuguan-eta. Aspaldi onetan osatu dok, eta emen naiagok barriro etxekoekin.

Autu onetan giarduala, Irene'ren etxera eldu gintzazan. Etxe ederra zan. Egoera oneko lurgiñen etxea zirudian. Alkarri agurtze-ko garaia zan, eta,

—Aino, Irene —esan neutsan barruko jorana jabetu eziñik—, nora oa jaiegunetan, non ikusi aikenat?

—Geienetan, neska-lagunekin Aranegi'ra joaten gozak, arratsaldean izaten dokan dantzaldira.

—Datorren igandean, an izango natxan.

—Agur ba, Yon Ander, ordurarte.

Itz oneik esatean, bere aingeru-begiak nireetan jarri ebazan, eta zorionez blei-blei, Bordazuri'ra biurtu nintzan, neguko otz andia udabarri epela antzaldaturik. Giroa otz eta illuna zan, baiña nire barruan, begi oztñen laztanek oro edertzen eusten.

Ordurarte ez nintzan iñoiz orren zorionsua izan, eta goizetik gaberarte etenbako ames zoragarrian bizi izaten nintzan, eta gaba elduta, nire urrezko aingerutzaz ames egiten neban.

Arrezkero, jaiegun guztietako arratsaldeetan, Aranegi'ra joan oi nintzan aste osoko itxaroz berantetsia, nire maitia ikustearren. Eguraldi ona izanik, dantzaldia pelota-lekuan ospatzen zan, eta txarra izanik, eleizpe zabalean. Aranegi'ko erestaldea entzute andikoa zan, eta joaldiak txistuakin aldizkatzen ziran. Nik lotuan dantzan egiten ez nekian, eta au zala-ta, txistu ta ttun-ttunaren soiñuz egiten genduan. Aste osoa itxaron ondoren, ikusten nebanean, onetaraxe agurtzen ninduan.

—Kaixo, aizkolaria...!

—Arratsaldeon, Irene —erantzun oi neutsan zorionez gaiñezka—.

Gero, dantzan eginda gero, errian zear osteratxu bat egiten genduan, eta jarraian, nire ezagunen gozotegira joaten gintzazan askariari ekiteko. Bere aurean jesarrita eta aren itz gozoek laztanduta, beragandik soak kendu eziñik begiztatzen neban. Ez nintzan gauza andirik mintzaten, baiña nire barruan maitasun-ames batek

izate guztia menperatzen eustan. Aren otseiña biurtu nintzan, eta gau baten, Donamariñe'ko sarreran bere neska-laguna etxean itzita, biok bakarrik Irene'ren etxera giñoazala, barruko maitasun-jarioa jabetu eziñik, zauskadaz dardar, nire maitasuna autortu neutsan. Isillune baten ondoren, aren begi zafir-oztñiak neuretan josita, mintzo gozoaz maite ninduala be, esan eustan. Zorionez il-urren oartu nintzan, eta alkarri itz gozoak esaten geutsala, etxerako ordurarte iraun genduan.

Gau betean Bordazuri'ra biurtzen nintzala, izarrek nirekin batera zorionez dadar egiten ebela iruditu yatan, Yandur-erreak'k arima-barruan eresi zerutarrak isurtzen eustazala. Gabaren edertasuna...!

Zorionak biotz-ateetara dei egin izan eustan. Lilluratuta, irudimenezko mundu baten, astea emoten neban, noiz etorriko zan berarekin egoteko egunaren begira, eta au etorrita, aldia laztan zerutarra baizen arin igaroten zan, gogoia amesetz beterik izten eustala. Ez dot uste, ni baizen zorionsurik mundu guztian izan litzakenik.

Udabarriak barriro be edertasunaz jantziten eban gure txokoa. Amak eta aititak eskatuta, bein baten Irene Bordazuri'ra ekarri neban ezagutu egien. Etxea ta inguruak erakutsita gero, errotara eroan neban, jasaniko neke ta itxaropenak adorez beterik azaltzen neutsazala. Gero, askari gozoa izan genduan, amak bitartean amai-ka itaun nire emaztegaiari egiten eutsazala. Sutondoko zizaillutik, aititak pipa-erreteari emoten eutsan, lantzean bein gure alkarrizketan tartekoa zala. Nire arrebak, Irene'ren mintzo begikoaz eta onen edertasun dizdiratsuz lilluratuta zirudien. Nire emaztegaiarekin egoten nintzanean jazoten zan lez, aldia laster igaro zan, eta noizbait etxera lagundu neutsan.

Bidean zear giñoazala, bere eritxia jakiteko irrikan, auxe itaundu neutsan:

—Aino, Irene, zer yeritxan gure Bordazuri ta etxekoai...?

—Ire etxekoak atsegin yatazak, eure arrebak zerbait lotsatiak badozak be. Yirudienez, mundu askorik ez yoek ikusi gixajook...

—Ez don mundu askorik ikusi bear —eten egin neutsan piper—

tuta— benetako neskak izateko. Munduak baiño, ezikereak irakasten yon geiago, eta nire arrebak doaiez beterik yagozan.

Irribarre dizdiratsuaz inguratu ninduan, auxe ziraustala:

—Ez yauat esan ire arrebek doairik ez yoekanik.

Egia zan, baiña ezin nengikean nigandik kezka antzeko zauskadatxua uxatu. Ibilli genbiltzala isillik iraun genduan, eta isillunez gogait eraginda,

—Irene —itaundu neutsan—, zer yeritxan gure Bordazuri, errota ta guzti...?

—Leku ederra dok, ederra, baiña...

—Zer baiña?

—Basabazter baten yagok, eta... bayakik bearrezkoa askotan eskura ez, esaterako osagillea bear dokanean...

—Idurene'n munduko osagillerik onena yonagu, eta a ez yabilan aiko-maikotan geisoren bat kusi bear yonanean.

—Olan izango dok, urrean, baiña Aranegi'n edo onen antzeko edozein erritan gura aiña eskura izaten dok, eta gaiñera, lagunak, dendak, alkarbideak...

Autu onetan giarduala, bere etxera eldu gintzazan. Nik ez dakit zelako aurpegia erakutsiko neuken, baiña agurtzean, irribarre argitsuaz auxe esan eustan:

—Nire aizkolaria, gaur betillun ikusten aut. Ez yaiguzan autu gogaikarriak erabilli, gerokoak auzi guztiak garbitzen yozak-eta.

Etxera biurtzen nintzala, aren irribarre sorgingarriak laguntzen eustan, baiña barruko txokoren baten, uxatu ezin nengikean arrenkura batek marrazkatzen ninduan.

Amaren abotik, Irene'k zelako zarrastadea egin izan eustan jakin gura neban, baiña egunak igaro ta amaren eritxirik ez. Bein baten apalostean, ama, aitita, eta irurok sukaldean gengoza, amari auxe itaundu neutsan:

—Aizu, ama, badira egun batzuk Irene etorri yakunetik. Zer deritxazu neskeari, ama?

Amak, zenbait une isillik iraun ondoren,

—Yon Ander —esan eustan—, neska ederra dok, ederra. Nik iñoiz ez ikusitako irribarrerik zoragarriena erakusten yok. Alaia dok, ain zuzen be, gizonak erakarten yozakan orretarikoa.

Ama isildu zan. Nik baiña, besterik entzun gura izaten neban. Gaiñera, amaren itzetan adore gitxiko zeozer ezkutua igarten neutsan. Gogait eraginda onetaraxe mintzatu nintzakion:

—Diñozuzanak agirian dagozan gora-beerak dira, ama. Neuk, atsegin yatzun ala ez, jakin gura dot.

—Ezin yaikiat esan, seme. Edonor ondo ezagutzeko luzarotxu bear dok, eta neska orrek gurean ordu bi baiño ez yozak emon.

—Aiko, Yon Ander— aitita tartean sartu zan—, neska bategan aurkitu bear dokana, gogo-biotza ta zentzuna dozak. Gorputzaren edertasuna, urteen ekaitzek erauzten yaroekan gauza dok; gogoarena, ostera, betikoa, gero ta geiago dizdiratzen dokan bitxia. Eutso oneri, gizon baten bizitzean beiñena dok-eta.

Ama ta aitita ondo ezagutzen nebazan, eta Irene'ren aurka ezer esan ez arren, niretzat argi egoan neskea gogoko ez ebela, eta onek mindu ninduan. Bereala, baiña, baretu nintzan. Irene zoragarria zan, eta ziur nintzan aldiaren bidean amak eta aititak benetan ederretsiko leukiela.

Udabarria aurreratu-ala, Irene'ganako maitasuna sendotzen yatan, eta oroz gain edatzen zan aroaren lillurak, nire maitasun-amesak etenbako olerkia biurtzen eustazan. Ez neban iñoiz uste izan, orren zoriontsu izan neitekenik.

Ez neutsan aitatu barriro Irene'ri, Bordazuri'ra ezkontzeko zala. Au niretzat ezinbesteko arazo zan, eta ziur nintzan aldiaren bidean gure txokoa atsegin izango litzakiola. Zelan besterik izan? Gero ta maiteago izaten ninduala iruditzen yatan, eta maitasunak, etxola ezaiña jauregi dizdikoia biurtzen dau. Bestalde, niretzat beintzat, Bordazuri iñongo jauregi baiño ederragoa zan. Non idoro Yandur-erreka'ren eresia ta errotako burrunbea baiño osagai obarik?

Udako asieran, Pirmin gure artean izan genduan oster a be. Garagarrilla'ren lenengo igandean, oiturari jarraituz Bordazuri'ra etorri zan eta zer esanik ez, bai bizitasun eta gatzaz jakiñerazo euskuzan Iruña'n igarotako gudaritza-aldiaren gora-beerak...! 1936 urteko Garagarrilla zan...

## EKAITZA

España'ko laterrian errepublikak agintzen eban, eta beronek ekarritako askatasunaz, Euzkadi'n abertzaletasuna nonai indar barri-tuaz sortzen zan. Bizkaia'n asitako ta gero Gipuzkoa'n zear edatu izan zan abertzale-sentipenak, Naporra'n astiro baiña etenbarik, askoren biotz-ateetan erantzuna aurkitzen eban.

Gure lurraldean, Yandur-arana'n, ereintzalea On Mikel osagi-ilea izan zan. Euskaldunen gogoak gerturik egozan, eta Gipuzkoa-'tik etorritako gizon zintzo onek, lur ongarritua idoro izan eban abertzaletasuna zabaltzeko, kontuan arturik, gaiñera, gure erritarren artean eban begirunea.

Olan ba, aren eragintzapean, lenengo bera bizi zan Idurene'n, eta gero Amilaz'en eta Arandibar'en, neska-mutillen artean ezpata-dantzari ta gorulari-taldeak sortu ziran, eta jaietan txistu ta ttuntun-soiñuen artean dantzan egiten genduan.

Baziran, ordea, eusko pizkunde au begi onez ikusten ez ebe-nak: betiko jauntxuak, karlatar alderdikoak, gaztedia euren atzapa-rretatik alde egin ekien jasan ezin egikienak. Amorruez beterik, iñon diran iñondikoak egozten eutsiezan abertzaleai, ots, guztien aberria zan España iraintzen ebela, benetako katolikoak ez zirala etab. Eusko abertzaletasuna, baiña, gora ta gora joian ezkerero, jauntxuen gorrotoa gero ta andiagoa zan. Ezin eben iruntsi errepublikea. Beti amesetan zelan edo alan, indarkeriz jakiña, errepublikea zapaldu ta barriro erriaren nagusiak izatea. Erriaren jaurlaritzak España'n bost urte zirauan, eta arein amorruek ez eban mugarik ezagutzen.

Arandibar'en gure ezpatadantzarien taldea eratu izan genduan, tartekoak izanik: Pirmin, Txanbo, Malenbaita'ko anaiak, neu eta beste batzuk. Jardunaldiak, Malenbaita'ko atadi zabalean izaten genduzan, astean birritan, illunduta gero, oiko lanak amaituta. Eretirako Aranegi'ko txistulari bat etorten yakun guri irakasteko, baita neskatil gorulariai be.

Giro onetan murgilduta bizi izaten nintzan, oiko lanak, ots, errotea zainduz, etxeko ortuariak eta arrautzak astean bein, larunbatetan, zeira edo merkatura eroaten nebazala, eta zer esanik ez, goizetik gaberarte Irene nire maitiaren oroitzaz lilluratuta, noiz etorriko litzaken urrengo jaiegunaren begira.

Garagarrilla'ren asiarean, Iñese ezkondu zan Amilaz'ko etxe aberatseko okiñarekin. Ospakizun ederra izan genduan gure erriko eleizean, eta eztegua Aranegi'ko jatetxe ospetsu baten gertatu zan. Egun gogoangarria benetan. Irene, nik eskatuta, jaira dei egiña izan zan, eta aren edertasun ikusgarriak guztiakan zarrastada andia egin eban.

Il aretako azken igandeko meza-ostean, militarrek errepublikaren aurka asaldatu izan ziralaren zurrumurrua bala-bala zabaldu zan, eta ondorioz, leku batzutan eraiketa izugarrien zaratea be bai. Barriketa oneiri ez neutsen jaramon andirik emon, len be oneitari-ko matxinada batzuk jazo izan ziran-eta, azkenean gauzak lengora biurtzeko. Gaiñera, banaban zertan oldoztu esamesetan astirik ez galtzeko, eta gaiñera, esaera zaarrak diñoanez: "Urrutiko intxaurrak amalau, bertara joan eta lau". Egun aretako bazkarian Pirmin gurekin zala, entzundako barriai ekin geutsen baiña garrantzi andirik emoteke.

Urrengo igandean, Irene ikustetik, oi neban lez, Iturribieta'ko bidetik Bordazri'ra ames zorotan niñoan. Ozkarbiko gau ederra zan, ilbeteak Yandur-arana'ri lillura sorgingarria emotsala. Illargipean, bidea zidarrezko xingola zirudian, nire inguruan, Yandur-erreka, mendiak, basoak, eta Arandibar'ko etxeen dizdir moteldua iratxoak bai'litzazan agertzen zirala.

Etxera eldu baiño ez, garrantzibako autu bateri emon geutsan. Ama pozik egoan, On Martin, Bilbao'ko gure laguna oporrak emoteko laster etorriko litzakigulako. Orduko, berak erabilli oi

eban gelea gerturik egoan. Apariari ekiteko zorian gintzazala, atean kox-kox egin eben, iñoren didarrek lagunduta. Atea edegi neban, eta tximista alakoa Pirmin sartu zan. Atsandika aurkitzen zan, aurpegi zurbillean begi gaztainkarak izuz beterik ebazala. Idurene'tik aalik ariñen etorren, urrean. Noizbait itz egiteko gauza zanean,

—Iges egik, Yon Ander —doi-doi esateko gai izan zan—, ire billa yatozak-eta...

—Baiña zer yiñoskuk, Pirmin —eten egin eutsan amak—, burutik eginda ago, ala...?

—Ez, Andrea, ez. Entzun egistazue ondo, eta mesedez aintzakotzat artu esaten noatzuena. Etxera apaltzeko asmoz niñoala, eta Kapelenea ardandegiko atzekaldeko etxartetik igaroten nintzala, autu baten zatiak aditu nebazan. Kirtenokerra'k eta bere lagunek berbetan ziarduen, eta On Mikel izena entzunik, leiora urreratu ta adi-adi gelditu nintzan. Une aretantxe, Kirtenokerra'k auxe iñoan:

—Bai, lagunok, atzo bertan, eta badaezpadakoan gure arerio batzuk jazoten danaz jakitun jarri baiño len, On Mikel madarikatu ori arrapatzea ebatzi genduan. Nire anaia ta biok, Aranegi'tik etorritako geutar batzuekin osagillenera joan gintzazan gaberdian. Atean jota gero, Gorenbaita'koen izenean gentozala, etxeko amama geisorik egoala esan geutsan. Arin baten jantzi, eta atean azaldu zan. Ikusi ginduzanean arritu egin zan, baiña bera oartu baiño len, besoai elduta berebillera bultzaka sartuerazo genduan.

Ona elduta, Kirtenokerra'k bakarrizketeari eten egin eutsan barre egiteko, eta,

—Bai lagunok —jarraitu eban—, eroaten genduala, zergaitik eta nora eroaten genduan itaundu euskun. Zeozer ikusi egian esan geutsan, baiña berak larrituta emoten eban. Olan jarraitu genduan Aranegi baiño arantzago, Bidaso'ko Bera baiño aurretiago dagoan arrobiraiño. Badakizue zein arrobi aitutzen dautsuedan:españar gaiztoai beste mundurako txartela emoten dautsegun leku baztertua, alegia. Berebilletik jatsi genduan, bere azkena zala igarri eban, eskuak lotu geutsazanean batez be. Lotu baiño len, bere emazteari idazki labur bat egitea itzi gengiola eskatu euskun, baiña guk ezetz, ez egoala idatzi bearrik, bere emaztea jakitun ipiñiko gendukela. Orduan, unetxu batez bakarrik itzi genduan, eta lur-gaiñean belau-

nikaturik, burua makurtuta otoika asi zan. Gero, "gerturik nago" esanez, gure aurrean tinko-tinko geratu zan. Su-iskilloak beragantantz zuzendu genduzanean, madarikatu arek, "Gora Euzkadi askatuta!" oi ugin eban. Lurrera jausi zanean, tiro batatz lokia zulotu neutsan, eta...

Une aretan, amak oi ugin larria jaurtita, eskuakaz aurpegia estaldu eban negarrari emonez. Aitita jagi zan ukabillak estu-estu eginda, eta didarka auxe esan eban:

—Azurbaltz madarikatuok, Kain zitalok...!

Negarrari eutsi eziñik, Matxalen'eri isil-isillik malkoak eriozan aurpegian beera. Pirmin'en oi ugin larria aditu zan orduan:

—Au ez da negar egiteko eretia. Entzun egistazue ondo...! Emen ez da amaitzen arazoa. Kirtenokerra'k gure On Mikel'en erailketa izugarria azaldu ondoren, auxe eratsi eban:

—Osagilllea garbitu izan dan lez, gure arteko batzuk be jausi bear dira. Gau onetan bertan, Bordazuri'ko Yon Ander'en billa joango gara, ori ingurumari onetako txarretarikoa dogu-ta. Ia madarikatu ori On Mikel'ekin inperuan alkartzen dan. Gero, inguru oneitan garbitu bear doguzan bste piztiak be badira, ara Txanobaita'ko Pirmin, Malenbaita'ko anaiak, Txanbo, Txeru ta beste batzuk...

Pirmin'ek Kirtenokerra'ren asmoak jakiñerazoten euskuzala, aurpegia makurtuta, aulki baten nirauan, gure lagunak zirauskunaria siñistu eziñik. Ordurarte iñoiz ez ezagaturiko sumin batek menperatzen ninduan. On Mikel erail...! Mundu guztiko gizonik onen eta zuzenentzat nebana... Ezin nengikean siñistu, ezin...!

—Aiko, Yon Ander —esan eustan Pirmin'ek ozenki—, iges egik berandu izan baiño len, iltzailleak ire billa laster etorriko dozake-eta. Orain entzun egistazue ondo: banoa Malenbaita'koak, Txanbo ta Txeru jakitun ipinteko, eta gero zelan edo alan konponduko gara mugaz bestaldera igaroteko. Ator eu be, Yon Ander, eta alkarrekin iges egingo yoagu. Baztan'go Perurena'koengana joango gozak, eta biar gabaz, Baigorri'ra. Orain agur guztioi...

Amak besaratu eban negarrez, eta "agur" barriro esanez, bere egitekoa burutzeko urten egin zan.

Aititaren abots larriak orduan,

—Yon Ander —oi ugin eustan—, gertu adi aalik ariñen, azurbaltz madarikatuok ona baiño len. Arindu adi, baiña, arindu...!

Amak bitartean, zorrotxu baten bidai luzerako janari batzuk sartzen ziarduan, eta bere gelako ezkutunean gorde eroian dirua artu nengiala agindu eustan. Orduko gaberdia zan, eta arindu bear nintzan iltzailleek arrapatu ez nengien.

Arin baten zurubian gora joan nintzan, eta amaren diru-ekzutunetik arrapalada baten diru batzuk artu nebazan. Barruko eziñegon batek akullutzen ninduan, Kirtenokerra-ta, ni urten baiño len etorri zeitekidazan bildurrez. Zurubian beera asteko zorian nintzala, kanpoko didarren artean atean zartada batzuk aditu ziran. Erailtzailleak an egozan, eta ni urten-eziñeko kaiolan arrapatuta nengoan. Izerdi larri batek busti ninduan zer egin ez nekiala... Orduantxe nire gelako leiora joan nintzan. Une aretan bertan atea indarka zabaldu zan, eta eskaratzean bizpairu gizonen didarrak aditu ziran. Leioan zear begiratu neban ikoti batatz iges egiteko asmoz, baiña begirari iskillodun bat etxurreko alde batetik bestera ebillen, igesa debekatuz. Leioa, saietseko orma baten egoan ezker, begiraria aldizka agertzen eta ostentzen zan. Orduan egitekoa ebatzi neban. Begirariaren ezkutualdi bat ustiatuz, leiotik urten eta untz-adarrak eutsirik, kanpoko aldetik eskegita geratu nintzan. Zorio-nez, untzaren adarrak sendoak ziran, eta ormeari tinko eratsita, geldi-geldi egon nintzan. Une aretantxe gogora etorri yatan, zelan nire eskaria zala-ta, aititak ez ebala sustraitik atara, Bordazuri'ra etorri barriak gintzazala. Zelanbait, Jaungoikoak babesten ninduan.

Leioan zear, sukaldean gertatzen zan autuaren zatiak yatordazan.

—Txarri madarikatuok...! —Kirtenokerra'k oi ugin egiten eban— Ez ete dozuez gure deiak entzun, ala? Zertan zenbiltzen ez zabaltzeko? Yon Ander, oillotzar ori ezkutatzeko asmoz, urrean, ezta? Goazen lagunok, aztertu dagigun piztitegi au...!

Nengoanetik, kortako txoko guztiak arakatzen ebezala aditu nebazan, eta gero, areitariko bat etxeko atean jarrita, beste biak zurubian gora igonik, lo-gela guztien arakatzeari emon eutsen didar eta zarataka. Gero, aiñenen artean nire gela aztertu eben, gure aurka gorriak jaurtiz. Iñon azaltzen ez nintzala egiztatu ebenean,

sukaldera jatsi ziran, eta Matxalen'eri Kirtenokerra'k auxe itaundu eutsan:

—Aino, neska petral ori, non yagon ire anai zikiña...? Gure jendeak Uranzu ta Tolosa jareitzen joan dozanala, ire anai oillotzarrara neskatillen gonon artean, ezton? Esaidan non yagonan bera, ostantzean...!

—Ez dakit, arratsaldean urten egin zan, eta oraindiño ez da etorri.

—Egia al-don, urdanga ori?

Aititaren didar asarratua aditu zar orduan, auxe zirautsala:

—Ori al-da, neska bateri berba egiteko modua?

—Agure madarikatu ori...! —erantzun eutsan Kirtenokerra'k—nork emon dautsu berba egiteko baimenik?

Orduan ukaldi bat eta gorputz baten jaustea aditu zan. Une berean, amaren oiua entzun neban, eta,

—Urten zaitzeze etxe onetatik —jaurti eutsen amak—. Zer egin dautsue nire aita gaixoak, orren txarto erabili dagizuen?

Gero, amaren negarra aditu zan. Jarraian, oiua ta zemaian artean, erreketek areik urten ziran, eta andik laster, Arandibar'era bideratzen zirala, langa-ostetik itzuri ziran.

Arin baten gelara sartu, eta oldar bizian eskaratzera jatsi nintzan. Aitita jesarrita egoan, eta amak bekokian beera zauri batetik erion odola garbitzen eutsan. Ikusi ninduanean, aititak irribarrez auxe esan eustan:

—Ez larritu, Yon Ander, jaustean aulki bat ukutu yoat beko-kiaz. Ez da gauza andirik. Orain entzun ondo: iges egik aalik ariñen, iltzailleok luzaro barik emen izango yoaguz barriro-ta.

—Bai, seme, urten egin bear yok. Bide-zorroa gerturik yagok. Dirurik artu al-yok?

—Bai, ama, eta bidai luzerako be.

—Agur, Yon Ander, Jaungoikoak gorde aiala, seme maite ori... Entzun, Baigorri'ra eldu aitenean, idatzi eguk baretu gaitezen.

—Ama, ez noa Baigorri'ra...

—Nora ba?

—Neuretarrekin, aberriaren alde ekitearren. Ezin dagiket jasan, On Mikel'en sarraskia. Bera il egin ba'dabe, abertzale guztien aurka joango dira, eta nire barrukoak aberriaren alde burrukan egitea agintzen daust, eta...

—Ondo, Yon Ander —aititak eten egin eustan—, gizaseme zintzoek barruko esanari jarraitu bear yautsoek. Eta aztu baiño len esan bear yauat, oroituko azanez, Bilbao'n Patxi yeritxakan ire aita zanaren anai bat bizi dokala. Bayakik, ire osaba ori gazterik ara joan zoan, eta gitxi gora-beera ire adiñeko seme bi yozak. Eretia izatekotan, ikertu egik eta olan ez az ain bakarrik izango. Orain urreratu adi...

Urreratu nintzakion, eta erpuruaz iru bidar gurutz-ikurra egin eustan bekokian, eta gero, aurpegian beera negar-angulu lodiak eriozala, estu-estu besarkatu ninduan.

Amaren besarkadea luze-luze izan zan. Banekian, ni joaten iztea berarentzat naigabe izugarria zala. Aldentzea, apur bat iltea dala, diño esaera batek...

Jarraian, bide-zorroa artuta, Matxalen'eri nirekin urten zeitela esan neutsan, eta kanpoan gintzazala,

—Aino, Matxalen —esan neutsan—, esaion Irene'ri gertaturikoa, baita beti-beti biotzean eroango yonadala be. Goiz guztietan lenengo oroitza ta gabeko azkena berarentzat izango dozanala, esango yautsan, eta ni be ez aztuteko. Orain, agur Matxalen, zaindu eizan ama ta aitita.

Alkar besarkatu genduan, eta malkoai eutsi eziñik, bidean gora asi nintzan, Idurene'ko bidea artzen nebala.

Ez neban atzera begiratu nai. Eta olan, neure biotzekoak eta Bordazuri zoragarria atzean itzirik, lau urtez iraungo eban naigabez eta odolez zipristindutako, nire bizitzako ekitaldi mingots bateri, asiera emon neutsan.

Illargi beteak gaba zidarrezten eban, eta ondo argituriko bidexkatik abiatu nintzan. Idurene alde batera lagata, Amilaz'erantz ekin



neban, arrapatu nengien bildurrez bidezabala erabilli barik, eta olan mendietako zidorrak ustiatuz, Gipuzkoa'ko mugarantz abiatu nintzan.

Bordazuri'ko alderantz goizabarra igarri zaneko, zidortxua itzita, sastraka batera jo neban, eta ondo gordeta, zorrotxutik apur batzuk jan nebazan, jangar aurkitzen nintzan-eta. Gero, lo egiteko asmoz etzanda jarri nintzan, baiña loak ezin ninduan artu. Ez nengikeazan gabeko jazoerak burutik kendu. Noizbait, eguberdia igarota, ames urduriakaz menperaturik, lo geratu nintzan. Itxartu nintzanean, eguzkia ostentzeko zorian egoan, eta mokau batzuk arturik, barriro ekin neutsan bideari.

Laster agertu zan iretargia, eta ibarretara jatsi barik, mendirik-mendi, sarkalderantz beti, gaba aienatu zan, eta egunsentiko atzamar larroskarak ozkorria marrazten ebela, txapardi baten ezkutatu nintzan. Nekaturik baita gosetua aurkitzen nintzan. Asetu arte janda gero, etzanda ta laster, loak artu ninduan. Arratsalde-erdian itxartu nintzan, eta aldamenak begi zorrotzaz aztertuta gero, nire norabidea aukeratu neban.

Eguzkia ostentzen zanean, barriro ekin neutsan bideari. Kirten-okerra'k esanda ebanez, asaldatuak Tolosa artzeko asmotan ziran, erri au beraz, gutafren eskuetan egoan. Gitxi gora-beera banekian non aurkitzen zan, baiña barrutia ez neban ondo ezagutzen. Barriro be, menditan zear bideratu, eta gaba amaitu zaneko, pagadi baten ezkutatu nintzan. Nekatuta nengoan ezkerro, luzaro barik lotan asi nintzan. Alako baten, tiroketa-ots gogor batek iratzarri ninduan. Ezkerraldeetik su-iskilloen dunbotsak gero ta ozenago aditzen ziran. Zutunduta, pagadiko ertzero jo neban, eta eguzkipean, ezkerreko ibarrean, erreketete-talde baten txapel gorriak arrats garbian ikusi nebazan. Dunbotsek arratsaldean zear iraun eben. Illuntzea baiño len, erreketeten aurrerapena eragotzi izan zan.

Estu ta larri aurkitzen nintzan. Nire ainbaketeak, jo-mugatik ur samar nengoala iñostan, baiña erreketeeekin topo egin nengikean, eta olan izanik, larri ikusiko neuke neure burua. Gautu zanean, illargia odeiek ezkutatua zala egiztatu neban, eta ereti onek poztu ninduan, igesa errazagoa izango zalakoan. Nire egitekoa ondo ausnartuta neban. Mendietako tontorretatik joango nintzake, lurreko gora-beera guztiak ustiatuz. Abiatu nintzan ba, eskuman

jagiten zan atx zorrotz baterantz. Gaberdian-edo, tontorretik ur samar nenbillenean, autu baten zatiak aditu nebazan. Zarrastada andipean gelditu nintzan. Zorionez, illuntasunari oituta nengoan, eta begiak zorrotzuz, gizaki batzuen soin-ebakunak ikusi aal izan nebazan. Nigandik ogei ta bost metrora zetzan tontorrean begirari egozan.

Lurrean josita gelditu nintzan, eta ia arnas egiten azartzen ez nintzala, kukurio jarrita iraun neban. Ezin neintekean, baiña, an betiko geratu, eta egoerea ondo ausnartuta gero, andik ur samar edatzen zan iratza baten gerizan zear iges egitea otu yatan. Iratzara eltzeko zorian nintzala, arri baten oztopo egin eta iñongo zarataz txirrindolaka asi zan. Arrapalada baten iratzan ezkutatu, eta narrazka asi nintzan. Begirariiek zeozer igarririk, oi egiteari ta tirokatzeari emon eutsien. Alabearrez, bildurrak jota, urrean, ez ziran nengoan lekura azartu, eta andik laster atzean itzi nebazan. Neuretarren barrutian nengoan, eta oarpen nasaiaz mendian beera sarkalderantz bideratu nintzan.

Argitu zanean, andik ur egoan basetxe batera joan nintzan, eta ango etxejoaunari Tolosa'ra eltzeko argibideak eskatu neutsazan. Naparra'tik iges eginda nentorrela jakin ebanean, etxera sartuerazo ninduan, eta berarekin gosaldu nengian aalegindu zan. Onen ostean, bide-zati batez lagundu eustan, eta gurdi-bide zabal batera elduta, auxe esan eustan:

—Bide-zabaletik ba'zoaz, begirariak aurkitu dozuz, eta guztitariko itaunak egingo dautsuez. Zoaz bide onetatik, eta ordubete barruan Tolosa'ra iñongo sostor barik elduko zara.

Biotzez eskertu neutsan, eta auzorik-auzo eguberdi baiño len Tolosa'ra eldu nintzan. Guztitariko iskillioakaz orniturik, kaleetan zear jende gazte asko ikusi neban. Andik laster, sapaillo baten gure ikurriña ikusi neban, eta an adiskidetasun eta laguntza lortuko nebalakoan sartu nintzan, eta izan be, ez nengoan oker, Tolosa'ko batzokia zan-eta.

Idaztegian gizon mazal batek artu ninduan, eta nire etortearen zergaitia azaldu neutsan. Amaitu nebanean, ia inguru areitako eza-gun edo senitarteren bat ete neban itaundu eustan. Osaba bat Bilbao'n nebala, baiña aren bizilekua ez nekiala erantzun neutsan. Au entzunik, igaro-agiri bat emon eustan, auxe ziraustala:

—Ona emen, Bilbao'ra joateko igaro-agiri au. Dirurik ba al-dozu?

—Bai, Jauna.

—Orduan, gaurkotz, neure etxean lo egiteko geratuko zara.

Olan egin neban, eta urrengo goizean geltokiraiño lagundu eustan, Donostia'rako trenean izten ninduala, eta Bilbao'ra eltzeko guztitariko argibideak emostazala.

Donostia'n bazkalduta gero, arratsaldean trena artu neban, eta zazpiretan Bilbao'n nintzan. Or-emenka itaunka ibilli ondoren, noizbait Eusko Gudarostea aurkitu neban. Emen oe bat eskiñi eusten, eta urrengo egunean osabaren galdez asi nintzan. Alako baten, mutil batek Bidebarrieta kalean egoan Eusko Gaztedian itauntzeko esan eustan, Euzko Gudarosteko agiritegian, nire abize-neko gazte bi, Euzko Gazteditik etorritakoak agertzen ziran-eta.

Emondako norabidetik abiatu nintzan, eta azkenean Bidebarrieta'ko Euzko Gaztedia'n aurkitu nintzan. Emen, Idarroiz abize-neko anai bi ango bazkideak zirala esan eusten. Orduan, Iturribide kaleko etxe bateko zenbakia emon eusten, eta astirik galtzeke, ara jo neban. Orduko, eguberdia zan, eta urrun ez egoan ezkerro, luzaro barik, nire osabearen etxea idoro neban. Bigarren maillako ate batean kox-kox egin neban, eta andik laster etxeoandreak atea edegirik,

—Zer gura dozu, mutil? —itaundu eustan.

—Idarroiz'tar Patxi, emen bizi al-da?

—Bai, zerk zakaz gurera?

—Idarroiz'tar Yon Ander nozu. Osaba Patxi'ren anaiaren semea. Naparra'tik eldu barria nozue.

Andreak besarkatu ninduan, eta barrura sartu neinten agindu eustan, didar egiten ebalu:

—Patxi, Patxi...! Emen dago Naparra'ko zure lobe...!

Gizon bat agertu zan, eta besarkada luzea emon eustan. Aita zanarekin antza andia erakusten eban. Gero, otordua zala-ta, eurekin bazkaltzeko geratu neinten eskatu eusten.

Bazkaldu bitartean, nire agerpenaren zeatz guztiak emon neuzezan, eta amaitu nebanean, euren gora-beerak azaldu eustezan.

## GUDARI

Osaba Patxi gazterik etorri zan Bilbao'ra. Aita zanaren urrengokoa, aldi aretan sendiak kopuru andikoak izanik, etxerako geratzen zan semea izan ezik, enperauk alde egin bear izaten eben. Olan ba, aita, osaba Patxi ta beste anai-arrebak sakabanatu ziran, eta mutillak, Naparra'n oikoa zana, beste errialdetara edo Ameriketara joan bear izan eban, eta neskak lekaiume sartu.

Amazortzi urtedun zala, osaba Patxi Bilbao'ra etorri zan, uri onetako errementari baztandar batek dei eginda. Olan ba, errementari lanetan asi zan, ugazabarenean etxekotzat bizi izaten zala, garai aretan oikoa zana. Laster, ogibide barrian trebetu zan, eta andik urte batzutara, etxeko alabeakin ezkondu zan. Aitagiñarrabea il zanean errementegiko jaun eta jabe billakatu zan. Orduko, seme bi, nire lengusuak, zituan, eta oneik anditu ziranean, aitarekin geratu ziran errementegian.

Osabea, gizaldi onetako asiarean etorria zan Bilbao'ra. Orduko, Arana Goiri'tar Sabin il izan zan, baiña jarraitzaille zintzoak geraturik, aren ikasbidea etenbarik zabaltzen zan. Osaba Patxi aber-tzaletasunak laster irabazi izan zan, eta olan sendi abertzalea ezi eban. Garaia etorri yakenean, nire lengusuak aren bidetik joan ziran.

1936'ko matxinadea sortu zanean, nire lengusuek Euzko Gudarostean izena emon eben, eta ni iges egiña Bilbao'ra eldu nintzanean, eusko gudatalde baten Gipuzkoa'ko guda-lekuetan ziarduen.

Niketx, osaba-izekoai guztitariko gora-beerak emon neutsezan, eta amaitu nebanean, arratsalde-erdia izanik, osabak uriko kaleetatik eroan ninduan, erria ezagutu nengian. Uri andi ta zaratatsua iruditu yatan. Gau aretan, Osaba Patxi'k bere etxean geratu neintela eskatu eustan, eta nik pozik be pozik aren eskintzea onartu neban. Ola ba, osabarenean aldirako biziten geratu nintzan.

Urrengo egunean, Euzko Gudaroste'ko idaztegiara jo neban barriro, eta nire izena gudaritzat emon neban. Batalloi barri bat erazten ziarduela esan eusten, eta bere garaian dei egiña izango nintzakela. Bitartean aske nintzan nire aukeran biziteko. Osaba, errementegian bakarrik ziarduan ezker, dei egiña izan arte lanean laguntzea erabagi neban. Egunoro ba, jagi ta gosaldue ostean, biok errementegira jatsi oi gintzazan eta aal neban giñoan laguntzen neutsan. Asiera baten kankail izan arren, egunen bidean nire jarduna ondu zan. Arratsalde guztietan, lana amaituta, osaba ta biok uritik egurastuten gintzazan, guztitariko azalpenak eta argibideak emostazala. Olan ba, konturatu barik, Bilbao uria polito ezagutzen asi nintzan.

Osaba-izekoak ezagutu-ala, maiteagoak yatazan. Osabak aita zanaz bardintasun andia erakusan, bai soñez bai gogoz, eta keiñu ta esaeretan, aita gogora ekarkidan. Bestaldetik, argi egoan osaba-izekoak gero ta maiteago ninduela. Noizean bein, Euzko Gudarostera joaten nintzan, ni gudaritzat artzeko garaia eldu ete zan jakiteko. Baiña erantzuna betikoa zan, nasai egoteko, dei egingo eustela. Geroago jakin neban luzapenaren zergaitia: gudari barriak ornitzeko iskillu naikorik ez.

Bitartean, erri-miñaz jota nengoan, ama, aitita ta arrebak, baita zer esanik ez, Bordazuri, burutik kendu eziñik. Egarmiñaz Yandur-erreak'ko uren eresia ta errotako burrunba atsedengarria irrikatzen nebazan. Aitita, laguntza barik errotako ta etxeko eginkizunetan zelan konponduko zanaren oldozkunak, larrizten ninduan. Laster, baiña, Irene'k gogoan izango ninduanaren usteak bakea ekarkidan. Etxetik urten baiño len, Matxalen'en bitartez agindu neutsanez, egunoro itxartutean eta gabean lo geratu baiño len, era bereziaz gogora ekarten neban, eta berak nirekiko bardin egingo ebalaren oldozkunak, bakez beteten ninduan. Onezaz gaiñera, ezin nengikean Irene gogotik kendu, beti ta etenbarik neugan egoan-eta. Min

oartzeraño maite neban, eta ez egoan munduan ezer, bere alde egingo ez neukenik. Etxeko, Bordazuri ta Irene'ganako oroitzak indar andia emostan, eta urruntasuna jasanorra goa yatan.

Irailla'k gudako barri txarrak ekarri euskuzan. Uranzu ta Donostia galdu izan ziran, eta arrezker, gudarrien adorea lur-jota billakatu zan, eta gaiñera, iskilloen urritasuna zala-ta, frankotarren gudarosteak jarkipen txikia idoroten eban, eta andik laster, ia Gipuzkoa osoaz jabetu zan. Urrilla'n noizbait, eusko gudarostea birratondu zan, eta adorea barriro irabazita, Gipuzko ta Bizkai arteko mugan gitxi gora-beera, gudalekua tinkotu zan. Ondarroa, Markiña, Eibar, Elgeta, Kanpantzar, Aramaiona, Legutiano, Gorbea ta Orduña'raiño edatzen zan lurralde, gure eskuetan egoan. Intxorta'n eusko gudariak etsaiari aurre egin eutsoen triskantza andia egiñez. Onen ondorioz, arerioaren aurrerakadea eten egin zan, burruka-mugea len aitaturiko tokietan gelditzen zala.

Bilbao'ko kaleetan etxetik iges egiñiko gipuzkoar asko ikusten zan. Gudariz gaiñera, sendi osoak ziran uri onetara etorritakoak etsaiaren bildurrez. Ez zan gauza erraza guztientzat tokirik aurkitzea, baiña Euzko Jaurlaritza'k epe labur barruan atondu eban arazoa.

Urrilla'ren asierean, Euzko Gudaroste'tik ara joateko deia artu neban. Aurtemin, iskillu barriak eldu izan ziran, eta gudatalde edo batalloi batzuk erazten ziarduen. Agiri bat emon eusten, eta Eskolapioen ikastetxean aurkeztu nintzan. Toki au gudaletxe biurtu izan zan, gudariak atsedean izan egien, edo guda-lekura joateko gertakizunak egiteko, baita gudatalde barriak eratzeko be.

“Aberri” izeneko onetariko batera igorri ninduen, eta iskillu bat emon eusten. Urrengo egunean, Artxanda deritxan Bilbao ondoko mendi batera bialdu ginduezan, eta buruzagi baten ardurapean, guda-iñarkunai emon geutsen. Egunero, goizean, iskillu barik, lur-gaiñetik narraz joaten erakusten euskun, edozein soster ustiatur, baita etsaiaren guzurrezko babeslekuren bateri zelan eraso be. Arratsaldean, oster, iskilluak zelan erabilli. Eguraldia ona zan, eta guda-iñarkuna etenbarik egiten genduan. Gabaz, Bilbao'n senitarte-koak nebazan ezker, osabagana lo egiteko joaten izten ninduen. Gau baten, aste baterako baimenaz Intxorta menditik etorrira, nire lengusuak ezagutu nebazan. Begikoak gertatu yatazan, eta abo zaba-

lik gudako gauzak entzuten neutsezan, bidebatez, guztitariko buru-bideak emostezala.

Andik egun batzutara, gudaletxeko nagusiagandik mezu bat etorri yatan. Aren gelan aurkeztu nintzanean, beste iru gaztekin berbetan ziarduan. Eldu baiño ez, arazoari ekin eutsan onetaraxe:

—Aurtemin, metraillagaillu gitxi batzuk eldu yakuz. “Aberri” gudataldeak olako tramankulurik ez daukan ezkeru, egokitizat jo dogu, olakoren bataz zuen gudataldea ornitzea.

Ona elduta, betaurrekoak garbitzarren eten egiñik, gero onetaraxe jarraitu eban:

—Neuk eskatuta, zuen buruzagiek nigana igorri zaitue onenatarikoa zarielakoan.

Isillune laburraren ostean, an egoan gutariko mutil bateri auxe itaundu eutsan:

—Zelan deritxazu?

—Basterretxea’tar Sabin.

—Nongoa zara?

—Bermio’koa.

—Ederto, eta zu —mutil eder, sendo bateri itz egiñez—, nor zaitugu?

—Arzubialde’tar Iñaki. Gipuzkoarra nozu, Tolosa barrutikoa.

Gudaletxeko nagusiak izen eta gora-beera oneik artuta gero, irugarrenari,

—Eta zu, nor eta nongoa zara?

—Gasteiz’koa naz. Urizarna’tar Prudentzi.

—Zeu al-zara, lengo egunean Gorbea’tik ona iges egindakoa?

—Bai, Jauna.

—Zuri buruz, argibide on-onak eldu yakuz. Egizkoak izatekotan, metraillagaillu-talderako guztiz egokia izango zarala uste dot.

Gudalgai onen izena idatzirik, niri zuzenduz auxe esan eustan:

—Zurekin lauко taldea osotzen da. Emon egitazuz zure gora-beerak.

—Idarroiz’tar Yon Ander naz, eta Naparra’tik iges eginda etorria nozu.

Au entzutean, gudaletxeko nagusiak irribarre egin eban, auxe zirauskula:

—Au bai benetako taldea...! Bidaso’z onaindiko Euzkadi’ko erki bakotxatik ordezkariak zaituegu. Ziur naz, zuen talderako iragarki ona dala.

Eten egin eban betaurrekoak barriro garbitzarren, eta jarraian onetaraxe mintzatu zan:

—Gudari onak eta indartsuak zarielakoan aukeratu zaituegu. Zuen ardurapean egongo dan metraillagaillua on-ona da, eta ezparririk bage, “Aberri” gudatalderako, onura andia ekarriko dautso. Tramankulu ori, barrienetako da, eta iskilluz oso urri gabiltzan ezkeru, zuen betseiñak lez zainduko dozue, eta jakiña, ez da iñongo atxakiaz galduko, bear-bearrezkoa yaku-ta. Biartik asita, tramankulu ori erabilliko dozue iñarkunetan, gudataldeari lagunduz. Orain joan zaitkeze, baiña zu, napartar ori, geratu zaitzez emen, zure lurraldeko argibideak emon dagistazuzan.

Beste irurak joanda, guztitariko itaunak egin eustazan, eta nik aal izan neban ondoen erantzun neutsan. Andik laster, gudaletxeko larraiñean edo patioan, beste iru lagunekin batu nintzan, eta betiko ezagunak izan bai’gintzazan, alkargandiko gora-beerak jakin genduzan, eta andik ordubete batera-edo, egurasteko ordua izanik, laurok alkarrekin Bilbao’ko kaleetatik gure osteratxua egin genduan.

Sabin, bermeotarra, ontzigintza bateko langillea zan. Gudea asi baiño ez, Euzko Gudarostean izena emon eban, baiña su-iskillo naikorik ez izanik, itxaron bear izan eban “Aberri” taldea sortu arte. Abertzale sutsua, bizi ta adoretua bermeotarren jasa borborka erion, baikor eta benetako lagun zintzoa beti azalduz. Bere euske-rea kantaritsua egiten yatan, baiña au bai arrigarria...! euskeraz egitean abeslaria emoten ebana, neu nintzala esaten eustan. Sabiñ’en aitak Arana Goiri’tar Sabin ezagutu izan eban, eta onengana-ko eraspem eta maitasun andi-andia izan ebazan. Au zala-ta, lense-

meari Sabin izena jarri eutsan. Ezpairik bage, seme onek aitaren oiñatzai jarraitzen eutsen. Egituraz sendo ta indartsua zan, eta goibe andiko ez izanik be, aren bular zabalak indarra iragarten eban. Zelanbait, Pirmin nire lagun miña gogora ekarstan.

Iñaki, gipuzkoarra, lerden eta era berean idartsua zan. Neu baiño apur bat garaia goa, mutil ederra ta eusko endako benetako eredua genduan, V antzeko aurpegiko ebakunari euskal nortasuna alde guztietatik eriola. Baserritarra zan, eta ama alargunarekin mendiko basetxe edo borda baten lurgintzeari emoten eutsan. Barrutik, abertzaletasun sakon-sakona sentitzen eban, eta gudea bere errialdera etorri zanean, dana itzita, Tolosa'ra jatsi, eta iskillu zaar batz orniduta, batzokitik urten egin zan eta Uranzu aldeko burruka-lekura abiatu.

Donostia galdu zanean, aalik eta ondoen jarki egiñez Bizkai'ko mugara eldu zan. Orduko, bere taldea ondatuta egoan, eta irauten eben banakak, muga tinkotu ondoren, Bilbao'ra atsedean billa bialdu izan ziran, gudatalde barri baten tartekoak izateko. Era onetan ba, "Aberri" gudataldean sartu barria zan. Iñaki, baserritar jatorra zan aldetik, itz urrikoa zan, baiña berba egiten ebanean, iñoana zentzunez beterik gertatzen zan. Jardun baiño len, gauzak ondo ausnartzen ekiana genduan.

Pruden, arabarra, guztiz bestelakoa zan. Gorputzez goibe erdiko izanik, bere aurpegi zurbilla ta onetan jarritako begi illun sarkorrek, gogolari baten itxurea emotsoen. Izparkari-ikasketea amaitu barria zan eta beste irurok baiño askozaz landuagoa izanik, zirauskuna beti aintzakotzat artzen geutsan. Sendi onekoa zan, eta azken ikastaroa amaituta, Madrid'etik etxera etorri ta laster, gudea asi zan. Asikeratik, Gasteiz asaldatuaren eskuetan gertatu izan zanez, abertzaletasunak eraginda, Pruden gure aldera etorteko irrikan egoan, eta bein baten, Gorbea mendia ondo ezagutzen eban Murgia'ko lagun batekin gure aldera igaro zan gabaz, eta gora-beera batzuen ostean, "Aberri" gudataldea eratzen zan garaian elduta, alagala etorkion ezkerero, aren gudari egin zan.

Pruden, gogo sentikorrekkoa zan, eta beragan abertzaletasuna gar bizi az iragarten zan. Elburu garaikoa, nire ustez, bere baitan goi-goiko olerkaritzak kabia eban.

Arratsalde aretan, gudaletzeko buruarekin egotetik urtenda, abo batez gure artean euskeraz baiño besterik ez egitea erabagi genduan. Emen, oztopo bat aurkeztu yakun, Pruden'ena, alegia. Jaiotzez erdeliduna zan, eta euskera-ikasteari ekin baeutsan be, jarduteko baldarra zan. Asieratik, baiña, euskeraz egiteko esan euskun, batetik guri ulertzeko bazalako nor, eta bestetik, ori biderik onena izango litzakelako ikasteko. Eta olan egin genduan, baita esan bear dot laster askatu zala be, eta egunen bidean euskeraz polito egiteko gai izan zan.

Gure lenengo alkar-ezagutze aretan, laurok Bilbao'n zear egurastera joan gintzazan, eta nor izango zan gure lau ko talde-burua erabilli, genduan. Askatasuna emon izan yakun gure arteko egokiena buruztat aukeratzeko. Olan ba, lenengo egun aretan arazo oneri emon geutsan. Guztitariko eritxiak emon ondoren, guztien elburua izan zan, Iñaki gudari ikasia zan ezkerero, gure nagusia izan bear zala. Iñaki'k baiña, ez eban olakorik nai, bere eritxiz, enparauok bera baiño egokiagoak gintzazan-eta. Noizbait, arazoa bein betiko garbitzearren, autapen bidez egitea ebatzi zan.

Txapel batera gure autarkiak sartu, eta iru txartelek Iñaki aukeratu eben, bat Pruden'entzat izanik. Guztiok gipuzkoarra autatu genduala, eta onen autarkia gazteiztarraren alde izan zala, argi egoan.

Urrengo egunetan, metraillagailluaz iñarkunak egin genduzan. Asieratik agiri gertatu zan, Iñaki gure nagusizat aukeratu izatea, apara on-ona izan zala. Lurreko gora-beerak ondoen ustiatzen eta gu ikusi izateke, aalik eta etsaiaren zabalune geiena gure suaz estaltzea erakutsi euskun. Lenengo unetik metraillagaillua bere ardurapean artu eban, eta astuna bazan be, sorbalda gaiñean iruoin eta guzti zorro baten gordeta, baeroian iñarra baizen ariña bai'litzan. Atzetik, beste irurok bala-xingolak kutxetan geroiazala jarraitzen geutsan. Iruren artean kutxa bi geroiazan, astunak ziran-eta, ni beti erdian niñoala, indartsuentzat jotzen ninduelako.

Metraillagaillua, Iñaki'ren eritxiz guztiz ona zan, eta albo bateko burdiñean marratuta, auxe eban idatzita: "Made in Czechoslovakia". Balaxingolak lastertasun itzelaz irusten ebazan. Iñaki'k maite-maite eban, bere emaztegaia bai'litzan-edo. Askotan berekautan lez auxe iñoan:

—Gipuzkoa'n oneitariko asko izan ba'genduz...!

Iñaki jaurtigillea izan oi zan, sarritan ez, ordea, balak benetako burrukarako gorde bear ziran-eta, baiña tramankulua zelan erabilli erakutsi euskun.

Urrilla'ren 21'gnean, oraindiño illun zala, "Aberri" gudataldekoak autobusetan Markiña'ra eroan ginduezan. Goizaldean, Urberuaga deritxan auzo baten jatsi gintzazan. Leku onetan, orain utsik egozan urartzetxe batzuk ikusten ziran. Bereala, gudataldeko lau eunekoak, erreskada luzetan mendian gora abiatu ziran, gu, metrailariak, atzekaldetik jarraitzen geutsela. Egunsentia zan, eta andik ordubetera mendi bateko tontorrera elduta, egaletatik zabaldu gintzazan.

Bertan izandako gudataldekoak, aurreko mendiari erasoteko ziran, eta gu arein lekua artzera gentozan, su-iskilloakaz eraso babestearren. Gure gudataldeko buruak, gudariak euren leketan jarrita gero, Iñaki'rekin itz-erditxu bat izan eban, eta lerrondo batzuen atzetik metraillagailua jarri genduan.

Erasotzaillea sozialisten gudatalde bat zan, eta andik ordubete batera-edo, lertegia itzita, iradi baten zear mendian gora tontorra artzeko asmoz abiatu ziran. Etsaiak ikusi ebazanean, tirokada itzelaz inguratu ebazan. Orduan, su egiteko agintza etorri yakun, metraillagailua 800 metroko tarteari egokitzeke azalpenaz. Iñaki su egiten asi zan, laguntzailleok bala-xingolak eskuratzen geutsazala, eta bidebidebatez xingola utsetan bala barriak sartuz.

Ordubete bi-edo igarorik, eraso amaitu zan gudari asko il izan zala, eta erasotzailleek zauritu ta ildako geienak eurekin atzera ekarrezala, urten-lekura biurtu ziran. Txapelgorriak orduan, euren metraillagailuak geugana zuzendu, eta une luze samar batez alkarren aurka su egiñez jardun genduan. Gero, alperriko sua zala-ta, tirokadea amaitu zan.

Ez dot egundo aztuko Urrilla'ren 21'gneko egun ori, gudea lenengoz urretik ikusi nebanean. Neure jaioteguna izan zan, ogetairu urte bete nebazan eguna, alegia. Mendia Akarregi eritxan. Erasotzailleek galtze andiak izan ebezan, eta ildakoen artean euren gudataldeburua, Mateos eritxan sozialista kementsua aurkitzen zan. Au danagaitik, niretzat egun ituna izan zan, eta gabean adarrakaz

egindako lerrondo-arteko etxolan nentzala, ezin nengikean etxe-koak burutik kendu, etxe-min larri batek menperatzen ninduala. Gau aretan, oi neban lez, nire azken oldozkuna Irene'rentzat izan zan, oiñazeak arintzen eustazan artizar zoragarriaren alde. Bera be, urrean, une uretan nitzaz oroitzen zan, eta uste onek baretuta, noizbait loak artu ninduan.

Urrengo egunak baketsuak izan ziran, eta andik laster, urrun ez egoan beste leku batera igorri ginduezan. Muru aldapatsua zan, eta "Aberri" gudataldea, egian sakababatuta egozan basetxe batzutan egokitu zan. Gure lauко taldea laugarren euneko taldearekin basetxe eder baten egokitu gintzazan, eta goiko ganbara zabalean lo egiten genduan. Urrilla'ko azkena zan, eta etxe-aurreko sagardian, sagar gorritzat umotuak, udagoiko zabalduan margo bizia jarren eben. Sagardoa egiteko ziran, eta arein mamin gozo eztsua atsegin yatan, eta zelanbait Yandur-arana ekarstan gogora.

Etsaia urrun samar egoan, eta kipula (mortero)-suaz zirikatzen ginduzan. Lerkaiak jausi baiño len, euren etorrerea txistu bereizi bataz iragarten euskuen. Zoritxarreko txistua aditzen genduan, lurrean etzaten gintzazan. Bein baten, etxetik ur samar guda-janaria atontzen ziarduenek, ainbeste txistuz gogait eraginda, ez eben zantzuz ilgarria aintzakotzat artu, eta kipulak sukaldarien artean ler egin eban.

Izugarría izan zan. Areikana oldartu gintzazan miñezko aie-neek erakarrita. Lau gudari egozan lurrean, baiña eurretari bi bakarrik espa egiten eben, beste biak illik zetzazan-eta. Zaurituriko bateri besotik odola parrastaka erion, eta bestea ia eperdi barik egoan. Onek konortea galduta, aika egiteari laster itzi eutsan. Lauok baillartatan jarrita, aalik ariñen Urberuaga'ra jatsi ebezan. Urrengo egunean jakin genduan txarto zauritua Bilbao'ra barik il izan zala, eta beste zaurituari besoa moztu egin bear izan yakola. Iru gudari galdu izan genduzan, eta laugarrena ez zan burrukarako iñoiz gauza izango.

Illuntzean, euneko buruak dei egin euskun, eta zigor-ekintza baterako sei gogozko lagun eskatu ebazan. Ogeitsuk gure burua eskiñi genduan, niri etorkidala seien arteko bat autatu izatea. Gure seiko taldea sarjento batek agintzeko zan.

Euneko buruak etxeko goiko maillara eroan ginduzan, eta sapailotik aurrerantz zortzireun bat metrora jagiten zan lerrondokaz estalduriko mendixka bat erakutsirik,

—Mendi orretan dagoz —esan euskun—, zirikatzen gaituen kipulagaillu biok. Tontorretik eskumatara berreun bat metrora agertzen dan baso-soil aretan tramakulu bi orreik jarrita dagoz, len orrein kea an bertan mugatu dogu-ta. Zuen eginkizuna auxe da: gaberdian ibarrera jatsiko zarie, eta erreka zearkaturik, mendian gora abiatu biko iru taldetan. Bat, zuzen-zuzen elbururantz abiatuko da, ezker-eskumatik beste bikoteek zeozer atzeraturik jarraituko dautsoela. Ez arrapaladan ibilli, joan zaiteze astiro-astiro zarata txikienik be atara barik. Erdiko taldeari dagokio esku-lerkaiakaz kipulagaillu madarikatuok ondatzea, eta albokoai aren atzerapena babestea. Sarjentoa erdiko bikotearekin joango da, eta arek esanari men egingo dautsozue. Nik esana ulertu al-doazue? Itauen bat...?

Geuk, argi egoala eginkizuna, eta beste barik gertuerai emon geutsen. Niri, erdiko bikotean joatea etorri izan yatan. Gaberdia egin zanean, esku-lerkaiakaz ondo ornituak mendian beera joan, eta luzaro barik latsa zearkaturik, gure elbururantz bideratu gintzazan. Gaba odeitsua zan, baiña tarteka ilgora agertzen zan inguruak argituz.

Sarjentoari jarraitzen geutsala, nire laguna ta biok aalik isillen giñoazan. Illargia odeien artean ezkututzen zanean, aurrera giñoazan eta agertzean, ostera, gengoan lekuetan geldi-geldi irauten genduan. Noizbait, gure elburua zan baso-soilla, ortzian motelki islaturik ikusi genduan, eta enborrik-enbor genbiltzala, berrogei ta amar metrora urreratu gintzakion.

Orduan sarjentoa etzanda jarri zan, eta beso-keiñuakaz ondo-ratzeko agindu euskun. Bata eskuman eta bestea ezkeren jarri gintzazkion, eta narrazka baso-soillaren ertzera eldu gintzazan. Lerrondoen babesetik urten barik, mendiko bizkarra zearkatzen genduala, ikusi genduzan; tramankuluen odi laburrak gure luebakiatarantz zuzenduta egozan, abotzar izugarri, baltzak, gora begira. Bata ur samar aurkitzen zan, baiña bestea esku-lerkaien elmenetik-at egoanez, sarjentoak baso-soillean zear urreratzeko agindu euskun. Zoritxarrez, begirari batek kipulagailluak zaintzen ebazan, eta itxaron bear genduan, illargia barriro ezkutatu arte. Gero, aurrerantz jo

genduan aalik isillen. Alako baten, guk zapalduta, zotz batek kirrika egin eban. Une aretan bertan, iretargia agertu zan, eta begirariak ikusi ginduzan. Ordunatxe sarjentoak oiuka asi yakun:

—Jo ta ke, mutillak...!

Lerkaiak aalik ariñen jaurtiten asi gintzazan. Zorionez, ur samar gengoan, eta kipulagaillu madarikatuak laster ondatuak billakatu ziran. Begirariak tiroka erantzun euskun, baiña aren su-iskilloa luzaro barik isildu zan. Erabatean, ezker-eskumatik gure bikote jarraitzaileak tiroka asi ziran. Dunbotsak izugarriak izan ziran, eta esku-lerkaien suak inguruak argitzen ebazan. Isillune bat ustiatuz, sargentoak atzera egiteko agindu euskun, eta lertegian zear aalik ariñen urrundu gintzazan, atzean txapelgorrien su-iskilloen ezteadad aditzen zirala.

Egunsentia barik gure luebaketara eldu gintzazan, eta buruzagiari gertatuaren barriak emon geutsazan. Onek goresmenak emon euskuzan, eta gosaria iruntsita, lotara joan gintzazan. Egiñagaitik poz-pozik aurkitzen nintzan, baiña benetan esateko, ekintza osoan, ezin neban bildurra uxatu. Izan be, banekian gizauren baten jasekoa ez nintzala, baiña nire eginkizuna beteteko gai izatearen oldozkunak pozez bete ninduan, izandako bildurra ta guzti.

Arrezkero, ez genduan beste kipulakadarik artu, eta egunak aurrera joiazan ezer aitatzeorik jazoten ez zala. Azilla'ren asiarean beste gudatalde batek ordeztu ginduzan, eta Deusto'ko Bidarte eritxan gudaletxean kokatu gintzazan.

Osaba-izekoak pozez bete ziran ni ikustean, baita neuk be, maite-maite nebazan-eta. Nire lengusuak ondo aurkitzen zirala Gorbea'ko barrutian jakiñerazo eusten.

Azilla'ren azkenerantz, nora ez genekiela, Elorrio'n gora Elgeta'ra eroan ginduezan, eta emendik Intxorta'ko tontorpean egoan Patatxi izeneko luebaki baten kokatu gintzazan. Gurdibide baten eraikia egoan, eta ez neban egundo be, a lako lupetzarik ezagutu. Ordezturiko gudataldeak beso zabalik artu ginduzan, lokaztegi aretan luzaro iraun ebela-ta, okotzeraiño gogait eraginda egozalako. Gaba euritsua zan, eta begirari-aldia amaituta, gure laukotea luebakian bertan egoan estalpean babestu gintzazanean, lupetzaz zikin-duta gengoan. Lupetza gure buruaustea zan. Ezin aretatik jareitu

ez kanpoan, ez txabola-barruan. Gu nora, lupetza ara. Barrukoa lastoz txukun eukitea saiatu arren, kanpotik genkarrenak dana zikin-tzen eban. Onezaz gaiñera, sabaiko olanea ainbeste erabilteaz zulo-tuta egoan, eta itogiñak erakusan ugari. Lo egiteko burusi-gaiñean gudari-zirak jarri bear izaten genduzan. Baserritarra izanik, lupetzaren artean ibiltuari oitua nintzan, baiña Patatxi'koa larregia zan.

Aurrean, Asuntze izeneko baseleiza bat egoan, eta onen atzetikontortoxuan etsaia kokatzen zan. Gipuzkoa'tiko atzerakadan, gudariak, etsaiaren begira Intxorta'n babestu ziran, eta egundoko sarraskia egin eutsoen. Burrukeak egun batzuk iraun eban, eta triskaturiko etsaiak, noizbait, aurrera egiteari uko egin bear izan eutsan. Alkarren arteko bitartea andia ez izanik, batetik bestera tirokada ugariak egiten ziran. Au zala-ta makurtuta ibilli bear, baiña ala ta guzti be, baten bat il zan, baita zauritu asko be izan genduan.

Amar bat egunez leku onetan iraun ezkeru, Elgeta'z bestaldera aldatu ginduezan, Bergara'rantz Azkonabieta'ko egiak aurreratzen diran zabaldian. Tokia, basetxez zipriztinduta egoan, eta onetako baten geratu zan gure lauко taldea. Andik ez urrun, areitez estalduriko muru baten, etsaiaren ikusmenetik gordeta, metraillagaillua ezkutatu zan. Etxea utsik egoan, eta ganbarako lastopean etzategi eroso genduan. Eskaratz ederreko sutondca beti piztuta geroian, inguruetan egur asko zan-eta.

Lengo lekuan baiño askoz obeto gengoan, etxe ederra izanez gaiñera lupetzarik ez egoan-eta. Gutariko bakoxtak lau orduko begirari-txanda gau ta egun egiten genduan. Eguraldia ederra zan, ego-aizeak zabaldia urrez jantziten ebala. Gabon eta Urtebarria an emon genduzan bake osoan. Noizean bein, etsaiaren su-agek Elgeta'ra lerkaiak bialtzen ebezan, batzutan uts, bestetan apara egiñez.

Gabon areitan, gure gudariak Legutiano aldeko frankotarrak eraso eutsien, Gazteiz'erako bidea aurkitu naiez, baiña egun batzuk iraun eban burruka basatiaren ondoren, guretarren erasoak pot egin eban, lengo lekutara biurtuz. Onekin, eta beste garrantzi gixiagoko ekintzetan, egunak igaro ziran.

Bitartean, ezin nengikeazan nire biotzekoakandik oldozkunak kendu. Ama, aitita, Iñese, Matxalen, errotea... Bai, erroteaz sarri

askotan ames egiten neban, eta beti kezka bereak zapaltzen ninduan, ots, zelan konponduko zan aitita eioteko iñoren laguntza barik. Errotea egunen baten geldituko balitz, etxekoen egoera larria izango litzake. Oldozkun onek dardarrez jarten ninduan, etxerako biurpena gero ta urrunago ikusten neban-eta. Zorionez, Irene'ganako gomutapenak illunaldi areik uxatzen eustazan, eta begirari-aldi luzeetan, aren oroitzak saentipen epelaz baretzen ninduan. Bere irudi zoragarria gogoan nerabillean, eta au beti gertatzen zan, adaburuen arteko aize negutiarraren ulua, nire baitan eresirik ederrena biurtzen zan. Siñisgatxa bazan be, beragandik urrunago ta maiteago neban. Aren begi oztifien so maitekorrek eta ezpanen irribarre argitsuak edonora laguntzen eusten.

Otsailla'ren amaierantz ango burruka-lekutik ordeztuta, Bilbao'ra biurtu gintzazan, eta egun batzutarako aske-aldia emon euskuen. Nik, osaba ta izekoarekin aspaldi atsedengarria igaro neban. Ni kanpoan izandako aldian, Bilbao egazkiñen lerkaiak eraso izan zan, eta jendea izu gorrian bizi izaten zan. Areitariko egun baten, osabarenean bazkaltzen giñarduala, galtzori-turutak ots egin eban. Bazkaltzen jarraitzea erabagi genduan, eta arazoa aztuta zirudiane, ezustez, gure auzoan lerkaien eztanda izugarriak etxe-inguruan aditzen asi ziran. Lerkaiak jausten ziran bakotxean, etxeak amilduagiñean zirudian. Eraso a laburra izan zan, baita ilgarria be. Ildakoak eunka zenbatzen ziran, eta oiñetako lantegi baten bakarrak, eundik gorako langille ondakiñen pean zapalduta il ziran. Etsaiaren egazkiñak jaun eta jabe ziran eguratsean, eta genduzan banakak ezin zeitekezan jarki. Au zala-ta, baikorrenak izan ezik, jendea itxaropena galtzen asten zan, guri laguntzeko etorteko ziran egazkiñak ez etozan-eta.

Amar bat egun igarorik, gure gudataldea deitua izan zan, eta andik bizpairu egunera, Arangio ta Santigurutz mendietako gudartalde bat ordeztu genduan. Epaila'ren erdi-aldea zan, eta udabariaren zantzuak nonai agiri ziran, ortzi garbi urdinpean. Etsaiak eraso andia gertatzen ziar dualaren zurrumurrua zabaldu zan, baiña egunak bake betean igaroten ziran ezkeru, ez geutsan beste jaramonik egin. Ez genekian, Mola generalak, Bizkaia garaitzearren neurriak ia amaituta ebazala.

Epaila'ren 31'gnean frankotarren eraso izugarria asi zan, Legutiano'ko babesai su-agakaz eta egazkiñakaz erasoten eutsiela. Gu



gengozan lekutik ekintzea ur samarretik ikusi genduan, Otxandiano'ko barrutian gengozan-eta. Gero jakin zanez, etsaiak lenengo egunean Otxandiano menperatu, eta andik egun batzutara Bilbao'ra sartzea asmatzen eban. Egun onetan, Otxandiano'z gaiñera, Durango, Elorrio ta Elgeta, lerkaiakaz zigortu ebezan. Bonbaketa oneik izugarriak azaldu ziran Durango'n batez be, lekaimetxe bat, eleizea, pelotalekua ta etxe asko ondatu izan zirala, baita gizakiak be eunka ilda.

Euzkadi'tik iñolako larritasunpean, egazkiñak amaikagarren aldiz eskatu yakozan España'ko Jaurlaritzari, baiña oi lez, ez zan bat bera be ikusi. Eta oikoa zana, arerioaren egazkiñak aberriko zeruan nagusiak ziran, euren zama ilgarria burruka-lekuan eta atzekaldeko errietan jaurtiten ebela. Kañoikeketea era berean bildurgarria gertatu zan, Legutiano aldeko gure babesak maillukatzen ebazala. Gengozan tokitik, eztandak eta ke baltzak lagundutako eraso zirraragarria begiztatzen genduan. Gudarien jarkipena, etsaiak asmatu-riko baiño askozaz gogorragoa izan zan. Au zala-ta, Madrid'eko burruka-lekutik bost gudaritalde ta su-aga batzukaz eraso indartu eben. Andik egun batzutara, Legutiano aurrenik, eta gero Otxandiano artu ebezan.

Au ikusirik, Jorrailla'ren 5'gneko gaberdian "Aberri" gudataldeak Arangio'ko luebakiak itzi egiazan eta Urkiola ondoko mendi baten jarkiteko agindua artu eban. Gure laukotea, metraillagaillua ta bala-xingolak mando baten gaiñean jarrita, Urkiola'rantz jatsi zan, eta egusentia barik, aginduriko mendi-egietan kokatu gintzazan. Zerbaitek iñostan guretzat benetako burrukea asteko zorian zala.

Goizaldean, Urkiola ta Otxandiano arteko bidezabala garaitzen eban leku baten, jarri zeitenaren agindua artu eban gure lauko taldeak. Bereala, Iñaki'k lauontzako luebaki sakona egitea agindu euskun, eta andik laster, okotzeraiño babesten ginduzan luebaki laburra baiña sakona aitzurkatu, eta metraillagaillua ertzean jarrita, gertaerai itxaron geutsen. Egun aretan, gudarien eta kamioien amaibako lerrokadea, Urkiola'n beera Durango'rantz abiatu zan. Gaba elduta, geutarren joan-etorrien zaratea baretu zan, eta Jorrailla'ren 7'gneko eguna bake betean goiztu zan.

Iñaki'k kezkatuta zirudian, eta arretarik andienaz metraillagaillua garbitu ta koipetu ondoren, auxe esan eustan:

—Aiko, Yon Ander, biar dantza polita izango yoagu.

—Zelan yakik ori?

—Guda-ekintza asko ikusita naiagok. Illuntze barik, or bean yagokan Urkiola artuko yoe, eta biar dantzan asiko gozak.

—Bildur nok, Iñaki. Egia esateko, euk yarakusan bakea ba'ñeuk...

—Eu baiño askozaz izutuago nok. Zentzunbakoa izan bear, olako eretietan ikaturik ez izateko. Bildurra garaitzea dok, norberak egin bear yokana. Niketz, ziur nok gure laukoteak yagokona beteko yokala.

Iñaki zuzen egoan. Illuntzean, Naparra'ko laugarren brigadako txapelgorriak Urkiola'ra sartu ziran. Gau izartsu ta eder aretan, lenengo begirari-aldia etorri yatan, eta otz ez bazan be, burusian babestuta barrandatzeari emon neutsan begietan azkura oartu arte. Dana bake-bake egoan, etsaiaren joan-etorriak izan ezik. Sabiñ'ek beilan ordeztu ninduan, eta luebakian jesarrita lo egiten saiatu nintzan. Ezin baiña; une larri aretan amaika oroitz yatordazan loa nigandik uxatuz. Iñoizkorik larrien, erri-miñaz jota aurkitzen nintzan, Bordazuri ta etxeoak gogoan nebazala, eta irudi onein artetik, Irene'ren begi yaukalek laztantzen ninduen. Noizbait, goizalde-irian lo geratu nintzan.

Ustekabez, lerkaiaketa izugarri batek iratzarri ninduan. Su-agen jaurtikiak nonai jausten ziran zulo sakonak eratuz. Gero, egazkiñak gure luebakiak maillukatzen asi ziran. Eguberdirantz, etsaiaren aurreneko eraso mendian gora urreratzen yakula ikusi genduan. Agindu zorrotza artu izan genduan, azkenerarte ez tirokatzea, jurtikiz urri genbiltzan-eta. Eretia etorri yakunean, alde guztietatik gure su-iskilloek bazterrak orraztu ebezan etsaiari egundoko sarraskia egiñez. Erasotzaillek atzera egin bear izan eben. Arrastian, barriro su-agen eta egazkiñen lerkaiak gure babesak zigortu euskuezan. Gaba eldu zanean, nasaitasuna gutzaz jabetu zan, eta luebaketan sartuta, gure buruak garaiteziñak ederresten genduzan. Iñaki'k, baiña, begitarte goibelaz,

—Ez alaitu, lagunok —esan euskun—, barriro izango doguz men-

dian gora erasoka. Bear ainbat su-aga ta egazkin atonduko dabez. Gogait eraginda nozue, gauza bardiña beti ikusiz. Eurek aiñako egazkiñak ba'genduz, orduan ikusiko genduke...

—Egazkiñak onako bidean ei'dagoz —ebagi eutsan Sabiñ'ek—, tramankulu barri ta itzelak, iñoiz ez ikusiriko lakoak.

—Lelo ori —jardetsi eutsan Iñaki'k—, iñuzenteen ipuiña dok, alkar adoretzearren. Gipuzkoa ta Naparra arteko mugan burruka asi zanetik ona, eta illabete asko igaro dira, guzur berbera entzuna yaukuat...

—Arañegun ba —Pruden'ek eten egin eutsan—, Agirre gure lendakariak Bilbao'ko irratitik, batasuna ta itxaropena gorde dagiguzan, guztiai, baiña gudariai batez be eskatu dausku, eta onezaz gaiñera, gudari-deitze orokorra agindu ei'dau...

Metraillagaillua garbitzen ziarduala, Iñaki'k ez eutsan erantzunik emon. Gero, Sabin eta biok atzekaldera igorri ginduzan, bala-xingolak ekarteko. Oneik, eta bidebatez aparria ekarri genduzan, eta jarraian, gabeko lenengo begirari-aldia asi zan.

Bala-bala ebillen, gudariak egiten geutsen jarkipen tinkoagaitik, erasotzailleak arrituta egozala, eta larri-larri, euren gudaroste-buruari gizonetan eta iskillotan laguntza geiago eskatzen eutsoela.

Biamonean, geuk uste izaniko eraso ez zan gertatu, baiña etsaiaren guda-ornien joan-etorriak lotu barik aditu ziran. Egun aretan, lerkai batek aurregunean ondaturiko agintza-lekuakin alkar-tzen ginduzan urrutizkin-aria, konpondu euskuen. Gaba igarorik, goizalde eder-ederraren ozkorria asi zan...

Bapatean, kañoikada izugarriak artu ginduzan. Mendiko egalak lerkaiakaz irakiten zirudien, eta erabatean, egazkin gorrotagarriek babesak eraso euskuezan. Lurra dardar bizian egoan. Alako baten, gure alboko luebaki baten erdian, lerkai batek jo eban, gure zuloa arriz eta mokillez beteten ebala. Miñezko aiene izugarriak aditu ziran, baiña andik laster, dana isildu zan. Gure alboko luebakia ostendu izan zan, beronen lekuan onil itxurako zulotzerra ikusten zala. Bake osoa leku aretan, intziriak eta suiskilluak betiko mututu izan ziran-eta. Gure alboko lagunetarik, bat bera be ez egoan bizirik, baiña dolurako astirik ez, une aretan bertan etsaia

baetorkigulako. Gure metraillagaillua jo ta ke asi zan, eta atzera egin eban. Agiri zan, baiña, gure albokoan sua itzalia zala.

Su-agen eta egazkiñen lerkaiaketeak sumiñago artu ginduezan barriro. Ondo zigortuta gengoanean, barriro be eraso asi zan. Guretarren erantzuna, baiña, len baiño askozaz makalagoa azaldu zan. Ezker-eskumatik etsaia gure babesetan sakondu zan, egoerea gero ta larriago biurtzen yakula. Urrutizkiña erabilli nai izan genduan agintza-lekuarekin berba egiteko, baiña erantzunik ez. Gure atzean isiltasun bakana oartzen zan, an-emen soillik iskilloren baten eztrandak aditzen zirala. Iñaki'k metraillagaillua erabiltea agindu eustan, eta ikuskiñaren bidez, burruka-lekua aztertzen asi zan. Alako baten, auxe agindu euskun:

—Goazen mutillak. Beekaldeko egi biak etsaipean jausteko zorian dagoz. Entzun ondo gero...! Lerkaiak egiñiko zulorik-zulo, mendian gora abiatuko gara.

—I, Yon Ander, artu egik “Made” ta jarraitu egidak, eta gero zuek, beste biok —jarraitu eban—, bala-xingolekin.

Ariñeketan, mendian gora igon gintzazan. “Made” bero-bero egoan ezker, zorro baten barruan sartuta neuk neroian. Argitu bear da emen, gure tramankuluari, “Made” esaten geutsala, “Made in Czechoslovakia” ildaskatuta eroian ikurretik artuta. Sabiñ'ek eta Pruden'ek eroan aal ebezan xingolak artuta, jarraitu euskuen. Andik laster, tontorrera eldu gintzazan. Utsik egoan, eta beste aldean gure gudataldeko ondakiñekin baso baten ezkutatu gintzazan.

Goizaldean, gudatalde barri bat alkartu yakun, “Aberri”k izaniko il eta zauritu ugariak ordezteko, baita urrengo egunean tontorra birrirabazteko asmoz be. Gau aretan, nekearen-nekez burusietan bildurik, gure laukoteak lo egin eban zabal-zabalik.

Egusentian, gure su-agak ibarreko sakonetik tontorra zigortzen asi ziran. Bitartean, gengoan basoari etsaiaren egazkiñek gutzariko lerkai eta metraillagailluakaz eraso eutsoen, baiña ez genduan kalte andirik jasan. Arratsaldean, baso-ertzean gure “Made” jarteko agindua artu genduan, eta andik laster, “Aberri” gudataldeak tontor-erasoari ekin eutsan, geuk gure suaz estaltzen genduzala. “Made”k izugarrizko lana egin eban arratsalde aretan, tontorrari etenbako sua bialduz, gure laukotea su egiteko aldizkatzen zala.

Gureak aurrera joiazan, eta noizbait, azken bultzadaz, il eta zauritu asko itzirik, tontorraz jabetu gintzazan.

Gau aretan bertan, "Made" lengo egunetako lekuan jarri genduan, eta Iñaki'k oi eban lez, luebaki sakona egiteko agindu euskun. Gabeko begirari-txandak jarrita gero, neuri azkena etorri yata-nez, burusian bilduta, lo egiteari emon neutsan.

Goizaldean begirari nengoala, Anboto aldetik egunsentia asi zan. Alako baten, nire ondoan Iñaki'k auxe esan eustan:

—Ta, Yon Ander, zeozer ikusi al-yok...?

—Gauza andirik ez, Iñaki. Orain ordu bete bat-edo, berebil andien joan-etorriak entzun yoadaz. Luzaro barik, antza, erasoko yauskuek. Agindutako egazkiñak ba'lletozak...

—Ez olakorik uste izan, Yon Ander. Ez yoagu egazkiñik ikusiko.

Zirrara itzela oartu neban nire lagunaren itzok entzutean, eta,

—Iñaki, ik yiñoana egia ba'dok —esan neutsan— gureak egin yok. Egazkiñen etorrerea dok, gu gudariai kemena emongo yauskuna...

—Aiko, adiskide, ez yoagu egazkiñik ikusiko, Errepublikak yaukozanak beste iñon bear izaten yozalako, Madrid aldean-edo... Toki orreik gure lurraldea baiño garrantzi andiagoak yozak Errepublikako gudalburuen eritxiz.

Iñaki'ren usteak atsekabetu ninduan, baiña nire barruan itxaropenak ez eban il gura. Zelan edo alan, bear izandako egazkiñak etorriko litzakez. Euzkadi ezin zeitekean edozelan galtzen itzi... Baiña gero ta lur-jotago sentitzen nintzan.

Goizean, gure babesak lerkaitu euskuezan, su-agakaz lenengo, eta gero Gazteiz'tik euren zama ilgarriaz etorritako egazkiñakaz. Etsaiak, bigunduta gengozala uste izan ebanean, txapelgorrien uinkadak bata bestearen atzetik bialdu euskuzan. Sarraski izugarria aurkitu eben, eta gaba elduta, urtendako lekura biurtu bear izan eben. Gau osoan joan-etorri andiaren zaratea entzun zan. Gabaren babespean, guk izaniko galtzaiak ordeztu izan ziran, eta urrengo eguna, Jorrailla'ren 13'gna goiztu zan.

Egun izugarria benetan. Lerkaien erasoa aurregunekoa baiño basatiagoa gertatu zan, eta etsaiak gure egal baten aurrerakada

sakona egiñik, atzera egin bear izan genduan, eta ostera be, "Made" lepoan artuta, Iñaki'k beste egaletik atzera egiteko agindu euskun. Andik laster, egun bi lenagoko basoan ezkutatu gintzazan, eta emen itxaroteko agindua emon yakun.

Urrengo egunean, Jorrailla'ren 14'gnean, tontorrai barriro erasoteko agindua artu genduan. Ostera be, gure kañoi-taldeek tontorra birrindu eben, eta ondo bigunduta gertatu zanean, erasoa asi genduan, "Made" kiskaldu arte erabilliz. Gero, aurrerago jarreko agindu euskuen, eta lerkai batek egiñiko onil-erako zuloan babesturik, tontorreko etsaiaren babesak suaz alde batetik bestera isastu genduzan. Arerioaren erantzuna makaldu zanean, "Aberri" gudaltaldea tontorraz jabetu zan barriro. Jorrailla'ren 14'gna zan, España'n sei urte lenago Errepublika jarri zan eguna. Zantzu ona zan...

Baiña biaramonean, inpernuko su guztia gure gaiñean jausi zan. Egun ikaragarri aretan, kañoi ta egazkiñek, iñolako amorruez birrindu ginduezan. Egazkiñak batez be, eriotz-egazti madarikatu areik jaun eta jabe ortzi oztiñean zear, arerioaren bildur barik, bein eta barriz maillukatzen ginduezan ezetariko jarkipenik ez ebela. Eta ostera zulorik-zulo atzera egin bear izan genduan. Izugarria izan zan, gure atzerakadan ikusi genduzan gudari batzuen gorputz-zatiak or-emenka sakabanatuak. Alako baten, aiene motelak aditu genduzan. Luebaki batetik etozan, eta urreraturik, gudari bate-nak zirala egiztatu genduan. Bere ondoan beste zaurituriko lagun bat egoan. Lenengoa artu gura izan genduan gurekin eroateko, bere orde z ondoko zaurituriko laguna eroan gengian adierazo euskun, berarentzat osabiderik ez egoala-ta. Sabin eta biok aren laguna artuta, mendian beera abiatu gintzazanean, txarto zaurituak didar bizitan il gengian eskatu euskun, min jasangaitzpean egoalako. Pruden atzeratu zan, eta andik laster tiro bat entzun genduan. Gero isiltasuna eta Pruden'en abotsa auxe zirauskula,

—Ezin izan dot gaixo orren eriotz-oiua jasan aal. Urreratu natzakio ur emotearren, eta edan bitartean, nire ezustez baliaturik, zizpoleta kendu daust, eta bere burua il egin dau...!

Ez genduan tontorra barriro irabazi. Betiko galdu izan genduan, eta lur-jota, Mañari'ra jatsi gintzazan. Urrengo egunean, Mugarra'ko beekaldean aitzurlariek guretzat atonduriko babesetan kokatu gintzazan. Jorrailla'ren 16'gna zan.

Egun baketsuak alkarri jarraitu eutsoen. Arerioak, antza, galpen andiak jasan izan ebazan, eta gaiñera, Intxorta'ko tontorrek artu barik, ez zan aurrerago azartzen. Il aretako 20'gnean, Intxorta'ren aurkako erasoasi zan. Barruti onetako gudalburua zan Beldarrain, zuur eta zangar jarki zan, eta guda-tresna ugari ta aaltsuak erabilli arren, frankotarren erasoek pot egin eben, baiña... 23'gnean Tellamendi ta Memaia mendietatik etsaia irazi zan, eta au ikusirik, CNT'ko indarren ardurapean egoan Udalaiz, bertan-bera itzi izan zan, eta ain zangar eta arduratsu burrukan egiten eben Beldarrain'en gudataldeek atzetik artuak ez izatearren, atzera egin bear izan eben. Barruti aretako burruka-lekua artuta, Elorrio'ko alde gutzia galdu zan.

Urrengo egunean, Mugarra'ko babesetatik, beste eusko gudatalde batek ordeztu ginduzan, bear genduan atsedenaldea izateko, galpen andiak izanaz gaiñera, gure edorea birrinduta aurkitzen zan-eta.

Olan ba, Jorrailla'ren 24'gnean, Gernika inguruko erri bateko ikastoletan egokitu gintzazan, eta lo sakon batek bizkortuta, urrengo egunean oporraldia izan genduan. Oi eban lez, Iñaki'k "Made" zeatz eta adoretu garbitu ta koipetu eban. Onen ondoren, osteratu bat egin genduan. Iñaki'ren "Made"rako eraspena zala-ta, erara etorten zan bakotxean adarra jotzen geutsan, bere ezkongai zala ta ez zala.

-Zuek nire lepotik barre egiten dozue, baiña ezkongai onek ez daust iruzurrik egingo, or bazterretan sarri askotan gertatzen dan antzera.

Olakoetan, ezin nengikean nire Irene biotzekoa burutik kendu. Berak ez ninduke ezelan be salduko.

Egun aretan, Markiña aldetik su-agen eta egazkin-lerkaien burru-bea etenbarik aditu zan. Iñaki'ren aurpegiak itzal baten aztarna erakusan, eta danok itz egiteko gogoa galduta, oldozkun illunetan ikastoletara biurtuu gintzazan. Egazkiñen laguntza zala-ta, uste andirik ez neban orduan, eta urrengo egunean, itxaropen makal ori bein betiko joango litzakit...

Astelena zan urrengo egunean, Jorrailla'ren 26'gnean, zurrumurrua bala-bala egoan, Sollube aldean luebakiak egiten ziarduela,

eta andik laster ara eroango gindukiezala. Erriko enparantzan gengozan, eta autua gudeari buruz zan. Gure lauho taldeak euskeraz ziarduan beti, eta aberriko lurralde ezbarriñetakoak izanda be, alkar guttiz ondo ulertzen genduan. Eguraldi zoragarria zan, eta udabarriaren zantzuak nonai agiri ziran.

Arratsaldeko lauretan inguruan, egazkin bat agertu zan, eta lerkai batzuk bota ebazan Gernika'n bertan. Ez geutsan jaramon andirik egin, olako ekintza zoritxarrez oikoa zalako. Andik ordu-lauren batera-edo burrunba gorrotagarria aditu zan. Iparretik egorantz, Gernika'ko itsasadarraren gaiñetik etozan egazkin eta egazkiñak ziran, eta ezelako oztopo barik, lerkai ilgarriak euren aukeran bota ebazan. Talde onek amaitu ebanean, beste ainbesteko taldeak ekintzari jarraitu eutsan, eta lerkaiaketea ozta-ozta amaituta, beste ogei egazkin inguruko taldeak ondapenari jarraitu eutsan. Eta olan etenbarik, Gernika'ko sarraskia aurrera joian. Egazkiñak doixtarrak ziran, eta eguratsean iñondiko jarkipen barik, jaun eta jabe ziarduen. Lurra oinpetan dardar bizian oartzen zan, eta erritik ke lodia mordo baltzetan jagiten zan. Zirrargarria zan orduko zenbat il eta zaurituak izango litzakez oldoztutea; gaiñera astelena izanik, au da, zeiegun, errian oi baiño jende geiago egoan.

Noizbait lerkaiaketea amaitu zan... eta ekintza zitala amaitu izan zala uste genduan, egazkiñak barriro azaldu ziran, eta su-lerkaiak erri gaixoaren ondapena osotu eben. Orain, baiña, lerkaien eztanda izugarria su itsaso biurtu izan zan. Ez eben zarata andirik egiten; txistu motel bat, eta su itzungieziña. Teillatu amilduen artean garren miin luzeak zerurantz biurrikatzen ziran, gizonen gaiztakeri zentzunbakoaren ziñaldaritzat.

Alako baten, gure gudataldeko dei-turutea aditu zan, eta danok enparantzan batu gintzazan. Gernika'ra jaisteko erritarrai laguntza emoteko, eta binaka joan geintezan, agindu euskun gure buruzagiak. Bereala, Iñaki Pruden'ekin, eta Sabin nirekin, labe gorria biurtu izaniko errira abiatu gintzazan. Bidetik giñoazala, egazkin batzuk geu ikusita urreraturik, tirokatu ginduezan. Gero, oartu gintzazan, su-lerkaiak jaurtita gero, eretia ondoen ustiatzeko, ikusten ebezan gizaki guztiak tirokatzen ebezala. Zabalditik barreiatu gintzazan, baiña alan eta guzti be, gure gudataldean il batzuk eta zaurituak izan genduzan. Alako baten, Sabiñ'en didar batek geldierazo ninduan.

—Txo, beitu eik...!

Baserritar bi, senar-emazteak, antza, arroil baten alkarren ondoan etzazan. Gizonari burutik odola erion, emakumeak, ostera, ez eban zauriren aztarnarik erakusten, baiña agiri zan biak illik egozala. Une aretan bertan, egazkin bat urreratu yakun, eta sumiñez zorotuta Sabiñ'ek ukabillaz zemaitu eban auxe iñotsala:

—Madarikatu, zikin ori, zer egin dautsue gaixo oneik il dagizuzan?

Egazkiña artez-arte z gugana urreratzen zan, tiroak jaurtiten euskuzala arintasun siñisgatxaz. Une aretan bertan, gure atzetik "Aberri" gudataldeko batzuk su-iskilloakaz egazkiñari eraso eutsoen. Egazkaria bere burua garaitezintzat etsirik, antza, gero ta beerago etorren. Alako baten, egazkiñetik ke-lorraz baltza sortuta, burrunba gortugarriaz eguratsean zear aldendu zan, mendixka baten atzetik ostentzen zala. Gasteiz'erantz, urtendako lekurantz abiatzen zan, baiña nekez elduko zan, nire ustez baintzat.

Gernika'n sartu-agiñean gintzazala, ustekabez, egazkiñen eraso amaitu zan. Zazpirak jota izango ziran, eta erri gaixoak iru orduz eraillketaren izua jasan bear izan eban. Gernika'k euskotarren oroimenean aberri-oparizat betiko iraungo dau, eta olako basakeria egin eben eta egiteko agindua emon ebenak, munduak epaitu izan dira. Epaitu ta iguinduta, izan be. Baiña ekintza zital ori ez zan eraillketan bakarrik amaitu. Gau aretan, frankotarrek, Gernika'ko sarraskiaren egilleak, geuk euskotarrok gintzazala munduan zear zabaldu eben, Jaungoikoaren izenean asaldatu ziranen izen ona laidotzearren. Siñisteziña bada be, ergelkeri au urteen zear zabaldu eben, eta siñisteko gerturik egozanak, olan zegokielako, amua iruntsi eben.

Sartu gintzazanean, erri osoak labe goria zirudian. Lerkaiek jotako etxe asko zearo amilduta egozan, eta beste asko doi-doi zutunik, kanpoko ormetatik garrak zurrunbilloka gora jagiten zirala. Beste batzuk, barrutik argituriko garazurrak zirudien, eta noizbeinka auldutako ormak zarata itzelaz lurreratzen ziran. Erriko erdigunera urreratzen gintzazala, ondapena gero ta andiangoa zan. Izugarriena, baiña, jendea zoratuta alde batetik bestera joaten ikustea zan, didar bizitan etxekoren bat utzikiñen artean billatuz. Gurasoak umeen billa, neska-mutikoak etxekoen barriak alkarri

itaunduz, au dana miñezko aiene jasangaitzak ondakin gartsuen artean aditzen zirala.

Enparantzan, Bilbao'ko su-itzungilleek lanean ziarduen burubelarri, baiña su—itsaso aretan ezin onurako gauza andirik egin. Ertzaintzako talde batek gudariai, non emon laguntza azaltzen eutsen. Sabin eta biok aurkeztu gintzakiñean, agureen etxera joateko agindu euskuen. Etxeak ainbatu barik, beste leku ondatuenak, Udaletxea, Yon Deunaren eleizea, pelota-lekua, Ikastetxea, Geltokia etab. ziran.

Aalik ariñen, agindutako lekura joan gintzazan. Agureen etxeak kalte andia erakusan, eta ondakiñen artean ke-lorrazak jagiten ziran. Eginkizunari emon baiño len, Sabin eta biok gizaki bizien aztarnak egongo ziran leketan, gaizkakizuna astea ebatzi genduan, eta gurekin batera beste gudari batzuk ziuardueta, arloari emon geutsan.

Ondakiñen artean, soiñak agertzen asi ziran, geienak illotzik. Alako baten, abe-pillo baten pean aiene batzuk aditu genduzan, eta aga lodiak ustiatuz, jausikiñak baztertzen asi gintzazan. Erosta gero ta argiago etorkiguzan, eta noizbait agure baten soiña agertu yakun. Atara genduan, eta baillarta baten gaiñean ipinteko beso bateri eusten neutsala, soiñetik erauzita, eskuen artean geratu yatan. Gora-gale itzelak artuta orma-zati baten atzetik larriak bota nebazan. Banangoan olako ezbearrai oituta, baiña agure a egoera aretan begiztatzeak, neugan alako barru-iraultza ekarri eustan. Ondiño, antza, sentipenak ez yatazan naikoa moteldu.

Lan izugarriari jarraitu geutsan, eta gizaki bizien zantzu geiagorik aditzen ez zala egiztatu genduan, leku aretako eginkizuna amaitutzat emon zan. Zazpi gorputz atara izan genduzan, euretarik bi oraindiño bizirik.

Alde egiteko zorian gengozala, ondakin batzuen artetik, txakur baten negar-uluak aditu ziran, eta,

—Txo...! —esan eustan Sabiñ'ek—. Gaixo ori be atara bear yoagu.

Aratu gintzazanean, ondakiñen pean ate andia ikusi genduan. Bion artean jaso, eta txakur txiki bat agertu zan. Gaixo dardarre-

tan egoan, eta gu ikusi baiño ez, eskuak miazkatzen euskuzala, oldartu yakun.

—Txo...! Oa ire etxeokana —Sabiñ'ek esan eutsan aren burua laztanduz.

Baiña txakurrak ez eban gugandik aldendu gura, eta gu ibiltan asi baiño ez, gure geriza bai'litzan jarraitu euskun. Nekez ebillen gaixoa, eta belarrietako uleak erreta eukazan. Fox-terrier dalako endakoa zan, eta guztiz makala emoten eban. Orduan Sabiñ'ek auxe irautsi eustan:

—I, Yon Ander, onen ugazaba, antza, il egin dok eta gaixoak besterik ezean, ugazabatzat artu gaiozak. Ezin yoagu bakarrik itzi, ez dok?

—Bai, Sabin, eroan yaigun gurekin.

Orduan Sabiñ'ek besoetan artu, eta laztan batzuk egin eutsazan. Gero, ertzaiñek ogi-tarteko batzuk emon, eta beste leku batera bialdu ginduezan, eta barriro be, etxe-ondakin kiskaltsuen artean, giza-soiñen atarateari ekin geutsan. Eta olan egunsentiarate emon genduan. Lan egin bitartean, txakurrak geuk emoniko janari-puxka batzuk iruntsi ebazan.

Lur-jota gengoan nire lagun eta biok, bai gorputzez bai gogoz, eta gure soin nekatuen oiñek ibilli baiño, narraz gindaroezala, txakurrarekin gudaltegira biurtu gintzazan. Gernika'tik urteteko zorian gengoza, bidetik zeozer baztertuta, oba-oba baten eresiak geldierazo ginduzan. Eragin bakan batek bultzatuta, bidezabala itzi, eta estarta batean gora basetxe baten ondakiñetara eldu gintzazan. Baserritar jatorra zan amama buruzapiduna, arri baten gaiñean jesarrita ikusi genduan. Aren atzetik, bere etxeo ondakiñak, antza, or-emen oraindiño garretan ikusten ziran. Urreratzean, amamak seintxu bat altzoan eukala ikusi genduan, onetaraxe seaskaten ebala:

Oba-oba nire seintxua  
zeruan aingeru ederrak,  
mendian gizon okerrak,  
eta arasan sagutxua...

Ikusi ginduzanean, onetaraxe asi yakun:

—Ixo... ixo...! Seiña ez iratzarri, lo egin bear dau oso berandu da-ta...

Urragotik, eta eguneko argi biziagopean, atsoak sapak erdierrëta, aurpegia baltzitura eta jantzia piltzartuta ebazala egiztatu aal izan genduan. Sukarrak kiskaldutako begi gorriek, zoro antzera begiztatu ginduezan, bein eta barriro lelo bardiñaz zirauskula:

—Seintxua ez iratzarri, ez iratzarri...!

Umearen aurpegi zurbil-zurbilla geldi ta baketsua agertzen zan, begiak itxita ebazala. Zirrara bakan batek jota, urreratu nintzakion, eta bekoki zuria laztandu neutsan. Illik egoan, aurpegia arnabar baizen otza eban-eta. Ez yakozan zaurien aztarnik ikusten; lerkai baten aize-zartadak, soin samur ari barruan zauri ilgarria eragiña eutsan, urrean. Urrundik bai'litzan, Sabiñ'en itzok aditu nebazan:

—Amama, zer jazo da, baiña...?

—Ara... Ortuariak batzen nebazala, aeroplanuen bonben zaratea entzun dot. Orduan arin baten etxera biurtu naz, billobatxua neugaz mendira eroateko. Etxetik urten baiño ez, zarata bildurgarria aditu da, eta gero... ez dakit... Emen nagotzu, seme, neure billobatxu maitiagaz. Baiña mesedez berba egin leun-leun, seintxua iratzarri ez daiten...

—Amama, zein da zure etxea?

Atsoak, so galduaz ingurura begiratu eban, eta sorbalda jasorik, auxe erantzun eutsan:

—Ez dakit, seme, or nonbait egongo da...

—Zatoz gurekin, amama, errian zeozer artu dagizun, makalik zagoz—eta...

Baiña atsotxua ezetz eta ezetz, an ondo egoala eta etxeokak laster etorriko litzakezala. Orduan burutapen bat etorri yatan, auxe nirautsalala:

—Amama, seiña ez dago ondo bear dauan seaska barik. Goazen bertan-bera, ia or errian baten bat idoroten dogun...

Noizbait gurekin bat etorrita, eta seintxua kolkoan estu-estu eroiala, Sabiñ'ek beso bateri eta nik besteari eutsirik, Gernika'ra sartu gintzazan ostera be. Gurutz gorriko laguntza-leku baten itxi genduan, gaixoak billobatxuarentzat seaska bat eskatzen ebala...

Goizerdia zan gure egon-lekura barriro abiatu gintzazanean, atzetik, barri idorotako txakurrak erraikigula. Bidean gora, idigurdiak etxeko tresnekin goraiño metaturik, sendi baserritarrek erreskada amaibakoa eratuz, Gernika'tik beste iñora bideratzen ziran. Erdigarria zan isillik eta lur-jota joian euskotar jatorren bidezkunde norabakoa, jaiolekutik iges egiten ikustea. Ikusgai au, zoritxarrez, Bizkaiko bideetatik gero ta sarriago ikusiko litzaken ikuskizun negargarria azalduko zan.

Sabin eta biok, txakurrak lagunduta eldu gintzazanean, "Aberri" gudataldeko geienak gabeko zeregiñak nekatuta, lotan egozan. Iñaki ta Pruden gu baiño goizago eldurik, lo-zorro batek artuta etzazan. Beso batatz txakurra inguratzen ebala, Sabin lo geratu zan bereala. Ni, ostera, lastamarraga gaiñean nekearen-nekez amildu nintzan, eta begiak itxi nebazan beingoan lo egingo nebalakoan. Ezin, baiña. Urdaillean korapillo astuna sentitzen neban, eta loak nigandik alde eginda, gero ta argiago gabean bizi izandako izugarriak, bein eta barriro yatorbazan. Noizbait, zabaldira urtetea otu yatan, gogo a baretu ekidan.

Eguberdi eguzkitsua zan, baiña otz nintzan, dardar egiteraiño-ko otza, izan be. Larra baten jesarri nintzan. An beean, Gernika'tik oraindiño amataubako suen ke ugariak gorantz jagiten ziran, illerri biurturiko euskotarren uri kutunaren gaiñean. Bidezabaletik, baserritarren gurdi-erreskada amaibakoa joian norabarik, etxeak edo onein ondakiñak atzean itzita.

Etxea... Ezagutu bear da, arbasoakandik artutako egoitza, baserritar batek noraiño maite dauan, bidezkunde aren zorigaitzaren anditasuna ulertzeko. Bere bizitzaren zatia bai'litzan, maite izaten dau etxekojaunak bere basetxea. Egunen baten, seme bateri emongo dautsana, eta betirako iraun bear dauan bere jatorriaren abia... Orduantxe gogora etorri yatan nire Bordazuri maite-maitia an urrutian galduta, gau ta egun, etenbarik irrikatzen neban neuretarren txoko aztueziña. Alako baten, lengo egunean bizi izaniko ordu izugarriak, nire aberkideen gaurko zoritxarra, eta Bordazuri'ko etxe-

miña gogora yatorbazala, jabetueziñeko intziria biotzean gora ler egin yatan, eta aurpegia eskuen artean eutsita, negar mingots bateri emon neutsan.

Ez dakit zein luzaro egon nintzan negarrez, aspaldiz bildutako naigabeari bide egiñez. Arrats-beera zan biurtu nintzanean. Aurregunean baiño ozenago, lerkaien burrunba ilgarria guda-lekutik etorren. Jorrailla'ren 27'gna zan, eta egun aretan, Markiña, Urberuaga ta Berriatua galdu ziran.

Gudaltegira biurtuta, nekearen nekez ler eginda, apaldu ondoren etzan nintzan. Orduan Irene'ren oroitzak gogo a baretu eustan. Ainbeste ezbear-arteon, maitasunak nire bidean itxaropen-izpiak jarten eustazan, eta maitiaren begi oztin argitsuak gogoan nebazala, lo geratu nintzan.

Urrengo egunean, "Aberri" gudataldekoak gerturik egoteko agindua artu genduan. Bitartean, eta Gernika'n gaizkaturiko txakurrak gugandik alde egiterik gura ez eban ezker, gure laukoteak batzarra ospatu eban txakurrari buruz erabagiren bat artzeko. Txakurra oso maitekor eta argia zan ezker, maite izaten asi gintzazan. Auxegaitik, gure euneko buruzagiari txakurra gurekin eroateko baimena eskatu geutsan. Baietz esan euskun, eta poz-pozik gure lauko taldeko kutun biurtu zan.

Izena jarri bear yakon, benetako txakurrek oi daben antzera. Ain zuzen be, belarri kiskalduak itxura berezia emotsoen, eta zein izen jarri bearko geutsan erabilten genduala, Pruden'ek auxe esan euskun:

—Erretako belarri orreik, sagu baten itxura emoten dautsoe. Olan ba, neuk "Sagu" esango neuskio.

Eta beste barik, "Sagu" izena ipiñi geutsan. Txakur batek, baiña, lagun asko izan arren, ugazaba bat baiño ez dau artuko, eta gure txakurrak ugazabatatzat Sabin artu eban. Au izan zan, ain zuzen be, ondakiñen zulotik atara ebana, eta laztandu eban lenengo. Augaitik, urrean, "Sagu" Sabiñ'en txakur billakatu zan. Argi egoan, bestaldetik, txakurrak autapen ona egin ebala, Sabiñ'ek "Sagu" maite-maite eban-eta.

Jorrailla'ren 28'gnean gudaren gora-beerak guretzat guztiz txarto egozan. Egun aretan, Oiz mendia, Gerrikaitz, Arbazegi, Aulesia, Nabarniz eta Lekeitio galdu genduzan. Bilbao-Durango arteko bidezabala, egun orretan ebagita geratu zan, baita Durango be artuta.

Arratsaldean, Sollube mendira eroan ginduezan, eta eldu baiño ez, luebakien aitzurketeari emon geutsan. Arerioa Gernika'tik ur egoan, eta izan be, urrengo egunean, 29'gnean, sartu zan errira. Eusko Jaurlearitzak, Gernika, Amorebieta ta Gorbea'tik igaroten dan marrari eusteko agindu eban. Biaramonean, italiarrak (Azkon Baltzak) Bermeo'ra eldu ziran.

Argi egoan, Sollube burruka-leku garrantzitsua izango zala. Iñaki'k oi eban lez, gure laukotea lanean jarri eban. Babes-lanak azkonaren mutur baten antzera egin oi ebazan beti. Eta onen mutur-muturrean "Made" jarten zan eta egaletan geu ta bala-xingolak. Babesa beti sakon-sakona izaten zan, eta okotzeraiño babesten ginduzan, burua bakarrik agirian genduala.

Guda-arazoak guretzat guztiz txarto joiazan, eta Agirre lendarriak, gudearen agintaritzaz bere gain artu eban. Atzerakadak eta guzti be, noizean bein Euzkadi'ko gudarosteak aitzierakoak egiten ebazan. Onetariko bat Bermeo aldean jazo zan. Italiarrak Bermeo'ra sartu izan ziran, ezkerreko saietza ondo babestu barik. Loraila'ren lenengoan, Truende menditik gure gudariek Bermeo-Mundaka arteko bidezabala ebagi eban. Urrengo egunean, erasoari jarraitu ta italiarrek Mundaka galdu eban. Guda-tresnakaz ondo orniturik izan ba'gintzaz, ereti onetan Italia'kc "Azkon Baltzak" astiñaldi ederra artuko eban, baiña geukazan iskillioakaz gauza andirik ezin egin, eta... 3'gnean Mundaka barriro galdu zan, eta etsaia Bermeo'n tinkotu.

Loraila'ren 6'gnean, Sollube-aurkako erasoasi zan. Frankotarrak, oi eban lez, su-agen lerkaketa gogorraz asi, eta gero eguna aurrera joiala, oituta gengoan egazkiñenaz. Urrengo egunean, arerioak erasoari jarraitu eutsan, baiña alperrik. Su gurutzatuaz artu genduan, eta gudari asko galdu ondoren, erasoari uko egin eutsan. 8'gnean, baiña, geugandik ez urrun eta lerkai-eraso izugarri baten ostean, gure babesak artu ebazan, eta atzera egin bear izan gen-

duan. Urrengo egunetan, aitzierako gogorak egin genduzan tontorra barriro artzearren, baiña pot egin eban.

Tontoretik irureun bat metrora tinkotu gintzazan, "606" ize naz ezagutzen zan gaillurrean. Oiko babesak egiñik, urrengo egunetan etsaiaren V'gn brigadeak "606"ari eraso eutsan, oso garrantzitsua zalako mendi osoaz jabetzeko. Irugarren egunean artu eban, baiña berealako erasoz barriro artu genduan. Urrengo egunetan etsaiak erasoari gogor-gogor jarraitu eutsan, eta 14'gnean Libano errixka artu eban. Orduan "606" tontorra inguratuta gertatu zan, eta atzera egin bear izan genduan.

Arratsalde berotsua zan gure lauko taldea ta "Sagu" mendian beera asi gintzazanean. Egarrinintzan, eta lagunai uraren billa alboko troka batera joan nai nebala, eta laster eurekin izango nindukela esan neutsen. Jatsinintzan, eta larra txiki baten zear joian lats txiki garbia idoro neban. Egarrinintzan itzungita gero, une batez bedarrean jesarri nintzan bidari bereala jarraitzeko asmoz. Olan nengoala, lepoko azurrean oarpen bakana artu neban, eta bapatean bihurtuta, ikusi neban... Txapel gorri bat zan, eta saratsen artean erdi ezkutuan egoan. Nire begiak bereenetan untzatuak ikustean, dardarez asi zan, eta oi uul bat iges egin yakon auxe ziraustala:

—Bordazuri...!

Zur eta lur geratu nintzan, eta nire ikusgurea jabetu eziñik, jauzi batz urreratu nintzakion, auxe nirautsala:

—Zer egiten yok emen, eta zelan yakik Bordazuri'koa nokala?

Adi-adi begiratu neutsan, eta beragan zeozer ezaguna antzera egoala iruditu yatan. Sorbaldan beera jantzia guztiz odoldua erakusten eban, eta aurpegia zuri-zuria. Burua jaso, eta bere makutoaren gainean ipiñi neutsan. Gero, onetaraxe jarraitu eban:

—Ik ez nok ezagutuko, baiña neuk i bai... Ikusi indudan Aranegi'ko aizkora-leiaketeen Arraitza'ren aurka jardun eanean... Neu, Amilaz'ko Arribaita'ko Xabier nok... Emen be alkar ikusi bear...!

Nekez itz egiten eban. Eta gero,

—Egun bi dozak emen naiagokala —esan eustan—, bular-gaiñetik



zauritu naioek, eta makaltasun utsaz ezin nok ibilli... Jatekoa amaitu yatak, eta gose ta egarri nok... egarri batez be... Emongo al-eunskit ur pixka bat...? Gorputza sukarretan yaukat...

Arkondarea urratu neutsan, eta zaurian zipotz baten antzera eun-zati batzuk sartuta, aal neban eran lotura bat egin neutsan beste zati bat az. Laster egiztatu aal izan neban odol-jarioa eten egin izan yakola.

Jarraian, nire pegarra urez bete neban, eta aren burua jasorik, edaten emon neutsan. Erabatean ia ustu eban, eta gero ogi-zati bat ebagi ta sardin-latontzi bat edegi neutsan jan egian, auxe nirautsalala:

—Aiko, Xabier, iretarrak laster izango dozak emen, eta nik joan egin bear yoat.

—Zergaitik ez az geratzen nirekin? Neuk arazo guztia zure onerako atonduko yautsat, gure aldera pasatu azala esanez...

—Ez orixe, nire lekua niretarrekin yagok.

—Bakarrik itziko nok emen? Nire lagunek ikusten ez ba'naioek galduta naiagok...

Orduan, bere ondoan egoan iskilloa su egiteko eran ipiñita,

—Aiko, Xabier —esan neutsan—, iretarrak yatozakala somatzean, bota tiro batzuk aidean, eta laster ikusiko abe. Bitartean, jan egizak sardin batzuk indarra irabaztearren. Orain, agur, Xabier...

—Agur, Bordazuri...!

Ozta-ozta oinkada batzuk egiñik, atzera biurtu nintzan, eta,

—Xabier —esan neutsan—, Amilaz'en laster izango az aspaldi bateko sendaldia izatearren. Gauza bat eskatuko yautsat... ara... ikusi nokala nire etxeoai esatea, baita guztiz ondo naiagokala be...

—Bai, Bordazuri, ori baiño besterik ez ba'dok... Askok zor yautsat... beste bat izan ba'litxok, garbituko naiendukek...

—Ez orixe...! Niretarrek ez yoek erailten... Agur eta biotz on. Ez aztu, gero, etxeoai nitzaz berba egitea... Ondo izan, Xabier...!

—Agur, Bordazuri, eta Jaungoikoak ordaindu deiala nigaitik egiñikoa...

Alde egin neban, barrutik iñartsi lako sentipena ebilkidala. Nor bera lez egon, Yandur-arana'ko aize garbiak arnas egiteko...!

Andik laster, nire lagunekin batu nintzan, eta gautu zanean, burusietan bildurik zabalduan bertan lo egin genduan, baiña lenago, Xabier'ekin gertaturikoa lagunai edestu neutsen.

Urte aretako udabarria, iñoiz ez ezaguturiko ederrena izan zan, eta onek gure etsaiaren alde jokatzan eban, egazkiñentzat ezin egokiagorik zalako. Guk beti eguraldi euritsua gura, baiña ortzian ez zan odeirik agertzen. A baiño udabari legorragorik, ez ebela egundo be ezagutu izan, iñoen baseritarrek.

Andik egun batzutara, Gaztelumendi'ra bialdu ginduezan. Aspaldi baketsua izan genduan, etsaiak galtzai andiak jasan ondoren, bere gudataldeak indartu bear ebazan-eta. "Aberri" gudataldeko ia erdia, il edo zaurituak izan ziran orduko, eta gure laukoteak osorik jarraitzen baeban be, olan ezin egikean luzaro iraun.

Gaztelumendi, Fika ta Lezama arteko bizkarra zan. Ementxe egoan Bilbao uria babesten eban entzute andiko burdiñezko gerria. Urruzti, Gaztelumendi, Berriaga... Eldu baiño ez, arrituta geratu nintzan... A burdiñezko gerria...!

An ez zan besterik ikusten luebaki luzea baiño, oraindiño ondo sakondu barik. Negargarria zan babes ezain areiri, burdiñezko gerria esatea. Eldu ta bereala, luebaki sakontzeari ta barriak egiteari emon geutsen. Gure lauko taldeak, zorionez, lenengo aldiz ormigoizko abi ederra eban. Aurretik eta ezker-eskumatik, leio estu luzeak zirrituen antzera agertzen ziran, inguruko zabalune andia ikustatuz. Ormek eta sabai lodiak babes ziurra eskintzen euskuen.

Gure lenengo eginkizuna, "Made" ondo egokitzea izan zan, eta gero, bala-xingola ugariak ekarri genduzan. Ori dana ondo kokatu zanean, Iñaki ta biok atzetik edatzen zan inguru ezagutzearren, osteratxu bat egin genduan Lezama'rako bidetik. Arrituta nengoan eginkizun augaitik, olakorik egitea oi ez genduan-eta. Jakin-gurea jabetu eziñik, nire lagunari azterketearan zergaitia itaundu neutsan. Iñaki'k oi baiño itxura illunagoaz, auxe erantzun eustan:

—Goiko babesok, metraillagailuen abiak kenduta, ez dozak ezertarako gauza, eta luzaro baiño len aizatuko gaioezak. Badaezpa-

dakoan, on yakuk igesbidea ezagutzea, gabaz alde egin bear izatekotan batez be. Begiraik orko zidor ori: piñu lodiakaz ezkutaturik yagok, eta orixe izan lleitekek gure igesbidea. Begiraik ondo non asten dokan, orko goiko atx txiki orreitan. Bidetxigor orren asierea idoro ondoren, beste barik Lezama'raiño eroango gaiozak. Bestelan, gureak egingo lleukek otadiok artu bear izatekotan...

—Gaur ba, ez aut aldarterik onenean ikusten. Pentsaik, etsaiak galpen andiak izan yozakala be, eta onezkerò...

—Onezkero, bear ainbat gudari barriak bialduko yakozak, eta zer esanik ez, kañoi ta egazkiñetan.

Nire adiskideak begitarte goibela erakusten eban, eta abots zirraratuaz, auxe esan eustan:

—Erri gaixoa gurea, Yon Ander. Adoretan gitxi gu aiña aberiaren alde jokatzeko, baiña lengo eunurtean gure asabek guda bi galdu yoezak, eta orain geuri yatorkuk irugarrena galtzea...

—Baiña guda madarikatu au geuk ez yoagu ekarri, bestek ekarri yauskuek...

—Zuzen ago, baiña bai erri gaixoa gurea...!

Etsia, negar egiteko zorian zirudian, baita neu be ez nembil-kion urrun. Goiko gure abira isillik eta goibel biurtu gintzazan. Nire adiskidearen kadenak kutsuturik, lur-jota sentitzen nintzan, ene barruan ondo bainekian Iñaki beti zuzen egoala.

Urrengo egunak baketsu ta isillak izan ziran, etsaiak bere indarrak beste leku batera igorri izan ebazalako. Loreilla'ren 11'gnean, ezuste batz baliatuturik, Bizkargi-Arburu bizkarra artu eban; 19'gnean Jata mendia, eta Mungia'ko aldamentaraiño sartu zan. Bizkargi-Arburu bizkarra guretzat garrantzi andikoa zan ezker, urrengo egunetan gure gudarosteak eraso eutsan, baiña benetan aalegindu arren, dana alperrik, etsaiaren eskuetan iraun eban. 17'gnean, utsik egoan Zornotza'ra sartu zan arerioa. 19'gnean Durango-Gasteiz arteko bidezabalaz jabetu zan. 22'gnean, gure indarrak Lemona'raiño atzeratu ziran, eta 23'gnean frankotarrak Dima'ra sartu ziran, olan Arratia guztia menperatuz.

28'gnean, etsaiak Lemona'ko atxa irabaztea ebatzi eban, eta 29'gnean buruauste andirik bage tontorra artu eban. 31'gnean,

gutariko iru gudaritaldek atxari eraso eutsoen. Burrakak Bagilla'ren 1'go, 2'gn eta 3'gnean iraun eban, eta azken egun onetan, oldar indartsuaz eusko gudariak tontorra irabazi eban. Etsaiak galtze andi-andiak jasan ebazan, tontorrean egozan buruzagi guztiak galdurik. 4'gnean frankotarrek barriro eraso euskuen pot egiñez, baiña 5'gnean noizbait tontorraz jabetu ziran barriro, alde bietan ilketa izugarria izanik.

Astiro baiña etenbarik, frankotarrek Bilbao inguruko matxardea estutzen eban, eta gauza zurrak zan, "Aberri" gudataldeari ordu larriak etorriko litzakiozala. Loreilla'ren 31'gnean, Gamir Ullibarri gudalburuak Euzkadi'ko gudarosteen agintzeā artu eban. Artean, gure indarrek izandako galpenak 35.000 gudari izan ziran.

Bagilla'ren 11'gnean kañoiketa izugarriaren ondoren, gerri-aurrean egozan muru batzuk etsaiak eraso, eta jarkipen gogorra izan ostean, artu ebazan. Egun onetan, gerri-aurrean egozan esi arantzadunetaraiño eldu zan, baiña gabean atzera egin eban. Alde bietan sarraski andiak izan ziran. Urrengo egunean, Gamir Ullibarri'k aitzieraso agindu eban, baiña pot egiñik, etsaiak gure babesak kañoi ta egazkiñakaz zigortu ebazan, Ordurarte nik ez neban olako lerkaietarik ikusi izan. Lurra ikara bizian egoan, eta luebakiak maillukatu euskuzan. Gure abiak be, kañoikada batzuk artu ebazan, baiña kalte andi barik. Arratsaldean, arerioak erasoari emon eutsan leku batzutatik. Lerkaieteak esi arantzadunak ezereztu ebazan, eta oztopo andirik bage mendian gora etorri yakuzan. Orduan, "Made" k su izugarriari emon eutsan, noiz aurretik, noiz ezker-eskumatik. Erailketa itzela gure metraillagailluak egin ebana, etsaiaren aalegin guztiak ezereztuz. Noizbait eguzkia ostendu ta dana isildu zan, baiña gure alboetako luebakiak utsik egozan. Agiri zan, lerkaieta izugarriaren ostean, bizirik gertaturiko gudari urriek itzi egin ebezala.

Gure egoera larria zan, etsaia non egokeanik ez genekian-eta. Orduan Iñaki'k auxe esan eustan:

—Suzmo txarrak artuta naiagok. Zuetariko bat urten daitela etsaiaren egoera ezagutzeko...

Amaitu baiño len, kanpoan nengoan, eta "Sagu"ri dei eginda, illuntasun betean luebakietatik barruratu nintzan. Ondatuta egozan eta gudarien illotzakaz beteta. Zuloz josita baita leku askotan igeroeziñak ziran ezker, "Sagu" ta biok mendi-bizkarretik abiatu

gintzazan. Gau illuna izanik, andik ibiltea zaila zan. Alako baten, burua Lezama'rantz zuzendurik, txakurra kurrinka asi zan. Isillera-  
zo neban, eta adi-adi jarri nintzan. Urrutiko berbotsak aditu neba-  
zan, eta isillean urreratu gintzazan, "Sagu"ri isillik egoteko agin-  
tzen neutsala. Ustekabez, begirari baten gorputz-ebakuna ikusi neban.  
Urreratu nintzakion astiro, eta txapel-gorria zala oartu nintzan.  
Astirik galtzeke gure abira biurtu nintzan. Iñaki-ta zain egozan, eta  
eldu baiño ez, jakiñaren gaiñean ipiñi nebazan.

—Goazen ba —agindu euskun Iñaki'k—, gure burdiñezko gerri  
igaroeziña lenengo ekitaldian zulotu izan da. Geuri dagokigun  
aldetik, etsaiaren atzetik geratu gara, eta illuntasuna ustiatuz, gure-  
tarrekin batu bear izango dogu.

Bereala, "Made" ta aal genduzan bala-xingolak arturik, men-  
dian beera abiatu gintzazan. Otadi aretan zear nekegarria zan  
ibiltea, baiña zorionez luzaro barik egun batzuk aurretik ikusitako  
atxak agertu yakuzan, eta araturik, zidorra idoro genduan. Isillean  
eta astiro andik abiatu gintzazan ezker-eskumaz ler lodiek ingura-  
tuta. Alako baten, lertegia amaitu zan, eta larra baten zear giñoaza-  
la, berreun bat metrora baten batek argi bat piztu eban. Berealaxe  
oartu nintzan, neuk len ikusiriko etsaiaren kapardia zala, eta.

—Aiko, Iñaki —esan neutsan—, orixe dok neuk len ikusiriko  
etsaiaren kapardia.

—Ez gozak ba igaroko, orreiri gure agurrik maitekorrena bial-  
du barik.

"Made" zorrotik atara, eta bide-ertzeko munan jarrita, bala-  
xingola luzea sartu, eta oraindiño piztuta zirauan argiari tiroka asi  
yakon. Argia bereala itzungi zan, eta zalaparta bizian didar larriak  
aditu ziran mendian gora galtzen zirala. Kapardiaren alde guztietat-  
tik, oiukaz naasturiko tiroen eztandak aditu ziran. Etsaiak, antza,  
gure indarren eraso garrantzitsua zala uste izan eban... eta beste  
barik Lezama'ra eldu gintzazan. Egunsentia egin zanean, frankota-  
rren kañoiek Bilbao berari eraso eutsoen... eta gero, egun orretan  
bertan, etsaiak Larrabetzua ta Ganguren mendia artu ebazan.

Bilbao inguruko frankotarren esia egunik-egun estutzen zan,  
eta gure gudataldeak Bizkai'ko uriburua babesteko gertatzen ziran.  
Bagilla'ren 14gnean Artxanda mendira bialdu ginduezan. Urrengo

egunean, arerioak Erroka Deuna'ren mendia artu eban, eta "Abe-  
rri" gudataldea andik ez urrun burrukan egiteko gertuten zan.

Urrengo egun bietan, gure gudataldeak kañoien eta egazkiñen  
eraso izugarria jasan bear izan eban. 17'gnean, etsaiaren indarrek  
eraso euskuen, gure babesak ia ondatuta egozala. Une aretan ber-  
tan, Sabiñ'ek "Made" erabilten eban. Iparrerantz, Bizkaia amaituta,  
itsasoko zerrenda oztiña eguzkiak laztanduta ikusten zan, eta gure  
alboan kokatuta, metraillagaillua erabillan Sabiñ'ek Bermeo bere  
jaioterria gogoan izango leuke urrean... Alako baten, "Made" isildu  
zan, eta aren gaiñean etzanda, Sabin ikusi neban irrist egiten ebala,  
luebakiaren ondora jausi arte. Zerurantz begiratzen eban, eta beko-  
ki erdiko zulo batetik odola parrastaka erion. Balakadea buruko  
atzekaldetik urteten yakon, eta itsaso baizen oztiñak ziran Sabiñ'en  
begiak itxura utsaz urrutira zuzenduta egozan. Illik zetzan... Negar  
antzekoak ziran intzirikaz, "Sagu" oldartu yakon, aurpegian beera  
erion odola miazkatzen eutsala.

Barru-barrutiko zotin batek astindu ninduan, eta sumiñez zora-  
turik, su-iskilloaren erabilteari emon neutsan. Koraiña izugarria  
bai'litzan, gugandik ur samar etorkiguzan arerioak "Made" k lurre-  
ratzen ebazan, eta andik laster, bitartekoa illotzakaz beterik izten  
ebela, frankotarrek euren babeslekura atzera egin eben, zoro biur-  
tuta nik tirokatzeari jarraitzen neutsala.

Egun aretan aldiaren neurria galdu neban zearo, baiña alako  
baten, etsaiak kañoikada izugarriaz barriro erasoten euskuela oartu  
nintzan. Baiña luebakian babestu bearrean, sumin basatiak menpe-  
ratuta, tirokatzeari jarraitu neutsan, nire burua gorde nengianaren  
Iñaki'ren didarra jaramonik egiteke. Jabetzen ninduan urduritasu-  
naz, buruko babeskiña jausi izan yatala ez nintzan konturatu.  
Ezusteian, neugan dana illundu yatan, eta utsak iruntsita, konortea  
galdu neban.

Aldi luzea igaro zan gertaturikoa ezagutu arte. Neuk "Made"  
erabilteari emoten neutsala, kañoi-jaurtiki bat gugandik ez urrun  
jausi zan, eta aren metrailla-zati batek burutsik nengoan ezker-  
o, buruan jo ninduan, eta beste zati txiki batzuk besoan sartu yata-  
zan. Andik laster, inguruko babesak artuta, Iñaki'k atzera egitea  
erabagi eban, baiña bizirik nengoala konturaturik, sorbalda-gaiñean  
artu ninduan, eta Pruden'ek "Made" artuta, luebakia itzi eben.

Abiatu baiño len, Sabiñ'eri begiak itxi eutsoezan eta Gure Aita bat esanda, Artxanda'n beera Bilbao'ra jatsi ziran. "Sagu" eurekin eroan gura izan eben, baiña ezin, ez eban bere ugazabagandik aldendu nai izan, eta zauria miazkatzen eutsala, eta intziri egiteari itzi barik, an geratu zan illuntzeak argiak uxatzen ebazala... ugazabaren aurpegia itxura baketsuz edertuta, lotan datzan ume baten antzera...

Bilbao'n eri-berebil baten sartu ninduen, eta konorte barik nintzala, Santander'erantz abiatu zan. Urrengo egunean frankotarrak Bilbao'ra sartu ziran, eta eusko gudataldeak lur-jota eta burrukarako adorea galduta, sarkalderantz abiatu ziran, espetxean amaituko zan bidai mingots bateri emoten eutsoela, geuk nai ez izandako gudea galtzen genduala...

Garagarrilla'ren egun eguzkitsu baten, nire lo-aldi luzetik itxartu nintzan. Gela luze baten erreskada bi eratuz, oe asko ikusten ziran. Edegitako leiotik eguzkia parrastaka sartzen zan, eta zabaldiriko txorien txintak aditzen ziran. Min andia oartzten neban buruan, eta eskumako besoa lotura batz bilduta neukan. Urduritsu, oean igitzen asi nintzan, eta andik laster, zuriz jantziriko igaroten zan andereiño bateri dei egin ondoren, nire egoeraren zertzeladak eskatu neutsazan. Geisozain arek orduan auxe esan eustan:

—Artxanda'n zauritu zinduezan orain iru aste-edo. Lo-zorroan egon zara buruan artutako metraillakadagaitik. Illabete onetan, gazuraz janaritu zaitugu. Ilgo zintzazala uste izan neban, baiña osagilleek ezetz, mutil sendo izanik azkenean osatuko zintzakezala, eta izan be, zuzen egon dira. Buruko zauriaz gaiñera, besotik zati batzuk atara eutsuezan.

Orduan, burua ta besoa lotuta nebazala konturatu nintzan. Gose itzela izanik, geiso-zaiñari janaria eskatu neutsan. Bereala jangai batzuk ekarri eustazan, eta arin baten jaten nebazala, irribarretsu begizatzen ninduan.

—Orain bai, ziur nago —esan eustan— osatuko zarala, baita arin be.

Andik egun bitara jagiten asi nintzan, eta geisotegi-inguruko baratzetik egurasteari emon neutsan, astiro-astiro azken aldietako gora-beerak oroimenera barriro etorten yatazala. Ezin nengikean Sabin gogotik kendu, lenengoz oartzten nebala lagun on bat galtzea

zer dan. Gaiñera, Iñaki ta Pruden uts emoten nebazan, larritasun andipean batetik bestera nenbillela. Soiñez indartzen nintzan, baiña nire gogoak zaurituta zirauan.

Luzaro barik buruko lotura kendu eusten. Besoko zauria, baiña askozaz astiroago osatzen yatan, eta osagilleen eritxiz, beste illabeterako izango neuke. Eguraldia ederra zan, eta Cicero eritxan erri-ingurutik, gero ta egurasketa luzeagoak egiten nebazan. Santander'eko zabaldira ederra zan benetan, eta sarri askotan, Yandurarana'ko bazter zoragarriak burura yatordazan, ama, aitita ta arrebak ikusteko gurari bizia nitzaz jabetzen zala. Oroz gain, Irene'ren begi maitekorrak etorkirako saritzat agertzen yatazan. Batzutan, larradien bedar-usaiña oartzean, Bordazuri'ko oroitz bizia min egi-teraiño sartzen yatan gogora...

Eta egunen bidean Dagonilla'n sartu gintzazan, gero ta sendoago oartzten nintzala. Bein baten, frankotarrek barriro erasoten euskuela zabaldu zan. Gaiñera, italiarren gudaroste indartsu baten laguntza ebela bala-bala ebillen, eta Burgos'ko mugatik asitako eraso aurrera ei'joian. Barri oneik entzutean, latz-ikara batek astindu ninduan, eta eiztariek urteera guztiak itxi dautsoezan inguraturiko basabere baten antzera aurkitzen nintzan. Andik egun batzutura, gudako barriak nekez irazten baziran be, geisotegira zurrumurru txarrak etorri yakuzan.

Bein baten, Santoña'ra joateko agindua artu genduan, eta urrengo egunean, geukazan jabetasun ezaiñak bide-zorrotan sarturik, erri-berebilletan geisotegiko guztiak eroan ginduezan. Bidean zear giñoazala, alde guztietatik erreskada luzetan gudariak Santoña'rantz abiatzen zirala ikusi genduan. Erri onetara elduta, norabarik ebiltzan gudariz beterik egoan. Une mingots areitan, Iñaki ta Pruden'ekin batutea baiño, ez neban besterik gogoan, eta kaleetan zear bideratu nintzan arein barriak jakitearren. Orduko, osasunaz ondo aurkitzen nintzan, buruko zauria itxi izan yatala, eta besokoa azalotuta. Gaiñera, izandako sendaldiagaitik, soiñez oso bizkor sentitzen nintzan.

An-emenka noragabe niñoala, kaira joatea otu yatan, eta an zur eta lur geratu nintzan. Une aretan, itsasontzi englistar eder bi kairatu barriak ziran, eta oskoletan idatzita, onoko izenok agertzen ziran: "Bobby" eta "Seven Sea's Spray". Nire inguruan egozan

gudari batzuk, Euzkadi'ko gudariak erbestera eroatearren etorriak zirala iñotsoen alkarri, gure burukideek Italia'ko gudarostearekin itun bat izenpetu izan ebela, eta onen arauz, gudariak-eta erbestera joateko zirala. Barri oneik jakitean, poztasun andia nitzaz jabetu zan, eta nire buruari itaundu neutsan amesetan izango ez ete nintzan.

Alako baten, "Aberri" gudataldeko lagun bat ikusi, eta Iñaki ta Pruden'tzaz itaundu neutsan. Gudataldea estalpe andi baten kokatu izan zala esan eustan, eta norabidea azalduta, pozez gainezka aratu nintzan. Orduko, arratsbeera zan ezker, argi andirik ez egoan, baiña luzaro barik aurkitu nebazan nire lagunak. Ni ikustean, oi bizitan besarkatu ninduen. Niketz, zarrastada andipean ez nintzan gauzarik ezer esateko. Baretu gintzazanean, alkarri barriak emon geutsazan, eta aparizat ogi-tarteko batzuk irunsi ta bereala, itsasontziaz buruz nik esandakoak bultzatuta, kaira joan gintzazan.

Kaian, jendeak norlenka bizian "Bobby" ta "Seven Sea's Spray" itsasontzietara igon gura eben, atzerrira joango ziralakoan. Ontziratzeke zalapartea ikusirik, Iñaki'k auxe esan eban:

—Au ez da gizalegea. Italiarrekin benetako itunpena egin ba'da, eta oneik itunpen ori aurrera eroatekotan ba'dira, gauzak ez litza-kez orren erabarik egingo. Orretarako izen-zerrendak gerturik egon bear izango litzakez, joateko diranai banan-banan dei egiteko. Goazen lagunok, eusko gudarostearentzat ez da atzerrira joaterik izango. Biurtu gaitzean gure estalpera.

Kaleetan zear giñoazala, eusko gudataldeek Dueso espetxetik askaturiko frankotarrak aldraka joiazan, eta euren buruak jare eta kalte barik ikusita, eroiezan ikurriñak eragiñez, didar egiten eben onetaraxe:

—iVivan los vascos, vivan los vascos...!

Bildur izan ziran, italiarrak Santoña'ra sartu baiño len, miliziano-talderen batek amorruz eraginda il egiezan. Orain, ostera bildurra joanda, gutariko gudatalde batek askatuta, ezin egikiezan euren zoriona ta guganako eskerrona menperatu. Luzaro barik, baiña, aizean galduriko oiuk izango litzakez...

Estalpera elduta jakiñerazo euskuen, urrengo egunean italiarrak sartuko litzakezala, eta ez kezkarik izateko, itun bat areikin izenpetu-edo izan zala.

Barri oneik entzutean, Iñaki'k, Pruden eta bioi dei egin, eta,

—Begiraizue, lagunok —esan euskun—, nik ez dakit ialiarrekin itunik dagoan ala ez, eta izanik be gordeko ete daben, baiña auxe ondo dakit: "Made" ez dala iñoren morroi izango. Duintasunaz il egin bear dau...

Au esanik, "Made" artu, eta kaitik arantzago jagiten ziran atx batzuetaraiño zuzendu ginduzan. Gau betea zan, eta leku bakarti aretan ez egoan iñor. "Made" zorrotik atara eta maitasunaz begizatzen ebala, asperen bat urten yakon, auxe ziraustala:

—Aiko, Yon Ander, aalik eta urrunen botako yoagu iñok ikusi ez yagian. Anka banari eutsirik, ik eta biok zabuka eraginda, iru zenbatuta, aalik urrunen botako yoagu.

Anka banari eutsi geutsan, eta iru doi-doi zenbaturik, aidean zear jaurtita, plaust! entzun genduan, eta "Made" gure lagun zintzoa an geratu zan betiko. Isillik biurtu gintzazan, eta illun-illun bazan be, Iñaki'k esku bat matraillera eroaten ebala ikusi neban. Malkoren bat txukatzeke izango ete...?

Urrengo egunean, Dagonilla'ren 26'ganean oker ez ba'nago, italiarrak Santoña'ra sartu ziran. Orduko, "Aberri" gudataldekoak erreskadatan bilduta gengoan. Andik laster, buruzagi italiar batzuk aztertu ginduezan. Itxura gudakoiiaz igaro ziran, jantzi barri baltz txukunakaz, aurpegia jasota, bularra arrotuta, eta begiak arranoarenak baizen menperakorrek ebezala. Oiñetakoak ta ugaltzak dizdirak jaurtiten ebezan, eta Erroma'ko kaiser garailleen arrotasunaz, andigura ta ikara-eziñak igaro ziran gure ondotik. Gero, erriko kaleak guda-berebilletan etorritako gudari italiarrakaz bete ziran. Andik ordu bitara-edo, Treto'ra abiatu geintezela agindu euskuen. Erritik urteten gintzazala "Bobby" ta "Seven Sea's Spray"en irudi bakar eta utsak atzean itzi genduzan.

Eguberdiko eguzki astunpean, izerdi patsetan eta nekaturik, Treto'ra eldu gintzazan, eta emen berebil anditan sartuta, Castro'ra eroan eta erri-inguruko kapardi batera sartu ginduezan.

Kapardi aretan polito gengozan ondo erabilten ginduezala. Italiarrak euren buruak munduko gudaririk zangarren eta onenentzat jotzen ebezan, eta Italia'ra legorrez Frantzia'n zear biurtuko litzakezala zirauskuen. Gorroto barik eta guda-atxillotzat erabilten ginduezan, au da, begirunez eta adiskidetsu. Baiña andik amar bat egunera, gauzak gainbeera aldatu ziran. Falanjistek italiarrak ordeztu ebezan, oneik gudaketan jarraitu egien, eta guda-atxillotzat erabili izan bearrean, arerio gorrotagarritzat artu ginduezan.

Urrengo egunean, bultzaka ta gaizki esaka, zaindari frankotarrak zama-berebil anditara sartu ginduezan, eta barbarik egiten izten ez euskuela, arein begirada ankerpean, nora ez genekiela abiatu gintzazan. Noizbait, Treto'ra elduta, Santoña'rantz barriro, erri-gaiñean Dueso'ko zigor-espexearen isla gorrotagarria ikusten zala. Errian zear giñoazala, lengo "Vivan los vascos" oiua ez ziran iñondik aditzen, eta ango erritarren begirada ardurabakopean erritik urtenda, aldatz batetik Dueso'ko espexera sartu ginduezan, gure atzean sarrerako atetzarra kirrinka bildurgarriaz ixten zala.

## DUESO'N

Jatsi gintzazanean, kantoi zuzena eratzen eban egal biko etxe anditzar batera sarturik, an egoan gudarien erreskada baten atzekaldean, binaka jarri ginduezan. Espetxe-zaindariatako talde ugaritsuak ezker-eskuman kokatuak, begi zorrotzakaz aztertzen ginduezan, eskue-tan gomazko idizillak itxura zemaikorraz erabillezala. Berba zakarrakaz isillik egoteko agindu euskuen.

Astiro baiña etenbarik erreskadea aurrera joian, eta noizbait burura eldu gintzazanean, arazoa argitu zan. Aurrean, burusi zabal baten gaiñean, guztitariko urrezko bitxiak, domiñak, kateak, ezkontz-erestunak, ordulariak eta dirua metatzen ziran. Atxilloturiko guda-riak beartuta gintzazan, bitxiak, urrezkoak eta dirua burusira botateko, eta onen ondoren, zaindari batzuk arakatzen ginduezan, guztitariko zemaik botaten euskuezala balioko gauzaren bat guggan aurkitzekotan. Aurrean joian gudari batek ez ebazan urrezko domiñea ta katea jaurti izan gura. Orduan zaindari batek teinkada basatiaz katea eten egin eutsan, eta metara bota ostean, gorriak esaten eutsazala, zigorraz zartada itzelak emon eutsazan. Gure txandea etorteko zorian zala, isil-misilka Iñaki'k Pruden'eri ta niri, auxe esan euskun:

—Lagunok, aalegindu gaitezen irurok erreskada berean alkarrekin egoteko, eta ezkutatu aal dagizuen guztia.

Gudaldi-tarteko baten, ezarpen ona iruditu yatan ezker, Bilbao'n urrezko ordulari bat erosi izan neban, ordaintzen euskuezan diruaz zer egin ez nekian-eta. Orduan, nire txandea eldu yatanean,

eskuak atzean ipiñi nebazan, eta ardura andiz edea askaturik, praktako gerri-ondoko sakel txikitxu batera sartu neban. Andik laster, zaindari batek auxe esan eustan:

—Venga ya, bandido, eche uté ahí tó lo que tenga, que como luego te encuentre yo argo, te mato a palo...

Burusiaren ondoan nengoan, eta neroiazan diru apurrak jaurtita, aldendu nintzan. Zaindariak orduan, idunea arakatu eustan, eta amak emondako Karmengo kutuna ikustean, musturra okertu yakon, auxe ziraustala:

—Vaya una porquería... no te da vergüenza?

Jarraian, sakela guztiak, gerrikokoa izan ezik, arakatu eustazan, eta gero erreskada batera igorri ninduan. Urrengoa Pruden izan zan, eta nire erreskadara etorri zan. Iñaki'ren arakatzea amaitu zanean, geugana etorri gura izan eban, baiña ustekabez, zaindariak beste alde batera joan zeiten agindu eutsan. Iñaki ez-entzunarena egin zan, baiña zaindariak besotik oratuta zigorkada bat emon eutsan auxe zirautsala:

—¡Te he dicho que a esta otra fila, c...!


Iñaki'k begirada larria jaurti euskun, eta zaindari batek gutariko batzuk artuta, eroan ginduzan, Iñaki ikusmenetik galtzen yakula. Ibilli genbiltzala, espetxeko egiturea aztertu aal izan neban. "Periodo" eritxoen zatia, kantoï eratzen eben egal bikoa, eta beetxeaz iru maillakoa zan. Ezker-eskuma gelatxuen erreskada luzea edatzen zan. Beeko igarobidetik giñoazala, burdiñezko atea zabal-duta, gelatxu baten aurrean geldierazo ginduzan. Ate-ondoan egoan giltzari batek, gindaroazan zaindariari,


—Emen iru —esan eutsan.

Eta olan, gure erreskadea aterik-ate igaro zan, eskatutako lagunak gelatxuetan egokitzen zirala. Alako baten, Pruden'ek belarrira,

—Aiko, Yon Ander —esan eustan—, lagun bi eskatzekotan, geu aurreratuko gozak aldenduak ez izatearren.

Andik laster, giltzariak lagun bi barruratzeko agindu ebanean, Pruden eta biok aurreraturik, gelatxura sartu gintzazan. Atean margoztuta, "21" zenbakia irakurri aal izan neban.





DUESO'KO LARRAIÑEAN

Gelatxua, lau bat metro luze ta biko zabala izango zan. Txoko baten, zuloturiko burni-zaflazko oe bat egoan. Agiri zan, gelatxua lagun batentzat zala, baiña sartu gintzazanean, bost lagun egozan jadanik, gurekin beraz, zazpiko taldea zan. Zabaldira emoten eban atzeko ormean, goikaldeko leio bat egoan, eta andik, arratsbeerako argi biguna gelatxuan sartzen zan.

Bilbaotarrak ziran bost lagun areik, eusko gudarosteko Lorke-ta-saillean jardun izan eban. Sail onen burutariko bat eta lau menpeko ziran, "21"gn gelatxura Ongi-etorria emon euskuenak. Manu eritxan sailburuak burdiñezko oean lo egiten eban, eta beste lauek, zementozko soru-gaiñean zearka, anakak oe-azpitik sartuz. Gelatxoan ez egoan beste tresnarik, latontzi anditzar bat baiño, bada-ezpadakoan gabeko larrialdi baterako. Lagun bakotxak latontzi txiki bana be baeukan, janaria artzeko.

Lorketa-sailleko lagun areik oso arraiki abetaldu ginduezan, eta betiko adiskideak izan bai'gintzazan jardun genduan. Alako baten, arratsaldeko zortziretan inguru, ateko morroilloa eragin zan, eta orduan Manu'k,

—Lagunok —esan euskun—, bayatorku Franko'ren apari bikaiña. Gertu dagiguzan mai-ontziria ta urdaillak, ari dagokion abegia egiteko.

Pruden eta biok azpillarik bage etorri izan gintzazan ezker, gure lagun barriek oneitariko bana eskuratu euskuen. Gelatxuko atea zabaldu zan, eta gure aurrean burdiñezko lapikotzarra agertu zan. Iru mutillek eroien: bi kiderrai eusteko, eta irugarrena burrunzali baten bidez janaria banatzeko.

Erreskadan jarrita, banan-banan anoa emon euskuen. Txilistazkoa zan, eta aletan urritasuna ta uretan ugaritasuna ikustean, ostatu barrian zelako janaria izango genduken, somatu aal izan genduan. Jarraitzeko urteetan, baiña, alako aparirik beti izan ba'gendu...! Gero, atea itxi zan, eta gosez beterik apariari edo zana-zalari ekin geutsan. Pruden eta biok ogirik ez geukan ezker, gure ostatukideek zati bana emon euskuen. Eta gaiñera, zalirik ez izanik be, gure lagun barriek anoa amaitu egiela itxaron bear izan genduan, eta gero eurek itziriko zaliakaz txillistai ekin geutsen. Txar-txarrak ez ziran azaldu, baiña bai geza ta motelak. Gero, autu bateri emon



geutsan. Alako baten, atea barrero zabaldu zan taldeka irolara joan geintezan, eta latontziak uraz garbiturik, gure eginkizunak burutu ondoren, gelatxuetan giltzapetu ginduezan ostera be. Gabeko amarretan-edo, turuta-jote batek isiltasunaren soinuak zabaldu eban. Jotzaillea guretariko gudaria zan, eta oba-oba ederra jo euskun. Jarraian, lo egiteko gertatu gintzazan. Manu, zuluturiko zaflaren gainean etzan zan, ta enparauok burusietan bilduta, zementozko soruan etzanda jarri gintzazan. Gero, gelatxuetako argiak amatau ziran. Oi neban lez, eguneko azken oldozkuna Irene'rentzat izan zan, ta aren oroitzak urrumaturik, lo urduri batek artu ninduan.

Goizean, turutak argi-soiñua jota gero, atek zabaltzen asi ziran, eta aurregunean aparia banandu egin eben lagunak, lapikotzar berberakin atartean agertu yakuzan, eta ur illunezko burrunzalikada bana gure latontzietan isurita gero, ogi txiki bana emon euskuen. Gose nintzan ezkerro, aginkada bat az ogitxuari erdia kendu neutsan. Orduan, Manu'k auxe esan eustan:

—Adiskide, baretu ire adorea, ogitxua egun gutzirako dok-eta.

Zur eta lur geratu nintzan. Opiltxu arek egun osoa iraun bear baeban, gure gosea ez litzake makala izango, arraioa...! Gorde neban ba enparaua, eta kafe-esne zirudianari ekin neutsan. Txastatu ondoren, ez ebal esnerik ez kaferik emoten oartu nintzan, baiña egiari zor yakonaren aldetik, berotsu edo epel egoala esan bear dot, eta au zala-ta, urdaillaren kurrinkak baretzearren zurrutada bitan garbitu neban. Amaitzean, abo-sabaia botika-kutsuz beterik geratu yatan, eta nire aurpegiko keiñua ikusirik,

—Zer yeritxok, lagun, gure gosariari? —Manu'k esan eustan— Batzuen eritxiz, akeita edo kafe ori garbantzuz erreakaz egiña dok. Beste batzuk, ordea, ezkur erreakaz uste yoek. Neuk, baiña, arditxirriakaz egiña edo manufacturau izan dokala esango ñeukek. Au dala-ta, buru ainbat aburu entzuten dozak, baiña urdailla berotzen yakula, ezin ukatu.

Andik laster, atek edegi ziran barrero, eta irolan gure buruen garbitasuna ta gorputzaren bearrizanak egiña gero, giltzapetu ginduezan. Eretia ustiatuz, lagun barrien ezaguera egiten asi nintzan. Manu'k gintza bateko idaztegi ziarduan guda-aurretik, eta ogei ta amar urteduna zan gitxi gora-beera. Erramun eritxan eta gudatean



JANARIAREN BEGIRA



aren bigarrena ta adin bardiñekoa zana, mutil isilla zan. Taldeko irugarrena Yoseba zan, eta lengoaren berba-urritasuna ordaintzeko, barritsu ta alaia. Yokin, laugarrena, mutil begiko ta zabala, amaika jazoera ta izkiri-miri ekiazanak, Galindo aldeko tximistgaillutako lantegi baten ziarduan marrazketa-saillean. Aurrekoak baiño gazteagoa, ogei ta zazpi bat urteduna. Taldeko boskarrena Andoni eritxan; nire adiñekoa inguru ta Mea-eskolan ikasle zana. Mutil au, zauskadabera zan, eta augaitik, batzutan adorez irakiten aurkitzen zan, eta bestetan, ostera, goibel eta lur-jota.

Egun aretan, goizeko amarretan-edo, giltzariiek gelatxuetako ate guztiak edegi ebezan, eta larrain edo patiora taldeka atara ginduezan. "Periodo" eritxan gure espetxe-zatia, L baten irudikoa zan, eta larraiña, egalek eratzen eben barruko txoko edo kantoian aurkitzen zan. Orma sendo garai bik, eta espetxeko egalek, larraiñeko lauki andi samarra mugatzen eben. Onen txokoan geisotegia jagiten zan.

Danok urtenda gero, milla ta bosteunetik gorako atxillo batu gintzazan, gazte samar geienak, baiña baziran gure artean adiñekoak be, gudako sailletan betekizun garrantzitsuak izan ebezanak, edo-ta alderdi politikoetan leku urtenetan jardundakoak. Geienak, baiña, Euzko Gudarosteko buruzagi edo ofizialak. Baziran be, neu ta Pruden lako batzuk, gudari arruntak izan gintzazanak, baiña onen zergaitia laster jakingo neuke.

Alako baten, eta ikusmena kanpoko argira egokitu yatanean, or-emenka ebillen adiñeko gizon bat besoak zabalik yatordala ikusi neban. Izango ete...? Bai, berbera zan. On Martin, Bordazuri'n udako oporrak gurekin emoten ebazana. Estu-estu alkar besarkatu genduan, eta,

—Yon Ander, nire mutilla —esan eustan pozaren-pozez—, ez neuke iñoiz uste izan, au lako leku baten ikusiko zindukedazanik...!

Lenengo unetako zarrastadea igarorik, nire gora-beeren barri emon neutsan, eta gero arek niri bere zertzeladak. Amaitu ebanean, une batez oldozkor geratu zan, eta orduan,

—Aizu Yon Ander —esan eustan—, zeu lako gudari arrunta emen egoteak arrenkurak sortzen daustaz. Toki onetan, gudarien buruzagiak eta politiko urtenak baiño ez dira ikusten. Neu, guda-

gintzan edo industrian jardun izan nozu, asmalari nazan aldetik lantegiko lerkai-gintza nire ardurapean egoala, baiña guzurra izan arren, nire alde azaldu dagiket, Euzkadi'ko Jauraritzak orretara beartu egin ninduala. Zu oster, Naparra'n bizi ta Santoña'n atzitu izan zaran ezker, asalduen aldetik gurera iges egin dozula esan gura dau, eta frankotarrek olakorik ez dabe parkatzen.

Onaiño elduta, unetxu batez isildu zan, eta.

—Entzun ondo, mutil! —On Martin'ek barrero—, guda-azutegira dei egin dagizuenean, matxinadeak Bilbao'n artu zinduzala esango dautsezu, osabarekin aspalditxu bat emoteko etorri izan zintzazan-eta.

Orduan, burutapen auxe etorri yatan, eta,

—On Martin —irautsi neutsan—, Sollube menditik atzera egiten nebala, Amilaz'ko mutil bat zaurituta idoro neban...

Eta jarraian, Arribaita'ko Xabier'ekin izandako gora-beerak zeatz azaldu neutsazan. Amaitu nebanean, On Martiñ'ek auxe esan eustan:

—Bear-bearrezkoa dozu, etxeokai zure egoeraren barriak bialdu dagioezuzan, aalik laisterren Xabier'gandik zure aldeko agiriren bat jaritsi dagien. Idatzi egiezu bertanbera. Bai al-dozu idaztekorik?

Nire ezetza entzutean, txartel eta idazkortza eskuratu eustazan, eta nire egoeraren barriak emonda gero, Arribaita'ra agiri on bat lortzearren joan zeitezan idatzi neutsen etxeokai.


Egun aretan bertan, gelatxuetara barruraten ginduezala, espe-txeko idazkaritzan ziarduan gutariko bateri, txartela emon neutsan aalik ariñen igorri egian eskaereaz.

Egunek gora-beera andi barik alkarri erraikioen, gure gosea baretu eziñik. Goizean emoten euskuen ogitxua egun guztirako izanik, neurriak artu genduzan apurrik txikiena bera be galdu ez zeintekigun. Eguberdian, txillista-lapikoko urri ta motela, eta gabaz ur beroan or-emenka ugeri egiñez ikusten ziran lursagar urri ta gogorak. Janariaz ames egiten genduan, baiña urte batzutan zear, gosea, iñoiz itxiko ez ginduzan lagun zintzoa izango litzakigu.

Arrezkero, guda-epaiak asiak ziran. Ajuriagera, epai-maiaren aurrean dei egin izan zan, baiña gizon zintzo ta zangar onek ez eutsen azalpenik emon gura. Italiarrekin itun bat egoala-ta, eurekin



JATONTZI-GARBIKETEÀ



BIZAR-MOZTE DEBEKATUA

bakarrik itz egingo leukela. Eriotz-zigorra artu eban, eta jarki-ezaugarritzat, jateari uko egin eutsan. Andik egun batzutara, E.A.J.-ko burukideek barriro jan egialaren agindu zorrotza emon eutsoen, etorteko ziran gorabeerai egoera onean aurre egiteko. Epaiaketak alkarri erraikioen arin, eta ezkerreko bee-soruko gelatxuetan eriotz-epaituak egozan, larrain edo patiora urteten lagaten ez eutsiela. Eta olan, etenbarik, soru onetako gelatxuak beteten ziran.

Bein baten, On Martin eta biok larraiñetik ibilli genbiltzela, gizon bat urreratu yakun, eta alkarrekin autu laburra izanda gero, nire gora-beerak jakiñik, ezagutu barriak arraiki begiratzen eustala,

—Aizu, gazte —irautsi eustan—, epai-maikoai egi osoa ez esan, zure burua txarto ikusiko zenduke-ta. Frankotarren aldetik gurekin burrukan egiteko etorri diranai eriotz-epaiketea emoten yake. Kontuz, gero...!

Joan zanean, On Martiñ'ek, gizon a Azkue'tar Erramun Euzko Gudarosteko nagusia zala esan eustan. Andik laster, burukide au eriotz-zigorraz epaitu izan zan. Arrezkero, ez neban barriro ikusi.

Ezbarrak alkaturik datozan ezkerre, giltzapetu ta gose izateari maistar bi eratsi yakezan: zorriak eta imitxak, alegia. Espetxean sartu ta bizpairu egunetara larraiñean Pruden'ekin lurtean jesarrita nengoala, gorputzean zizta bakanak oartzen asi nintzan. Lenengo zorrienak ziran, eta andik laster giltzapeturiko guztien antzera, zorritz josita aurkitu nintzan. Arkondarea belauenen gaiñean ipiñita, zorri-eizara jarduten eben lagunak, oiko ikusgaia zan. Gabean, ostera, sabaiko txokoan kokaturiko imitxak gaiñean jausten yakuzan, eta gure odolez bete-bete, goizaldean euren txokorako bidean gora elmenetik-at galtzen ziran. Zorriak baiño askozaz iguingarriagoak ziran, eta ziztada-unean erremin itzela sortzen zan. Maistar orreik urteetan zear laguntzaillerik amorratuena izango litzakiguz.

Guda-epaiak alkarri erraikioen etenbarik, auzi-aldi bakotxean berrogei bat lagun epaituak zirala. Kontuak atarata, bakotxari miñutu batetik bitara egokiozan. 21'gneko lagunak banan-banan epaitu izan ziran, Manu ta Erramun'eri ogei urte ta egun bat bana etorri izan yakezan, eta Yoseba'k, Andoni'k eta Yokiñ'ek amabi urte ta egun bat bana artu ebezan.

Espetxean sartu ta amabost egunera-edo, Pruden, Epaikari entzulearen aurrean autopena egiteko deitu izan zan. Gelatxura biurtu zanean, nire itaunai erantzunez, auxe esan eustan:

—Begiraik, Yon Ander, entzulearen aurrean nire burua ikusi yoadanean, ezin izan yoat guzurrik esan, eta parra-parra egi guztia bota egin yautsat...

—Baiña, Pruden, ez yeutsan esango Gasteiz'tik iges eginda Bilbao'ra etorri intzala...

—Bai, adiskide, egi osoa esan yautsat.

—Ai, Pruden, irea egin dok...!

Arrezkero, ezin nengikean Pruden burutik kendu, eta arrenkuz gainezka aren epaiketearen begira nengoan. Egun batzuk igarorik, Pruden epai-maira beste batzugin dei egin izan zan, eta eguberdian inguru gelatxura biurtu zanean,

—Ta, Pruden —itaundu neutsan—, zer jazo dok?

—Eriotz-zigorra emon yaustiek. Gorriak esan yautseadaz: gure aberria Euzkadi dokala, eta gure lurra jagoteko jarki nintzakiela. Eurok asaldatuak dozakala, ez gu. Isillik egoteko agindu yaustiek, eta gero nire eriotz-zigorra aditu yoat.


Itzok entzutean, zarrastada larri batek astindu ninduan, eta arrenkurea jabetu eziñik, auxe irautsi neutsan:

—Pruden, il egingo aute...!

—Ez nok orren bildur. Barruko zer batek egia esatera bultzatu naiok, baita aberria aldarrikatzera be, eta ez yoat damurik esanagaitik.

Ari begira geratu nintzan. Bare ta irribarretsua egoan, eta orduantxe bere gogoaren anditasuna ederretsi aal izan neban. Nik ez neuke iñoiz izango, berak erakusten eban kemenan... Ez neban il gura... An urrutian, Bordazuri ta etxekoen deiak aditzen bide neban, eta oroz gain, maite-maite nebanaren aurpegi zoragarria agertzen yatan...

Egun aretan bertan, gabeko ano urria janda gero, gelatxuko atea edegi zan, eta ate-zubipean zaindari bi agertu ziran onetaraxe itaunduz:





ERRI-MIÑA

—Emen, Pruden Urizarna al-da...?

—Bai, neu naz.

—Artu zure gauzak, eta etorri zaitetz gurekin.

Bare ta irrararez gelatxuko lagunakandik agurtu zan, eta gero estu-estu besarkatu ninduan.

—Agur Yon Ander —esan eustan—, joan naiten edonora, gogoan izango aut, napartar zintzo ori... Otoi egik nire alde...

Negar-zotin itogarria bularrean gora ler egin yatan, eta ezer esateko gauzarik ez nintzala, aren irudi txairoa gabeen ostendu zan. Gero, espetxeko argiak itzungi ziran, eta burusian bilduta larri-aldi mingotsa nitzaz jabetu zan. Goizeko argiak sortu-agiñean zirala, lo urduri batek artu ninduan.

Andik laster, aitopena egiteko epaikari-entzulearen aurrera eroan ninduen. Mutil gaztea zan, “komplemento” edo dalako alfereza, eta zarrastada ona egin eustan. Franko’ren “krusadea”k non artu izan ninduan, zer egiten neban une aretan, eta napartarra izanik zelan zeiteken Euzkadi’ko gudari gertatu izatea etabar, itaundu eustan. Nik ondo ausnartutako erantzuna emon neutsan, au da, matxinadea sortu zanean Bilbao’ko nire osabarenean nengoala, urtero ikertzen neban-eta. Gero, etxera biurtzerik ez neban ezkerro, eta gudarako deia zala-ta, ezin bestez guda-talde baten izena emon izan nebala etabar.

Amaitu nebanean, autorleak auxe esan eustan:

—Zeuk diñozuna, urrean, egia izango da, baiña napartarra zaran aldatik, arazoa illun aurkezten yatzu. Oso egokia izango litzakizu, zure erritiko agiri onen bat jaritsi dagizula.

Nire aldeko agiria etxeok igorriko leuskidela, urrean, esan neutsan, eta beste barik gelatxura biurtu nintzan.

Bizpairu egun ozta-ozta igarorik, arratsaldeko urten-aldian On Martín’ekin berbetan niarduala, dei-egilleak nire izena aldarrikatu eban, eta atera joanda, ikerle bat nebala esan eusten. Amabi bat inguruko taldea batu zanean, “Periodo”tik atara ginduezan ikertegira joateko. Arratsalde argipean, eta ain luzaro zabaldua ikusi barik egonda, begien aurrean ikusgai eder-ederra nenkusan. Ibilli nenbi-

llela, nor izango ete ikerlea nire buruari itauntzen neutsan. Etxekoren bat izango ete, ala Irene berbera? Biotza pilpira zoroan ebilkidala, ikertegira sartu nintzan. Erdian, burdiñezko sare lodiak ikerleak eta giltzapetuak bereizten ebazan. Jendeak oiuka ziarduan alkar ulertzearren. Txoko batetik, mintzo ezagun batek dei egin eustan:

—Yon Ander...!

Matxalen, nire arrebea zan. An egoan irribarretsu, aren begi eder ameskorak aztertzen ninduela. Jabetu ezin nengikean itzal batek gogoia illundu eustan, bakarrik egoala egiztatzean... Zergaitik Irene barik...?

Etxekoai buruz itaundu neutsan, eta danak ondo aurkitzen zirala erantzun eustan. Errotatzaz galde egin neutsanean, begikadea illundu yakon, auxe inostala:

—Errotea geldirik yagok, Yon Ander. Zeu joan eta gero, epaitegiko ordezkari bat etxera etorri zolan eta errotako atean zilluzko loturea ipiñi yeuskun, arrezkero ez erabilteko agindu zorrotza emonik...

—Eta orain, zelan konpontzen zarie...?

—Aititik oiko barazkiak zaintzen yozak, eta larunbatetan, ik enduan lez, gurdixuan ipiñita, neuk Aranegi'ko zeira yaroadaz. Ez larritu Yon Ander, len aurreratutako diruaz eta etxeko gauzai ataraten yautsegukan onureaz, ondo samar gaiozak. Alan da be, barri ona yakarrat. Ire albisteak artu gaienduzakanean, ama Amilaz'era Arribaita'koakana joan zolan, eta zauritik sendotzen yeigoan Xabier, euri buruzkoa jakitun ipiñi yoan. I espetxean engoala jakinik, bertan-bera amarekin udaletxera joan zolan, eta iretzat agiri on-ona egin yoan, eta alkateak izenpetuta, ona ekarri yauat auziari erasteko. Orko zaindariari itziko yautsat gero emon yaian. Orrezaz gaiñera, jateko batzuk ekarri yauadaz. Zelango janaria emoten dau-tseue? Oso argal ikusten aut, Yon Ander...

Nik, baiña, ez neutsan jaramon andirik egiten. Irene'gandiko barriak entzun gura neutsazan, eta jakin-gurea menperatu eziñik, onetaraxe eten egin neutsan:

—Esaidan, Matxalen, zelan yagon Irene? zergaitik ez don irekin etorri...?

Unetxu batez aren begiak ituntasunaz moteldu ziran, eta,

—Yon Ander, aztu egik, aztu —erantzun eustan—. Ez yok merezi ire gogamenik txikiena be. Joan intzaretik, beragandik jaurtiki induan zaarkin ezaiña bai'intzan...

Erraikionari ezin neutsan entzun. Zorabio larri batek artu ninduan, inguruko dana ezabatzen yatala, eta ez jaustearren burdin-sareari eutsi bear izan neutsan. Beste mundutik antzera, Matxalen'en berba errukitsuak yatordazan, baiña ziraustanari ez neutsan jaramonik egiten. Noizbait, ez dakit zelan, zorabioa joaten asi yatan, eta ingurukoa bere zerera etorri zan. Matxalen'en begi sako-nek begiztatzan ninduen errukizko itxuraz. Gero, auxe esan eustan:

—Ez larritu, Yon Ander, poztu adi, ostera. Neska buru-arin ganorabako orrek munduko gizonik zoribakoena biurtuko indukean. Ik beste gauza obarik merezi dok, eta ez bera lako txatxala. Begiraik... euk iges egin eta egun batzutara, ire mezua emotearren etxera joan nintzoakion. Entzun bitartean gogaituta yirudikan, eta iganako maitasun-ezaugarririk txikiena bera be ez yeustan emon...

Oiu larri-larria iges egin yatan:

—Ori eziña don, Matxalen...! Begiztatzan nindunanean, aren begietan argi bizia agertzen zolan, maite-maite nindunan-eta...

—Aiko, Yon Ander, maitasuna itsua ei'dok, maitiaren akatsak eta auleriak estaltzen yozakala. Bordazuri'ra ekarri eunskunean, etxeko guztiek iretzat egokirik ez zoala konturatu gintzoan. Irene ez zolan inoiz Bordazuri'ra bizi izatera etorri izango, txatxala orrek tximeletak antzera uri andien dizdira maite yok-eta. Ez larritu, ez adi atsekabetu... begiraik, Irene'k aztu izan indukela jakin gaiendunanean, etxeko guztiok poztu egin gintzoazan.

Matxalen'en berba zentzudunek, baiña, irusten ninduan oiña-zea ez eusten baretzen, eta burdin-sareari eutsita nirauan, nire buruari esaten neutsala amesetan izango ez ete entzuten nebana. Matxalen'en itzak barrero etorri yatazan auxe ziraustala:

—Zu etxetik joan eta aste batzutara, Irene, Asranegi'ko egurastegian gudari txapelgorriekin barre-santzoka ikusi zeitekean. Orain, areitariko buruzagi edo kapitana batekin berbatua ei'dok, eta gudea

amaitu baiño ez, ezkonduko dozak. Ez larritu, Yon Ander, egunen bidean, poztuko azala ziur nok-eta...

Une aretan, begirariak ikerraldia amaitutzat emon eban, eta gelatxura biurtu bear izan neban. Agurtu baiño len, Matxalen'en azkenengo itzok etorri yatazan onetaraxe:

—Agur, Yon Ander maitia. Ez aztu, gero, ekarri yautsadazan zorrotxua ta Xabier'en agiria artzea. Otoi egik egun guztietan, eta oroz gain jarri ire itxaropena Jaunagan. Agur, maite ori, idatzi eiguk astero...

Iribarre itunaz auxe erantzun neutsan:

—Agur, Matxalen, eta eskerrikasko. Besarkada andi bat, ama, aitita ta Iñese'ri. Idatzi egistazue...

—Bai, Yon Ander, etxekoek gogoan augu gau ta egun, eta apalosteko agurtza ire alde izan oi dok...

Joan zan, eta zorrotxu ta agiria arturik, naigabe izugarri batek lur-jota, oiñek narrazka nindaroela, "Periodo" etxetzar ikaragarrira biurtu nintzan. Dana bardin bayatan be, atean zaindari bateri agiria eskuratu neutsan nire auziari eratsi egoien.

Gelatxuko lagunak janari-zorrotxua ikustean, poztu egin ziran benetan, eta apaitarako Bordazuri'ko marrakuku bardinbagea zatitu ta banadu ondoren, gogo beteaz jateari ekin eutsoen. Nik, baiña, saman korapillo bat eraturik, ezin nengikean ez irunsi ez barbarik egin, guztien aurrean barruko larritasuna ezkututzen saiatzen nintzala.

Noizbait argiak amatau ziran, eta burusian bilduta, min sako-neko gau zuri bateri asiera emon neutsan, batetik bestera iraulkatzen nintzala lo egin eziñik. Urruntasunean zear, Irene'ren begi ederrak erdeinuzko irribarreak so egiten eusten, berarekin bizi izaniko aspaldiko jazoerak buruan nerabillezala. Egunsentiak itzarririk artu ninduan. Lengoak baiño egun izugarriagoa asten zan.

Larraiñera urten gintzazanean, On Martiñ'eri jazorikoa irautsi neutsan, eta arreta andiaz dana entzun ondoren, auxe esan eustan:

—Aizu, Yon Ander, ezkontza bizitzako arazorik beiñena da, eta atzera egiterik ez daukana. Neska orrek ez zindudazan zoriontsu egingo, eta au dala-ta burutik kendu lenbailen. Zagozan egoe-



SOIN-GARBIKETEÀ





JANARI-BILLA

rean are mingarriagoa izango yatzu aren oroitzza, maite-maite dozun ezkeru batez be. Begira, mutil, neska ori burutik kentzeko, zeozertan jardutea biderik onena izango litzake; gaurdanik, beraz, itun bat eskintzen dautsut: zuk euskeraz ondo itz egiten irakatsiko daustazu, eta ordaiñez, nik jakintza arruntak erakutsiko dautsudaz, au da, irakurri ta idazten, lutelestia, zenbakiztia etab... Asteko, arratsaldeko urtenaldian, ipuin-liburutxu bat ekarriko dautsut.

Eta olan, gauzak ikasten asi nintzan. Irene'ren gomuteak nonai jazarten baninduan be, ikasketan jarduteaz zelanbait jarkiten nintzakion, baiña espetzeko argiak eta gelakideen autua itzungiten ziranean, eiza-txakurrak bai'litzazan maitasunaren oroitzek etenbarrik jazarten ninduen, areikandik nire burua jareitu eziñik. Eta nekearen-nekez loak artzen ninduanean, guztitariko amestxarrekerasoten eusten, izerdi patsetan larri-larri iratzarri arte.

Bazan jasangaitza yatan ameskeria... Ustekabez, amesen barealdi baten lo nengoala, barre-santzo izugarri, amaibagea, aditzen zan, eta Irene'ren begi eder argitsuak diamante oztiñak bai'litzazan, erdeiñuzko irrikeriz agertzen yatazan irri-karkara gero ta ozenago, gortugarria izateraiño biurtzen zala. Auxe zan ameskerietarik bildurgarriena, eta odola erion biotzeko nire zauriari min geiago ekarkiona.

Gau oro, soru-gaiñean burusian biltzen nintzala, umetarik amak erakutsita lez, otoi egiten neban, eta Jaunari ames izugarria kendu ekidala, nire erregurik bizierna oi zan. Eskaera au baiña, alperrikoa azaltzen zan.

Txarto lo egitegaitik, eta janariaren urritasuna zala-ta, naikoa makal aurkitzen nintzan. Bein baten, garbitegian jantzi-aldagarri erkiña, arrizkoa zirudian jaboiaz garbitzen niarduala, neure izena aldarrikatua izan zan, aalik ariñen epaitua izateko ate nagusian azaldu neinten.

Epai-aretoan, militar batzuk eraturiko epai-mai baten aurrean, berrogei bat lagun batu gintzazan. Kapitan bat gure aurkako salakuntzak eta gora-beerak irakurten asi zan. Geuk, euren matxinadari jarki izandakoak, matxinadako laguntzailletzat salatuak izan gintzazan, eta jarraian, salatariak edo fiskalak, guretzat eskatzen euskuzan zigorrak banan-banan irakurri ebazan. Niretzat, ogei ta amar espetxe-

aldiko urte eskatzen ebazan, eta enparauai, amabi urtetik asita eriotz-zigorerraiño eskatu eutsezan. Gero, alferrez gazte batek gutien zuriketea amabost bat miñututan burutu eban. Gomutaten naz, nire alde erabilli eban erdi miñutuan, Arribaita'ko Xabier'en alde nik egindakoa aitatu ebala.

Niri bost ardura aretoan esaten zanari. Bardin yatan une aretan erabagiten zana. Lur-jota nengoan, eta bizitzeko guraria nigandik alde egin izan zan. Soñez makal eta erdi geisorik aurkitzen nintzan, eta nire gogoia amaibako gau baten murgildurik egoan. Noizbait, maipuruak epaiak irakurten asi yakun. Niri ogei urte ta egun bateko espetxe-aldiko zigorra etorri yatan, eta enparauen epaiketen artean amabi zoribakok eriotz-zigorra artu eben. Danetara, epai-aldia ordubete ta lauren batekoa izan zan, au da, lagun baxotxarentzat ozta-ozta miñutu bi. Erabagi-epe onetan, amabi gizonen bizitza ta eriotza jokoan jarri izan zan, eta eriotzak irabazi.

Gelatxuan, nire lagunek zoriona emon eusten, eta Manu'k,

—Aizu, lagun —esan eustan—, bizitza gordetea beiñena da. Besteak ez dau garrantzi andirik; ez uste izan emen ogei urtez gordeko zaituenik, bai zera...! Niri ogei ta amar eta egun bateko zigor-aldia bota dauste, eta emen nozu ezer jazo ez bai'litzan.

Manu'k uste izaten eban, antza, nire itxura makala epaiketeari zor yakola. Ez neutsan ezer esan. Zertarako?

Nire lo-aldia urduri ta amestxarrakaz betea zan, eta gau-zati andi batez itzarririk jasaten neban ezker, imitxen ziztada gartsuak oartzean, narruararen gaiñean zapaltzen nebazan, eta erremi itzela sortzen bayatan be, nire kolkorako auxe niñoan: “Onok ez daust onezkero beste ziztadarik egingo”. Noizbait loak artzen ninduan, eta andik laster, goizeko turuta-otsak iratzarten ninduan.

Egunez, oster, larraiñean On Martiñ'ekin emoten neban aldia. Gure euskeraren iñarkuna amaituta, berak jakintza-alorrean zear nindaroan, guztitariko azalpenak eroapen andiaz emostazala. Olan ba, igarri barik, lutelesti, izadizti eta zenbakaiztia ezagutzen asi nintzan, eta ikasi-ala nire buruarekiko oneritxia geitzen yatan. Baiña zenbait orduz, Irene'k niri egindako saldukeriaren gomutea uxatzea, garrantzitsuena zan. Gelatxura sartzen ginduezanean, nire

lagunen autuak gogoeta illunak kentzen eustezan. Baziran baiña, noizean bein barre eragiten euskuezan jazoerak.

Arriatsalde baten, aparikoa banandu aurretik, gelatxuko atea edegi zan, eta amazortzi urte inguruko mutil bat sartu euskuen. Gudatalde sozialista bateko gudari arrunta zan, eta gure artean egokituta gero, Ortuella'koa zan eta Antonio eritxan mutillari, Yokiñ'ek auxe itaundu eutsan:

—Aiko, Antonio, gudari soilla izanik, zelan arraiio ekarri aute espetxe onetara?

—Ara ba... Santander'tik Castro'ko atxilloen kapardi batera eroan izan nintzoan, eta andik egun batzutara, kapardiko nagusiak, ofizialak gintzazanoi urrats bat aurrera emoteko agindu yeuskun, eta orduan aurreratu nintzoan...

—Baiña, barrabas ori —eten egin eutsan Yokiñ'ek—, orren gazte izanik, i ete augu gudatalde bateko buruzagi edo ofiziala?

—Neu gure gudataldeko bizargin-ofiziala nintzoan, Ortuella'n bizartegi baten mutiltzat jarduten naiuan- eta.

Barre-santzo itzelak Antonio'ren azken itzoi jarraitu eutsiezan, eta berak, zoro biurtu izan gintzazalakoan begiztutzen ginduzala, barre egin genduan arnasa galdu arte. Azkenean, Antonio gizajoari bere oker-ulertzea azaldu geutsan.

—Arraioa...! —esan euskun arazoa ulertu ebanean— Nireak egin dau baiña dana-dala, neu ofiziala nozue.

Gurekin aspalditxu bat emon eban Antonio'k. Danok maitemaitte genduan, oso tolesbakoa zalako. Bein baten, epai-entzuleagana joateko garaia etorri yakon, eta geuk ondo irakatsita joan zan, izan be. Biurtu zanean, jazorikoa onetaraxe azaldu euskun:

—Alferrez barrabasa a be, zuek lez itoteraiño karkarrak urteten yakozala egon da, eta nire gorabeera guztiak entzunda gero, barre egiteari itzi barik, gelatxura biurtzeko esan daust.

—Barre egin ba'yok —Manu'k esan eutsan—, ori ezaugarri ona dok, Antonio. Luzaro barik emendik atarako aue.

Zuzen egoan Manu. Andik egun batzutara, gure Antonio, Ortuella'ko bizargin-ofiziala, urten egin zan lan-kapardi batera, antza.

Baiña geienetan, gogoaren giroa ez egoan barre egiteko. Egunek alkarri erraikioen astiro ta aspergarriak, etxekoen urruntasunak gauzak areago illuntzen ebazala. Eriotz-zigortuak ziran, baiña, zori-bakoenak, edozein gabean erailteko euren billa etorri leitekiezala baekien-eta.

Gau baten, ames izugarria izan neban. Ara... eurite batek Anux-adarra ondatzeko zorian jarri izan eban, eta galtzoria ikusirik, aititak nazari eusten eutsan amildu ez zeiten. Alako baten, baiña, ur orrulariek mendi-beera oldartu ziran, aitita, errotea ta Bordazuri bera be lurraren azaletik garbituz. Arnas-estuka ta izerditan iratzarri nintzan. Goizaldea zan, eta leiotik argi margulak gure gelatxua argitzen eban. Alako baten, danbada ozen batzuk aditu ziran, eta gero bakea barriro. Manu'k eta Yokiñ'ek iratzarrita, alkarri itaundu eutsoen, danbadaren zergaitia. Urrilla'ren 15'gna zan...

Gosaria edo oiko ur margotua ekarri orduko, lagun batzuk su-iskilloz erail izan zirala, banatzaille batek jakiñerazo euskun. Urten gintzazanean, larrañean zear isiltasun izugarria edatzen zan, abopeka itz egiten zala. Espetxeko ormatzarraren aurrean, amalau lagun "Gora Euzkadi" ta "Viva la Republika" oiukatzen ebezala, erail izan ziran. Euren artean, Azkue, Markiegi, Otamendi ta abar... amalau gizon zintzo ta zangar, gurasoak, alargunak eta ume-zurtzak izten ebezala. Ezin nengikean Azkue gizon arrai ta maitetsua burutik kendu. Naigabeak lur-jota, arein alde otoi bat esan genduan burutsik.

Gero, arein eriotzaren gora-beera batzuk jakin genduzan. Geienak, jaunartu ondoren, errime ta adoretuak erail-lekura abiatu ziran. "Periodo"tik urtetan zirala, euretariko bat atzeratu ei'zan. Orduan, Ileno eritxan gogo zitaleko idizillari batek auxe esan ei'eutsan:

—iVamo, aprisa, que va a perdé er tren...!

Aberria goraltzen jausi ziran goizalde aretan, argiak espetxeko orma itzaltsuak musukatzen ebazala. Ildakoek Aberria egiten ei'da-



JOSKETEA



EGUZKIPEN

be. Antxe obiratu izan ziran Euzkadi biotz-biotzez maite izan eben euskotar zintzo areik, burruka-lekuan Aberria egiten jausi izan ziran gudari zangarren ekintzeari jarraituz.

Barria zabaldu zanean, espetxean lan egiten ebenetariko baten bidez, Ajuriagerra'k gudaiburu italiarrari, mezu gogorra eldu-erazo ei'eutsan bere itz-jateagaitik gorriak esaten eutsazala.

Espetxeko giroa gero ta itzaltsuagoa biurtzen zan. Bee mailla-ko zaindaria, erderaz "porristas" esaten eutsenai, goragoko maillak irabaztearren meritu andiak egiten saiatzen ziran. Meritu orrein artean, giltzapetuak aalik eta ankerren, basatien, erabiltea zan. Or-emenka beti zain ikusten ziran idizilla laztanduz, edozein atxakiz gure bizkarrak berotzeko gerturik. Ileno, Tisera, Tusero, Sagardoi etabar. Azken au arabarra zan, eta asierean guztiz anker azaldu bazan be, egunen bidean bigundu zan zearo, eta azkenean, adiskidetsu erabilli ginduzan.

Gaiztoena, baiña, Ileno zan. Aurpegiz baltzarana, gogoa ustelduta eban. Batetik bestera beti ikusten zan ezpanetan irriño isekaria erabilela, edozein giltzapetu gaizki erabilteko gerturik. Andaluzitarra zan berau, eta ez dakit zergaitik, eusko atxillotuai neurriz gaiñeko gorrotoa euskun.

Tisera, ordea, gizon otza zan eta geuganako gorroto barik, baiña guraria, antza, goragoko mailla baten jarrita eban ezker, beti edozein lege-auspenaren begira, ez eban giltzapetuentzat errukirik txikiena be erakusten. Tusero, oster, burutik zeozer eginda zirudian, eta batzutan alai eta barritsua laguntzat artu bazeiteken be, bestetan oster, zoro baten antzera aurrean erabilten ginduzan. Bazan Castor eritxan beste zaindari bat. Baiña idizillari au ez zan ezertan nabarmentzen, bein baten, gauza izugarriaren egillea azaldu bazan be.

Urrilla'ren erailketea ta egun batzutara, Ileno'k gure gelatxuen ate-ondoan jarten ginduzala, aurrerantzean espetxeko arauak ondo beteteko ziran ezker, berak irakatsitakoari ondo jarraitu bear yakola jakiñerazo euskun. Txilibitua ustiatuz, ordutan zear zelan jokatu erakutsi euskun. Giltzariak gure gelatxuen atak edegita gero, txilibitujotea entzunik, igaro-bidera urten eta ate-ondoan geratzen gintzazan. Bigarren jotea aditzean, atak erabatean ixteko ziran, eta iruga-

rrena entzuten zanean, errenkada luzea eratuz, isil-isillik larrainera urteten gintzazan. Gero, bardin, larrainetik sartuta, gelatxuen aurrean gelditu, barrura sartu, eta irugarrenaz, atea ixten genduzan. Ateak eun batzuk ziran ezkerre, aalik indartsuen ixten genduzan, ia bein edo bein espetxe madarikatua apurtuko ete litzaken.

Dana-dala, egiketa orrek, neugan beintzat, otseintzaren zarrastadea sortzen eustan. Lapur edo erailleetzat erabilten ginduezan, gure buruak gero ta apalduagoak sentitzen genduzala.

Gau baten, argiak amatau baiño lenago, gelatxuko atea edegi zan, eta ezaguna neban giltzariak, dei egin eta auxe esan eustan:

—Ator eta jarraitu egistak isillean.

Igarobidean zear bideratu gintzazan, eta gero eriotz-zigortuen egalera sartuta, giltzaria ate baten aurrean gelditu zan eta zabaldu eban. Ate-zubian agertu nintzanean, Pruden besoetara oldartu yatan auxe ziraustala:

—Yon Ander, eriotz-zigortuak biar beste iñora eroango gaiuezak. Yirudikanez, Bilbao'ra, Larrinaga'ko espetxera ain zuzen. Joan aurretik azkenengoz agurtu nai aut, niretzat beti lagun on-ona izan azalako, eta gaiñera gauza bat eskatu gura yauat.

Eztarran korapillo bat eratu izan yatan, eta zer esan ez nekiala, isillik nirauan.

—Aiko, Yon Ander, ez yoagu barriro alkar ikusiko. Egunen baten, aal yokanean, ikertu egistazak nire gurasoak, eta alkarrekin izaniko gorabeeren barriak emon egiezak.

—Bai, Pruden.

—Agur, adiskide maite ori, eta Jaungoikoak lagundu yaiakala. Jauna laster ikusiko yoadala, eta i azkenean onik urtengo azala yiñostak sentipen ezkutu batek. Yon Ander, besarkatu naik...!

Alkar besarkatu genduan. Pruden'en aurpegia dizdir bakanaz argituta zirudian, mundu onetakoa ez bai'litzan yadanik.

Giltzariak urteteko agindu eustan, eta malkoai eutsi eziñik, lo-ibiltari baten antzera, igarobide itzaltsuetatik nire gelatxura biurtu nintzan, eta burusian bilduta oroitz eta otoitzen artean, goiztiri-

ko argi motela leioko burdiñen artetik gelatxuan sartu arte, itzarrik iraun neban.

Goiztu baiño ez, eriotz-zigortuak beste iñora eroan ebezan. Andik egun batzutara, Bilbao'ko Larrinaga espetxean egozala jakin genduan. Aspalditxu bat lenago, gudaldia gurekin egindako kapellau maitiak, beste leku batera eroan izan ziran, eta azkenean, Carmona'ko espetxean urte batzuk emon ondoren, urrutiko parrokitarra atzerriratuak izango ziran. Gure erriak nai ez izandako guda zitalaren ondorioak errubageenek ordainduko leukiez.

Aspaldi aretan, jarraipen txarrak ekarriko leuskiguzan ezustea jazo zan. Arratsalde baten, larrainera urteteko zorian gintzazala, Jaime I'goan, guda-ontzian, jardundako mariñel bat burua kapelaz estalduta igarobidetik joian. Itsasgizon au, erdi zoroa zana danok genekian gauza zan. Goibe txikikoa, burua kaskaildua eban, kuia luze estu baten antzera. Une aretan, Castor idizillaria bere ondotik igaro zan, eta kapela kentzen ez ebala ikusirik, kendu egian agindu eutsan agiraka. Mariñel zoroaren ezetza entzutean, ukabilka asi yakon, eta lurrera jaurtita, bitsa eriola burua ta gorputza ostikatu eutsazan, basaki. Au ikusirik, inguruko giltzapetuak eta gero guztiok, Castor'eri txistu ta oikua, egiñikoa gaitzetsi geutsan. Idizillaria orduan, zizpoleta zorrotik atara, eta tiroka asi zan. Sortu zan astrapalean, bakotxa urrenen genduan gelatxura sartu gintzazan.

Bazirudian onezaz dana amaitu izan zala... baiña urrengo goizaldean, eriotz-zigortutako berrogetak eta mariñel zoro gaixo berbera, su iskilloz erail izan ziran. Erailketearen gora-beerak izugarriak gertatu ziran, ume txikiak eta emazte izten ebezanentzat batez be. Lege-auspen ezgauza batek olako ondorioa ekarri eban. Agintzakeria zelan edo alan gordeteko zan, eta arazo oneitan orduko zapaltzailleen espetxeak ez ziran makalak.

Baiña frankotarren eritxiz egindako basakeria ez zan naikoa. "Periodo"n gengozanok, kanpoko mundutik baztertu izan gintzazan. Etxekoai idaztea eta arekandiko barriak artzea debekatu izan zan, baita janzi ta jatekoak be. Lekoreko laguntzarik ezak, janariarenak batez be, egoera larrian jarten ginduzan, eta gose gorriaren mamu baltza ezagutu genduan. Gaiñera, goizeko ta arratsaldeko larrain-aldiak eten egin yakuzan, eta irolarako urtenaldi laburrak izan ezik, ogei ta lau orduz giltzapetuta iraun bear izan genduan

gelatxuetan. Oba zan, izan be, zirkiñik egin barik egotea, osterantzean, larrañetik egurasketak areago makalduko ginduzan-eta. Zorriak eta imitxak, oster, iñoizkorik bizkorren ugaltzen ziran, gu makalago ta areik mardoago biurtuz.

Txilistak eta garbantzua oiko janaria genduan, noizean bein lursagarren batz lapikoko urtsu ta urria emoten euskuela, baita "boniatos" eritxoetak egindako egosketa iguingarria be. Txilistak, baiña, legar txikiekin etorkiguzan, eta gure agiñek benetako kalte artu oi eben. Au zala ta, astiro mamurtzeari artaratu gintzazan. Baiña gurekin beti egoan gosearen mamu azurtsua, eta ezin genginean uxatu. Irolara niñoan bein baten, janari-bantazaillek oiko lapikotzarra eroiela, kulunka asi yaken, eta alako zabukada baten, txilista-saldako arrada bat lurrera jausi zan. Bapatean, bizpauru lagun isuritako salda zikiñera oldartu, eta dana garbitu arte koillararakaz erratilluetara sartu eben. Goseak norberaren duintasuna ezerezten dau. Gaiñera, gure nortasuna areago zitaltzearren, kaskamotz ibiltzen beartuak gintzazan, buruko zorriak, antza, ugaltu ez zeitezen atxakiaz, baiña nik beintzat ez neban olako lagunik ezagutu, gorputzeko zorriek buruko maisterrak garbitzen ebezalako, antza.

Bein baten, barri izugarria etorri yakun. "Periodo"ren alboan jagiten zan "Rastrillo" eritxan estalpeko giltzapetuak, frankotarren ikurriña goizeko jaso-unean eta arrastiko beerakoan, taldeka eroaten ziran "Arriba" ta "Viva" ozenen artean ikusleak izateko. Baegoan gudari bat etenbako miñetan osatueziñeko zauria jasan bear ebana. Areitariko egun baten, didarrak amaitu ziranean, gudari ori aurreratu, eta oiuka onetaraxe asi zan:

—“Gora Euzkadi” “Viva la República”...!

Urrengo goizean, ikurriña jaso ta bereala, gudari gaixoa laguntaldearen aurrean, su-iskilloz erail eben, “Gora Euzkadi” ta “Viva la República” oiukatuz, berak billaturiko eriotza artzen ebala.

Gu be, beartu ginduezan gelataxuen ate-aurrean kokatuta, “Arriba” ta “Viva” didar egitera, baiña jakiña, beste itzak jaurtiten genduzan.

Gau ta egun osoan, batentzat izateko zan gelatxuan zazpi lagun egotea, jasangaitza azaltzen zan benetan. Nire gelakideek

alkarrizketan eta elebarriak irakurriz aldia emoten eben. Nik, oster, On Mertiñ'ek lagatako liburuak irusten nebazan, eta igartzeko, zenbakiak erabilten, izaeraren gauzak ikasten eta idazkerea edertzen, orduetan zear niarduan. Eta izan be, jardun au bear-bearrezkoa yatan nire gogoak egoera larri ta zoribako aretatik iges ekidazan. Dana-dala, Irene'ren gomutapena ezin nengikean nigandik uxatu. Nire arimeak ain bizi lastanduriko ames ederrari uko egitea, jarkiten nintzakion, eta barrutik gura ez izanik be, galduriko ames zoroek bakar-miñez beteten ninduen.

Gabonilla'ren asierako gau baten, apari-anoa banatzen euskuela, azkenengoz Pruden agurtzera eroan izan ninduan giltzari berberak, aurreguneko goizaldean Pruden su-iskilloz erail izan zala jakiñerazo eustan. Gose banintzan be, gau aretako txilista bat bera be ezin neban iruntsi, eta gau osoa Pruden maitia gogoratuz goizaldearte irauñ neban.

Egun areitan, areto andietan egozan Larrinaga espetxeko eriotz-zigortuen egoerea, larri baiño larriagoa zan. Ia egunoro, gau betea zala, igarobideetako argiak piztuten ziran, eta eriotzak ateetan koxkox egin ondoren, espetxeko zaindarek, erailteko ziranen izenak aldarrikatzen ebezan. Jarraian, areto baten, kapellau baten laguntzea euren aukeran eben. An bertan, etxeako azken agurra idazten eutsien, eta goizaldea barik Derio'ko illerrira eroanda, egunsentian erail oi ebezan. Batzuk, eriotzari alperrik jarkiten yakozan, eta narrazka, ukabilka, eroan izaten ziran. Geienek, oster, duintasun baketsuak eriotzari aurre egiten eutsoen.

Larrinaga espetxeko idaztegiari ziarduenek, geienetan baekiezan urrengo goizaldean erailteko ziranen izenak. Argiak itzungi aurretik, gelako batek, ilteko zanari, eskua sorbaldan ipiñita auxe zirautsan:

—Aizu, gaur jantzirik etzan zaitez.

Eta burusipean, erantzi barik dei izugarriaren begira egoten zan. Eriotzaren eupadea jantzita naiz billutsik artzea, bardin da alegia, baiña ekintza orrek bazirudian ilteko zanari duintasun andi-ago emoten eutsala. Bilduma ikaragarria amaitzen zanean, igarobideetako argiak itzungiten ziran. Ateko zulutxutik begirari egoanak, argiak amatatzen zirala ikusirik, aretoko lagunai auxe zirautsen:

—Nasaitu zaitezte, lagunok, gaurko sarekadea amaitu da.

Olan etorri yakon ordua Pruden gudari zangarrari. Erietzaren billa bare-bare ta irribarretsu bideratu zan. Kapellauarekin autortu ondoren, jaunartu eban, eta gero etxekoai idazki eder-ederra itzi eutsen. Gaztetasun betean bizitza iñoizkorik jorien aurkezten yakonean, dardar egin barik, bere lurraganako maitasunaz sututa, ibillera errimez erail-lekura abiatu zan. Oi nork aren gizontasuna izan...!

Andik laster, 1.937'ko Egubarria eldu yakun. Gabon-gabako aparria ez dot egundo aztuko. Gau aretan oiko lapikoko urtsua banandu euskuenean, ezin izan neutsan antz emon zelakoa zan, erratilluan ur epela baiña ez neban idoro-ta, baiña, guenez, garbantzuen salda zala, egiztatu aal izan genduan. Yokiñ'ek, sakel-egutegi baten jazoten ziran gertaerarik agirienak jarten ebazan, eta egun aretako gau-anoari buruz, auxe iñoan: "Apaitarako emon dausten salda epela amaitzeko zorian zala, garbantzu bat ugeri egiten idoro aal izan dot".

Urrengo eguneko mezatako jaunartzean, etxekoen alde iñoizkorik sutsuen eskatu neban. Nire egoerea larria bazan, eurena ez litzake atsegiñagoa izango. Kanporako ta barrurako mezuak galazota egozan ezkerro, errubako areik ni baiña areago jasango leukiela gauza ziburra zan.

Jaiegun guztietan ospatzen zan mezatara, giltzapetuak joaten beartuak gintzazan. Mezea, sotanan falanjeko ikurrak josita ebazan kapellau gazte batek emon eroian, eta larraiñean edo barruko igarobideetan eguraldi txarra zanean, erreskadatan egon bear genduan, idizillariak zelatari zorrotzak genduzala. Ez yatazan eder ekitaldi areik, baiña Egia auleri ta zitalkeri guztien gaiñetik egoala sentitzen neban, eta aalik ondoen mezeari jarraitzen neutsan, barruko bakea aurkitu naiez.

Gabonzarra giro bardiñean igaro genduan. 1.938'ko urtebarran bazkaria banatzearren atea zabaldu zanean, lagun batek eskuan latontzi bete sukalki ebalá, auxe itaundu euskun:

—Gelatxu onetan, Idarroiz abizeneko iñor bai al-da?

—Bai, neu naz.

—Aizu —ontzia eskuratuz batera irautsi eustan—, au "Rastri-

llo'n" dagoan zure adiskide Iñaki'ren partez. Egunokaz sukaldeetan lan egiten asi barria da, eta sukalki au zeuri ekarteko agindu daust.

Biotza eskerronez bete yatan, eta,

—Zelan dago bera —itaundu neutsan—, ondo al-da?

—Bai, benetan, argal-argal aurkitzen zan, baiña orain sukaldean jarduten danetik loditzen asi da.

—Emon egiozuz nire goraintziak.

Adorez beterik, gelatxuko zazpi lagunok sukalkia garbitu genduan, eta gero, oiko autu nasai bateri emon geutsan. Ni, baiña, egun aretan ez nintzan ondo aurkitzen. Goizetik, urdaillean korapillo mingarria sentitzen neban, eta nire anoá nekez irunsi aal izan neban. Gaba eldu zaneke, sukarrak menperatzen ninduan, eta zergaitia ez banekian be, urdailleko gatxa zala antz emon neutsan. Gau aretan, amestxar izugarriek eraso eusten, eta alako baten, Irene'ren irudi zoragarria agertu yatan. Aren begi oztin ederrai erdeiñuzko txinpartak eriozala begiratzen eusten, eta bapatean, ezpan gorri beteak niri berba egiteko itxuraz zabaltzen zirala, isekaz beterik barre-santzoka asi yatan. Barre ankerra eten egian eskatzen neutsan, baiña gero ta ozenago aditzen zan. Belarriak estaltzen nebazan, baiña alperrik, aren karkarak garunean maillukada itzelak antzera oartzen nebazan.

Ezustean, izerdi patsetan iratzarri nintzan. Buruko min jasangaitzak eta egarmin kiskalgarriak menperatzen ninduen, eta irrika bizian ur edateari emon neutsan ontzia ustu arte. Gero, burusian barrero bilduta, otz-ikarak etorri yatazan, eta begiak zabal-zabalik, leioan zear gau otzean dizdiratzen ziran izarrai begira berariz geratu nintzan, barrero lotan asi gura ez nebalako.

Sukarrak ez ninduan bakean izten. Egunez, zelan edo alan lagunuen autuak eta oiko eginkizunak zirala-ta, banirauan, baiña gabeko isillean betazalak ixten yatazanean, galduriko maitasunaren joranak eta jasaten neban sukarrak, loa amestxar biurtzen eusten, eta zorotasunezko zurrunbilloan, Irene'ren aurpegi ederra agertzen yatan, begiai dizdir isekaria erielá. Barre-santzoka jazarten ninduan, eta beragandik iges egin gura izaten baneban be, alperrik. Ezin nintzakion jarki, biotza taupada zorotan eta buruko min itzelaz iratzarri arte.

Turutak isillaldia jotean ebanean, lurrean etzanda, ikusgai mingarri areitatiek jareitzearren, atzarri irauten aalegintzen nintzan, baiña sukarraren ego zoroek bera iñoizkorik lilluragarrien ekarsten barriro, karkar isekariakaz jazarten ninduala.

Luzaro barik, makaltasun andia nitzaz jabetu zan, eta gatx arek mundu onetatik eroango ninduala uste izaten asi nintzanean, jazoera siñisteziña gertatu zan.

Areitariko gau baten, Irene'ren karkar jasangatxek gogoia erruki barik sastakatzen eustela, ezustean, barre-santzo gorrotagarriek eten egin eben. Neska bat niganantz makurtuta, so egiten eustan. Begi eder, andi, gaztainakarek arimaren sakoneneraiño lastantzen ninduen, eta esku bigunakaz bekoki sukartsua igurtziten eustan. Begi areik... beste iñon lastandu izan ninduen... Bai, maisu zital arek euskeraz jarduteagaitik ni astindu ostean, eskolako zurubian beera ostikoka jaurti ondoren, senetara biurtu nintzaneko begi berberak ziran. Aurpegia laiñoaren artean lez agertzen yatan, baiña karantz ezabatsua arek ezaguna emoten eban. Orduan berba oneik urrundik lez aditu nebazan:


—Yonan, Yonan, maite ori...!

Au entzutean, oiñestu batek argituta bai'litzan aren aurpegia ezagutu neban. Besoak beraganantz luzatuz eta biotza taupadaka ebilkidala,

—Mimiñe, Mimiñe lastana —didar egin neutsan—, erdu nigana, ez zaitetz joan, bear zaitut-eta...! Jakingo ba'zendu zein etsiansian bear zaitudan...!

Ezustean, Mimiñe ostendu zan eta soruan jesarrita aurkitu nintzan. Leioan zear ilbeerako argi berandukorra ozkarbi otzean dizdir moteletan ikusten zan, eta argi bigun aren pean, espetxean nengoanetik lenengoz, zorion bakana nitzaz jabetu zan. Sukarra joan izan yatan, eta makal sentitzen banintzan be, osatuta nengoan.

Ni bai zoroa...! Benetako urrea arbuiatuz, urre-izunaren atzetik itsu baten antzera joan izan nintzan, eta iñoiz maite izango ez ninduken neska txatxala, biotzean kutuntzat ipiñi izan neban, Indabaita'ko umetzurtz zoragarria aztu egiteraiño. Mimiñe'ren begi amaibage lastangarriak eta aren aurpegi samur, gozoa, iñoizkorik







ORDUAK EMOTEN

argien agertzen yatazan, eta Indusi'ko gaztaiñadian lenengoz ikusi nebanetik nire bizitzatik ostendu arte, berarekin izaniko artu-emon guztiak, atzo jazo izan bai'litzazan banan-banan gogora yatordazan.

Orduan, bera baiño ez neukela beste emakumerik maite izango oartu nintzan. Errautspeko txingarren antzera, aren oroitzak neugan iraun izan eban, eta orain egoera larrian aurkitzen nintzala, argi bizia lez agertzen yatan barruko samintasuna uxatuz. Une berean, Indabaita'koai lagundu ez izatea nire buruari gaitzesten neutsan. Il aurretik aitari itz emon izan neutsan euren alde aaleginduko nintzakela, baiña arrezkero lepora etorri yatazan buruauste ta lanakaitik, aspaldi batez aztu izan nebazan, eta konturatu nintzane-ko, ama-alabak joanak ziran. Gogoan neban On Markel'ek jakiñe-razo eustanean, bearrianak eraginda Indabaita'koak biziera nasaia-goren billa Donostia'ra aldatu izan zirala. Arrezkero, uxatu ezin neban ar batek gogoa marraskatzen eustan.

Orain, baiña, bitarte ta aldiaren zear, Mimiñe etorria yatan etsipenak menperatzen ninduanen. Urteen bidean, zelangoa izango zan amar bat urte lenago ezagutu neban neskatoa? Ziurtzat emoten neban, begi eder gozoen jabea izan zana, orain emakume gazte, zoragarria biurtu izango zala. Amesetan eta laiño artean ikusiriko Mimiñe'ren aurpegiak edertasun neurribakoa iragarten eban.

Espetxetik urten neitenean aren billa asiko nintzake, eta zeru-lurrak arakatuko neukez bera idoro arte. Baiña, iñoiz idoroko ete neuke...? Auxe zan kezkatzen ninduana, eta izan be, zalantza ori merezi neban aitaren agindua bete ez izategaitik. Egunen bat nire zabarkeria barkaturik izango al zan...!

Oldozkun oneitan murgildurik, egunsentia egin zan, eta nire gogoan goizalde itxaropentsu baten argi-printzak sortu yatazan.

Arrezkero, Irene nire gogoetatik bein betiko ostendu zan, eta gau oro Mimiñe'ren oroitzaz urrumaturik, loak artzen ninduan. Noizean bein amesetan agertzen yatan, "Yonan, Yonan..!" esaten eustala, eta orduan zerua zelan izan leiteken somatzen neban.

Aldiaren jarraigo aspergarria bajoian aurrera. Egunez ikasketan murgildurik niarduan, eta ikasi-ala, izaerea atsegiñagoa biurtzen yatala egiztatzen neban. Nire gelakideek, Erramun eta Yoseba izan ezik, alkarrizketan eta elebarriak irakurten aldia emoten eban, baita

erretzen be, ke-bedarrik izatekotan, jakiña. Aparitxu txatxarra iruntsita, alkarrizketa orokor bateri emoten geutsan. Ez yat egundo aztuko, areitariko gai batek ekarri euskun ondorioa...

Gau baten etzanda gengozala, oso edegia zan Yokin, bere auzoko jazoerak esaten asi yakun, eta aririk-ari neska baten gorabeerak jakiñerazo euskuzan. Dalako neska ori eder eta txoriburua zana, bere auzoko mutil batekin maitekeritan naastu izan zan, eta arrezkero, ume-galtze bat izan ebala. Au soillik edestu ba'leusku, tira...! baiña gure Yokiñ'ek neskearen ezaugarri zeatzak emon euskuzan, baita aren izena aitatu be. Andik laster lotan asi gintzazan, baiña alako baten iratzarrita, Erramun batetik bestera iraulkatzen zala konturatu nintzan. Ez dakit zein luzaro egoera onetan iraungo leuken, loak barriro artu ninduan-eta.

Urrengo egunean, Erramun'ek eta Yokiñ'ek txutxumuka ziar-duela ikusi neban. Gero, Erramun'ek idazteari emon eutsan, eta garrantzi andiko arazoa zan ezkerro, antza, giltzari baten bidez idazkia kanpora bialdu eban. Mezu onek emaztegaiari jakiñerazoten eutsan euren amaitu izan zala, baita zergaitik be. Erramun gaixoak egun mingotsak jasan ebazan, eta nik uste, emaztegai zoribakoak ez ebazala alaiagorik jasango. Oso barrukoia zan Erramun, arrezkero areago biurtu zan. Neuri jazorikoa gogoratuz, erruki neutsan benetan.

Gauza berberak ondorio guztiz ezbarðiñak dakarrezala, egiztatu aal izan neban laster. Andik illabetera-edo, idazkiak debekatuta izan arren, bide ezkutu batetik, Yoseba'ri, gure gelakideari, bere amagandik idazki bat etorri yakon. Irakurri baiño ez, Joseba pozarenpozez ikotika asten zala ikusirik, Manu'k auxe itaundu eutsan:


—Ta, Yoseba, etxetik barri onak, antza...?

—Oba ez, Manu —eskuak atsegiñez alkar igurtziz erantzun eutsan—, nire neskeak itzi naiokala, yíñostak amak. Iujuuu...!

Danok arrituta begiratu geutsan, burutik eginda zalakoan-edo.

—Bai, lagunok —jarraitu eban Yoseba'k—, gudea asi aurretik, neska bat ezagutu neban, eta arekin urteten asi nintzan. Bera gero ta maiteminduago azaltzen zan, baiña ni gero ta aspertuago, ez nekian artu-emon areik zelan eten egin. Olan iraun genduan, eta





ETXETIKO PARDELTXUA

Prantzi'ra joan zan neskeak idazki sutsuak bialtzen eustazan. Nik, oster, ez neban maite, baiña ez nekian zelan apurtu. Orain, baiña, nire maiteminduriko neskea prantzitar batekin ezkondu dala amak diñost. Au bai zoriona, iujuuuu...!

Agiri zan Yoseba'k egia esaten euskula, urrengo aspaldian aldarterik onenean ikusi genduan-eta.

Noizbait, udabarria urreratzen zan garaian, lekoreko mundua-rekin genduan etena, jaso izan zan, eta kanpotiko janari, janzki, eskutitz eta ikerleak etorten asi ziran. Aspaldi aretan, etxetik igorri-tako illazki bat eldu yatan. Au zer dan jakiteko, illabete batzuk lurrean etzanda lo egin bear da. Lenengo gauetan, zeruan nengoala iruditu yatan. Gaiñera, jangai batzuk bialdu eustezan, eta nire gelakideek artutakoakaz, gose gorria apur bat arintzeko lain batu genduan. Barriro be, On Martin larrañean ikusi neban, eta zenbakiztian aspaldi aretan aurkitutako korapilloak askatu eustazan.

Orma garaien artean itxita bagengozan be, aize ibiltariak udabarriaren zantzuak ekarkiguzan, eta igarri barik, Yandurarana'ko udabarri yaukala somatzen neban, oroz gain Bordazuri'ko bazter zoragarria gogoan sartzen yatala.

Bein baten larrañean nengoala, On Martiñ'ek pozez gaiñezka besarkatu ninduan, auxe ziraustala:

—Yon Ander, nire mutilla, orain bertan nire gauzak batu dagidazan biar goizetik Prantzi'ra joateko, esan dauste. Errepublikak eta asaldatuek itunpen bat egin dabe giltzapetu batzuk alkar aldatzeko, eta arein artean neure izena agertu da.

Naigabez beterik banintzan be, zorionik beroena emon neutsan, eta egun aretan besarkada estuaz alkargandik agurtu gintzazan. Iñoiz aztuko ez neuken lagun maite-maite bat galtzeaz batera, irakasle argia yoakidan, uts bete-eziña neugan sortzen eban euskaltzale zintzoa.

Aberri Eguna urreratu yakun, eta eusko giltzapetuak egun orretan oiko ospakizun andia egiteko gertatu gintzazan. Aurregu-nean, ez dakit nondik, ontzitar disdiratsua ekarrela agertu yakun Manu. Txisontzi andi-andia zan, eta gure arritasuna oarturik.

—Ez asaldatu lagun maiteok —esan euskun—. Goiko geletako lagun batek eretirako itzi daust. Amaika aalegin artu bear izan dodaz, orain ikusten dozuen bitxia biurtzeko. Au baiño ontzi garbiagorik ez da munduan ezagutu. Ordubete bt emon bear izan dot ikusten dozuen ikusgarria lortzeko. Biar arratsaldean, eguna bear dan lez ospatzeko, bitxi onetan egundoko txokolatadea egingo dogu. Ez larritu: oraindiño mikrobioren bat geratuko ba'lizakio, irakiteaz bereak egingo dau. Alan da be, zuetariko baten bat bupera izango ba'litz, arena enparauontzat izango da.


Txisontzia ederretsita gero, errege baten mairako gai zala autor-tu genduan abo batez, eta Manu'k guztion zoriona artu eban.

Aberri Eguneke goizaldean, egunoro argi-soiñua joten euskun gutariko gudariak, iñoizkorik zoli ta ederren, "Jagi jagi euzkotarrak laster dator eguna..." jo eban. Egun argitsua zan, eta mezatan gutariko askok jaunartu genduan. Gero, etxeetatik bialduriko jangai gozoenakaz, gure biziko bazkaria Manu'ren zaindaritzapean atondu genduan, eta arratsaldean, egosketea eginda gero, txisontzi inguruan koillarak bana-banan gerabillezala, txokolatadeari ekin geutsan. Gau aretan isil-soiñurako, oba-oba baten eresi gozoa eskiñi euskun gure turutalariak.

Udabari aretan Matxalen'ek ikertu ninduan barriro jatekoak eta janzkiak ekarkidazala. Etxekoak danak ondo aurkitzen zirala esan eustan, baiña nire arrebeak egi osoa ezkututzen baestuan be, estu-estu bizi zirala igarri neutsan, bera, Aranegi'n neskame sartu izan zala jakitean batez be. Ezbear au, euskotarren artean oiko arazoa zan. Etxean geratu izan ziranak, guztitariko irain eta bearrizanak jasanez gaiñera, espetxeetan eta lan-kapardietan aurkitzen ziran etxeokoi, lagundu bear izaten eutsien, eta izan be, jatekorik onena giltzapetuentzat zan.

Etxekoen bearrizana somatzean, ondo samar jaten emoten euskuela esan neutsan, eta beraz, etxetiko janari gitxi bear nebala. Matxalen'en aurpegiak, ordea, siñistezaren itxurea erakutsi eustan, eta nik esanikoa kontuan artuko leukela be, baiña nonai bala-bala ebillen gose itzela jasaten genduala.

Gero nire gogo-egoereari buruz itaundu eustan, eta len baiño askozaz obeto aurkitzen nintzala jakitean, irribarreka begiztatu ninduan auxe ziraustala:




ORDU UTSAK



ETXERAKO IDAZKIA



TXOKOLATEA



KANPOTIKO BARRIAK

—Yon Ander, izan be, len baiño itxura osasuntsuagoa erakusten yok, eta orrek barruko dendua irabazi yokala adierazoten yaustak.

Neuk be irribarre egin neutsan. Esan nengikion Irene aspaldiko laiñoan betiko ostendu izan zala. Zertarako, baiña...? Arazo arek itz bat bera be ez eban merezi. Nire izaera guztia Mimiñe'ren oroitaz beterik egoan, eta aurkitzen nintzan kinka larrian, beragandik yator dan argiak espetxeko zoritxarraren gaiñetik jagiten ninduan.

Gero, etxekoai buruzko autua izan genduan, guztitariko gorabeerak emostazala. Ama barruko atsekabea ostentzen saiatzen zan, etenbako lanari emoten eutsala. Aitita, or-emenka iñurri antzera ziarduan, beien eta soloko betekizunak aalik ondoen egiñez. Guda-deiagaitik senarra urrunduta eban eta gaiñez bizi ez zan Iñese, zelan edo alan konpontzen zan, orretarako okindegiko lan aztuna bere gain artuta.

Agurtzeko garaia zan, eta Matxalen'ek,

—Yon Ander —esan eustan—, eure alde otoi egiten yoagu egunoro, eta ziur nok Jauna irekin dokala. Agur, maite ori...!

Aren irudi liraiña burdin-sarearen atzetik ostendu zanean, nire buruari itaundu neutsan, akatsbako diamantea baizen garbia zan Matxalen kutuna, norentzat izango ete... izango al zan ederretsi egikean batentzat...!

Igarri barik, udean aurkitu gintzazan. Guretzat negua baiño askozaz ohea zan, baiña beroaz batera, imitxek iñoizkorik adoretuen ziztatzen ginduezan, eta zorriak parrastaka ugaltzen ziran. Orduko, giltzapetuok konturatu izan gintzazan, luzaroko espetxaldia gure begira genduala, eta ezinbestez egoera ari egokitzen gintzazan. Olan ba, ikasteari nerraikion buru-belarri, eta izan be, onek egunoroko zitalkertik urruntzen ninduan.

Noizean bein, ezustean, atek zabaltzen ziran, eta lerroka jarrierazota, falanjista jauntxoren batek banan-banan aztertzen ginduzan, berak billatzen ebanari, urrean, zigor andia emoteko. Bestetan, andikiren batek itzaldi sutuaz, gure pekatuaren zitalkeria agirian jarri, eta bide zuzenetik abiatu geintezan aldarrikatzen euskun.

Uda aretan, Bilbao'n egozan eriotz-epaituak, Burgos'ko zigor-espexera eroan ebezan. Zorionez, emen ez zan erailketarik gertatu.

Garagarrilla'ren azkenerantz espexez aldatuko ginduezalaren zurrumurrua zabalik egoan, eta izan be, egia azaldu zan. Luzaro barik, gelatxuak ustuten asi ziran, txanda bakotxean bosteunetik gorako lagunak urteten zirala. Astean igorketa bi inguru gertatzen ziran, eta laster bala-bala ebillen, Puerto de Santa Maria'ko zigor-espexera gindaroezala.

Arratsalde baten, 21'gn gelatxukoek urrengo eguneko goizean gerturik egon geintezanaren oarra artu genduan. Urrengo goizean, iru latontzi ta iru ogitxu bana emonda, gure axeekin erreskadatan igarobidean jarri ginduezan, eta noizbait urten gintzazan. Leko-rean, autobusetan egokiturik, nora ez genekiala abiatu gintzazan.

Egun ederra, zeozer berotsua bazan be. Espexeko burdiñezko azken atetzarretik urteteko zorian, atzera begiratu neban. An, erraldoi, geldi ta isilla, Dueso'ko zigor-espexea geratzen zan. Nire ta ainbeste eusko gudarien kabi gorrotagarria, bere egun luze ta gau zuri, naigabe, idizillarien erabilte ankerraz, eta eraildako lagunen odolaz ziprztinduriko orma garaiak... Urruntzen nintzakiola, gorrotozko sentipen batek menperatu ninduan... baiña bapatean, argi antzekoa zan zeozer isurtzen yakola iruditu yatan... Bai, ango gau luze izugarrietan, nire zauri ta larritasunarentzat itxaropena aurkitu izan neban...

## PUERTO DE SANTA MARIA'RA

Dagonilla'ren 15'gna zan, Jasokunde eguna ain zuzen be, Dueso'ko zigor-espexea itzi genduan. Egun eguzkitsuak zabaldiko edertasuna begien aurrean jai baten atzera edatzen eban. Bazan urtebetea olako ikusgairik begizatzen ez nebala, eta izan be, gogoarentzat atsedengarria zan zabaldiko edertasuna. Une batez nire katigutasuna aztu eragin eustan.

Ordubetea igarorik, Santander aurretik dagoan Maliaño'ra eldu gintzazan, eta berebillaren abiadea gitxiturik, burnibide bat agertu yakun.

Gelditu gintzazanean, eretirako gerturik neroian txartel silledun baten, etxe koentzat zirriborro batzuk idatzi nebazan, Dueso'tik Puerto de Santa Maria'ra eroaten ginduezala jakiñazoten neutsela, eta nigaitik larritu ez zeitezan guztiz ondo nengoan-eta. Gero, jatsierazota, ondoan egoan zortzi edo amar bagoien aurrean jarri ginduezan, eta eraturiko erreskadatik berrogei bat lagun bagoi bakotxera igonik, ate labainkorak itxi ziran. Gure begirariak zibillak ziran, eta bultzaka ta zemaika gindarabillen, astirik galtzeke sartu geintezan.

Bagoiak, abelgorriaren lorketea egiteko erabilten diranetakoak ziran, eta alde banan leio txiki bi burdiñakaz babestuta egozan, aizea sartu zeiten. Zearretara olezko jarlekuak ikusten ziran, ozta-ozta berrogei lagunentzat jesarrita joateko lekuri eskintzen euskuela. Emen, iru egunez jatokia, logela, eta irola izango genduzan. Leiatilla batetik lekorera begiratzen nebala, aurrean aurpegi arraie-

ko zibil bat gelditu zan, eta etxerako idazkiren bat bialtzeko izatekotan, berari emoteko esan eustan. Aurpegi onberatsu arek nire uste ona irabazi eban, eta beste legunenakin batera idaz-txartela emon neutsan, barrutik biotz-biotzez eskertzen neutsala. Jokabide au, zibillek ia geienetan erakusen ebenaren ondoan, arrigarria iruditu yatan.

Noizbait, eguberdi inguruan, su-gurdiak bultzaturiko jarraigoa abiatu zan. Gure bagoian, 21'gn gelatxuko lagun guztiak giñoazan, eta au zala-ta, bidaiari ez neritxan orren mingotsa. Torrelavega igarorik, aldapan gora gñoazala, bazkariari ekin geutsan, gue lainta urria arduratsu neurtzen genduala. Dueso'tik urtetean, biderako latontzi gitxi batuk banandu euskuezan, eta iru egunerako urri izanik, arduraz erabilteko ziran. Onezaz gaiñera, bageroiazan etxe-koek igorritako diru apur batzuk.

Laster aurkeztu yakuzan ustularriak. Txisarenak ez euskun ardura andirik emoten. Latontzi baten ustularri, eta leiatillan zear bota. Bestea oster, zaillagoa zan, baiña orretarako latontzi andiagoa erabilliz, ondo samar konpontzen gintzazan. Zorionez, baiña, janaria urri izanik, ustuteko bearrizana, aren baten. Olan ba, eta umorea galdu barik, ezaugerantz urreratzen gintzazan.

Illuntze-irian, Reinosa atzean itzita, gure jarraigoa aldapan beera asi zan. Lo-gurea nitzaz jabetzen zan, eta ukalondoak belautetan ipiñita, lo egiteari ekin neutsan. Gatxa zan benetan bilinbolaka zakar aretan lo egitea, baiña ordubete bat igarorik, ezinbestez lo geratu nintzan, ames urduritan bazan be.

Egunsentia egin zanean, danok iratzarri gintzazan, eta zeozer janda, batzuk taldeka berba egiten ebela, besteak txandaka leiatillatan zear begiratzen genduan. Onezkero, lengo eguneko margo orlegi bizia galduta, zabaldia bellegiz jantzita agertzen yakun. Palentzi'ko lurrak atzean geratu ta Valldolid'era eguberdi barik eldu gintzazan. Arratsaldeko lenengo orduetan Salamanca itzita, gure jarraigoa Bejar'en gelditu zan. Emen, Jokiñ'ek lukainka bat erosi eban, jakiña, leiatillan zear. Jarraian, amaikagarren aldiz, zibillek zenbatu ginduezan.

—A ver, pasen todos al lado de allá, y luego uno por uno al otro lado.



BIZARGIÑA





ALDARRILARIA

Egitekoa ondo ikasita genduan, eta zaindarien oi, birao, zizpa-  
ukaldien artean, agindutakoa egiten genduan. Ez gintzazan beste-  
rik, azokara eroaten dan abelgorria baiño. Erabilte zakar onetara  
oituta gengoan, eta guri bost ardura zibillen jokaerea.

Andik laster, Extremadura'ko zabalduan zear bideratu gintza-  
zan, udako bero itzelak gure bagoiak kiskaltzen ebazala. Arratsalde-  
ko erdi-aldean Placencia deritxan uri-geltokiko burnibide il baten  
sartu ginduezan. Eguzki izugarriak gure bagoiko olak sutan ipinten  
ebazan, eta ibiltearen aizerik ezean, izerdi patsetan gengoan, arnas-  
artzea zailla egiten yakula. Ez dodaz egundo aztuko an igarotako  
ordu izugarri bi areik. Sabaiko untz batetik eskegita egoan Bejar'ko  
lukainkari be izerdia erion, eta gure gaiñean koipezko tanto lodiak  
isurtzen ebazan. Txarrena, baiña, egarria jasangaitza ta edan-eziña  
zan, ur barik gengoan-eta. Alako baten, agertzen asi ziran...

Baltzez jantziriko atsotxu areik, zerutik jatsita bai'litzazan,  
gure jarraigora urreratzen ziran. Burua zapiño baltzaz estalia eta  
aurpegiko larmintz zimela amaika tximurraz zearkatuta, ibilte neke-  
tsuaz urreratzen yakuzan, eskuan txongil bana ekarrela. Yokiñ'ek  
eta biok leiatillatik begiratzen giarduala, areitariko bat urreratu  
yakun, auxe zirauskula:

—Hijos, ¿Queréis un poco de agua?

Baiña gu diru barik gengoan. Bejar'en erosiriko lukainka  
madarikatuak gure azken txiñak kendu euskuzan-eta. Alako baten,  
Yokiñ'ek atsoari auxe esan eutsan:

—Abuela, no tenemos dinero para pagar.

—Hijo mío, no lo hacemos por dinero. Mi marido murió  
fusilao, y mis dos hijos no sé por dónde andan. Quizá alguno de  
ellos se encuentre ahora como vosotros. Todas las tardes bajamos  
del pueblo para dar agua a los presos que llevan en tren. Es un  
servicio que hacemos por nuestros muertos y por los que sufren  
sed de agua y de libertad. Tomad toda cuanta necesiteis.

Eta jarraian, leiatillako burdiñen artetik, gure ontzietan ur  
ozkirria isuri eban dana amaitu arte. Gero, beste atsotxu bat etorri  
zan, eta olan, atso errukitsu areiri esker, egarmiña baretu aal izan  
genduan. Aurrerantzean, gure jarraigoa gelditzen zan leku guztie-

tan, urkariñe areik etorkiguzan zenbat gura ur duan emotearren. Ama ta alargun gaixo areik ez dodaz egundo aztuko. Zerbaitek inñostan, gure mundua ez egoala orren ustelduta, eta ezeukiak biotz garbienekoak zirala. Jaunak betiko bedeinkatu dagiazala...!

Gero, noizbait, trena abiatu zan, eta leiatillatik sartzen yakun aizeari esker giroa obatzen zala, egorako bidaiari jarraitu geutsan. Gelditzen gintzazan toki guztietan, urkariñe areik ezer eskatzen ez geutsela ur-eskeinka etorkiguzan, eta nekez bildutako ura biotz zabalez emoten euskuen. Bazan arein artean neska gazteren bat, lagun-miñaz begiratzen euskuala, bere senargaitzaz oroitzen zala, urrean.

Gau betea zan jadanik itzarri nintzanean. Giroa epel eta atsegiña izanik, leiatillan zear begiratzen neban. Une aretan, trena astiro-astiro joian, eta geltoki bateko argiontzi-estalkian, auxe irakurri aal izan neban: "Arroyo Malpartida". Ez nekian nongo erria izango zan. Leiatillaren ondoan luzaro samar iraun neban, zabalditik aditzen zan txitxarren eresia ames gozo baten antzera etorkidala. Goiko ortzian, izarrak inñozkorik gardenen ikusten ziran, eta ez dakit zelan, Mimiñe'ren begi yaukalek zabaldian zear begitatzten ninduela iruditu yatan, eta zirrara bakan baten pean, gogo guztiaz deika asi nintzakion.

Urrengo goizean Badajoz'en zear igaro gintzazan, eguzkipean erretako zabaldia itxura egarritsua erakusten ebala, egun sargoritsua baizan aroari egokionez. Arratsalde aretan, oiko atsoen ur-eskintza artuta gero, Yokin eta biok leiatilla-ondoan gengozala, emakume bat karrasi bizietan zibillai deika asi yaken, eta gure leiatilla atzamarraz erakutsita, onetaraxe asi zan:

—iEsos, esos son los que han levantado el puño...!

Geuk eskuakaz leiotillako burdiñai oratzen geutsen. Mutxur-din prakerre arek, antza, berari ukabilla erakusten geutsala uste izan eban, gudari ezkertiarrek egin oi eben antzera.

Gure buruak zuritzearren, Yokin, zibillari zeozer esaten asi yakon, baiña onek isillerazo eutsan onetaraxe:

—iLa próxima vez mando bajar a tóo er vagón, y lo fusilamo detrás de esa tapia...!

Eta begiai txinpartak eriezala, alboko orma andi bat erakutsi euskun, gure amaren aurka itzelak jaurtiten ebazala. Azkenean, txapel okerrak itzez naikoa zigortuak gengozala uste izan eban, urrean, eta duintasunez gaiñezka alde egin eban, mutxurdiñak gorrotoz beteriko soak botaten euskuzala.

Gabaz, Sevilla uria atzean itzita, Cadiz'ko lurraldera sartu gintzazan, eta goizaldean, egunsentia barik iratzarri nintzanean, jarraigoa geldirik egoan, eta nire begien aurrean ormatzar luze ta garaia edatzen zan. Puerto de Santa Maria'ra eldu izan gintzazan.

Argitu zanean, zibiliek barriro zenbatu ginduezan, eta gure axeak eta aparra-mantarrak arturik, espetxeko bestaldean egoan sarre-raiño eroanda, ate andi baten zear igaro gintzazan, eta gero, lauki erako larrain andi baten aurkitu gintzazan. Goizeko eguzki dizdiratsuak argituriko, ikusgai snisgatxa aurkeztu yakun. Lekua jendez beterik egoan, eta larrain nagusia eritxoen zabalune andi aretan, espetxeratuak alde batetik bestera aske joiazan. Dueso'ko gure egoe-reaz bekaldeuta, jende arena askozaz ohea iruditu yatan. Ez neban, baiña, ereti andirik izan gauzak nire aukerean ikusteko, luzaro barik beste larrain txikiago batera eroan ginduezan-eta. Emendik, zazpinaka "Período" zalako gelatxuetara sartuta, burdiñezko atea itxi ta izen abizenak artuta, gure zazpiko taldea giltzapetuta aurkitu zan. Yokin nirekin egoan. 21'gneko beste lagunak, ostera, geugandik baztertuak izan ziran.

Iru egunez iraun genduan gelatxu aretan, ezetariko artu-emonik inñorekin izateke. Egunean atea iru bidar zabaltzen zan beste ain-beste otorduak artzeko. Janaria, or nonbait ebillen Dueso'n artzen genduanarekin, eta aisa iragarri geinkean jasango genduan gosea, ez litzakela makala izango. Baiña imitxen gau-erasoak jasaten oituta bagintzazan be, oraingoak askozaz ziztalariagoak ziran. Imitxak, baiña, txastamen zorrotzekoa diran ezkerro, odol batzuk besteak baiño naiago dabez, eta gurekin egoan "Txantxiku" esaten geutsan Inñaki izeneko oñatiar batena, antza, gain-gaiñekoa zan, eta mamorro lepotar arein ziztada geienak berarentzat ziran. Alan eta guzti be, enparauiek bagenduzan gureak artzen. Dueso'koak baiño askozaz biziagoak ziran, leku barria beroagoa zalako, urrean.

Dana-dala, iru egunok igaro ziran, eta goiz baten, erreskada luzean Larrain Nagusi'ra eroan ginduezan, 12'gn brigadea eritxan

areto andi batera sartu, eta an irureun lagun kokatu gintzazan, lurlean lau erreskada estu-estu eratuz. Lastamarragak soru gaiñean ipiñi genduzan, gorputzaren egoerea aldatzeko ia lekurik ez izanik. Gero, gure izen-aldarrikatzeari erantzuna emonda, eta dana ondo egoala ikusirik, atea zabalik itzita, idizillariak joan ziran, eta kanpora urten gintzazan.

Santa Maria'ko zigor-espetxea zatika eraiki izan zan ezkerro, itxura ezbaridiñekoa zan. Espetxe Zaarra eritxana, antxiña baten izandako eleiza baten aurkitzen zan, eta onen alboan larrain bat. Gero, Larrain Nagusia; emen espetxeko idaztegia, janari-denda ta 11'gn eta 12'gn brigadak, bizartegia etab. egozan. Gero, "período" dalakoa, itxura barrikoa zana, eta azkenean "Lantegia" edo "Taller", giltzapetu batzuk esku-lanetan ziarduen lekua.

Goiz aretan Larrain Nagusira urten nintzanean, ango joan-etorriak ikusirik, lengo espetxean baiño askozaz obeto aurkituko nintzakela oartu nintzan. Jendea talde txikitana egurastuten ebillen autuai emonda. Beste batzuk lurlean jesarrita, geldi-geldi zirauen buru-makur, oldozkizunetan murgilduta, oroi-miñez jota, urrean. Beste batzuk, ostera, ibillera ariñaz batetik bestera joiazan, guztitariko gaiak salgai ebezala, ara: jantzi-zatiak, oiñetakoak, janariak, kebedarra, liburuak etab.

Joan-etorri areik arrituta begizatzen nebazala, ijito itxurako andaluzitar bat urreratu yatan, auxe ziraustala:

—Compañero, no quié uté uno pantalone nuevo? Fijeze, eta prenda nueva que paece hecha pa uté. Se la deo en siete duro, ea...!

Ezetz esan neutsan. Berak, baiña, besopean "aritmética" izen-puruko idaztia nebala ikusirik, sakeltzar batetik liburu bat atara eban auxe ziraustala:

—Aquí tié uté una jálebra (álgebra) para bachiller barato. Se la deo en tre duro, ea...!

Nik ezetz barriro, baiña berak ostera:

—Tóo me lo compro, tóo me lo vendo...! No quié uté uno sigarrillo que son la "Flor de la Habana"...?

Nire ezetza barriro entzutean:

—Ya ze ve que etá uté sin gorda. Si quié vendé argo, no tié ma que preguntá por "Er Txitxe" y enzeguida hacemo er trato. No ze orvide.

Eta au esanik aldendu zan, taldeen artean bere salgaiak onetaxare aldarrikatzen ebazala:

—Tóo me lo compro, tóo me lo vendo...!

Aldia arin joian, Dueso'ko egotaldiaz bekalidetuta batez be, eta argi nenkusan egunak itzaltsuak izango baziran be, ez litzakez igarotakoak baizen baltzak izango.

Egun batzuk igarorik, nire buruari esan neutsan, taldeetan erabilten ziran guda-guzurrakaz eta beste barrikeriakaz, etekin andirrik ez neukela atarako, eta oba litzakidala, beraz, Dueso'n lez ikasteari emotea, zeozer ikasiz gaiñera, egunak ariñago igaroko litzakez-eta. Olan ba, ol batzukaz aulkitxu bat egin neban, eta onetan jesarrita, zenbakien alorrean murgildu nintzan. Yokiñ'ek be, gauzak neuk lez ikusirik, "Lantegian" txoko baketsua aurkiturrik, txartel eta guztitariko ol—margozteari emon eutsan, eta marrazlari on-ona zan ezkerro, baetorkiozan zenbat gura eskaerak, bidebatez, lengo 21'gneko gelakideen diru-egoerea obatus. Oneri buruz, auxe argitu bear da: gure taldeak beti lez alkartuta zirauala, eta norberarena taldearentzat zan, asko ala gitxi kontuan arteke. Illa-bete bat igarorik, neuk be etxetiko diru apur batzuk artzen asi nintzan, eta taldeko diru-zorroan sartuta, emoten euskuen janaria edo zaborreria osotzen genduan.

Janaria, Dueso'koaz aren baten joian. Goizean, ur margoduneko katillotxua. Eguberdi ta gabeko otorduak geienetan "boniato" eritxoen lapikokoa, okel-izpirik ez eben txarrien matrail-azurrakaz agiñak eta guzti. Janari iguingarriaz nazkatuta gengoan, baiña gogo barik bazan be, irusten genduan. Goizeko sasi-gosariarentzat, esne lodituko koillarakada txiki bana, Yoseba zan gure ondasun-zaiñak emoten euskun, eta eguberdi ta gabeko otorduak etxetik bialdutako edo saltegian (ekonomatoan) bertan erosiriko gauzakaz apaintzen genduzan. Askotan, boniatoak, gu baiño beartsuagoen artean banandu oi genduzan. Yoseba arduradun ona azaldu zan, eta asko ez bazan be, beti gorde eroian zeozer gure urdailen didarrak baretzeko.

Dueso'tiko espetxeratuen jarraigoak amaitu ziranean, oraingo espetxean 5.000 bat lagun batu gintzazan, au da, oiko kopurua baiño zazpi bidar geiago. Edozein ordutan, larrainak jendez irakiten ikusten ziran. Arrezkero, Iñaki be an aurkitu bear izango zan, eta bera ikusteko gurariz, alde batetik bestera niñoan aurpegi guztiak aztertzen nebazala. Bein baten, alde zaarreko larrainetik ibilli nenbillela, lagun bat oldatu egin yatan nire izena aldarrikatuz:

—Yon Ander...!

—Iñaki...!

Bera zan. Alkarri itaunak egiten geutsazala besarkatu genduan. Urtebetea baiño luzeago zan aldendu gintzazanetik, eta izan be, une aretan iñolako zoriona nitzaz jabetu zan. Nire lagun-miñak len baiño garaiagoa emoten eban, eta,

—Aiko, Iñaki —esan neutsan—, aziago ikusten aut.

—Ez olakorik uste, benetan esateko argaldu nok. Aspaldi onetan goseak ilda naiagok. Yakikanez, len Dueso'ko sukaldean ñiar-  
dukan, eta jatekoa motela bazoan be, zenbat gura gaiendukan sukaldariok, baiña aspaldi onetan urdailla ezin yoat bete.

Estu-estu begiratu neutsan, eta izan be, argalduta ikusten neban, begi argiak betzuloetan sakonduta, gosearen irrika agiri ebal. Bapatean, auxe irautsi neutsan:

—Begiraik, Iñaki, gure zazpi laguneko taldeak, etxetik etorritako jangai ta diruak banatzen yozak. Gaur bertan, Yoseba'ri, gure taldeko arduradunari, eu be taldean sartzeko eskatuko yautsat.

—Ori eziña dok, Yon Ander. Etxoat etxetik gauzarik artzen, ama bakarrik yaukuadalako, eta gaixoa bearrian gorrian aurkitzen dok. Joan nintzuanetik, erritarren emoitzakaz bizi dok. Erriko abadeak aren barriak illero bialtzen yaustazak. Amaren egoerea larria dok, eta auxe bai niretzat gurutz astuna...! Ez, Yon Ander, ken eik ori burutik. Nirekin ez dok banatzerik.

Gai aren autua uxatzearen, beste arazo bateri ekin enutsan, baiña azkenean apari banaketearen deiak alkarregandik aldendu ginduzanean, buruan arazo bat nerabillen.

Lo egiteko ordua urreratu zanean, Yoseba'gana joan nintzan, eta Iñaki'ren egoereatzaz mintzatu nintzakion. Amaitzean,

—Aiko, Yoseba —esan neutsan—, bayakiat asko dokala Iñaki gure taldeko banaketan sartu yaian, baiña ni taldetik urten egin bear yoat, etxetik bialtzen yaustena berarekin banatzeko. Nire anaia bai'litxoan maite yoat, eta ez ñeukek ezelan be itziko...

—Ago pixka bat, Yon Ander. Yokin eta Manu'rekin berba egingo yoat, ia zer egin lleitekan...

Urrengo egunean, Yoseba etorri yatan, eta,

—Yon Ander —esan eustan—, Yokin eta Manu'rekin itz eginda gero, bat yatozak gurekin, ots, gure zazpiko taldeari beste lagun batek ez yautsalalde andirik ekarriko. Esaiok, beraz, Iñaki'ri, aurrerantzean gure taldekoa dokala.

—Eta enparauak...?

—Orreik, beti lez, gure eritxikoa izango dozak, lagun zintzoagorik iñon ez dozak-eta. Nasaitu adi, Yon Ander.

Zauskada andi batek, biotzean gora malkoak begietaraiño igonera eustazan, eta ikusi ez egistazan, zeozer egiteko atxakiaz joan nintzan.

Iñaki'k ezin egikean siñistu nirautsana, baiña banan-banan aren zalantzak garaitu egin neutsazan, eta arrezkero gure banakidea billakatu zan. Agiri egoan, baiña, egoera arek lotsaten ebal, askotan irustea zailla egiteraiño.

Noizean bein, larrainak garbitzeko, boniatoak-eta zuritzeko, edo-ta irolen garbiketea egitearren, gure artean taldeak egiten ziran zeregin orreik beteteko. Olan ba, amabost edo ogei lagun egunero dei egiten ziran, talde orreitakoak izateko. Larrainak guztitariko ondakiñakaz beterik agertzen ziran otorduen ostein, txarrien matrailazurrakaz batez be. Iñar andiak ustiatuz, larrainak garbitzen ziran, baiña benetan iguingarria, irolen garbiketea zan: Kaka-leku bako-txean, giza-korotzak txuntxur andiak eratzen ebezan, eta erratzaz baliaturik, ekiñaren-ekiñez txuntxurak odietan beera sartuerazo bear genduzan.

Betekizun nazkagarri orreik ez egitearren, irolarena batez be, baziran dirua emoteko gerturik egozanak. Laster oartu zan Iñaki, zortziko taldeari zelan lagundu egikean, eta banatzen yakona nasaia-go iruntsi be. Olan ba, beste lagunen lan zikiña egiñez ikusi zeitekean Iñaki. Nabari zan, onen itxurea obaten zala, gai izan zanean bere aparra-mantarrak janzki barriagoakaz ordezteko batez be.

Olan ba, bakotxak aal eban neurrian aldia emoten eban. Niketz, Dueso'n asiriko ikasteari jarraitu egin neutsan buru-belarri. Guztitariko zenbaketak egiteko gai nintzan. Egun baten, algebra ikastea otu yatan, eta "Er Txitxe"ri gangaillenez eginda, "Algebra elemental" eritxana erosi neutsan.

Asikerean ez neban ezer be ulertu, eta aulkitxuan jesarrita nengoan bein baten, ainbeste naaspillaz gogait eraginda, "Er Txitxe"ren jalebra asarrez beterik botatekoa egin neban. Une aretan bertan, nire keiñua ikusi eban jaun itxurako gizon batek, auxe esan eustan:

—Zer zabiz, baiña, mutil, uste al-dozu liburu orren jaurtike-teaz, barruko gaiak ariñago ikasiko dozunik ala? Zer egin dautsu algebra gaixo orrek ba...?

—Begira, Jauna, aritmetikea edo zenbakiztia polito samar ikasita gero, algebra madarikatu au eroste a otu yatan erraza izango zalakoan. Baiña, bai zera...! Txinoera bera baiño zaillagoa biurtu yat...

—Aizu, mutil; ibiltea erraza da, baiña lenengo urratsak egin gura dituan umeari, lagundu bear yako. Zeuri bardin, baten batek lagundu bear dautsu gai orren alorretan barruratzeko.

—Nork lagunduko daust, baiña, matasa au askatzen?

—Zeuk gura izatekotan, neronek.

Begirunez jota, zutundu nintzan, aurrez-aurre begiratzen neutsala. Berrogei ta amabost bat urteko gizon buru-soilla zan, sendo ta garaia. Orduan,

—Jauna —esan neutsan—, ezin dagikizut ordaindu, baiña...!





LARRAIÑAK GARBITZEN

—Ez larritu, mutil, badira ekintzak doañik egiteaz poza dakarrenak. Egon zaitetz emen biar goizean, eta lanari eutsiko dautsagu eutsi.

Ez nekian Jaun ari zelan eskertu, baiña zeozer esaten asi baiño len, joan izan zan. Bilbao'ko ezagun bateri Jaun aretzaz itaundu neutsan, eta asmalari edo injiñerua zala esan eustan. Asmalarien Ikastolan irakasle zan, eta gaiñera, Bilbao inguruko lantegi andi baten onularitzat jarduten ebala. Seme bat Legutiano'ko erasoan galdu izan eban, eta bestea iñongo espetxean egoala, jakiñerazo eustan. Emaztea ta alabak kinka larrian aurkitzen ziran, bizibidea nekez irabazten ebala.

Urrengo goizean, biok aulki banatan jesarrita, algebreari eldu geutsan. Eroapen andiko gizona, agiri zan irakasketeari oituta egoala. Astiro ta argi, nire adimenean jakintza aren lenengo oiñarrizko legeak ereintzen asi zan, eta igarri barik, mundu barri aretan zear urratsak gero ta sendoago egiten ikasi neban. Egunerero, ikasgaia amaituta, urrengo egunerako, ikasitakoari buruzko betebarrak jarten eustazan. Olan ba, oartu barik algebrea menperatzen ikasi neban, eta noizbait, zenbakiztia baiño errazagoa zala konturatu nintzan.

Udea amaitu izan zan, eta udagoiko egun eguzkitsu ta atsegiñak etorri yakuzan. Ikasketan jarduten ez nebanean, beste lagunen antzera arkondarea edo praken josteari emoten neutsan. Espetxean soiñekorik emoten ez euskuen ezkerro, etxetik bialdutako arkondarak-eta iraunerazoteko, josten eta ipinkiak erasten ondo ikasita genduan. Giltzapetuok guztitariko aparra-mantarrak gerabiltzazan, eta askotan burura yatordan, txorimaloak geu baiño obeto jantzita gozala.

“Er Breva” eritxan andaluzitar bateri, larraiñeko garbiketearen arduraduna zan, eta egunerero etorkiozan lagunai, iñarrak banandu eutsezan, zikinkeria ta guztitariko ondakiñak kentzeko. Bein baten, Larrain Nagusian zear niñoala, erratza eskuan ebala On Pedro ikusi neban lanari buru-belarri lotuta. Urreratu nintzakion, iñarra kendu, eta aren orde z lanari emon neutsan.

On Pedro jarki zan, baiña ez neutsan jaramonik egin. Ezin nengikean a lango jaun bat, eta gaiñera nire irakaslea zana, olako

jardunetan ikusi. Eta asko ez bazan be, auxe izan zan atsegiñez bere alde egin nengikeana, eta ain zuzen be, ordain txikia berak nire alde egiten ebanaren ondoan. Arrezkero, zain egoten nintzan, eta garbiketea etorkionean, an azaltzen nintzan bere orde z lana egiteko.

“Er Breva” aspalditik egoan espetxean. Errepublikako garaian gizon bat erail eban, eta espetxealdi luzea bete bear izaten eban. Gizon lodi ta indartsua, baten bat begitan artzen ba’eban, edozein atxakiz auxe esan eroian:

—Amigo, toa eta semana va a vení a por la breva, y que no farte un dia, porque entonse te cae toito er me.

Iñarrari “La Breva” iñotsan, eta au zala-ta danok “Er Breva” esaten geutsan.

Larraiñetan, guztitariko zaborreria aurkitzeko bazan be, zigarroen mutxikiñik ez ziran iñondik ikusten. Oneik, Newton’en erakar-indarrari jarkiten yakozan biltzailleai esker. Lagunen batek erretzen ziarduanean, biltzaillaren batek atzetik erraikion, eta mutxikiña bota orduko, lurrera barik biltzaillearen zorrotxura sartzen zan. Era onetan baturiko uztaz, gero estalki apaiñaz “Er Txitxe” ta bere antzekoek zigarro barriak atontzen ebezan erretzailleai saltzeko.

Mutxikin laburrak izten ebezanai, batzailleek iñon diran iñondikoak abopean botaten eutsiezan, eta luze izatekotan, guztitariko bedeinkapenak.

Bazan mozkin biribilla ekarkiela beste arazo bat: kafearena, alegia. Etenbarik, lagun batzuk ibillera azkarraz, batetik bestera ontzi andi batekin joiazan. Ontzia ondo estalduta egoan berotasuna galdu ez egian. Ain zuzen be, ez da esan bear kafeaz egiña ez zala, baiña donostiar begiko batek, auxe esan oi eban:

—Kafe-kafeaz ez da egiñik izango, baiña alan eta guzti be, urdaillaren berogarria da.

Bein baten, lantegi edo tallerreko larraiñetik niñoala Jokiñ’eri mezu bat emoteko, ara non larraiñeko txoko baten “Er Txitxe” beste lagun batekin erabilte isillean ikusi neban. Oartu izan barik urreratuu nintzakien, eta une batez arein erabilteari begiratu neutsan.

Orduantxe, laguntzailleak, ol zabal baten gaiñean meloi-garauak ipinten ebazan, eguzki kiskalgarripean legortu zeitezan. Txokoan kukurio jarrita, “Er Txitxe”k berak, su-gaiñeko sartagin batera legorturiko garauak botaten ebazan, zotz luze bataz astiro-astiro eragiñez. Alako baten, eta zer demoniño izango zan nenkusan erabilketea nire buruari itauntzen neutsala, sartagiñeko bafada bat suurrean gora sartu yatan, eta orduantxe dana argitu zan: kafe-lantegia idoro izan neban. Une aretan “Er Txitxe” biurtu zan baltzituriko meloi-garauak latontzi baten sartzeko, eta ikusi ninduan.

—Zer zabiz or, lagun? —itaundu neutsan.

—Gure bazkaria atontzen diardugu.

—Ez al-da kafelito edari bikaiña atontzeko izango?

Irripar zabala egin ondoren, auxe esan eustan:

—Izan be, gure kafe bikaiñaren ezkutua aurkitu dozu. Baiña, arren, ez zabalduu gaur ikusi dozuna. Alde batetik aren jatorria jakingo ba’lebe, gure lagunek ez leukie edaria dan baizen gozoa aurkituko, eta bestetik, gure ezkutua zabalduko ba’litz, leiakeria edo konpetentzia sortuko litzakigu...

—Ori eragozteko, zergaitik ez dozue idorokundearen asmakizun-agiria edo patentea ataraten?

Une batez, “Er Txitxe” oldozkor geratu zan, eta gero,

—Begira, lagun —esan eustan—, zeuk aitatzen dozun agiria eskatuko be’neu, Franco gure idorokundeaz jabetuko litzake, España’n kaferik ez dago-ta. Oba, arazoa dagoan lez itzi, ezta lagun?

Barre egin genduan, eta niketz iñork ez leukela arazoari buruz ezer jakingo itz emon neutsan. Berak ordaiñez barri egindako katillu bete kefelito eskiñi eustan, eta nik munduko kaferik onena zala zin egin ondoren, alkar agurtu genduan.

Arratsalde aretan Larrain Nagusian aljebreari ekiten neutsala, aldari ezaguna entzun neban, onetaraxe iñoala:

—iKafé, kafelito güeno, eto sí que e canela pura...! ¡Ay, que me voy... quién quiere otro...! ¡Ay que me voy, café güeno...!

Nire ondotik igarotean "Er Txitxe" ta biok alkarri begi-keiñu egin geutsan, eta jendetzaren artean galtzen zala, arrakesta andia lortu egian opaldu neutsan barrutik.

Udazkena igaro zan, baita Egubarriko jaiak be, guretzat erri-miñaz eta etxekoen oroitzaz beterik izanik. Eta 1939'ko urtean sartu gintzazan. Geienetan eguraldia eguzkitsua zan, eta noizean bein otza ta euri-jasak izaten bagenduzan be, gure lurraldearenaz bekalde-tuta, askozaz ohea zan. Egunak, baiña, astiro ta aspergarriak alkarri erraikioen, gure espetxaldiaren amaia somatu eziñik.

Noizean bein gure jaiak atontzen genduzan. Bazan Donostia'ko lagun bat arrabitari bikaiña zana, eta Larrain Nagusiko oltza batetik, espetxeratuek inguratuta, eresi zoragarriak joten ebazan, beste mundu batera gindaroazala. Jai oneik baeben beste alde barregarria. Santander'ko erritxu baten sakristaua izaniko bategandik. Sakristau onek, bere burua ludiko eresgillerik andientzat jotzen eban, eta or-emenka bere buruari abestuz ikusten genduan, edo-ta ingi-txatal baten bere eres-jeiñuaren ondorioak jarten.

Donostia'ko arrabitari bikaiñak erestaldia amaituta, oltzatic jaisten zala, entzuleek abo batez sakristauaren agerpena eskatzen genduan, eta ez gintzazan isiltzen gure gizona agertu arte. Orduan, berak asmatu-eriko eres-paperak arkondarapetik atarata, guztien txalo ta oiuen artean abesten euskuzan. Zelan amaitu ez ekian, eta azke-nean, zezenlari gorenen antzera, oltzatic artuta soingañeka eroan izaten zan.

Sakristauak garaille itxuraz sabel-ondoko eresi-paperak ataraten ebazan bein baten, Getxo'ko lagun bateri auxe entzun neutsan:

—Oneri, beintzat, eresiek urdailla berotzeko laguntzen dautsoe.

Bein baten, beste jai bat izan genduan... Aita Pérez del Pulgar eritxan yosulagun ospetxuak, atxilloentzat "Redencion de Penas por el Trabajo" asmatu izan eban. Geuk egindako gaiztakeriakaitik artutako zigorraldia, lanaren bidez ordaindu bear genduan, alegia, eta berak asmatutakoaren arauz, espetxean lanean ziarduenai zigorraldia gitxitu egiten yaken, lan egindako giñoan. Egun bateko lana, eta egun batez gitxituriko espetxaldia. Elburu onetara jende erakartearren, "Rendicion" izeneko aldizkari txotxoloa argitarat-

tzen eban. Giltzapetuok bost ardura emoten geutsezan asmoa ta aldizkariari.

Goiz baten, baiña, Aita Perez del Pulgar il zalaren barria zabaldu zan. Arratsalde aretan, espetxeko nagusiak, ainbeste zor geutsan ildako ongillearen alde, agurtza edo errosarioa esateko dei egin euskun.

Jaiegun guztietan oitura zan, atxillo guztiak Larrain Nagusian erreskadetan jarri-erazotea oiko mezea entzuteko. Arratsalde aretan, bardin, larraiñera eroan ginduezan, eta lerroak eratuta, espetxeko agintariek inguratuta, kapellaua agurtza esaten asi zan. Bere otoi-tzai, baiña, egundoko isiltasunak jarraitu eutsen. Ez zan tutik be entzuten, eta kapellauaren otoi-tzak bakarrik aditzen zirala, agurtzak jarraitu egin eban. Letaniak amaitu ziranean, espetxeko zuzendaria oi-u bizitan onetaraxe asi zan:

—¡Esto es un plante...! Guardias, vengan todos aquí y rodeen a esa gentuza, canallas, así pagáis a quien tanto bien os ha hecho...!

Idizilari-ek eta espetxea zaintzen eben gudari-ek inguratuta, isil-tasun astunpean, gure gelatara eroan ginduezan. Guk ezin ulertu egindako pekatua, baiña askoen barruan, eriotz-zigorraren bildur-rak egakutzen eban. Zorionez, ez zan beste zigorr-ik gertatu, larrai-ñetara urtenbako aste bateko ordaintza baiño.

Barr-iro be udabarria eldu zan. Gudako barriak nonai bala-bala egozan, eta baikor-rak itxaropenak adoretur-ik azaltzen ba'ziran, ezko-rrek gudea galdutzat jotzen eben, eta geienetan jazoten danez, azken oneik zuzen egozan. 1939'ko Jor-railla'ren l'goan Errepubli-ka garai-tu izan zan, eta 1936'an asaldatu-urikoek garaipena ospatu eben. Orduan bai urrun ikusten genduala gure askatasuna...!

Banekian alperriko arazoa zala norberaren buruari erruki iza-tea, eta oi neban lez, ikasketeari emon neutsan. Bein baten, oiko ikastaldia amaituta, ezin egikidala beste ikaskizun-ik emon esan eustan On Pedro'k. Espetxeko nagusiak semeai zenbakiztia irakatsi egitsen eskatu egin eutsala, eta augaitik, astirik ez niri irakasten jarraitzeko.

Orduko, baiña, algebrea naikoa polito menperatzen neban, eta bakarrik oituko nintzakela esan neutsan. Arrezkero, On Pedro'ren



egoerea gainbeera aldatu zan, bai itxuraz, bai izatez, idizilariak On Pedro esaten eutsoela ta guztitariko begirunez erabilten ebela.

Bein baten, Iñaki'rekin oi neban lez euskeraz niarduala, idazti bat eskuan ebala, Bilbao'ko ezagun bat urreratu yakun, eta euskerazko itz baten esangurea eskatu euskun. Bereala azaldu neutsan, baita itz-zerrenda batena be. Idaztiaren izenpurua "Garoa" zan. Urrengo egunean lagun berbera etorri yatan, eta idaztia ulertzeko lagunduko ete neuskion eskatu eustan. Nik baietz, eta arrezkero, egunoro gure aulkitxuetan jesarrita, liburu aren irakurteari emon geutsan.

Ordurarte ez neban iñoiz euskeraz irakurri, eta Agirre'tar Txomiñ'en elebarri arek lilluratu ninduan. Euskerea bazala gauza gogoe-ta ederrenak zeatz eta argi adierazoteko konturatu nintzan, eta algebra ta zenbakiak alde batera itzita, euskal elertiko alorrean zear murgildu nintzan, adimena ta gogoia edertzen yatazala. Izan be, kinka larri aretan, ezin idoro aringarri obarik, eta euskera eder aretan, iñoiz ames ez egindako mundu bat agertzen yatan lenengo-z, bidebatez euskerarekiko begirune ta ederrespena gogo-miñenean sartzen yatazala.

Tamalez, baziran nik aurkitutako gogo-aringarria idoro ez ebena, eta gogoeta illunetan etenbarik zapalduta, ezin atontzeko ziran arazoak buruan erabillezan barruko oreka galtzeraiño. Sarri askotan, etxekoen kinka larria zala-ta, gaixo arein arimaren egoerea kolokatzen zan. Izan be, atxillo batzuen etxeetan, bearrianak ondorio izugarriak ekarri oi ebazan.

Bilbao'ko gazte bat, burua galtzen asi zan, eta bere burua ilgo ebala lagunai esaten asi yaken. Mutil onen egoerea gero ta txarrago azaltzen zan ezkerro, euretariko baten batek beti lagundu egitsala, erabagi eben lagunek. Bei baten, mutilla jagolearen oarkabea ustiatuz, ostendu egin zan. Bereala, jagoleak aren aldegitiaz konturaturik, aalik ariñen geisotegira arindu zan suzmo baltzak jota. Euren burua il gura ebenek, geisotegiko irugarren maillatik buruz beera oldartzen ziran, beeko soruan ler eginda ilteko.

Jagoleak, mutilla zurubian gora joiala ikusi eban, eta arrapalada baten jarraitu eutsan. Gora eldu zanean, besteari jantzitik eldu gura izan eutsan, baiña ozta-ozta ukututa, mutilla zurubiko utsunetik buruz-beera joain. An, beeko soruan illik aurkitu eben.

Urrengo egunean, lagunek eroandako il-kutxa bat igaro zan Larrain Nagusitik ateraiño. Gure Aita bat euskeraz aditu zan, eta azken agurtzat lagun aurpegietan malkoak ikusi zeitekezan. Eriotzaren igitaiak ez eban atsedetik izaten.

Egunen jarraigo aspergarria aurrera joian, eta udea amaitu baiño len, Errusia'k Hitler'ekin bake-itunpena izenpetu eban. Andik laster, gurekin atxillo egozan "Konsomol" izeneko itsasontzi errusitarren mariñelak jareitu ziran. Hitler'ek, sorkaldeko muga ziurtaturik, Polonia'ri eraso eutsan, eta luzaro barik, erri kementsu ta abertzale au zati bitan banandu izan zan, Doitzland eta Errusia'ren artean. Europa'ko bigarren gudea asten zan.

Bazan, baiña, benetan kezkatzen ninduan beste arazo bat. Aspaldi aretan, Iñaki gero ta makalago ikusten neban. Janari urriagaitik eta bere gain artutako betebeer iguingarria zala-ta, urrean, gizandi onen osasunak beerakada itzela jasaten eban. Aren soin sendo, lerdena, bazirudian ekaitz batek jotako areitz tantaiarena; lurrerantz makurtzen zan, eta aurpegi zimelean, orban gorritzka bi agertu izan yakozan. Bein baten, bere ondoeza ikusirik, auxe esan neutsan:

—Aiko, Iñaki, yarabilkan garbiketa-lan ori itzi egin bear yok, ez aut ondo ikusten-eta.

—Apur bat makalduta naiagok, baiña laster lengoratuko nok. Gaiñera, bayakik, gure taldeko sarrerai lagundu bear yautset...

—Ori ezelan be ez. Orain nire etxetik biontzako beste bialtzen yaustiek.

Egia zan. Anai-arteko gudea amaitu zanetik, Iñese'ren senarra etxeratu izan zan, eta okintzan ziarduan barrero obari onaz. Olan ba, nire etxekoek neuri laguntza geiago emoteko gai ziran. Au zala-ta, onetaraxe jarraitu neban:

—Ire osasuna dok jokoan yabilkana, eta ez aut ezelan be itziko ire lan madarikatu orretan jarraitu yagikan. Iñaki, berba emon bear yaustak, lan orreri uko egingo yaustakala. Au ziñez yiñoat.

Gai onetzaz luzaro jardun ostean, Iñaki'k amor emon eban. Gau aretan arazoa gogoan nerabillela, ezustean burutapen bat eto-

ri yatan, eta urrengo egunean goizetik, On Pedro'gana joanda, Iñaki'rena esan neutsan, onen alde zeozer egiteko eskatzen neutsala.

On Pedro une batez oldozkor egon zan, eta gero nire lagunaren alde aaleginduko litzakela esan eustan.

Illuntzean, lo egiteko brigadean sartu baiño len, urreratu yatan auxe ziraustala:

—Yon Ander, zuzendariarekin mintzatu naz zure lagunaren arazoari buruz, eta ekonomatoko arduradunarekin jarduki laburra izan ostean, zure adiskideak, biartik asita ekonomatoan lan egin dagikela agindu daust.

Pozez gaiñezka, On Pedro'ri eskerrak emon neutsazan tartailloka, eta astirik galtzeke Iñaki'gana joanda,

—Iñaki —esan neutsan—, biartik asita jarduna yok ekonomatoan. Aurkeztu adi ango arduradunagana, eta esaiok zuzendariaren aginduz atorrela. Leku orretan zenbat-gura janari izango dok, eta luzaro barik osatuko az.

Olan ba, Iñaki ekonomatoan jarduten asi zan, eta nik uste izandako lez, arrezkero loditzen asi be bai. Baiña...

Baiña aurpegiko larrosa antzeko orbanak ez yakozan ostentzen, eta begietan dizdir bakana agiri eban.


Urril aretako eguraldia ezin zeitekean obarik izan, baiña alan eta guzti be, loditu izan arren, nekatuta emoten eban.

Bein baten, bera gogoz ez baetorran be, geisotegira eroan neban, osasun-azterketea egiteko. Aztertu bitartean, kanpoan geratu nintzan arrenkuraz jabetuta. Azterketeak luzaro samar iraun eban, eta noizbait agertu zanean, auxe esan eustan:

—Yon Ander, emen geratu bear nok, eta ain zuzen be, bularretiko saillean.

Zirrara otz batek astindu ninduan, eta itz egiteko gauza ez nintzala, inguruan dana biraka asi yatan. Urrundik bai'litzan, Iñaki'ren itzok aditu nebazan:





MUTXIKIN-BATZAILLEA

—Ez adi larritu, adiskide. Benetan esateko guztiz nekatua sentitzen nok, eta emen, bear yoadazan zaintza ta atsedena izanik, laster izango nok irekin.

Korapillo bat kokatu yatan eztarrian, berba egitea eragozten eustala, eta egoera larria jasan eziñik, geisotegitik urten nintzan lurjota, oldozkun izugarria nitzaz jabetzen zala: bularretiko saillera sartzen ebena, ez zan bizirik urteten. Toki izugarria zan, -eztul eta odol-goitikoek, argiz beteriko areto a lekurik itzaltsuena biurtzen ebela.

Eguberdi aretako urrezko eguzkiak inguratu ninduan urten nintzanean, baiña sentipen larri batek gogo ta biotza illunpetan murgiltzen eustazan. Arratsalde aretan, lo-ibiltari baten antzera batetik bestera joan nintzan menperatzen ninduan larritasuna nigan-dik uxatu eziñik. Jaungoikoari eskatu neutsan, ain maite izaten neban laguna, eta an Gipuzkoa'ko baserri baten naigabez jabetuta zitxarokion ama alargunarentzat batez be, gorde egian.

Geisotegiko ikertaldia ordu bete bat zirauan, eta egunoro Iñaki ikusten neban. Berak irrikatzen eban nire ikustaldia, enparauko aldian bakarrik zirauan-eta. Gure taldeko janaririk gozoena nekar-kion, eta jateko gogo andirik ez eban ezker, jatekoa nire aurrean irunsi bear izaten eban. Gero, espetxean gertatzen zanaren barriak emoten neutsazan. Oartu baiño len, ikertaldia amaitzen zan, eta “biar arte” alkarri esanez, joaten nintzan.

Eztultxu madarikatu arek ez eban bakean lagaten, eta gorabeera andiak erakusten ebazan. Joanda zirudianean, urrengo egun-ean indar-barrituz barriro agertzen yakon. Egunero soiñaren berotasuna artzen neutsan “Er Txitxe”ri erosiriko bero-neurkin bat, baiña amarren arek ez eben izten, ezta matrailletako orban larros-karak be.

Geisotegiko arazoak kanpoko osagille batek erabillezan, baiña eusko gudataldeetan jardun izaniko osagille asko atxillo izanik, oneik zaintzen eben benetan geisotegia. Bein baten, bularretiko saillean ziarduan gipuzkoar osagille bateri, Iñaki'ren benetako egoe-ratzaz itaundu neutsan, eta onetaraxe erantzun eustan:

—Zure lagunaren egoera txarrenetako da. Birieta zulo andiak ditu, eta nire ustez ez dago urten-biderik. Begira, adiskide, gosetee-

tan, sendoenak oparigai errazenak dira, iraunerazoteko enparauek baiño janari geiago bear dabelako. Zure lagunak, tantai sendo baten antzera gun ugaria bear dau irauntzeko, baiña, oster, bear baiño askozaz gitxiago artu dau...

—Baiña, aizu —eten egin neutsan—, orain ondo janaritzekotan, ezin geinke onik atara...?

—Jum...! Dana-dala, aalegindu zaitetz aal ba'dozu, baiña...

Lur-jota itzi ninduan osagille arek, baiña ala ta guzti be, Iñaki'ren alde aaleginduko nintzakela zin egin neutsan nire buruari.

Negua zan, egun labur illunak eguzkitsuekin aldizkatzen zirala, eta igarri barik, Egubari ta Urtebarria etorri ziran, 1940'ko urtean sartzen gintzazala. Aspaldi aretan, Iñaki'k itxura ohea erakusten eban, eta nire bizitzaren gorabeerak asko atsegin yakozan ezker, egunoro arein zati bat edesten neutsan.

Olan ba, Pirmiñ'en gauzak eta Bordazuri'ko gora-beerak edestu neutsazan. Izan be, agiri zan berarentzat jakingarriak zirala, eta sarri askotan barre egiten eban. Gero Txeru'ren erosketea ta lapurketea jakiñerazo neutsazan, Mimiñe'rekiko artu-emonak, ikastolako erestunarena, aitaren eriotza baita errota bat eraiki nengianaren guraria. Gero, zelan aitaren eta Txeru'ren laguntzaz, eta On Martiñ'enaz azkenean, errotearen eraikintzea lortu neban, baita bizitzaren alde etxetik egindako igesa Bilbao'ra eldu arte.

Egunoroko ikertaldietan Iñaki nire begira egoan, eta nik ekarritakoak jan bitartean, astiro ta zeatz nire bizitzako zati bat edesten neutsan, eta berak igarri barik janaria garbitzen eban.

Baiña egunen bidean, jateko gogoa galtzen asi zan, eta egunoroko ikertaldian, benetan aalegindu bear izaten neban, nekarkiozan mokau aukeratuak irunsi egiazan. Bordazuri buruzko gertaerak edestea, biderik onena zan orretarako.

Arratsalde baten, nire itaunai erantzuna emonez, bere bizitzaren gora-beera batzuk emon eustazan. Erriko lekuri garaienean bizi zan bere amarekin. Aita umetarik galdu izan eban, eta arrezker, amak seme bakar aregan itxaropen eta ames guztiak jarri eban. Ezeukiak ziran, amak barriro ezkondu gura izan ez ebalako, eta goizaldetik gaberarte lanari emonda, semea aurrera ataraten

lortu eban. Iñaki lan egiteko gai izan zanean, gauzak beste itxura bat artu eban, eta noizbait, "Endatza"ko alargunak biziera nasaiago bateri emon aal izan eutsan.

Iñaki'ren eragintzaz, "Endatza" bitxi bat zirudian, eta amaren amesa, bitxi orretarako etxeoandre gazte maratza aurkitzea zan. Ames ori, baiña, ustel billakatu zan 1936'ko guda zitalaren etorreaz. Iñaki'k abertzaletzasuna muiñetaraiño sartuta eban, eta bere erriaren alde aalegintzea ebatzi eban. Gaiñera, burrukea laburra izango zalakoan, aspalditxu batez ama naikoa ondo konponduko zala uste izan eban. Ez yakon erraza gertatu amaren besoetatik yareitza, baiña azkenean Tolosa'ko batzokian gudarizat izena emon eban.

Espetxera sartu izan zanean, erriko abade gazteak amaren barriak idazki bat illero bialtzen eutsan, eta Iñaki'k ordaiñez amari idazten eutsan abadearen bidez, ama eskolabakoa zan-eta. Erriko abadeak esaten eutsanez, ama guztiz ondo aurkitzen zan, eta bearrizan guztiak naikoturik ebazala.

Amaren egoera ta etorriko litzakion geroa, Iñaki'ren buruaustea zan, eta onetzaz asko esan ez arren, bere oñazearen iturria zala igarten yakon.

Otsailla etorri zan, eta Iñaki'ren egoera gainbeera txarragotu zan. Lo-kuma astun batek artuta luzaro oi ziruan, eta oso zailla gertatzen yatan, eskintzen neutsan janaria irunsi egian. Gaiñera, sukar kiskalgarriak aurpegia ixiotzen eutsan, eta begien dizdirak, bazidurian, itzungiteko zorian aurkitzen diran izar bien azken argi sarkorra. Agiri zan, Iñaki'ren azkena egun gitxitako arazoa izango litzakela, eta orduan On Pedro'gana jo neban...

Nire adiskidearen azkena arintzearen, gau ta egun bere ondoan egon gura nebala azaldu neutsan. Orretarako, baiña, baimen berezia bear izaten neban ezker, ia Nagusiagandik bearrezko agiria jaristeko gai izango ete litzaken. Errukitsu begiratu eustan On Pedro'k, eta ezer esan barik, joan zan. Urrengo egunean urreratu yatan, eta eskaturiko agiria eskuratzen eustala,

—Eutsi, mutil —esan eustan—, bear dozun agiria. Izango al dozuz adiskidearen azken orduak arindu...!

Arrezkero, ez nintzan Iñaki'gandik aldendu. Arratsalde baten, berak eskatuta, kapellaua ekarri neutsan, eta aitortu ondoren, Jauna artu eban. Orduetik bazirudian nasaia goa aurkitzen zala, baiña sukar gaizto arek nire adiskidearen gorputza irusten eban. Noizean bein, eztul garratzen arten, odolezko gorakoak abotik eriozan, nire eskuai oratzen eutsela. Areitariko arratsalde baten, une batez lo-kumatik iratzarri zan, eta begi kiskaltsuakaz so egiten eustala,

—Yon Ander —esan eustan—, egunen baten ama ikustera joango al-aiz? Esaiok zelan maite yoadan, eta barkatu yaistakala bera bakarrik itzi izateagatik...

—Bai, Iñaki, benetan yñoat emendik urteten ba'nok ikertuko yoadala, baita nire aalmenaren giñoan lagunduko be...

—Bayakiat ori, Yon Ander, bayakiat...

Gero, burua galduta, amestxar batek artu eban. Goizaldean bere senetara etorrira, eskua estutu eustan auxe ziraustala:

—Yon Ander... entzun eistak ondo... itz emon bear yaustak... egunen baten, Bordazuri, bizi izandako gudea, eta espetxaldiriaz... liburu bat idatziko yokala... liburu orreri "Bordazuri" izenpurua jarriko yaustak...

—Bai Iñaki, nasaitu adi, idatziko yoat.

Gero, arnas-estuka asi zan, eta andik laster lo antzean barebare geratu zan. Alako baten iratzarrita, eta bere eskuai eusten baneutsen be, auxe eskatu eustan:

—Yon Ander... ez naik bakarrik itzi... Ama, ama...! Gora Euzk...!

Besoetan artzen nebala, odol-goitika batek azken itzok ito eutsazan. Gero, atzerantz illik amildu zan. Leioetatik Otsailla'ko goizalde itun batek jaioteko zorian zan eguna iragarten eban.

Astirik galtzeke, odolduriko aurpegi ta eskuak garbitu neutsazan. Gero, etxetik aurtemin bialduriko nire prakak eta arkondara barriakaz jantzi neban, eta begiak itxi neutsazan. Jarraian, aulki baten jesarrita, otoitz gartsu bateri emon neutsan.

Egun aretako arratsaldean bertan, il-kutxa ezain baten barruan, sei gudarik larraiñetan zear eroan eben. Isiltasun aretan, gudari





SUGE-OTZANTZA

batek Gure Aita euskeraz esan eban, eta danok suzmur zirrara-garriaz erantzun. Danok ez, baiña, neuk korapillo bat eztarran eratu izan yatala, ez-gauza nintzan ezer esateko. Azkeneraino lagundu neutsan, burdiñezko atetzar batek eragotzi eustan arte.

Illunabarra zan jadanik, eta larrain zaarreko txoko illun baten jesarrita, negar isil eta etsiari emon neutsan. Itzalak antzera, Sabin, Pruden eta Iñaki aurretik igaro yatazan. Joanak ziran maite-maite izan nebazan adiskideak. Goiburu baten alde ostendu izan ziran eurek, onenak, garbienak. Baita Iñaki'k benetan maite izan eban "Made" gaixoa, Santoña'ko itsas-adarrean murgilduta zetzan... Ildakoek Aberria egiten ei'dabe. Olan izango da, urrean, odolaren sariaz erosten danean batez be...

Gau eginda, 12'gn brigadara lo egiteko biurtu nintzan. Nire arkondareak odol-une andia erakusten ebala lagun batek esan eustan. Eragin bakan batek jota, betiko gordeko neukela erabagi neban.

Burutik eginda lez zenbait egunez batetik bestera ibilli nintzan. Zorionez, baiña, euskeraz irakurten eban bilbaotarra etorri yatan, ulertzeko lagundu nengion eskatuz. Oraingo onetan, Kirikiño'ren "Abarrak" zan irakurgaia, eta olan, ustebako aringarria idoro neban, oiko dendua apurka-apurka irabazten nebala. Euskera garbi errikoiaz idatziriko bizkaitar aren idaz-lanek eta izkirimiriek, nire gogoeta kiskaltsuak ozkirriz baretzen eustezan, gure izkuntza bardingabea gero ta maiteago nebala. Olan ba, Kirikiño andiaren bidez, bizkaiera polito ikasi neban. Gero, Lizardi ta Lauaxeta'ren olerki bikaiñek, neuk iñoiz ez ezagaturiko beste ludi batera eroan ninduen. Orduan, izkuntzaren jaietako janzkia olerkaritza dala ulertu neban, eta ukutze illaunaz norberaren arima-barrura igazirik, gogoak edertzen eta argitzen dauzala.

Eta olan, argi ta itzalen artean, espetxaldiko nire irugarren udabarria eldu zan, eta onekin batera eleiza zaarreko dorrean, amiamokoak oiko abia egiten asi ziran. Udako asierean, doixtarrek Errusia'ri eraso eutsoen, lur askoz jabetzen zirala. Aldi aretan, gure epaiketak barrikusiak izango ziralaren zurrumurrua zabaldu zan. Oi nebanez, arazoari ez neutsan jaramon andirik emon, ordurarte, itxaropen guztiak ustel biurtu izan yatazan-eta.

Baiña Garagarrilla'ko egun baten, gutariko lagunak urteten asi ziran. Itxaropen eta pozez gainezka, euren zorroekin urteten ikusi genduzan, eta geratzen gintzazanok, sentipen larriaz gure buruari esaten geutsan, gutzaz aztu izango ez ete ziran. Ia egunero, amabost bat lagun urteten ziran. Geroago kopuru au anditu zan.

Beñola, Larrain Nagusiko itzalgune baten, arratsaldeko bero-pean idazti bat eskuen artean, erdi-lo nengoala, idaztegian ziarduan lagun batek, oiuka iratzarri ninduan, auxe ziraustala:

—Yon Ander, Yon Ander...! Iretzako askatasun-agiria eldu yakuk. Gertu ire gazuak, eta ordu bi barruan aurkeztu adi urteerako atean.

Ikoti bataz zutundu nintzan, eta zoro baten antzera iñoiz ez izaniko zoriona nitzaz jabetzen zala, nire gauza landerrak Dueso'tik ekarrirako olezko kutxean sartu nebazan, eta aal neban ondoen jantzita, lagunakandik agurtu nintzan. Besarkada estu-estu bana emon eusten, nire lagun miñek Yokiñ'ek eta Manu'k batez be, eta idaztegiara joan nintzan. Emen, nire diru-txartel urriak dirutan aldatu, baita agiri batzuk tren-txarteletan aldatzeko emon eustezan be. Urteerantz abiatzen nintzala, ezustean arazo bat gogora etorri yatan: usoak...!

Lagun askok astia emoteko, uso-bikoteak zaintzen ebezan. Olezko kaiola antzeko kutxa abidunetan bizi ziran, aske izanik sartu ta urteteko euren aukerean. Ikusgarria zan errunketea, gero txitaldia ta usokume bien jaiotza, janarialdia etab, anditu arte. Iñaki'k oneitariko bikotea zaintzen eban. Geisoaldian, berak eskatuta neronek zaintzen nebazan. Il aurretik, usoak ez izteko eskatu eustan Iñaki'k, eta olan nire jabetasuna billakatu ziran.

Usoak gogora etorri yatazanean, axea itzita, iñoren billa larrainetan zear asi nintzan. Andik laster, "Er Txitxe" aurkitu neban.

—Aizu, lagun —esan neutsan—, nire usoak zuretzat baldintza bataz, baiña: oneik eta onein kumeak jan ez dagizuzan. Saldu dagikezuz jateko ez izatekotan.

—Ez larritu adiskide, olan izango da. "Er Txitxe"ren itza urrezkoa dan ezkerro, nasaitu zaitekez. Eta zure askatasuna dala-ta, nire zorionik beroena. Eta orain, lagun, zeure jareitasuna bear dan lez ospatzeko, edan dagigun katillu bana kafelito.

Olan egin genduan, eta alkarregandik agurtuta, atera abiatu nintzan. Askatzeko gintzazan lagun guztiak batuta, gure izenak azkenengoz irakurri ziran. Noizbait, burdiñezko atetzarra zabaldu zan, eta lekorera urten gintzazan.

Dagonilla'ren 12'gna zan, Klare Deunaren eguna, izan be. Urrezko arratsalde zoragarrian, bide-ondoko inguruak usain-gozotuz, eukalitu tantaiaak jagiten ziran, eta aurrean Puerto de Santa Maria'ko etxe kareztatuak agertzen yatazan. Urrunean, itsas-kolkoz araindian, Cadiz'eko zerrenda zuria marraztuta nenkusan. Itsas-aize bigunak, "Ongi Etorria" eskintzen eustan, eta iñondik Bordazuri'ko dei yorantsua somatzen neban.

## ETXERA

Lagun batek esandako ostatura joan, eta etxekoai urrutidazki bat igorri neutsen, etxerako bidean nintzala jakiñerazoz. Axea ostatuan itzita, errian zear osteratxu bat egin neban. Kaian, margo biziakaz jantziriko arraintontziak begiztatu nebazan. Itsas-kolko zabalaren urruntasunean Cadiz uriko marra zuri luzea ikusten zan. Gero, egurasteari emon neutsan kaleetan zear, eta gautu zanean, ikusiriko edertasunaz begiak blei-blei nebazala, ostatura biurtu nintzan apaltzeko. Oera joanda, askatasunaren kilikadurak ez ninduan lo egiten itzi, alde batetik bestera iraulkatzen nintzala. Goizaldea baiño len, noizbait, lo urduri batek artu ninduan, eta andik laster ostalariak iratzarrita, geltokira abiatu nintzan. Espetxeko agiri batatz Sevilla'rako tren-txartela lortu neban.

Cadiz'etiko trena bete-beterik etorren, eta igarobidean olezko kutxaren gaiñean, espetxeko lagun batzuekin alkar-izketan, eguberdirantz Sevilla'ra eldu gintzazan eguzki kiskalgarripean.

Bazkaldu ostean, uritik egurastu nintzan, eta gabean Madrid'era rako trena artuta, bilin-bolaka amaibakoek lagunduta, axean jesarrita lo egin neban zatika. Trenak mukurru bete egozan beti aldi areitan, eta igarobidean be, zailla zan lekurik aurkitzea.

Goizaldean Madrid'era eldu, eta egun osoa kaleetan zear or-emenka egurastuz edo aulki baten jesarrita, eguna emon neban. Gabean geltokira barrero iparrerako trena artzeko, eta aurreko gabean lez aldizka lo egiten nebala, eguberdian Iruña'n aurkitu nintzan. Iñoiz aztuko ez neuken eguna zan: Dagonilla'ren 15'gna, Jasokun-



de edo Asuntze eguna izan be. Urte bi lenago Dueso'tik Puerto de Santa Maria'rantz urten izan nintzan eguna. Lau urte ziran etxetik iges egin nebanetik, eta areitariko irutan espetxean sartuta.

Egun sargoritsua zan, eta kaleetatik niñoala, emakume batek besarkatu ninduan, auxe ziraustala:

—Yon Ander, neure mutilla, nondik ibilli zara?

Bereala ezagutu neban. Larunbat guztietan Iruña'tik Aranegi'ra etorren arrautz-saltzaille berbera zan. Itz laburrakaz nire gora-beerak edestu neutsazan, eta espetxetik urten barria nintzala entzutean,

—Aizu, Yon Ander, esan eustan —gaur gurean bazkalduko dozu. Ze ordutan da Aranegi'rako erri-berebilla?

—Lauretan, Andrea.

—Badozu astirik ba, gurekin bazkaltzeko.

Etxera eroan ninduan, eta andik laster, mai-inguruan, bera, senarra ta bost seme-alabekin jesarri nintzan. Urteak ziran a lako bazkari bikaiñik ezagutzen ez nebala. Otordu bitartean, urte areitan Naparra'n jazorikoa jakiñerazo eusten. Izugarriak ziran Jaungoikoaren izenean egindako eraillketak. Eriotzaren aingeru baltzek, gabero ezkertiar eta abertzaleen etxeak ikertzen ebezan, eta beste eritxi politikoa izateagaitik soillik, gizonak gurasoen, emazteen eta seme-alaben besoetatik erauzten ebezan basaki, eta bideko ertz baten su-iskillotzen ebezan, edo mendietako amildegietatik beera jaurti. Baziran ala ta guzti be, bereala ilten ez ziranak, eta egunetan zear, eriotzak isildu arte, euren intziriak aditu zeitekezan. Askori, elizakoak eskatuta, ukatzen yakoan esanez: “Orain oroitzen al-zara? Zenbat gura astirik izan dozu len”. Emakumeai ulea moztu ta sabel-aringarriak emotseezan, errian zear ataraten ebezala guztien barregarria izateko.

Naparra'n eraildakoak amar milla inguru ainbatzen ziran... danak Jaungoikoaren aintzarako garbituta, eta pekatarien zigortzat. Errepublikak agintzen eban lekuetan, ezkertiarrek, beste eritxiko jende asko il egin eben be, baiña Jaungoikoaren izenean erailten ebenen pekatua askozaz iguingarriagoa da. Gorrotoak eragindako, errubakoen odol ugari isuri izan zan alderdi bietan. Gudari asko burrukan egiten jausia zan, jende askok atzerrira iges egin izan

eban, espetxeratuak millaka ta millaka ziran, eta sendi askok diruzigorrak ordaindu bear izan ebezan bizi aal izateko.

Anai-arteko guða zital eta zikin arek, gorrotoa ta oñazeak nonai sakabanatu izan ebazan, azkenean gauzak iñoizkorik txar-toen izteko...

Etxe aretan esan eustenak izuz bete ninduan, eta neronek bizi izaniko gertaera baltzak ezagutuak banebazan be, esaterako, gure osagillearen eraillketea, ez neban ordurarte uste izan, Naparra'n jazorikoa orren izugarria izan leitekenik.

Noizbait, jende arrai aregandik agurtu nintzan, eta Aranegi'rako erri-berebilla artu neban. Abiatuta laster, ikusgai ta margoak Yandur-arana'ren antzekoak biurtzen asi ziran. Andik ordubete batera-edo, urte batzuk lenago, Xanpa'k eta erriko alkateak lagun-duriko, pago zimelak aukeratzearren ikertu genduan basoa ezagutu neban. Gero, aldatz-beera, eta geldialdi ugari egin ondoren, noiz-bait, Aranegi'ra eldu nintzan.

Nerabillen itxura aretan erritarren batek ikusi nengian gura izaten ez neban ezkerro, erriko kale baztertuenak autatu nebazan, eta sosterrik bage, Iturizaga'ko bide bakartitik etxera zuzendu nintzan. Une batez iturrian gelditu nintzan egarria baretzeko, eta axea barrero artuta, bideari jarraitu neutsan. Alako baten, axea zertaroko bear izango neban bururatu yatan. Izan be, barruko jantzi zaarrak zorritz josita egozan, eta kutxearen zirrituetan, imitxa ugari kokatuko zan. Bigarrenez oldoztu barik, Iñaki'ren odolaz orbandutako arkondarea alde batera ipiñi ondoren, enparaua kutxabarruan lagata, Yandur-erreka'ko ur bizietara bota neban. Urratsak arinduz laster eldu nintzan Yandur-zubi'ra. Bestaldean, Arandibar'ko etxeak lotan zirudien arratsaldeko bakean. Nire jaioterria ikustean, zarrastada bakanak jo ninduan.

Ez nintzan gelditu, baiña. Biotza pilpira zoro batek astinduta, indar ezkutuak aurrera nindaroan. Bideko okergune bat atzean itzita, langea agertu yatan... Aga barik aurkitzen zan, eta zutoin bateko erpiñean, txindor batek zoro biurtu izan bai'litzan, urrezko arratsalde gardenean bere txio yaukalak sakabanatzen ebazan, lagun zaar bateri “Ongi-etorria” emon naiean lez.

Ezin neban aurrera jarraitu aal. Soin osoa dardarikatzen yatan, eta gelditu egin bear izan neban... Aurrean, milla bidar ames egindako Bordazuri maitagarriak maitasunezko isiltasunean errime ta sendo igurikatzen ninduan... Gero, jabetasuna galduta, aurrera oldartu nintzan, eta olezko zubitxua zearkatu, etxera sartu nintzan didarrez:

—Ama... ama...!

Sutondotik irudi koloka bat besoetara oldartu yatan, eta burua nire bularrean jarrita, negarrek inarrositako berbaz, bein eta barriro auxe ziraustan:

—Yon Ander, nire maitia...!

Aita zanak oi eban antzera, billo zirikotsuak laztandu neutsazan. Orain, baiña, urrezko margo bizia, errauts antzekoa biurtu izan zan. Gaixoaren pairamenak...! Lau urte areitan neureak eta bost jasan banebazan be, amak eroandakoa milla bidar areago zan, isillean, beti naigabez, urrundutako semea gogotik kendu eziñik, senarraren laguntza ezagutzeke, bearrian gorrian, etxeko lanai eutsita aurrezturiko apurak espetxean egoan semeari bialtzearren...

Esquetan artu neutsan aurpegia. Eguzkiak bitargi batetik antzera, bere malkoen artean irribarre egiten eustan, auxe ziraustala:

—Estu ta larri bizi izan gara, baiña orain seme...

—Orain dana atonduko da, ama, nasaitu zaitetz.

—Zu etxean izateak itxaropenez bateten nau, Yon Ander.

Bekokian musu luzea emon neutsan. Aurpegiaren zimeltasuna...! Olan nenkusala aititaren aurpegi mazala burura etorri yatan, eta besarkadea lazotuz,

—Aitita, non dago aitita...? —itaundu neutsan.

Amak aurpegia ezkutatu eban, eta negar-zotiñen artean,

—Joan yaku, Yon Ander —erantzun eustan—, zerura joan yaku orain illabete bat...

Belaunak uts egin yatazan, eta aulki baten gainean jesarri bear izan neban. Nire aurrean makurtuta, amak eskuak artu eustazan, eta mintzo kolokaz, onetaraxe jarraitu eban:

—Orain sei illabete-edo, makaltzen asi zan, eta andik laster ezin zeitekean oetik jagi. Bere ondoan luzaro irauten neban, gure autuaren gaia zeu izanik. Espetxetik igorritako idazkiak bein eta barriro irakurten neutsazan, zeugandik jakiteak ez eban nekatzen-eta. Bai benetan maite zinduzala aititak...!

Isillune bat, eta gero,

—Au dala-ta, gure etxaldea gainbeera ondatu da zaintzarik ezagaitik. Matxalen laztanak Aranegi'n orduka diardu bearrezkoena ekartearren. Inese'ren laguntzari esker, zeuri zeozer bialtzeko gai izan gara... Baiña ekiodan aititaren geisoaldiari. Osagilleak sarri askotan ikertzen baeban be, ez ekian zerez jota egoan. Nik uste, aren gatxik larriena, ituntasuna, billoba-miña izan da, zu urrun giltzapean izatea... Orain bost aste-edo, jausi zan zearo, lo-zorroan etenbarik irauten ebala. Eriotz-aurreko gabeen bere ondoan nen-goala, itxarturik onetaraxe asi zan didarrez:

—Jauna, Jauna... ekarri egizu Yon Ander etxera, Bordazuri'k etsi-etsian bear dau-ta...! Begira... eroan nagizu, Jauna; nire bizitza bere etortearren ordaiñez. Eroan nagizu, baiña aal ba'da il baiño len ikusi dagidala...! Gero, lo-zorroan jausi zan ostera be, eta egunsentia barik il zan. Zu ikusteko guraria ezin izan dau bete, baiña Jaunak etxera ekarri zaitu... Illerrian datza, zure aitaren ondoan...

Bularrean gora, negar-zotin jarkieziña begietaraiño etorkidan, eta amak ikusi ez egidan, etxetik urten nintzan.

Lekorean, oillo-saldo batek lurrean atzaparka ziarduan. Andik ez urrun, bigantxa argal bat alatzen zan, eta arago, Txeru'ren irudi geldia ikusi neban.

Arrapalda baten joan nintzakion. Ni ikustean burua jatorik, antxiña baten oi eban antzera, aboa edegi eban irribarretsua. Lepoa ta bekokia maite-maite laztandu neutsazan. Muñagorri gainetik ostentzeko zorian, eguzkia sartalderantz makurtzen zan, eta Txeru'ren begi gozoetan errubi antzeko txirlarri biziak jartzen ebazan. Aren burutzarra ene bularrean ipiñita, laztandu neban.

—Oroitzen al-az, Txeru...? —gozo ta astiro esan neutsan—. Eure antzera, berak bizitzarik onena gure etxeari opaldu eustan. Orain aitita ez yagok gure artean. Berak, euk eta irurok, errotea eraiki

gaienduan. Oroitzen ete az...? Berak itzi gaiozak naigabeak jota, baso-tantaiak tximistak jota antzera... Errotea be il yakuk, baiña ez... ez dok il... lotan yagok, eta egunen baten lengora biurtuko yoagu, Txeru maitia. Zaarra, zaarra be aurkitzen aut... Gomutaten az, ijito bateri erosi indugunean, eta zelan arek ostu induan...? Bayoagu oraindiño zeozer egiteko. Gero, ziñez yiñoat, Bordazuri'n ire azkenengo egunak bake betean iraungo yozak. Orain ator kortarra, berandu dok-eta...

Ez neban askan lotu gura. Aurrerantzean yareiu bizi izango litzake, eta begi andi gozoakaz agurtzen ninduala, eskaratzera sartu nintzan.

Illunabarrean, Matxalen eldu zan. Nire arrebearen edertasuna...! Alkar besarkatu genduan, eta berba laburrakaz nire azken gorabeerak azalduta gero, etxeko lanetan jardun eban, nire jantzitariko bat burdintzen eustala. Andik laster, burutik oiñetaraiño soiñeko barriaz jantzita, nire gelatik jatsi nintzan, espexetik ekarrita-ko aldagarri, jersei ta prakak sutara botaten nebazala. Asperen nasaigarriaz ikusi neban, zorriak eta guzti garrek irusten ebezala. Koko lepotarren buruaustea bein betiko amaitzen zan. Aurrerantzean ez neukez zorriarik ez imitxarrik ezagutuko.

Apalduta gero, autu bateri emon geutsan, guztitariko barriak jakiñerazoten eustezala. Ara non jakin neban, gure abadea izan zana, On Markel, erritik-at igorri izan ebela. Ezin egikeazan Jaungoikoaren izenean egiten ziran erailketak eta jazarpenak eroan, eta jaiegunetako meza nagusian, guztitariko basakerien aurka bere mintzo zangarra aditzen zan.

Igande baten mezatarra etorritako Aranegi'ko "azur baltz" batek entzun eutsan, eta onek urrengo egunean salatu eban. Andik egun batzutara, erritik-at bota eben. Zabaldia edur lodipean zetzan, baiña alan eta guzti be, edurra belaunetaraiño, zibillen artean, Arane-gi'ra joan bear izan eban. Egun aretan bertan, erri-berebillean Iruña'ra arreba baten etxera joan zan. Gotzaiñak dei eginda, salakuntzeagaitik gorriak esan eutsazan. Gure abadea baiña, ez zan kikildu, eta ebangelioak gaitzat artuta, bereak eta bost esan eutsazan. Ondoriotzat, iñongo parroki barik billakatu zan. Noizbait, illabete batzuk igarorik, Iruña inguruko lekaimetxe baten kapellautzat sartu zan. Kruzadako aldi garaitsuak ziran...

Gure errian, baiña, ez zan iñongo basakeririk jazo, eta erritarak bat eginda alkarri lagundu eutsoen, On Markel'ek itzez eta egitez erakutsiriko bideari jarraitzen eutsoela. Auxe, abade bateri egin daitekion goratzarrerik andiena da.

Pirmin, ostera, etxetik iges egin eban gau aretan bertan, Malenbaita'ko anai biakin mugarantz abiatu zan, eta urrengo gabean Benapar'era eldu ziran. Illabete batzuk igarorik, Pirmin Ameriketara joan zan, eta azkenengo barriek iñoenez, Arjentina'n aurkitzen zan. Malenbaita'koek Prantzia'n baserriko jardunai ekiten eutsien.

Eta era onetan ezagunen albisteak emoten eustezala, apalostea igaro zan. Egun aretako zauskadakaitik ama oso nekatuta aurkitzen zan ezkerro, besarkada estu luzea emon eustan, eta Matxalen'eri oiko apa-laztana egiñik, zurubian gora lo-gelara joan zan.

Sutondoan, Matxalen eta biok geratu gintzazan bakarrik. Nire arrebearen soak sutondoko garretan untzatuta egozan, eta aita zana-ren begi sakon ameskorrak barriro ikusten iruditu yatan. Orain, baiña, Matxalen'en begi yaukalek kezka baten aztarna iragarten eben, baiña bere gogoeta-aria eten egiten ez nintzan azartzen. Alako baten,

—Aiko Yon Ander —aurpegia niganantz zuzenduta abots ezipait-suz esan eustan—, gauza bat esan gura yauat..

—Bai, Matxalen, esan...

—Ara ba... aspalditik, betidanik, Jaunaren deia gero ta argiago somatzen yoat. Misiolariñe izan gura ñeukek... begiraik, aspaldi onetan Iruña'ko lekaima batzukin artu-emonetan asia nok, eta gerturik yagozak ni onartzeko, baiña...

—Zer, baiña, Matxalen...?

—Begiraik... Bordazuri yagokan kinka larrian ez yoat uste ego-ki izango dokala alde egitea, baiña egunen baten gauzak euren lengora biurtuko ba'litzozak, itziko nindukek lekaima sartzen...?

Nire arrebeari ederrespenez begiratu neutsan. Etxekoen on-izatea bere zorionaren aurretik ipinten eban, eta gaiñera, adiñekoa izanik bere naia bete aal izateko, baimena eskatzen eustan...!

—Matxalen —erantzun neutsan—, joan aiteke nai donanean, etxekoan alde naikoa egin don-eta ire joatea geroratzeko...

—Baiña, Yon Ander —eten egin eustan—, zelan zuek itzi, zagozen bearrizan gorrian...? .

—Ez larritu, Matxalen. Zelan edo alan onik urtengo gozan. Neu beintzat adorez beterik naiagon, eta gaiñera, iru urteko oporraldia izanda gero —irribarrez esan neutsan—, lanari eusteko irrikan non. Bestaldetik, ire otoitzek lagunduko yauskuen. Olan ba, sartu aiteke ire aukeran. Itzi ezan etxeko arazoa niretzat.

Matxalen'ek begi dizdikorrakaz begiratu ninduan, eta,

—Yon Ander, eu bai emonkorra...!

—Aino, Matxalen —erantzun neutsan—, noiz don lekaimetxean sartzeko garaia...?

—Garagarrilla'n.

—Orduan, orain jarduten yonan etxekoai illabete bateko epea emon eien beste bat aurkitu yaienan, eta gero atondu ein ire arrioa Garagarrilla'n lekaimetxean sartzeko.

Aurpegi dizdiratsua, Matxalen'ek auxe esan eustan:

—Yon Ander, jakingo ba'eu zein zoriontsua sentitzen nokan...!

Besarkada bat emon eustan, eta gabeko bakean bere zorion-amesak ausnartzeko, urrean, gelara igon zan.

Sutondo isillean bakarrik geratu nintzan. Matxalen'en erabagiak poz bakanaz beteten ninduan. Berak aututako Nagusiak, ez leuskio utsik egingo. Dei goitar batek aukeratua zan, eta beso zabalik erraikion, erakarpen lilluragarriari bere burua ukatuz. Matxalen'en zoriona...!

Neuk be, dei indartsua etenbarik sentitzen neban. Begi andi, ameskor, edarren urrutiko erakarpena, eta aregana nire izate guztia joian, itsu batek argia irrikatzen dauan antzera. Non egoan, baiña, Mimiñe, begi yaukal arein jaubeiñoa...? Urte asko igaro izan arren, Bordazuri ta onen aldamenak aren lilluraz beterik egozan, eta zerbaitek iñostan ez neukela bakea aurkituko, Indabaita'ko umezurtza idoro arte.

Gau aretan, antxiñako nire oe gozoan nentzala, ezin nengikean lorik egin. Leio edegian zear, iretargiaren mosu bigun, urrundariak, soruko olak argi otzaz musukatzen ebazan. Nonbait, begi gaztaintaren argi epelak laztantzen ninduala iruditu yatan.

Lo egin eziñik, untzaz besarkaturiko leiora urreratu nintzan, eta leio-barrenean besoak kokatuta, gabaren lillura nintzaz jabetu zan. BEEAN, Anux-atetik etozan latsaren un garbiak zidarrezko zoz-paletan ñir-ñir, Yandur-erreak'ren deiak erakarrita, aldatz beera amiltzen ziran. Orduan nire buruari zin egin neutsan, Mimiñe'ren betsein sakon, laztangarrietan nire maitasun-egarria itzungi arte ez nintzakela geldituko.

## ARGI TA ITZALAK

Urrengo egunean jagi baiño ez, lanari ekin neutsan. Bazan, zeri eldu...! Nire lenengo arloa etxe-osteko baratza atontzea izan zan, dana bedar ziztriñakaz estalduta egoan-eta. Orretarako, Txeru goldetxura buztartu neban, eta goitik asita, alde batetik besteraiño jardun neban. Bordazuri'ko lurak azkorak ziran ezker, gure Txeru bazan nor goldetxua erabilteko, eta olan astiro baiña etenbarik, arloa amaitu genduan illuntzean.

Biaramonean, koraiña erabilliz bedar-ebateari emon neutsan. Urteko azken bedar-uzta zan, udagoia laster asteko zan-eta. Arlo andia izanik, egun oso bi bear izan nebazan ebatea burutzeko. Eguraldia bero ta eguzkitsua zan ezker, bedarra zabaldu neban ondu zeiten, olan, bigantxa ta Txeru'rentzat jatekoa ziurtatzearen.

Etxean gauza asko bear izaten zan, eta dirurik ez. Amaren burubideari jarraituz, Amilaz'era abiatu nintzan, eta nire ezkonanaiari, Iñese'ren senarrari, mailegu bat eskatu neutsan, eta beste barik baietz esan eustan. Agur egin neutsanean,

—Aiko, Yon Ander —arraiki esan eustan—, geiago bear izatekotan, ator barriro. Ez adi larritu dirua atzera emoteko. Jaungoikoari esker, gauzak polito samar yabildazak-eta.

Urrengo egunean, larunbata izanik, Txeru orgatxuari buztartuta, Aranegi'ko azokara joan nintzan, eta porru, aza ta azaloratan landare ugari erosi neban, baita txarritxu bat eta etxerako bearrezkoak ziran gauzak, au da, olak, teillak, karea ta abar.

Astirik galtzeke, landarak sartu nebazan, urrengo neguan Aranegi'ko azokan saltzeko. Orduko be, Indusi'ko gaztaiñakaz txarria gizenduko zan, eta etxerako ilgo genduke.

Egun batzuk bear izan nebazan, etxeak jasandako kalteak atontzeko, zurerian eta teillatuan batez be. Lan geroratu-ezin orreik amaituta, etxe guztia barrutik eta kanpotik kareaz zuriztatu neban, eta zeregiña burututa, Irailla'ko eguzkipean, Bordazuri aparrezko amesa zirudian Naparra'ko txokorik ederrenean kokatuta. Baiña...

Baiña benetako Bordazuri izateko, errotearen burrunba nasagarria entzun bear zan, gure etxeari bakea ta on-izatea lekarkioken eresi pozgarria.

Etxetik alde egin nebanetik, gure sendiak egindako pekatuen zigortzat, errotea itxita, sillututa egoan, ez erabilteko agindu zorrotzaz. Lau urte areitan, ez zan iñor barruratu, eta estalpea, utzikiña biurtzeko zorian, geldi ta isillik zetzan. Ni, baiña, ez nintzan artaratzen...

Atea sillututa aurkitzen zan, baiña alde bateko leioak ez eban sillurik erakusten. Bein baten, burdiñezko aga baten bidez leioa txitximurrean edegi neban, eta argizagiaren dizdira ustiatuz, barruko guztia arakatu neban. Ezotasun usaiña guztiari erion; soruko olak ustelduta egozan, teillatua erdi-jausita ikusten zan, errotarriai oreiña erasten yaken, eta amaraunak edatzen ziran. Zurubian beera arduraz jatsi nintzan, mailladi ustela nire oinpetan noiz apurtuko litzakearen bildurrez. Noizbait, turturikoi-gelan aurkitu nintzan. Ugerra danaz jabetu izan zan emen. Ardatz nagusia ta turtukoia-  
ren maskorak azal gorritzapean agertzen ziran, eta odimuturreko txaramilla ugerraz josita egoan. Izan be, errotea kinka larrian aurkitzen zan, eta abiadan ipinteko, amaika neke jasan bear... baiña txarrena, lan egiteko debekua zan.

Urten nintzanean, otzez dardar nengoan, lekorean eguraldi berotsua bazan be. Soiñean otza, eta arima-barruan naigabea sentitzen neban nire errota maitia egoera onetan ikustean. Gaiñera, etxekoen on-izaterako bear-bearrezkoa zan errotearen erabiltea.

Gau aretan, buruan errotearen arazoa nerabillela, loa igesi yabildan, eta noizbait, lo urduria nitzaz jabetu zan. Alako baten, amestxarren artetik argi antzeko zerbaitek iratzarri ninduan, eta

izerdi patsetan oean jesarrita aurkitu nintzan. Bai, zergaitik ez lenagõ bururatu...? Axe zan izan be, biderik izatekotan, urteera bakarra, eta auzia buruan nerabillela, egunsentia egin zan.

Gosaldu bitartean, amari azaldu neutsan burutapena, eta bere baietza entzunda, beste barik Amilaz'era abiatu, eta andik ordu betera-edo, Arribaita'ko ate ederrean jo egin neban. Gora igoteko esan eusten, eta luzaro barik Xabier berbera agertu yatan auxe ziraustala:

—Bordazuri...!

—Xabier...!

Alkar besarkatuko genduan, eta,

—Aiko, Xabier —esan neutsan—, nire alde egindakoagaitik zor andia yauat irekiko. Euk bialduriko agirari esker, bizirik naiagok...

—Baita neuk be bizitza zor yauat, beraz oneri buruz ez mintzatu. Zerk akar gaur nire baitara...?

—Xabier, Bordazuri'ko erroreak eugana ñakark...

Jarraian, errotearen erabilte-debekua zala-ta, jakitun ipiñi neban, eta guretzat eusgarri nagusia izanik, zein garrantzitsua zan are erabiltea. Oneik eta beste zeatzak azaldu ostean, onetaraxe amaitu neban:

—Dana gure aurka yagok orain, Xabier. Ez yoat ezagutzen iñor guri laguntzeko gerturik yagokanik...

—Orduan, zergaitik ator neugana...? —irribarrez esan eutsan.

—I ez az besteak lez, Xabier. Ainbeste gaiztakeri ta arrokeri artean ire arimeak garbi yirauk, eta beste alderdikoa izanik be, zuzentzat eta adiskidetzat aut. Gure alde zeozer egin aal izango ba'eu...!

Une batez isillik iraun eban, eta gero,

—Aiko, Yon Ander —esan eustan—, nik bayaukat eragintza apur bat karlatarren artean, eta ziñez yiñoat, ire arazoaren alde aaleginduko nokala. Etzi Iruña'ra joan bearrean nok, eta aalmen andia yokan ezagun bat ikertuko yoat.

Zarrastada andipean tartailloka asi nintzan, zelan eskertu ez nekian-eta, baiña Xabier'ek onetaraxe eten egin eustan:

—Yon Ander, ez niri eskerrik emon, ori ta geiago zor yauat-eta. Agur eta biotz on, Bordazuri...! Bayakik Arribaita'ko atepak iretzat beti zabalik yagozakala...

Agurtzat alkar besarkatu genduan, eta abiatzeko zorian nintzala,

—Aiko —iraütsi eustan—, iñork ikusi barik eta isillean, errotearen atontzeari ekin egiok...!

Itxaropenaz gainezka etxera biurtu nintzan. Bidetik niñoala, aalik ariñen errotearen egokitzeari emon bear izango neuskiola buruan nerabillen. Izan be, Irailla zan jadanik, eta Yandur-arana'n arto-soloek uzta joria iragarten eben. Eguraldia orren eguzkitsua jarraitzekotan, artoa laster elduko litzake. Eio-aroa beraz, laster ateko zan.

Nire barriak jakitean, amaren aurpegia argitu zan, auxe ziraustala:

—Oi, Yon Ander, errotearena egi biurtuko ba'litz...!

Astirik galtzeke lanari emon neutsan, guztitariko lanabesak erabillirik. Errotarriak garbituta, turtukoiaeren egokitzeari emon neutsan, banan-banan maskorretan eratsitako ugerra kenduz. Maskor asko ziran, baiña eroopen andiz garbialdia lixaketa zeatzaz amaituta, koillararak baizen dizdiratsuak azaldu ziran. Gero, ardatzari txandea etorri yakon, eta azkenean txaramillari. Emen, nireak eta bost aalegindu banintzan be, ezin izan neban txaramilla lazotu. Lau urtetan bildutako ugerra kendu neutsan, baiña biurrikoak ez eban birarik egin gura. Burdiñezko aga andia erabilli arren, txaramil madarikatuak igige zirauan, eta biurrikoaren txirindolea apurtu zeitenaren bildurrez, ekinbide oneri uko egin bear izan neutsan. Biurriko-barrukaldea zuloaz gorputz bat egiña zan, eta loturea lazotu arte, ez egoan erabilerik. Koipe ta orioz saiatu nintzan, baiña dana alperrik. Orduan, txaramilla kanpotik egurrezko ikatzaz berotu neban, eta tinkaturiko zatiari zur-maillu andiz jo ta jo asi nintzakion. Ziur nintzan au bide bakarra zala, Noizbait, ordu batzuk igarorik, txirindoleak bira egiñik, txaramilla zabaltzen asi zan...! Errotea eioteko gerturik egoan, baiña lan egiteko baimenik oraindiño ez...

Arribaita'ra barriro joateko oldozkuna buruan nerabillela, ara non arrtsalde baten, Xabier gurera etorri zan, eskuan agiri bat ekarrela. Iruña'tiko baimena zan...! Ez nekian zelan eskertu Xabier'eri, baiña amak etxeko onenaz askari gozoa atondu euskun, eta aldarerik onenean errotearen birrerabiltea ospatu genduan, amak Xabier biotzez bedeinkatzen ebal.

Oraindiño, baiña, estalpeko teillatua, soruko olak, eta otabaltzak barritu bear ziran. Adorez jabetuta lanari emon neutsan, eta andik amar egunera errotea lanean ateko gerturik egoan. Jarraian. Yandur-arana'ko errietan, eta Aranegi'ko inguruetan, Bordazuri'ko errotea barriro edegitzen zanaren barria zabaldu neban.

Urrilla'ko egun eguzkitsu baten, txaramillari eragin neutsan, eta urak turtukoiaeren maskorretan joteti asi ziran gero ta indartsuago. Noizbait, kirrinka bat aditurik, turtukoia bira egiten asi zan, oiko arintasuna jaritsi arte. Uren palastaka ta igikunaren burrunbea, eresirik ederrena azaldu yatan. Gero, gora joanda, otabaltzatik zuloan zear arto-garauak ostentzen asi ziran, urrezko ari bizia eratuz, beeko otabaltza urunaz beteten zala. Lau urteko geldiene ostein, Bordazuri'ra eldutako lenengo gurdikadearen eioketea zan.

Barriro be, Yandur-zubia'n beera arto-alez zamaturiko gurdiak idien ibilte nagiaz Bordazuri'ra abiatzen ziran, eta biurtzean, urun usaintsuz gainezka, itzaien didarrak, bidea margo ta bizitasunaz beteten eban.

Gabari asperen illunak eriozala, errotako burrunba gozoak Bordazuri'ko arima bizia bai'litzan, nire itxaropenak laztantzen ebazan.

Gabonilla'n, Txeru'ren laguntzaz Aranegi'ko azokan ortuariak saltzen asi nintzan obari onaz, eta urtea amaitu barik, Indusi'ko gaztaiñakaz lodituriko txarria il genduan etxerako. Baiña sarrera nagusia errotearen etekiña zan, eta egubarria asi zaneko, egindako zor guztiak garbitu aal izan nebazan.

## BIDEKO ZOROA

Epaila'n, negu-amaieraz, udabariaren zantzuak agertu ziran, eta aspaldiz artutako asmoa egi biurtzeko garaia zala erabagi neban, ots, Iñaki'ren ama ikertzeko eretia. Orduko, errotearen etekiñak Aranegi'ko kontu agirian kopuru polita erakusten eban. Diruketa bat artuta, nire bidaiaren zergaitia amari azaldu neutsan. Au, one-taraxe mintzatu yatan:

—Bai, seme, zoaz lenbailen, eta ama gaixo orreri lagundu egiozu aal dagizun neurrian, eta esaiozu... esaiozu biotzak eragin dagitsuna aren naigabea arintzeko. Nire otoitzek lagunduko dautsue.

Erri-berebilla artuta, Leitze'n zear Tolosa'ra eldu nintzan, eta arratsaldeko lenengo orduetan, Iñaki'ren erriakara abiatu nintzan. Eldu nintzanean, abadenera jo neban, eta andik laster abade gazte baten aurrean aurkitu nintzan. Oso begikoa gertatu yatan, eta nor nintzan azaldu baiño ez, auxe irautsi eustan:

—Orduan, zu Yon Ander zaitut. Zure idazkia artu neban Iñaki'ren eriotza jakiñerazoz, baiña bere amari ez neutsan ezer esan.

Nire aurpegian arritasun-keiñua irakurri eban, aurki, eta,

—Ez, ez neutsan esan semea il izan yakola —jarraitu eban—, gaixoa burutik zearo eginda dagolako. Bai, lau urte dira zorotu dala, semea gudara joan zanetik, alegia. Erritik bere baserrira daroan bideko gurutzean jarrita, bidari guztiai semearen barriak eskatzen dautsez, eta erantzunik izan ezean, zugaitz, lore, bide, bedar eta



aizeari, semearen barriak eskatzen dautsez, aize-suzmurretan joandako semearen abotsa entzuten daula antz emoten dautso-ta. Yon Ander, ez kendu ama orren ames zoroa... Esaiozu nai dagizuna, baiña ez il gaixo orren itxaropena. Bere semea nonbait bizirik dago ta laster etxerako bidean agertuko dalakoan, zoribakoa bere munduan bizi da. Izan be, aren zorotasunak semearen eriotza garaitzen dau.

—Eta zelan konpontzen da gaixo ori...?

—Erri guztiak babesten dau. Asikereatik, erritarrek ez eben gura izan, zoroetxe batera joan zeiten, eta danen artean laguntzen dautsoe. Orain —esan eustan leioan zear etxe bat erakutsiz—, orko etxekoen zaintzapean dago. Or janaritzen dabe, eta gela bat bere aukeran dau lo egiteko. Zoro apala ta esanekoa dan ezker, ez dau buruausterik emoten. Gaixoa...!

Urten nintzan, eta aren argibideak ustiatuz, luzaro barik azaldutako bide-gurutzean idoro neban. Baltzez jantzita, eta sapa luzeak aidean oskatuz, arri baten gainean jesarrita egoan. Ikusi ninduean, jagi zan, eta nigana urreraturik, begi urtenak neuretan tinkatuta, auxe irautsi eustan:

—Ikusi ete dozu, Iñaki, nire semea...?

—Bai Andrea, etxerako bidean da. Atzo bertan neronek ikusi neban, eta berak arazo batzuk garbitu bearrean zala-ta, egun gitxi barruan emen izango dozula, esan eustan.

Min egiteraiño nire beso bateri eldu eustan, eta aurpegia dizdiratzen yakola, auxe oiukatu eustan:

—Banekian, banekian gaur barri onak artuko neukezala...! Begira, bart apalostean, gau-tximeleta bat argi-inguruan biraka ikusi neban, eta orrek biaramonean albisteak izango dirala esan gura dau...

—Andrea —eten egin neustan—, zure semea etxerako dan ezker, goazen errira. Oztuten eta illuntzen asi da, goazen etxera.

Nire besoari oratuta errira bideratu gintzazan. Eguzkia Ernio atzetik ostendua zan, eta aizea bare-bare egoan. Bidean beera giñoazala eta berak etenbarik berbetan ziarduala, aukera betea izan neban begiztatzeko. Iñaki'ren aurpegi berbera eban, orain zimel eta

zimurtsua bazan be. Gaztaroen emakume eder-ederra izango zan, orain urteen bidean eta nekeen zear irudi txairoa makurtu izan bayakon be. Ez eustan, antza, ardura andirik billoen orrazketeari emoten, eta sapa errautsuak aurpegiaren inguruan jausten yakozan. Begi urten sarkorrak ebazan, semearekiko ikus-miñak zorroztuak, aurki. Errira urreratzen gintzazala, onetaraxe ziarduan:

—Iñaki bai mutil ederra ta garaia...! Zu baizen andia edo areago. Begira, bein baten auxe esan eustan “Ama, banoa ortik egun batzuk emoteko, jende txarra sartu yaku-ta. Baiña ez ardurarik izan, illabete bi edo iruren buruan, emen izango nozu barriro”. Ez al-deritxazu, mutil, illabete orreik igaro diranik...?

—Bai, etxekoandrea, gauzak geuk uste baiño luzeagoak billakatu dira, baiña orain gudea amaituta, laster izango dozu etxean.

Begiratu eustan maitekiro, eta irribarretsu,

—Aizu, mutil —esan eustan—, jendeak ez daust jaramon andirik egiten, baiña lorek, zugaitzek, odeiek-eta, bai jaramon egiten daustela...! Aizeak batez be, zugaitzen adaburuen artean igarotean, auxe diraust: “Badator zu besarkatzeko, itxaron apur baten”. Auxe entzuten dot egunoro, eta egia da. Ez al-deritxazu olan...?

—Bai, Andrea.

—Begira, mutil, bein baten....

Eta autu onetan bera zaintzen eben etxera eldu gintzazan. Etxekoak agurtuta gero, mai-inguruan jesarri gintzazan, eta Iñaki'rekin izandako gorabeera batzuk edesten nebazala, oera joateko ordua etorri yakun.

Urrengo egunean, gosaria artuta gero, Iñaki'ren amari auxe esan neustan:

—Begira, Andrea, Iñaki'k zuretzat emoniko janzki bat Tolosa'n itzi neban, eta orain banoatzu soiñeko orren billa. Bazkaria baiño len emen izango naz.

Joan nintzan ba, eta Tolosa'ko denda dotore baten, janzki baltz ederra erosi neban, eta estalki politan bilduta, biurtu nintzan. Eldu nintzanean, auxe esan neustan:

—Ona emen, Iñaki'k bialtzen dautsun soiñekoa. Berak agindu eustan egunoro jantzi dagizun. Orain beste zer bat: emen laster izango dan ezker, zure billook ondo orraztu bear dozuz, etorri dakizunean, ezagutu zagizan.

—Bai, mutil, olantxe egingo dot.

Arratsaldean, bera ta biok oiko bide-gurutzean eban ikustokira joan gintzazan, eta gudako gure gorabeerak edesten neutsazala, aldia emon genduan. Begiak zorionez dizdiratzen yakozan, eta soiñeko barriaz eta billook ondo orraztuta, aurregunean baiño gazteagoa emoten eban.

Illuntzean errira abiatu gintzazan. Lotara joan baiño len, azken agurra esa neutsan, urrengo egunean goizetik etxerako izango nintzake-ta. Besarkatu ninduan auxe ziraustala:

—Zoriona ekarri daustazu, mutil. Orain nire semearen etorre-rea ez dot orrenbeste berantetsiko, etxerako bidean dagola badakit-eta. Aizu, Iñaki datorrenean, zatoz zeu be gurekin bizi izateko. Agur, Yon Ander, nire mutil ori...

Urrengo egunean etxera biurtu baiño len, abadenera joan nintzan, eta diruketa bat emon neutsan abade gazteari, auxe nirautsala:

—Au, Irupe zaintzeko da. Ez dot gura ezelan be, ezeren uts bizi izan daitela, eta amaitu aurretik esan egistazu, geiago bialdu dagitsudan. Arren, zaindu egizu emakume ori zure ama bai'litzan...!

—Diru au, baiña, larregi da. Erdiaz naikorik litzake...

—Gorde egizu badaezpadakoan, ezuste bat etorri daiteke-ta. Orain beste gauza bat: emakume ori geisotuko ba'litz, jakiñerazo egistazu...

—Ori ez da arritzeko gauza izango. Zelan bizi daiteken erriko osagilleak ez dau ulertzen, biotza guztiz makala dau-ta. Aren eritxiz, mirari batez zutunik dirau. Dana-dala, ez larritu. Zeozer gertatze-kotan jakiñerazoko dautsut.

Bostekoa alkarri emon geutsan, eta etxera itzuli nintzan. Sirimiri batek zabaldian margo ituna jarten eban arrats-beerako garaian Bordazuri'ra eldu nintzanean.

Abade gaztearen suzmo illunak luzaro barik bete ziran. Andik aste batzutara, eta udabarriko orrazi orlegiak zabaldia edertzen ebal, Iñaki'ren ama txarto egoalaren mezua etorri yatan. Egun aretan bertan egiteko guztiak itzita, Tolosa'ra gabaz eldu nintzan, eta urrengo egunean goizetik, Ernio-aldeko errixkan aurkitu nintzan.

Astirik galtzeke, Irupe bizi zan etxera joan nintzan. Etxekoan-dreak ikusi ninduan, negar baten auxe esan eustan:

—Berandu zatoz, gazte, atzo arrastian Irupe gaixoa itzaldi da. Il baiño len, Iñaki'ren adiskidea noiz etorriko litzaken itaundu euskun. Aspaldi onetan bere semeaz gaiñera zutaz be mintzatzen zan. Badakizu biotzetik oso txarto ebillela gaixoa. Il baiño len, semea agertu izan bai'litzakion, besoak utsean luzatu ebazan aren izena aldarrikatuz. Nai al-do zu ikusi...?

Irupe egoan gelara lagundu eustan. An zetzan Bideko Zoro maitia begiak itxirik eta aurpegi irribarretsua goizeko argiaz edertu-ta. Tolosa'tik nik ekarrirako soiñeko baltzaz jantzita eta billo urdi-ñak ondo orraztuta, iñoizkorik gazteen eta ederren zirudian. Olan nengoala, zirrara batek astindu ninduan, iruditzen baiyatan Iñaki berbera espetxean ilda nenkusala...! Malkoai eutsi eziñik, bide-zorrotik Iñaki'k odolduriko nire arkondarea atara neban, eta buru-kotzat ipiñi neutsan. Urrundik bai'litzan, etxekoandreaen mintzoa eldu yatan auxe ziraustala:

—Aspaldion iñoizkorik zoriontsuen emoten eban, semea laster etorriko litzakiola esaten ebal. Baiña egitan, bera da semeagana joan yakuna. Egunoro, pozez gaiñezka soiñeko barriaz jazten zan, eta gero ondo orraztuta, bide-gurutzera joian, semearen begira jarraitzeko. Ortzia, zugaitzak, lorak, txoriak eta aizearekin berba egiten eban, eta gaur oneik guztiok jai-janzkiz apaindu dira, Bideko gure Zoro laztanari azken agurra emotearren...

Egia zan. Bazirudian, udabarriko egun zoragarripean, izadi guztia olerki biurtu izan zala, eta Jaunari eskertu neutsan orren yaukal ama gaisoaren illetak edertu gura izateagaitik.

Urrengo goizean elizkizunak ospatu ziran. Eleizea mukurru bete egoan, erritarrek Bideko Zoroa maite-maite eben-eta. Abade gazteak doluko aulkiaren buruan jarri ninduan, Irupe'ren semea bai'nintzan, eta izan be, Iñaki anaitzat izan neban beti. Mezea

irauten ebala, nire gogoetak alderrai joiazan, Iñaki'rekin bizi izandako gora-beera aztueziñak oroimenera ekarkidazala. Jaunartzean, jabetzen ninduan oiñazearen artean, zorion antzeko sentipen batek, ama ta semea noizbait alkartu izan zirala iñostan, eta alkarri besar-kada andia emoten eutsoela.

Eguzkia Ernio atzetik makurtzen zanean, lurperatu izan zan. Bide-ertzean arturiko loratxu polita, il-kutxaren gaiñean nire azken agurra bai'litzan bota neban. Gero, bide-gurutzera joan nintzan, eta ango isillean, bakarrik, illundu arte iraun neban.

Gau aretan Abadenean lo egin neban, eta urrengo egunean goizetik, Bordazuri'ra biurtu nintzan. Zabaldian, urrezko eresiaz udabarriak orori irribarre egiten eutsan, baiña biotz-barruan negua neroian...

## GOIZALDEA

Bagilla'n, Matxalen'eri bere ames bizia beteteko garaia eldu yakon. Orduko, arrioa gerturik egoan, eta goiz eguzkitsu baten Txeru'ren orgatxuan ipiñita, ama, Matxalen eta irurok Aranegi'ra bideratu gintzazan, eta emendik erri-berebillean Iruña'ra elduta, jatetxe baten bazkaldu ostean, lekaimetxera zuzendu gintzazan. Ez genduan berba egiteko gurari andirik. Amak isillean isuritako mal-koren bat txukatzen eban, eta nire barruan sentitzen neban kadenari aurre egin eziñik, eztarrian korapillo bat eratu izan yatan. Matxalen'ek, ostera, isillik bazirauan be, begietan alako argi zoriontsua erakusten eban. Ain luzaro ames egindako une gorenaren poztasuna.

Eta olan, bakotxak bere sentipenak ausnartuz, lekaimetxera eldu gintzazan. Burdiñezko atetzarra zabaldu zan, eta ate-zubipean agerturiko lekaime batek auxe esan euskun:

—Ongi etorriak Jaunaren etxe onetara.

Jarraian, Matxalen besarkaturik ama ta biok agurtu ginduzan. Ez genduan gauza andirik alkarri esateko, jadanik guztia esana zan-eta. Matxalen'ek maitasun biziak ama besarkatu eban, eta,

—Agur ama —esan eutsan irribarrez—. Nire alde egin dozuna Jaungoikoak bateko eunaz ordainduko dautsu. Ez negarrik egin, zoriontsua naz-eta.

Gero, nigana biurturik besarkatu ninduan.

—Yon Ander —abopean irautsi eustan—, ez geiegi larritu. Egunoro<sup>o</sup> otoitz agingo yoat Mimiñe aurkitu yaian...

Illabete batzuk lenago, Matxalen eta biok etxeko sutondoan gengoan. Neguko arratsalde aretan nire arrebeak arrioa atontzen ziarduan, eta oi lez, neugan Mimiñe'ren gomutea egoan. Barruko bultz batek, nire ezkutua Matxalen'eri azaltzea eragiten ninduan, eta bultz areri aurre egin eziñik, Matxalen'eri Mimiñe'ganako nire maitasuna azaldu neutsan.

Augaitik, orain, nigandik agurtzean adorea emon gura izaten eustan.

Gero, burdiñezko ate andia itxi zan, eta aurpegia nire bularean jarrita, amak negarrari emon eutsan, ni aal neban giñoan aren oiñazea arintzearren saiatsen nintzala.

Illuntzean, biok isillik etxera biurtu gintzazan. Aranegi'tik Bordazuri'ra giñoazala, gero ta argiago egun aretako alde bat ikusten neban, eta orduan,

—Aizu, ama —esan neutsan leunkiro—, bai al-dakizu gauza bat...? biok itun aurkitzen gara, baiña, benetan, gaur poztasun-eguna da. Matxalen'ena ezkontzaren antzekoa da, Jauna senartzat artu daualako. Onek ez dautso iñoiz utsik egingo, eta Matxalen'ek Jaunaren alde bere buruari ukatuz, egizko zoriona aurkitu dau. Ez negarrik egin, ama...!

Malkoen artean irribarre egin eustan, auxe ziraustala:

—Zuzen zagoz, seme, aingeruak Jaunarentzat dira.

Matxalen barik, egunak oi baiño astiroago, itunagoak, alkarri erraikioen, ama ta biok betiko lanetan giarduala. Ostera be, udagoian eioaldia asi zan, etenbarik errotearen burrunba nasaigarria aditzen zala, eta igarri barik, negua aurkeztu yakun Mimiñe'ganako nire guraria bete eziñik.

Erriko lagunekin ez neban poztasunik aurkitzen, eta jaiegune-tako arratsaldetan adiskideak ozta-ozta agurturik, etxera biurtzen nintzan Bordazuri'ko bakean Mimiñe'ren oroitza burutik kendu eziñik.

Bein baten, etxeko lanak amaituta, sutondoan jesarrita isillik nengoala, amak auxe irautsi eustan:

—Yon Ander, etxera etorri zintzazanetik adore barik ikusten zaitut, zer dala-ta seme...? Garaia da neskekin artu-emonak izan dagizuzan, dagokizuna idoro arte. Begira... amaika neska polit eta maratz badagoz bazterretan, Bordazuri'ra pozik ezkonduko litzakezanak. Bakartasun osoan bizi zara, bizitzak zuretzat erakarpenik ez bai'leuan. Aizu, seme, Bordazuri etxe otz, isilla, abi utsa lakoa biurtzen ari da. Bizitzaren onenean zagoz, eta bear dozun emaztea orain billatzen ez ba'dozu, negua Bordazuri'tzaz betiko jabetuko da. Egunen baten zure aitarekin batuko naz, eta orduan zer egingo dozu emen, bakarrik, danek aztuta, amaibako itzaletan murgilduta...? Ez dakit zer deritxazun orreri, baiña neuk ezin dot eroan...

Amaren begi neketsuetan malkoen aztarnak agiri ziran. Ezin nengikean olan ikusi, eta orduan arima-barrutik, auxe iges egin yatan:

—Ama, neska bat maite dot maite, nire bizitza baiño areago maite be...!

—Zergaitik ez ekarri Bordazuri'ra ba...?

—Ez dakit non dagoan, baiña. Maite dot oroz gainetik, itsu batek argia aiña, edo-ta negu ostean txoriak eguzkiaren latanak antzera. Aren deia urrundik sentitzen dot; gabez ames dagit agertu egiten yatala, eta besoak beraganantz luzatzen dodazanean utsean ostentzen yat, dardar eta joran zoroakaz izten nauala. Gogoaz noiznai eta nonai ikusten dot; nirekin beti daroat zorion-ames oratueziña bai'litzan. Espetxeko gau luzeetan izugarrero pairatzen nebala, ezustean urreratzen yatan, eta begi luze, urratu, ederrak neuretan jarrita, arimea lastantzen eustan, eta beeko lokatzetik zeruraino nindaroan... Berak zortasunetik atara ninduan, eta aldi aretan dei egiten neutsan antzera, orain be, etenbarik arrenka nabilkio, eta nonbaitik bere olesak datorkidazala iruditzen yat. Ai ene... non dagoan jakingo ba'neu...!

—Nor da bera...?

—Gomutaten al-dozu, ama, Mimiñe, Indabaita'ko umezurtza...?

—Ez naz oroituko ba...? Neskato zoragarria zan, gozo ta apala.

Zelan maite dozu ba, umea baiño ez zala emendik joan zan-eta...?  
Zelan daiteke ori, seme...?

—Ez dakit, baiña gau baten Dueso'ko espetxean amestxarpean nengoala, bera agertu yatan, eta aren begi bardinbageak ikusi nebazanean, Mimiñe bera neska ederra biurtuuta ezagutu neban. Orduan, beti maite izan nebala oartu nintzan. Bai, txingarrak errautspean lez, nire baitan beti iraun dau bizirik. Ama, zoro biurtzeko zorian aurkitzen nintzan, eta amesetan agertu yatanetik, barruko dendu ta bakea idoro nebazan. Bera baiño beste emakumerik ez dot maite izango, ez naz beste iñorekin ezkonduko...

—Orduan, aren billa asi zaitetz.

—Nondik, baiña, zein lekutan dagoan ez dakit-eta...?

—Begira, Yon Ander, Mimiñe ta bere ama Arandibar'tik joan ziranean, Donostia'ra joiazalaren zurrumurrua zabaldu zan. Asi zaitetz ortik...

Urrengo egunean Donostia'ra joan nintzan, eta eguberdian elduta, bazkalostean beste barik, Mimiñe'ren billa asi nintzan, urrutizkiñaren zerrendean bere aita zanaren abizenak aztertzen nebazala. Gero, etxerik-etxe ate-joka joan, baiña dana alperrik. Dendeta-ko leiarren zear barrurantz begiratzen neban, ia an ikusiko ete neuken, baiña ezer ez.

Amar egun geroago, soiñez eta arimaz apurtuta, etxera biurtuu nintzan itzul-biderik samiñena gertatzen yatala. Lur-jota, amari nire ibillaldiaren gora-beerak emon neutsazan. Bera ni nasaitzen aalegindu zan, baiña alperrik. Barrutik ar bat yabildan...

—Ama, nik uste, egindako obenaren zigorra da. Il baiño len, Indabaita'koak zaindu nengiazala agindu eustan aitak...

—Zergaitik, baiña...?

Orduan, Mimiñe'ren aita zergaitik eta norgaitik il izan zan jakitun ipiñi neban, onetaraxe amaituz:

—Bai, lagundu nengielā eskatu eustan, eta nik luzaro barik aztu egin, nire itza jaten nebala...

—Baiña, seme, aldi aretan guztiz ezeukiak gintzazan, eta zu

mutikoa izan arren, gizon baten kemenaz aalegindu zintzazan, eta Bordazuri onik atara zenduan. Ez larritu, Yon Ander...!

—Bai, baiña Indabaita'koak aztu nebazan, eta Mimiñe galdu egin dot...! Bera barik, zertarako Bordazuri...?

Nire kezkek arintzen aalegindu zan ama, baiña ez neban baretasunik aurkitzen. Zapaltzen ninduan arrenkura uxatzeko, aspaldi aretan lanean jardun neban buru-belarri.

Udabarria igarorik, Garragarrilla'ren azkenean, aitarien bigarren eriotz-urteurrena etorri zan. Aurreko urtean lez, aita ta aitarien obiak ikertzea erabagi neban. Eguraldi ederreko igandea zan, eta bazkalostean gure erriko illerrira bideratu nintzan. Kirrinka ozenaz burdiñezko atea zabaldu zan, eta alkarren ondoan egozan obi bien aurrean aurkitu nintzan. Arratsalde gardenean txorien abestiek aize-suzmurren artean, lekua iñolako olerkiaz beteten eben. Une luze batez otoitzean igaro nintzan, niretarren gomutak laztanduz.

Alako baten, zur eta lur geratu nintzan: aitaren obi-gaiñeko gurutzaren inguruan, lora zuri ta gorrizko txorta joria ikusi neban...! Norena ete...? Ezin nengikean lora arein zergaitia ulertu, baiña agiri zan ipiñi barriak zirala. Zenbat eta luzeago begiztatu, ainbat eta arrituago sentitzen nintzan. Nor zeitekean aitaren obian txorta ederra ipiñi ebana, nor...? Noizbait, eta nire jakingurea bete eziñik, azken begiradea txorteari jaurtita, illerritik urten nintzan.

Gurdi-bidetik jaisten nintzala, arratsaldeko lillura bardinbagea nitzaz jabetu zan, larradietako bedar-orduaren usain gozoak inguratzten ninduala. Errira eldu nintzan, eta lagunarteko autu bateri emon neutsan. Andik laster etxerako bidea artu neban. Aspaldi aretan aspertu eragiten ninduan adiskideen laguntasunak, eta edozein atxakiz izten oi nebazan, lengo poztasuna ez neban aurkitzen-eta.

Andik laster, Yandur-zubia igarorik, Bordazuri'rantz bideratu nintzan. Arratsalde-erdia zan, eta eguzkiak urrezko ukutze yaukala jarten eban zabalduan.

Ibilli nenbillela, Indusi'ko gaztaiñadira joian bide-zidorra aurkeztu yatan. Andik ez urrun, orain urte asko Mimiñe ezagutu izan neban lenengoz, eta oi-ez-lako bultz batek eraginda, gaztaiñadira sartu nintzan, egun aretako jazoerak nire oroimenaz jabetzen zira-

la. An bertan, aren begi ederrek neugan aztueziñeko aztarna itxi eben. Gaztaiñondoen artean igazirik, eguzkiaren izpiek bedarrean argi-une biziak jarten ebezan. Olan niñoala, arimaren sakonenetik, galduriko zorionak oroi-miñaz bete ninduan.

Alako baten, nigandik ez urrun, baltzez jantziriko neska baten irudi lerdena Bordazuri'ra abiatzen zala ikusi neban... Ezustean, irudi aregan ezagun antzeko zerbait egoala iruditu yatan. Biotza taupada zorotan asten yatala, ariñeketan aurrera oldartu nintzan, arimako oiua menperatu eziñik:

—Mimiñe... Mimiñe...!

Bera biurtu zan, eta orduantxe, aren begi eder, sakon, bardin-bageek samurtasunez gaiñezka begiratu ninduen...

—Mimiñe, neure laztana, neure kutun ori...!

Besoak zabalik oldartu nintzakion eta besarkatu neban. Berak nire bularrean burua jarri eban, eta gero, begi yaukalak neuretan jarririk.

—Yonan, Yonan —oiu egin eban—, baiña ez al-zara ezkondu...?

—Ez, Mimiñe. Nik ez dot beste iñor maite zeu baiño. Azke-nean idoro zaitut. Jakingo ba'zendu zelan maite zaitudan...! Zure atzetik zoro antzera ibilli nozu, Mimiñe...! Esaidazu maite nozula, apurtxu bat besterik ez bada be... Esaidazu amesetan ez nagola...

Irribarrez begiztatu ninduan, eta eskuakaz aurpegia laztantzen eustala, auxe irautsi eustan:

—Yonan, neure laztan ori, bizitza baiño areago maite zaitut.

Apa-laztandu neban samur-samur, eta,

—Maite izaten ba'ninduzu —itaundu neutsan—, zergaitik ezkutatatu zara orren luzaro...?

—Begira, Yonan: bein baten guda-aurretik, ama Donostia'ko kale batetik joiala, Malenbaita'ko etxeoandrea ikusi eban, eta onek beste barrien artean, ezkontzeko zorian zintzazala esan eutsan. Oi, Yonan, zorotzeko zorian billakatu nintzan...! Zein zoribakoa oartu nintzan jakin ba'zendu...! Egia al-zan ori...?

—Amestxar bat izan zan, Mimiñe. Gero, galduriko izar bat maite nebala konturatu nintzan. Zu zintzazan nire izar galdu ori, gaur aurkitu dodan argiz beteriko maite kuntuna...

Eguzkiak izar bana Mimiñe'ren begi yaukaletan jarten eban, eta billo zirikotsuetan urrezko argi-uztaia. Eskuari oratu neutsan, eta alkarren ondoan gaztaiñondo mardo baten pean jesarri gintzazan. Arrats-beerako edertasun goreneko unea zan, eta gure maitasunerako gorde gura izan neban. Beso bat sorbaldaren gaiñean ipiñi neutsan, eta neureganatuz auxe itaundu neutsan:

—Esaidazu nire kutun orrek... noiztik maite nozu...?

—Betidanik, Yonan. Oroitzen al-zara lenengoz emen bertan alkar ezagutu genduan arratsalde aretaz...? Yandur-zubi ondoan alkarregandik agurtzean, ez zendukela itziko erriko mutil areik txarto erabilli nengien, esan zeustan... Orduantxe maite izaten asi nintzakizun. Arrezkero, nire bizitza bete dozu, Yonan... Eta zeuk noiztik...?

—Nire ustez, beti, Mimiñe, baiña espetxean konturatu nintzan. Gau baten amestxar batek jota, zoro biurtzeko zorian nintzala, ez dakit zelan ez nondik, zure begi ederrok laiñoaren artean maitasunez gaiñezka agertu yatazan...

—Oi, Yonan, Yonan...! Gau baten amesetan nengoala, ez dakit nondik baten batek dei egiten eustala iruditu yatan... eta orduan, egun aretan ikastolako zurubian aurkitu zindudazan lez, odolez beterik eta gogoia intzirika agertu zintzakidazan. Zure ondoan belau-nikatu nintzan, eta eskuakaz aurpegi zauritua laztandu neutsun, eta begiakaz mintzatu nintzakizun, neure maite ori. Arrezkero, sarri askotan ikusten zindudazan neuri dei ta deika, eta zugana urrera-tzean irribarre egiten zeustan. Gau baten, izarretan zear dei egiten zeustala iruditu yatan... Tren baten ziñoazan ez dakit nora...

—Bai, Mimiñe, nire gau luze, minduetan, izate guztia zugana joiakidan, egarminduriko bidariak ur garden ozkirriak billatzen dituan antzera. Espetxeko zulo ikaragarritik bizitzara ekarri ninduzun.

Une luze batez maitasunez bor-borka begiztatu neban, aren irribarre gozoak laztantzen ninduala, eta gero,

—Aizu, Mimiñe —esan neutsan—, nire ustez, urrutiko ulermena-  
naren lokarri batek alkartzan gaitu. Gaur bertan, illerria ikertzetik  
nentorrela, oarmen bakan, bereizi batek, gaztaiñadi onetara bultza-  
tu nau artegatasun esan-eziñak menperatzen ninduala, eta idoro  
zaitut. Ez aldakizu gauza bat...? Edonondik billatu zaitut alperrik,  
eta etsia aurkitzen nintzanean, mirari baten antzera agertu zaiataz...  
Esaidazu maitetxu orrek, zelan aurkitu zaitut gaur emen...?

—Begira, Yonan: gaur amabost ama il yatan. Ama gaixo lazta-  
na...! Aitarekin batu baiño ez eban beste yoranik, eta noizbait  
alkartu dira... Ez dakit zelan, baiña amak zure aita zanaren ezkutua  
ezagutzen eban, eta augaitik, zure aita il zanean zuentzat oztoporik  
ez izatearren, erritik alde egitea erabagi eban...

—Baiña zergaitik aztarnaren bat itzi barik joan zintzazen...?  
Jakin ba'neu non zengozen...!

—Amak isillean gordetea nai eban, eta Donostia'ko izekoagana  
joan gintzazan arekin bizi izateko, denda bat bakarrik erabilten  
eban ezkerro laguntzarik bear eban. Arrezkero, irurok alkarrekin  
bizi izan gara. Il baiño len, amak zure aitari buruzkoa esan, eta  
bere illobian lore-txorta ederra jarri nengianaren agindua emon  
eustan, zure aita bene-benetan ederresten eban-eta. Gaur, jaiegun  
izanik, goizean Donosti'tik urtenda Aranegi'ra eldu naz, eta lora-  
txorta andia erosita gero, arratsaldean illerrira joan naz amaren  
agindua beteteko...

—Bai, aitaren illobian lora-txorta ori ikusi dot, eta nire buruari  
itaundu dausat —eten egin neutsan— nor leiteken lora ederrok  
ipiñi ebazana. Baiña esaidazu, Mimiñe, zelan aurkitu zaitut emen,  
Indusi'ko gaztaiñadian...?

—Ara ba... Arandibar'tik urrundu baiño len, or bertan jagiten  
dan muiño apal orretatik, Bordazuri azkenengoz begiztatu gura  
izan dot...

—Baiña zergaitik ikusi bakarrik, eta ez ama ta biok ikertu...?

—Ezkondua zintzazala uste izaten neban, eta zu olan ikustea  
jasan-eziña yatan ezkerro, Bordazuri aspaldian ezagutu neban lez  
azkenengoz urrundik ikusi gura izan dot.

—Goazen ba muru apal orretaraiño, Bordazuri ikusi dagizun.

Eskuari eutsita joan gintzazan, eta ganetxu aretatik gure etxea  
bitxia bai'litzan agertu yakun. Larogei bat metrotara egoan, eta  
arratsaldeko orduak argi ta itzal biziak nonai jarten ebazan, Yandur-  
errekako eresi gardenak aparrezko olerkitan aditzen zirala. Langa  
ondoko areitzean kokatuta, txindor batek eguzkiaren txirindola  
gorritzari maitasunezko ipuiñak jaurtiten eutsazan. Bedardi ta bide-  
ertzeko landareen usain naasia, arimaren barruraino sentitzen zan,  
eta urrundik, Gipuzkoa'rantz edatzen ziran mendi oztinien isla  
laiñotsua lotan zirudian...

Edertasun arek lilluratuta, irribarre gozoaz Mimiñe'k isillik  
zirauan, eta une aretan, eguzkiak bere larmintz garbia laztantzen  
ebala, nire aukerean begiztatu aal izan neban. Bekoki zuri leun-  
pean, aren begi gaztainakarak, arbendolduak, bekain illun eta betule  
luzeakaz babestuta, argiz blei-blei dizdiratzen ziran. Zuur mee  
zuzena matrail zuri-gorrien artean, garbi ta txanbeliña bereizten  
zan. Gorri biziko ezpan beteak, larrosa baten atalen antzera irriba-  
rre gozoaz argituta, zarrastada batek astinduta ikara bigunaz igitzen  
yakozen. Mimiñe'ren edertsuna...! Adats zirikotsuan eguzkiak urre  
illunezko argi-uztaia jarten eutsan.

Neugana erakarri neban, eta aita zanak amarekin egin oi eban  
antzera, billoetan musu luze biguna emon neutsan.

—Yonan, maite ori —esan eustan begi yaukalak niretan jarri-  
rik—, txoko onek iñoizkorik ederren emoten dau. Bordazuri'ren  
edertasuna...!

—Mimiñe maitia, abi au zure igurikan egon da beti, beti...

Musu biguna emon neutsan, eta,

—Goazen etxera —irautsi neutsan—. Amaren poztasuna zu  
ikustean...!

Beerantz abiatu gintzazan, eta olezko zubitxua zearkaturik,  
etxaurrean josten ziarduan ama ikusi genduan, eta didarka auxe  
esan neutsan:

—Ama, ama, begira nor etorri dan...!

Ama zutundu zan, eta une batez Indabaita'ko alabea begizaturik,

—Mimiñe, neure laztan ori —oiu egin eban neskatillea besarkatuz—, zein luzaro zure begira...!

Une batez alkar besarkaturik iraun eben, eta gero neskearen aurpegi zoragarriari begiratu, amak auxe esan eutsan:

—Indabaita'ko loratxu kutun ori... larrosa ederra biurtuta zakust...! Bordazuri'k etsi-etsian bear zaitu, Mimiñe... Etxe au itzalek eta otzak jota dago... Esan, maite orrek, Bordazuri'ko abi utsa alaitzeko gurekin geratuko al-zara betiko...?

—Bai, ama, bai...

Aurpegi beerak amari zorionezko malkoak agertu yakozan.

—Jaungoikoa bedeinkatua izan bedi —esan eutsan—, zu etxe onetara ekarri izateagaitik...!

Etxurreko arrizko aulkian jesarri gintzazan, eta autu alai bateri emon geutsan, igarotako gora-beerak alkarri esaten geutsazala. Gero, Mimiñe'ren euskuari eutsiz,

—Zatuz nirekin, maitia —esan neutsan—, gauza bat erakutsi gura dautsut.

Errotaraiño eroan neban, eta ango zeatz guztiak azaldu neutsazanean, auxe esan eustan:

—Oi, Yonan, zelango bearra artu zenduan zure gainean...!

—Aitak errotea eraikitako eskatu eustan, eta beti lez zuzen egoan. Erroteari esker, naikoa ondo bizi gara. Sasoi onetan geldirik dago, baiña Urrilla'n asita, udabarria amaitu arte lanean dirau. Egunez, gurdia gora ta beera dabilta artoa ekarteko edo uruna eroateko. Gabaz, errotearen burrunbea eresirik ederrena biurtzen da, amesen laztangarria bai'litzan.

Andik urtetea, beste asto gazte batek lagunduta Txeru ikusi genduan, eta,

—Aizu, Mimiñe —azaldu neutsan—, irribarrez antzera begizatzen gaituan asto ori, Txeru da. Aita il zanean Aranegi'ko azokara etxeko ortuariak eroateko lagundu eustan, eta gero errotea egiteko

be. Orain zaarra dan ezker, beste bat erosi dot, zaar-saritu baten antzera lan egin barik bizi daiten. Benetan maite dot, baita berak be ni.

Urreratu gintzakion, eta Mimiñe'k burutzarra laztandu eutsan. Olan zirauala, astoak mustur irribarretsuz aurpegia ukutu eutsan.

—Uste dot, zeu ta biok lagun andiak izango garala.

Jarraian, Mimiñe'k bekokian musu bat emon eutsan, eta gero korta ta etxea bera erakutsi neutsazan. Amaitu genduan illunabarra zan jadanik, eta amak atonduriko aparik bikaiña txastatu genduan.

Apalostean, etorkirako asmoak egin genduzan. Amak eta biok eztegua lenbailen egitea nai genduan, baiña alan eta guzti be, Mimiñe'k arrioa atondu bear eban, eta onezaz gainera, Donostia'ko izekoa beste barik iztea egokia ez zan ezker, Urrilla'ren erdirantza eztegua ospatzea erabagi zan.

Autu onetan, oera joateko ordua etorri yakun. Amak lagunduta, Mimiñe Matxalen'en gelara lo egiteko zurubian gora joan zan, eta ni sutondoan geratu nintzan, inoiz ez izaniko zoriona nitzaz jabetzen zala. A lango eguna bizi izateak igarotako naigabe guztiak merezi ebazan, eta biotz-biotzetik Jaunari eskertu neutsan, Mimiñe neugana ekarteagaitik.

Zorion-ames aretan ez dakit zein luzaro iraun neban. Gero, nire gelara igon nintzan, eta illargi beteko gau amesgarrian, argi zoragarri arek inguraturik, Yandur-arana'n kokatuta, Arandibar nire erri txiki maitiak iratxoan ameseko erria zirudian, mendietako isla lainotsuen artean lo isillean galduta.

Gero, oean etzanda, beila zorionsuan orduak igaro yatazan, eta noizbait, oillarraren kukurukua goizalde-irian aditzen zala, loak artu ninduan.

Jagi nintzanean, ama ta Mimiñe eskeratzean egozan jadanik, eta arin baten nire gosaria iruntsita, Mimiñe ta biok Aranegi'ra joan gintzazan Donosti'rako trenan artu egian. Beragandik ikusi neban azkena, begi argitsuak eta irribarre lilluragarria izan ziran.

Arrezker, nire bizikerea gainbeera aldatu zan. Neugan kokatuta noranai neroian zoriona, eta giro onetan, oiko lanak atsegiñez



kutsutuak agertzen yatazan, aste-buruari berantespen gozoaz nitxarokiola.

Goizean goizik jagiten nintzan jaiegun guztietan, eta Aranegi'ko lenengo trenaz Donostia'ra joan oi nintzan, eta an Mimiñe'rekin alkartuta, batetik bestera egurasteari emoten geutsan. Otorduan, izekoenean bazkari gozoa gure begira egoan, eta gero, ondartzatik edo Zurriola'ko egurastegian jesarrita, gure amesak eioten genduzan. Mimiñe soiñez zoragarria ba'zan, gogoz ez zan are gitxiago. Tolesbagea izanik, aren barruko gardena edertasun argitsuaz agertzen yatan, eta bere begi bikaiñak neuretan kokatzen ziranean, zorionez il-agiñean sentitzen nintzan. Egunik-egun biotzerago sartzen yatan, eta maiteago izatea eziña bazirudian be, unerik-une lilluratuago aurkitzen nintzan. Arrats-beeran alkarregandik agurtzean,

—Mimiñe —nirautsan—, zu geiago maite izatea eziñezkoa badi-rudi be, egunen bideak nire maitasuna andiagotzen daust.

—Yonan, neuri be orixe bera jazoten yat. Luzaro gordetako sentipenak egi biurtzen diranean, uriolaren indarra artzen dabe.

Gero, bakarrik aurkitzen nintzanean aren erakarpena barruan neroian, eta zeken baten antzera gordeten neban. Eta olan illabete bi igarorik, ezteguako eguna etorri zan.

Urrilla'ko asikerean Arandibar'ko eleizean ezkondu gintzazan. Ezteiliar asko ez zan egon. Ama, Donosti'ko izekoa, Iñese ta onen senarra, erriko ezagun gutxi batzuk, eta, jakiña, Arribaita'ko Xabier. Abadeak ezkontitzak esaten euskuezala, Mimiñe'ri aurpegian beera malko andi bi isuri yakozan. Besoari eutsita, irribarre egin neutsan, eta berak begirada gozo bat az erantzun eustan.

Eztegu-otoruntza Aranegi'ko jatetxe on baten ospatu genduan, eta gero, Arratsaldean Donosti'ra abiatu gintzazan. Amari azken agurra emotean, malkoen artean,

—Yon Ander —esan eustan—, Jaunak bedeinkatu zagiezala. Mimiñe'k zoriontsu egingo zaitu; iñor ez, bera aiña Bordazuri'ra alaitasuna ekarteko. Neu be azkenean zoriontsua naz. Agur, seme.

Gero, Mimiñe estu-estu besarkatu eban, itz batzuk aboepan zirautsazala. Aspalditik ez neban ama orren zoriontsua ikusi izan. Begietan pozezko argi biguna agiri eban, eta bai merezi ebala...!

## EZTEGU-BIDAIA

Ebatzi genduan, gure eztegu-bidaia Bidaso'z onaindiko lau eusko uri nagusietatik egitea. Olan ba, lenengo iru egunak Donostia'n emon genduzan, Mimiñe'ren izekoenean ostatua izanik.

Iru egunok zoragarriak izan ziran, nire emazteak ain ondo ezagutzen ebazan txoko ikusgarrienak ikertzen genduzala. Azken egunean, Ernio aldeko errikkara joan gintzazn, Bideko Zoroaren obia ikertzeko. Mimiñe'k baekiazan Iñaki zanaren gora-beera guttiak, baita anaitzat nebala be. Illarrian lora-txorta bat ipiñi genduan, eta otoi sutsua esanda, zoro gaixoa semearen begira egon oi zan bide-gurutzera joan gintzazan, eta an bertan Iruñe'ren gora-beerak emon neutsazan Mimiñe'ri. Urrilla'ko egoaize epelaren pean, zabaldiak iñolako gardentasuna erakusten eban. Gero, Tolosa'rako bidean beera abiatu gintzazan. Ez geutsan alkarri itz askorik esan, gure gogoetak ama-semeakan jarrita genduzan-eta. Alako baten, Mimiñek auxe irautsi eustan:

—Yonan, gizaki batzuentzat, bizitzaren garrastasuna...!

—Bai, nire maitia. Guda egin genduan lau lagun-miñetarik, neu bakarrik bizi naz, eta gaiñera au gitxi bai'litzan emaztetzat zaukat. Olako zorionik ezin nengikean iñoiz ames egin...

—Yonan, Jaunaren bideak dira. Artu dagigun emoitz au eskeron beteaz...

Nireganatu neban, eta aren begi ederretan mosu bana jarri neban. Illuntzean, Donostia'ko Zurriola'tik osteratxu bat eginda gero, etxeratu gintzazan.

Urrengo egunean, Bilbao'rako tren artu genduan Amara'n. Urten baiño len, izekoak besarkatu ginduzan, bidegite zoriotsua opa izaten euskuala. Mimiñe'ren ama zanaren aizta zan eta arekin itxurapen andia erakusan. Mimiñe'k eta berak alkar maite-maite eben, urte askotan etxe berean bizi izan ziran-eta.

Bilbao'ra gabaz elduta, ostatu batera joan gintzazan. Urrengo egunean, nire osabearen sendia ikertu genduan, eta eurekin bazkal-tzen beartu ginduezan. Osaba-izekok eta nire lengusua (bestea gudean il zan-eta) ondo aurkitzen ziran, eta geure gora-beerak alkarri esaten geutsazala, arratsalde guztia an emon genduan.

Biamonean, burdin-bide menditarrak Artxanda'ra joan gintzazan, eta aldamenak aztertu ondoren, oso aldatuta egozala konturatu nintzan. Sabin il, eta ni zaurituta gertatu nintzan lekua ikusi gura neban. Alperrik, baiña, an ez egoan luebakien ez gudaren aztarnarik. Inguruak begiztatzen nebazala ur egoan basetxe bat ezagun antzera iruditu yatan. Bai, andik ez urrun, gure taldeko lau lagunak "Made"rekin kokatuta egon gintzazan. Mimiñe ta biok batetik bestera giñoazala, etxetik baserritar bat urreratu yakun, eta,

—Zeozeren billa zabilte, ala...?

—Bai —erantzun neutsan—, gudan emendik ibilli gintzakizun. Inguru oneitan "Aberri" gudataldekoek burruka itzela jasan genduan, eta beste lagunekin metraillagailu bat nerabillen. Arratsalde izugarri aretan, Sabin, gure lagun bermeotarra ilda jausi zan. Bala-kada bat bekokitik sartu ta buru-atzetik urten yakon...

—Arraioa...! —eten egin eustan baserritarrak arrituta—. Izango ete...?

—Izango ete, zer...?

—Ara ba... Burruka izanda ta bi egunetara etxera biurtu gintzazanean, or bertan egoan luebakian —esan euskun atzamarrak arri-meta bat erakutsiz—, txakur txiki batek lagunduriko gorpu bat ikusi genduan...

—Bai, Sabin eta "Sagu" ziran. Txakurra, Gernika'ko ondakiñetan idoro genduan fox-terrier ernai ta polita zan. Sabin'ek, berak, estalduriko zulo batetik atara eban, eta ordutik txakurrak ugazabatzat artu eban, leku guztietara erraikiola. Erdiz erretako belarri

txikiek sagu baten itxurea emotsoen ezker, izen ori jarri eutsan. Egun aretan, Sabin il ondoren, obuș-zati batek zauritu ninduan, eta konortea galduta beste lagunek nindaroela, txakurra eurekin joan zeiten gura izan eben, baiña alperrik, "Sagu" ugazabaren zauriak miazkatzen geratu zan...

Arratsalde aretako izua nigandik kendu eziñik, isildu nintzan. Urrundik bai'litzan, baserritarraren itzok nire senetara ekarri ninduen.

—Gero —esaten eban—, mutilla lurperatu genduan, ori girstiñok egin bear dogun betekizuna da-ta. Gudari arek ez eban beragan beste ezaugarriarik metalezko eskuturrekoa baiño, zenbaki bat. Baiña orduan, nork emon zenbaki aren gora-beerak...? Or, etxeko orma orretan, arkakarats bat itsasita egoan, eta or bertan obiratu genduan gurutz ori ikusten dan lekuan. Udea asten danean, Yon Deuna'ren, Sondika'ko jagolearen garaian, arkakaratsa lora gorri biziakaz jazten da gurutz-inguruan. Ezin asmatu ori baiño obi ederragorik...

Une batez isildu zan, eta gero,

—Txakurrak ez eban obi-gaiñetik kendu nai —autuari jarraitu eutsan baserritarrak—, eta jatekorik ekarri bageutsan be, jaramonik ez. Etxera ekarri nai izan genduan, baiña orduan agiñak erakutsi euskuzan. Andik egun bitara-edo, goizean ilda idoro genduan. Orain or bertan datza ain maite izan eban ugazabaren ondoan...

Baserritarra isildu zan. Egun aretako argipean, an beean Txori-erri'ko lurralde zabala edatzen zan, eta ezkeraldean, ikuste-mugan, itsaso-ortziak besarkada oztiña alkarri emotsoen. Olan ikusi izan neban azkenengoz Bizkai'ko zati a Sabin il yakunean. Oartzeke, itz oneik iges egin yatazan:

—Basterretxea'tar Sabin zan bera. Bermeo'ko seme adoretu arek, euskaltasuna muiñetaraiño sartuta eukan. Gatza ta piperra ebazan gauzak esateko, eta sarri askotan barre eragiten euskun bere esaera itsastarrak erriko jazoeraren bat esaten euskunean... Biar nire emaztea ta biok Bermeo'ra joango gara senideai aren eriotzaren gora-beerak emoteko. Dana-đala, euren eta nire izenean garai aretan egiñagaitik artu egizu nire benetako eskerrona.

Autu onetan berandutxu egiña zan, eta baserritar aregandik agurtuta, Mimiñe ta biok inguru aretako jatetxe batera joan gintza-

zan, otordua zan-eta. Gero, alde batetik bestera egurastuz arratsaldea emon genduan.

Biamonean, erri-berebillez Bermeo'ra eldu gintzazan, eta astirik gatzetze, Sabiñ'en senitartekoen billa asi gintzazan. Luzaro barik, enparantzatik ez urrun denda batera bideratu ginduezan, eta Sabin zanaren amaren aurrean aurkitu gintzazan. Arrantzalea zan senarra il yakonean, denda bat erabiltea ebatzi eban, eta orain alaba bikin dendan ziarduan, seme bakarra arraintzetan ebillela.

Sabiñ'ekin gudean ibillia nintzala esan neutsanean, besarkada sendo bat emon eustan, auxe ziraustala:

—Jaungoikoak bedeinkatu zagizala, seme. Dakigun gauza bakarra, Sabin gudean ostendu zala da. Amaika billaketa egin genduzan semearen barriak jakitearren, baiña dana alperrik, iñork ez ekian aren gora-beerarik... Orain bazkalordua dan ezkeru, dendea itxiko dot, eta gurean bazkaldu bitartean, dana esango dauskuzu.

Joan gintzazan ba kalean gora etxe bateraiño, eta andik laster, marmitako bateri ekiten geutsala, ama-alabai Sabiñ'ekin izandako gora-beerak edestu neutsezan, eta azkenan, aurreko egunean zelan Sabiñ'en obia aurkitu genduan, baita onen oroigarrizat baserritarak niri eskuraturiko metalezko eskuturrekoa, amari emon neutsan. Malkoai eutsi eziñik, eskuturrekoa ezpanetara eroan eban eta musu luzea emon eustan. Jarraian, auxe esan eustan:

—Etzi bertan nire semearen obia ikertuko dogu, eta aren gorpuziak ona ekarriko doguz, etxetiarren artean egon daitezen...

—Barkatu egistazue —eten egin neutsan—, baiña nik dagozan lekuan itzi dagizuezan esango neuskizue. Sondika'ko gorenetako basetxe aretatik Txori-erri'ko aran zoragarria an beean ikusten da, eta urrutian itsasoaren lo oztiña. Arkakarats batek obi-buruko gurutzaz inguratzen dau, eta udea asten danean, loratxu gorrimiñek Sabiñ'ek azken loa zaintzen dabe. Itzi egizu an, maite-maite izan eban itsasoaren aurrean, arrats-beera aretan jausi zan lez...

Une batez, malkoen zear Sabiñ'en amak begiztatu ninduan, eta,

—Zuzen zagoz, urrean, mutil —esan eustan—. Zeuk diñozun

lez izango da. Urteoro larrosak sortzen diran garaian, aren illobia ikertuko dogu.

\* Erri-berebilla artzeko garaia zan orduko, eta ama-alabek lagunduriko, Mimiñe ta biok enparantzara joan gintzazan. Abiatu aurretik, Sabiñ'en amak besarkatu egin ninduan, auxe ziraustala:

—Banekian nire semea il izan zala, baiña zeuk gaur emon daustazuan albisteek bakea ekarri dauste. Jaungoikoak bedeinkatu zagizala, seme.

Gero, Mimiñe besarkatzean,

—Alabatu —esan eustan—, neuk iñoiz ez ikusiriko emakumerik ederrena zara. Zeure begi ederrok gau-diamante sakon-sakonen antzekoak dira. Jaunak gorde zagizala urte askotan zure senarraren zorionerako, eta bioi ume asko izan dagizuezala opa izaten dautsuet.

Gaba zan jadanik Bilbao'ra eldu gintzazanean, eta buru txanbeliña nire soinburu-gaiñean jarrita lotan egoan Mimiñe, iratzarri bear izan neban.

Urrengo egunean osabarenean bazkaldu genduan, eta alkarri azken agurra eginda, Gasteiz'era joan gintzazan erri-berebillez.

Uri onetan, gure asmo nagusia Pruden zanaren gurasoak iker-tzea zan. Ez genekian arein zuzenbiderik, baiña nirekin espetxean izandako gasteiztar batena ezagutzen neban ezkeru, onegana jo genduan. Zoritxarrez, ez zala urrengo egunerarte etxean egongo esan euskuen. Olan ba, batetik bestera ikusgarriak ikertzen eguna emon genduan. Biamonean, laguna etxean aurkitu genduan, eta Urizarna sendiaren gora-beerak emon euskuzan.

Arratsaldean, Pruden'en gurasoak ikertu genduzan, eta arrera ezin ohea egin euskuen. Aita irakaslea zan, eta izan be, gizaki atsegina benetan. Emaztea emakume adeitsu ta maitekorra azaldu zan.

—Pruden'en, zuen seme zanaren barriak dakartsuez. Azkenen-goz nigandik agurtzean egunen baten ikertu zengiedazala eskatu eustan, eta au dala-ta gaur natortzue.

Alkar besarkatu ondoren, sartuerazo ginduezan eta iker-gelan jesarrita, Pruden'en barriak emoten asi nintzakien, Gorbea'tik gure aldera igaro zanetik, bere eriotzarte. Entzun bitartean, aitaren begie-

tan legezko arrotasunaren dizdira ikusi zeitekean. Amarenetan, oster, malkoena. Eta olan kontu-kontari eta gurasoen galderai erantzunak emonez, gabak arrapatu ginduzan.

Eurekin apaltzeko geratu geintezan eskatu euskuen, eta apalostean, oster, be, kontu-kontari gaberdia egin yakun. Alkargandiko agur egitea zaila gertatu zan, eta azkenean, kale bakartien zear gure ostatutara biurtu gintzazan.

Biamonean, Iruña'ra trenez joan gintzazan, eta Burunda'ko lur yaukalen zer giñoazala, napartar izateagatik, atsegiñezko sentipen bakana nitzaz jabetu zan.

Mimiñe ta biok erabagi izan genduan, Iruña'n emoteko genduzan iru egunak, Matxalen ikertuz igaroko zirala. Lenengo egunean, baraz, lekaimetxera joan gintzazan, eta gelatxu baten sartu ginduezan. Luzaro barik atea zabaldu zan Matxalen agertzen yakula. Gu ikustean oiur bat iges egin yakon, eta estu-estu besarkatu ginduzan.

—Bai zorientzua nazala zuek biok ezkontuta ikustean...! —esan euskun— Yon Ander, amaika otoitz egin dot zure alde aspaldi onetan, Mimiñe aurkitu zengian, eta orra or ezkontuta etorten zaiatazela. Bai, zerbaitek iñostan alkartuko zintzakezala. Lengo egunean amaren idazki bat eldu yatan. Aren zoriona Bordazuri'k etxekoandre gazte bat daualako...! Zuen ezkontzak itxaropen barria ekarri dautso.

—Ainbeste naigabe ezagutu ondoren —irautsi eutsan Mimiñe'k—, bidezkoa da zoriona ezagutu dagian. Zeu be zorientzua zarala agiri dozu begiotan, Matxalen.

Egia zan. Nire arrebearen betseiñetan barrutiko poztasuna irakurten zan, eta nik azaldu ezin nengikean barruko bizitzaren aberastasuna be bai. Era onetan jardun genduan luzaro, gure autuak guztitariko gaiak ukutzen ebazala. Lekaimen joaleak otordua iragarri ebanean, alkargandik agurtuta Iruña'ra biurtu gintzazan.

Urrengo egunean, Lizarra, Naparra'ko uri ospetsua ikertu genduan, eta emengo ikusgarriak betetsita gero, Iruña'ra barriro.

Biamonean, Matxalen azkenengoz ikustera joan gintzazan, eta goiz osoa emonda gero, agurreko besarkadea alkarri emon geutsan.

Bazkaldu ostean, Aranegi'rako erri-berebillaren urteera arte gure aukeran egozan iru ordubetetan zer egin buruan nerabillela, ezustean burutapen bat etorri yatan, eta,

—Aizu, Mimiñe —esan neutsan—, zergaitik ez ikertu ainbeste urtetan Arandibar'ko abadea izandako gure On Markel...?

—Oba ez...!

Orduan, ostalariari On Markel'ek kapellau ziarduan lekaimetxearen elbidea eskatu neutsan. Emondako argibideen arauz, ostantutik ur samar egoan, eta orduan Mimiñe ta biok oiñez aratu gintzazan.

Lekaimetxe zaarra ta islla zan. Sartu gintzazan, eta txiliñari eraginda, bira-leioaren atzetik lekaimen baten abots leuna beste mundu batetik bai'letorran,

—Jaunaren bakea zuekin —esan euskun—. Zer nai dozue...?

—Ez al-da emen On Markel kapellaua...? —itaundu neutsan.

—Bai, emen bizi da.

—Esaiozu, mesedez, Arandibar'ko Yon Ander'ek eta bere emazteak ikusi gura dabela.

—Zoaze ba, orko ezkerreko iker-gelara, eta itxaron.

Sartu gintzazan, eta itxaron bitartean, gelatxua aztertu neban. Ikusi zeitekeanez, agiri zan lekaimetxea ezeukia zala. Aulki arrunt batzuk, areaz ondo igurtzitako sorua, zuriz karezturiko ormak, burdiñez saretutako leiattilla goitsuak... Alako baten atea zabaldu zan, eta abade zaar bat aurkeztu yakun.

Asierean ez neban ezagutu. Siñisgatxa zan azken sei urte areitan gure abadeak jasaniko beerakadea. Burua urdindu izan yakon zearo, soin makurtua tatarrez ebillen, eskuak dardarikatzen yakozan, eta begi lausotuek aspaldiko bizitasuna galdu izan eben.

Urreratu nintzakion, eta antxiña baten oi neban antzera, eskuan mun egin gura izan neutsan, baiña berak estu-estu besarkatu ninduan. Gero, nire aurpegia eskuetan artuta, tinko-tinko begiratu eustan, eta,

—Yon Ander —esan eustan irribarrez—, nire begiok moteldu dira benetan, baiña ezagutzen zaitut, maite ori. Betikoa emoten dozu, baiña zeozer gizonduagoa esango neuke. Eta zure emazte ori, nor ete-da...?

Mimiñe urreratu yakon, eta,

—On Markel —esan eutsan—, ez al-dau berorren eskutik lenengo Jaunartzea izan eban Miren Zuriñe ezagutzen...?

—Indabaita'ko neskatotxua —erantzun eutsan eskuak laztantzen eutsazala—, gogoan beti izan zaitut, Arandibar'etik zure ama-rekin joan zintzazanetik batez be. Askotan nire buruari itaundu dausat, nora joango ziran Indabaita'ko ama-alabak, eta orain Yon Ander'ekin ezkondata zakust... Jaunaren bideak arrigarriak dira benetan...!

Isillune bat, eta,

—Esaidazu, Yon Ander, zelan joan yatzun erritik iges egin zenduanetik...?

Orduan, nire gora-beeren barriak emon neutsazan, berak adidi entzuten eustazala. Amaitu nebanean, onetaraxe mintzatu zan:

—Larri ikusi dozu zure burua, baiña Jaunak onik atara zaitu. Zure alde amaika otoitz egiña nozu, eta badirudi nire eskaerek arrera ona izan dabela.

Isildu zan, eta gero aurpegi zimelean atsekabe bizia agertzen yakola, onetaraxe jarraitu eban:

—Ikaragarriak izan dira anai-arteko guda zital onek gure erriari ekarri dautsazan ondoreak. Naparra'ri batez be. Odol-irrika zoro batek biotz eta adimenak lausotu dauz, eta ondapen orrein aurka jagi bear ziranen abotsak, eleiza-arazoetan jardun nabarmen eukielata, isildu ziran, Yon Ander, isildu ziran zitalki...! Zu erritik joanda gero, On Mikel eta besteen erailketak ezagutu ziranean, eleizkizun guztietan nire berba utsalaz eriotz eta gorrotoaren aurka aldarrika-

tzen neban. Bein baten, meza nagusian, errikoa ez zan jauntxo batek nire sermoia entzunda gero, gorri ta abertzaletzat salatu ninduan. Andik egun batzutara, zibillek nire atean jo egin eta eurekin eroan ninduen. Yandur-arana osoa edur lodipean zetzan, eta otzez dar-dar Aranegi'raiño oiñez lagundu eusten. An egun bitan atxillo gorde ninduen, eta noizbait gotzaindegitik idazki bat ara joateko agintzaz eldu yatan.

Une batez, bere oroimenean bildu zan, eta,

—Gotzaindegian —jarraitu eban—, jazotakoaren barriak eskatu eustezan, baita nik kontu zeatzak emon be. Orduan, gudea kruzada bat zala esan eusten, eta kruzada ori Jaungoikoaren aintzarako izanik, ezin nengikeala eragilleen aurka ezer esan, Jaunaren kutunak ziran-eta. Nik erantzun neutsen ez nebala iñoren aurka gauzarik esan, bai ordea, erailketak eta gorrotoa Kristo'k irakatsitakoaren aurka egozala, eta, beraz, areik txartzat salatzea abade baten betekizuna zala. Abade batek, oroz gaiñetik, gauzak neurritz esan bear ebazala buruaren jabetasuna galdu barik, gotzaindegikoek esan eusten...

Zirrara batek jota, jarraitzeko ezindurik On Markel isildu zan, oiñaze bizi baten keiñua aurpegian zear edatzen yakola. Gero, zerbait baretuta, onetaraxe jarraitu eban:

—Nik neureari eutsi gura izan neutsan barriro, baiña isillerazo ninduen, auxe ziraustela: “Ikusten danez, ez dozu egindakoaren damurik txikiena be erakusten. Gure epaiketea, beraz, auxe da: Arandibar'ko gogoen zaintza kentzen dautsugu. Andik ez zara ezertarako be azalduko, zure gauzak batzeko baiño. Zelako jarduna emongo yatzun, geroago ikusiko da...”

—Zur eta lur geratu nintzan —jarraitu eban On Markel'ek—, entzuten nebana siñistu eziñik. Ogei ta amar urtez Arandibar'en jardun izan neban, eta erritarrak bene-benetan maite-maite neban, eta nik uste, eurek ni be bai. Bizitza osoan maitasuna izan egien aldarrikatu neban, eta ezustean dana pikotara joan yatan... Seme guztiak galdu dituan aita baten antzera sentitzen nintzan...

Une batez isildu zan, eta,

—Gozzaindegitik zoro antzera urten nintzan —jarraitu eban On Markel'ek—, eta nora ez nekiala, batetik bestera lo-ibiltari baten

antzera joan nintzan... Noizbait, Iruña'n arrega bat ezkondua nebala gomutara etorri yatan, eta an babestu nintzan. Bein baten, abade lagun batek lekaimetxe onen kapellaugoa eskiñi eustan, eta ordutik emen nozue, lekaime txiro ta santu onein arima-zaintzari emonda. Sei urte igaro dira arrezkero, eta Jaunak nire erri-miña zeozer arindu badaust be, ez da ezerk sentitzen dodan utsa bete dagistanik... Otoitzean, guztien alde erregutzen dodala babestu naz, kalte egin eustenen alde batez be. Dana barkatu dot, eta Jaunaren doaiatz ez daustot iñori gorrotorik izan. Gorrotoa...! Arimea irusten dauan legena..! Yon Ander maite orrek, ez gorrotorik izan iñori, olan gizon askea izango baizara. Esaidazu, maite orrek, kalte egin daustuenai dana brkatzen daustezula...

On Markel'en aurpegi zimel eta motelduriko begietan, eskari antzekoa zan zebait irakurri zeitekean, eta,

—Nasaitu bedi berori —esan neutsan—, ez daustot iñori gorrotorik izaten, eta bein edo bein orren antzeko zeozer oartu banaban be, orain joana da. Gaiñera, Jaunari asko zor daustat. Gudatik eta guda-ostetik onik atara nau; Bordazuri emon daust bariro, eta oroz gain, maite-maite nebana emaztetzat ... ez, ez daustat iñori gorrotorik.

—Jauna goretsia izan bedi, Yon Ander, zure baitan olako madarikaziñorik sustraitu ez dalako. Begira... pekatu nagusi orrek gure Napar au odol-itsaso baten ito egin dau, eta izugarriena dana, erlijioaren izenean, anaiak anaia erail egin dau. Bai, millaka ta millaka kruzadaren izenean eriotzera eroan dabez, eta orren aurka asko esan bear ebenek isildu ziran... eta gaiñera, asaldata ziranek ez eben aurkakizunik idoro emen Naparra'n, euren basakeriak zuritze-ko. Erailketa izugarri orreik, otzean egiñak dira, epaitubako atxilloak bideetako ertzetan su-iskillotuz, edo arkaitzetan beera, Urabasa'n egin oi eben antzera, orduetan zear amilduen oiurriak eriotzaldian aditzen zirala... Egia da, izan be, alde bietan erailketa ikaragarriak jazo dirala, baiña Jaungoikoaren izenean egindakoak are iguingarriagoak dira... Guda zital onek dana zikindu egin dau, baita geu eleiz-gizonak be.

On Markel isildu zan une batez, bere makurturiko arpegi oiñazetuak lurrera begiraten ebala. Gero, onetaraxe jarraitu eban:

—Eta, geuk, abadeok-eta, zer egin dogu odol-isurtze ori eragozteko...? Gure lurralde au, munduko katolikoenetarikoak ei'zan. Zer egin dogu ainbat eta ainbat abade ta eleiz-gizonok, ainbat eta ainbat urtetan Jaunaren berbea erakutsirik, olako basakeriak gure artaldeetan jazo zeitezana...? Zelako ikasbidea aldarrikatu dogu ikusi doguzan ekintza negagarriak etorri ekiguzan...? Arazo onek gero ta larriago jarten nau, eta batzutan zoro biurtzeraiñoko arrenkura jabetzen da nitzaz. Luzaro barik Jaunak dei egingo daust, eta orduan zelako zuritasuna emongo daustat...?

Aurpegian zear oiñaze larriaren aztarnak edatu yakozan, eta buru-makur geldi-geldi geratu zan. Bere bizitza osoa lagun urkoari eskiñi eutsan artzaiña olan ikustea ezin nengikean jasan, eta jagita ondoratu nintzakion. Eskua sorbalda-gaiñean ipiñi neutsan, auxe nirauntsala:

—Bein baten, mendien artean galduriko errixka batera abade gazte bat etorri zan, eta artaldeari beragan eukan onena emon eutsan, au da, bere maitasun guztia. Oillo batek txitak babesten dituan legetxe, erritarrak zaindu ebazan, Jaunaren benetako legea irakasten eutsela. Era onetan, urterik onenak joan yakozan, bera ta eleiztarren arteko lokarriak sendotzen zirala. Beiñola, matxinada bat sortu zan, eta asaldatauek indarraren eta basakeriaren legea aren lurraldean jarri ebezan. Orduan, berak, beti aldarrikatu eban antzera, erailketak eta gorrotoa salatu ebazan, artaldea bere inguruan batuta iraun-erazoten ebala. Kanpoko otso batek, ordea, abadea bera salatu eban, eta atxillo eroan be, artaldetik urruntzen ebela. Berak, baiña, beretarren, eleiz-agintarien babespean egoala uste izaten eban, baiña itxaropen au ustel azaldu zan. Ardiak kendu eutsoezan,, eta besterik ezean, gaixoa lekaimetxe baten babestu zan, etenbako errimiñaz jota urteak joiakiozala.

Isillune bat, eta,

—Orain, artzain ori —jarraitu neban—, kezka bizitan aurkitzen da burutik kendu eziñik, zelako epaiketea egingo daustoe beste munduan... Baiña berorreri gauza bat esan bear daustat, eta auxe da: berorrek ereindako aziak bizirik dirauala Arandibar'en. An ez da iñongo salakuntzarik ez erailketarik jazo. Erria Jaungoikoaren legepean bizi da, eta au neronek ondo dakidan gauza da. Espetxetik biurtu nintzanean, erri guztia poztu zan, eta arrezkero ez dot

besterik ikusi, neuganako begirune ta oneritxia baiño. Eta orain auxe entzun beist ondo: Berorrek erri-miña sentitzen ba'dau, beroriganako erriarena ez da makalagoa, danok On Markel gogotik kendu eziñik bizi gara-ta... Len berorrek iñori ez gorrotorik izatea eskatu daust, eta egia esateko ez dausat iñori gorrotorik, eta berorrek bai al-daki zergaitik...? Arandibar'en izandako abade batek maitasunerako bidea erakutsi eustalako...

Azken itzok entzutean, On Markel jagi zan. Begi nekatuetan zorionezko dizdira agiri eban, eta besarkatzen ninduala,

—Yon Ander, nire mutilla —esan eustan—, jakingo ba'zendu zelako poza emoten daustazun... Ziur zaitekez, zuk esanikoa ez yatala egundo be aztuko. Jaungoikoak bedeinkatu zagizala neugan jarri daustazun zorionagaitik, baita zu be Indabaita'ko alabatxu ori...

Iñondik, lekaimen joale-otsa aditu zan. Otoitz egiteko ordua zan, eta alkargandik agurtzeko garaia. Joan baiño len, biontzako bedeinkapena eskatu eutsan Mimiñe'k. On Markel'ek bekokietan gurutzaren ikurra marratu euskun, eta maitekiro besarkatzen ginduzala, joan gintzazan, lekaimetxeko atetzarra gure atzetik ixten zala.

Iruña'ko alderdi zaarreko kale estu ta biurretan zear bideratu gintzazan. Isillik giñoazan, isillik, On Markel gogotik kendu ezin... Alako baten, nire eskua laztanduz,

—Aizu Yonan —esan eustan Mimiñe'k—, On Markel lako abade bat, erri baten zoriona...!

—Bai, laztana. Oroitzen al-zara umeak gintzazala, zelako sermoia egin euskun, Txanbo'rekin-eta izandako burrukaren ostein...? On Markel'eri maitauna bor-borka isuri yako beti. Guretzat bai doai andia izan dala...!

—Bai, Yonan, gure arimentzat goizalde bateko apa-lasztana antzera...

Olan ibilli genbiltzala, uriko arresietara eldu gintzazan, eta besoak gaiñean kokaturik, aurrean edatzen zan ikusgai zoragarriari begiratu geutsan. Eskumarantz, Auñamendia laiño artean ostenduta iragarten zan. Aurrean, iparraldean, San Kristobal'ko mendia bere espetze itzaltsuarekin, eta beean, Arga ibaiaren galartzu geldia,

ispillu baten antzera sigi-saga nagiz dizdiratzen zan. Baiña ezin nengikeazan ezkerreko aldetik begiak kendu...

An, urrutian, udagoiko ortzi gardenpean eguzkia ostentzeko zorian egoan. Aralar eta Urbasa arteko Burunda'tik, dizdir andi, gorria, irazeki gartsuaren antzera jagiten zan. Irudi aretan, baiña, zerbaitek latz-ikaratu ninduan. Gorrimiñezko ozkorri aretatik, bost eguzki-izpi gorantz jagiten ziran, esku baten atzamarrak eratzen ebezala. Bazirudian, Naparra'ko mugatik odolduriko esku erraldoi bat jagiten zala...

Naparra'n, nire lurralde maitian isuritako anai-arteko odolaren gomutea nitzaz jabetu zan... Odola, beti odola... Irudimenean zear ildakoen erreskada bat igaro yatan... Ainbat eta ainbat gudari burrukalekuan jausita, errikideak millaka bide-ertzetan eta illerrietan su-iskillotuak, artean, On Mikel, Sabin, Pruden, eta Iñaki nabarmentzen zirala. Odola ta odola... Iñaki'ren aurpegi ta arkondara odolduak agertzen yatazan arratsalde aretan bere eriotz-orduan ikusi nebazan lez. Ustekabez, odol-goitika baten artean esan eustana gogora etorri yatan: “Yon Ander...entzun egistak ondo... itz emon bear yaustak... egunen baten, Bordazuri, bizi izandako gudea ta espetxaldiatzaz... liburu bat idatziko yokala... Idaztiari “Bordazuri” izenpurua jarriko yaustak...

Latz-ikara batek menperatu ninduan... Egun aretan itz-emondakoa, aztu izan yatan, eta orain, aginkor, uxa-eziña, betebear a agertzen yatan, eta orduantxe bertan konturatu nintzan idatzi bear izango neukela...

Amesen artetik lez, Mimiñe'ren berbok etorri yatazan:

—Yonan, Yonan... amesetan al-zagoz...? Begitartea illundu yatzu, oiñaze batek zapalduko bai'zindukezan...

—Begira Mimiñe, an Burunda alderantz jagiten dan eta esku odolduaren itxura daukan ozkorriari. Ainbat eta ainbat ildako lagun-gomutea ekarri egin daust, Iñaki zanarena batez be... Odol-jarioen artean, il aurretik, Bordazuri ta gudean bizi izaniko gorabeerak idatzi nengiazan eskatu eustan, eta nik itz emondako liburua oraindiño asi barik...

Mimiñe'k eskuak laztandu eustazan, eta begi sorgingarriak niretan ipiñirik, auxe esan eustan:

—Yonan, idatzi egizu. Neuk lagunduko dautsut aal dagidan neurrian bioi dagokigun gaietan. Erroteari, gudea ta espetxealdiari buruzkoa, zeuk bakarrik idatzi bear izango dozu.

—Nire ondoan ba'zengoz, maite ori, idatziko neuke.

—Badakizu, Yonan, zure odoan beti izango nozula...

Leun-leun mosu bat emon neutsan, eta gero, erri-berebillen geltokira joan gintzazan. Gure eztegu-bidaia amaitzen zan, baiña zoriona nirekin neroian, eta banekian eriotzararte neugan egongo litzakela.

Gau betea zan Bordazuri'ra eldu gintzazanean. Ilgora batek argi esnetsuz gure txokoa zurizkatzen eban, amesezko izpi otzakaz. Langatik igarotean, Mimiñe une labur batez gelditu zan, eta gure etxeari begiratu, itz oneik urten yakozan:

—Bordazuri dan ederra, Yonan...! Amaika gauza zoragarri ikusi dogu, baiña iñon ez, Bordazuri baizen ederrik...!

—Zuzen zagoz, maite ori, eta orain iñoizkorik ederren...

Sukaldean, amak besarkada estu banaz Ongi-etorria emon euskun.

## AMERIKETAKO IDAZKIA

Nireztat biziera barria asi zan, itxaropen eta argiz beterikoa. Etxeko lanai adorez beterik ekin neutsen, egunak alkarrri erraikioela etenbako bakean. Nire alboan Mimiñe izateak, iñoiz ames ez egiñiko zoriona ekarkidan, gero ta maiteago nebala. Zenbat eta geiago aren arima-barruan murgiltzen nintzala, ainbat eta ederragoa aurkitzen neban, egunen bidean gure alkarrekiko maitasuna sendotzen zala. Ama ta bera guztiz ondo alkartzen ziran, eta or-emenka errotatik etxera, edo solo ta larrara niñoala, arein autu ta abestiak zorionez beteten ninduen. Bazirudian, gure etxeari arima barria sortu izan yakola.

Udabarri aretan, Ameriketako idazki bat eldu yakun. Norena izango ete buruan nerabillela, zabaldu, ta... noren eta Pirmiñ'ena...! Jaiegun izanik, bazkalostean etxaurreko jarlekuan ama ta Mimiñe'rekin jesarrita, idazkia irakurri neban. Ona emen iñoana:

”Yon Ander, Mimiñe, eta ama maiteok: (Pirmiñ'ek nire ama bere amatzat eban)— Buenos Aires'era etorritako Yandur-aranatar batek jakiñerazo daustaz zuen barriak. Poztuten nau benetan, Yon Ander eta Mimiñe ezkondu zariela jakiteak. Betidanik iruditu yat, iñor ez zala Mimiñe lakorik Bordazuri'ra zoriona ekarteko. Bioakizue nire goresmenik zintzoena.

“Zuen barriak dakidazan ezkeru, bidezkoa deritzat nireak eza-gutu dagizuezala. Ekiotan ba, asieratik.

“Bordazuri'n azkenengoz ikusi zinduedazanean, errira joanda, Malenbaita'koak, Txeru ta Txanbo, jazoten zanzak jakitun ipiñi



nebazan, baita eragin be, aalik ariñen iges egiteko. Olan ba, gau aretan bertan mugara abiatu, eta urrengo gabeen Baigorri'ra eldu gintzazan.

“Andik egun batzutara, bakotxak etxe bana aurkitu genduan eta lanean asi gintzazan. Baserritar areik euskaldunak ziran, eta etxeokak lez artu ginduezan, oso ondo gerabiltzela. Luzaro barik, baiña, Landes'etako egurlari batek piñu-mozketan ondo oradainduri-ko lana eskiñi eustan, eta beste barik eginkizun barria onartu neban.

“Lan onetan niarduala illabete batzuk igaro ziran, eta egunen bidean, orko matxinadea guk uste izandako baizen laster ez zala amaituko oartu nintzanean, gogoeta sakon bateri emon neutsan. Badakizue, Yon Ander'ek batez be, egunen baten Txanobaita eroste nire betiko elburua izan dala. Orretarako, baiña, diruketa andia bearrezkoa zan ezker, Ameriketara joateko asmoa gero ta bearrezkoagor aurkeztu yatan.

“Egun baten, beraz, Piñu-mozketeari agur egiñik, Bordele'ko portura bideratu nintzan, Ameriketarako ontzi-txartela lortzeko asmoz. Kaiaren ondoan, “La Dordogne” izeneko itsasontzi andi ta ederra egoan, eta urrengo egunean Ameriketarako abiatuko zala jakin neban. Ontziari zegokion idaztegi joan, eta bai, baegoala lekuri- niretzat lenengo maillean esan eusten, baiña txartelagaitik eskatu eusten diruketeak, Txanobaita'koari adorea birrinduan eutsan. Orduan kaira biurtu nintzan, Itsasoratze-miñaz “La Dordogne” begizatzen nebala. Alako baten, zuriz jantziriko sukaldari itxurako gizon batek besoak ontzi-eskudelan kokatu ebazan, eta ni ikusirik, auxe esan eustan:

—Zer, itsasontzi au erosi gura yok, ala...?

—Ez dot dirurik txartela erosteko be.

—Aiko —esan eustan sukaldariak—, ontzi onetan bizargin-morroia bear ei'dok. Ulea moztuten azartuko intzake...?

—Arrautz edo gaztain bateri izatekotan, baietz uste dot.

”Barre egin eban karkar bizitan, eta baretu zanean, auxe irautsi eustan:

—Zer yakik ba...?

—Nik okintzan jardun dot beti.

—Alagala atort ba, ontzi onetan okin-mutilla bear yoagu-ta. Lan orretan ziarduan mutil barrabasak lengo egunean anka egin yeuan, eta ordeztu bear yoagu. Ator gora ta aren jarduna emongo yauagu.

“Tximista lakoa eskillaran gora joan, eta sukaldari nagusia zan gizon arek idaztegi batera eroan ninduan. An bertan gora-beera batzuk eskatu eustezan, eta azkenean agiri dotore bat lortuta, sukaldari nagusiak sei oeko gelatxu bateraiño lagundo eustan.

“Urrengo egunean ‘La Dordogne’ txistu bizitan itsasoratu zan, eta Pirmiñ'ek, zuen zerbitzari onek, itsas-bidarien urdaillai zoriona ekarri eutsen bere antze gorenaz, egunak bake betean igaroten zirala.

“Amabost bat egunen buruan, Brasil'go Rio de Janeiro'n egun bitako geldialdia egin genduan, eta astia ustiatuz, inguruetatik osteratxu bat egin genduan. Copa Cabana izeneko ondartz luze ta ederra ikusi neban, eta izozki bat mustatzen nebala, jende-aztertzeari emon neutsan. Arraioa ta zenteillak, ango andereiñoek erabillezan jantzitxuak...!

“Andik lau egunera, Buenos Aires'era eldu gintzazan, eta aurreztutako dirua ondo gordeta, ‘La Dordogne’ betiko itzi neban, eta ostate merketxu baten kokatu nintzan. Aspaldiko amesa neban, nire kabuz okintzat jardutea. Urrengo egunean, beraz, ango egunkari bateko iragarki aztertu nebazan, okintzategi bat esku aldaketaz artzeko asmotan. Asi nintzan ba batetik bestera joaz, baiña eskatzen eustenak adorea kikildu eustan, neukan dirua baiño askozaz geiago zan-eta.

“Olan ba, lan baten billa asi nintzan, eta luzaro barik, judutar baten tresnategian nire burua eskiñi neban. Euskotarra nintzala jakin ebanean, beste barik jarduna emon eustan. Gizon zintzoa zan, eta lan andia egitera beartzen baninduan be, ondo samar ordaintzen eustan. Dendaren ostean sukaldetxua egoan, eta biok lan egin bitartean, lapikotxu baten biontzako indiabak-eta egosten ziran. Aparia, be, denda-ostean artzen genduan. Gero, ugazaba ta biok Rivadavia kaletik osteratxu bat egin ondoren, denda-ostean bertan lo egiten genduan.

“Biziera au zala-ta, nire dirutxuak anditu egin yatazan polito, eta urtebetea igarorik, aurrezturiko diruaz, okindegi bat esku aldatzeko artzeko gai izan nintzan, eta nire ugazabaren atsekabe andiaz, jardun barriari adoz betetik emon neutsan, ‘La Panificadora del Vasquito’ bataiatuturiko okindegian.

“Arazoak ondo joiakidazan, eta andik laster laguntzaille barria bear izanik, morroitzat criollo bat artu neban. Onek, gozotegi baten jardun izan eban ezker, bere ezagutzeaz baliaturik, gozopilgintzari emon neutsan, baita arrakasta andiaz emon be.

Arrezkero urte batzuk igaro dira, eta diru-mordo baten jabe billakatu naz, baiña biotz eta gogoz ez dot Arandibar baiño maite, erri-miña gero ta indartsuago nitzaz jabetu dala. Zaarra biurtu naitenean orra joan ez dot gura, sarri askotan gure indianoek egin oi daben antzera. Garai onenean aurkitzen nazala uste dot orra joateko eta lanean jarraitzeko. Nire egoerari ordu luzeak emon dautsadaz, eta ona emen nire erabagiak:

“Txanobaita bere lur guztiekin antxiña baten egoan lez erosi gura dot. Ez dakit, oindiño utsik eta salgai egoño ete dan, baiña olan ba’litz, Aranegi’n bizi dan jaubeagana nire izenean Yon Ander joan daitela gura dot, tratua burutzeko. Orra doan ezagun baten bidez, bear dan dirua joango yatzue aurreko ezaugarritzat emoteko, baiña arren, aalegindu daitela Yon Ander Txanobaita erosteko, onen etxejoauna biurtu naiten, umetarik beste amesik ez dot izan-eta.

“Eta orain beste gauza bat. Ez dot gura Txanobaita niretzat bakarrik, beste batekin banatzeko baiño, nire ondorengoek Urroz’tarren jaubetasuna iraun-erazo dagien. Augaitik, zuetariko bat Malenbaita’ra joan daitela nai izango neuke, eta Edurne zoragarria oindiño jare izanik eta senartzat artu gura izango ba’nindu, munduko gizonik zorionsuena biurtuko nintzake. Beti maite izan dot Malenbaita’ko Edurnetxu, baiña ezeuki ta arlote nintzan aldetik, azartu ez berari ezer esaten. Orain baiña, daukadan guztia baiña nire maitasuna batez be eskintzen dautsadaz.

“Zuen barrien begira geratzen naz, eta gauzak nik gura dodazan lez billakatuko ba’litzaz, okindegia saldu baiño ez, joango nintzakizue.

“Agur eta laster arte, zuen Pirmin”.

Arrezkero, gauzak alkarri arin jarraitu eutsoen. Pirmiñ’ek eskatuta lez, Txanobaita’ko jaubeagana joan nintzan, eta artu-emon laburren ostean, Txanobaita bere lur joriekin, bidezko salneurri bat, Urroz’tar Pirmiñ’en izenean erosi neban, eta ezaugarritzat salneurriko zati bat emonda, sal-erosketea baratari baten aurrean legezatu zan.

Bere aldetik, lagun andia eban Malenbaita’ko Edurne’gana Mimiñe joan zan, eta Pirmiñ’en eskintza mezutu eutsan. Arazoa ausnartu egin gura ebal erantzun eutsan neskatilleak, eta andik astebete batera-edo, aren baietza eldu yakun.

Astirik galtzeke Argentina’ra idatzi neban, gora-beera orrein barri zeatzak emonez. Luzaro barik, Pirmiñ’en erantzuna eldu yakun, okindegia saltzearren artu-emonetan ebillela jakiñerazoz.

Andik iru illabetera, Aranegi’ko tren-geltokian “Ongi etorria” emon neutsan Pirmiñ’eri eta astirik galtzeke Bordazuri’ra abiatu gintzazan, ezkondu arte gurean egoteko zan-eta. Eldu gintzazanean, ama, Mimiñe ta Edurne gure begira egozan, eta danok ederretsi aal izan genduan Pirmiñ’en itxura dotorea. Baiña bere piper eta gatzaz laster oroiterazo euskun betiko mutil zintzo ta begikoa zala.

Orain, senar-emazteak biurtuta Pirmin eta Edurne Txanobaita’n bizi dira. Nork ezagutu, baiña, aspaldiko etxe zaar eta itzia gaurko etxe bibain, eder, garbian...! Geiegikeririk bage esan geinke, antxiñako Txanobaita illun, zikin eta utsa, gaur Arandibar’ko etxerik ederrena dala. Aldakuntza onetan, zer-ikusit andia badau Edurne etxejoandre garbi ta maratzak.

Aurtemein, beste gertaera batek Pirmiñ’en ondo-izatea biribildu dau. Aranegi’ko gure antxiñako ezagunek gozotegia saltzea erabagi dabe. Zarrak billakaturik eta ondorengorik ez dauken ezker, zartzarora bakean igaro gura dabe. Auxe jakin baiño ez, alagala etorkion arazoa Pirmiñ’ek erosi dau, eta orain ogi ta gozopillak saltzen ditu, okintza bere arazorik nagusia izanik.

Sarri askotan, bai Txanobaita'n bai Bordazuri'n alkartzen gara, eta umetaroko gora-beerak gogora dakarkiguz. Zorion andia da, benetan, lagun on bat izatea, eta ain zuzen be, Pirmin baiño obarik aurkitzea, bai zaila litzakela...!

## BORDAZURI'KO BAKEAN

Barriro etorri da udagoia, eta onekin batera, idazti au amaitzeko garaia. Asierean neketsua azaldu yatan idaztea, baiña aurrera niñoan-ala, gero ta errazago izan da. Amaitu baiño len, idaztoste antzera azkenengo jazoerak emotea bidezkoa deritxat.

Iru seme-alaba emon daustaz Mimiñ'ek. Zaarrena neskatoa izanik, Miren Zuriñe izena jarri geutsan, etxean Mirentxu esaten badautsagu be. Lau urteko neskato zoragarria da. Urrengoa mutiko gertaturik, Sabin izena emon dautsagu, eta mutilla be jaio zan irugarrenari, Prudentzi'rena. Jaungoikoak beste semerik emongo ba'leusku, Iñaki izena erabilliko dauala erabagi dogu Mimiñ'ek eta biok.

Gau betea da jadanik... eta liburu au idazten asi nintzanetik oraiñarte, Mimiñe ondoan izan dot beti, gaur nirekin dagoan lez. Noizean bein, oin-muturrez zurubian gora doa umeen loa jagoteko, eta dana ondo dagoala ikusirik sutondo-aurrean nire alboan jesarten da ostera be, aren begi yaukalak irribarrez begizatzen nauela.

Bera idazti onen eragillea izan da, eta aspaldiko laiñotan oroimena koloka ibilli yatanean, aren gomutapen gardenak gauzak zeazten lagundu daust. Sutondoan, seiñen jantzitxuak atontzen diardu, eta noizean bein burua nigana biurtuz, auxe diraust:

—Yonan, gaberdia laster izango da. Ez al-da ordua idazteari itzi dagiozun...? Artoketa andia dozu biar ciotzeko...

—Bai, Mimiñe, baiña gaur bertan idazteari amaia emon bear dautsat.

Lekorean, ego-aize epel zakarrak Bordazuri iñarrosten dau, oiñarrietatik erauzi nai izango bai'leuan... Anux, sorgin nagusiaren eraso asarrekoiak dira, urrean, Anux-atetik amiltzen ziran lats garbiaren urak errotea erabilteko otzandu ziralako. Bordazuri'k, baiña, irmo ta zutunik dirauan ezkerro, kebidean beera uluka Anux'ek putz dagi etxea keaz bete daiten, edo-ta txingar baten egakereak etxea sutan jarri dagian. Bestetan kortako atea astintzen dau abelgorria ikaratzeko, baiña ate-ostetik jarritako ereiñotz-adarrak danbada basatiak moteltzen dauz, suzmurrak biurtzen dituala. Sorgiñek orduan egatzetan putz dagie indartsu, teillatua ondatzeko gurariz... Bai, sagu-zaarrak, euren txori kutunak, erriko esamesak ekarkiezanak, bein baten Anux-borda'ko teillatupetik uxatu izan ziran Bordazuri sortu zeiten...

Ego-aize sorgiñ-aize ei'da... Nik, baiña, olerki-aize esango neuskio, aize ori udazken garaian Euzkadi'ko olerkari biurtzen dalako. Il baiño len, basoko osto nekatuek, ipuin baten txera aizeari eskatzen dautsoe, eta onek, suzmur bizitan basoan zear iraduz dator, zugaitzen adaburuak orrazten dauzala. Lotan dagozan ostoak urre biurtzen dira, eta egan-miña jabetu eziñik, putz indartsuz etorri dakiela aizeari eskatzen dautsoe, neguko musu odolgetuaren bildur baidira, eta gau baten, basoa lotan datzala, ego-aizea bere oatze sutsua itzirik, dei ezkutu bateri jarraituz iparrerantz abiatzen da, udazkenaren eresi zoragarria nonai barreiatuz.

Goizaldea barik, joranez dardar ostoak iratzarririk, aiene bizitan aizeari eskatzen dautsoe, zugaitz itunetatik erauzi dagiazan, udagoiko ipuin urredunaren egoetan, iñoizkorik gardenen agertzen diran izar urrundariak laztantzeko. Banan-banan kidarretatik erauzita, aizearen altzoan ames urdiñetan murgildurik, ostoak or-emenka doaz, suzko asperenak biurturik. Gero, lo epel batek artzen ditu, eta izarrek besarkatu aal izan baiño len, iratxo ñimiñoak antzera, beti amesetan, zirikoizko suzmurretan txirindolaka, basoko illotsa abestuz alderrai sakabanatzen dira.

Ego-aizea izarren semea ei'da. Bein baten, iparreko oianetan kokatuak bizi izaten diran usoek, egorako bidaian gidari bat eskatu eutsien izarrai, sarri askotan bidaldi luzean zear uts egiñik, galtzen

ziralako. Bein baten, noizbait, errukituriko izarrek, ondartza kiskalgarrietan jaioriko ego-aizeari, iparreko lurraldeetara joan zeiten agindu eutsoen. Gidari bat etorriko litzakiela jakitean, nagusia zan Usozaarra'k basoko bazter guztietara mezulariak bialdu ebazan, usokideai jakiñerazoteko, ego-aizea, izarren semea, jaiio izan zala, eta goizaldean elduko litzakiela. Iparreko oianetan aren aurreneko asperen epela oartu ebenean, uso guztiek urruma ta urruma asi ziran, egoko erakarpenari jarki egin eziñik. Eta olan, aizearen aurka egan egiñez, Naparra'ko Auñamendia'n zear neguko betosko illuna agertu baiño len, ego-aizearen eresi urredunak basoan zear aditzen ei'dira, eta gidarizat artuta, usoek Naparra'z araindiko bidaiari ekiten dautsoe.

Gaur lako udagoiko egun baten, aita il egin yatan, ego-aize sorginlaria iparrerako bidean joiala. Olerkari benetakoa zan aita, olerkia borborka eriolako bera igarri barik, aurki, gauza eder eta gorenak berez darien antzera. Berak, inguratzen ninduana maite maite izaten irakatsi eustan, eta olan oartzeke, Bordazuri'ko edertasuna biotz eta gogoan sartu yatan. Bai, gaur lako gau baten, izarrek iñoizkorik gardenen dizdiratzen zirala, Yandur-arana'tik igarotean, izarren semeak aitaren arimea orbel bizia bai'litzan, izarren muga baiño urrunago eroan eban, betiereko bizi zeiten maitasun eta olerki-paradisua baten.

Idazti oneri amaia emoteko ordua da, baiña oraindiño zerbait barrutik yabilt, eta biotzetik lumara yatordan eskaera au sortzen yat...

—Ego-aize, izarren semea zaran orrek, Naparra'tik igaro zaitez an bakotxean Erribera'tik Auñamendi'rako bidean, piztu egizu lurralde onetako erritarren biotzetan, aitaren etxerako maitasun bizia. Its billakaturiko etxea sasiz eta asunez ondatuta dago: soruko olak usteltzen ari dira, eta teillatupean sagu-zaarrek abia egin dabe. Etxeko sutondoan, geldi ta isillik, Errauskiñe biurturiko Euskerea il-zorian aurkitzen da, semeek bera plazara atarateko adorerik ez dabelako. Batzutan jagiten da, eta ibillera kolokaz etxeko bazterrak arakatzen ditu semeai deika, baiña oneik etxetik joanak dira, beste etxe baten dizdir izunaren billa...

Egoko ondartza kiskalgarrietan jaio zaran izarren seme orrek,  
berotu egizuz napartarren biotzak, Erribeera'tik Auñamendi'rako  
bidean, eta gidatu egizuz uts billakaturiko aitaren etxera biurtu  
daitezen, eta Euzkadi'ko beste anaiekin aberrigintzari emon dagioen...

Eta alkarganako maitasunez, Naparra'ko ortzian agerturiko esku  
odoldua betiko ostendu daiten, eta Aberriko seaska ta iturburua  
izan dan lurralde onek, bere burua aurkitu dagian...

Udagoian, Bordazuri'ko bakean.